

EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA KRITIKA GENETIKOAREN ARGITAN:

ARESTI, SARRIONANDIA, SAIZARBITORIA ETA ATXAGAREN IDAZLANEN SORKUNTZA PROZESUA AZTERGAI

Mikel Ayerbe Sudupe

mikel.ayerbe@ehu.eus

orcid.org/0000-0003-0784-5535

Zuzendariak: Maria Jose Olaziregi Alustiza (UPV/EHU)

Aurélie Arcocha-Scarcia (UBM)

Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Université Bordeaux Montaigne
IKER-UMR 5478 (CNRS-UBM-UPPA)

2016

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- *Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Argitalpen Zerbitzua*
- University of the Basque Country - UPV/EHU Press
- ISBN: 978-84-9082-545-7

Jatorrizko eskuizkribuak eta poemen eta konposizioen zirriborroak nahi izaten nituen, artelan baten sorrerako forma biologikoez eta psikologikoez gehiago arduratu izan bainaiz betidanik, beste edozein formez baino. Trantsiziozko segundu misteriotsu batean, bertso-lerro edo melodia bat mundu ikusezin edo genio baten ikuskera eta intuiziotik atera eta mundu lurtarrean finkatzen da grafikoki. Une horretaz jabetzeko, ez dago maisuak ekinaren ekinez edota estasi egoera batean sorturiko jatorrizko testua baino hoberik. Artista bati buruz ez dakigu behar beste soilik haren obra amaitua ezagutzen badugu, eta bat nator Goetheren hitzekin, esaten baitzuen, sormen-lan handiak ulertu nahi izanez gero, amaiturik daudenean ez ezik genesian ere behatu behar direla.

Stefan Zweig, *Die Welt von Gestern*

ESKER ONAK

Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandiari.

Bereziki, Bernardo Atxagari eta Ramon Saizarbitoriari, Tesi ikerketa hau burutu ahal izateko zirriborroak eta aurre-testuak eskuzabaltasun erabatekoz emateagatik.

Era berean, Nagore Soroa eta Antton Soroari nahiz Meli Esteban eta Andere Aristiri, eskuizkribu gehiago eskuratzen lagundu eta idaz-materiala niri pasatzeagatik.

Marijo Olaziregiri eta Aurelia Arkotxari, etengabeko hartu-eman eta bilera, ezinbesteko iradokizun eta uneoroko zuzenketengatik.

Joana Pocheluri, bere tesia eskura jarri eta bibliografiarako oinarrizko liburuak uzteagatik.

Iñigo Astizi eta Iban Zalduari, Tesia irakurri eta emandako babes, aholku eta iradokizunengatik.

Eider Eibarri, transkripzio diplomatikoekin laguntzeagatik.

Olga Anokhinari, Pariseko BNF-en eta Institut de Textes et Manuscrits Modernes (ITEM)-en egindako egonaldia bideratzeagatik.

Baionako IKER laborategikoei eta bereziki, Ricardo Etxepareri, emaniko sostenguarengatik.

Gasteizko Psikolinguistika laborategikoei, eskuizkribuak eskaneatzeko emandako erraztasunengatik.

Bego Iriondori, Sancho El Sabio artxibategiko laginak lortzeagatik.

Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikerketa taldekideei.

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan eta Gasteizko Letren Fakultateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean lankide izan ditudanei. Bereziki, Amaia Munarriz, Ibon Manterola, Leire Diaz de Gereñu, Céline Mounole eta Ane Berrori.

Pilar Ajamili, bidetik ateratzen ez uzteagatik.

Volgako batelariei, egunero ondoan izateagatik.

Karmele Etxabe, Ibon Egaña, Olatz Arregi, Nagore Tolosa, Juanjo Olasagarre, Koruko Heras, Elena Aransay eta Parraleko bankukoei, bide lagun izateagatik.

Etxekoei, senideei, koadrilakoei eta adiskideei: ezin guztiok aipatu eta beraz, har dezala bakoitzak bere esker on zatia.

Joseba Lazkanori, bihotz-bihotzez.

AURKIBIDEA

0. SARRERA 1

1. KRITIKA GENETIKOA EDO TESTU GENESIA: TEORIAK ETA METODOLOGIA 5

1.1. KRITIKA GENETIKOAREN SORRERA, AURREKARIAK, AZTERBIDEAK ETA HELBURUAK..... 5

1.1.1. Kritika genetikoaren definizioa..... 5

1.1.2. Aurrekariak eta metodologiaren inguruko eztabaidak 6

1.1.3. Eskuizkribu modernoa ikergai 9

1.1.4. Zenbait zehaztapen terminologiko: *zirriborroa* eta *aurre-testua* 13

1.1.5. Idazketa moduak eta idazketa aldien banaketa..... 14

1.1.5.1. Erredakzio aurreko aroa..... 15

1.1.5.2. Erredakzio aroa..... 16

1.1.5.3. Argitaratze aurreko aroa 18

1.1.5.4. Argitalpen garaia 18

1.2. DOSIER GENETIKOAREN AZTERKETA: ESKUIZKRIBUEN ANALISIA ETA BERRERAIKETARAKO METODOLOGIA..... 19

1.2.1. Dosier genetikoaren mugak 19

1.2.2. Eskuizkribuen azterketarako baliabideak..... 19

1.2.3. Papera, orria, orrialdeak eta folioa 20

1.2.4. Zirrimarra..... 21

1.2.5. Gehiketa 22

1.2.6. Aldaera vs. berridazketa vs. zuzenketa 23

1.2.7. Dosier genetikoa egituratzeko urratsak..... 23

1.2.8. Ilusio teleologikoaren auzi paradoxikoa..... 25

1.2.9. Kritika genetikoa eta literatur kritika 26

1.3. EDIZIO GENETIKOAK..... 29

1.3.1. Zenbait aurrekari: Italiako aldaeren kritika eta Alemaniako edizio historiko-kritikoak..... 30

1.3.2. Tasun genetikodun edizioen tipologia 32

2. EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ETA KRITIKA GENETIKOA..... 37

2.1. EUSKAL LITERATURA ETA IKERKETA GENETIKOAK 37

2.1.1. Testu genetikan oinarrituriko lanak 37

2.1.2. Bestelako hainbat saiakera..... 38

2.1.3. Euskal literatura garaikideko testu eraldaketen eta berridazketen hainbat adibide..... 39

2.2. GABRIEL ARESTI: ARGITALPENETATIK AURRE-TESTUETARA 44

2.2.1. Arestiren ipuingintza eta antzerkigintza 45
2.2.2. Arestiren antzerkigintza: argitalpenak, gutunak eta aurre-testuak 48
2.2.3. Antzezlanetik nobelara: *Oilarganeko etxola batean>Peccata mundi* / *Mundu-munduan* . 55
2.2.4. Ondorioak 64
2.3. JOSEBA SARRIONANDIA: BERRARGITALPENAK SORKUNTZA-PROZESUAREN BILAKAERA GISA 67
2.3.1. *Narrazio guztiak (1979-1990)*: narrazio guztien bilduma baino gehiago 69
2.3.2. *Narrazio guztiak (1979-1990)*: aldaeren kritika 73
2.3.2.1. Hasierak 74
2.3.2.1.1.“Luigi Anselmi: figlio di un cane” narraziotik “Figlio di cane” narraziora 74
2.3.2.1.2.“Maggie indazu kamamila!” narraziotik “Maggie indazu kamamila” narraziora ... 79
2.3.2.1.3. “Enperadore eroa”-ren bi bertsioak eta aldaera berdinak 81
2.3.2.2. *Narrazioak* 84
2.3.2.3. *Atabala eta euria* 91
2.3.2.4. *Ifar aldeko orduak* 96
2.3.2.5. Ondorioak 104
2.3.3. Poesia lanen berridazketak, berrargitalpenak eta birmoldaketak 107
2.3.3.1. *Izuen gordelekuetan barrena* (1981), *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Izuen gordelekuetan barrena (1978-1980)* eta *Izuen gordelekuetan barrena* (2014) 107
2.3.3.1.1. *Izuen gordelekuetan barrena*: hastapen argitalpena (1981) 107
2.3.3.1.2. *Marinel zaharrak* (1987) 108
2.3.3.1.3. *Izuen gordelekuetan barrena*: berrargitalpena (2014) 110
2.3.3.2. *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Gartzelako poemak (1980-1985)*, *Gartzelako poemak* (1992) eta *Kartzelako poemak* (2011) 113
2.3.3.2.1. *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Gartzelako poemak(1980-1985)* eta *Gartzelako poemak* (1992) 113
2.3.3.2.2. *Kartzelako poemak* (2011) 115
2.3.3.3. *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)*: 1995ko edizioa vs. 2013ko berrargitalpena 117
2.3.3.4. Ondorioak 128
2.4. AUTOITZULPENGINTZA ETA KOLABORAZIO BIDEZKO ITZULPENGINTZA 130
3. RAMON SAIZARBITORIAREN *EGUNERO HASTEN DELAKO*REN SORTZE PROZESUA AZTERGAI 133
3.1. SARRERA 133
3.2. *EGUNERO HASTEN DELAKO*: 1968KO ESKUIZKRIBUAREN AZTERKETA 134
3.2.1. Deskribapen orokorra: orrialdeak eta zenbatze sistema 134

3.2.2. Eskuizkribuaren datazioa 137
3.2.3. Paratestua eta eskema 138
3.2.4. Testuaren ulergarritasuna, zirrimarrak eta bestelako zeinuak 139
3.2.5. Zuzenketa proposamenak 140
3.2.6. Egilearen zalantzak, izen aldaketak eta testu eraldaketaren adierazpenak 143
3.2.7. Berritsuaren solaskideen eta kokalekuen auzia 145
3.2.8. Bi planoen arteko erlazio-loturen auzia: *excipit* bat zirrimarratzearen ondorioak 150
3.2.9. Eskuizkribuaren eta 1969ko lehen argitalpenaren arteko erkaketa 155
3.2.10. Ondorioak 160
3.3. *EGUNERO HASTEN DELAKO*: 2007KO BERRIDAZKETAREN AZTERKETA 162
3.3.1. Berrargitalpenak 162
3.3.2. 2007ko berridazketa eta egilearen hitzaurrea 163
3.3.3. Berridazketaren eta aurreko bertsioen arteko alderaketa: aldaeren azterketa 165
3.3.4. Ondorioak 191
3.4. SAIZARBITORIAREN NARRATIBA ETA BERRIDAZKETEN GARRANTZIA 194
4. BERNARDO ATXAGAREN IDAZLANEN BILAKAERA GENETIKOA AZTERGAI 201
4.1. SARRERA 201
4.2. AURREKARIAK 202
4.2.1. *Ziutateaz* eta *Etiopia* 202
4.2.2. *Bi anai* 207
4.2.3. *Obabakoak* 210
4.2.4. *Zeruak* eta *Zeru horiek* 212
4.2.5. *Sara: Zumalakarregiren zelatari* eta *Sara izeneko gizona* 212
4.2.6. *Soinujolearen semea* 214
4.2.7. *Nevadako egunak* 218
4.2.8. Saiakerak: *Groenlandiako lezioa, Lekuak, Markak. Gernika 1937* eta *Muskerraren bidea* 220
4.2.9. Ondorioak 221
4.3. AURRE-TESTUEN AZTERKETA 223
4.3.1. Caryl Chessman: baztertutako aurre-testuetatik argitaraturiko lekukotzetara 225
4.3.1.1. Fitxen deskribapena 225
4.3.1.2. Transkripzioa 225
4.3.1.3. Caryl Chessmanengan oinarrituriko idazkiak 228
4.3.2. Camilo Lizardi: *incipit* baten azterketa 230

4.3.2.1. Aurre-testu multzoaren deskripzio orokorra 230
4.3.2.2. “Margarete” ipuinaren bilakaera 231
4.3.2.3. “Camilo Lizardi” ipuinaren aurre-testuak: ipuinaren bertsio zatikatua eta “Basurde zuria” izeneko incipit-a. 233
4.3.3. *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*: antzerkiaren bertsio argitaragabetik oholtzako bertsiora eta *Italiako zirku batean* ipuinera. 237
4.3.4. Ondorioak 242
5. ONDORIOAK 245
6. BIBLIOGRAFIA AIPATUA 255
7. ERANSKINAK 265

0. SARRERA

Idazlan oro idazketa prozesu baten emaitza da. Obra baten idazketa prozesuak obra horren sormen prozesuaren bilakaera biltzen du bere baitan. Baina literatura kritikaren arloan, eskuarki, "bukatutzat" jotzen den testuaren azterketa gailendu izan zaio bestelako literatur kritika bide batzuei, argitara emandako testu horretan ikusi nahi izan delarik sorkuntza prozesuaren beraren emaitzarik gorena, emaitza bakarra. Harreraren estetikak, besteak beste, hori salatu izan du hastapenetatik eta testuaren harrerak duen garrantzia izan du ikergai, idazketa-irakurketa fenomenoak ekintza berean batuz eta aztertuz. Edonola ere, testua izan da urteetan literatur ikerketen ezinbesteko oinarri, beti ere, testua euskarri aldakaitza dela ulertuz. Baina testua idazketa prozesu aldakor baten ondorioa izanik, egin bidean den testuak etengabeko eraldaketak izaten ditu eta bukatutzat ematen den testua ere –are, proiektu bati azken puntua ezartzea ere–, idazketaren bilakaerako urrats bat besterik ez da, azken urratsa agian, baina gainerako urrats guztiei gehitzen zaion urrats bat gehiago, finean.

Tesi-lan honetan, kritika genetikoak eskaintzen dituen teoriak eta metodologiak baliatuz, amaitutzat emandako testuak aztertzearekin batera, egin bidean dauden aurre-testuei ere erreparatuko diegu, idazketa prozesu zehatzen bilakaera eta garapen testuala zedarritzeko asmoz. Kritika genetikoak edota testu genesiak *idazketa prozesuaren berreraiketa* azaleratzea du oinarrizko helburu eta horretarako, ezinbesteko kontzeptua bilakatzen da *aurre-testu*arena. Aurre-testuak argitaraturiko (edo bazterturiko) testuaren aurrekari diren lekukotasun idatziak dira eta aurre-testuen azterketa zehatzari esker berreraikitzen den *dosier genetikoak*, berriz, idazketa prozesua azaleratzeaz gain, testuaren inguruko informazio eta interpretazio bide eraginkor ugari eskaintzen ditu. Hori dela eta, hipotesi nagusi gisa, ikerketa honen bidez kritika genetikoaren oinarriak aplikatuz testuaren nozio hertsia zabaldu nahi genuke, batetik, testuaren azterketari aurre-testuen azterketa gehituz.

Izenburuan zehaztu bezala, euskal literatura garaikideko autore zehatzen testu eta aurre-testuak izango ditugu aztergai. Izan ere, tesi-lan honen abiapuntua zuzendari eta bidelagun izan ditudan Mari Jose Olaziregik eta Aurelié Arcocha-Scarciak 2005an antolaturiko "Genesis de texto" EHUko Udako Ikastaroan kokatu behar da. Haren ondotik etorri zen ikerketa aurreratuen diploma eskuratzeko "Literatura eta Literatura zientzia" doktorego programaren baitan 2007an aurkeztu nuen *Kritika Genetikoa eta idazketa-prozesuaren berreraiketa* ikerlana. Eta ordudanik, euskal literatura garaikidearekiko nuen pasioari eskuizkribuekiko, zirriborroekiko, berridazketekiko eta azken batean, idazketa prozesua erakusten duten askotariko elementu eta kontzeptuekiko lilura etengabea gehitu zitzaion.

Dena den, euskal literatura garaikideko aurre-testuak eskuratzea ez da dirudien bezain erraza:

> Baldin bada gremiorik bere lanaren mekanismoaz arduratzen ez dena –itxuraz, behintzat–, idazleen gremioa dela esango nuke. Inork idazleek bere obrak sortzeko erabiltzen dituzten prozedurez zer dioten aztertu nahi badu, esperientzia nahiko etsigarria izaten da. Haietariko askorentzat *sukaldea* erakusteko eskaera oso erakargarria ez dela izango onarturik ere, normalean laino mehar batek estali ohi ditu ematen dituzten erantzunak, non sokaren mutur askoren arrastoa aurki baitaitezke inongo soka sendo eta etenik gabea osatzera iritsi gabe. Teoriak asmatzen ibiltzea ez da bere lana, bistan da. Bestalde, errezelo pixka bat badaukatela ematen du, bere errezetak eman nahi ez dituzten sukaldariak bailiran (Alonso 1995: 89-90).

Hori horrela, idazleen eta idazlanen corpusaren aukeraketa dela eta, euskal literatura garaikideko lau idazle kanonikoren aldeko hautua egin dugu: Gabriel Aresti, Joseba Sarrionandia, Ramon Saizarbitoria eta Bernardo Atxagaren idazlanak izango ditugu aztergai. Lan honen xede nagusia da,

beraz, genesi eta idazketa prozesuaren kontzeptuetatik abiatuz, Arestiren, Saizarbitoriaren, Atxagaren eta Sarrionandiaren idazlanen oinarrian dauden poetikak, sorkuntza hausnarketak eta berridazketa joerak azaleratzea da.

Corpusaren aukeraketarako arrazoiak asko izan badira ere, nagusiena ondorengoa izan da. Aurre-testuak eskuratzeak ekartzen zituen zailtasunak saihesteko, jadanik argitaratuta izan baina testu eraldaketa argiak bezain garrantzitsuak erakusten zituzten hainbat lanen egileak dira hautaturikoak. Izan ere, eta tesiko bigarren hipotesiari helduz, behin argitaraturiko lan bat ondoren etorriko den beste lan baten ernamuin, abiapuntu eta oinarri bihurtzen den unean, aurrez publikaturiko testua idazketa prozesu berriaren aurre-testu gisa ulertu beharko litzateke.

Eta hautaturiko lau euskal idazleen artean berridatziriko lan esanguratsuak aurkitu ditugu: Arestik *Mundu munduan* (1965) nobela idatzi zuen *Oilarganeko etxola batean* (1962?) antzezlana moldatuz; Sarrionandiak argitaraturiko poemen etengabeko berridazketak burutu izan ditu ondorengo zenbait poemariotan eta azkenaldian, gainera, berrargitalpenetan eginiko edizio berrituei esker, poemez gain ipuin denak ere berridatzi ditu *Narrazio guztiak* (2011) bilduman; Saizarbitoriak ere, 1969an kaleraturiko *Egunero hasten delako* nobela esanguratsua birmoldatu egin zuen 2007an, eta kontakizunaren une batetik aurrera, aldaera asko eta asko txertatzen ditu, hastapen testua nahikotxo antzaldatzeraino; eta azkenik, Atxagaren ibilbide literarioan berridazketa zantzuak agerikoak direla jakina da eta berridazketa horietako asko, gainera, euskal kritikariek jada ikertu dituzte. Lehendabiziko bi idazleen kasuan, ageriko arrazoiengatik, ez dugu idazleekin hartu emanik izan eta aldiz, Saizarbitoria eta Atxagaren kasuan, idazleengana jo dugu jadanik berridatziriko lanen inguruko lekukotza idatzi gehiago eskuratzeko. Azken bi idazle hauen ekarpena, beraz, ezinbestekoa izan da benetako aurre-testuak eskuratu eta ikerketa behar bezala burutzeko. Alonsoren aipuko gogoeta ezeztatuz, bi idazleok errezelorik gabe erakutsi digute euren sukaldea eta horrenbestez, idazleek bere obrak sortzeko erabiltzen dituzten prozedurak aztertzea, etsigarria beharrean, esperientzia erabat erakargarria izan da. Behin aurre-testuak eskuratuta, ordea, ez gara berriro idazleekin harremanetan jarri eta aurre-testuen ikerketa testu-analisi zorrotzaren bidez burutu da, testu markek diotenari soilik erreparatuz eta idazleen ondorengo esku hartzerik gabe.

Bestetik, kritika genetikoaren ikuspuntuan oinarrituz euskal literatura garaikidea aztertzen duten ikerketa (Pochelu 2008; Arcocha-Scarcia, Lluch Prats & Olaziregi 2010) etadoktore-tesien urritasuna kontuan izanik (Pochelu 2010), lan honek hasiberria den euskal testuen kritika genetikoari ekarpen berri bat egin nahi dio. Horren erakusle da, esaterako, testu genetikaren ikerlerroari loturiko euskaraz idatzi den aurreneko tesia dela honakoa. Era berean, tesi-lanak argitara eman gabeko aurre-testuen kontzeptua zabaltzeko eta amaituriko lan baten azterketari egin bidean den testuen azterketak egin diezaiokeen ekarpenaz jabetzeko balio izatea nahiko genuke.

Horrela, corpusaren hautaketan autore zehatz baten idazketa aldien azterketara mugatu beharrean, aipaturiko lau idazleren sorkuntza prozesuak aintzat hartzeak aurre-testuen eta zirriborroen ugaritasunaren eta sormen proiektu bakoitzaren berezitasunen berri ematen du. Idazle bakoitzak bere sortze bideak dituen bezala, proiektu literario bakoitzak ere bere berezitasunak dituen neurrian. Ondorioz, aurre-testuen eta berridazketen askotariko tipologien konplexutasunaz hausnarketa egiteko ere balio izan digu aukeraturiko corpus aberatsaren azterketak.

Tesiaren egiturari dagokionez, lehenengo kapitulua kritika genetikoa ikerlerroaren teoriak eta metodologiak azalduko ditugu. Idazketa prozesua azaleratzea litzateke ikerketa korronte honen muina: "ikergaia ez da testu ekoitzia izango, testuaren ekoizpena baizik" (Grésillon 1985). Horretarako, testu genetikaren bidez behin betikotzat jotzen den idazkiaren aurreko lekukotzak −koherenteki sailkatuak izan diren dokumentu idatziak, bereziki eskuizkribuak eta eskuizkriburik

ezean, tapuskritoak− aztertzen ditu. Liburu baten argitalpenarekin amaitutzat ematen den testuaren azpian dagoen sorkuntza-garapena ikertu asmo du, dokumentuetako aztarna eta markak interpretatuz.

Kapituluaren lehen atalean (1.1), kritika genetikoaren sorrera, aurrekariak, azterbideak eta helburuak bildu ditugu eta Frantzian garaturiko ikermoldearen bilakaera azaltzearekin batera, *eskuizkribu modernoa, zirriborroa, aurre-testua, dosier genetikoa* eta *idazketa aldien banaketa* bezalako kontzeptuak azalduko dira. Bigarren atalean (1.2), aldiz, dosier genetiko bat osatzeko eta eskuizkribu modernoen analisia burutzeko metodologiaren urratsak zerrendatu dira: bai lekukotza idatzien alderdi fisikoenari erreparatuz (orriaren xehetasunak, zirrimarra motak eta abar) eta baita kritika genetikoak literatur kritikarekin izan dituen harremanak azalduz. Azkenik, edizio genetikoen tipologia bat azalduko da (1.3).

Bigarren kapituluan, lehenik, testu genetikaren baliabideak erabiliz euskal literatura garaikidearen azterketan egin diren saioak aipatu ditugu (2.1) eta ondotik, Arestiren narratiba eta antzerki sorkuntzaren azterketari ekin diogu (2.2), argitaraturiko zenbait lanen artean ondorengo hainbat sorkuntza prozesuko aurrekariak aurkitu baitira eta beraz, aldaeren kritika eta testu genetika uztartzeko aukera baliatu da. Jarraian (2.3), eta beti ere argitaraturiko eta berrargitaraturiko lanak aztergai izanik, Sarrionandiak bere narrazio zein poema lanetan txertaturiko aldaera guztien erkaketa zehatza eskaini eta aldaketek poemak eta ipuinak nola antzaldatu dituzten aztertuko da, idazlearen bilakaera poetikoa eta narratiboaren berri emanaz.

Hirugarren kapituluan, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) nobelaren sortze prozesua ikertuko da. Atal hau osatzeko, ordea, ez ditugu argitaraturiko testuak soilik erabiliko eta horren erakusle da sarreraren osteko 3.2 atala, *Egunero hasten delako*ren 1968ko eskuizkribuaren aurre-testua ikertzen baita. Ondorengo atalean (3.3), aldiz, 2007an Saizarbitoriak berridatziriko nobelaren birmoldaketaren xehetasunak azalduko dira, berridazketaren eta aurreko bertsioen arteko aldaeren azterketa eskainiz. Azkenik, 3.4 atalean Saizarbitoriaren literaturgintzan berridazketek eta testuen arteko loturek duten garrantzia idazlearen gainerako hainbat lanetan aztertu dugu.

Laugarren kapituluan, aldiz, bere literatur ibilbidean berridazketaren askotariko adibideak aurki daitezkeen Atxagaren lanak izan ditugu hizpide. Sarreraren ostean, 4.2 atalean argitara emandako lanen artean berridazketek eta sorkuntza bilakaerek duten garrantzia nabarmendu dugu, jadanik egin izan diren ikerketetan zentratuz eta bereziki, testu genetikaren ezaugarriak azpimarratuz. 4.3 atalean, aldiz, Atxagak utzitako zein gure kabuz eskuraturiko zenbait aurre-testu eta zirriborroren analisia burutu dugu, aurreko azpiatalean berretsitakoa frogatzeko. Hots, aurre-testuen analasiaren bidez, Atxagaren ibilbide literarioan berridazketa ariketak sorkuntza prozesurako funtsezko bide izan direla berrestea, alegia.

Bosgarren kapituluan tesi-lan honetako ekarpen nagusiak bildu dira ondorioen atala osatuz eta seigarrenean, aldiz, bibliografia aipatua zehaztu dugu.

Azkenik, zazpigarren kapituluan eranskinak bildu eta testu-analisirako baliatu diren zenbait aurre-testu eta zirriborro eskaintzen dira, jatorrizko lekukotzen kopia eskanetuak batetik eta bestetik, zenbait laginen transkripzio diplomatikoak ere bai, eskuizkribuko testua ulergarriago eta irakurgarriago eginaz.

1. KRITIKA GENETIKOA EDO TESTU GENESIA: TEORIAK ETA METODOLOGIA

1.1. KRITIKA GENETIKOAREN SORRERA, AURREKARIAK, AZTERBIDEAK ETA HELBURUAK

1.1.1. Kritika genetikoaren definizioa

Kritika genetikoa, termino edo izendapen gisa, 1979an Louis Hayk zuzenduriko *Essais de critique génétique* lan kolektiboaren izenburuan agertu zen lehendabizikoz. Artikulu bilduman, Louis Aragon idazleak bere idatziak Centre National de la Recherche Scientifique-ri (CNRS) esleitu izanaren arrazoiak azaltzen zituen "D'un gran art nouveau: la recherche" artikuluan eta idazlearen eskuizkribuetan arakatzearen eta ikerketaren beharraren garrantzia nabarmendu zuen. Liburu berean, bestetik, kritika genetikoaren ikerketa eremua zedarritzeko hastapeneko lanetan ezinbestekoak izan ziren adituen lanak biltzen ziren: Raymonde Debray-Genette-k Flauberten idazlanak zituen ikergai, Jean Bellemin Nöel-ek Valéryrenak, Claudine Quémar eta Bernard Brun-ek Proustenak eta Henri Mitterrand-ek Zolarenak. Hay germanistaren "La critique génétique: origines et perspectives" *post-face* artikuluak ixten du liburua eta han, eskuizkribu garaikideen aztergaiaren eta azterketa metodo zehatz baten uztarketatik ondorioztatzen den ikerketa eremu eraberritzaile bat iragartzen eta aldarrikatzen du: "un nouveau champ de recherche –celui des études de genèse, qui traitent de la production des écrits et singulièrement des textes littéraires" (Hay 1979: 227). Horrenbestez, idazlanetako testua baino, testualizazioaren ekintza edota idazketaren prozesu sortzailea, "processus d'engendrement", ikertu nahi du kritika genetikoak, testuaren gauzatze, bilakaera eta garapenean denboraren nozioa aintzat hartu:

> L'intérêt s'est porté sur la double phénomène de représentation et de textualisation que será à l'œuvre dans l'écriture. Ce dernier concept, qui a joué un rôle important dans l'emergence d'une réflexion sur la genèse, s'est finalement ouvert à la réalité d'un déroulement *temporel*, d'une dimension historique à l'intérieur même de l'écrit (ibid.: 231).

Ikuspegi horren atzean datzan auzia zera da, literatur obra baten testu "definitiboa" lanketa mailakatu baten ondorioa dela, idazketa-aldi jarraitu edota txandakatuaren emaitza, alegia. Eta denboran zehar garatzen den idazketa prozesu horren zantzuak ikertzea da kritika genetikoaren xede nagusia, idazketa-aldian landuriko lekukotasun idatzietako aztarnak ikertuz. Ikuspuntu aldaketa bat da, azken batean, proposatzen dena: egileari baino idazleari eta idazten duenari erreparatzea, idazlanari baino idazketari, egituari baino egituratze prozesuari, eta finean, obrari baino genesiari edo ernalketari.

Hau da, "amaituriko" testu ekoitziari baino, "eginean" ekoizten den testu sorkuntzari. Beraz, "amaituriko" testuaren ordez, "*in statu nascendi*" (Hay 1979: 236; Grésillon 1994), "devenir texte" (Biasi 2011: 11), "*in fieri*" (Pastor 2011: 10), "escritura *in progress*" (Lois 2005: 53) edota ernamuinean zein sortze bidean mugimendua adierazten duten ekintzek hobeto islatzen dute ikerketa honen aztergaia. Izan ere, kritika genetikoaren definizio orokor gisa, honako proposamena balia daiteke:

> El objetivo de análisis de la crítica genética son los documentos escritos –por lo general, y preferiblemente, manuscritos– que, agrupados en conjuntos coherentes, constituyen la huella visible de un proceso creativo. Se la suele definir como el estudio de la prehistoria de los textos literarios, es decir, el desciframiento, análisis e interpretación de los papeles de trabajo de un autor, de los materiales que preceden a la publicación de una obra presuntamente "terminada" (ibid.: 56).

Izendapen kontuak direla eta, zenbait adituk *testu genetika* eta *kritika genetikoa* esapideen adierak bereizi izan dituzte. Horrela, Pierre Marc de Biasik (2011: 12) eskuizkribuen azterketa, sailkapen, deszifratze eta edizioaren argitalpenerako mugatzen du testu genetika terminoa; aldiz, kritika genetikoa aurrez azterturiko materialaren analisiaren interpretazio kritikorako soilik erabiliko du. Kontrara, beste zenbait adituk, Almuth Grésillonek edota Hayk kasu, kritika genetikoa terminoa bereizketarik egin gabe darabilte. Grésillonek argudiatzen du testu genetika esapidea erabilgarria izan daitekeela testua ikerketa genetikoaren oinarri ez den kasuetatik bereizteko (demagun, musika, arkitektura, ikus-entzunezko ekoizpenen kritika genetikoko ikerketekin alderatzeko). Baina, bestelakoan, ikerketa genetikoaren funtsa eta oinarria testuaren sorkuntza bidea denean, sinonimotzat ulertzen ditu testu genetika eta kritika genetikoa. Era berean, ikerketa alor berri baten garapenerako terminologia egonkor bat izatea garrantzitsua delakoan dago. Azkenik, gaineratzen du, kritika genetikoa terminoak aparatu deskriptibo soil bati baino, ikermolde kritiko baten bilakaerari egiten diola erreferentzia; besteak beste, testua soilik gailentzen ez den gainerako ikerketa genetikoak ere (antzerki lanetan edota musika partituretan oinarriturikoak, kasu) baztertzen ez dituen neurrian (Grésillon 2007: 30).

1.1.2. Aurrekariak eta metodologiaren inguruko eztabaidak

Edonola ere, kritika genetikoa izendapenaren agerpena baino lehenagoko aurrekariak aztertzea ere ezinbesteko zeregina da. Izan ere, 1972an Bellemin-Nöelek *aurre-testu* kontzeptu fundatzailea aurkeztu eta landu zuen *Le Texte et l'avant-texte: Les brouillons d'un poème de Milosz* lanean. Aurre-testua kritika genetikoa gauzatzeko ezinbesteko kategoria deskriptiboa bihurtu zen ordudanik eta testuen genesiaren azterketa burutu ahal izateko metodologia zehatz bat ezarri zuen, testuaren kategoriari kontrajartzen zaion kategoria buruaski gisa. Aurre-testuek ez dute testu izaerarik, "testuaren matrizeak" (Ferrer 1998: 28) izango dira gehienez ere, "testu definitiboak" bere baitan bildu eta egonkortzen dituen heinean. Beraz, aurre-testuaren definizioa honakoa litzateke: "L'ensemble constitué par les brouillons, les manuscrits, les épreuves, les "variantes", vu sous l'angle de ce qui

précède matériellement un ouvrage quand celui-ci est traité comme un texte, et qui peut faire système avec lui" (Bellemin-Nöel 1972: 15).

Lehenik eta behin, kritika genetikoaren baitako hastapen lanak 1950-1960ko hamarkadetako eraldaketa eta sistematizazio epistemologikoaren ondoriotzat hartu behar dira. Izan ere, aurre-testuaren ideiak bete-betean eraldatzen du estrukturalismoak bere egiten zuen testu itxi, egituratu eta beregainaren kontzepzioarekin. Frantzian, estrukturalismoaren ekarpenen ondotik, formalismo errusiarraren eta Jakobsonen analisietara lerratzen dira Barthes eta Tel Quel taldekoak Testuaren Teoriak proposatu eta hizkuntzalaritzako baliabideak bereganatzeko unean. Esan bezala, ordea, kritika genetikoak testuaren teoriari aurre-testuaren dimentsioa gehitzen dio, eta eraldaketa horrek berekin dakar ordura arte testuan oinarrituriko ikergaien eraldaketa ere:

> L'avant-texte est à beaucoup d'égards le complémentaire du texte, mais cette complémentarité implique incompatibilité et exclusion réciproque, et la mise en place d'un cadre théorique autonome pour les études de genèse a certainement souffert de cette référence au texte, aussi "bloqueante" à terme qu'elle était stimulante dans l'immédiat (Lebrave 1992: 34).

Dena den, kritika genetikoaren hastapenetan frantziar estrukturalismoak garrantzi handia izan zuen eta Hayren hitzetan gehiago izan da garapen edo bilakabide bat apurketa bat baino: "Il s'agit plutôt d'une évolution: les relations auxquelles le structuralisme s'intéresse sont, par lui, inscrites dans un cadre formel, alors que la génétique va les inscrire dans un processus temporel" (Hay 2007: 18).

Grésillonek (2009: 11) ere argi du estrukturalismotik eratorritako zenbait kontzeptu ezinbestekoak izan direla kritika genetikoaren oinarrien teorizaziorako, hala nola, "aztarna" eta "banaketa" (Derrida), "genotestua" eta "fenotestua" (Saunjam eta Kristeva), "transformazioa" (Chomsky), eta "polifonia" (Bakhtin); eta baita beste zenbait lanen ekarpenak ere, Umberto Ecoren *L'œuvre ouverte* edota Micael Foucault *L'archéologie du savoir* kasu. Eta halere, haustura gabeko tradizioaren garapenaren alde egin arren, Hayk aitortzen du kritika genetikoak "changement de paradigme" bat ekarri zuela berekin eta kritika genetikoa terminoa aurrenekoz agertu zenetik ia hogeita hamar urtera, ondorioztatzen du: "la critique génétique pourrait assez aisément revendiquer un statut de théorie à part entière: elle possède ses objets, ses methodes, ses concepts propres" (Hay 2007: 26).

Edonola ere, kritika genetikoaren sorrerari egotzi zaizkion kritiken artean, filologiarekin eta testu kritikarekin dituen antzekotasunek eragindakoa izan da aipagarriena, nabarmenena. Lebraveren 1992ko artikuluaren izena esanguratsua da, inondik ere: "La critique génétique: une discipline nouvelle ou un avatar moderne de la philologie?". Kritika genetikoaren metodologia filologiaren baitako metodologia eraberrituen esparrukoa dela aldarrikatzen dutenei (Falconer, Molino eta Espagne, bereziki) erantzuten saiatzen da Lebrave. Horrela, ondorioztatzen du, kritika genetikoaren eta filologiaren lantresnak antzekoak izanik ere (eskuizkribuak aztertzeko behaketa eta ikerketa

metodologia sakon eta zehatza), helburuan datzala bi ikerketa lerroen desberdintasunik nabariena. Filologiak, oro har, eskuizkribuen artean jatorrizkoa eta autorearen intentziotik hurbilenekoa litzatekeen *Urtext* edo *arketipoa* den testuaezartzea du xede, jatorrizko testutik eratorri diren gainerako lekukotasun apografoak aztertu, Karl Lachmannek proposaturiko *stemma*ren metodologia egituratu eta kopien arteko aldaerak ikertu ostean. Kritika genetikoak, ordea, beti ere eskuizkribu modernoak aintzat hartuta, lehenik eta behin "behin betikotzat" hartzen den testua kolokan jarri –"Peut-être faut-il tenter de penser le texte comme *un possible nécessaire*, nécessaire par l'exigence d'une forme, possible par ses autres incarnations" (Hay 2002: 58)– eta testu horren aurrekariak aztertzea du helburu, idazketaren garapen eta bilakaera nola gauzatu den lekukotza idatzien bidez azaltzeko asmoarekin. Nolabait, testua bere baitan itxi beharrean, testu horren baitako bestelako aurre-testuak bilakatzen dira ikergai eta irakurketa aukerak ugaltzearekin batera, idazketaren balizko bilakaera guztiak iragarri eta lekukotzea da xede nagusia. Horrenbestez, filologiak eta edizio kritikoek *Testua* ezartzea bilatzen dute, eta kritika genetikoak testuaren aurreko lekukotza idatziak bilatu eta ikertu nahi ditu, idazketa prozesua nola garatu den ikertzeko. Bestalde, bi ikerlerroen arteko bestelako metodologia desberdintasun batzuk ere agerikoak dira: ez da ekintza bera kopista apografo baten jatorrizkoaren erreprodukzio lana edota idazle garaikidearen obra autografo baten sorkuntza ariketa; ezta ikergaiak ere, batean testu baten kopiak aztertzen baitira, eta bestean jatorrizko zirriborroak.

Kritika genetikoa filologia modernoaren bilakaeraren ondorioa dela argudiatzen dutenek, XX. mende hasierako zenbait ikertzaileren azterketak baliatu izan dituzte kritika genetikoaren aitzindari gisa aurkezteko. Horrela, Lansonen (1930), Albalaten (1903) eta Cousinen (1840) lanak xeheki aztertzen ditu Lebravek eta, izatez, eskuizkribu modernoekin lan egin bazuten ere, euren ikerketen asmoak kritika genetikoaren asmoen oso bestelakoak zirela ondorioztatzen du. Era berean, Biasik (2011: 37-53) Rudlerren (1923), Audiaten (1924), Lansonen (1930) eta Thibaudeten (1939) lanak aintzat hartuz, ondorio bera ateratzen du. Bestetik, Lebravek berresten du Crocek eta, bereziki, Continik 1937 eta 1968 artean garaturiko *variantistica* edota aldaeren kritika ere bere azterketaren jomugan kokatu eta antzera, aldakien kritikak eta kritika genetikoak ez dituztela helburu eta azterketarako metodo berak jarraitzen. Izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, oro har, kritika genetikoak ez du bere egiten aldaera terminoa eta berridazketa da aldaerari gailentzen zaion kontzeptua. Soilik salbuespen modura onartzen da aldaeraren kontzeptua, Continiren adierari jarraiki, argitaraturiko obra beraren bertsioetan aurki ditzakegun aldaketak izendatzeko, hain zuzen.

Bestalde, kritika genetikoaren sorrerari eginiko bestelako hainbat kritikari aurre egin eta erantzuten saiatu zen Hay 1994an "Critiques de la critique génétique" artikuluan eta auzi teorikoak alde batera utziz, babesten du zenbait idazlek euren eskuizkribuekiko izan duten jarrera izan dela kritika genetikoaren aurrekari nagusienetako bat. Izan ere, hainbat idazle izan ziren euren eskuizkribuei erreparatu, garrantzia eman eta idazketaren sortze prozesua aintzat hartu zuten lehenetarikoak. Poeren *The Philosophy of Composition* (1846) lana adibide paradigmatikoa da, poetaren asmo eta

ekintzak nabarmentzeko *The Raven* poemaren sorkuntza prozesua maila teoriko batean berreraiki eta birsortu nahi izan baitzuen (1856an Baudelairek itzuli zuen frantsesera berak idatziriko sarrera batekin eta *Genèse d'un poème* izenburu esanguratsuarekin)[1]. Ezaguna da, bestetik, Flauberten honako esaldia ere, Louise Colet adiskideari 1852ko apirilaren 15ean gutun bidez adierazten diona: "Quand mon roman sera fini [...] je t'apporterai mon manuscrit complet par curiosité. Tu verras par quelle mécanique compliquée à faire une phrase". Era berean, Mallarmé, Valery eta beste hainbat autore frantses esanguratsuk idazketarekiko eta sorkuntza prozesuarekiko izan duten atxikipena ere agerikoa da euren lanetan. Eta denborak aurrera egin ahala eta eskuizkribuek balio erantsia bereganatu ahala, Francis Pongeren *La Fabrique du Pré* (1971) bezalako lanak argitaratuko dira Frantzian; *Pré* poema eta poema sortzeko idatziriko lekukotasun eta aurre-testuak elkarrekin argitaratu zituen, eta horrela aurre-testuek testuarekin alderatuz duten aitzindari izaera berretsi zuen, eta era berean, irakurgarri egin zituen.

Izan ere, kritika genetikoaren metodoa *praxis* baten ondorioz eratu zen nagusiki. 1968an, Louis Hayri esker, Frantziako Liburutegi Nazionalak Heinrich Heine idazlearen eskuizkribuak bereganatu zituen eta Hay izan zen eskuizkribuok ikertzeko germanista talde bat gidatu zuena. 1974an Centre d'Histoire d'Analyse des Manuscrits Modernes (CAM) sortu zuen Hayk, hainbat ikerketa talderen eskutik Heine, Balzac, Hugo, Proust, Zola, Flaubert, Valéry, Joyce, Sartre eta beste hainbat idazle kanonikoren eskuizkribuen corpusak aztertzeko. 1982an, ordea, Bibliothèque Nationale de France eta École Normale Supérieure instituzioekin bazkidetzan, Centre national de la recherche scientifiqueren (CNRS) baitako laborategi bilakatuko da CAM eta Institut de Textes et Manuscrits Modernes (ITEM) gisa birbataiatuko da. Egun, ITEMen baitan gaika antolaturiko eta ikerlerro zehatzen inguruan (literatura, filosofia, hizkuntzalaritza, ikus-entzunezko arteak...) biltzen diren ikertaldeak arduratzen dira kritika genetikoaren azterbideetan urrats berriak emateaz. 1992. urteaz geroztik argitaratzen duten *Genesis. Revue internationale de critique génétique* aldizkaria ere baliabide egokia bilakatu da ikerketa genetikoetan egiten diren garapenen berri emateko. Eta nahiz eta. Besteak beste, Amos Segalari esker 1984an sortu eta gaur egunera arte, gaztelaniaz, portugesez eta frantsesez idatziriko 64 literatur obraren argitalpen kritiko-genetikoaz arduratu dira[2].

1.1.3. Eskuizkribu modernoa ikergai

Esan bezala, kritika genetikoak, lehenik eta behin, idazlearen sorkuntza prozesuaren baitan lekukotzen diren aztarna idatziak bilatu eta katalogatu behar ditu eta, ondoren, testuaren ekoizpen-ekintza azaleratu eta interpretatzea du xede. Horretarako, ezinbestekoa da "definitibotzat" jotzen den

[1]Gurean, Joseba Sarrionandiari zor diogu lan honen gaineko dibulgazio eta hausnarketa, *Marginalia* izeneko bere saio liburuan Poeren sortze prozesuaren inguruko kontzepzioa Miranderen poesiarekin alderatzen duenean.
[2]*ARCHIVOS* bildumaren historia, bilakaera eta ezaugarriei buruz informazio zehatza ondorengo lan monografikoetan aurki daiteke: Colla, F. (koord.), (2005), *ARCHIVOS. Cómo editar la literatura latinoamericana del siglo XX*, Poitiers: CRLA-Archivos eta Lois, É. (2012), "Los estudios de la crítica genética en el campo de la literatura hispanoamericana" in Vauthier, B. & Gamba Corradine, J. (2012), *Crítica genética y edición de manuscritos hispánicos contemporáneos*, Salamanca: Universidad de Salamanca.

inprimatutako testuaren aurreko uneko idazkiak erabiltzea, aztarnarik gabeko idazketa-aldien ikerketa egitea ezinezkoa baita. Beraz, idazketa urratsak dokumentatu eta interpretatu ahal izateko denboran zehar garatzen eta testu bihurtzen joan diren idazkiak izango dira ikergai nagusi. Idazki hauek eskuizkribuak dira, *eskuizkribu modernoak*, hain zuzen. Eskuizkribuaren kontzeptuak ere bilakaera historiko bat jasan duelako eta eskuizkribu modernoaren nozioa ez baita sinplea. "Nozio hibrido" gisa izendatzen du Biasik (2011: 12): objektu berri bati egiten dio erreferentzia batetik (ordura arte ez zuen eskuizkribuaren estatus eraberritu bati, alegia) eta bestetik, errealitate enpiriko baten mugarri historikoa markatzen du (estatus berridun dokumentuak bi mende eta erdiko epealdi batean kontserbatu baitira).

Jakina da, 1455an Gutenbergek inprenta asmatu arte, eskuizkribuak zirela, lehenik papiroan eta ondoren papereko euskarrian, kulturaren, komunikazioaren eta ezagutzaren transmisio bideetako bat. Aro modernoaren hastapenak zedarrituko dituen Gutenberg aurreko aroan, filologia klasikoaren ikergai izan diren idazkiak kopistek eginiko eskuizkribuen bidez hedatzen ziren eta eskuz eginiko kopiak izaki, eskuizkribu bakoitzak izaera bakar eta propio zuen. *Eskuizkribu klasikoa*, ondorioz, unean uneko sorburu edo jatorrizko eskuizkribuaren gainean eginiko kopistaren bertsio partikularraren emaitza gisa ulertu behar da. Eskuizkribuen bertsio ugalketak, ordea, testuaren eta idazkien ugalketa zekarren berekin, eta nolabait esatearren, berridazten ziren testuek izaera plurala bereganatzen zuten eskuz esku eginiko kopia bakoitzak bere izaera propio eta beregaina mantendu arren. Inprentaren asmakuntzak errealitate hau eraldatu egingo du, baina ez da bat-batean gauzatuko den bilakaera bat izango.

Izan ere, inprentaren sorrerak eta lehen liburu inprimatuen agerpenak (inkunableak) kultura iraultza bat ekarri zuten: ordura arte ezbaian jartzen zen kopiaren jatorrizkoarekiko fideltasunaren auzia errotik erauzten zuen liburu inprimatuaren erreprodukzio moduak, jatorrizkoaren kopia zehatza eskaintzen baitzuen. Halere, eskuizkribuaren tradizioak jarraipena izango du eta liburu inprimatua ez da XVIII. mendera arte egonkortuko testuen difusio publikorako euskarri gisa, inprentan jazoko diren aurrerabide teknologikoak gauzatu arte. Horrela, liburu inprimatuen gauzatze masiboa ahalbidetzen den neurrian, pixkana-pixkana eskuizkribuak utzi egingo dio kultura transmititzeko euskarri izateari eta liburu inprimatuak ordezkatuko du zeregin hori. Eskuizkribuak, ordura arte ez bezala, bestelako izaera bat bereganatuko du eta une jakin batetik aurrera, egilearen eskuz sorturikoa denez, eta idazketaren alderdi pribatuarekin lotuko da eskuizkribu modernoa. Eskuizkribu autografoa jada ez da kultura transmititzeko bide, idazlearen idazmahaian gauzatzen den eta argitaratzen ez den idazlan bihurtu baita.

Inprimategiak eragindako kultura eraldaketa sakonak bi unibertso berezituren banaketa ere eragiten du, beraz: eremu pribatuarena eta eremu publikoarena. Liburu inprimatua eremu publikora zuzenduta dago eta irakurleei eskaintzen zaie etengabe erreproduzitu daitekeen aldaerarik gabeko

testu egonkortua; aldiz, eskuizkribu aldakorra jada eremu pribatuko elementu bat da. Bi eremuen artean, eskuizkribuaren eta testu inprimatuaren artean, oposizio bat gertatzen da, testuaren eta testuaren aurreko fasearen artekoa, harreraren eta ekoizpenaren artekoa, baina bi eremuen arteko lotura nabarmena da: "La naissance du texte est donc aussi naissance des documents de genèse, qui en sont comme complémentaire, l'envers ou le symétrique" (Lebrave 1992: 44).

Eraldaketa hori gertatzeko, era berean, idazleen egiletzaren eta autoritatearen inguruko kontzeptuen bilakaerak ere zeresan nabarmena du, besteak beste, erromantizismo garaian garaturiko inspirazio, jenio eta musak gisako kontzeptuak albo batera utzi eta idazketa eta egilearen obra lanketa intelektualaren ondorio gisa ulertzen direlako. Eskuizkribuak dira egin bidean doan obraren lekukotzak eta apurka-apurka, egilearen irudiak bezala, eskuizkribuak ere bestelako estatus bat hartuko du: zenbait idazle euren eskuizkribuei garrantzia ematen eta eskuizkribuak gordetzen hasiko dira batetik, eta bestetik, zenbait idazle kontsakraturen eskuizkribuak objektu desiragarri bihurtuko dira hainbat bildumagilerentzat, literatura adituentzat eta hainbat erakunderentzat. Cerquigliniren (1989:24) hitzetan adierazteko: "Le brouillon devient désirable, quand le texte se fige et son auteur a des droits". Horrela, ezaguna da XVIII. mendeko Goetheren edo Schillerren eskuizkribuen kasua Alemanian. Frantziako tradizioari dagokionez, Grésillonek (1994: 32-105) eskuizkribu modernoen bilakaera historikoa eta kasu konkretuak aipatzen ditu eta Victor Hugoren kasua nabarmentzen du. Izan ere, autore frantziarraren eskuizkribuekiko atxikimendua ikaragarria izan zen eta horren adierazle da berauek kontserbatzeko 1881an eginiko dohaintza: "Je donné tous mes manuscrits, et tout ce qui sera trouvé écrit ou dessiné par moi à la Bibliothèque Nationale de Paris, qui sera un jour la Bibliothèque des Etats-Unis d'Europe" (ibid.: 94-95)[3]. Horrenbestez, liburutegiak eta artxibategi publiko zein pribatuak egileen eskuizkribuak eskuratzen eta gordetzen hasiko dira eta XIX. mendearen hasieratik aurrera, eskuizkribu modernoaren "instituzionalizazioa" (Biasi 2011: 19) jarriko da abian.

Liburutegietan edota bestelako instituzio zien artxiboetan aurki ditzakegun dokumentu idatziak, beraz, honela sailka ditzakegu, euren izaera historikoa zein tipologikoa aintzat hartuta: "Écrits publics manuscrits: ce sont les manuscrits anciens et médiévaux; écrits publics non manuscrits: ce sont les imprimés; écrits non publics manuscrits: ce sont les manuscrits modernes" (Lebrave 1992: 38).

Eskuizkribu modernoaren mugarri historikoari dagokionez, berriz, Biasik (2011: 21-30) ikergaiaren *terminus a quo* eta *terminus ad quem* ezartzen ditu, eskuizkribu modernoa garai historiko eta epe zehatz batera mugatzen den elementua dela ondorioztatuz. Horrela, *terminus a quo* gisa 1750. urtea aipatzen du, data hori baino lehen nekez aurkitzen baitira eskuizkribu modernoak, salbuespen gutxi batzuk salbu (frantziar tradizioan Montaigneren *Essais* edota Pascalen *Pensées* kasu). Esan bezala, garai

[3] Era berean, eskuizkribu modernoaren bilakaera historikoa eta kasu konkretuak ezagutzeko, zinez aholkatzen dugu "Le manuscrit moderne: objet matériel, objet culturel, objet de connaissane" (Grésillon, 1994: 32-105).

horretara arte idazketaren lanak ez zuen bestelako baliorik. Bestalde, kritika genetikoaren ikergai gisa, eskuizkribu modernoaren *terminus ad quem* data bat ezartzen ere saiatzen da Biasi, idazketa ohituretan jazo den bestelako eraldaketa teknologiko eta kulturalari jaramon eginez. Hain zuzen, 1990. urteaz geroztik ordenagailuak eragindako eraldaketez ari da, eta ordenagailuak eskuizkribu modernora ekarri dituen aldaketak hartzen ditu aintzat, eskuizkribu modernoaren desagerpena ekar dezakeelako. Euskarri gisa papera alboratu eta pantaila nagusitzeak berekin dakar idazketa ohituren eraldaketa eta ondorioak ateratzeko oraindik goizegi bada ere, eskuizkribuak eta papera euskarri gisa garrantzia eta estatusa galtzen hasi direla jada nabari daiteke. Egia da, idazleek papera baliatzen jarraituko dutela oraindik ere sorkuntza prozesuaren baitan oharrak hartu, eskemak egin, eta bestelako jardueretarako. Baina testu prozesadore eta ordenagailuko pantailan idazten da gehienbat eta, ondorioz, eskuz idatzitako idazlanetan markatuta geratzen diren aztarna fisikoak ez dira gehiago ikusgarri eta aztergarriak izango, ordenagailuak bestelako sorkuntza bideak eskaintzen baititu (azkarragoak zentzu guztietan, baita desagerrarazteko ere). Gainera, euskarri gisa paperak izate fisiko bat du eta ondorioz, espazio bat okupatzen du; aldiz, ordenagailuak sorturiko dokumentuak birtualak dira eta okupatzen duten espazioa ere birtuala da, pantailaren baitakoa, inprimatzen ez badira, noski.

Bitxia da, aurrerago sakonduko dugun bezala, ordenagailuaren garapenak kritika genetikoaren ikerketa eremuan paradoxa itzel bat ekarri izana berekin. Alde batetik, idazketa ohiturak aldatzeak eskuizkribuen ikergaia guztiz eraldatu eta desagerrarazi dezake. Baina bestetik, ordenagailuari eta hipertestu edo leihoaniztasun ("multiventanaje") zein bestelako berrikuntza teknologikodun baliabideei esker, orain arte ezinezkoak ziren ikerketa genetikoen edizio digitalak gauzatu dira.

Halere, ordenagailuaren asmakuntzaren aurretik eskuizkribuen sorkuntzak eta idazketa moduek izan dute aldaketarik. Testu prozesadore gisa, ordenagailuaren aitzindaritzat har daitekeen makinizkribua da horren lekuko, eskuizkribuak sortu beharrean, tapuskritoak edo daktilografikoak sortzen baititu (ondoren ordenagailuak egin bezalatsu). Aurrez aipatutiko eskuizkribu klasiko, moderno eta liburu inprimatuei egotzitako ezaugarriak direla eta, Lebravek aurrez aipaturiko zerrenda osatu eta tapuskrito zein lekukotza daktilografikoak "écrits non publics non manuscrits" (1992: 38) gisa deskribatzen ditu. Izan ere, orrialde daktilografikoak zein tapuskritoak obra baten genesiaren idatzizko lekukotasunak dira. Idazleak eskuz ez idatzi arren, idazlearen eskutik sorturiko lekukotzak baitira. Eta garrantzitsuena, eskuizkribu modernoez ari garenean, ez da dokumentuok eskuz idatzita egotea, baizik eta idazlearen esku hartzea lekukotzea eta finkatzea sorkuntza prozesuan. Izan ere, eskuz idatzi gabeko inprenta frogek, zuzenketak ageri dituzten tapuskritoek eta eskuz idatziak ez izan arren idazlearen esku hartzea azaleratzen duten lekukotza idatziek ere eskuizkribu izaera izan dezakete.

1.1.4. Zenbait zehaztapen terminologiko: *zirriborroa* eta *aurre-testua*

Esan bezala, aurre-testuaren kontzeptuak 1972an ikusi zuen argia Bellemin-Nöelen eskutik eta, hain justu, 1997ko "Réproduir le manuscrit, présenter les brouillons, établir un avant-texte" izen argigarriko artikuluan, aurrez landuriko kontzeptuak are gehiago mugatzen eta definitzen saiatu zen. 1972an bi sistema paralelo proposatu bazituen –"brouillon *vs* œuvre, avant-texte *vs* texte" (Duchet 1985: 250) –, 77ko saio eraberrituan bereziki, eskuizkribua, zirriborroa eta aurre-testua bereizten eta zehazten saiatzen da.

Eskuizkribu nozioari dagokionez, aurrez landuriko eskuizkribu modernoaren definizioa gailentzen da artikuluan: "le manuscrit est un ensemble de supports matériels portant du texte, qui sont fixés-reproduits par un conservateur pour assurer l'authenticité d'un écrit et en faire l'objet d'un culte" (Bellemin Nöel 1977: 9).

Horrela, zirriborroei eman dakiekeen balioa euren amaigabetasunean datza: zirriborroak zerbait sortzeko bitarteko direlako dira baliagarri bere horretan, egin bidean den hori erakusten dute egin bidearen une zehatz horretan, eta ondorioz, idatzitakoaren historiaren parte dira, kronologia bat zehazteko eta testuaren sorkuntza prozesuaren berri emateko erabilgarri baitira. 1998ko Biasiren "Qu'est ce qu'un brouillon? Le cas Flaubert" artikuluak ere bete-betean heltzen dio zirriborroaren gaiari, eta eraldaketa-kate genetikoan katebegi esanguratsuena dela adierazten du, hain zuzen: "le moment de textualisation qui constitue la médiation entre le projet initial de l'œuvre et le texte définitif" (Biasi 1998: 31). Zirriborro kontzeptuaren zentzu zabalenaz ari da, noski, artikuluan "brouillons de l'œuvre et brouillon rédactionnel" bereizten baitira, azken erabilera hori aurre-testuetako izaera jakin bateko zirriborroetarako soilik mugatuz. Terminoaren kontzepzio zabal horrek sor lezake, agian, eskuizkribu moderno kontzeptuarekin nahasmenik, baina izatez, "le mot 'brouillon' évoque, bien mieux que celui de 'manuscrit', l'idée d'une écriture en gestation, traversée de ratures et d'hésitations et d'un préalable nécessaire à l'achèvement de l'œuvre" (Grésillon 1994: 73). Eta beraz, zirriborroaren definizioa ondorengoa litzateke:

> Le brouillon désigne donc au sens strict les documents relatifs à la fonction rédactionnelle de textualisation; mais cet ensemble d'autographes reste en constante interaction avec d'autres manuscrits de travail dont les fonctions (structuration, documentation) agissante profondément sur la textualisation (Biasi 2011: 74).

Bellemin-Noëlek, zirriborro eta aurre-testu terminoen definizioen arteko bereizketari dagokionez, artikuluaren izenburuko "établir un avant-texte" esaldiko aditzean jartzen du enfasi osoa, aurre-testua ikuspegi kritiko batez berreraikitako *constructum* bat delako. Horrenbestez, aurre-testua ezartzea irakurketa kritiko baten ondorio da, behin genesi dokumentuak eta zirriborroak finkatu ostean egiten den azterketa kritikoaren emaitza, alegia: "Un avant-texte est une certaine reconstruction de ce qui a

précédé un texte, établie par un critique à l'aide d'une méthode spécifique, pour faire l'objet d'une lecture en continuité avec le donné définitif" (Bellemin-Noël 1977: 9).

Grésillonek, aurre-testu terminoa ontzat ematen du paratestu, intertestu eta testu hitzarekin sorturiko eta elkarturiko bestelako nozioekin konkordantzia logikoa erakusten duenelako baina, alta, ez dator bat ikuspegi horrekin aurre-testuari Bellemin-Nöelek ezartzen dion berreraiketa kritikoaren auziarekin. Alde batetik, badirudielako berreraiketaren auziak aditzera ematen duela ez dagoela zertan testuaren aurreko lekukotza guztiak bildu beharrik aurre-testu bat ezartzeko eta, bestalde, Grésillonen ustez azterketa genetikoaren baitako urrats guztiek eskatzen dutelako ikuspuntu kritikoa, eskuizkribuen eta zirriborroen datatze, klasifikatze eta finkatze lanek, alegia. Gainera, aurre-testu terminoa testu kontzeptuarekin hertsiki lotuta egonik, kritika genetikoaren aztergaia ez dela testua bere horretan aldarrikatzen du. Beraz, aurrez Hayren (2002: 54) "avant-texte/texte" binomioa "écriture/écrit" bikoteak ordezkatzeko proposamenari jarraiki, Grésillonek (1994: 108) berresten du, izatez, testua baino idazketa bera dela, gertagarri eta gertakizun den idazketa hain zuzen, azterketa genetikoen ikergaia. Ondorioz, aurre-testu terminoaren erabilera mantendu arren, *dosier genetiko* termino neutroagoa proposatzen du sinonimo gisa eta ondorengo definizioa gehitzen: "un ensemble constitué par les documents écrits que l'on peut attribuer dans l'après-coup à un projet d'écriture déterminé dont il importe peu qu'il ait abouti ou non à un texte publié" (Grésillon 1994: 109).

Aldiz, Biasi bat dator Bellemin-Nöelen ikuspegiarekin, aurre-testuaren ezarketa ekoizpen kritikotzat hartzen duelako: "L'avant-texte de l'œuvre se distingue donc de 'l'étude de genèse' qu'il rend possible: L'avant-texte est le dossier génétique devenu interprétable" (Biasi 2011: 70). Izan ere, ikerketa genetiko baten lehen urrats garrantzitsua ikerketarako corpusa zehaztuko duen genesi dosierraren osaketa dela nabarmentzen badu ere, izatez ikerketa fase horretan artxibozain lana gailentzen dela babesten du. Kritikari batek proposaturiko aurre-testuak, ordea, irakurgarri, ulergarri eta interpretagarri egiten du aurrez dosier genetikoak zehaztu dituen testualizazio lekukotzak. Eta esan bezala, kritikari genetiko baten betebeharra, literatura kritika eta metodologia zehatzez baliatuz sorkuntza prozesuaren berrirakurketa bat proposatzea da.

1.1.5. Idazketa moduak eta idazketa aldien banaketa

Eskuizkribuen eta zirriborroen azterketa genetikoetatik, eskuarki, bi idazketa modu nagusi nabarmendu izan dira: bata, "programazio bidezko idazketa" deritzona eta bestea, "prozesu bidezko idazketa" (Hay 2002: 72-75). Alde batetik, idazketa programatuaren bidez idazten duten idazleek, sorkuntza prozesua aurre lanketa zorrotz baten bidez garatzen dute: eskema, ohar, laburpen, gidoi eta egituratze mailakatuaren bidez, urratsez urrats sorkuntzarako prestaturiko hastapen egitura edo asmoa hartzen da jarraitu beharreko ezinbesteko hezurdura gisa. Horrela, idazketa aurreko antolaketa idatziak berebiziko esangura bereganatzen du eta hastapen eskema hori moldatu badaiteke ere, idazteko modua definitzen duena programazio zehatz horri jarraituz aurrera egitea izango da. Aldiz,

aurrez ezarritako inolako programari zein aurre-plangintza orori uko eginez idazten duten idazleen idazketa modua prozesu bidezko idazketa litzateke, idazketak berak definitzen baitu jarraitu beharreko prozesua. Idatzizko eskemarik gabe egiten diote aurre idazketa aldiari, eta "lehen kolpe" horretan idatzitako berrirakurriz eta berridatziz egiten du idazketak aurrera.

Biasik, aldiz, idazketa moduen bereizketa horrekin bat egin arren, ezarririko izendapenak zalantzan jartzen ditu: programa bidezko idazketak ere prozesu jakin bat jarraitzen duen neurri berean, prozesuaren ideia bi idazketa moduetan gailentzen da genesi oro prozesu baten bidez burutzen delako. Horrenbestez, bestelako izendapen bat proposatzen du: "gidoi bidezko idazketa" eta "inprobisazio bidezko idazketa" (2008: 31-32)[4]. Muturreko bi banaketa nagusi horien artean, ordea, tarteko idazketa bideak daude eta sarritan elkarrekin nahasten dira "gidoi bidezko" nahiz "inprobisazio bidezko idazketa" uneak. Era berean, idazle batek hainbat idazlan idazteko zenbait bide desberdin ere jarrai ditzake. Izan ere, idazketa molde bat jarraitu edo bestea, garrantzia duena da lekukotza idatzietan nola islatzen den idazketa modu bakoitza. Berehala ikusiko dugunez, idazteko moduak eragin zuzena baitu idazketa aldien banaketan aurkituko dugunarekin.

Idazketa aldien banaketari dagokionez, Biasi (1998; 2011) bera da banaketa tipologia proposamen garatuena aurkeztu izan duena eta bere banaketari jarraituz, oro har, lau aldi nagusi bereiz daitezke idazlan baten genesiaren bilakaeran:

1.1.5.1. Erredakzio aurreko aroa[5]

Izenak berak dioen bezala, erredakzio lanerako beharrezkoak izango diren materialen aurre-bilaketak definitzen du aldi hau. Dokumentazio ikerketak; programaziorako oharrak; hitz zerrendak; autografoak ez diren dokumentuak; lehendabiziko esaldien, paragrafoen eta orrialdeen balizko zirriborroak; argumentuaren hezurdurak eta abar lirateke idazketa aldi honetan aurki ditzakegun lekukotzak.

Hori bai, aurrez zehaztu ditugun idazketa moduen arabera, "inprobisazio bidezko idazketa"-rekin lan egiten duten idazleek idatzizko lekukotasun gutxi (edo batere ez) eskaintzen dituzte aro honetan. Dokumentazio iturriak, gai posibleak, kaieretako oharrak eta bestelakoak kontsultatu ditzaketen arren, norberaren buruan forma hartzen joaten den ariketa mentala litzateke gisa honetako idazleentzat erredakzio aurreko aldia eta lekukotasun idatzirik utzi ezean, kritika genetikoak nekez aztertu ahal izango du aro hori. Alta, "gidoi bidezko idazketa" lantzen duten idazleen lekukotasunen artean, bi urrats bereiz daitezke: esplorazioaren garaia eta erabakiaren garaia.

[4] Euskaraz proposatzen ditugun terminoak "programmation scénarique"/"improvisation rédactionnelle" terminoen itzulpen gisa erabiliko ditugu.
[5] Idazketa aldi nagusiak izendatzeko Aurelia Arkotxak *Literatura Terminoen Hiztegia*n proposaturiko izendapenak baliatuko dira.

Lekukotza idatziak utzi edo ez, idazketa aro oro aurretiazko esplorazio ariketa batekin abiatzen dela esan badugu ere, zinez erabaki bat hartzeak eragiten du aurrera egitea, sarritan esplorazio garaiko hainbat asmo bertan behera gelditzen direlako, hots, garapenik izaten ez duten abiapuntu antzu. Behin idazketari ekiteko erabakia hartu ostean, ordea, hastapen aldia abiatzen da eta proiektua berrantolatzeko asmoz, esplorazio garaian bilduriko materiala birdefinitu eta testualizazioa erraztuko duen programazioak berebiziko garrantzia bereganatzen du aldi honetan. Helburua ez da idazketa bera, erredakzio lanerako ezinbestekoak izango diren argumentu, ohar, programa eta, azken batean, gidoi proposamenak prestatzea eta zedarritzea baino. Kasu batzuetan, genero literario laburreko (poema, narrazio labur...) sorkuntza lanetan adibidez, programazio horiek behin betikoak izan daitezke; aldiz, luzera esanguratsuagoko generoetarako eginiko gidoiak behin-behinekoak izango dira, usu erredakzio lanak aurrera egin ahala hastapen eskemetan aldaketak eta moldaketak egin beharra suerta baitaiteke. Bestalde, "inprobisazio bidezko idazketa" lantzen dutenen kasuan, erabakiaren garaiko ondorioak eta emaitzak *incipit*-ean (lehen hitz zein esaldietan) edo idazketa aldiaren lehendabiziko lekukotzetan soilik aurkituko dira, besterik ezean.

1.1.5.2. Erredakzio aroa

Idazketaren ekoizpen lanketa nabarmenek osatzen duten aroa da. Beti ere obraren testualizazioa helburu izanik, obraren sormen prozesuko hainbat materialek zein zirriborratze bidean aurki daitezkeen askotariko mailakatze urratsek definitzen dute aro hau.

- Erredakziorako dokumentazio dosierra: Erredakzio aurreko aroan osaturiko dosierraren garapena litzateke. Izan ere, esplorazio garaian oso orokorrak edota lausoegiak diren elementuetan sakontzea eta xehetasunak eranstea izan daiteke erredakzio aroko lehendabiziko zeregina: istorioaren denboraren gaineko oharrak gehitu, argumentuan sakondu, pertsonaiak karakterizatu, aditz denborak zehaztu, narratzailearen ikuspuntua erabaki... Horrela sor daiteke, kasu, erredakziorako dokumentazio dosierra. Nolabait, erredakzio lanketan lagungarri izango den lekukotasun paraleloa osa dezake dosier horrek eta, sarritan, libreta, kaiera edota orri solte horietan erredakzioan sorturiko zailtasun bat askatzeko saioak, bideak eta lekukotasunak eskainiko dituzte.

Gehienetan, gainera, amaierako testuan txertatuko diren beste literatur lan edota bestelako eragin eta iturrien erabilerarako aurreneko oharrak ere dosier hauetan kausituko dira. "Interstestualitate" edota "Iturrien edo eraginen kritika" ("critique de sources") kontzeptuetatik harago, eskuizkribuen ikerketarako egokituriko termino zehatzen bilaketan, Raymond Debray-Genettek 1977ko "Génetique et poétique: esquisse de méthode" artikuluan lehenbizi eta 1988ko *Métamorphoses du récit. Autour de Flaubert* lanean ondoren, *exogenesi* eta *endogenesi estrategiak* bereizten ditu. Horrela, Biasik exogenesi ariketa gisa ulertzen ditu dokumentazio dosierreko zenbait elementu: "Pour désigner l'utilisation par l'écrivain de textes ou d'informations extérieurs à son écriture, leur sélection, leur capture, leur appropriation et leur éventuelle intégration à l'écriture, on parlera de 'exogenèse'" (Biasi 2011: 92).

Aldiz, endogenesia definitzeko ondorengo hitzak baliatuko ditu: "Le processus par lequel l'écrivain conçoit, élabore et transfigure la matière avant-textuelle sans le secours de documents ou d'informations externes, par simple reformulation ou transformation interne du donné avant-textuel antérieur" (Biasi 1998: 45).

Eta nahiz eta hasiera batean exogenesia eta endogenesia estrategia kontrajarri gisa uler daitezkeen, estrategia exogenetikoaren azken helburua lanketa endogenetikoan barneratzea eta txertatzea izango da. Debray-Genettek dioena: "tout élément d'exogenèse, lentement phagocyté, devient un élément spécifique de l'endogenèse" (1988: 8); Biasik zehaztu besterik ez du egiten exogenesiaz aritzean: "son destin le plus fréquent est de se convertir en matière endogénétique au point de faire disparaître au final toute trace de son importation" (Biasi 2008: 34). Lanketa endogenetikoaren esparru nagusia, aldiz, jarraian azalduko dugun obraren zirriborroaren aroari dagokio.

- Erredakzio dosierra edo obraren zirriborroa: Erredakzio aroko prozesu esanguratsuena da. Idazketa eta berridazketa ariketak etengabekoak dira aro honetan eta erredakzioaren baitako hainbat idazketa aldiek nahiz lekukotasun idatziek osatzen dute idazketa aldi garrantzitsu hau. Bi norabidetan garatzen da, bereziki: batetik, aurrez taxuturiko eskema orokorra osatzeari ekiten zaio eta eginahalak egiten dira argumentuaren garapen maila konplexuago bat egituratzeko. Horrenbestez, egitura eta antolakuntza orokorra definitzen joan ahala, idazketa sintagmatikoan barneratu eta xeheki-xeheki aurrera eginaz, zirriborroetan barneratuko dira aurrez dokumentazio dosierretan sakabanatuta zeuden elementuak. Une zehatz horretan joango da garatzen obraren idazketaren estiloa, hastapen eskemako hutsuneak bete eta zirriborroa etengabe landuz.

Noski, urrats horien lekutasun idatziak ugariagoak dira "gidoi bidezko idazketa" lantzen duten idazleen artean, besteak beste, idazketa sekuentzial eta ez-jarraitua egiten den heinean eta testualizazio saiakera etengabeko berrirakurketek markatuta izaten delako. Sarritan, gainera, berrirakurketa horiek amaitu berri den zatiaren edota idazketa aldi orokorragoen zuzenketa eragingo dute, zenbaitetan hastapen gidoia moldatu eta aurrez zuzenduta zeuden zuzenketan berriro zuzentzeko, idazketa aldiak berrekiteraino. Horrela, idazketa zati baten lanketak (izan pasarte bat, izan kapitulu edo izan atal oso bat) bere berrirakurketa, zuzenketa, eta hastapen asmoen moldaketa eragingo du, hori beharrezko balitz. Aldiz, aurre-plangintza lekukoturik gabeko "inprobisazio bidez" idazten dutenen erredakzioaren garapena jarraituagoa eta progresiboagoa izango da. Etengabe aurrera doan idazketa modua litzateke, *incipit*-etik hasi eta *excipit*-eraino, obra baten lehen hizkitik azken punturaino bideraturiko sorkuntza prozesua, alegia.

- Zuzenketa eta garbira pasatzeko unea: zirriborroak metatzen, gehitzen eta garatzen joan diren neurrian, azkenean idazketaren bertsio ia definitiboa taxutzen joaten da. "Inprobisazio bidezko idazketa" modua jarraitu bada, erredakzioa gehiketa bidez osatu da, etengabeko aurrera egite

horretan zalantzak, damuak, zuzenketa markak (ezabaketak, leku-aldatze aztarnak eta geziak, margenetako oharrak...) eta, oro har, zirriborroa *estaltzen* duten bestelako elementuak pilatuz. Aurrez egituratu eta antolatu gabeko idazketa moduaren ohiko ondorioak dira eta horrenbestez, gehienetan beharrezkoa izaten da eskuizkribua berridatzi eta garbira pasatzea bertsio ulergarriago bat lortzeko. Aldiz, "gidoi bidezko idazketa" moduko lekukotzek alderantzizko bidea izaten dute, gutxika-gutxika zehazten joan den zirriborroa urratsez urrats garbira pasatzen garatu den neurrian; zalantzez eta ezabaketa markez estaliriko zirriborroak uneka-uneka joan dira garbitzen eta beraz, etengabeko berridazketen ondorioz, bertsio aurre-definitiboa ia garbia litzateke. Edonola ere, garbira pasatze azken ariketa bat egitea izaten da ohikoena, eskuizkribu "definitiboa" zedarritu eta argitaratze aurreko aroari ekiteko.

1.1.5.3. Argitaratze aurreko aroa

Eskuizkribu "definitiboa" osatu, behin behineko testualizazio prozesua finkatu eta, nahiz eta testua oraindik behin betikoa ez izan, bestelako bilakaera bat izaten du zirriborroak idazketa aldi honetan. Orain arte eskuizkribua idazlearen esparru pribatuan landua izan da baina argitaratze prozesuan barneratu ahala eta eskuizkribuak tipografia zehatz bat bereganatzearekin batera, zirriborroak zirriborro izaera galtzen du eta irakurtzeko erraza den lekukotza idatzia gailentzen da. Azken zuzenketen garaia da, ordea, eta eskuz eginiko zuzenketa autografoekin batera, iradokizun apografoek ere lekua izan dezakete urrats honetan. Azkenik, "bon a tirer" edo inprimatzeko on den testuari onespena ematen zaio eta hau litzateke eskuizkribua testu bihurtu aurreko azken urratsa: inprenta probak, liburuaren galeradak, azken uneko zehaztasunak zuzentzeko aldia da. Azken zuzenketak gehitzearekin batera amaitzen da aurre-testuaren edo zirriborroaren garaia. Biasik, hain zuen, bereizi egiten ditu "eskuizkribuen genetika" eta "inprimatuaren genetika"; lehengoari dagozkio orain aipatu ditugun idazketa aldiko lehen hiru aldiak eta bigarrenenean kokatuko da orain azalduko dugun argitalpen garaia.

1.1.5.4. Argitalpen garaia

Idazlearen onespenarekin, eskuizkribua tipografikoki moldatzen da eta nprimaturiko testu egonkorraren izaera bereganatzen du. Ondorioz, obra definituko duen testua bilakatzen da ordura arteko eskuizkribua.

Sarritan, lehen bertsio hau ere ez da behin betikoa izaten ordea; ondorengo hainbat berrargitalpenetan idazleak zuzenketak edo moldaketak sartu eta bertsio eraberritu bat egiteko aukerak badituelako. Testu-aldaera gisa aztertu izan dira moldaketok eta bertsio eraberrituok, eta idazleak bizirik eginiko azken moldaketen bertsioa izango da horrenbestez testu "definitibotzat" hartu beharko dena. Halere, aintzat hartu behar da gerta daitekeela argitaratuta dagoen testu bat beste idazlan baten zirriborro bilakatzea ere. Idazleak inprimaturiko bertsioa hasieratik bukaerara berridaztea erabaki dezake eta

amaierako emaitza hastapen testuaren oso bestelako testua baldin bada, lausotu egingo da aurrez aipaturiko Biasik proposaturiko taxonomia eta eskuizkribu eta inprimatuaren genetikaren arteko banaketa irauli egingo litzateke, argitalpen garaiko testu batek aurre-testu izaera bereganatzen duen heinean (Grésillon 2008: 32).

1.2. DOSIER GENETIKOAREN AZTERKETA: ESKUIZKRIBUEN ANALISIA ETA BERRERAIKETARAKO METODOLOGIA

1.2.1. Dosier genetikoaren mugak

Kritika genetikoak, sorkuntza prozesuaren baitako idazketaren bilakaera argitzeko asmoz, eskuizkribuetan eta zirriborroetan aurki daitezkeen aztarna idatziak aztertzen eta interpretatzen ditu. Lekukotasun idatzirik ezean, ezin da beraz ikerketa genetikorik egin. Eta obra baten genesi dosierra berreraikitzerako orduan ere, oso kontuan izan behar da aztertu asmo den eskuizkribuen dosierrak hutsuneak izan ditzakeela, hots, askotariko arrazoiak tarteko, oso litekeena dela lekukotasun idatzi guztiak aurrez ez eskuratu izana. Ondorioz, ikertzaile genetistak nekez ziurta dezake sorkuntza lan baten lekukotasun idatzi guztiak zehaztasunez aztertzea, zirriborroen lekukotasunen bat edo batzuk bidean galdu izana edo ez gordetzea oso litekeena delako. Era berean, sorkuntza prozesu oro proiektu mental gorabeheratsuaren emaitza izaten den neurrian, lekukotasun idatziek ezin dute prozesu osoa bere horretan islatu, lekukotasun idatziez gain bestelako hainbat faktorek eragina baitute obra baten garapenean. Beraz, berreraiketa genetikoa, erabateko ziurtasunaren esparruan baino, probabilitate edota hipotesi mailan aurkeztea da bidezkoena, nahiz eta sorkuntza prozesu bateko lekukotasun idatzi guztiak ikertu eta interpretatu. Halere, dosier bat zenbat eta osatuagoa izan, azterketa genetikoa sakonagoa eta lorturiko ondorioak zehatzagoak eta emankorragoak izatea ere uste izatekoa da.

1.2.2. Eskuizkribuen azterketarako baliabideak

Eskuizkribu modernoak, egoera onean kontserbatu ahal izateko dituzten berezitasunak aintzat harturik, liburutegi publikoetako gordailuetan, idazleen lanaz biltzeaz eta kudeatzeaz arduratzen diren fundazioetan edota funts pribatuetan gordetzen dira eskuarki. Aurre-testuak eskuratzeko moduei dagokionez ere, sarritan ezinezkoa izaten da jatorrizko eskuizkribua bere horretan kontsultatzea eta bestelako erreprodukzio bideen bidez, hots, edizio faksimileen bidez (izan edizio digitalak, argazkiak, fotokopiak eta abar), izaten dugu jatorrizkoen berri. Idazketa prozesua azaleratzeko saiakera burutzeko kontuan izan behar da kritika genetikoaren metodologiak eta dosier genetikoa berreraikitzeko ahaleginak ezinbesteko garrantzia ematen diola eskuizkribuen euskarriari zein idazketa gauzatzeko baliagarri izan den material orori. *Codicologia* deituriko zientzia arduratzen da, besteak beste, idazketaren ekintza inguratzen duten euskarri eta materialen araberako azterketez.

Horrela, idazketarako erabilitako paperaren inguruko zenbait datu oso garrantzitsuak dira idazketaren historia argitzeko eta berrezartzeko. Adibidez, ur-marka berberak dituzten paperek, eskuizkribuen anabasa multzoa antolatzeko nahiz idazketa aro bat datatzerako orduan argibide asko eman dezakete.

Paperaz gain, bestelako idazketa materialek ere eragin zuzena dute idazketa prozesua interpretatzeko: arkatz, boligrafo, tinta marka edota koloreen erabilerak, hots, idazketa trazua markatzen duten lantresna guztiek ere esanahi zehatz bat izan dezakete sorkuntza prozesuaren baitan; demagun, arkatzaren erabilera idazketa aldi jakin baterako bakarrik mugatzen denean (erredakzio aurreko arorako kasu) edota erredakzio aroaren osteko zuzenketak egiteko testualizazio unean baliatu ez den beste koloredun boligrafo bat erabiltzen delako (izan zuzenketa autografoak edo apografoak).

Era berean, euskarri jakin baten gainean idatzitako trazuek zehazten duten espazio grafikoa ere aintzat hartu behar da. Batetik, idatzitako espazioa idatzi gabeko espaziotik bereizten da eta, bestetik, zirriborroetako espazio grafikoek ez dute zertan argitaratutako liburuek izaten duten ohiko ezkerretik eskuinerako linealtasunari jarraituz aurrera egin beharrik. Zirriborroetan espazioak askatasun gehiago eskaintzen du eta maiz, idatzitakoaren sekuentzializazio norabideak nahaspilatsuagoak dira, idazketa eta marrazkiak batera ager daitezke eta abar. Espazio grafikoaren araberako idazketak zehazterakoan, Grésillonek (1994: 52) *idazketa lineala*ren eta *taula-bidezko idazketa*ren artean markatzen ditu mugak, baina gaineratzen du bi aukera nagusi horien artean espazio grafikoa betetzeko askotariko gurutzaketak aurki daitezkeela: besteren artean, eskuinetik ezkerrerako norabidean idazten hasi eta orrialde amaierara iristean idazketa norabidea aldatu eta bertikalki idazten hastea, orrialde berean euren artean ageriko loturarik ez duten hainbat idazketa multzo pilatzea, gezi bidez espazio grafikoa hara-hona osatzea... Alde horretatik, margenek osatzen dituzten espazio grafikoak ere esanguratsuak dira, zirriborroetako margenei automatikoki lekua egin edota batere margenik gabe idazten dutenen artean idazketa moduak ere desberdinak izango direlako. Hain zuzen, margenak utzi eta erabiltzen dituzten idazleek idazteko modu bat izaten baitute, margen horiei erabilera zehatza eta balio bat emanaz: oharrak, zuzenketak eta iradokizun metadiskurtsiboak margenetarako utziz, edota ezabatutako atalak margenetan berridazteko, esaterako.

1.2.3. Papera, orria, orrialdeak eta folioa

Esan bezala, idazketa gauzatuko den euskarriak berebiziko garrantzia du dosier genetikoaren berregituraketarako. Eskuizkribu modernoen artean, *paper*eko euskarridun lekukotasunak aurkituko ditugu nagusiki eta alde horretatik, euskarriaren inguruko zehaztasun zenbait aintzat hartu behar dira. Paperezko *orria*, beraz, idazketa gauzatuko den euskarri materiala izendatzeko erabiliko da eta orri bakoitzak, bere aldetik, bi *orrialde* izango ditu: aurreko aldea (*recto*) eta atzeko aldea (*verso*), hain zuzen. Eskuizkribuak edo zirriborroak antolatzeko eta sailkatzeko *folio*tan zenbakitzeko sistema erabiltzen da, eta era berean, orrialdearen rectoa eta versoa zehazten dira: zirriborro sail baten lehen

orria, beraz, horrela banatu eta izendatuko litzakete: "fº 1 r" eta "fº 1 v". Horrenbestez, idazleak bere horretan zenbakitu ez dituen orriak sailkatzen ditu genetistak, konbentzionalki bada ere ezinbestekoa bihurtzen delako lekukotza idatzien identifikaziorako eta modu ordenatu batean eurekin lan egiteko.

1.2.4. Zirrimarra

Jadanik aipatu dugun Bellemin-Noëlen *Le texte et l'avant-texte* laneko aurreneko hitzak honakoak dira: "La littérature commence avec la rature" (1972: 5). Eta hain zuzen, aurre-testuak eta zirriborroak argitaraturiko testu "definitibotik" bereizten dituen kontzeptu esanguratsua *zirrimarra*rena da. Mugimenduan dagoen idazketaren adierazle da, etengabe aurrera egitea eta atzera itzultzea den ekoizpen bidean dagoen testualizazioaren ezaugarria baita marka uzten duen zirrimarra. Mugimendua adieraztearekin batera, denboraren iragaitearen lekuko ere bada zirrimarra, ikusgarri egiten baitu idatzitakoaren gaineko marratzea eta zirrimarraren ondoren gehiturikoaren arteko denboralizazioa. Zirrimarrak, hain zuzen, ordura arte idatzitakoaren kenketaren mugimendua adierazten du lehenik, ukapena edo damua adierazten duen mugimendu negatiboa, hain justu; eta bigarrenik, kenketaren osteko gehiketaren mugimendu sortzailea etor daiteke gehienetan. Nolabait, ezabaketaren ariketak bere baitan izatez kontrajarriak diren kenketa eta gehiketa bildu ditzake, beraz.

Zirrimarraren inguruko teorizazioa burutu dutenen artean berriro aipatu behar ditugu Biasi eta Grésillon. *Ratures et repentirs* (1996) izenburudun lanean, lehenengoak "Qu'est-ce que une rature?" artikulua sinatu eta zirrimarren material zein ezaugarrien araberako tipologia zehatza proposatzen du batetik, zirrimarren nolakotasuna, funtzioak, hedadura, trazuak, euskarriak, eremuak, kopuruak eta maiztasuna bezalako ezaugarriak kontuan izanik. Bestetik, idazketa aldien baitan ezabaketek duten garrantziaren araberako tipologia ere eskaintzen du, ondorio desberdinak eratorriko baitira hastapen eskemako elementuren baten zirrimarratze ekintzatik edota argitaratu aurreko zuzenketa aroko zirrimarratzetik. Grésillonek, aldiz, "Raturer, rater, rayer, éradiquer, radier, irradier" izeneko artikulua aurkezten du eta bertan zirrimarren dimentsio sortzaileaz aritzen da. Zirrimarra ekintzaren atzean egon daitezkeen funtzio eta sorkuntza bideei men eginez, ordea, biak ala biak bat datoz zirrimarrek hiru funtzio nagusiri erantzuten dietela:

- *Ezabatze-zirrimarra*: zirrimarra bat aurrez idatzita dagoen segmentu baten ezabaketa hutsa besterik ez denean ezabaketa-zirrimarra deituko diogu: ~~A~~→ Ø

- *Lekualdatze-zirrimarra*: zirrimarraturiko pasarte bat lekuz aldatzen denean, hots, zirriborroaren baitako ordura arteko lekua baino gorago edo beherago txertatzea erabakitzen denean, lekualdatze-zirrimarra baten aurrean egongo gara. Gainera, zirrimarrez gain, sarritan lekualdatzearen berri ematen duten bestelako ikurrekin adierazita egon daiteke leku aldatzea. ~~XAB~~→ XAB.

- *Ordezkatze-zirrimarra*: zirrimarraturiko segmentu baten ondoren zirrimarratutakoaren ordez beste atal bat gehitzen denean ordezkatze-zirrimarra izendapena baliatuko dugu: ~~A~~→ B. Funtzio honek, berridazketa bidezko zirrimarratzea ere badenak, bi ekintza kontrajarri batean biltzen ditu, beraz, aldi berean: kenketa (~~A~~ → Ø) eta gehiketa (Ø → B). Era berean, ordezkatze-zirrimarrak hitzez hitzezkoak (ordezkatzen dena zirrimarraturikoaren oso antzekoa denean); elipsi bidezkoak (ordezkatzen dena zirrimarraturikoa baino apur bat laburragoa denean); edota gehiketa bidezkoak (ordezkatzen dena nabarmenki zirrimarraturikoa baino luzeagoa denean) izan daitezke. Bestalde, zirriborroaren baitako ordezkatze-zirrimarren espazioari dagokionez, berehalako zirrimarrak eskuarki idazketaren lerro berean egiten direnak izaten dira. Horrenbestez, idazketa linealari jarraiki, zirrimarraturik dagoen hitz edo segmentu laburraren ondoren txertatzen dira gehitutako gainontzeko elementuak. Bestetik, berehalakoak ez diren edota gerora eginiko ordezkatze-zirrimarrak bestelako espazio batean kokatzen direnak lirateke: zirrimarraturiko segmentuaren ordezkoa lerroartean gehitu daiteke, bai zirrimarraturikoaren gainean edo azpian; aitzitik, margenak ere erabil daitezke ordezko elementuak txertatzeko; eta, azkenik, bestelako orrialde edo zirriborroak erabil daitezke segmentu gehigarrien ordezkatzeko.

Hiru zirrimarratze ekintza nagusi hauez gain, Biasik (2011: 125-128) bestelako bi bariazio ere bereizten ditu: ordezkatze aukera desberdinak markatu bai baina zirrimarratze ekintza gerorako uzten den *atzeratze-zirrimarra* eta *erabiltze-zirrimarra*, behin berridatziriko segmentu bat erabili ondoren zirrimarratzen dena, hain zuzen. Eta gaineratzen du, hainbat zirrimarratze ekintzen funtzioa zehaztea nahiko erraza izan badaiteke ere, beste zenbait definitzea oso konplexua izan daitekeela. Izan ere, "la rature est un phénomène spécifiquement génétique, qui agit sur un environnement lui-même soumis à d'incessantes métamorphoses" (Biasi 2011: 129).

1.2.5. Gehiketa

Ordezkatze-zirrimarraren baitan aipatu dugun gehiketaren ekintzak (Ø → A), ordea, idazketa prozesuan konnotazio orokorragoak ere baditu. Orri zuriak idazketaren trazu gehiketaren bidez uzten dio zuri izateari. Hori dela eta, testualizazioaren bilakaera gehiketa bidez egiten dela ezin da ukatu, eta neurri batean, zirrimarratzeek eta ezabaketek idazketa prozesuan garapen bat adierazten dutenez, ariketok gehiketa moduan interpretatzea ere zilegi litzateke. Edonola ere, gehiketa ekintza zentzu hertsian ulertuta, ondorengoa aipatu behar da:

> Pour le généticien (...) l'ajout est un segment qui se manifeste comme l'insertion d'un nouveau paradigme, dissemblable et non déductible de ceux qui le précèdent et qui le suivent, par lequel l'ensemble significatif dans lequel il s'insère se trouve augmenté et transformé de telle manière que se nouveau segment devient indispensable à la compréhension de l'ensemble significatif qu'il augmente et redéfinit (Biasi 2002: 46)

1.2.6. Aldaera vs. berridazketa vs. zuzenketa

Filologiaren esparrutik eratorritako aldaeraren kontzeptua argitalpen garaiaren osteko obra baten edizioen arteko aldaketak zehazteko soilik mugatzen du kritika genetikoak, besteak beste, aldaerak zentzu hertsian jatorrizko testu bati egiten liokeelako erreferentzia. Hortaz, aurre-testuen eta zirriborroen baitako eragiketa hori izendatzeko, berridazketa erabiltzea lehenesten du kritika genetikoak, aldi berean baliagarria baita segmentu labur baten eraldaketa zehazteko nahiz idazketa prozesuaren bilakaera konplexu eta orokorrago bat izendatzeko. Azkenik, zuzenketa terminoa, berridazketa gramatikal eta ortografikoak izendatzeko bakarrik erabiltzea proposatzen du Grésillonek (1994: 76), zuzenketak inplizituki akats bat konpontzea adierazten baitu eta beraz, akatsen edota errata nagusien konponketarako soilik da baliagarria zuzenketa hitza.

1.2.7. Dosier genetikoa egituratzeko urratsak

Dosier genetikoa berreraikitzeko helburu nagusia eskuizkribu eta zirriborroetako lekukotza idatziak modu ikusgarri eta irakurgarri[6] batean eskaintzean datza. Alde horretatik, genesi dokumentuen bidez, idatzitakoa baino, idazketa baten bilakaera eta garapena da bilatzen dena, idazketaren lekukotasunak bata bestearen ondoan ezarriz egituratzen den *continuum*ak aurkezten dituen ezaugarriak eta xehetasunak ikertzeko asmoz. Hori horrela, dosier genetikoa egituratzeko hainbat urrats zehatz-mehatz jarraitu behar dira:

- Corpusa zehaztu eta lekukotasunen antolaketa kronologikoa: idazle batek sorturiko corpus autografoa finkatzerako orduan, ahalik eta lekukotasun gehien eskuratzeak garrantzi handia du, dosier bat zenbat eta osatuagoa izan, orduan eta ikerketa sakonagoa eta ondorio zehatzagoak aterako baitira. Era berean, lekukotasunok datatzea ere esanguratsua da, idazketa progresiboak kronologikoki izan dituen eraldaketak eta bilakaerak zedarritzeko. Gainera, lortutako lekukotasunak idazketa aldien inguruko sailkapenaren arabera antolatu daitezke. Eskemak, hastapen gidoiak, hitz zerrendak eta bestelako incipitak, adibidez, idazketa aurreko aroari dagozkionak direnez, ibilbide genetikoaren abiapuntu izango dira eta horrenbestez, aroz aro kokatuko dira lekukotasunak, inprimaturiko testuak mugatzen duen idazketa kateko azken aldira arte.

- Zirriborroen sailkapen genetikoa: urrats honetan, zehaztasun zientifiko handiz sailkatu behar dira aurrez bilduriko dokumentuak. Helburua definitibotzat hartzen den eskuizkribua eta zirriborro aurrekariak parez pare harremanetan ezartzea litzateke, eskuizkribu eta zirriborroak behin folioka zenbakitu ostean, euren arteko korrelazio kopurua zehazteko. Lekukotasunen sailkapen genetikoan, atzekoz aurrerakako ikuspegia gailentzen da, azken zirriborrotik lehen lekukotasunetaraino. Horrela, Biasik (2011: 134) *taula estatiko integrala*ren sistema proposatzen du, lehenik eta behin eskuizkribu

[6] Ekintza hori izendatzeko Grésillonek bere egiten du "visibilité" neologismoa (2008: 49), aurrez Jaques Anisek (1988) kaligramen inguruko azterketa baterako "visible" eta " lisible" hitzen elkarketatik sorturikoa, hain zuzen.

definitiboko orrialde bakoitza harremanetan dagoen zirriborro multzoarekin elkartzeko. Argitara eman den azken orrialdearen aurrekariak diren lekukotasunak heterogeneoak izan daitezke idazketa aldiei dagokionez eta, beraz, bigarren urrats batean, taula estatikoko emaitzak berriro sailkatu beharko dira. Batetik, paradigmatikoak diren antzekotasunak aintzat hartu eta lekukotasunak ardatz kronologikoaren arabera multzokatu beharko dira; horrela, idazketa aldien araberako ezaugarriek zehaztuko dute lekukotasun bakoitzaren izaera. Bestetik, idazketa aldi bakoitzaren baitan litekeena da mota berekoak diren lekukotasun eta zirriborroen kateatze simultaneo bat aurkitzea, hots, ekoizpen maila bereko lekukotasun bat baino gehiago izatea eta beraz, ardatz sintagmatikoari dagokionez, kateatze korrelazioak erakusten dituzten lekukotasunak ere elkarrekin multzokatu beharko dira.

- Deszifratzea eta transkribaketa: eskuizkribuen eta inprimaturiko testuen irakurketek ez dute deus ikustekorik elkarrekin. Eskuizkribuen kasuan, zirriborroak ulergarri bihurtzeko ezinbestekoa da eskuz idatzitako lekukotasunetan barneratu eta inprimaturiko testuetan azaleratzen ez diren trazuak identifikatzea (zirrimarrak, oharrak, berridazketak, etab.) eta bere osotasunean erreproduzitzea, irakurgarri(ago) bihurtzeko. Sarritan, gainera, lekukotasunen baitako elementuak deszifratu ahal izateko aurrez multzokaturiko antzekotasun korrelazioen arabera sailkatu ditugun lekukotasunak elkarren segidan deszifratzeak hainbat gabezia argitzea eragingo du: hala nola, zirriborroen atzeraeraginezko irakurketaren bidez, ezabatze-zirrimarraren atzean dagoena erakuts dezake aurreko lekukotasun batean oraindik zirrimarraturik ez egoteak; aldiz, aurrera begirako irakurketaren bidez, lerroarteko gehiketa bat hurrengo lekukotasunean testualizazio sekuentzia linealean txertatzeak agerikoago egingo du ordura arte lerroarteko gehiketa deszifra ezina.

Deszifratze ariketari transkribaketak ematen dio segida, bertan bildu, islatu eta erreproduzituko direlako zirriborroetatik deszifraturiko markak eta bestelako berezitasunak modu ulergarriago batean. Jatorrizko jardun bat irudikatu asmo duen transkribaketa orok bezala, emaitzaren gardentasuna da bilatzen dena, eta kasu honetan ere eskuizkribuarekiko ahalik eta fideltasun gehien gorde behar du transkripzio genetikoak: idazketa autografoaren berezitasun guztiak bere horretan txertatzea da helburua, orrialdearen baitako espazio grafikoaren erabilerak esanahi semiotikoak izan ditzakeen neurrian. Haatik, eskuizkribuetako hutsuneak, balizko akatsak, lerroarteko oharrak, zirrimarrak, askotariko zeinu, marra, azpimarra, gezi eta trazuak xeheki biltzea da helburua, zirriborroaren irudia ere bere horretan aurkezteko. Transkribaketa modalitate nagusien artean, transkribaketa *diplomatikoa* eta *transkribaketa lerrokatu kodetua* bereizi behar dira.

Transkribaketa diplomatikoa jatorrizko dokumentuaren eredu berbera zehatz-mehatz erreproduzitzen saiatzean datza eta, beraz, zirriborroko elementu guztien antolamendu topografikoa,

hots, grafikoa zein espaziala, bere horretan errespetatu eta azaleratzen da[7]. Gainera, jatorrizkoarekiko gardentasuna erakusteko, trazuen berezitasunak (zirrimarrak, gehiketak eta abar) gutxieneko zeinu sistema berezi baten bidez adierazi daitezke (zirrimarrak, <gehiketak> eta abar).

Transkribaketa lerrokatu kodetuaren bidez, aldiz, inprimaturiko testu baten eredura lerratu nahi dira zirriborroetako elementuak. Halere, testu eredu bat simulatzen duen eta jatorrizko eskuizkribua irakurgarriago bilakatzen duen transkribaketa lerrokatua ez da inoiz testuarekin parekagarri edo ordezkagarri izango eta, beraz, kasu honetan ere jatorrizkoarekiko fideltasunak, ezen ez testuaren irakurgarritasunaren aldeko hautuek, definituko dute transkribaketa on bat. Esan bezala, jatorrizko eskuizkribuko trazuak eta idatzizko segmentuak modu lineal batean lerrokatzen dira. Kasu honetan, gainera, ezinbestekoa izango da zirriborroak aurkezten dituen berezitasunak islatzeko aurrez zedarritzen eta azaltzen den kode sistema zehatza erabiltzea, transkribaketa lerrokatuak ez baitu antolamendu topografikoa mantentzen eta zeinuen bidez adierazi beharko dira zenbait trazuren ezaugarri espazial eta grafiko bereziak.

Hainbat ikerlarik transkripzio diplomatikoaren aldeko hautu garbia adierazi eta berau gauzatzeko aholkuak, lantresnak eta adibideak eskaintzen badituzte ere (Grésillon 1994: 129-136), bada transkripzio lineal kodetuaren alde egiten duenik ere, bereziki sorkuntza prozesu luze eta obra mardulen kasuetarako paperean eginiko transkripzio diplomatikoek orrialde eta espazio gehiegi behar izaten baitituzte (Biasi 2011: 141). Edonola ere, ezein transkribaketa modalitaterekin batera eskuizkribuen faksimileak aurkeztea beharrezkoa da, transkribaketak jatorrizkoaren alderatu ahal izateko.

1.2.8. Ilusio teleologikoaren auzi paradoxikoa

Dosier genetikoa berreraikitzeko urratsei erreparatuz, ilusio teleologikoaren auziarekin egingo dugu topo. Bilakaera teleologikoaren arabera, helburuaren nozioa ardatz hartuta, ekintza guztiak *télos*, jomuga edo xede batek definituko lituzke. Edizio kritikoa aintzat izanik, adibidez, obra baten jatorrizko testua ezartzea izango da helburu nagusia, eta aldaeren lekukotasunek garrantzia izango dute soilik helburu horrekin loturik dauden neurrian. Era berean, badirudi kritika genetikoak ere, aurre-testuen sekuentzializazioaren berreraiketarekin, ideal teleologikoaren ikuskera ematen duela aditzera antolaketa modu horrekin eta Ferrerrek adierazi bezala, "c'est en vain que la critique génétique s'exhorte régulièrement à renoncer à une vision téléologique de la genèse. La téléologie n'est pas un artefact critique –elle est inhérente aux mécanismes génétiques" (2007).

[7] Paperean eginiko transkripzio diplomatikoez gain, ordenagailuan aurkezten direnak ere oso erabilgarriak dira. http://www.hull.ac.uk/hitm/gen/gnindx.htm helbidean, kasu, Flauberten *L'Éducation sentimentale* laneko transkribaketa diplomatiko ikusgarriak aurkezten dira.

Jarraian, ordea, "une téléologie plurielle" gisa definitzen du genesiaren baitako ilusio teleologikoaren auzia. Dosier genetikoa berregituratzerakoan, beste ezeren gainetik, konbentzio edota simulazio metodologiko bat litzatekeelako bilakaera teleologikoarena. Izan ere, idazketa prozesuan denboraren nozioa txertatzeko, zirriborroen eta gainontzeko lekukotasunen sailkapen genetiko ideala egiten denean, azken lekukotasunetik abiatu eta aurreneko incipiteraino modu jarraitu batean antolatzen dira idazkiak eta horri dagokio ilusio teleologikoa, definitiboa litzakeen testuaren baitan aurkituko baitira aurre-testuetan barreiatutako lekukotasun idatziak. Irudi luke, beraz, aurre-testuek eta zirriborroek testu definitibo bihurtzeko helburua eta xedea dutela. Baina hor datza, era berean, ilusio teleologikoaren paradoxa ere, aurre-testuak ez baitira inolaz ere egonkorrak ezta gertagarriak ere, eraldaketak izan ditzaketen gertakizunak baizik. Testu definitiboa ez dago inolaz ere bere aurrekarietan eta aurrekariengandik predeterminatua, idazketaren garapenean gerta litezkeen aukera guztien arteko bilakaera jakin bat besterik ez baita. Izatez, testu definitiboaren *definitibotasuna* ere kasuala baita, hainbat istripuren, moldaketen, damuren eta erabakiren ondorioa izanik ere, ez delako helburu aurredefinitu bat.

> Cuando se estudia un proceso escritural, la última etapa de su reconstrucción genética reviste tanto interés como las anteriores porque –justamente– lo que se focaliza es ese proceso y no su producto final. El abandono de la ilusión teleológica que propone la crítica genética permite establecer que la etapa final recopilada es (al igual que las otras) el producto específico de un conjunto de tendencias, pero jamás un 'resultado inevitable'. (Lois 2005: 88).

Dosier genetikoen berregituraketak lekukotasun idatziek ezarririko norabide kronologikoa ezartzen du baina "la genèse n'est pas linéaire, mais à dimensions multiples et variables. (...) Le brouillon n'est plus la préparation [du texte 'définitif'], mais l'autre du texte" (Leivallant 1982: 15).

1.2.9. Kritika genetikoa eta literatur kritika

Esan bezala, ikerketa genetiko baten lehenengo betebehar nagusia, lehenik eta behin, argitaraturiko obra baten testu definitiboaren atzean ezkutatzen dena azaleratzea da, alegia, idazketa prozesua osatzen duten argitaratzeko asmorik gabe sorturiko zirriborro eta lekukotasun idatziak modu ordenatu eta ulergarri batean eskaini ahal izatea. Aurrez ere aipatu den Biasik izendaturiko testu genetikari dagokion zeregina litzateke hori, hain zuzen. Behin lekukotasun guztiak lortu, sailkatu, deszifratu eta transkribatu ostean, kritika genetikoa egiten hasteko unea iristen da Biasiren izendapenari jarraiki, hots, lekukotasunen jarraikortasunaren arabera dosier genetikoa egituratu ondoren soilik, idazketaren ekintzaren garapena nola gauzatu den interpretatzea da hurrengo urratsa.

Hori horrela, zirriborroak deskodetzeko eta dosier genetikoa eratzeko hurbilpen filologikoaren metodologiari hertsiki lotzea ezinbestekoa bada ere, dosier genetikoak interpretatzerako eta aurre-testuak aurkezterako orduan literatur kritikak eskaintzen dituen askotariko aukerak baliatu daitezke: hala nola, kritika psikoanalitikoa, azterketa narratologikoa, genesia eta idazketaren poetika, testuartekotasun loturak nabarmentzen dituen azterketa, kritika biografikoa zein autobiografikoa.

Beraz, dosier genetiko bakar bat interpretazio aukera anitzetatik aztertu daitekeen heinean, interpretazioaren emaitzak ere aukeraturiko ikerketa lerroaren araberakoak izango dira. Hori horrela, zenbait idazle klasikoren (Flaubert, Zola, Balzac, Stendhal, Proust, Joyce) sorkuntza prozesuaren inguruan egin izan diren ikerketa lan genetiko kolektiboetan, azterketen ondorioak eta emaitzak ere askotarikoak izan dira, dosier genetiko berberaren gainean lan egin arren, literatur interpretazioaren ikuspegiak metodologia zehatz bat mugatzen duen neurrian.

Jarraian, kritika genetikoaren esparruan aurrerapauso eta emaitza esanguratsuak eskaini dituzten literatur kritikaren ikerlerro nagusienak aipatuko dira laburki eta, hurbilpen metodologia gehiago ere badiren arren, hainbat lanetan (Schmid, 1998; Lois: 2005; Pastor: 2008; Biasi 2011) errepikatzen diren literatur ikerlerroetara soilik mugatuko da ondorengo zerrenda:

- Genesia eta idazketaren poetika:

Debray-Genettek *Métamorphoses du récit. Autour de Flaubert* lanean proposatu bezala, idazle baten obra osoaren edota lan jakin baten poetika aztertzerako unean testuari edota testuei erreparatu izan zaio, amaituta eta itxita aurkezten den testuari, alegia. Bere azterketa genetikoan, ordea, Flauberten *Un cœur simple* zein *Hérodias* lanen aurre-testuak eta zirriborroak ikertzen ditu eta *testuaren poetika* batetik *idazketaren poetika*ra (Debray-Genette 1988: 46) jauzi egitea lortzen du: amaitutako eta finkatutako testuaz arduratu izan den hurbilpen narratologikoaren aurrean, egin bidean eta mugimenduan datzan eta, ondorioz, aldaketei irekita dagoen eta egonkorra ez den aurre-testualizazioaren ikerketa gailentzen da. Genesiaren poetika da, finean, Debray-Genettek ikertzen duena, sorkuntzarako erabilitako dokumentuen artean aurkitzen baitira idazketaren garapen eta bilakaera narratiboan erabakigarriak izango diren aukeren lekukotasunak, abiaturiko edota baztertutako idazketa bideen atzean obraren inguruko informazio esanguratsua biltzen den neurrian. Idazketa une jakin batean hartzen den erabakiak ondoren etor daitekeen guztia baldintza edo eralda dezake, sorkuntza prozesua ezustez betea eta aurretik iragarri ezin den gertaera delako. Horregatik da garrantzitsua idazketaren poetika ikertzeko bitartekoak aintzat hartzea, testuaren poetikak ez bezala, idazketaren poetikak xehetasun horien berri eta obraren poetika nola egituratu den azal dezakeelako.

- Kritika genetikoa eta hizkuntzalaritza:

Hizkuntzalaritza eta teoria linguistikoaren esparruko hainbat ekarpen eta kategoria kontzeptual ezinbestekoak izan dira kritika genetikoaren sorrera eta bilakaera teorikoan; aurre-testuen sailkapenerako (ardatz paradigmatikoa edota kateatze sintagmatikoa) nahiz zirriborroetako testualizazio prozesuak deszifratzeko erabilitako baliabide nagusiak (zirrimarra, gehiketa, ordezkatzea, lekualdatzea, etab.), esaterako. Edonola ere, eskuarki ahozkotasunean oinarritzen diren ikerketa linguistikoak nekez aplika daitezke bere horretan idazketan oinarritzen den sorkuntza prozesuan. Bi erregistroen arteko ezberdintasun paradigmatikoa litzakete ahozkotasuna denboraren

parametroetan soilik gauzatzen dela eta, aldiz, idazketa denboran eta espazioan burutzen dela, hau da, idazketaren kasuan ahozko ekoizpenaren denboraren faktoreari euskarri grafiko batean txertatzen den espazioaren irizpidea gehitu behar zaio. Horrenbestez, behin bi erregistroen arteko berezitasun esanguratsuenak nabarmendu eta idazketaren ekoizpenean garrantzitsuak diren fenomenoak aipatu ostean, Grésillon (1992: 147-161) saiatzen da ahozko jarduna aztertzeko hizkuntzalaritzak erabili izan dituzten nozioak erregistro idatzira xeheki moldatzen eta horrela proposatzen ditu, besteak beste, "aldaera lotua" eta "aldaera askea" (lehena, gramatika akatsak eta antzeko erratak zuzentzearekin dago lotua eta bigarrenak, berriz, bestelako berridazketa helburu eta izaera bat luke), "idazketa aldaera" eta "irakurketa aldaera" (lehena, idazketa unean bertan egiten den aldaketa da eta bigarrena, aldiz, berrirakurtze ariketari lotua legoke) eta bestelako hainbat elementu operatzaile.

- Genesia eta kritika psikoanalitikoa:

Psikoanalisiak literaturan fikziozko testuetako pertsonaien jokamoldea eta bestelako xehetasunak aztertu eta, oro har, egilearen inkontzientearen aztarrenak bilatu eta interpretatzea luke xedetzat. Testu genetikaren alorrean, aurre-testuaren kontzeptuaren asmatzaile den Bellemin-Nöel ikerlariak, hain zuzen, sorkuntza prozesuko aurre-testu horiekin identifikatu zuen testu definitiboaren izaera inkontzientea. Inkontzientea kontzientziaren Bestea bada, aurre-testua testuaren Bestea litzateke eta bertan agertu daitezke modurik nabarmenean idazketa aldiko sortzailearen inkontzienteko ezaugarriak modurik gordinenean. *Vers l'inconscience du texte* (1979) lanean *textanalyse* deituriko metodo eta teoria garatzen ere saiatu zen eta "psikoirakurketa"-ra hurbilduko litzatekeen irakurketa estrategi gisa definitu zuen "testuanalisia". Halere, Bellemin-Nöelen "testuaren inkontzientea" kontzeptuari kritika egin zion psikoanalisian eta kritika genetikoan eskarmentu handia duen Philippe Willemartek eta "testuaren inkontzientea" nozioaren ordez "genesiaren inkontzientea" proposatuko du Flauberten *L'Éducation sentimentale* psikoanalitikoki aztertzerakoan (1995).

- Genesia eta soziokritika

Obra baten idazketaren uneko garai historikoaren eta gizartearen arteko harremanak aztertu nahiko lituzke soziokritika genetikoak. Horretarako, iturri eta literatur eraginez harago joan eta sorkuntza laneko testuarteko elementu orokorrei ematen die berebiziko garrantzia Zolaren lanetan aditua den Henry Mitterand genetistak. Izan ere, eginbidean dagoen idazle baten lan indibidualean, garai jakin bateko diskurtso kolektiboko zantzuak barneratzen dira intrinsekoki eta, are gehiago, idazketarako oinarri gisa beste testu batzuk baliatuz gero: aurrez irakurri, aukeratu, bereganatu eta transposizio gisa berridaztea erabaki den beste testu exogeno batek sorkuntza garaiari buruzko hainbat ezaugarri eta informazio biltzen ditu eta sorkuntza prozesu berrian testu endogeno eraberritu bilakatuko den arren, bertan mantenduko lirateke, nolabait, garaiko gizarteko ohiturak, ezagutzak, bereizgarriak edota bestelako oihartzunak:"Tout avant-texte condense, déplace, transforme et accommode du

discours social, dans des conditions telles qu'il est possible de reconstituer (hypothétiquement) les bases et le procès sociocritique de travail de préécriture" (Mitterand 1979: 214).

Sorkuntza prozesuko lekukotasunen artean atzeman daitekeen dimentsio historikoa zehazteko, Mitterandek (1989: 148-149) aurre-testuen genetika edo "gidoi bidezko genetika" (*génétique scénarique*) eta "scriptura edo idazketa bidezko genetika" (*génétique scripturale*) bereizten ditu lehendabizi. Gidoi bidezko genetika sortze eta asmatze unean berebiziko garrantzia duten eskema, dokumentazio ohar, laburpen, argumentuaren gidoi eta finean, erredakzio aldia baino aurreragoko aroari dagokiona litzateke; eta aldiz, idazketa bidezko genetika eskuizkribuen erredaktatze uneaz arduratuko litzateke. Mitteranden ikerketei jarraituz, erredakzio aurreko aroko gidoi antzeko lekukotasunek eskaintzen dituzte genetika eta kulturaren historiari dagozkien harremanak ikertzeko baliabide eta bitarteko nagusienak. Lekukotza horietan agertzen dira modurik nabarmenean, obraren idazketa aurretiko sinkroniaren baitan alegia, zenbait gertaera historikoren eta zenbait gizarte-diskurtsoren arteko harreman sortzaileak. Soziogenesiaren adibide paradigmatikoen artean, Flauberten *Bouvard et Pécuchet* zein *Hérodias* lanen aurre-testuetan aurkitu daitezkeen dokumentazio lan itzelaren ostean biltzen diren oihartzun historiko oparoak edota Mitterandek berak azterturiko Zolaren *Carnets d'enquetê* (1986) aipatu behar dira.

Esan bezala, aurre-testuen interpretazioa bideratzeko literatur teoriaren alorrean orain arte gailendu diren eta emaitza esanguratsuak eman dituzten diziplinekin batera, azken urteotako beste hainbat hurbilpen metodologiko ere aipagarriak dira: kritika genetikoa eta biografiaren arteko uztarketak egin ditu Michel Contat (1995) ikerlariak Sartreren lanak oinarri izanik; ITEM zentroko autobiografia eta korrespondentzia ekipoko zuzendari den Phillipe Lejeune-k (2000) autobiografiaren eta sorkuntza prozesuaren arteko loturak sakondu ditu, eskuizkribuetan soilik arakatu daitezkeen idazketa autografoaren zantzuak erreparatuz; Anne Herschberg Pierrotek (2012) estilistikaren ikuspuntutik ekin dio literatur lanen genesi bilakaera aztertzeari, besteak beste. Sarritan, gainera, egile berberaren lanak hainbat prisma eta ikuspegi teorikotatik ikertu izan dira eta beraz, interpretazioaren ondorioak ere aukeraturiko ikerketa lerroaren araberakoak izanik, euren artean osagarriak ere badira.

1.3. EDIZIO GENETIKOAK

Edizio genetikoak aurrez berreraikitako dosier genetikoa modu ulergarri eta irakurgarri batean argitaratzea du xede. Filologiaren klasikoaren esparruko edizio kritikoekin alderatuta, edizio genetikoak sakoneko desberdintasunak aurkezten ditu. Izan ere, edizio kritikoak egilearen intentzionalitatearekin hertsiki lotzen den jatorrizko edizioaren testu arketipikoa berrezartzea bilatzen du, galdu den edo jada bere horretan existitzen ez den lekukotasun idatziaren osteko berridazketa,

kopia eta testu apografoak arakatu, aldaerak aztertu eta jatorrizkotik hurbilen legokeen testua finkatzeko asmoz. Beraz, jatorrizko testuaren ondorengo testuetan, post-testuetan hain zuzen, oinarrituz gauzatzen den metodologia jarraitzen dute edizio kritikoek. Aldiz, edizio genetikoek aurre-testu autografoak izaten dituzte lehengai, hots, testualizaio bidean leudekeen une zehatzetako lekukotasun idatziak zein egileak berak eginiko proba, ohar, gidoi eta berridazketak. Helburua, berriz, ez da inolaz ere testu bat ezartzea, idazketa prozesuaren baitako mugimenduak eta lekukotasunak modu ordenatu eta kronologikoaren arabera aditzera ematea baizik.

1.3.1. Zenbait aurrekari: Italiako aldaeren kritika eta Alemaniako edizio historiko-kritikoak

Edizio kritikoei dagokienean, Lachmannek proposaturiko stemmaren berreraiketa-metodologia filologikoaren tradizioari jarraiki, Italiako eta Alemaniako filologia tradizioan, bereziki, bestelako ildo eta proposamen metodologiko batzuk ere jartzen dira martxan XX. mendean. Italian, aurrez aipatu bezala, Continik 1937an *Orlando Furioso* lanaren azterketarako baliaturiko "variantística" edo autorearen aldaeren kritika garatu zuen batetik. Cesare Segre-k honela definitzen du Continik abian jarritako aldakien kritikaren jarduna: "la critique de variantes étudie d'habitude les variantes apportées à un texte au cours de sa rédaction ainsi que les retouches visant à améliorer le texte achevé" (Segre 1995: 30). Horrenbestez, obra bat ulertzeko bi modu proposatzen zituen Continik izaera estatikoaren eta dinamikoaren arteko hautuaren arabera. Izaera dinamikoa, hain justu, idazketa prozesuarekin loturikoa litzateke, eta sorkuntza une jakin bateko aldaerak elkarrekin alderatzen ditu testuaren bilakaeraren berri emateko. Ondorengo lanetan ere bide horri ekingo dio eta Petrarcaren *Canzoniere*-ren ikerketa (1943) egitean ere, eskuizkribuko aldaerak azaleratu eta aztertuko ditu. Edonola ere, "la critique des variantes travaille tout près du texte, sur les retouches qui précèdent immédiatement sa mise au net, sa publication ou sa réédition" (ibid.: 31), eta, ondorioz, aldaeren kritika egiterakoan oinarrian dagoen testuaren gainean egiten diren aldaketek dute garrantzia. Hots, aldaerok aintzat hartu eta aurreko jatorrizko testuarekiko "hobekuntza" gisa interpretatzen diren neurrian, kritika genetikoak bere egiten dituen sortze prozesuko zirriborroen eta aurre-testuen azterketaren metodologiatik aldendu egingo litzateke Continik abiaturiko aldaeren azterketa. Haatik, Continiren autorearen aldaeren kritikaren esparrua eta Frantzian garaturiko kritika genetikoarena, elkarrengandik hurbil eta are osagarri izan daitezkeen bi ikerlerro dira Segreren iritziz.

Alemanian, bestalde, XIX. mende amaieran eskuizkribu modernoetako eta literatur testu garaikideetako lekukotzak oinarri izanik autorearen aldaeren aipuak jada zenbait edizio kritikotako oin-oharretan eskaintzen ziren. Dena den, Friedrich Beißner-ek Cristoph Martin Wielang-en idazlanak editatzerakoan –bereziki, 1943. urteaz geroztik Hölderlinen lan guztiak argitaratzen dituenean–, edizio historiko-kritiko modernoa deiturikoa sortuko du (Lluch-Prats 2010: 28). Horrela, "eskailera gisako metodo sinoptikoa" garatu zuen Beißnerrek (Colla 2005: 145) eta bertan, oin-oharretan zerrendatzera mugatu beharrean, eskailera gisako antolaketa grafiko berezi batean txertatzen ditu

aldaerak eta euren eraldaketa zein bilakaerak. Bertan, modu mailakatu batean, eraldatuko den oinarrizko testuko segmentu bakoitza zirriborroetako berridazketekin nahiz argitaraturiko edizioetako aldaerekin erkatzen da. Oinarrizko testu segmentua (lema) ezkerrean kokatzen da eta bere eskuinaldean, zenbaki bidez zerrendatuko dira aurki daitezkeen aldaera bakoitza kronologikoki sailkaturiko lekukotzen arabera. Era berean, baldin eta oinarrizko testu segmentu baten aldaeren batek ere bestelako aldakirik izaten badu, bere eskuinean ezarri beharko dira azpi-aldakiak, bestelako zenbakitze modu batez:

Lema	(1) 1. aldakia	
	(2) 2. aldakia	(a) 1. azpi-aldakia
		(b) 2. azpi-aldakia

Aldaerak aurkezteko metodo horren bidez oinarrizko testua genesi aldiko aldaerekin parekatzen da eta, beraz, sorkuntza aldiko lekukotasunak kronologikoki aintzat hartu eta modu antolatu eta ulerterraz batean eskaintzen dira. Sistema sinoptiko horren ekarpen nabarmenena hainbat idazketa aldiko aldaerei erreparatzea izan zen, sorkuntza prozesuaren baitako bilakaera ageriago egitea lortzen duen heinean. Halere, idazketa prozesuko eraldaketen konplexutasuna, bere osotasunean, nekez isla daiteke aldaerak erakusten dituen eskailera bidezko mailakatze lineal eta kronologiko baten bidez eta metodologiak horrek bere gabeziak ditu, besteak beste, sorkuntza aldian esanguratsuak izan diren atzera-aurrerako eta norabide anitzeko mugimenduak irudikatzeko. Gainera, Hayk (2002) ondorioztatzen duen bezala, Beißnerren lemma bidezko aparatuak ikuspegi teleologikoari jarraitzen dio eta horrenbestez, "bertsio hobea" lortzearen aldeko hautua egiten du.

Beißnerren bideari jarraitu eta aldaerak bere osotasunean azaleratzeko asmoz, Hans Zeller filologo germanistak proposamen berria egin zuen 1958an Conrad Ferdinand Meyer idazlearen lanen edizio kritikoa egiterako orduan. Oraingoan, aldaerak zutabeetan antolaturiko aparatu sinoptikoa eratzean datza bere ekarpena, baina horretarako, lehenik eta behin, aldaerak testuan bertan txertatzen ditu eta, bestetik, idazketa prozesuko ardatz sintagmatikoa eta paradigmatikoa hartzen ditu kontutan (modu horizontalean testu sekuentzia horizontala eta bertikalean, aldiz, aldaerak bere horretan). Gainera, dimentsio kronologikoari dimentsio topografikoa eransten dio eta doi-doi adierazten ditu aldaerak duten kokapen zehatza; bai sorkuntza prozesuko zein garaiko lekukotasuni dagokion eta baita zirriborroaren baitan aldaerak duen kokapena ere. Azkenik, aldaeren inguruko xehetasun gehiago azaltzeko, beren beregi sorturiko zeinu diakritikoak ere erabiliko ditu. Halere, eta Loisen hitzak ekarriz, Beißnerrek aldaerak testu definitiboaren argitan erakusten bazituen, "celui de H. Zeller les déploie déjà dans leur mouvement propre et se borne à faire ressortir l'état final de chaque rédaction" (2002: 375).

Edonola ere, aldaerak irudikatzeko aipaturiko edizio sistema horiek erakusten duten bezala, testua finkatzea bilatzen duen edizio kritikoetatik harago, hein batean edo bestean idazlanen genesia eta

sorkuntza prozesua analizatu eta ikusaraztea nahi duten edizio proposamenak ere garatu ziren Italian zein Alemanian, Frantziako kritika genetikoaren ikerlerroak sustatuko dituen edizio genetiko hertsiak baino lehen.

1.3.2. Tasun genetikodun edizioen tipologia

Genesi dosierra berregituratu ostean, aurre-testuen materiala argitaratzeko hainbat irtenbide eta aukera balia daitezke, hots, tasun genetikodun edizioen tipologia bat bereiz daiteke, argitaratze euskarriaren araberakoa (paperean edo euskarri digitalean kasu) edota sorkuntza prozesua osoa (makrogenesia) edo idazketa aldiko atal jakin bat (mikrogenesia) azaleratzeko eginiko hautuen artean, besteak beste. Izan ere, ezinezkoa da edizio eredu bakar eta bateratzailea erdiestea, dosier bakoitzak, autore eta obra bakoitzak bezalatsu, bere berezitasunak aurkezten dituzten neurrian. Era berean, edizio genetikoetako berezitasunak azaltzeko erabilitako aparatu kritikoak ere askotarikoak dira. Hori bai, sorkuntza genesia islatu nahi duten edizioek corpus bikoitza aztertu behar dute, batetik obra baten eskuizkribuetako laginak eta argitaraturiko edizioaren testua bestetik. Azkenik, transkripzioaren nolakotasunaren eta argitasunaren garrantzia nabarmendu behar da, irizpide garrantzitsuena edizio genetikoaren irakurgarritasuna bermatzea baita.

- Faksimile-edizioa: jatorrizko zirriborroen irudiak jaso eta kalitate grafikoa hobetzen duten faksimile bidezko erreprodukzio tekniken bidez eginikoa da. Argazki bidezko prozedurak erabiliz osatzen da eta, azken batean, eskuizkribuaren erreprodukzio grafiko zehatza da lortzen dena, ikerlariaren bestelako esku-hartzerik, transkripziorik edota oharren aparaturik gabe. Erdi Aroko testuak finkatzetik eratorritako egungo edizio diplomatiko modernoak ere faksimilearen funtzio bera beteko luke.

- Edizio genetikoak: dosier genetikoaren atal baten edizioa edota idazketa prozesuaren edizio osoa biltzen dituen edizioak lirateke (Grésillon 1994: 191-194; Lluch-Prat, 2010: 42). Gisa honetako edizioek ez dute testua finkatzeko asmorik, ez bada testualizazio prozesua bere horretan eta idazketaren ibilbidea azaleratzea baino. Aurre-testuak dira ikergairen oinarria, eta inolaz ere ez testua. Idazketaren prozesua bere horretan islatzeak inprimaturiko testuaren ezaugarri den linealtasuna eteten du ondorioz, edizio hauen irakurketa oso zaila eta nekeza suertatzen da gehienetan. Hori dela eta, argitalpenok, nagusiki, genetista eta irakurle adituei zuzenduta daude.

Biasik (1996; 2011), lehendabizi 1980-1995 urteen artean Frantzian argitara emandako argitalpenak aintzat hartutik eta bere ikerketa 2011ko lanera egokituz, edizio genetikoen tipologia propio bat eratzen du eta edizio horizontalak eta bertikalak bereizten ditu. Horretarako, kronologiaren eta idazketa aldien arabera, dosier genetiko bakoitza azpi-dosierretan sailkatu daitekeela ondorioztatzen du, hots, dokumentu pilaketa bakoitza multzo edo geruzatan bana daitekeela. Lekukotasun zaharrenetik berrienetara antolaturiko eskuizkribuen pilaketa osoak egitura bertikala duenez, dosier

genetiko osoa edo zatirik zabalena aurkezten duen argitalpenari edizio bertikala deituko dio eta, aldiz, dokumentu meta bertikalaren baitatik ateratako eta, beraz, horizontalki multzokatu daitekeen geruza jakin bati dagokion argitalpenari edizio horizontala deritzo.

Horrenbestez, "L'édition horizontale a pour vocation la publication d'un ensemble de documents se rapportant à une phase précise de la genèse, à un moment ou à un objet délimité du travail de l'écrivain" (Biasi 2011: 156) eta ondorioz, idazketa prozesuaren une zehatz eta mugatu bat argitara ematea da bere xedea. Horrela, eskuizkribuen azterketatik eratorri daitekeen idazketaren izaera sekuentzial, mailakatu eta diakronikoa nekez azaleratu badaiteke ere, erredakzio aldiaren aurretiko uneari dagokion lekukotasunak (argumentu, oharrak, gidoiak, eskemak eta abar) argitara emateko baliabide egokia bilakatzen da edizio horizontalena; zenbaitetan, gainera, baita testuaren argitalpen osteko garaiari dagokion berridatzitako bertsioen laginak erakusteko ere. Edizio horizontalen baitan, bestetik, argitaraturiko obraren eskuizkribuetan oinarrituriko argitalpenak, argitaratu gabeko lanen edizio horizontalak eta azkenik, kopuru zabaleko edizio horizontalak aipatzen ditu, azken horiek, idazketa aldi zehatz baina oparo bati dagozkionak, hain zuzen.

Aldiz, edizio bertikalak sorkuntza prozesuaren idazketa aldi guztien katea edota mailakatze osatuena biltzen duen dosier genetikoa argitara ematea du helburu: "Elle se donne pour objectif, (...) la publication chronologique des documents se rapportant à la série intégrale (...) des transformations successives qui constituent sa genèse" (ibid.: 170). Idazketaren ibilbide genetikoa hastapen lekukotasunetatik azken emaitzaraino berregituratzea da bilatzen duena: batetik, aurre-testuen egoerari erreparatuz, hau da, aurreneko trazu idatzietatik hasi eta zuzenketa-proben azken laguneraino eta, bestetik, egoera testuala bilduz, argitara emandako lehenengo edizioaren zuzenketa edota idazlea bizi artean eginiko azken edizioaren zuzenketa autografodun lekukotasunetaraino. Edizio horizontalekin egin bezala, edizio bertikalen artean ere bereizketak proposatzen ditu Biasik: edizio bertikal integralak (ipuin, *nouvelle*, poema eta genero laburreko lanei dagozkienak nagusiki); edizio bertikal partzialak (eskuizkribuen dimentsio zabala aintzat hartuta egiten diren zatikako edizio bertikalak) eta, azkenik, edizio bertikal aukeratuak (soilik genesiaren azterketaren lagin argitaratu batzuk erakutsiz egiten den iruzkin genetikoak).

- Eite genetikodun edizioak: edizio kritikoak izatera iritsi gabe ere, argitaraturiko testuaren aurre-testu genetikoei leku zabala eskaini eta horien azterketa da proposatzen dena. Sarritan, helburu didaktikoak zein dibulgatzaileak medio, testu sorkuntzari eta idazketari buruzko ikasgaiak transmititzeko erabili izan dira eskuizkribuen lekukotasunak. Lanaren izenburuak ongi azaltzen duen bezala, Claudette Oriol-Boyer-rek zuzenduriko *Critique génétique et didactique de la réécriture: travailler avec les brouillons d'écrivains* (2003) lana litzateke horren adibidea: kritika genetikoaren ekarpenak berridazketaren didaktikarako baliatu nahi dira eta horretarako, hainbat ariketa, unitate didaktiko, azalpen teoriko eta metodologia praktiko proposatzen dira, eskuizkribuak eta berauen lanketaren

bidez, idazten baino, berridazten irakasteko. Horrela, XIX. mendeko hiru autoreren lanak (Flaubert: idazketaren planifikazioa; Zola: dokumentazio oharrak eta pertsonaia baten egituraketa eta erabilera; Maupassant: idazketa proiektua eta honen eragina berridazketaren baitan) eta XX. mendeko beste birenak (Ponge: berridazketaren lau eragiketa nagusiak; Lahougue: idazketaren ariketa mugatua) erakutsiz, landuz eta azalduz osatzen da liburuko kapitulu bakoitza. Idazten ikasten den bezalaxe, berridazten, hots, idatzi dena berrirakurtzen, zuzentzen, moldatzen, ezabatzen, eraldatzen eta azken finean, zehazten irakasteko baliatu nahi dira eskuizkribuak eta idazleen idazketa prozesuak.

- Edizio kritiko-genetikoa (Lluch-Prats 2010: 43-44): edizio mota honetan bat egiten dute, hein batean, edizio kritikoak xede duen testua finkatzeko betebeharrak eta idazketaren genesiaren bilakaera aditzera ematen duten gainerako argibideek. Horrela, adibidez, azalpen kritiko eta bestelako datu esanguratsuak testuaren oin-oharretan ager daitezke eta bestetik, genesiaren bilakaera ulertarazteko eta irakurrarazteko beharrezkoak diren gainerako argibideak eta xehetasunak, berridazketa edo aldaera segidak kasu, testuaren marjinetan koka daitezke. Aurrez aipaturiko italiar filologiaren tradizioko autoreen aldakiak zerrendatzen diren edizioak eta alemaniar tradizioko edizio historiko-kritikoak gisa honetako edizioei dagozkie. Halere, *Archivos* bildumako argitalpenak lirateke adibide adierazgarrienak, proiektuaren hastapenetatik oinarri teorikoak hitzartu, eskuizkribu modernoak ikertzeko filologiaren metodologia bereganatu eta, aldi berean, kritika genetikoaren berritasun teoriko eta teknologikoak barneratzen baitituzte. Horrenbestez, testuaren ekoizpen moduari garrantzia ematen dion edizio mota da edizio kritiko-genetikoa deritzona eta dosier genetiko osoa edo atal jakin batzuk erreproduzitzen dira horretarako. *Archivos* bildumako zenbait lanetan bezala (Colla 2005: 181-216), sorkuntza laneko bilakaeraren alderdirik esanguratsuenen inguruko gainerako azterlanak ere bildu daitezke argitaraturiko edizioan. Beraz, ediziook testu kritikaren metodologia baliatu eta testua ezartzea helburu izanik, era berean edizio genetikoen zantzuak biltzen dituzte, besteak beste, aurkezten dituzten dokumentuen deskribapen eta transkripzio zehatzak eskaintzen dituzten neurrian.

- Edizio digitalak: orain arte aipaturiko edizio ereduak paperezko euskarrian argitaratu izan direnak dira eta askotan, obra baten eta bere aurre-testuen lekukotasun kopuruaren arabera beti ere, paperean eginiko edizioak tamaina oso handiko eta erabilera zaileko argitalpen bihurtzen dira. Azken urteetan, ordea, informatikaren esparruan jazotako berrikuntza teknologikoek hainbat ekarpen esanguratsu eskaini dituzte, ez soilik idazlan baten sorkuntza genesia zedarritzeko zenbait metodologia eraberritzeko orduan, baita argitalpen genetikoei dagokionean ere. Izan ere, ordenagailuko euskarri digitalaren bidez, lehenik eta behin, gainditu egiten paperezko argitalpenetan eragozpen izan daitekeen dimentsio erraldoiaren auzia, edizio digitalek leku txikiagoan datu gehiago barneratzeko aukera eskaintzen baitute. Ondorioz, genesirako ezinbestekoak diren lekukotasun idatzien irudiak eta transkripzio digitalizatuak elkarrekin lotutako hipertestua eratzen dute eta pantailako askotariko leihoen bidez ikusarazten dira. Multimedia bidezko argitalpenek eta hipertestuaren baliabideak, adibidez, orrialde elektroniko batetik besterako “jauziak” egitea edota idazketa aldi desberdinetako

lekukotasunak aldi berean ikusgarri izatea ahalbidetzen du, baita sorkuntza prozesuarekin harremana duten bestelako artxiboak (audioak zein irudi bidezkoak) aurkezteko aukera ere. Azkenik, paperezko edizioetan bezala, edizio genetiko digitalen irakurketa ez da norabide bakarrekoa, nahierakoa baizik eta irakurlearen esku gelditzen da genesiaren bilakaera nahi duen norabidean arakatzea. Hori dela eta, "irakurketa dinamikoa" (Íbidem: 168) ahalbidetzen da, demagun, garai bereko idazketa lekukotasunak alderatzerako aukera ematen delako edota berridazketa jakin batzuen bilakaera jarraitu daitekeen neurrian. Idazketaren sorkuntza prozesua lineala ez bada eta paperezko edizio genetikoetan ere idazketaren linealtasun etena islatzen bada, are gehiago edizio digitalak eskaintzen duen irakurketak. Edizio digitalen metodologia eta adibide praktikoak Domenico Fiormonte (2003; 2010) genetistaren hainbat lanetan ikus daitezke.

2. EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ETAKRITIKA GENETIKOA

2.1. EUSKAL LITERATURA ETA IKERKETA GENETIKOAK

2.1.1. Testu genetikan oinarrituriko lanak

Euskal literatura garaikidearen ikerketen alorrean kritika genetikoaren inguruko interesa Ipar Euskal Herriko unibertsitatearen esparruan sortu zen duela hogei bat urte gutxi gorabehera, aurrez aztertu bezala testu genetikaren oinarri teoriko eta metodologikoak Frantzian ezarri baitziren. Aurelié Arcocha-Scarciak (Université Bordeaux Montaigne), hain zuzen, 1990tik aurrera Baionako fakultateko Euskal Ikasketetako Masterrean literatur teoriako eskoletan testu genesiaren oinarriak lantzen ditu. 2004ean Parisko Institut de Textes et Manuscrits Modernes (ITEM) institutura atxikitzen da eta IKER-UMR 5478 (CNRS-UBM-UPPA) laborategian Euskal Testuak Eta Genesiak (ETEG) ikertaldea sortu zuen. 2005eko uztailean, berriz, Arcocha-Scarciak eta Mari Jose Olaziregik elkarrekin antolatu eta zuzendu zuten *Genésis del texto: el proceso creativo a través de los borradores* izeneko EHUko Udako Ikastaroa, kritika genetikoa hizpide zuten jardunaldiak. Helburu nagusiak kritika genetikoa zertan datzan azaltzea, kritika korronte horren onurak eta lorpenak erakustea eta euskal literaturaren eremuan izan zitzakeen aplikazioak eztabaidatzea izan ziren. Batetik, Daniel Ferrer ITEMeko zuzendari ohia eta James Joyce idazlearen lanaren espezialista, Javier Lluch-Prats Bolognako unibertsitateko irakaslea eta Domenico Fiormonte Roma IIIko irakaslea aritu ziren hizlari gisa. Bestetik, euskal literaturaren esparruan kritika genetikoaren erabilera praktikoa hobeto azaltzeko, Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* poemarioaren sorkuntza-prozesua aztertu zuen Arcocha-Scarciak azterketa idazlearen eskuizkribuetan eta aurre-testuetan oinarrituz; era berean, Bernardo Atxagak bere poema batzuen analisia aurkeztu zuen, eskuizkribuak eta idazketa aldiko hainbat lekukotasun jendaurrean erakutsiz. Jardunaldietako ekarpenak *En el taller del escritor: génesis textual y edición de textos* (EHU, 2010) izenburudun argitalpenean bildu ziren.

Argitalpen horretan Joana Pocheluk ere parte hartu zuen "El manuscrito de *Akordatzen* de Joseba Sarrionandia: la imposible crítica del olvido" artikuluarekin. Pocheluk urteak daramatza euskal literaturaren eremuan testu genetikaren ikerketak burutzen eta horren erakusgarri dira bere argitalpenak: DEArako egindako ikerlanean, Eñaut Etxamendiren lanak genetikoki aztertu zituen eta lan hartan oinarriturik lehendabizi "Testuen genetika. Lau dosier genetikoren azterketa, Eñaut Etxamendi-ren testu argitaragabe batzuen trapuetan oinarriturik" artikulua kaleratu zuen *Euskonews* aldizkariko 269. zenbakian eta ondotik, "Etude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxamendi" artikulua eman zuen argitara 2005eko *Lapurdum* aldizkariaren 10. alean. 2006ko *Lapurdum* 11. zenbakian, aldiz, Atxagaren *Soinujolearen semea* eleberrian oinarrituriko bere tesiaren

berri eman eta testu genesia azaleratu eta ikustarazteko MEDITE (Machine d'Étude Diachronique et Interprétative du Travail de l'Écrivain) programa informatikoa aurkeztu zuen "Où on parle (toujours) de génétique textuelle…" artikuluan. Jarraian, *Lapurdum*en 13. aleko "Aldakiak eta aldaerak: Atxagaren Obabako amerikanoa" artikuluan, MEDITE programaren aplikazio praktikoa aurkeztu eta *Soinujolaren semea*ko "Obabako lehen amerikanoa" kontakizunaren testu genesia aztertu zuen. *Lapurdum*en zenbaki horretan, bestetik, kritika genetikoarekin loturiko beste bi artikulu ere biltzen ziren: bata, Olaziregik sinaturiko "Testuak mugimenduan. Iruzkin laburrak egungo euskal literatur lan zenbaitez" izenekoa, zeinetan bereziki Atxagaren *Bi anai* lanaren bi lekukotasunak erkatzen zituen; bestea, Lluch-Pratsen "Las *variantes de autor* en el proceso genético y editorial del texto literario contemporáneo" artikulua.

Azkenik, Joana Pocheluk Aurelié Arcocha-Scarciaren zuzendaritzapean 2010ean aurkeztu zuen tesia dugu euskal literaturako obra batean oinarriturik eginiko ikerketa genetikorik garrantzitsuena: *Etude d'un dossier génétique fragmentaire: Réécriture. Ecriture. Désécriture dans* Le fils de l'accordéoniste *de Bernado Atxaga* (Michel de Montaigne-Bordeaux 3).

2.1.2. Bestelako hainbat saiakera

Euskal literatura garaikideko sorkuntza-prozesuaren inguruko bestelako hainbat ikerketa egin badira ere, ondoren aipatuko ditugun hurbilpenak ezin dira zentzu hertsian analisi genetiko gisa ulertu, helburua ez baita testuaren mugimendua atzematea eta dokumentatzea, ez bada une zehatz bateko lekukotasunak agerian jartzea.

Horien artean, aipagarriena Jon Kortazar eta Paulo Kortazarrek 2008an argitara emaniko Lekuonaren *Ibaiak basamortuan* lan argitaragabearen eskuizkribuak lirateke, baina eurek aitortzen dutenez, ez dute kritika genetikoaren bidea jorratzen eta poemen argitalpena litzateke eskuizkribuen argitalpenaren xedea (Lekuona 2008: 12).

Bestalde, Ahinitz Gerrikagoitiak zenbait euskal idazle aintzat harturik (Rikardo Arregi, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Ramon Saizarbitoria, Kirmen Uribe eta Iban Zaldua) literatur lan bat idazteko sortze-prozesua askotariko bideak agerian jarri zituen *Oihenart* 24. aldizkarian argitaraturiko "Sortze-prozesuak euskal literaturan" artikuluan. Galdetegi gisa formulaturiko lanean aipatu idazleen idazketa prozesuari buruzko hainbat argibide eta xehetasun biltzeaz gain, ordea, ez da testu zehatzez hitz egiten. Beraz, izatekotan ere, soilik egile horien lanetan oinarrituriko azterketa genetikoa egingo bagenu balia genezake Gerrikagoitiaren lana, benetako testu genetikaren osagarri gisa.

Azkenik, testu genetikara eta aldaeren kritikaren muga lausoan kokatzen den Sebastian Gartzia Trujilloren "Bitorino Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* poema liburuaren metamorfosia" artikulua dugu, 2008an Euskaltzaindiaren *IKER 21* zenbakian argitara emandakoa. Izatez, testu mekanografiatua eta

inprentako testuaren arteko erkaketatik abiatzen da ikerketa eta "poema liburua ez izatetik poema liburua izatera. Prozesu horri jarraitzea eta prozesu horren eragileen lana markatzea da lan honen helburua" (Gartzia Trujillo 2008: 177). Ondorioen artean, *Hiru gizon bakarka*ren bi bertsioak (testu mekanografiatua eta inprentako testuaren artekoa) oso desberdinak direla eta argitalpeneko bertsioa "liburu berri bat" dela baieztatzen du egileak. Bestetik, liburua egituratu eta antolatzerako orduan Mikel Lasa eta Pello Zabaletak izaniko esku hartzea azpimarratzen du Gartzia Trujillok.

2.1.3. Euskal literatura garaikideko testu eraldaketen eta berridazketen hainbat adibide

Ohi denez, aurre-testuak idazlearen eremu pribatuari dagozkio, testua edo liburua argitaratu eta publiko egin aurreko aldiari, hain zuzen. Zirriborro, ohar eta sorkuntza-prozesuko lekukotasunak nekez erakusten dira, ordea, eta kritika genetikoa egin nahi duen ikerlariari ezinbesteko zaio, idazketa aldia bere osotasunean dokumentatu nahi badu, eskuizkribu, edo behintzat, proiektu baten idazketa aldiko ahalik eta aurre-testuen lekukotasun gehiena eskuratzea, aztertzea, azaleratzea, alderatzea eta ondorioak ateratzea.

Aldiz, sarritan, bukatutzat emaniko edota behin argitaraturiko lan bat ondoren etorriko den beste lan baten ernamuin, abiapuntu eta oinarri bihurtzen da eta halako kasuetan, aurrez publikaturiko testua idazketa prozesu berriaren aurre-testu gisa ulertu beharko litzateke. Hasiera batean amaitutzat ematen den lanak jarraipena izaten baitu berrargitalpenen batean edota bestelako argitalpen batean, eta beraz, publikaturiko lana ondoren etorriko den idazketa aldiaren aurrekari zuzena da, sortuko den lan berriaren aurreko zirriborroa, alegia. Horrela, eskuizkribu edo zirriborroak erakusgarri egin ez arren, halako bilakaera izan duten literatur lanak eraldaturiko testutzat eta ondorioz, berridazketatzat hartu beharko genituzke.

Ondorengo kapituluetan sakonki landuko ditugun Bernardo Atxagaren eta Ramon Saizarbitoriaren obrez gain, euskal literaturan badira horrelako hainbat adibide. Iban Zalduak *Euskaldun guztionaberria* nobela laburra edo *nouvelle*a argitara eman zuen 2008an eta elkarrizketa batean adierazi bezala, "*Si Sabino viviría* (Lengua de Trapo, 2005) espainolez idatzitakoarekin gertatu zen bezala, 'hasieran huts egindako ipuina da'" (Abaroa 2008). Izan ere, 2007ko abuztuan "Anchorage" izeneko ipuina kaleratu zuen *Berria* egunkariaren eskutik eta hain justu, ipuin hori da ondoren idatziko duen ipuin luzearen ernamuina: "Funtsean, nobela horiek [*Si Sabino viviríaz* ere ari da] ipuinen zabalkuntza bat dira, hau da, gaizki atera zaizkidan ipuinak". Horrela, jatorrizko ipuinean ondorengo *nouvelle*an aurkituko ditugun elementu narratiboen zantzuak biltzen dira, baina "Anchorage" ipuin laburrak egunkariko orrialde bat betetzen zuen bitartean, *Euskaldun guztion aberria*k ehun eta hogei orrialde ditu eta beraz, "Anchorage" *Euskaldun guztion aberria* liburuaren aurre-testua bilakatzen da.

Bestalde, Zalduaren kasuan eta ipuingintzaren generoak hala eraginda, sarritan ipuin liburu edo ipuin bildumetan txertaturiko hainbat ipuin aurrez beste hedabide edo argitalpenetan argitaratu izan ditu.

Beraz, horrelako kasuetan ere, testuak eraldaketak jasaten dituzten heinean, sorkuntza-prozesua edo idazketa aldiko lekukotasun ezberdin gisa har daitezke testuok, nahiz eta kasu guztietan, lekukotasun horiek argitaratu osteko aldian kokatu. Izan ere, *Animalia disekatuak* artikulu bilduman honakoa aitortzen du: "ez naiz lasai geratzen testu galkorrak –artikuluak– liburu baten iraunkortasuna aurkitzen duen arte" (Zaldua, 2005: 97). Eta jarraian, "nolabaiteko grina kanoniko-finkatzaileak, hemen aurkezten direnak artikulu eta testu marginal horien guztien behin-betiko bertsioak baitira (oraingoz)" baieztapen ironikoa gaineratzen du, oraingoz hitza gaineratzearekin behin-betiko bertsioaren ideiari nolabait muzin eginaz. Beraz, esan genezake, artikulu bildumako joera hori ipuinen generora ere hedatzen duela.

Euskal literatura garaikideko beste adibide bat Mikel Hernández Abaituaren *Ahotsak* (1996) ipuin bildumaren eta *Ohe bat ozeanoaren erdian* (2001) nobelaren arteko loturetan aurki dezakegu. *Ahotsak* liburuan, euskal gatazka deitu denarekin zerikusi zuzena duten hiru ipuin eman zituen argitara Hernández Abaituak: "Lehen ahotsa" ipuinean narratzaileak paralizaturik ikusiko du kale-borroka ekintza batean autobus bat nola kiskaltzen duten; bi azpiataletan eta planotan bereizitako "Bi ahots" ipuinean, atentatu batean ahizpa bikia galtzen duen guardia zibilaren alabaren kontakizuna eskaintzen da aurreneko atalean eta bigarren atalean, aldiz, autoaren azpian bonba jarri zuen etakidearen aitortza biltzen da; azkenik, "Azken ahotsa" izenekoa, 2096an kokatzen da eta ehun urte lehenago idatziriko gutun baten berri ematen da, 1996an euskal idazle batek ETAko buruzagia den lagunari bidalitako gutuna transkribatuz. 2001ean argitaraturiko *Ohe bat ozeanoaren erdian* nobelan, Hernández Abaituak Euskal Herriko gatazka soziopolitikoarekin nazkatuta Bolognako unibertsitatera lan egitera ihes egiten duen narratzailearen istorioa kontatzen du. Euskal Herritik Italiara autoz bidaiatzen doala gogoetetan murgiltzen da eta barne-bakarrizketaren ondorioz hainbat kontakizun eta pentsamendu ekartzen ditu burura. Eta hain zuzen, istorio horien artean *Ahotsak* liburuko hiru ipuinak txertatzen ditu egileak nobelaren baitan.

Ohe bat ozeanoaren erdian nobelak hamasei kapitulu ditu eta horietako lau erabiltzen dira *Ahotsak* liburuko ipuinak barneratzeko. Lehenik eta behin, narratzaileak Donostiako kale-borroka ekintza bat gogoratuko du eta ondorioz, nobelako bigarren kapituluan "Lehen ahotsa" ipuina erreproduzitzen da bere horretan. Aldiz, "Bi ahots" ipuinaren bi atalak nobelan zehar bereizi egiten dira eta laugarren kapituluan ipuineko "Bat" biltzen den bitartean, liburuko zazpigarren kapituluan ematen da ipuinaren jarraipena edota "Bi" azpiatala. Azkenik, bederatzigarren kapituluan ematen da *Ahotsak* laneko "Azken ahotsa" ipuina. Aurreko bi ipuinak nobelan txertatzerako orduan jatorrizko testua bere horretan mantendu da eta beraz, ez da aldaerarik ipuinen eta nobelaren baitako testuen artean. Aldiz, "Azken ahotsa" nobelan txertatzeko hainbat moldapen egiten dira: batetik, ipuineko gutunaren aurkikuntzaren inguruko testuinguru futurista oro ezabatu egin da (orotara, ipuinaren hasierako 5 paragrafoak) eta nobelako bederatzigarren kapituluan zuzenean erreproduzitzen da gutuneko testua (nahiz eta ipuineko beste hainbat paragrafo ere ezabatu egin diren, hasierakoak bereziki). Halere,

zortzigarren kapituluan jada narratzailearen eta gutunaren hartzailearen arteko harremanaren inguruko hausnarketa eskaintzen da eta, nolabait, esan daiteke zortzigarren kapituluko amaierako pasarteak liratekeela "Azken ahotsa" ipuineko gutunaren testuinguru gisa jokatzen duen atala. Bestalde, gainerako aldaerak direla eta, ipuineko gutunaren hartzaileak Joseba izena badu ere, nobelan "Ander" deitzen da. Fikziozko gutunean, besteak beste, euskal literaturaren inguruan hitz egiten da eta lan jakin batzuen inguruan aritzeko ipuinean soilik idazleen siglak aipatzen diren bitartean (MH, BA eta RS), nobelan Bernardo Atxaga eta Ramon Saizarbitoria egileak esplizituki aipatzen dira (MH-ren ordez, gainera, MHA aipatzen da nobelan eta oraindik eta agerikoago egiten da ipuinaren eta nobelaren baitako nobelaren idazlea bat eta bera direla, hots, Mikel Hernández Abiatua). Eta azkenik, ipuinaren eta nobelako kapituluaren arteko aldaera nagusien artean bukaera aipatu behar da, nobelarako ipuineko hastapen testuingurua ezabatu egin denez, gutunaren bidaltzailearen eta hartzailearen heriotzen berri ematen den ipuineko azken paragrafoa ere ezabatu egin baita nobelan. Edonola ere, bost urte lehenago argitaraturiko ipuinak nobelaren baitan txertatzean, bestelako testuinguru narratibo bat ematen zaie aurrez eite autonomoa zuten ipuinei eta horrela, testuingurua aldatzearekin batera testua bera ere aldatu egin dela ondorioztatu behar dugu, bai jatorrizko testua bere horretan mantendu denean ("Lehen ahotsa" eta "Bi ahots") eta are gehiago, gainera, jatorrizko testua moldatu eta eraldatu egin denean ("Azken ahotsa").

Bestelakoak dira Joxean Agirreren narratibagintzan aurki ditzakegun testu-berridazketa estrategia eta adibideak. Argitaratu dituen zazpi nobeletako askok lotura zuzenak dituzte euren artean, bai liburuen tematika nagusiari edota bestelako hainbat ezaugarriri dagokionean ere. Horrela, *Gizon bat bilutsik pasiloan barna* (1991), *Romain zen bere izena* (2003), *La lutte finalle* (2008), *Zwei Frauen* (2011) eta *Adiskide maitea* (2013) nobeletan itxuraldaketek, identitate faltsutzeek, sorkuntza eta plagioaren gaiek eta funtsean, imitazioaren eta eraldaketaren askotariko gaiek alderik alde zeharkatzen dute Agirreren nobelagintza. Gainera, *La lutte finalle* eta *Adiskide maitea* nobeletan bezala, protagonistak eta beste hainbat elementu ere berdinak dira eta nolabait, bi nobelen arteko loturak are eta estuagoak bilakatzen dira. Dena den, berridazketez aritzeko antzeko gaiak behin eta berriz jorratzea nahikoa ote den beste eztabaida bat da[8] eta oraingoan, berridazketez arituko gara zentzu hertsian.

Izan ere, bada eszena zehatz bat *Gizon bat bilutsik pasiloan barrena* eta *La lutte finalle* nobeletan errepikatzen dena. 1991an kaleraturiko nobelan protagonistak aireportuan gertaturiko gaizkiulertua kontatzen du, adiskide baten zain zegoela emakume batek bere senarrarekin konfunditu eta azalpenik

[8] Pello Lizarralderen nobelagintzan ere behin baino gehiagotan errepikatzen da ihesaren gaia nobelaren leitmotiv gisa eta kontatekniken estilo narratiboak ere jauzi egiten du nobela batetik bestera. Hori horrela, badute loturarik *Hatza mapa gainean* (1988), *Larrepetit* (2002) eta *Orbanak* (2012) nobelek baina zentzu hertsian, ezin esan daiteke berridazketatzat hartzeko argudio irmorik dagoenik. Edonola ere, aintzat hartzekoak dirudite Lizarraldek berak euskarara itzuli duen beste egile bati buruz esaten dituenak, Modianori buruzkoak hain zuzen, hein batean Lizarralderen literaturgintzari ere aplika dakizkiokeen neurrian: "'Modianok beti nobela bera idatzi du, beti liburu bera, eta horregatik gustatzen zait niri', dio Lizarraldek. Modiano berak ere halaxe adierazi izan du behin baino gehiagotan, nobela bakarra idazten ari dela beti. 'Azken batean, bariazioak egiten ditu, eta oso gutxitan urrundu da bere betiko moldetik'". (Zabala 2014).

eman gabe etxera eramaten duenekoa. Are, narratzaileak berak aitortzen du mila aldiz kontatu duen istorioa errepikatzen ari dela. Eta hain zuzen, hamazazpi urte beranduago idatziriko nobelan eszena bera erabiltzen du Agirrek bi protagonistak, eta euren maitaleak, korapilatzeko. Horrela, protagonista-narratzailea aireportuan adiskide baten zain dagoela emakume bat gerturatzen zaio atzetik eta senarra delakoan, mingainarekin gingila miazkatu ondoren, elkarrekin joango dira etxera. Edonola ere, bi bertsioen artean badira aldaerak eta *Gizon bat bilutsik pasiloan barrena* nobelan gaizkiulertua nahiko azkar argitzen bada ere, *La lutte finallen*, aldiz, hilabete batzuetara luzatuko da ekibokoa. Horregatik esan genezake 2008ko nobelan 1991an argitaraturiko nobelako eszena berreskuratu eta nolabaiteko aurre-testua izango balitz bezala, bestelako osagaiak eta eraldaketak gaineratzen direla bertsio berrienean. Ez da, ordea, bi nobeletako pasarteetako argumentua soilik errepikatzen, bi nobeletan aurkitu dezakegulako pasarte jakin horren ondoren errepikatzen den hitzez hitzezko gogoeta ere:

La lutte finalle (2008)	*Gizon bat bilutsik pasiloan barrena* (1991)
Are gehiago esango nuke: maitasun historiak izan dira, maitasun historia gehienak bezala gaizki-ulertze baten gainean oinarritu baziren ere.	"Ekiboko baten gainean eraikitzen dira batzuetan maitasunik haundienak, harik eta gero, egia deskubritzean, hiltzen diren arte", erantsi diot, kontatutako pasadizua justifikatzeko edo.

Zentzurik hertsienean idazle baten lanetan hainbat tematika eta elementu errepikatzea berridazketa ariketa gisa ulertzeko aski ez izanik ere, sarritan zenbait pasarte aurrez idatzirikoaren bertsio bilakatzen dira eta, ondorioz, lehendik idatzirikoa zirriborro edo aurre-testu gisa uler daiteke; ikuspuntu horretatik, beraz, baiezta liteke bi pasarteak bata bestearen aldaera direla.

Bestetik, egungo euskal literaturako nobela arrakastatsuenetako bat aipagai hartuz, hots, Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), aurrez argitara emaniko hainbat testu bestelako sorkuntza prozesu batean nola berrerabiltzen diren jabetu gaitezke. *Bilbao-New York-Bilbao* nobelan, autofikzioaren eta metafikzioaren arteko uztarketaren bidez, Uribek Ondarroako familiako hiru belaunaldien gorabeherak kontatzen ditu eta, aldi berean, liburuaren beraren eraikuntza prozesua azaleratzea bilakatzen du idazketarako gai. Gainera, Uriberen nobelako istorioetako ez gutxi, aldez aurretik *Berria* eta *Gara* egunkarietan argitaratu ziren prentsa-zutabe gisa eta nobelaren baitan barneratzeko, sarritan kasik aldaera gabe eta batzuetan moldaketa nabarmenak gaineratuz, berridatzi egin ditu. Beraz, nobelan zehar egileak txertatzen dituen aurrez prentsan argitaratutako zutabeak ere nolabaiteko aurre-testu bilakatzen dira eta era berean, argitara emandako zutabeak testuinguru eraberritu batean txertatzean, bestelako esanahi, funtzio eta azken batean, testu eraberrituak bilakatzen dira.

Unai Elorriagaren obren artean ere berridazketa ariketa nabarmen bat aurkitzen da. 2005ean *Vredaman* nobela kaleratu zuen eta lau istorio katramilatzen dira bertan. Urtebete beranduago, gaztetxoenei zuzendutako *Matxinsaltoaren belarriak* eman zuen Elorriagak argitara eta liburu honi eginiko kritikan

argi adierazten den bezala, "*Matxinsaltoen belarriak* hau egilearen *Vredaman* hirugarren eleberriaren 'hustuketaren' ondorioa da, hain zuzen ere Tomas haurra narratzaile zuten pasarteen bilduma egokitu gabea, zeuden hartan aldatuak" (Lopez Gaseni 2006: 50). Hori horrela, helduentzat idatziriko nobelako lau istorioetako bat jatorrizko testuingurutik erauzi eta bere horretan bildurik haurrei zuzenduriko liburu gisa argitaratzen da. Aldaera nagusia, nobelan zehar sakabanatuta ematen den istorioa oraingoan bat eginda eskaintzen dela da, nahiz eta kontakizuna atal laburretan banatu eta atal bakoitzari nobelan ez zuen izenburu bat esleitu zaion. Horrenbestez, haurrei zuzendutako *Matxinsaltoaren belarriak* kontakizunaren aurre-testuak helduei zuzenduriko *Vredaman* nobelan aurki daitezke.

Aldiz, Ana Malagonen *Lasai, ez da ezer gertatzen* (2014) mikro-ipuinen bilduma dugu. Lehenik eta behin, sareko samulasaitasuna.tumblr.com atarian egunez egun idazten joandako kontakizun laburrak ondoren *Lasai, ez da ezer gertatzen* liburuan eman ziren argitara eta kasu honetan, ipuin bakoitzaren bi bertsio argitaratu ditugu eskura: aurrez sarean idatziriko aurrekariak batetik eta libururako berridatziriko mikro-ipuinak bestetik. Gainera, ipuinok aurrez sarean argitaratu izanak eta egun ikusgarri egoteak baditu bestelako abantailak ere: sarean kontakizunen argitaratze data zehatza kronologikoki adierazita dago eta bestalde, lau etiketen pean sailkaturiko ipuinak ("hildakoak", "bizitza platonikoa", "haurrak" eta "bizitza modernoa") liburuan bata bestearen jarraian sakabanaturik eskaintzen dira eta nolabait, liburuaren egituraketarako egileak eginiko ordenatze-hautuak eta bestelakoak aztertzeko bide ematen dute sarean zintzilikaturiko aurre-testuek.

Aipatu ditugun adibideek egungo euskal literaturan argitaratu ondoren berridatzi eta eraberritu diren literatura lanen lagin bat besterik ez dute osatzen, eta berez gehiago ere badira, bai haur eta gazte literaturaren esparruan (Mari Asun Landaren lanetan, kasu), bertsolaritzaren inguruko ikerketetan (adibidez, Basarriren inguruko azterketetan bertsoen sorkuntza-prozesuan egondako aldaerak aztertzen dira, eskuizkribuetako idatzietan sakonduz), itzulpengintzan (berriki, Manu Lopez Gasenik *Alizia herrialde miresgarrian* berritzuli du, berak 1989an itzulitako *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* oinarri izanik) eta baita bestelako egitasmoetan ere (Maialen Lujanbiok *Hau koaderno bat zen. Hau koaderno haren berrinterpretazioa da* eman zuen argitara 2010ean, 2007/2008 ikasturteko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko aditu tituluan hartutako apunteetan oinarritu eta ikasturte hartan osatu zuen koadernoa hustu, garbira pasa, ordenagailuan jaso, berrinterpretatu, berridatzi eta bere galbahetik iragazi ondoren liburu-objektu gisa argitaratu du).

Azken batean, aipatu ditugun adibideetan, testuen bilakaerak sortze-prozesuaren berri edota testuak moldaketan izaniko aldaerak ikertzeko bidea eskaintzen dute hein batean; argitaratu ondoren, hots, post-testu bihurtu ondoren, testu horiek berriro sorkuntza-prozesu berri baten material gisa erabiltzen direlako eta post-testuak aurre-testu bilakatzen dira horrenbestez.

Jarraian, goiko adibideen artean aipatu ez badugu ere, testu-eraldaketa eta sorkuntza-prozesu berezia izan zuen Gabriel Arestiren *Mundu-munduan* nobela eta honen bilakaera aztertuko dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da, batetik, Arestiren ipuingintza eta antzerkigintza aintzat hartu eta obrek euren artean dituzten antzekotasunak azaleratzea; bestetik, ahalik eta aurre-testu gehien biltzen saiatu gara, Arestiren kasuan egilea hilda egoteak egoera kontraesankor bat sortzen badu ere. Izan ere, alde batetik Arestiren hainbat eskuizkribu eta makinizkribu liburutegietako fondoetara esleitu diren bitartean, autorearen beste hainbat eta hainbat lan eta proiektu galdu egin dira edota ez daude familiaren eskura eta horrek ikaragarri zailtzen du aurre-testuen bilketa lana. Azkenik, Arestiren gutunez ere baliatu gara sarritan sortze-prozesua delako gutunetako hizpide nagusia.

2.2. GABRIEL ARESTI: ARGITALPENETATIK AURRE-TESTUETARA

Gabriel Arestik (1933-1975) euskal literaturaren eta, bereziki, euskal poesiaren kanonean eskuratu duen lekua ukaezina da. *Maldan Behera (Miren eta Joaneren historiaren bukaera)* poemarekin Loramendi saria lortu zuen 1959an eta 1960an ikusi zuen argia. Poemario horren balioak eta ekarpenak ederki landuak izan dira, hala nola, Aurelia Arkotxaren *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti* (1993) eta Iñaki Aldekoaren *Iharduna eta zentzua Gabriel Arestiren poesiagintzan* (1996) tesi lanetan. 1964an Harriaren zikloari eman zion hasiera Arestik *Harri eta Herri* (1962ko Orixe saria) lan sonatuarekin eta ondoren etorri ziren *Euskal Harria* (1967; 1965ko Orixe saria) eta *Harrizko herri hau* (1970). Era berean, Arestiren poesia ikertzen jarraitu zuen Aldekoak etabeste hainbat ikerlan ere argitaratu ditu Arestiren poesiagintzaz: besteak beste, "Gabriel Arestiren Maldan Behera" *ASJU*ko artikuluan (1998) edota urte berean argitaraturiko *Munduaren neurria (Arestiren ahots biblikoaz)* liburuan.

Literatura jardunari dagokionez, poesiaz gain Arestik antzerkigintza jorratu zuen nagusiki; "Aresti, bere obra kualitatiboki behatuz, poeta baino areago teatrogile da" (Saizarbitoria 1973: 9). Toribio Alzaga antzerki saria esleitu zioten *Mugaldeko herrian eginiko tobera* lanarekin (1961) eta ondoren, Barrutiaren eta herri antzerkiaz eginiko ikerketez gain, beste hainbat antzezlan eman zituen argitara: *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua* (1963); *…eta gure heriotzeko orduan* (1964), *Beste mundukoak eta zoro bat* (1969); eta azkenik, *Justizia Txistulari* (1967). Ondoren aztertuko dugunez, beste antzerki-lan bat ere idatzi zuen, *Oilarganeko etxola batean*, bere horretan argitara eman ez bazen ere, *Mundu-munduan* (1965) nobelaren ernamuina izan zena. Bestetik, 1957-1962 artean sei narrazioz osaturiko ipuin sorta bat ere argitaratu zuen *Egan* aldizkarian (ondoren, batera bildu ziren *Gabriel Aresti: IPUINAK,* CAP, 1979, argitalpenean). Azkenik, hainbat eta hainbat itzulpen argitaratu (T.S. Eliot, Boccaccio, Blas de Otero, Gabriel Celaya, Nazim Hikmet…) eta euskararen batasunari

dagokionean ere, eragile eta euskara batuaren sustatzaile nagusietako bat izan zela nabarmendu behar da.

Ondorengo ataletan, beraz, Arestiren poesia albo batera utzirik, ipuingintza, antzerkigintza eta nobelagintza izango ditugu azterkizun; baita ipuinen, antzezlanen eta nobelaren arteko loturak azalduko ere, horretarako Arestik idatziriko gutunak eta bestelako aurre-testuak erabiliz. Izan ere, Arestiren ipuin bildumaren argitalpeneko Koldo Mitxelenaren hitzaurreko hitzei men eginez:

> ez dut uste egiari gogor egiten diodanik hemen ere esaten badut, zenbait izpi bai, baina Arestiren obra osoa ez dugula behar bezain ongi ezagutzen (…) Ez dugu, beraz, arrotz ezezaguna gure artean, ezta ere, ordea, alde guztietatik ongi ezagutzen dugun etxekoa. Ez da lan zailegia gehienok dakizkigun berriak paperean biltzea, batez ere beste paper batetik aldatzea aski baldin bada horretarako. Besterik ere bildu behar litzateke, haatik: Arestiren *agrapha* ugariak, inon idatzi gabe han-hemenka esanak, honek eta hark oraindik ederki gogoan dituztenak. Eta zenbait urteren buruan, erremediorik ez badakarte handik edo hemendik, oroitzaren osinean betiko hondatuko direnak (Mitxelena 1979: 12-13)

2.2.1.Arestiren ipuingintza eta antzerkigintza

Beraz, oraingo honetan narratibagintzari eta antzerkigintza helduko diogu, Arestiren literatura sorkuntza prozesuaren bilakaera jarraitzeko bitartekoak aurki badaitezke bere idazkietan. Horretarako, gainera, oso lagungarri suertatzen dira Arestik idatzi zituen zenbait gutun, bertan idazketa aldiez edota sorkuntza asmoez hainbat xehetasun eskaintzen dituen heinean.

Arestiren ipuingintzari dagokionez, 1957an argitaratu zuen bere aurreneko kontakizuna "Umezurtz aberatsak Gabonetan jokatu nahi (Gabonetako ipuin tristea)" izenburupean eta Angel Zelaietak dioskunez, "ipuin honetan adierazten du Arestik, lehenengoz, geroago poesietan izanen duen tematikaren joera, 'mailuarena eta biolarena' alegia" (Zelaieta 2000: 36-37). Ondoren etorri ziren gainerako ipuinak, guztiak ere *Egan* aldizkarian argitara emanak: "Olerkaria (Denporatik ateratzen den probetxuaren ipui barregarria)" (1959); "Abertzalea (Gizarteari edukitzen zaion amorioaren ipui garratza)" (1960); "Andre Madalen enamoratua (Gizon-andre arteko amorioaren ipui lotsagarria)" (1960); "Gure eguneroko beharra (Gizonaren izaerazko ipui zaharra)" (1961); eta azkenik, "Jainkoa jaio da Otxarkoagan (Gizonaren bihotzeko bide bihurriak nolakoak diren aditzera ematen duen ipuin itsusia)" (1962). Ibon Sarasolak "ipuinok beren artean halako batasun bat dutela edo, beste hitz batzuez esateko, ziklo antzeko zerbait osatzen dutela" adierazi du eta gaineratzen du, "are gehiago, izenburu azpiek berek erakusten dutenez, badirudi egileak berak ere ziklo baten osatzailetzat bururatu zituela" (Sarasola 1979: 8).

Bestetik, ipuinok erakusten dituzten ezaugarrien artean, Sarasolak ondorengoa nabarmentzen du:

> Kontatzen denari buruz, Arestiren ipuinen ezaugarri nabari bat zera da, ipuinean gertatzen dena, errusiar formalisten hizkerako fabula alegia, (…) aski bakuna eta sinplea dela, hau da, hitz gutxiko esaldi batez aditzera

> eman daitekeena (…) baina anekdota bakun hori emateko moduan, hots, formalisten hizkerako **sjuzet** delakoan datza Arestiren ipuingintzaren alderik interesgarriena. Bide desberdinak erabiltzen ditu kontakizuna emateko: lehen eta bosgarren ipuinetan aurretrama batez baliaturik ipuinaren barnean kontatzen da ipuina, laugarrenean "Alfontso lagunari"[9] kontatzen zaio, eta gainerakoak zuzenean ematen dira aditzera (ibid.: 8-9).

Horrela, metaliteraturaren eta metafikzioaren erabilera agerikoa da Arestiren ipuingintzan, bai ipuinaren barneko ipuinaren izaera kontakizunean bertan esplizituki agertzerakoan ("gabonetako ipuin triste bat kontatuko dizuet"; "nire ipui hau"; "ipui garratz eta aspergarri honetatik ikusten dugu"; "Nik esanen dizut, Alfontso, zerbaiterako baitaukat nire ipuietan kreatzalearen eskubidea"; "Ipuia akabatu da, eta ez didazu esanen nobela baterako naiko gai eztagoela hemen"; "nire ipuia akabaturik zegoen"; "Ipui bat kontatuko dizuet, Bermion gertaurikoa") eta, baita ipuin bateko protagonista olerkari bat denean ere, "Olerkaria" ipuinean bezalatsu. Kasu horretan, gainera, ipuinaren trama olerkariaren bizitza osoa markatuko duen bere bizitzako obraren idazketa aldiaren gora-beherek mugatzen dute eta ironiak ere erabateko esanahia du kontakizunean.

Metafikzioaren erabilera antzerkigintzan ere nabari daiteke, *Beste mundukoak eta zoro bat* lanean, hain zuzen. Alde batetik, antzezlaneko pertsonaia publikoari zuzentzen delako "teatro batean balego bezala" eta bestetik, une zehatz batean, antzezlana eta egilea bera direlako obrako hizpide:

> KEPA.— (Publikoari mintzatzen zaio:) Zorionez, hau guzti hau komedia bat da. Bestela izugarria izanen litzake hemen gertatuko dena. Baina euskaldun poeta barregarri batek eskribitutako komedia bat da. Zuen artean, jaun-andreak, poeta barregarri hori baldin badago, Gabriel Aresti zorioneko edo zoritxarreko hori baldin badago, mesede bat eskatu nahi diot hemendik (…) Arren, Gabriel, otoi, Aresti nire lagun oso maitea, komedia hau ongi buka dadila, zoriontsuak izan gaitezela guztiak azkenean (Aresti 1986: 177)[10].

Era berean, badira hainbat gai ipuin askotan, eta baita antzerki lanetan ere, errepikatzen direnak: zoroaren gaia da horietako bat, Arestiren ipuin eta antzezlan askotan erotasunak presentzia nabarmena baitu ("Gure eguneroko beharra" ipuinean eta, are agerikoago, *Beste mundukoak eta zoro bat* antzezlanean, erotasunaren gaia teatro laneko *leitmotiv* bilakatzeraino). Bestalde, kokapen geografikoari dagokionez ipuin ia guztiak Bilbon girotu arren, espazio konkretu batzuk behin baino gehiagotan errepikatzen dira eta hala gertatzen da Oilarganeko etxolen aipuekin: "Andre Madalen enamoratua" ipuinean protagonistaren jabetzak zerrendatzerakoan ("hamar txabola Uretamendin eta hamaika Ollarganen") edota "Jainkoa jaio da Otxarkoagan" ipuinean Begoña pertsonaiaren ibilerak kontatzen direnean ("etxola bat zedukaten Ollarganen. Etxolak suntsitu zituztenean, bizi leku hau eman zieten"). Hain zuzen, *Oilarganeko etxola batean* antzerki laneko geografia bera da ipuinotan topatzen duguna.

Ondotik, Maria Magdalenaren irudiaren garrantzia azpimarratu behar da. Izan ere, "Andre Madalen enamoratua (Gizon-andre arteko amorioaren gaineko ipui lotsagarria)" narrazioko Andre Madalen

[9] Zelaietaren lanean berresten da Alfontso Irigoien dela entzule mutuaren papera egiten duena (Zelaieta 2000: 56-57).
[10] Poesian ere, "Nire izena" poeman, erabili izan duen baliabidea dugu honakoa.

Arnotegiko protagonista "aita ez-ezagunaren eta ama sobera-ezagunaren alaba zen, eta gainera etzuen ukatzen, edonori aitortzen zion, lotsa gabe, ahalke gabe, (…) nola hasi zen dirua pilatzen haren negozioekin, haren etxeekin (hospe txarreko etxeekin)" (Aresti 1960: 182-183); baina azkenean, maitale gazteagoaren azpijokoan eroriko da eta honek urteetan pilaturiko aberastasun guztiak lapurtuko dizkio. Ipuina aipu metaliterario batekin amaitzen da: "Hau da guztia, laguna: Ipuia akabatu da, eta ez didazu esanen nobela baterako naiko gai eztagoela hemen" (ibid.: 185). Eta Zelaietak bildu bezala, "Egin ere egin zuen nobela luzeago bat ipuin honetan agertzen den Maria Magdalena emagalduaren bizitza oinarri harturik: *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua* drama llaburra" (2000: 57).

Bi ataletan banaturiko antzezlan horretan, aurreneko eszenan lagun batek bestea putetxe batera eramango du Matilde ezagutzera: "Santua da, altare gabeko santu bat, gure denporako Maria Madalena bat" (Aresti 1962: 329). Eta bat-batean maitemindurik, Marti eta Matildek ezkontzea erabakiko dute. Bigarrengo atalean, aldiz, Aita Seraphicus eta Aita Angelicus fraide gazteak dira protagonistak. Lehendabiziko meza ospatzen duten egun seinalatuan, Aita Sanctusek Angelicusi bere ama hil egin dela jakinaraziko dio, etxe aberatseko semeari alegia. Horrez gain, Seraphicusi ez dela umezurtza eta bere ama Matilde dela errebelatuko dio ("Maria Magdalena santu horren semeak komentu honetan estudiatzen duela (…) Eta zu zarela seme hori"), hots, Maria Magdalenaren seme santua dela jakinaraziko dio. Izan ere, Matildek semea izandakoan komentura bidali zuen umezurtz gisa putetxetako girotik aldentzeko eta etorkizun hobe bat izan zezan. Baina azkenean, besteak beste Marti Matias protagonista Sanctus pertsonaiaren iloba delako, egia osoa jakiten da eta halaxe onartuko du Seraphicusi ere ("Zure ama Kleofe da, eta nirea Madalena. Biak santuak, biak Maria Birjinaren ondoan, gurutzearen oinetan" diotso Seraphicusek Angelicusi antzezlanaren amaieran).

Are gehiago, bi urte beranduago argitara emandako *…eta gure heriotzeko orduan* antzezlanean ere, gainerako protagonisten artean Seraphicus eta Angelicus dira pertsonaietako bi. Misioetan dauden Ndongomanguilako biztanleak independentziaren alde matxinatu ostean, ihes egin beharrean misio-etxean bertan geratzea erabakitzen dute eta eurak harrapatu eta hiltzeko zain dauden bitartean, fraide bakoitzak aitorpen bat osatuko du. "Etxe aberatseko seme galdu bat naiz" (Aresti 1964: 229) esanaz ekiten dio bere aitortzari hasiera Angelicusek eta jarraian, bere bekatuaren kontakizuna burutuko du. Aldiz, Seraphicusek bere jatorriaren istorioa kontatuko du: "Nire ama emagaldu bat zen, Bilboko etxe bateko ugazabandrea (…) egun batean, Aingeruk bere amaren heriotzaren berria jakin zuen egunean bertan, ama bat nendukala esan zidaten" (ibid.: 234). Eta gaineratzen du: "Eta ofizio likits haretako izanagatik ere, munduko andrerik prestuena zela, gure denporetako Maria Madalena berri bat. Gogoratzen zara, Aingeru? Madalena eta Kleofe, biak Andredona Mariarekin gurutzearen oinetan belauniko".

Beraz, argi ikusten da Maria Magdalenaren gaiak "Andre Madalen enamoratua" ipuinaren ondotik *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua*n duela jarraipena eta era berean, *…eta gure heriotzako orduan* antzezlanean berridazten dela aurreko laneko trama nagusia.

Bestetik, ipuingintza eta antzerkigintzaren arteko lotura zuzenen beste adierazgarri bat, zenbait pertsonaiaren izaera sexuala azaltzeko moduan datza. "Andre Madalen enamoratua" ipuineko torero maitalearen azpijokoaren atzean protagonistaren izaera honela azaltzen du pertsonaia berak: "etzuen imajinatzen munduan gu bezalako, Wilde eta Gide bezalako gizonik dagoenik, andreakatik arduratzen ez den gizonik" (Aresti 1960: 184). Era berean, *…eta gure heriotzako orduan* antzerkiko fraideen bekatuetako bat, hain zuzen, Sodomiako estigmarekin seinalatua izatea da eta honela aurkezten du bere gustukoa zen gizona: "Nire Romeo. Edo nire Julieta. Nire Gide. Nire Wilde" (Aresti 1964: 233).

Horrenbestez, ipuinetako gai batzuk antzerkian errepikatzen eta berridazten direla ikus dezakegu, eta hori horrela, kontuan izatekoa da ipuinen idazketa eta argitaratze aldiak (1957-1962) eta antzezlanen idazketa eta argitaratze aldiek (1960-1965), tarte batean bederen, bat egiten dutela eta horrek eragina izan lezakeela genero desberdinetan gai berdinak jorratzerako orduan.

2.2.2. Arestiren antzerkigintza: argitalpenak, gutunak eta aurre-testuak

Edonola ere, obra baten argitaratze datak ez du lotura zuzenik zertan izan idazketa aldiekin eta jarraian, Arestiren *…eta gure heriotzeko orduan*, *Justizia txistulari* eta *Oilarganeko etxola batean* antzerki obrak izango ditugu hizpide.

Izan ere, 1964ko *Egan*en argitara eman zen *…eta gure heriotzeko orduan* antzezlanaren amaieran azken ohar bat erantsi zuen Arestik: "J. Etxaide Itarteren hitz pozgarri bati eskerrak, 1963 urteko maiatzaren bi igandetan izan zen *…eta gure heriotzeko orduan* trajedia hau eskribitua" (ibid.: 235). Susak argitara emandako *Gabriel Aresti: Antzerkia* liburuan, Joxe Azurmendiren adierazpenak biltzen dira eta bertan dioenez, antzezlana Arantzazuko fraideen enkarguz idatzi zuen Arestik, Aste Santuan Arantzazun taularatzeko. "Ez zitzaion onartu (Belokekoen 'Pasionea'ren ordezko bezala ez zuen balio; orduan Arantzazuko elizan 'Pasionea' errepresentatzen zen" (Aresti 1986a: 280). Era berean, Zelaietak Arestiri buruz idatziriko biografian ere Azurmendiren gutun bat transkribatzen da: "Teatro obra bat idatzi zuen Arantzazuko fraileen enkarguz. Orduko Kongoko gorabeherekin zerikusirik bazuela, uste dut. Titulua ez naiz akordatzen, baina enkargua 1963-ean eman zitzaion. Aste Santurako zen eta, oker ez banago, Ostirale Santuari erreferentzia egitekoa" (Zelaieta 2000: 69).

Aldiz, Arestik Koldo Mitxelenari 1963ko urtarrilaren 17an igorri zion gutunean[11], lehenik eta behin egileak eskatzen dio ez argitaratzeko *Egan*en aurrez bidali zizkion Oteizari eskainitako poema eta "El secretario de Astepe" izendatzen duenaren bertso-lerroak, argitalpen egokiago bat bilatu zuela argudiatuz. Horren ordez, gutunaren amaieran bi antzezlan argitaragabe eskaintzen dizkio Arestik Mitxelenari: "De tordas formas, puedo ofrecerle cualquiera de mis dos comedias inéditas: 'En la hora de nuestra muerte' y 'Una chabola en Ollargan'". Jarraian, 1964ko uztailaren 3an dataturiko gutunean Arestik bere antzezlanaz galdegiten dio Mitxelenari: "Aprovecho la oportunidad para inquirir de Vd. noticias sobre la eventual publicación de la comedia mía que obra en su poder, ya que Vd. me dio a entender) o así lo entendí yo), que la iba a publicar en el pasado número de EGAN". Ondoren, argitaratu ez behar badute beste nonbait publikatzen saiatuko dela gaineratzen dio Arestik: "ya que esta es una comedía para ser leída". Uztailaren 7an erantzungo dio Mitxelenak eta besteak beste, "Tengo en este momento delante las pruebas de su 'tragedia cristiana' que, si las quiere ver, se las mandaré con mucho gusto", diotso Arestiri. Ondoren, azalpenak ematen dizkio *Egan* aldizkariko aurreko zenbakian ezin izan zelako bere antzezlana argitaratu, Zaitegik itzulitako Euripidesen *Medeie* antzezlana eman zutelako argitara eta ale batean antzezlan bat nahikoa zela argudiatuz.

Horrela, kontserbatu diren Aresti eta Mitxelenaren arteko gutun trukean, nahiz eta Arestik bi obra eskaini Mitxelenari, ondorengo gutunetan ez da zehazten antzezlanaren izenbururik (soilik "tragedia cristiana" gisa aipatzen du Mitxelenak). Erraz ondorioztatzekoa da, ordea, *…eta gure heriotzeko orduan* obraz ari direla, batetik 1964ko *Egan*en eman zelako argitara eta "Kristau Trajedia" azpititulua zeramalako. Bestetik, Arestik Mitxelenari hastapenean eskaini zion *Oilarganeko etxola batean* antzezlana ez zen bere horretan argitaratu egilea bizi zen artean behintzat.

Beraz, esan behar da *…eta gure heriotzekoorduan* antzezlanaren idazketa aldiaren inguruko informazio kontrajarria dugula: batetik, Arestik Mitxelenari antzezlana eskaintzen diolako 1963ko urtarrilaren 17ko gutunean eta bestetik, argitara emandako antzezlanaren amaierako oharrean 1963ko maiatzeko bi igandetan idatzi zuela adierazten baitu Arestik. Horrela, Arestiren literatur lanen Susako bilduman ere 1963an datatzen da antzezlan hori; aldiz, Eugenio Arocenaren ikerketan berriz (2000), 1962ko data esleitzen zaio antzerkiaren idazketari.

Justizia txistulari antzezlanaren kasua oso bestelakoa da. 1967ko *Egan* aldizkarian kaleratu zen (138-176. orr.) baina antzezlanaren azaleko datak adierazten duen bezala, 1965ean idatzi zuen Arestik. Era berean, "Oiartzun'go teatrogille guztiei" eskaintza biltzen da azalean eta ohar esanguratsua ere bai: "Komedia honetako azken redakzio-lana (aditza, ortografía eta hitz askoren propiotasuna: nire euskera baldarraren azken orraztutze herrikorra), Oiartzungo makin-idazlearen eskuetan geratu zen. Har beza berak bere responsabilidadea, nik nirea dudan bezala" (Aresti 1967: 138). Susako bilduman

[11] Gutunok ez dira Susako 1986ko *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak* argitalpenean biltzen eta beraz, 1. Eranskinean kokatu ditugu Mitxelena eta Arestiren arteko gutunen eskaneaturiko kopiak (1. ERANSKINA).

zehazten denez, "Arestik ohar batean seinalatu eta Xabier Letek berak baieztatu digunez, azken honen eskuetan utzi zuen obraren moldaketa eta erredakzio-lana" (Aresti 1986a: 281); eta horixe berresten dute Arocenaren hitzek ere, "Leteri baimena eman zion nahi zuen bezala antzerkia orrazteko" (Arocena 2000: 7).

Hori horrela, Leteren heriotzaren ondotik, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian Xabier Leteren fondorik eratorritako hainbat material dago eskuragarri eta horien artean, *Justizia txistulari* antzezlanaren hiru lekukotasun gehiago aurki daitezke: *Justizia cistulari* batetik, lehendabiziko zatia Arestik mekanografiatua eta bigarren zatia, aldiz, dokumentu autografoa; bestetik, Letek eskuz berridatzi eta moldaturiko *Justizia txistulari*ren bi zatiak bi kaieretan banatuta; eta azkenik, Letek mekanografiaturiko *Justizia txistulari*, zeina *Egan*en argitara emandako antzezlanaren aurreko bertsioa litzatekeen.

Esan bezala, Arestiren *Justizia cistulari* antzezlanaren lekukotasunak bi zati ditu: lehenengo zatia makinaz idatzita dago ikatz papereko kopia-orrietan. Grapez josiriko 19 orrialde ditu eta orrien *recto*aren aldeak soilik daude mekanografiatuta. Azalean, egilearen izena, izenburua eta data zehazteaz gain, "Jabier Leteri eta bere oiartzundar guztiei" eskaintza ageri da eta dokumentuaren amaieran, ondorengo adierazpena gaineratzen da: "Oharra: Eskiribu honetan lehen aldiz erabili da etorkizuneko euskal ortografia". Jarraian, Arestik eskuz ondorengo azalpenak ematen ditu, data eta sinadura gehitzeaz bat:

> c = tz
> x = tx
> _____
> Gabon Eder, gure euskera da.
> Perrando Cistu, lehengo generazioa
> Condor Pelota, oraingoa
> Jaun Kontea, denok ezagutu duguna
> Jaun Erretorea, betikoa
> Eta
> Cistuaren mirakulua
> Euskeraren estilo berria (edo zaharra)
> Axularren eta bersolarien arteko ezkonca
> Ortografia berri honek benedikatua
> Donostian, 1965/9/25-an
> Garesti [sinadura]

Bestalde, dokumenturen azalean Arestiren letra ez den beste norbaiten eskuz idatziriko bestelako ohar bat topa dezakegu, tinta beltzez idatzita. Kontuan izanik dokumentuok Xabier Leteren fondotik datozela eta egilearen bestelako hainbat eskuizkribu alderatu ostean, esan daiteke Leterena dela azalean eskuz idatziriko oharra:

> Gabriel Arestik, propio, euskera arkaiko batean idatzi zuen, euskera batuari aurrerabide azkarragorik ematen ez zitzaiolako.
> Aresti beraren makinaz idatzia da, azken orriko eskuzko oharrekin.
> Teatro obra hau Oiartzungo Lartaun taldeak estreinatu zuen, Xabier Lete zuzendari zela.

Azkenik, 19 orrialdeko testuaren baitan, eskuz eta tinta urdinez eginiko erraten zuzenketa gutxi batzuk ageri badira ere, oso urriak dira (11. orrialdean elkarrizketan mintzatu behar duen pertsonaiaren izena zuzentzen da, hots, Mosen-en ordez Cistu gehitzen da eskuz; 12.ean "ikasiko" > "ikusiko"-ren ordez aldatzen eta azkenik, orri berdinean, "lagunai" > "lagunei" zuzentzen da). Nekez ziurta daiteke zuzenketok nork eginak diren, baina uste izatekoa da, eta grafia zehatz horren antzeko formak aurkitu izanak hala pentsatzera garamatza, zuzenketok ere Leterenak direla.

Justizia cistulari antzezlanaren bigarren zatiari erreparatuz, Arestik eskuz idatzita dagoela aipatu behar da. Antzezlanaren sortze prozesuaren inguruan, honakoa dio Arocenak:

> Gabriel 1965. urtean Oiartzunen ezagutu nuen, sasoi haretan herrian Lartaun antzerki taldea genuen eta egilea hau antzerki bat prestatzen ari zen guretzako (…) Idazten ari zen antzerkia "Justizia txistulari" zen, lehen egintza azkar idatzi zigun baina bigarren eta azken atala gehiago kosta zitzaion eta azkenean ekarri zigunean Leteri baimena eman zion nahi zuen bezela antzerkia orrazteko (ibid.: 7)

Era berean, antzezlanaren idazketa aldiaren bukaera dela eta, Augustin Zubikaraik honakoa adierazi du: "'Justizia txistulari' Oiartzun-en estreinatu zan. Bere sasoian presaka gertu ebala, Aresti berberak estu eta larri amaitu zuala… badakit ez zala sakon onartua izan" (Zubikarai 1999: 103). Beraz, *Justizia cistulari*ren bigarren zatia eskuz idatzita eta mekanografiatu gabe egotearen arrazoietako bat hori izan daiteke, horretarako aski denbora ez izana, alegia.

Eskuz idatzitako kaierari erreparatuz, "GABRIL ARESTI = JUSTIZIA TXISTULARI / BIGARREN ZATIA" izenburupean 31 orrialde biltzen dira eta tinta urdinez idatzita daude. Orrien *recto* aldean soilik datza antzezlanaren testua idatzia eta zenbait orrialde, horizontalki moztuta daude. Bestetik, orrialdearen goian eskuin aldean orriok zenbakituta daude, arkatz gorria erabilita (28. eta 29. orrialdeak zenbatzeko arkatz urdina erabili den arren), nahiz eta bukaeran zenbaketa gaizki egina egon, 26. zenbakia bitan errepikatzen delako (hots, 26. eta 27. orrialdeak zenbatzeko). Azkenik, lehendabiziko orrialdean, ezker aldeko margenean, Letek idatziriko "Gabriel Aresti-ren eskuizkribua" zehazten da, tinta beltzez.

Orrien *verso* aldean, aldiz, Arestiren *Euskal Harria* (1964) poemarioan argitaratuko diren hainbat poemen atalak daude mekanografiatuta (besteren artean, "Pernandoren egiak", "Kale artean", "Pater Noster", "Orienteko miraria", "Tosltoi"…) eta baita *Egan* 1964an edota *Zeruko Argia*n argitara emandako zenbait poemen atalak ere. Beraz, *Justizia cistulari*ren bigarren zatia idazteko Arestik *Euskal Harria* poemariorako jada idatzitako poemen paperak edo idazte prozesuko aurre-testuak berrerabili zituen, orrialdeoi buelta eman eta *recto* aldean antzezlaneko testua amaitzeko.

Bestetik, KM-n eskuragarri dauden *Justizia txistulari* antzezlanarekin zerikusia duten gainerako agirien artean, Letek eskuz berridatzi eta moldaturiko *Justizia txistulari*ren bi zatiak daude, zati bakoitza bi kaieretan banatuta.

Lehenengo kaiera aurreneko zatiari dagokio eta grapaturiko koadernoak orri gehiago baditu ere (azken orrialdeak idatzi gabe zuriz daudelako), 35 orrialde daude eskuz eta tinta urdinez idatzita: beti orrialde *recto*etan salbuespen bakar batekin, 6. orriaren *verso* aldea hiru lerroz idatzita baitago. Azalean aurrez Arestiren *Justizia cistulari* makinizkribuan erreproduzitzen den informazioa ematen da batetik (egilea, izenburua, data; eskaintza ezabatu egin den arren) eta horrez gain, Jabierren laburdura adierazten duen "Jab" hitza ageri da eta orrialdearen eskuineko beheko aldean "52 pts." zehazten da. Eta Arestiren makinizkribuaren gainean nola, hemen ere eskuz eta tinta beltzez idatziriko gisa bereko oharra biltzen da: "Xabier Letek euskera 'normalago' batera eraman zuen Arestiren antzerki lana. Honek onartuko zuen, ahozkatzerakoan ez baizegoen antzematerik zer grafia zuen".

Bigarren kaiera antzezlanaren bigarren zatiari dagokio eta beste 36 orrialde daude eskuz eta tinta urdinez idatzita: 29 orrien *recto* aldean eta beste 7, azken orrien *verso* aldean ere bai. Izan ere, kaierak 30 orri soilik ditu eta behin orri guztietako *recto*an idatzi ostean, kaierari buelta eman eta *verso* aldeak nolabait *recto* bihurtuz, bigarren zatiaren amaiera azken zazpi orrialde horietan idazten da.

Azkenik, Xabier Letek aurrez eskuz idatziriko kaierak makinaz garbira pasatako *Justizia txistulari*ren lekukotasuna dugu KM-ko dokumentuen artean. 25 orriko grapaturiko kaieran orrien *recto* aldea soilik erabili da: lehendabiziko 12 orrialdeak lehendabiziko zatiari dagozkio eta orrialde zuri baten ondoren, beste 12 orrialdetan bigarren zatia berridazten da. Aipatzekoa da aurreneko zatia tinta beltzez idatzita dagoen bitartean, bigarren zatia tinta urdinez idatzita dagoela. Bestalde, orrialdeak zenbatuta daude.

Azalari erreparatuz, egilea, izenburua eta dataz gain, eskaintza berreskuratzen da nahiz eta hasiera bateko "Jabier Leteri" bidean geratu eta oraingoan *Egan* aldizkarian inprimaturiko edizioko "Oiartzuar teatrogille guztiei" esaldia zehazten den. Bestetik, azalaren goiko aldean, Letek eskuz eta tinta urdinez idatzita, honakoa irakur daiteke: "(Jabier) Inkisidorea".

Eskuizkribu eta makinizkribu guzti hauek liburutegi publiko batera esleitu izana eta bertan eskuragarri izatearen garrantzia nabarmentzekoa da; azken batean, obra baten sorkuntza prozesuko lekukotasun eta testu-aldaera zenbat eta gehiago eskuratu, orduan eta osoagoa izango baita idazketa prozesuaren berregituraketa. Horrela, Arestik makinaz idatzita bidali zion Leteri *Justizia cistulari*ren lehenengo bertsioa, honek eskuz berridatzi eta euskara "normalago" batera egokitu eta azkenik, eskuz idatzirikoa mekanografiatu egin zuen. Eta Leteren azken makinizkribu hau eta *Egan*en inprimaturikoa alderatuz gero, aldaera oso urriak daudela jabetuko gara, inprimatu aurreko azken bertsioa Leteren makinizkribu hau dela ondorioztatuz.

Dena den, argitaraturiko bertsioa eta aipatu ditugun aurre-testuak alderatuz gero, bi kontu esanguratsu ekarri behar dira hona, izenburuari eta antzezpen-leku, -denbora eta -pertsonaien inguruko argibideei dagozkienak.

Izenburua dela eta, Arestiren lehenengo makinizkribuan *Justizia cistulari* zehatzen da izenburutzat, baina Leteren eskuizkribu eta makinizkribuan, berriz, *Justizia txistulari* zehazteaz gain, "*bihurtu zen*" hitz zirrimarratuak ere izenburuarekin batera ageri dira. Are, bai eskuizkribuan eta baita makinizkribuan ere errotulagailu berde batekin zirrimarratzen dira hitzok eta uste izatekoa da, besteak beste errotulagailu bera erabiltzeagatik, aldi berari dagozkiola bi zirrimarrak, izenburua egokiaren zuzenketa egiteko uneari, alegia. Edonola ere, antzezlana prestatzen ari ziren garaiko prentsan ere (adibidez, A. Aiztondo eta R. Iturburuk *Arágoa*n edota Iñaki Beobidek *Zeruko argia*n edota; *apud*. Zelaieta 2000: 94 eta 106), hasiera batean "Justizia txistulari bihurtu zen" esaldia aipatzen da antzezlanaren izenburu gisa. Halako aipu eta eskuizkribuetako lekukotasunek izenburuaren inguruan azken unera arte egon zitezkeen zalantzak ematen dituzte aditzera. Gainera, ez da ahaztu behar "Justizia txistulari bihurtu zen" Arestiren antzezlan horretako lehengo zatiko azken esaldia dela eta Arestik, ia antzezlan gehienetan, tituluetarako antzezlanean bertan esplizituki aipatzen den esaldi bat haututa izan duela; are, sarritan zatien edo aktoen amaieran aipatzen diren hitzak izaten dira.

Bestetik, aurkituriko aurre-testu guztietan, hasi Arestiren makinizkributik eta Leteren bertsio mekanografiaturaino, *Justizia txistulari* obraren paratestuan antzezte argibideen inguruko azalpenak biltzen dira. Hori horrela, aurre-testuetan antzer-tokiaren, -epokaren eta -pertsonaien argibideak ematen badira ere, *Egan*en inprimaturiko bertsioan (eta ondorengoetan, hots, *Lau teatro arestiar* liburuan zein Susako bilduman) ez dira azalpenok argitaratu. Ezin jakin zergatik, baina gogora ekartzen digu, geroago sakonduko dugunez, *Mundu-munduan* laneko hasierako argitalpenean ere ez zela nobelaren inguruko hastapen oharra argitara eman eta azkenik, 1986an argitaratu zela *Egan* aldizkarian Juan San Martinen azalpenekin.

Oilarganeko etxola batean antzezlanaren kasua ere berezia da. Aresti bizirik zen artean ez zen bere horretan argitaratu eta aurrenekoz 1986ko Susako Arestiren literatur lanen bilduman kaleratu zen. KM-ko liburutegian, hain zuzen, antzezlanaren bertsio mekanografiatuaren fotokopiak aurki daitezke[12]. 36 orrialde ditu txostenak eta bigarren orrialdean honakoa irakur daiteke: "Gaur eguneko trajedia bat, Jon Basurtuk hiru egintzetan osatua, 1963 urteko T. Altzaga teatro sariketara presentatzekoa". Badirudi, fotokopiok T. Altzaga sarira aurkezturiko alearenak direla, orrialde berean "Egilearen izena eta gainerako zehaztasunak barrenean" zehazten delako eta beraz, lehiaketetan egin antzo, datuok plika edo gutun-azal itxi batean edo joango zirela adierazten duelako. Jon Basurtu ezizena dela eta, badirudi Meli Esteban emaztearen jaioterri inguruko Bilboko auzoen toponimoak

[12] Zoritxarrez, eta argitalpen eskubideak tarteko, ezizenezkoa izan zaigu KM makinizkribuaren kopiak eskaneatu eta eranskinetan txertatzea.

erabili zituela zenbaitetan sariketetara aurkezteko: *...eta gure heriotzeko orduan* "Karamelope" izengoitiarekin aurkeztu zuen Toribio Alzaga sarira 1963an eta urte berean eta sariketa berera, Jon Basurtu ezizenarekin *Oilarganeko etxola batean* aurkeztu zuen.

KM-ko antzezlanaren makinizkribuaren fotokopiak direla eta, 36 orrialdeetan zenbait erraten zuzenketa eta bestelako lexiko hautuen inguruko aldaerak ere ageri dira, baina ezin zehaztu daiteke zuzenketok nork eta nola eginak diren. Gainera, fotokopiak izatean kolorearen ezaugarriak galdu egiten dira eta letraren nolakotasunagatik hainbat zuzenketa multzokatu badaitezke ere, tamalez argibide gutxi eman ditzakegu kontu honen inguruan. Izan ere, errata nabarmenenak ondoren argitara emango duen *Mundu-munduan* nobelan zuzenduta ageri badira ere, makinizkribuan eransten diren bestelako aditz aldaera proposamenak eta beste ez dira moldatzen eleberriaren bertsio inprimatuan eta beraz, zuzenketok aintzat hartu ez zirela ondorioztatu behar da.

Oilarganeko etxola batean obraren idazketa dataren inguruan, berriz, aurrez *…eta gure heriotzeko orduan* antzezlanaz esan ditugunak ekarri behar ditugu gogora. Izan ere, Karmelo Landak (1985: 8) hizpide dugun obra 1963an datatu bazuen ere (Susa bilduman hilabetea ere zehazten da: 1963ko uztaila), lehen esan bezala, Arestik Mitxelenari 1963ko urtarrilaren 17an igorritako gutunean jadanik idatzita dituen "dos comedías inéditas" aipatzen dizkio: lehena, "En la hora de nuestra muerte" eta bigarrena, "Una chabola de Ollargan". Beraz, uste izatekoa da *Oilarganeko etxola batean* ere 1963 urtea baino lehen idatzia zuela, nahiz eta ziurrenik ordukoa ez izan azken bertsioa eta antzerki lan hori urte horretako Toribio Altzaga sarira aurkeztu zuen.

Izan ere, 1965eko *Egan 1-6* aldizkarian (186-258. orr.) *Mundu-munduan* nobela argitaratzen du Arestik eta amaierako oharrean honakoa aitortzen du:

> Nobela hau teatrorako eskribitu zen lehendabizi, eta OILARGANEKO ETXOLA BATEAN izenarekin presentatu zen Altzaga-sarira. Gero PECCATA MUNDI izenarekin Agora-sarira presentatu zen. Ez zuen premiorik merezitu. Orain irakurleen iritziaren aurrean presentatzen da. Zori hobea duela (Aresti 1965: 258)

Oharrean esplizituki zehazten ez bada ere, hastapen teatro lana nobelatu edo eleberri bihurtu zuen *Peccata mundi* tituluarekin, Agora saria izatez nobela saria baitzen; azkenik, nobela *Mundu-munduan* izenburuarekin argitaratu zen.

Beraz, *Oilarganeko etxola batean* ondoren izenpeturiko *Peccata mundi* eta *Mundu-munduan* nobelen ernamuina da eta ondorioz, ustez amaituriko antzezlan bat (*Oilarganeko etxola batean*) ondoren sortuko den beste nobela baten abiapuntu bihurtzen da (*Peccata mundi* /*Mundu-munduan*), sortze-prozesuan eraldatu eta are, genero literarioz aldatzeraino.

2.2.3. Antzezlanetik nobelara: *Oilarganeko etxola batean>Peccata mundi / Mundu-munduan*

Oilarganeko etxola batean antzezlana dela eta, hiru egintzetan osatua da eta paratestuko argibideei erreparatuz, lehenik eta behin "A.K.U. nire adiskideari" eskaintzen dio obra Arestik, hots, Andoni Kaiero Uriari. Jarraian, ohar bat eransten da, "presentatzen diren jenteak eta lekuak, egilearen buruak sortuak" badira ere, "gertakari guztiak berriz, Bilbo honetan gertaturikoak dira (…) Egileak elkarrekin tajutu besterik ez ditu egin, gure denborako Bilbo honetako lekukotasun bizi eta bakar bat eman nahirik". Ondoren, jokolariak edo pertsonaien zerrenda eta bi ekintzak kokatuko diren lekuari buruzko argibideak ematen dira: lehengoa Bilboko Zazpi karriketan eta bigarrena eta hirugarrena, aldiz, Oilarganeko etxola batean. Azkenik, antzez-denborari buruzko azken argibidea, antzezlana 1961ean girotzen baita, hain justu, Oilarganeko etxolak (eta Otxarkoagakoak eta beste) suntsitu ziren urte berean.

Tragediaren argumentuari erreparatuz, protagonista nagusia Tereza Urresti da eta lehenbiziko ekintzan neskame gisa lan egiten duen tabernako Josepe Zufia seme ezkonduak haurdun utzi duela jabetzen da irakurlea. Hori horrela, tabernako Hernando morroiak Terezaren egoerari aterabidea emateko berarekin ezkontzeko proposatuko dio baina emakumeak ukatu egingo du, Joseperengandik beste zerbait eskuratzeko esperantzan. Josepek, ordea, ez du bere aitatasuna onartzen eta Tereza emagalduaren mailan ipintzen du. Azkenik, Terezak eroturik bailegoen, ostatuari su emango dio.

Bigarren ekintza Oilarganeko etxola batean kokatzen da eta bertan bizi dira apopilo Hernando eta Tereza, honen ume txikiarekin. Hernando Terezaz seko maiteminduta dago baina emakumeak Josepe mendekatzea besterik ez du buruan eta umea hiltzen laguntzera behartuko du Terezak Hernando, horretarako arratoi bat erabiliz.

Hirugarren eta azken ekintzan, umearen heriotza jakin ostean polizia batekin bertaratzen da Josepe, Tereza atxilotzera. Honek, ordea, erru guztia Hernandori leporatu eta kartzelara eramango du poliziak. Tereza eta Josepe bakarrik geratzen direnean, Terezak egia osoa aitortzen dio Joseperi eta honek hil egiten du. Jarraian, Oilarganeko etxolak eraisten dituzte eta Terezaren gorpua hondakinen artean geratzen da.

1985ean Ereinek *Mundu-munduan*en edizio berri bat argitaratu zuen eta hitzaurrean Karmelo Landak (1985: 8) zuzen adierazi bezala, "idazlearen beste zenbait lanekin gertatu bezala, sortze prozesu luzea eta idazkera desberdinak ezagutu zituen 'Mundu-munduan' obrak". Jarraian xehetasunak eransten ditu eta hastapen antzezlana (*Oilarganeko etxola batean*) 1964an nobela bezala moldatu eta *Peccata mundi* izenburuaz Agora sarira aurkeztu zuela berresten du; *Mundu-munduan* nobelak, berriz, aurreko bertsiotik ez omen zuen aldaketarik jasan (soilik aurrez aipaturiko azken-oharra eta titulu-aldaketa, noski).

Gure aldetik, ez dugu *Peccata mundi* lanaren lekukotasun osorik aurkitu. Familiarekin harremanetan jarri ondoren, soilik obra horren lehendabiziko hiru orrialde kontsultatu ahal izan ditugu (2. ERANSKINA). Hiru orrialde horietako aurrenekoan lanaren egilea eta titulua ageri dira, "Agorako 1.964 Gipuzkoa premiora presentatzeko nobela laburra" azalpenarekin eta egilearen helbidearekin batera. Azkenik, beheko aldean eskuz idatziriko ohar bat ageri da: "Lan hau *Mundu-munduan* izenez argitaratu zen *Egan* aldizkarian. Lehenik Toribio Alzaga antzerki sarira eta gero Agora sarira eleberri gisa. Ikus Egan 1965. 1-6. Zenb, 187-258. orr., eta irakur…". Edonola ere, argi dago ohar horren egiletza ez dagokiola Arestiri.

Ikusi ahal izandako gainerako bi orrialdeak hitzaurre gisa egiten duen oharrari dagozkio eta besteak beste, nobelako kapitulu bakoitzean agertuko diren pertsonaien zerrenda egiten da. Zazpi kapitulu aipatzen dira eta *Mundu-munduan* nobelako izenburu bera dute. *Mundu-munduan* nobelan ohar hori bere horretan agertzekoa zen baina lehen esan bezala, ez zen 1986 urtera arte argitaratu. Dena den, kontsultaturiko hirugarren orrialdean lehendabiziko kapituluko aurreneko paragrafoak igarri daitezke, nonbait makinizkribuko tinta orrialde zurian itsatsi izanaren ondorioz, eta gure aldetik esan dezakegu, *Peccata mundi* eta *Mundu-munduan* nobelen hasierak behintzat berdin-berdinak direla. Azkenik, *Peccata mundi* izenburuaz esan behar da nobelako "Agnus Dei qui tollis peccata mundi…"[13] azken esaldiko azken bi hitzek osatzen dutela, aurrez aipatu bezala, Arestiren antzezlanetan behin baino gehiagotan gertatu bezala.

Mundu-munduan nobelaren hitzaurrean galdera garrantzitsua planteatzen du Landak: "Zerk bultzatu zuen Aresti jatorriz teatro-lana zena nobela bezala moldatzera?" (Landa 1985: 9). Landak ederki bildu bezala, ordurako ipuin-zikloa amaitua zuen eta aipatzen duenez, litekeena omen Agora sariak bultzatu izana antzezlanari bestelako aterabide bat emateko; "agian narratiban pausu berri bat eman nahi izan zuen, pausu bakarra izango zena, ez baitzuen geroan beste nobela-saiorik egingo" (ibid.: 9). Hain zuzen, 1964ko martxoan Juan San Martini idatziriko gutunean honakoa baitio Arestik: "Nire 'Solasak' tradiziozko nobelaren usarioan birridatzi nahi ukan dut. Aste Santuan buru-belarri egon naiz horretan, eta azkenean errematea eman diot. Gaur bertan igortzen ditut Agorara bi kopiak" (Aresti 1986-10: 157). Landak berresten duenez, "Solasak" aipatzerakoan gero *Peccata mundi* edota *Mundu-munduan* izango denaz ari baita.

Egia da Arestik ez duela *Mundu-munduan* nobelaren ondotik bestelako nobela-saiorik egin baina kontuan izan behar da nobela bat idazteko grina aspaldikoa zela Arestirengan. Arestik idatzi zituen gutunetan zenbait sortze-prozesuko gorabeherak modu esplizituan agertzen dira eta idatzi asmo zuen lanei buruz, edota jada idatzitakoaren inguruan, hainbat argibide ematen dizkie gutunen hartzaileei (bereziki, Andoni Kaiero, Norberto Tauer, Joxe Azurmendi, Koldo Mitxelena eta Juan San Martini).

[13] Arestiren poetika aintzat izanik, "Bildotsa" hitz-giltzarritzat nabarmentzen du Zelaietak (2000: 115-116) eta jarraian, hitz hori agertzen den Arestiren hainbat testu aipatzen.

Horrela, "Bizkaitarra" poema luzearen aurreneko bertsioa, adibidez, Norberto Tauerri bidaltzen dio "1958eko gabon-aurrean" eta urtebete beranduagoko gutunean *Maldan behera* lanaren idazketa prozesuaren berri zehatza eskaintzen dio. Hain zuzen, Tauerrekin izaniko gutun trukean, hastapenetik hitz egingo dute liburuez eta literaturaz, elkarri liburuak igorriko dizkiete eta Arestik bere irakurketen, itzulpenen eta bestelako idazketa prozesuen nahiz argitalpen kontuen berri zehatza emango dio. Horrela, 1960ko otsailaren 20ko gutunean, *Zuzenbide debekatua* lana bere erdian dagoela diotso, *Mugaldeko herrian eginiko tobera* antzezlana, berriz, akabatu duela eta sariketara aurkezteko bere asmoa adierazten dio. Azkenik, "Nobela bat ere egin nahiko nuke baina denbora guztietan doakit. Bat badaukat erdira allegatua, Kibernia eta Jesus izenekoa, baina eztut akabatzeko paradarikan ikusten" gaineratzen du. Gero, 1961eko bagilaren 20an bidalitako gutunean, "nire poema bat akabatu dut, Zuzenbide Debekatua izenekoa (…) Gaur hasten dugu udako lana hemen fabrikan, eta nola arratsaldeak libre edukiko ditudan, nobela luze bat eskribituko dut, Zuzenbide Debekatuaren nobela alegia". Urte bereko irailaren 21n, aldiz, *Mugaldeko herrian eginiko tobera* saritua izan dela eta laster argitaratuko dela jakinarazten dio Tauerri, *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* ere sariketara aurkeztu zuela eta azkenik, "orain nire nobela zahar bat akabatuko dut: "Kibernia eta Jesus", eta beste baten asmoa daukat, "Lehen ilargitarrak". Datorren urteko sariketara presentatuko ditut, hea fortunarik dadukadan". Zoritxarrez, badirudi Arestiren lan horien lekukotasunak galdu egin direla eta beraz, oraingoz ezinezkoa da idazketa aldi, testuen garapenaz edota bestelako xehetasunak aztertzea. Hori bai, gutunetan ageri diren erreferentziek Arestik nobela bat egiteko zuen grina eta asmo irmoa behintzat erakusten dute.

Agian, *Oilarganeko etxola batean* antzezlana nobela bihurtzeko Arestiren ahalegina nobela bat idazteko grina edo nahi horrekin lotu daiteke. Bestalde, Saizarbitoriak idatziriko *Lau teatro arestiar* bildumaren hitzaurrean Arestiren antzerki lanak bereizterako orduan, aztzezlanok izendatzeko bete-betean asmatzen duen "teatro-nobela" terminoa (Saizarbitoria 1973: 10) erabiltzen du eta *Mundu-munduan* aipatzen du zeregin horren erakusle nagusitzat (aldiz, *Justizia txistulari* edota *Beste mundukoak eta zoro bat* antzezlanak "banguardismo herrikoi erako obra" gisa definitzen ditu). Era berean, Jerardo Elorzak ere "Arestiren antzerkiak batzutan jendaurrean emateko baino bakarrean irakurtzeko egokiagoa dela dirudi" dio (Elorza 1999: 118) eta hain zuzen, jada aipatu dugu Mitxelenari bidalitako gutunean *…eta gure heriotzako orduan* antzezlana ere "comedía para ser leída" gisa definitzen zuela. Hots, teatro-nobela antzerki gisa egituraturiko obra baina nobela gisa bakarka irakurri beharrekoa litzateke. Edonola ere, Elorza eta Zubikarai bat datoz Arestiren antzezlanak oso gutxi taularatu zirela berresterakoan eta Zubikaraik dioen bezala, "Arestiren lana, antzerkian, ez da kaleratu izan erriak ezagutzeko aiña. Ortik etorri eta sortzen da ortazko bere ezaupide laburra" (Zubikarai 1999: 103). Beraz, agian hori litzateke *Oilarganeko etxola batean* obra nobela bihurtzeko beste arrazoibide posible bat ere, antzezlanak taularatzeko zituen zailtasunak aintzat harturik, nobelaren aldeko hautua egitea, nahiz eta nobelaren egitura antzezlanen parekoa izan hein batean.

Dena den, antzezlana nobela bihurtzeko zioak zehaztea baino, garrantzitsuagoa da inondik ere antzezlana nobela bilakatzeko modua nola gauzatu den aztertzea eta horretarako ezinbestekoa da *Oilarganeko etxola batean* antzezlanaren eta *Peccata mundi* / *Mundu-munduan* nobela xeheki erkatzea.

Paratestuko aldaerei erreparatuz gero, lehenik eta behin tituluaren aldaketa aipatu behar da. *Oilarganeko etxola batean* deitzen da antzezlana, 2. eta 3. ekintzak gauzatzen diren lekuaren izena izenburuan paratuz (nahiz eta lehendabiziko ekintzan ere hitzez hitz aipatzen den "Oilarganeko etxola batean" esapidea). Aurrez esan bezala, *Peccata mundi* titulua antzezlan nobelatuaren azken esalditik eratorria da. Eta azkenik, *Mundu-munduan* izenburua dela eta, Zelaietak honakoa dio: "Titulua, geuk uste, Jose Maria Usandizagaren (1887-1915) 1913an Bilboko Campos aretoan jokaturiko *Mendi-mendiyan* haren replika da" (Zelaieta 2000: 93).

Bestetik, Toribio Altzaga sariketara aurkezturiko antzezlana A.K.U.-ri (Andoni Kaiero Uriari) eskaini zion bitartean, *Mundu-munduan* nobelak bestelako eskaintza dakar:

> *Nere Garate damari:*
> *Bilbaon honela bizi gera. Eta honelakoak gera. Beraz Laudioko baleran aurkitu ez ninduzunean, ez zenuen ezer galdu. Eta zerbait galdu bazenuen, nobela honetako orriartean aurkituko duzu. Atsegina ez dela ikusiko duzu.*
> *Barka nire ausartzia, eta Justo jaun zure aita eta nik hain estimatu eta miretsiari, nire errespetoak*
> (Aresti 1965: 186).

Mundu-munduan nobelari Arestik eranskin bat gaineratu zion baina "Oharra" ez zen argitara eman 1986an Juan San Martinek *Egan*en kaleratu arte. Ohar hori da, hain justu, *Peccata mundi*ren eskuizkribuan ere gaineratu zen eta bertan, "Irakurleak eztezan atentziorik gal, orain banan-bana aipatuko ditugu nobela honetan mintzatzen diren *solastariak*" azaltzen du egileak. Jarraian, kapitulu bakoitzaren izenburuaren ondotik, kapitulu bakoitzeko pertsonaiak zerrendatzen dira. Hori horrela, oharrari garrantzia berezia eskaintzen dio San Martinek ere:

> Aurelia Arkotxarekin bat nator "Oharra" behar beharrezkotzat jotzean "Mundu-munduan"-en muina ezagutzerik nahi bada. Aurkezten diren pertsonaien balizko ordezkoak zeintzuk ziren historian eta Testamentu Zaharreko pasarte eta jokalarietara, lehena eta orain barne, ulertzeko bidea deritzagu. Hor dago gaien gakoa edo giltzia, nor nori ari den jakitean (…) Zeren obraren mezua, mezurik baldin bada, "Oharra" delako honetan datza (San Martin 1986: 82)[14]

Bestetik, *Oilarganeko etxola batean*eko jokolariak eta *Mundu-munduan*eko *solastariak* erkatzen baditugu, lanaren luzera dela eta, lehenik eta behin nobelan antzezlanean baino pertsonaia gehiago agertzea agerikoa da. Izan ere, antzerki lanean Tereza Urresti, Hernando, Josepe Zufia, Hijinio Arrona, Joaniko Arrona, Sanz polizia, soldadua, umea eta arratoia soilik dira pertsonaiak. Nobelan, berriz, Eztebe eta Joana Mendia, Petri Motz, Joseperen gurasoak, neskamea, eta Paulo Amantegi gehitzen zaizkie

[14]Ereinek berrargitaraturiko *Mundu-munduan* edizioan ere oharra ez argitaratu izana lastima dela aitortzen du San Martinek. Aldiz, Susak argitaraturiko Arestiren lan guztien bilduman bai txertatzen dela "Oharra", nahiz eta akats baten ondorioz orrialde jarraipena ez den egokia (ikus Aresti 1986a: 52-54 orr.).

gainerakoei. Gainera, antzezlaneko zenbait izen moldatu egin dira antzerki lanetik nobelara, bi bertsioetan rol bera jokatzen duten arren: Hijinio Arronaren ordez Bazkoare Arrona ageri da *Mundu-munduan*en eta era berean, bere seme Joaniko, Eneko bihurtzen da. Sanz polizia Ruiztegi bilakatzen da eta Hernando morroiak *Oilarganeko etxola batean*en abizenik ez bazuen, nobelan Hernando Zenarro gisa ageria da.

Azkenik, antzezlanaren hastapen oharrean 1961 kokatzen dira gertaerak eta nobelako oharrean datu hori ez da zehatzen.

Nobelaren egiturari dagokionez, esan bezala, hiru ekintzako antzerki lana zazpi kapituluko nobela bihurtzen da eta, hain zuzen, zazpi kapitulu horien artean txertatzen dira antzerkiko hiru ekintzak, modu simetriko batean: 1. ekintza "Zerutik sua eroriko da" izenburudun nobelako 2. kapituluan barneratzen da; 2. ekintza, aldiz, "Holofernesik gabeko Judit" izenekoa 4. kapituluan; eta azkenik, 3. ekintza "Biurrerarik ez duen ordua" 6. kapituluan txertatzen da. Ondoren xehetasunez aztertuko dugunez, hiru ekintzak nobelan txertatzeko unean aldaerak badira, eta gehienak literatur generoa eraldatzearen ondorioz direla esan daiteke; hala nola, nobelan antzerkiko akotazioak moldatuta mantentzen diren arren, era berean antzerkiaren generoan zilegi ez liratekeen bestelako paragrafoak ere eransten direlako.

Beraz, antzezlaneko hiru ekintzek osatzen dute nobelako gertaeren bizkar-hezurra eta horrez gain, beste lau kapitulu gehitzen dira nobelan. Hona hemen nobelaren egitura, antzezlaneko ekintzekin alderatuz:

Mundu-munduan		*Oilarganeko etxola batean*
1. Joko arriskutsuak		
2. Zerutik sua eroriko da	<>	1. Ekintza
3. Familia biltzarra		
4. Holofernesik gabeko Judit	<>	2. Ekintza
5. Nebarrebartean		
6. Biurrerarik ez duen ordua	<>	3. Ekintza
7. Kontuak guztiok pagatu behar ditugu		

Arestiren antzezlanetan ikusi dugun bezalatsu, oraingoan ere kapituluen izenburu guztiek nobelako testuan dute jatorria, titulu gehienak hitzez hitz esplizituki agertzen direlako dagozkien kapituluan.

Nobelan gehitzen diren lau kapituluak direla eta, Landak garrantzia berezia eskaintzen dio aurreneko kapituluari. Lehenik eta behin, antzezlanean gertaera guztiak Bilbon gertatzen ziren bitartean, nobelako lehendabiziko kapitulua Basaibar izeneko herrian kokatzen delako eta bestetik, ondorengo sei kapituluak baino 30 urte lehenago jazorikoa kontatzen baita bertan, protagonistak artean umeak direla: "Izan ere, Bilbon kokatzen diren hurrengo sei kapituluak kondakeraren muina izanik, hogeita hamar urte lehenagotik eta herritik datorrena dago beti fabula urbanoaren hondoan, denbora eta

espazio anakronia honek sare baten antzera intentsitate dramatikoa gehitzen duelarik" (Landa 1985: 9).

Hori horrela, lehendabiziko kapituluan oraindik ere ume diren Tereza, Josepe, Eztebe, Joana eta Petri Motz dakusagu. Jolasean ari direla, Josepek joko arriskutsu bat proposatzen du: erregea eta borreroarena. Horrela, "Espainiako historian bezala", Josepek Nafarroako Antxo Nagusiaren rola jokatuko du, Petri Motzek Miramamolin Kordobako kalifarena, Joana eta Tereza Fatima eta Zoraida kalifaren bi emazteak izango dira hurrenez hurren, eta azkenik, Eztebe borreroa izango da. Eta jolasten badabiltza ere, azkenean Petri Motz heriotzara kondenatu eta benetan botako dute amildegitik behera. Egindakoaz jabetzean, une horretan basotik agertzen den pederasta herren bati egozten diote umeek errua eta herrian berri hori zabalduta, kartzelan sartuko dute pederasta. Hil aurretik, ordea, artean joko arriskutsuan murgilduta, Petri Motz heriotzara kondenatuak nobelan zehar gauzatuko den profezia iragartzen du:

> —Zu, Nafarroako Antxo errege poterosoa, nire emazte Fatimarekin ezkonduko zera, baina gero nire emazte Zoraidaz maiteminduko zera. Kristauek emazte bana beste ezin dukezuen bezala, kalterik franko etorriko zaitzu hortik. Zure emazte lijitoak zuregandik alde eginen du, eta azkenean zure eskuak hazirikako landaretxo bat hilen du nire emazte Zoraidak. Andre horri zihorra emanen diozu, baina azken fin batean haren eta zure kulpak pagatuko dituzu. Hauek dira Miramamolin profetaren hitzak. Hilobitik irtenen du nire arimak, eta mundutik erratu eta penatu eginen da, hitz auek kunpli ditezin arte (Aresti 1965: 193)

Eta hain zuzen, umezaroko gertakari krudelek eta profeziaren ingurukoek eraldatzen dute goitik behera *Oilarganeko etxola batean* antzezlana eta *Mundu-munduan* nobela bihurtzen. Izan ere, nahiz eta nobelan gehitzen den hirugarren kapituluan ez den profeziaren ingurukorik aipatzen, nobelako bosgarren eta zazpigarren kapituluak zuzenean lotzen dira profeziarekin eta umezaroko gertakariekin. Antzezlana Tereza eta Joseperen arteko gatazketara mugatzen da nagusiki baina nobelan, gatazka hori bere horretan mantendu eta bestelako marko bat erantsi zaio, bai denborari dagokionez eta baita pertsonaien kopuru eta tramaren sakontasunari eta konplexutasunari dagokionean ere.

Aurreneko kapitulua kokatzen den Basaibar herri fiktizioa dela eta, Landak gogorarazten du Arestik lehenago ere erabili zuela izen sinbolikoa *Zuzenbide debekatua* (1961) poemari idatzitako "Miren eta Joaneren aurreneko prologoan". Aldiz, *Oilarganeko etxola batean* antzezlana osoki Bilbon kokatu arren, Tereza eta Josepe jaioterri berekoak direla argi geratzen da eta herritik Bilbora lanera joanak direla. Jaioterriari buruz, ordea, xehetasun gutxi ematen da, eta ematen direnak kontraesankorrak dira: lehenik eta behin Terezak "Gure herrian, naiz-eta Bizkaiko herririk apartatuena izan" jakinarazten du eta obraren amaieran, berriz, poliziak Joseperi jatorria galdetzen dionean, "goierritarra" dela zehazten da. Halere, *Mundu-munduan*en Basaibarkoa dela erantzungo du Josepek, nahiz eta Terezaren antzezlaneko aipua bere horretan mantentzen den eta, beraz, Basaibar Bizkaiko herririk apartatuena dela aditzera eman. Edonola ere, Arestik nobelaren hasieran esanak ere aintzat hartu behar dira: "Nor

ez du Basaibarko herria ezagutzen? Inork ez. Mundu guztia Basaibarko herria non dagoen entera dadin, Gernikatik Markinara doan kaminoaren ondoa ez dagoela esango dugu" (Aresti 1965: 187).

Nobelako bigarren kapitulua *Oilarganeko etxola batean* antzezlaneko lehenengo ekintzari dagokio, eta ia-ia bere horretan ematen den arren, aldaerak badira bataren eta bestearen artean. Aldaera nagusienak gehiketak dira, gainera. Lehenik eta behin, aurreneko kapitulua erantsi izanaren ondorioz, kapituluaren hasiera ere moldatu egin da ezinbestez: "Hogeitamar urte inguru iragan dira. Haurrak handitu dira. Dakusagun zer gertatu den haietaz" (ibib.: 196) eta jarraian, *Oilarganeko etxola batean*eko aurreneko antzerki akotazioak paragrafoetan erreproduzitzen dira. Bestalde, literatur generoaren eraldaketarekin lotu behar dira beste zenbait gehiketa, nobela baten narratibitate arauek antzezlanean lekurik izango ez luketen irudiak sortzea ahalbidetzen baitu, elkarrizketa arteko paragrafoetan bereziki. Bigarren kapituluaren kasuan, adibide esanguratsuena Terezaren bihotzari behin eta berriz egiten zaizkion erreferentziak lirateke, egoera okertzen doan neurrian, bihotzaren gaineko irudiak ere okertzen joango direlako: "Terezari eztarrian lotutzen zaio bihotza. Iruntsi nahi du, baina ezin"; "Terezak bere bihotza ikusten du lurrean eroririk"; "Obeditu egin nahi du Terezak baina orain ez bakarrik bihotza, gibela, urdaila, birikak, hesteak eta hestesobrea botatzen ditu kanpora").

Azkenik, Arestik aurrez "Jainkoa jaio da Otxarkoagan" ipuinean bildu zuen Oihenarten atsotitz bildumako esapidea berreskuratzen eta berridazten du kapitulu honetan. Ipuinean "Oihenartek zioena: Amorantea eder eta emaztea zuhur. Edo: Amorantea pobre eta emaztea aberats" (Aresti 1962b: 215) irakur zitekeena, nobelan honela biltzen da: "Zuk ez duzu euskal libururik irakurri. Bat dago, liburu zaharra, zuberotar batek baturikako ditxo-bilduma bat: Bertan irakur liteke, emaztea zuhurra izan behar dela, eta amorantea ederra" (Aresti 1965: 202).

"Famili-biltzarra" hirugarren kapitulua ere nobelarako osoki idatzitako kapitulua da. Zufiatarren etxean kokatzen da eta Josepek Tereza haurdun utzi izanaren inguruko auziak nola konpondu erabakitzen saiatuko dira Joseperen gurasoak eta Eztebe, Joana Joseperen emaztearen neba. Horrez gain, Joseperen aita Anderek bere emazte Katalini Josepek bere emazteari eginiko traizio bera egin ziola jakiten da. Hala ere, Joana ez da biltzarrera bertaratuko eta bere garaian Katalinek onartutako egoerari itzuri egin eta ez dio Joseperi barkatuko. Oso bitxia da, gainera, nola azaltzen den jarrera bereizketa hori, eta bakoitzak jokatzen duen rola, nobelaren baitan antzerkiaren inguruko metakomentarioak biltzen baitira, bide batez Arestiren antzerki ezagutza sakonaren berri emanaz:

> —Komeriarik ez egin, Katalin. Zure ondoan Eleanora Duse bekaizkeriaz gorrituko litzateke.
>
> —Hori izan da nire asturu gaitza, Andere. Nik Eleanora Duseren oroitzapena berpiztu dut, eta zuk berriz beti Henriko Ibsen aberatsago baten paperean bizi zera.
>
> Josepe sartzen da eztabaida honetan:
>
> —Naikoa teatroa egin duzue.

> —Eta hura —diotsa Katalinek semeari—, Henriko Ibsen baldin bada, zu zera haren edizio korrijitu eta haundiagotu bat, zu zera Ludobiko Pirandello bat, Josepe. Baina Joanak ez du Sara Bernhardten paperik inoiz jokatu nahi ukan (ibid.: 212-213)

Azkenik, bada beranduago errepikatuko den komentario metafikzional bat ere, Josepek, bere ingurukoen erreakzioak ikusirik, ondorengoa epaituko baitu: "Hau da trajedia bat, eta komedia arin bat balitz bezala portatzen zarete" (ibid.: 217). Izan ere, eztabaidaren ondotik Josepe oinordegabetu eta etxetik egotziko dute.

Nobelako laugarren kapitulua antzezlaneko bigarren ekintzari dagokio. *Mundu-munduan*en "Holofernesik gabeko Judit" titulatzen da. Tereza eta Hernando apopilo bizi dira Bazkoare pertsonaiaren Oilarganeko etxola batean eta Terezak Hernando engainatuko du bere eta Joseperen semea hiltzeko. Aurrez, ordea, Bazkoarek proposamen lizun bat egingo dio Terezari bere maitale izan dadin eskatuz eta hortik dator izenburua, halaxe erantzungo diolako Terezak, Itun Zaharreko pertsonaiak aintzat izanik: "Zu Holofernes bazina, bai, tratua onartuko nuke. Orduan ni Judit berri bat sentituko nintzake, eta sorbaldetatik burua ebakiko nizuke (ibid.: 223).

Kapitulu hau ere antzezlaneko bigarren ekintzaren moldaketa zuzena da. Eraldaketa nagusia antzerkiko elkarrizketak narratibaren arauetara ekarri izana litzateke eta, ondorioz, pertsonaiak mintzatzen direnean akotazio estiloko esaldiak gehitzen dira erantzun eta ihardespenak girotzeko.

"Nebarrebartean" bosgarrengo kapitulua "Bilbaoko eliza aberats bateko sakristian" (ibid.: 229) kokatzen da eta Eztebe Mendia apaizaren eta arreba Joanaren arteko elkarrizketara mugatzen da. Egoera konpontze aldera, Joanak laguntza eskatzen dio bere anaiari eta Josepek bidaliriko gutun bat irakurtzen dio, zeinetan hala moduz barkamena eskatu eta berarekin itzultzeko erregutzen dion. Gutunaren azken zatian, gainera, umetan hil zuten Petri Motzen profezia aipatzen dio Josepek, jadanik betetzen hasia den profezia eta Joanari aurpegiratzen dio profezia etetea bere esku dagoela. Baina Joana ez da umetako gertaeraz gogoratzen, bere anaiaren erreguei ere entzungor egin eta haurrekin denboraldi baterako kanpora joatea erabakitzen du. Eztebe Mendia, aldiz, asaldatuta geratzen da Joseperen Petri Motzen hilketaren eta profeziaren aipamenarekin, ahaztua zuen ekintza gogora ekartzearekin batera bere erruaz jabetu eta aitortza bat idatziko duelako bere egunkarian umetako kontu guztiak onartuz; "ni izan bainintzen Petri Motz urrikaria nire besoekin hamiltegira jaurtiki nuena" (ibid.: 239). Jarraian, Paulo Amantegi pederastari eginiko bidegabekeriaz akordatzen da, honi eginiko kaltea emendatzea izango da bere arimako kulpak konpontzeko bilatuko duen bidea eta abokatu bat deituko dio egia aitortzeko. Eta hain zuen, horrela amaitzen da kapitulua.

Kapitulu honetan ere elementu metafikzionalak aurki ditzakegu. Joanak Ezteberi hitzez hitz kontatzen dion Joseperen gutunaz gain, Eztebek egunerokoan idatziriko aitortza ere bere horretan biltzen da,

letra etzanarekin nabarmenduz. Bestalde, Eztebe eta Joanaren arteko elkarrizketan hirugarren kapituluko metakomentarioarekin lotu daitekeen hitzak aurki ditzakegu:

> —Andre guztiak poetak zerate. Baina gero, urteetan zeihar, poesiari uko egiten diozue eta teatroari hartzen diozue zaletasun eta afizioa. Tamala neurriaren zentzurik ez daukazuela, eta komedia bat egin nahi duzuenean, trajedia bat egiten duzuela, eta aldrebes.
> —Zuentzat berriz, gizonontzat, bizitza nobela luze bat da, psikolojinobela luze eta aspergarri bat, Dostoievski tormentatu batek eskribitua (ibid.: 230)[15]

Seigarrengo kapitulua, "Biurrerarik ez duen ordua", *Oilarganeko etxola batean* antzezlaneko hirugarren ekintzaren berridazketari dagokio. *Mundu-munduan* nobelarako antzezlaneko ekintzen egokitzapenetan gertatu bezala, kapituluaren sarreran aurki daitezke gehiketa nagusienak eta oraingoan, nobelako gertaeren denbora kokatzeko gaineratzen dira azalpenak lirateke: "Bilboko Aste Nagusia iragan da (…) Gainera Bilbaoko egunkari guztietan notizia eman da, inguruko txabola guztiak lurrarekin berdintze dituztela" (ibid.: 241). Horrenbestez, nobelako gertakariak 1961ean kokatu behar dira, antzezlanean aipatzen den urtea nobelan esplizitatzen ez bada ere, Bilboko txabola auzoen eraiste nagusia urte horretan egin zelako.

Era berean, arratoia erabiliz Terezaren umea hil ondoren, Eneko pertsonaiaren eskolako maisuaren esanak ere biltzen dira txaboletan bizi diren biztanleen gainean eta hitzok ere moldatuak eta osatuak izan dira antzezlanetik nobelara.

Mundu-munduan	*Oilarganeko etxola batean*
—Eta zuen maisua, nungoa da? —Gaztelako parte batekoa. Gaztela Berrikoa. Ez dakit. Horkoa. Arratoiak zer egin zuen jakin zuenean, alegratzen zela irudi zuen. *Beti esan nuen: Zorriek eta arratoiek janen zaituezte! Eta azkenean gertatu da! Arratoi batek zuetatik bati jan dizkio sesuak! Alegratzen zela zirudien. Pistiak haurraren fontaletatik sartu zuen musturra. Esku merkeak behar zirela industriarako! Zuen zelaiak, zuen soloak, zuen herriak, abandonatu zenituzten, Gaztelako lur noble eta benedikatua bakartadean utzi zenduten, eta hona hemen galerazko lur madarikatu honek trukean zer eskeintzen dizuen: miseria eta premia!* —Zuen maisuak ez gaitu maite euskaldunok. —Atzo gainera, esan zigun: *Azkenean, azken fin batean, Francok irabazitako bakeari eskerrak, libratu egin zerate pobreziatik eta miseriaren gatibutasunetik*.	—Eta zuen maisu jauna, nungoa da? —Gaztelako parte batekoa. Gaztela Berrikoa. Eztakit. Horkoa. Arratoiak zer eginen jakin zuenean, alegratzen zela irudi zuen. "Beti esan nuen: Zorriek eta arratoiek janen zaituezte! Eta azkenean gertatu da! Arratoi batek zuetatik bati jan dizkio sesuak!" Alegratzen zela zirudien. "Pistiak haurraren fontaletatik sartu zuen musturra, eta haurrari jan dizkio sesuak! Gobernuak nola etxola zikin hoek egin zenitzatela permititu duen eztakit! Esku merkeak behar ziren industriarako, baina etxola hoietan bizi diren gehienak alferrak dira, industriako zaldunak, lapurrak, eskaleak!" —Zuen maisuak ezkaitu maite. —Atzo gainera, esan zigun: "Azkenean, azken fin batean libratu egin zerate pobreziatik eta miseriaren gatibutasunetik"

Kapituluaren amaieran ere gehiketa esanguratsu bat eransten da. Izan ere, *Oilargaeko etxola batean* hirugarren ekintzarekin bukatzen da eta antzezlanak amaiera irekia du nolabait. Josepek Terezaren bizitzari akabera ematearekin batera amaitzen baita antzezlana ere, hilketaren berri jakingo ote den edota Joseperi zer jazoko zaion aditzera eman gabe. Aldiz, nobelako seigarren kapituluaren azken

[15] Hain zuzen, Zelaietaren iritziz *Mundu-munduan* nobelako testua ere "oso dostoievskitarra" da (Zelaieta 2000: 93).

paragrafoan Terezaren bizitza amaitu dela berridazteaz gain, azken esaldi bat gaineratzen da, ondoren datorren kapitulua iragarriz eta kapituluari izena emanaz: "Bertan bukatzen da Teresa Urresti eta Anakabe ama haur-hiltzailearen mendea, eta bide-nabar hasten Josepe Zufia eta Albizturrentzat bihurrerarik ez duen ordua" (ibid.: 250).

Esan bezala, "Kontuak guztiok pagatu behar ditugu" nobelarako sortutako zazpigarren eta azken kapituluak *Oilarganeko etxola batean* zabalik geratzen den amaiera ixten du. Josepe heriotza-zigorrera kondenatua izan da Terezaren hilketa leporatuta. Horrela, Eztebe apaiza kartzelara joan eta Joseperi azken konfesioa entzuteko zain dagoela, orain arte Paulo Amantegi gisa aipatua izan den baina egiazki Santuru Amarika izena duen aurreneko kapituluko agure pederasta herrena agertzen zaio ezustean. Agerpen honek, gainera, *Hamlet* antzezlaneko mamuaren oihartzunak biltzen ditu, agureak kontu eske datorren Petri Motzen espiritua dela aldarrikatuko baitu. Are, Arestik *Hamlet* antzezlaneko esaldia parafraseatzen du jarraian: "Shapespearen eleak gogoratzen zaizkio: 'Zure buruak konpreni dezakeen baino gauza gehiago dago mundu honetan'" (ibid.: 254). Agurea zoraturik dago Petri Motzen heriotza leporatuta urte luzez kartzelan egon ostean eta etengabe mendeku bila dabilen Petri Motzen espiritua edota Miramamolin Kordobako kalifa dela aldarrikatzen du. Agureak Eztebe erasotzen duenean zaintzaileak etorri eta eurekin eramango dute presoa, hain justu Josepe iristen den unean bertan. Horrela, Eztebek agurea nor den jakinarazten dio Joseperi eta honek, bere bizitzako azken unean, aitorpen idatzi bat egitea erabakiko du.

Konfesio hau litzateke nobelan gaineratzen den kapitulu honetako elementu metafikzionala eta aitorpen honen bidez, nobelako gatazka guztiak ebatzi egiten dira horrenbestez, Josepek bere gain hartzen baititu Terezaren, euren semearen, eta azkenean, baita Petri Motzen heriotza ere. Era berean, Hernando eta eraman berri duten agure herrena absolbitzeko eskatzen du aitorpenean. Hasiera batean Eztebek ez du Joseperen aitortza onartu nahi zinez Petri Motz hil zuena bera izan zelako eta, kapituluaren hasieran egin bezalatsu, atalaren tituluari izena ematen dion esaldia errepikatzen du: "Baina guztiok pagatu behar ditugu gure kontuak" (ibid.: 258). Azkenik, Josepek munduko bekatu guztiak bere gain hartu zituen profetaren eredua aipatzearekin bat, Eztebek konfesioa onartuko dio eta *Mundu-munduan* nobelaren *Peccata mundi* aurreko bertsioaren izenburua aipatzen den esaldiarekin ematen dio akabera nobelari: "Agnus Dei quo tollis peccata mundi…".

2.2.4. Ondorioak

Mundu-munduan nobelaz idatzi diren iruzkin kritikoetan nobelak duen jatorrizko antzezlanarekiko zorra azpimarratzen da. "Aitortu beharrekoa da era-berean 'Mundu-munduan' lanean oraindik alde dramatikoa nagusitzen dela, obraren egituran eta dialogoen hegemonian nabaritzen denez" (1985: 10) dio Landak Ereineko 1985ko edizioko hitzaurrean. *Idatz&Mintz* aldizkariko iruzkinean ere antzeko iritzia gailentzen da: "Eta egia esan, eleberriari antzerki usain edo kutsua dario: alkarrizketak nagusi dira; narrazioa kapitulu bakoitza lekutzeko besterik ez da (antzerkiko eszena edo aktu bakoitzaren

hasieran eszenatokiaren deskripzioa etorri jaku gogora)" (Etxeberria 1986: 30). Azkenik, Miren Billelabeitia ere bat dator Etxeberriaren ikuspuntuarekin, "atalen planteamenduak badu aurrez-aurreko agerpen zuzena, antzerki lanetan eszena hasieratan diren akotazio eta oharren oihartzuna" (Billelabeitia 2008). Bestalde, akotazio bakoitzean narratzaileak erabiltzen duen pertsona markari erreparatuz, hasierako kapituluen eta azkenengoaren artean narratzailearen ahotsak duen bilakaera ere aztertzen da bertan.

Hain zuzen, *Mundu-munduan* nobelaren berridazketaren oinarrian *Oilarganeko etxola batean* antzezlana egon izana da horren arrazoia eta Saizarbitoriaren "teatro-nobela" gisako izendapenaren zioa. Are, antzezlaneko hiru ekintzak, aldaerak aldaera, nobelaren baitan ia-ia bere horretan txertatzen dira modu simetriko batean (kapitulu bikoitiak osatuz) eta teatro obratik abiatuz, beste lau kapitulu sortzen dira nobelarako (kapitulu bakoitiak). Beraz, oinarrian dagoen antzerki generoa gailendu egiten da, nolabait, ondorengo narratibaren generoan ere, elkarrizketak nagusi diren testua moldatzerako orduan.

Antzezlanak Josepe eta Terezaren arteko gatazka bazuen ardatz, *Mundu-munduan* nobelan gatazka hori gatazka nagusiagoen artean barneratzen da, nahiz eta ezinbestean leku nabarmena izan, eta azpi-trama guztiak aurreneko eszenan jazotzen den gertaerak mugatzen ditu. Izan ere, antzezlaneko istorioaren testuinguru zehatza osatzen da nobelan, Josepe eta Terezaren arteko gertakariei iragana eta etorkizuna asmatuz. Aurrez aipaturiko ezaugarriez gain, horregatik da hain garrantzitsua "Joko arriskutsuak" lehenbiziko kapitulua, *Oilarganeko etxola batean* obrako gertakariak barneratzeko moduko marko narratibo berri bat ahalbidetzen duelako eta ondorioz, plano narratibo guztiak loturik daude aurreneko eszenako gertakariekin. Bestalde, Joseperen eta Terezaren arteko gorabeherek sortutako gainerako kalteak sakonago agertzen zaizkigu nobelan, Joana Joseperen emaztearen nahigabea edota Joseperen familiako bestelako gatazkak ere agerian geratzen direlako.

Era berean, *Oilarganeko etxola batean* antzezlanean zabalik geratzen den amaiera itxi egiten da *Mundu-munduan* nobelan. Antzezlanean, ez da Josepek izango duen etorkizunaren berri ematen behin Tereza hil ondoren eta hortxe amaitzen da obra. Zeregin horretaz arduratzen da, hain justu, nobelako azken kapitulua eta Hernando pertsonaiak izango duen etorkizunaren berri ere ematen da, bidenabar.

Edonola ere, ustez amaituriko antzezlan bat nobela bihurtzerakoan espero izatekoa da antzezlanaren aztarnak testuan txertatuta gelditu izan eta kasu honetan bezala, nobelarako antzerkiko trama bere horretan baliatzeaz gain, hiru ekintzak bereizirik ematen diren nobelako hiru kapitulu osatzeko balio badute, are gehiago inondik ere.

Bestetik, antzezlanaren eta nobelaren arteko erkaketa egin ostean, teatro lanean ez zeuden elementuak sortzerako orduan Arestiren antzerkian eta narratiban ohikoak diren ezaugarriak baliatu direla ondorioztatu daiteke. Metaliteraturaren eta metafizkioaren askotariko baliabideen erabilera da,

besteak beste, *Mundu-munduan* nobelarako asmaturiko *Oilarganeko etxola batean* antzezlanean ez zeuden elementuak sortzeko erabiliriko mekanismoa. Horrela, eta ikusi dugunez, nobelaren argumentua are gehiago korapilatzeko oso esanguratsuak dira nobelan zehar barreiatzen diren metafikziozko hainbat elementu: gutunak, egunerokoaren zatiak edota aitortza idatzia, esaterako. Intertestualitate agerikoaren agerpena ere aipatzekoa da nobelan, literatura unibertsaleko zein antzerki munduko autore eta aktoreei egiten baitzaie erreferentzia: Dostoievski, Ibsen, Pirandello, Eleonora Duse…

Nobelako kapituluen izenburuei dagokionean ere, Arestik antzezlanetan sarri egin duen gisa berean (*…eta gure heriotzako orduan*; *Justizia txistulari*, besteak beste), testuaren baitan hitzez hitz ageri diren esamoldeak baliatu ditu ia gehienetan tituluak osatzeko. Are, azkenean argitara eman ez zen baina une batean nobelaren izenburu izan zen *Peccata mundi* titulua ere nobelaren azken bi hitzek osatzen dute.

Izan ere, oso estua da Arestiren ipuingintzak, antzerkigintzak eta nobelagintzak euren artean duten lotura. Aurrez ikusi dugunez, ipuinetan jorraturiko hainbat gairi antzerkian eman zielako egileak segida eta sarritan, antzerki bateko gertakariak beste antzezlan batean errepikatzen direla ere aztertu dugu. Era berean, argitara eman gabeko antzezlanari nobelan eman zion jarraibidea eta ezinbestean, nolabaiteko loturak izan behar egilearen gainerako antzerkietan jorraturiko estiloarekin, eta kasu honetan, narratibaren eremuan kokatzen denez, baita ipuingintzako estiloarekin ere.

Egilearen obrez gain, Arestiren gutunek sorkuntza eta idazketa aldien inguruko argibideak ematen dituztela ere aintzat izatekoa da, hainbat lanen datatze kontuak zehazten lagun dezaketen neurrian. Gainera, idazketa proiektuen inguruko gogoetek eta aipuek egilearen asmoen eta nahien berri ere ematen dute, adibidez, argitara eman zuen nobelaren jatorrian antzezlan bat egonik ere, nobela bat idazteko grina askotan aipatzen baita Arestiren gutunetan. Alde horretatik, eskuizkribu, makinizkribu eta obra baten lekukotasun ugariak ikertzeko modua izateak ere zenbait lanen bilakaera xehetasunez aztertzeko bide ematen dutela agerikoa eta horren erakusle argia da Arestik idatziriko *Justizia cistulari* eta Leteren laguntzaz lau eskutara moldaturiko eta argitara emandako *Justizia txistulari* lanaren bilakaera jarraitu ahal izatea.

Aipatu dugunez, azterketa honetarako Arestiren poesia alde batera utzi dugu antzerkiaren eta narratibaren alorrak sakonago aztertzeko intentzioz. Hainbat gutunetan poesiaren inguruko xehetasunak, idazketa aldien berriak eta zenbait hastapen bertsio aurki daitezkeela aipatu dugu eta etorkizunerako utzitako zereginen artean kokatzen da genero horretako lanen azterketa, oraingo honetan egokiago iritzi diogulako bilakaera argi bat erakusten zuen *Mundu-munduan* nobelaren eta honen ernamuina den *Oilarganeko etxola batean* antzezlanaren erkaketa eta bilakaera ikertzea.

Era berean, eta poesiaren eremuari dagokionez, oso kontuan izatekoa da Arestiren *Harri eta Herri* eta gainerako poesia lanak edizio elebidunean kaleratu zirela. Sorkuntza prozesuez eta berridazketez ari garenean, idazle eleaniztunek sarritan bi hizkuntzak erabili izan dituzte sorkuntza prozesurako eta maiz itzulpenak bihurtzen dira sorburu testua moldatzeko eta eraldatzeko zio, nolabait idazketaren norabide askotarikoaren berri emanaz. Euskal literaturan Arcocha-Scarciak burutu du gisa horretako ikerketa Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* lanaren aurre-testuak arakatuz eta Arestiren kasuan ere gaztelerak zein neurritaraino eragin zuen bere idazketan ikertzeko moduko gaia dela agerikoa da. Are, egilearen zenbait poemen itzulpenek dituzten askotariko aldaerak aintzat izanik. Edonola, ordea, kritika genetikoaren esparruan legea denez, argigarriak izan daitezkeen lekukotasunik eta aurre-testurik ezean, nekez burutu daitekeen azterketa da guretzat behintzat oraingoz aipaturikoa.

2.3. JOSEBA SARRIONANDIA: BERRARGITALPENAK SORKUNTZA-PROZESUAREN BILAKAERA GISA

Behin argitaratu ostean bestelako lan batzuen ernamuin eta oinarri bihurtzen diren testuez gain, ordea, sorkuntza-prozesu baten bilakaera jarraitzeko izan bada beste aukerarik. Aurrez aipatu bezala, sarritan argitara emandako aurreneko edizioa ez da definitiboa izaten eta ondorengo hainbat berrargitalpenetan idazleak zuzenketak edo moldaketak sartu eta bertsio eraberritu bat egiteko aukerak ditu. Eta hain zuzen, Joseba Sarrionandiaren kasuan, esan daiteke azkenaldian sistematikoki ari dela jadanik agortuta zeuden bere lanen errebisioa egin eta berrargitalpenetan aurreko lanetako akatsak zuzendu eta moldatu, eta azken batean, aurrez idatzitakoa berridazten. Ondoren aztertuko dugun bezala, bere berridazketa jarduna ez baita akatsak zuzendu edota hizkuntza eguneratzera mugatzen, baizik eta sarritan jatorrizko testuarekin alderatuz oso bestelako bertsio bat emango baitu argitara edizio berrituan.

Jakina denez, bere biografiako auziek hala eraginda, Sarrionandiak nekez gainditu ahal izan du bere eskuizkribuen eta ondoren argitaraturiko edizioen arteko esku-hartzearen amildegia. Argitara eman zuen *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) aurreneko liburuko hitzaurrean jada horren garrantziaz idatzi zuen: "argitarazioari begira, poemagintza bera bezain garrantzitsua da liburuaren tankera eta aurkezpena, eta ezin izan ditut inprentalana eta enparauak ezertan zaindu" (Sarrionandia 1981a: 5). Hasieran idazlea kartzelan zegoelako eta, behin ihes eginda, atzerrian ezkutatuta egon delako, ezin izan du zaindu bere obraren argitaratze aurreko aroa eta ezta argitalpen aroa ere. Horregatik ondorioztatzen du Eider Rodriguezek (2013: 111), "Zaindu nahi lituzkeen arren, zaindu ezin dituen elementuak dira [inprenta lanak eta enparauak: zuzenketak, maketazioa, letra tipoa, letra tamaina, ilustrazioak, azala...], eta, agian, kezka honen argitara ulertu behar genuke paratestua osatzen duten

eta nolabait ere bere eskuetan egon daitezkeen elementuen ugaritasuna". Inolaz ere ugariak baitira Sarrionandiaren lanen argitalpenetan hitzaurreak, hitzosteak, ilustrazioak, aipuak eta epigrafeak, eskaintzak, eta azken batean, testua inguratzen eta definitzen duten paratestuko elementu guztiak. Gainera, ohar horietan zehaztuko ditu gehienetan bere obra zehatzen sortze-prozesuaren xehetasunak: zein kartzelatan idatziak izan diren, zein urtetan, zein egoeratan, zein helbururekin eta abar. Izan ere, Sarrionandiaren lanen idazketa eta sortze-prozesua bere biografiak erabat markatuta egon den heinean, idazketa prozesuek, zirriborroek eta eskuizkribuek jasan dituzten gorabeherak imajinatu daitezke neurri batean.

Gai horren inguruan aritzen da, besteak beste, *Egin*en 1980an argitara emandako "Ez gara abereak baino dohatsuago" testuan, atxilotua izan zen garaia aintzat harturik: "detenitu nautenean eta udaz geroztik nobela antzerako bat ari nintzen idazten (…) Baina ez, ezina izan zait lerro bat gehiago idaztea ere, eta utzi behar izan dut". 1984ko *Argia*n argitara emandako elkarrizketa batean ere honakoa erantzungo du martxan dituen proiektuen inguruan galdetu ostean: "Gauza erdi egin asko zaukaat, baina orain, hemen eta idazmakinarik gabe, ezin diat ezer prestatu argitaratzeko. Badiat materiala beste ipuin liburu baterako, eta poemak, eta beste gauzak, baina ez zakiat". Azkenik, 1988an *Marginalia* saiakera lana argitaratzen duenean ere, eskaintzen artean ondorengoa irakur dezakegu: "ti es elioti buruzko saiakera ohostu zidan funtzionario putaseme ezezagunari" (Sarrionandia 1988: 5). Kartzelako gutun, paper eta liburuak, besteak beste, gai errekurrenteak izango dira Sarrionandiaren poesian ere eta ez alferrik, *Ifar aldeko orduak* ipuin-liburuko "Hamar liburu" narrazioan ere gai hori jorratuko da, liburuen harira eginiko ziegako miaketa batean.

Hain zuzen, *Marginalia* laneko sortze-prozesua agerian jartzeko nahia ere adierazi zuen lan horretan bildutako gutun metaliterario batean, baina berriro ere inprentarako lana zaindu ezinaren nahigabea ageri da aipuan: "Ideia diat *work in progress* tankera ematea liburuari, lerro zati tatxatuekin, edo gehituekin, eta eskuz eginiko[16] korrekzio eta glosekin. Ideia duk oraingoz, igual zaila izanen duk hemendik inprentako artesau lan hori agintzea, baina tira" (ibid.: 123). Eta halaxe, azkenean ez zen ideia hori aurrera atera.

Bestalde, idazketa prozesuaren eta argitaratze aurreko aroari dagokionez, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) bildumako hitzaurrean ere halaxe irakur dezakegu: "Orain, non nagoen ere ez dakidala, aldiskako testu guziok [translazio entseguak], batzu makinaz, beste eskuz, bestetzu irakurtezinik zeudenak, dezifratu, batu eta ordenaturik, tinta kolore berberaz ipini ditut" (Sarrionandia 1985: 9). Eta beranduago, gaineratzen du: "Poetaren baitan, poema egiten ari delarik, bihurpen sakon bat gertatzen da, izkiriatzear dagoen testua hitzez hitz definitu orduko bere baitan sortu eta emendatuz joan den testu ilunago eta izkiriatu gabeko baten translazioa da" (ibid.: 10). Izan

[16] Sarrionandiak eskuz idatzitako testuak direla eta, horrela idatzi berri du Marisol Bastidak *Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat* (2014) lanean: Sorterriko koblak estreinatu eta handik gutxira, "Sarri"ren koaderno txiki bat ailegatu zitzaion Mikeli, eskuz idatzitako 16 poemarekin: "altxor txiki bat da, oraindik gordea daukadana". (Bastida, 2014: 248).

ere, poema bildumako izenburuko "ene poemak" hitzak adierazi bezala, testuen apropiazio eta bereganatze ariketa bat aurkezten du Sarrionandiak, literatura oro literaturaren literatura denaren maximari jarriki, tartean poema propioak poeta apokrifoei esleituz (eta ondoren, berriro ere bere sinaduraz erakutsiz, beranduago aztertuko dugun "Afrikako gartzelan" poemari dagokion bezala). *Hezurrezko xirulak* (1991) lanean ere antzera jokatu du, eta eskertzekoa da Aiora Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* (2012) tesian apokrifoak argitzeko eginiko ahalegina. Izan ere, Jakak frogatu bezala, ikaragarria da Sarrionandiak itzulitako eta sorturiko lanen harremana, baita itzulpenena egilearen birsortze ariketek duten garrantzia ere.

Azkenik, Sarrionandiaren lanen arrakastak hartara bideraturik, sarritan berrargitalpenetan hizkuntza aldetik eginiko eguneraketak eta bestelakoak burutu izan dira. Hain justu, 2006. urtean Pamiela argitaletxeak kaleraturiko Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, *Ez gara geure baitakoak* eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuen berrargitalpena egin zuen. Paratestuan ez da argitzen Sarrionandiak berrargitalpen horietan esku hartzerik izan ote den. Aldiz, bai zehazten dela guztien edizioaren zuzenketaren arduraduna Fernando Rey izan zela eta gainera, berrargitalpen bakoitza hitzaurre berri batekin aurkeztu zen (jatorrizko hitzaurreekin batera, hori bai). Horrenbestez, *Ni ez naiz hemengoa*ren hitzaurre berriaz berriro ere Jose Mari Larrea arduratu zen, *Ez gara geure baitakoak* lanekoaz, berriz, Joxe Mari Iturralde eta, azkenik, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* bildumaren 2006ko hitzaurrea Bernardo Atxagak sinatzen du. Atxagak, honela amaitzen du bere sarrerako testua:

> Irakurleak, kasu, aurreko argitalpenak eta oraingo hau aldera ditzake, eta aztertu poema beraren eta oraingo bertsioak, zergatik jartzen zuen hasiera batean, Bobby Sands-en poema bat berpizterakoan '… baina ingurua begiratuz gero tortura eta hipokresia aurkitzen dut' eta orain, berriz, '… baina inguruari begiratuz gero ugaltzen aurkituko duzu tortura eta hipokresia' (Atxaga 2006: 10).

Baliteke itzulpen kontuak eta eguneratzeak izatea, baina ondorengo ataletan ikusiko ditugun adibide guztiak aintzat hartuz, esan behar da Sarrionandia beti arduratu izan dela bere testuen bilakaerez eta eraldaketez, baita lanak behin argitara eman ondoren ere. Eta jarraian ikus dezakegunez, badirudi 2011 urteaz geroztik sistematikoa bihurtu dela hainbat libururen berrargitalpenetan egilearen esku hartze zuzena. Halaxe gertatu da behintzat, Sarrionandiaren narrazio eta poema liburu arrakastatsuenen kasuan behintzat.

2.3.1. *Narrazio guztiak (1979-1990)*: narrazio guztien bilduma baino gehiago

2011. urteko abenduaren hasieran, Elkar argitaletxeak estreinakoz liburu bakar batean kaleratu zuen Joseba Sarrionandiak 1979-1990 urteen artean idatzitako ipuinen konpilazioa *Narrazio guztiak (1979-1990)* izenburupean. Hitzaurre gisa gehituriko "Atariko berriketa"-n egileak zehazten duenez, "liburu honetan bildu diren testuek proiektu narratibo konkretu bat osatzen zuten, ipuin literario molde bat sortzeko zereginean". Horrela, aurrez argitara emaniko *Narrazioak* (1983, Elkar), *Atala eta euria* (1985, Elkar) eta *Ifar aldeko orduak* (1990, Elkar) ipuin-bildumetako kontakizunekin batera, 1979 eta 1980.

urteen artean idatziriko beste hiru narrazio ere biltzen dira: *Pott* aldizkarian argitaratu zuen "Luigi Anselmi: Figlio di un cane" lehenengo ipuina, batetik; eta ipuin sariketetan sarituak izan ziren "Maggie indazu kamamila" (Arabako Diputazioaren IX. Ignacio Aldecoa saria) eta "Enperadore eroa" (I Ciudad de Bilbao saria), bestetik. Ondorioz, *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)* bildumak bere aurreko poema esanguratsuenen antologia osatzen duen bezala, *Narrazio guztiak (1979-1990)*[17] liburua egilearen kontakizunen bilduma bateratua eta osatua litzateke.

Liburuaren aurkezpen ekitaldian narrazioek liburu bakar batean batuta beste gorputz bat osatzen dutela ere adierazi zuen Elkarreko editore Xabier Mendigurenek[18], "*Obabakoak*ek bezala", hots, batasun berezi bat bereganatzen dutela ipuinek elkarrekin. Argitaletxeko web orrian ere aipatzen den kontua da: "guztiak baturik, liburu batetik bestera doazen hariak ageriago ikus litezke" eta ziklo arturikoari buruzko ipuinak, sorkuntzari buruzko gogoetari loturikoak edota ihesarekin kamuflaturiko ipuinak elkarren segidan irakurri ahal izateak bestelako loturak eragiten dituela ematen da aditzera. Eta editorearekin bat egiten badugu ere –Sarrionandiaren narrazio guztiak elkarren segidan irakurriz euren arteko harremanak agerikoagoak egiten direla nabarmena baita–, beranduago ikusiko dugunez, *Obabakoak* libururako Atxagak eginiko aurrez idatziriko ipuinen berridazketak eta bateraketak ez du zerikusirik *NG* lanean eginiko bateraketa eta berridazketa ariketarekin.

Bestalde, badirudi Sarrionandiaren *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*[19] (1995, Erein) bilduma txikiko ipuin laburrak ez direla zuzenean ezkontzen *NG* liburuko proiektu narratibo eta ipuin literarioen molde berberarekin[20]. Izan ere, *Miopeak* laneko kontakizunak mikroipuinen generoari dagozkio eta, aldiz, *NG*eko narrazioak molde klasikoagoko ipuinak dira, luzerari eta bestelako ezaugarri narratiboei erreparatuz. Gainera, ez da ahaztu behar Sarrionandiaren poema musikatuak biltzen diren *Hau da ene ondasun guzia* (1999, Esan ozenki/Txalaparta) laneko egilearen bibliografia aipatzen den atalean *Miopeak* "hiru liburuskako sail bateko lehenengoa omen da" azaltzen dela. Are, oraingoz argitaragabe dirauten eta *Miopeak* lanaren izenburuaren tankera errepikatzen duten beste bi aleen izenburuak ere zehazten dira: *Maiteminduak, presoak eta beste animalia batzu* eta *Jainkoa, Karl Marx eta beste xelebre batzu*, hurrenez hurren[21].

Horrenbestez, *NG* liburuan 33 narrazio biltzen dira: Sarrionaindiaren hiru ipuin liburuetako hamarna narrazioak eta orain arte liburu batean bildu gabeko hastapen garaiko hiru ipuinak. Kronologia

[17] Hemendik aurrera NG.
[18] Aurkezpen ekitaldiko bideoa ikusgai dago Elkar argitaletxeko web orrian edota helbide honetan: https://www.youtube.com/watch?v=HD8k6rREWSE [2015/02/10].
[19] Hemendik aurrera *Miopeak*.
[20] Aizpea Aizkorbebeitiarekin (1999: 93) bat eginez, garaitsu hartan idatziriko *Ez gara gure baitakoak* (1989, Pamiela) edota *Han izanik hona naiz* (1992, Elkar) lanak ipuin liburuak baino, miszelanea-lan gisa izendatzea egokiago deritzogu. Era berean, *Ni ez naiz hemengoa* (1985, Pamiela) eta *Marginalia* (1988, Elkar) saiakeraren generoaren baitan kokatuko lirateke.
[21] Jakina denez, Sarrionandia abila da epigrafeetan, sinaduretan eta narrazioen baitan heteronimoak zein egile nahiz testu apokrifoak asmatzen eta beraz, egilearen beste joko baten aurrean egon gintezkeenaren aukera aintzat izatekoa da, badaezpada ere. Izan ere, balizko izenburuek eta azalpeneko "omen" horrek hala pentsatzera lerrotu dezake bat baino gehiago.

datekin zehazturiko izenburuak, bestetik, ezin du argiago adierazi bildumaren xedea eta baliaturiko ipuingintzaren generoa izendatzeko, berriz, *Narrazioak*[22] ipuin liburuko termino generikoa berreskuratzen du egileak. Izan ere, *N* izenburuaren inguruan Borgesen izenburu berdineko lanarekin zein tankera bereko ipuinen ezaugarrien artean egin diren irakurketez gain (Otaegi 2000: 45), berrargitaraturiko bildumako hitzaurrean Sarrionandiak bestelako xehetasunak gaineratzen ditu erabilitako generoa definitzeko. Batetik, eta *Pott Banda*koek ere ipuingintzari eman zioten garrantziarekin bat eginez, "narrazioa, sasoiko bizimodu eta sentsibilitatearekin gehien egokitzen zen generoa iruditzen zitzaidan, teatroa baino gehiago, poesia baino gehiago, nobela bera baino gehiago" (Sarrionandia 2011: 9) diosku eta gogoeta hori behin eta berriro formulatuko du fikzioaren esparruan ere –agian, "Ipuin laburraren aldeko argudioa" litzateke adibiderik muturrekoena. Era berean, *Izuen gordelekuetan barrena* poema liburuko prologoan ere honakoa zioen, "Nire aldetik, narratibaren alorrean hobeto senditzen dut ene burua: aisago eskribitzen dut eta lasaiago geratzen naiz argitaratzerakoan" (Sarrionandia 1981a: 5)[23]. Gainera, literatura generoen auzian sakonduz, ipuina eta narrazioak bereizi eta jorraturiko ipuin literario molde zehatzaren definizio mugatuago bati ere bide eman nahi izan ziola argitzen du hitzaurre berrian, narrazio hitzaren baitako narraz hitzarekin jolastu eta "hitzekin haztamuka" zebiltzala aitortzearekin batera:

> 'Ipuina' gezurraren sinonimotzat har zitekeenean istoriook 'benetakoaren' bilaketa entseguak ziren. Narrazioak, ipuinak beste zerbait izateko asmoagatik deitu ziren hala. Narraz genbiltzalako ere bai, ahalegin horretan. Literatura ez zen izango enbusteria joko hutsa, baizik eta ezagutza-bidea. Ez errealitatea deskribatzearen errepidetik, baizik eta alderantziz, errealitatea sortzearen estratatik. Errealismotik urrun (baina zenbaitetan ezinezkoa zen) bai gaien, bai kontaeren, bai hizkuntzaren aldetik, beste errealitate batzuk kreatzea zen intentzioa. Hau da, dimentsio literarioko beste mundu bat, sentsibilitate eta hizkera batzuk sortzea errealitate errealaren gainean (Sarrionandia 2011: 8)[24].

Edonola ere, jarraian berrargitalpenaren atzean dagoen berridazketa ariketa aztertzean jarriko dugu arreta. Libururen kontrazalean jada iragartzen da egileak testu guztiak errebisatu eta hainbat zuzenketa egin dituela eta aipatu hitzaurrean, Sarrionandiak hainbat azalpen ematen ditu edizio eraberrituaz. Xabier Mendigurenek eta Juan Luis Zabalak apailaturiko edizioan "hainbat zuzenketa txiki" egin direla adierazten du: alde batetik, "ortografiari eta gramatikari dagozkionak" eta, beraz, egungo hizkuntz arauak aintzat hartuta egin dira hizkuntza moldaketak, egilearen hitzetan "erdi asmatzen ari ginen hizkuntzak jadanik trafikoarena bezalako arautegi bat duelako, obedi dezaketena anarkistek ere". Horrekin bat, ordea, "hainbat oker zuzentzeko aukera eta buruera" ez duela orain arte izan aitortzen du, hiru liburuak "baldintza gaitzetan idatzi" zirelako: "*Narrazioak* gehienbat

[22] Hemendik aurrera *N*.

[23] "Narratibaren alorra" dioenean, ipuingintzaz ari dela ulertu behar da ezinbestez, orduan idatzirikoak baitira, besteak beste, *NG* liburuan bilduriko hastapen ipuinak eta, aldiz, Sarrionandiaren prosazko miszelanea-lanak beranduagokoak dira. *Lagun izoztua* lehenengo nobela, aldiz, ez da 2001. urtera arte argitaratuko.

[24] *Pott Banda*koak euren lanekin "autonomiaren literaturaz" aldarrikatu zutenaren gainean idatzi direnekin (Olaziregi 1998; Azkorbebetia 1998; Aldekoa 2008) zuzenean lotzen diren hitzak, inondik ere. Egilearen azalpena aintzat hartzen badugu ere, beranduagoko gure azterketa egiterako orduan sinonimotzat erabiliko ditugu narrazio, ipuin edota kontakizun terminoak, errepikapenak saihestu eta irakurketa errazteko intentzioarekin.

Puerto de Santa Mariako kartzelan 81ean eta 82an, *Atabala eta euria* Herrera de la Manchan 83an eta 84an, eta *Ipar aldeko orduak* libertatean, baina erbestean, hortik zehar alde batetik bestera paperik ezin eramanez" (ibid.: 9). Beraz, badirudi okerrak zuzentzea izan dela berrargitalpenaren ezaugarri nagusia, oker gramatikalak eta bestelako oker, uler bedi, narratiboak, konpontzeko.

Azkenik, "Atariko berriketa" hitzaurreko azken paragrafoak ere merezi du bestelako arretarik, gainontzeko hitzaurre eta oharretan egin antzo, eta modu alegoriko batean bada ere, *NG* lanaren berrargitalpenaz eta berridazketaz Sarrionandiak hainbat argibide ematen dituela uste baitugu:

> Dena aldatzen eta dena borratzen da, dena isurtzen da ezerezerantz. Bezpera iluntzeko kontuak ez dira ondo gogoratzen egunsentirako. Eta gaur, antzinako esaera eta alegien aldean, beste hizkera eta beste kontakizun batzuk behar dira. Aspaldian eta urruti baten batek hainbat idatzi arren, goizero hemen egiteko ditugu narrazio guztiak (ibid.: 9-10).

Izan ere, Sarrionandiak "zuzenketa txikiak" gisa izendatzen dituenen atzean bestelako irakurketa bat egitea beharrezkoa da, *NG* liburuko kredituetako editorearen oharrean aipatzen denaren arabera: "Argitalpen honetarako goitik behera zuzendu, aldatu eta berridatzi ditu egileak 1979-1990 bitarteko bere ipuinak, Juan Luis Zabalak prestaturiko gaurkotze ortografiko baten gainean". Jarraian, gainera, jatorrizko edizioen erreferentziak zehazten dira, "inork kontsultatu nahi izanez gero":

> *Hasierak*:
> "Luisi Anselmi", *Pott*, 1979.
> "Maggi, indazu kamamila", *Xaguxarra*, 1980.
> "Enperadore eroa", *Cuentos Incombustibles*, 1981.
> *Narrazioak*, Elkar, 1983.
> *Atabala eta euria*, Elkar, 1985.
> *Ifar aldeko orduak*, Elkar, 1990 (ibid.: 2)

Berridazketa aintzat hartutik, antzeko azalpena aurkitzen dugu *NG*i dagokion Elkar argitaletxeko webgunean ere: "zuzenketa axalekotik harago, estiloa goitik behera aldatuz baina bere jatorrizko espirituari leial eutsiz. (Nolabait ere, orduko poetikaren eta bere gaurko idazkeraren uztartze bat eginez)"[25]. Eta liburuaren aurkezpen ekitaldian ere, ezin bestela izan, Mendiguren editoreak berretsi egin zuen ipuinak banan-banan berriz idatzi dituela autoreak eta, beraz, ipuinen berritze bat gertatu dela. Gainera, eraldaketen eta aldaeren nondik norakoen inguruan ere mintzatu zen, Sarrionandiak berridazketan esaldiz esaldi estilistika dezente aldatu duela aurreratuz eta bestetik, hizkera exotikoa naturalagoa bilatu dela.

Ondorioz, eta kontuan izanik kanonikotzat hartzen diren bertsioak sorkuntza prozesuaren bilakaeran egilearen moldaketak jasaten dituzten argitaraturiko azken testuak direna, esanguratsua deritzogu, haatik, Sarrionandiaren idazketaren bilakaeran –eta kasu honetan, ipuingintzarenean–, duela hogeita

[25]http://www.elkarargitaletxea.eus/default.cfm?atala=artikulua_ikusi&hizkuntza=1&id_produktua=G81.01305 [2015/02/10an atzitua].

bost urte baino lehenagoko poetikaren eta egilearen gaur egungo idazketaren arteko erkaketa egiteari. Beste hitz batzuekin adierazteko, dena aldatuz, borratuz eta ezerezera bidean isurtzen joan arren, berridazketaren bidez idazleak idazten jarraitzeko aukera baliatu baitu eta berridazketaren ondorio diren aldaerak ikertuz gero, zuzenketa txikiak zein neurritaraino goitik beherako berridazketa bihurtzen diren jabetu gaitezkeelako. Horrenbestez, zehatz-mehatz azaleratu daitezke Sarrionandiak zein berridazketa-estrategia baliatu dituen jadanik, eta aspaldidanik, idatzita zeuden ipuinok berregiteko. Izan ere, "jatorrizko espirituari leial eutsi" nahi izanda ere, hots, berridatzitako ipuinak jatorrizkoaren gainean eginiko bertsioak edota bariazioak izanda ere, horixe da azken batean emaitza, aurreko beste zerbaiten bertsioa izatea, hain zuzen. Eta *NG* liburuaren argitalpenak egungo bertsio eraberrituak aurrez argitara emaniko jatorrizko testuekin konparatzeko eta eraldaketa guztien berri emateko aukera ahalbidetzen du.

2.3.2. *Narrazio guztiak (1979-1990)*: aldaeren kritika

NG izenburuaz gain, berezitasun ikusgarriena liburuko paratestuari dagokion azaleko irudian aurki dezakegu. Vicente Ameztoy (1986-2001) da irudiaren egilea eta argitaletxeko web orrian zehaztu bezala, Sarrionandiak "azala egiteko, *Zeruko Argia* aldizkariko kolaboratzaile izan zen garaian (1980 baino lehen) lankide izan zuen Vicente Ameztoyren koadro bat nahi izan du idazleak". Ekintza horrek, batetik, liburuaren edizioan egilearen esku-hartzea adierazten du eta, era berean, Sarrionandiak Ameztoyri eginiko omenaldi eta keinu gisa, noski[26].

Azaleko irudia aintzat hartuz, jatorrizko margolana 1974an olioa mihise gainean teknika erabiliz eta "Izenik gabe" titulaturikoa da, egun bilduma pribatuan gordea dena[27]. Irudian, Ameztoy margolariaren koadroetan ohikoak diren motiboak agertzen dira, elementu surrealistak eta amets tankerako paisaiak uztartuta: hain zuzen, irudiaren erdialdean bi lasto meta agertzen dira airean eskegita eta kable itxurako hari xehe bat jausten da lasto meten erditik, entxufe gisako zerbait iradokiz. Edonola ere, pasaiaren baitako paisaia ezinezko batean daude bi lasto metok. Izan ere, margolanaren ertzetan zutik dauden bi egur zutabek osatzen duten egituraren barrualdean mendi urrunak eta zerua nagusi den paisaia lanbrotua ageri da, baina egur zutabeen egituraren kanpoaldeko paisaiarekin lotura izanik ere, barrukoa eta kanpokoa ez dira bere horretan ezkontzen. Eta bi paisaien artean hainbat elementu errepikatu arren (tonu bereko belar zelaiak edota egurrezko zutabeak kasu), kable haria da, aldiz, barruko paisaiatik kanpoko paisaiara igarotzen den elementu bakarra.

Ameztoyren margolana hitzez deskribatzea nekeza bada ere, Sarrionandiaren narrazioetako giroa eta iruditegia iradokitzeko egokia eta eraginkorra dela uste dugu. Hala nola, hainbat ipuinetan ametsek

[26] Gainera, Ameztyoren obrarekiko miresmenean bat egiten dute *Pott Banda*ko Sarrionandia eta Atxaga idazle arrakastatsuenek, besteak beste, Artium museoan Ameztoyren lanaz hitzaldia eman baitzuen Atxagak 2006eko urtarrilaren 26an, Arterako hitzak programaren baitan.
[27] Iturria: *Vicente Ameztoy: Ganbera-erakusketak = Exposiciones de cámara/* [komisarioak, Javier González de Durana, Daniel Castillejo], Gasteiz: ARTIUM, 2003. 40-41. or.

("Eguzkia ortzi urdinean" eta "Hemen ez dago udaberririk"), elementu surrealistek ("Itzalarekin solasa" edota "Sonbreiru baten istorioa") nahiz landa giroko paisaiek ("Mezurik gabeko heriotza", "Atabala eta euria", "Aio aioma" zein "Haurrak pintaturiko paisaia") berebiziko garrantzia duten heinean.

Bestalde, liburuaren egiturari edo aurkibideari erreparatuz, *NG* lanean egilearen hastapen garaiko hiru narrazio eta hiru ipuin bilduma batzen direnez, liburua ere kronologikoki dago egituratuta. Horrela, jadanik aipaturiko "Atariko berriketa" hitzaurrearen ostean, *Hasierak* izeneko atalean biltzen dira orain arte argitalpen solteetan kaleraturiko ipuinak eta ondoren, ipuin liburu bakoitzari eskainitako *Narrazioak*, *Ataba eta euria* eta *Ipar aldeko orduak* ataletan antolatzen dira gainerako ipuinak. Gainera, geroago ikusiko dugunez, atal bakoitza eskaintzak egiteko baliatuko du egileak.

Jarraian, beraz, atal bakoitzaren baitako ipuinek berrargitalpenerako eginiko berridazketan izan dituzten aldaera nagusiak zehaztuko dira.

2.3.2.1.Hasierak

Esan bezala, inoiz batera aurkeztu gabeko Sarrionandiaren hiru estreinako ipuinak *Hasierak* izeneko atalean bildu eta atal hori "Pott-eko lagunei" eskaintzen die. Besteak beste, *Pott Banda*ko kideekin bat barneratu baitzen literaturgintzan eta, hain zuzen, Sarrionandiaren aurreneko ipuina, "Luigi Anselmi: figlio di un cane", 1979ko uztailean argia ikusiriko *Pott bandaren praka* alean kaleratu zelako Joseph al Pottonandia sinadurapean.

2.3.2.1.1."Luigi Anselmi: figlio di un cane" narraziotik "Figlio di cane" narraziora

Orduko "Luigi Anselmi: figlio di un cane" narrazioa, ordea, "Figlio di cane" titulatzen da *NG*eko bertsioan, eta izenburuaz gain, badira bestelako hainbat aldaera ere. Paratestuarekin jarraituz, bilduma berrian epigrafe bat erantsi zaio:

> "Besteak bizirik daude oraindik,
> Aulkietan esertzen diren agure zaharrak,
> sonbreiruak erantzi gabe guztiari begira…"
> Lawrence Ferlinghetti (ibid.: 13)

Ferlinghetti, poeta eta editorea, *Beat belaunaldia* deituriko mugimenduaren sortzaile eta partaideetako bat izan zen eta Otaegik (2013) jada erakutsi bezala, *Pott Banda*koengan *Beat* mugimenduak izan zuen eragina nabarmena izan zen. Epigrafeko hitzak, Ferlinghettiren *The old Italians dying* (1976) poemako jatorrizko "The other old men/ still alive on the benches/ watch it all with their hats on" bertsolerroen itzulpen dira eta poemaren izenburutik hasita, lotura zuzena du Sarrionandiaren narrazioarekin. Izan ere, "Figlio di cane" ipuinak, nagusiki, italiar jatorriko eta AEBetan gangster bihurturiko Luigi Anselmiren heriotza baitu kontagai. Izatez, ordea, Luigi Anselmiren

protagonistarena beste hilketa bat gehiago da, ipuin osoa hilketez, mendekuz eta erailketa bidezko kontu kitatzeez gainezka baitago. Azkorbebeitiak (1999b: 18) iragarri bezala, Sarrionandiak hastapen narrazioetako izenburuak irakurketa bideratzeko estrategia gisa baliatu eta, ondorioz, ipuineko gertakizunak girotzeko edota aurreratzeko erabili izan ditu. Horrela, narrazioaren titulu aldaketaren ondorioz, jatorrizko azpititulua titulu berri bihurtzearekin batera –zuzenketa txiki batekin, "Figlio di cane" < "Figlio di un cane" –, ipuineko protagonistaren izena eta aurkezpena ezabatu egin da izenburutik. Hori bai, oraingo bertsioko tituluak mantendu egiten du, nolabait, italierazko hitzek eragin dezaketen arroztasuna. Epigrafeak, bere aldetik, besteek bizirik dirautela aurreratzen digu hastapenetik eta aditzera ematen, ondorioz, norbait behintzat hila suertatu dela, ipuineko pertsonaia gehienek izango duten patu tragikoa iragarriz.

Behin testuan barneratuta, berrargitaraturiko ipuinak berridazte aldaera dezente izan dituela jabe gaitezke. Aipatu paratestuko aldaerez gain, nabarmenenak ipuinaren hasierari eta amaierari loturikoak dira. Jarraian, bi bertsioetako hasierak erreproduzitzen ditugu, bertan berridazketaren ezaugarri nagusienak ezin hobeki laburbiltzen direlakoan:

"Figlio di cane" (2011)	"Luigi Anselmi: Figlio di un cane" (1979)
Zortzi urte baino ez zituen Luigik Calabriako mendien bestaldean eguzkia ezkutatzen azkenengoz so egin zuenean, 1894ko abuztuan. Anselmi familia Gaglione herrixkatik Chicago hirira joan zen egun haietan, italiar hegoaldeko buztinezko eremu lehorrak atzean utzirik. Gibelean geratu ziren berunezko eguzkien azpian makurturiko aihen eta gorputzak. Gibelean geratu ziren amildegietako ahuntzak, arrailduretako sugeak, malariak horiztaturiko haur masailak, eta aro sargorituetako euri eskeak. Gaglione hilen hezurren gainean eraikitako herria zela esaten zuen bertako enterradoreak zakur galduek lurpetik hezur zurixkak ateratzen zituztenean. Atzealdean uzten zutena gibelean eta bihotzean zeramatenez gero, Ameriketara zihoazenek ez zuten atzerantz begiratzen. Itsaso Atlantikoa iragan eta New York agertu zen. Lurralde berriko portura iristean Vicenzo Anselmiren jabego guztia paper zimurtuan izkiriaturik zekarren Chicagoko ahaideen helbidea zen, hiru maleta zahar era hiru seme-alabekin batera. Vicenzoren emazte Giuliak ezin zuen garbitu, eta begiratu egiten zuen, haurren larruan eta ekarri objektuetan itsatsiriko hauts arrea, gaglionetarrei sorterriaren ezaugarritzat geratzen zitzaiena.	Luigik zazpi urte zituen, papá Vincenzok jaioterritik Chicagora ekarri zuenean. Italiako hegoaldeko Abruzzo mendiak, mahasti lehorrak, eguzki sargoriak eta jaietako musika eta koloreak beti izanen zituen presente bere oroitzapenetan. Familia oso pobrea zen, eta Atlantiko itsasoa zeharkatzen zutelarik, heuren propietate guztiak hiru maleta, sei pakete, lau semealaba eta Chicagoko ahaide batzuren zuzenbidean zetzan. Hiri hontan ere denbora asko iragan zen Anselmi senitartekoengan italiar hegoaldeko hauts grisa larrutik garbitu zitzaien orduko.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da bertsio berridatzian bereziki gehiketa bidezko aldaerak aurkituko ditugula, hots, egileak xehetasun gehiago erantsiko ditu, oro har, ipuinaren bertsio berrituan. Kenketa bidezko aldaera esanguratsuenak ere aipatuko ditugu baina moldaketa bidezko

aldaerak ez ditugu zehatz-mehatz aztertuko, izatez garrantzia berezirik gabeko xehetasun berri gutxi ondorioztatu baitaitezke kasu honetan aldaera mota hauen bilakaera aztertuta.

Beraz, goizko taulan ikus daitekeenez, ipuinaren girotze lanean sarreran migrazioak eta atzean utzitakoak hartzen duen esanahia nabarmendu egiten da, are, "gibelean geratu ziren" hitzaren anaforaren bidez aurrenik eta gibel hitzaren polisemia baliatuz ondoren, "Atzealdean uzten zutena gibelean eta bihotzean zeramatenez gero". Azkenik, paragrafoaren azken esaldiak lehengoa ezeztatzen du nolabait, "Ameriketara zihoazenek ez zuten atzerantz begiratzen" esan arren, ipuinaren lehengo esaldiak justu kontrakoa berresten baitu, hau da, Luigi bere sorterria azkenengoz so eginez hasten da narrazioa eta ekintza horrek ahalbidetzen du, gainera, atzean utzitakoaz gogoeta abiatzea. Are, ipuinaren amaieran ikusiko dugu atzera begiratze horrek atzera itzultze bat ere badakarrela berarekin.

Horrela, jada lehen paragrafotik ageri diren aldaketa eta gainerako zehaztapen txikiak ipuinaren bertsio berritu osora hedatuko dira. Bertsio berrienean Luigik zortzi urte zituela, amak Giulia izena zuela eta honek hiru seme-alaba zituela esaten da. Aldiz, jatorrizko bertsioan Luigik zazpi urte zituen, aitarena ez bezala, amaren izena ez da aipatu ere egiten eta, nonbait, honek lau seme-alaba zituen. Ondorioz, pertsonaien izena edota karakterizazioarekin zein data eta zenbakiekin loturiko hainbat xehetasun eraldatu egiten dira "Figlio di cane" berrargitaraturiko narrazioan. Ziurrenik italiar kutsua emateko erantsiriko *papá* Vicenzo, soilik Vicenzo Anselmi gisa aurkezten zaigu orain. Luigiren anai-arrebak aipatzerakoan ere, jatorrizkoan ez bezala, bertsio berrian izenak gehitzen zaizkie: "Luigi zortzi eta Margherita hiru urtekoak ziren. Carlo, bien artekoa, Chicagora heldu berri zirela hil zitzaien. Hala ere, urte batzuk geroago, beste haur bat erditu zuen Giuliak, eta amerikar semeari izen amerikanoa ipini zioten, William edo Billy". Jatorrizko bertsioan, azken seme horren berri ipuinak aurrera egin ahala ematen da, bere heriotzaren berri eman aurretik hain justu, baina 2011ko bertsioan bi aldiz aipatzen da. Bigarren aldiz aipatzen denean, ordea, esaldi esanguratsu bat gehitzen da aipuarekin batera: "larruazalean Gaglione aldeko hauts arrea ez zekarren bakarra omen zen senitartean", hain zuzen. Esaldi horrek, eta "hauts arrea"-ren hitzaren erabilerak, irakurlea zuzenean darama ipuinaren aurreneko paragrafoetako deskribapenetara.

Karakterizazioei dagokienez, errealitateko Big Jim Colosimoren, Johnny Torrio edota Alphonse Capone *Scarface*ren inguruko xehetasun ugari gehitzen dira bertsio berridatzian. Lehenengoaz, adibidez, "Verdi eta Puccini maite omen zituen, gainerako guztien gainetik, eta laket zitzaion fotografietan Amelita Galli-Gurcia eta Enrico Carusorekin azaltzea" esango zaigu; Torriori buruz "haurtzaroan Ameriketara heldua (…), hozbera eta isila" eta "bere etorkizunaren kontzientzia osoa"

zuela gaineratuko da[28]; eta azkenik, Al Caponeren orbainaren ingurukoak edota "koloretako soinekoz janzten zen. Gorbata gorria eta harribitxi dirdiratsuak luzitzen zituen" zehaztuko dira. Antzekoa gertatzen da, pertsonaia izan gabe ere, ipuineko gertakari tragiko guztiak lekukotzen diren Chicago hiriaren deskribapena egiterakoan eta jazzaren garrantziaren inguruko gorakadaren xehetasunak bertsio berrian gehitzerakoan ere.

Ipuineko pertsonaiekin jarraituz, aurrez aipaturiko Luigiren William anaiaren inguruko aldaketak sakonago azaldu behar dira. Izan ere, jatorrizko bertsioan aipatzen ziren idazleen erreferentzia metaliterarioak goitik behera aldatzearekin batera, hauek aipatzeko modua ere konplexuagoa da bertsio berridatzian, metafikzioaren errekurtsoa erabili eta pertsonaiak idatziriko esaldiaren bidez herrestan aipatzen baitira galdera erretorikoen bidez literatura unibertsaleko maisuak. Aldaketez jabetzeko, berriro ere bi bertsioak erreproduzitzen ditugu ondoren. Gainera, Williamek hogeita bost urte zituen jatorrizkoan hiltzen zenean eta orain urtebete gehiago izango du. Azkenik, bertsio berrian ezabatu egingo da Buster Keatonen-en aipua:

"Figlio di cane" (2011)	"Luigi Anselmi: Figlio di un cane" (1979)
Literatura eta mentura laket zitzaizkion Billyri, eta mutil alaia izan zen Sheila izeneko neska-laguna suizidatu zitzaion arte, ezen eta orduan esaldi luze bat izkiriatu baitzuen logelako horman: "Bizitzea edo hiltzea axola ez deneko unera iristean, ni iritsi naizen bezala, zaila egiten da bizitzara itzultzea, zaila egiten da norberegan berriro sinestea, norbere buruaren zati on bat hil egin delako". Nobelaren batetik kopiatua zirudien. Francis Scott Fitzgerald? Joseph Conrad? William Shakespeare? Ez zuen baina nobela bat bi aldiz irakurtzeko edo esaldirik ederrena asmatzeko astirik izan William horrek, handik gutxira, hogeita sei urterekin zine-areto batean utzi baitzuten tiro batez zerraldo; eserlekuan bertan eta filmaren erdian.	Literaturazale bezain menturazale zen, Jonathan Swift, Robert Louis Stevenson, Jack London eta italiar leienda zaharrak gustatzen zitzaizkion. Irakurtzen eta esaera bakanak asmatzen iragaiten zuen bere denbora. Agian ez zuen nehoiz nobela bat osorik irakurtzeko edo esaerarik bakanena asmatzeko abagadunerik izan, hogeita bost urte zituenean utzi baitzuten zerraldo tiro batez zinegela batetan, eserlekuan bertan eta filmaren erdian, Buster Keaton makinista lekuko.

Narrazioko datek jasandako moldaketen artean, Luigiren heriotzaren urtea eta, bereziki, heriotzaren eszenaren xehetasunak ere aipatzekoak dira. Berridatziriko bertsioan 1927an gertatzen da aurrez 1926an jazotzen zena (eta horrenbestez, narrazioko hileta kontatzerakoan zehaztuko den hilobiko plakan erreproduzitzen den testuak ere moldaketak eragingo ditu). Batean, martxan doan autotik botako dute Luigi hilzorian, bestean autotik metrailetaz tirokatuko dute espaloitik zihoan Luigi:

"Figlio di cane" (2011)	"Luigi Anselmi: Figlio di un cane" (1979)
Kale-garbitzaile beltz gor batek ikusi omen zuen dena: gelditu gabe pasatu zen auto beltzaren ezkerraldeko leihoetatik hiru-lau metraileta bururen sua kontenplatu zuen, eta gero espaloian	Kalegarbitzaileak ikusi zuen auto batetatik botatzen zutela martxan. Luigik anbulanziari deitzeko erregutu zion. Kalegarbitzaileak nortzuk izan ziren galdetu zionean, berak zoritxarra izan

[28] Bestalde, Torrioren jaiotza data dela eta, jatorrizko edizioko akatsaren inguruko zuzenketa txikia egiten da oraingoan. Izan ere, jatorrizkoan "1877an jaioa zelarik Luigiren adin berbera zuen" badator ere, beranduago Luigi Anselmiren hilobian ere zehaztuko den bezala, Luigi 1987an jaio zen.

gizona erortzen zela. Han inguruko atezain batek anbulantziari deitu zion. Kale-garbitzaileari mila aldiz galdetu zioten ea Luigik zer esan zuen hiltzean. Kale-garbitzaile beltzak ez zuen baliozko daturik eman. Edo ez zuen Luigik esandakoa ulertu, edo ez zuen entzundakoa kontatu nahi. Zaurituak arnasa galdu orduko iritsi zen anbulantzia. Hala ere, berandu. Kalerik kale abiadan zihoala hil zen Luigi, anbulantzian. Azkenean, ospitalera eraman beharrean hurbilago zegoen hiltegian utzi zuten.	zela erantzun omen zuen. Anbulanzian hil zen eta hospitalera eraman beharrean gorputzilen depositora eraman zuten.

Eta azkenik, bertsio eraberrituan gehituriko azken paragrafoa dugu. Izan ere, jatorrizko narrazioa Luigi Anselmi protagonistaren hileta elizkizunaren eszenaren deskribapenaren ostean amaitzen da, bere hiltzailea identifikatzeko izan ziren zailtasunen zerrenda errepasatu ostean. 2011ko "Figlio di cane" ipuinak, ordea, bestelako amaiera bat du, eta gainera, amaiera berriak ipuin berridatziaren hasierara garamatza zuzenean, "hirietako hautsa"-ri egiten zaion alusioarekin eta hitzez hitz errepikatzen diren hastapen paragrafoko esaldiekin. Eta horrela, berridatzitako azken paragrafoan gehituriko aurreneko esaldiak ere zentzu bikoitza bereganatzen du, ipuinari ere amaiera zirkularra eransten baitio:

> Hala zarratu zen bizitzaren zirkulua. Luigi Anselmi izen-abizena ez zen gehiago Chicago Tribune egunkariaren orrialdeetan agertu. Laster ahantzi zen, Ameriketako hirietako hautsak italiar hegoaldekoak bezala estaltzen dituelako gauzak. Luigi Anselmi sakonegi sartu zuten lurpean kazeten irakurlegoari edo publiko deitzen den horri handik hona interesatzeko. Edozein modutan ere, haren hilobiaren gainean liliak agertzen omen dira lantzean behin, andere zahar dotore batek utziak. Itsasoaren honunzkaldean, Ganglioneko enterradoreak hau hilen hezurren gainean eraikitako mundua dela esaten du, biraoen ondoren, horixe botatzen du oraindik ere zakur galdu madarikaturen batek lurpetik hezur zurixkak ateratzen dituenean.

Horren harira, gogora ekarri behar dugu Azkorbebeitiak nabarmendu zuela, bereziki *N*eko zenbait ipuin aipatuz, Sarrionandiaren hainbat narraziotako amaierek hasierara itzultzeko joera zutela eta "egitura borobila" (1999b: 30) gailentzen zela. Eta ikusi bezala, "Figlio de cane" narrazioaren berridazketan, jatorrizkoan ez zegoen baliabide hau, egitura zirkularra ematearen aldeko hautua baliatu du egileak beste behin ere.

Zehaztu ditugun gehiketa bidezko aldaera eta eraldaketez gain, badira estilo kontuekin loturiko beste zenbait ere. Horrela, narrazioak biltzen duen giro oldarkor, bortitz eta indarkeriaz gainezka egiten duena islatzeko hainbat irudi eta metafora gehitzen dira. Hala nola, "odolez margotzen ziren ispiluak" irudi iradokorra eta aldi berean, heriotzaren iragarle bihurtzen dena ondorengo deskripzioaren ondotik, "Bill Liebeck sutsuak, esate baterako, odolezko ispiluan begiratzen zion bere buruari ia goizero". Giro oldarkorrari loturiko semantika ere ñabarragoa da, kontraerasoa hitzak garrantzia hartzen duen paragrafoan mendekua hitzari definizio bidezko birformulazioaren eransten baitzaio "kontraerasoaren kontrako erasoa" gisa berridatziz.

Kenketa bidezko berridazketa ariketak, aldiz, askozaz ere urriagoak dira, eta esanguratsuena, narrazioaren izenburuarekin lotura duen azalpena ezabatzea litzateke. Izan ere, Luigi Anselmik aurrez aipatu dugun hildako William anaiaren mendekua burutzen du eta ondoren, berak tiroz zauritzen duen Angelo Labriolaren mezu bat jasotzen du ospitalean bisita egin diezaion. Hain justu, Labriolak deituko dio Luigiri izenburuko "Fligio di cane!", baina jatorrizko bertsioan zehazten den eszenaren arrazoiaren azalpena ezabatu egiten da bertsio eraberrituan. Hona hemen berridazketan kendutako esaldia: "kanpako legearen arauera, ez zuen hiltzailearen izena salatua. Baina bere azken desioa beronen presentzian zetzan". Finean, Labriolak, iseka bidez bada ere, mendekatu edo zikindu egin nahi du Luigi Anselmiren izena eta hain justu, horiek izango dira bere azken hitzak, Luigik maindirearekin Labriola hilko baitu.

Azkenik, ezabatutako beste esaldi esanguratsu batek Luigi protagonistaren hiltzailea identifikatzeko ezinezko zerrendarekin du lotura, jatorrizkoan "hiletan negar malko ugari isuri zituen arren norbaitek Frank Colosimoz ere sospetxatu zuen" zehazten bada ere, Luigiren hiltzailea garai bateko bere sozioen odoleko semeren bat izan daitekeela iradokiz eta balizko hiltzaileen abanikoa ugarituz, bertsio berridatzian ezabatu egiten da aukera hori.

2.3.2.1.2."Maggie indazu kamamila!" narraziotik "Maggie indazu kamamila" narraziora

"Maggie indazu kamamila!" narrazioak Arabako Diputazioak antolaturiko 1980ko Ignacio Aldecoa ipuin sariketako lehen saria eskuratu zuen eta sarituriko bertsioak 1982an ikusi zuen argia *Concurso de cuentos Premio "Ignacio Aldecoa" 1980-1981* liburukian. Aurrez, ordea, 1980an hain zuzen, *Xaguxarra* aldizkariaren lehenengo alean ere argitaratu zen eta baita 1981eko *23* liburuan ere[29].

Hiru bertsio horien arteko testuaren baitan ez dago aldaketarik eta aldaera nagusiak paratestuari dagozkio, epigrafeak baitira hiru bertsioen artean aldatzen diren elementu bakarrak.

Lehenik eta behin, hasierako bi lekukotzetan agerturiko bertsioak genituzke. Jarraian ikusiko dugunez, hasierako epigrafeak ez dira berdinak eta bada beste berezitsun bat ere: *23* liburuko ipuinaren amaieran narrazio ixten duen beste epigrafe bat aurki daiteke. Gainera, James Joycen "She Weeps over Rahoon"poemako azken ahapaldiak ipuinaren amaierarekin lotura argia erakusten du:

> Dark too our hearts, O love, shall lie and old
> As hid sad heart has lain
> Under the moongrey nettles, the black mould

[29] Izatez, ezin da zehaztasunez ziurtatu lehiaketarako idatziriko narrazioa aldizkarietan argitara emandakoak baino lehenagokoa denik baina uste izatekoa da sariketara ipuin ineditoa aurkeztuko zuela, ipuin sariketa gehienetako oinarrietan betebehar hori zehazten baita. Bestetik, Xabier Mendigurenek apailatu eta 1994an kaleraturiko *Ipuin bakanak* (Elkar) bilduman ere ipuin hori berrargitaratu zen, *Xaguxarra* aldizkariko bertsioa aintzat hartuz. Bildumak aldizkarietan edota argitalpen instituzionaletan sakabanaturiko ipuin sarituen bilduma irakurleei eskaintzea zuen xede. Era berean, honela azaltzen ditu Mendigurenek Sarrionandiaren ipuinaren dohainak: "(…) idazkera berri bat baitzekarren egileak: Eros eta Thanatos-en arteko gai eternala harturik, ñabarduraz betetako estiloa, magiaz blai dagoen lexiko-hautaketa, begiak noranahi zabaltzeko kosmopolitismoa" (Mendiguren 1994: 12).

And muttering rain
James Joyce

Edonola ere, amaierako epigrafe hori ez da "Maggie indazu kamamila!" ipuinaren gainerako bertsioetan agertzen eta *NG*rako ere ez da berreskuratu.

Hain zuzen, *NG* liburuko kreditu oharretan *Xaguxarra* aldizkariko ipuina aipatzen da berrargitalpenerako moldatu den ipuinaren jatorrizko ediziotzat. Halere, berridatziriko narrazioaren hasierako epigrafeari erreparatuz, kontura gaitezke edizio berrirako *23* liburuko edota 1980ko Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketako bertsioetako T. S. Elioten aipua berreskuratu dela, oraingoan euskarara itzulita ematen bada ere, eta ez *Xaguxarra* aldizkariko erabiliriko Jon Miranderen aipua:

"Maggie indazu kamamila" (2011)	"Maggie indazu kamamila!" (1982)	"Maggie indazu kamamila" (*23*, 1981)	"Maggie, indazu kamamila" (*Xaguxarra*, 1980)
"Itsasoko ganberaretan berandutu gara itsas belar gorri eta nabarrez koroaturiko itsas neskekin, harik eta giza bozek iratzartzen gaituzten arte, eta hala itotzen gara" T.S. Eliot	"We have lingered in the chambers of the sea by sea-grils wreathed with seaweed red and brown till human voices wake us, and we drown" T. S. Eliot	"We have lingered in the chambers of the sea by sea-grils wreathed with seaweed red and brown till human voices wake us, and we drown" T. S. Eliot	"Itxas-zabal gorri batean murgildu zan, itxas-ontzi zoritxartu baten antzora" Jon Mirande

Batean, T. S Elioten "The Love Song of J. Alfred Prufrock" poemako azken bertso-lerroak dira aipuan txertatzen direnak eta bestean, aldiz, Miranderen "Zinopa" narrazioaren amaiera aldeko lerroak. Bi aipuetan itsasoari egiten zaio erreferentzia eta "Maggie indazu kamamila" ipuineko amaiera tragikoa, modu poetiko batean nahi bada, baina berriro ere hasierako epigrafean iragartzen da. Gainera, epigrafeko bi iturrietako hainbat xehetasunek (hala nola, gauak, kalean alderrai ibiltzeak eta bestelako berezitasunek ere) bat egiten dute Sarrionandiaren narrazioan. Eta egilearen hasieratako ipuina izan arren, bi epigrafeetan aipaturiko autoreekiko mirespenak esanahi eta oihartzun handia izango du Sarrionandiaren literaturan.

Kontrara, *23* liburuan soilik aurki daiteke amaierako James Joycen aipua.

Ipuinaren oinarrizko egitura bere horretan mantentzen den arren, hots, oraingoan ere zortzi ataletan banatzen da narrazioa, esaldi taxuketek eta paragrafo egiturek aldaketa asko jasan dituzte. Ezaugarri hau, gainera, *NG* liburuko ia narrazio guztietan ematen da. Gainera, "Maggie indazu kamamila"-ren aurreko bertsioetan pertsonaien arteko elkarrizketak estilo zuzenean ematen ziren. 2011ko edizioan, aldiz, elkarrizketak paragrafoen baitako testuetan barneratu dira, estilo zuzenetik kakotx artean markaturiko zehar estilora eraldatuz (I, III, VI eta VIII. ataletan, hain zuen).

Dena den, testu mailako aldaerak ez dira horren esanguratsuak. Egia da, ipuineko eszena zehatz batzuk eraldaketak jasan dituztela: Maggiek prestatzen dion kamamilan pozoia ikusi uste duen ostean protagonistari mendeku grina pizten zaioneko eszenan edota amaiera aldeko borroka eta sexu eszenako kontaketa modu esplizituagoetan, adibidez. Halere, narrazio osoan hizkuntza aldaketak dira nagusi (adib.: amamatto > amona; amatto > amatxo; maitasuna egin > larrua jo) eta beste zenbait aldaeren kasuan, aldaketok hizkuntza forma batzuk "garai berrietara moldatu dituen seinale dira" (Rodriguez 2013: 169). Rodriguezek *Kartzelako poemak* laneko "gizon" hitza bi generoak biltzen dituen "gizaki" hitzagatik aldatzen duenean egiten duen gogoeta da eta gure aldetik, Sarrionandiaren berrargitalpenetako poema zein narrazio ia guztietara hedatu daitekeen joera dela nabari daiteke. Hain zuzen, *NG*eko hainbat hizkuntz aldaerek horrekin dutelako lotura. "Luigi Anselmi" edota "Maggie, indazu kamamila" narrazioetako "emagaldu" hitz gaitzesgarria, "puta" hitz nolabait neutroagoagatik eraldatua izango da. Era berean, gizonaren ikuspegia gailentzen den esamoldeak ere neutralizatu egingo dira eta horren erakusle da narrazio honetan, aurreko bertsioetako "emaztetzat hartu nuen" esamoldearen ordez "ezkondu egin ginen" bariazioa ematen dela edota sexu eszenari dagokion "estali nuen"-en ordez "larrua jo genuen" berridazten dela.

2.3.2.1.3. "Enperadore eroa"-ren bi bertsioak eta aldaera berdinak

"Enperadore eroa" narrazioak ere sari bat eskuratu zuen 1980. urtean, Bilboko udalak antolaturiko Bilbo Hiria saria, hain justu. Edizio bakar bat izan zuen lehiaketa horretako ipuin sarituen argitalpenak zeresan handia izan zuen, jadanik inprimaturiko eta banaketa egiteko prest zetzan argitalpena deuseztatzeko agindua eman baitzen[30]. Nonbait, Juan Retanak irabaziriko gaztelerazko modalitateko "Epitafio del desalmado Alcestes" narrazioak hitz itsusiak zituen eta udaleko ordezkariei ez zitzaien liburua eskoletan banatzeko modukoa iruditu. Erabaki horrek, kontrako iritzi asko sortu eta azkenean, editore, liburu-denden elkarte, sariketako epaimahaikide eta zenbait literatur kritikariren ekimenez, besteak beste, *Cuentos icombustibles* (1981) liburuan eman ziren argitara sarituriko ipuin eta beste hainbat literatur lan.

Aipatu liburuko "Enperadore eroa" ipuina Joseba Garaizarrek sinatzen zuen eta esanguratsua da Sarrionandiak Garaizar abizena hautatu izana. Aurrez, *Zeruko Argia*n idazten zuenean ere Jose Anjel Garaizar ezizena erabili izan zuen eta egilearen literatur sorkuntzako lanak arakatzen badira, Garaizarren aipamena jada *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko "Oskorriko arragoan" poemako eskaintzan aurki daiteke, "Garaizarko itsuari dedikatua" baita poema hori. Poemarioaren hitzaurrean Sarrionandiak aitortu bezala, "lau urte nituelarik itsutu egin zen hauzoko agurea" (Sarrionandia 1981a: 6), eta beraz, Garaizarrek egilearen sorlekuko Iurretako auzoari egiten dio erreferentzia, jakina

[30] Sarrionandiak *NG*-eko hitzaurrean ere gogora ekartzen du gertakizun hori, "Bilboko alkate berriak ipuin liburu bat erretzeko agindu zuen (*Farenheit 451* errepikatu nahi balu bezala)". Hain zuzen, kontu horren inguruko kronika biltzen den *Argia*ko albisteak ere "Farenheit 451" izena darama:
http://www.argia.eus/mendea/kronikak/81.htm [2015/11/10ean atzitua]

denez Garaizarkoa baitzuen ama. *Lagun izoztua* nobelako hasierako epigrafeetako batean ere Garaizar topatzen dugu, baina oraingoan abizen gisa, Martin Garaizar idazle apokrifoaren sinadura baitarama "antzinako euskaran dago idatzia eta behinola nabigazioari buruz idazten ziren liburu batetik ateratakoa dela simulatzen" den aipuak (Rodriguez 2013: 262). Rodriguezek, Garaizar hitzak "antzinako garaiari" egiten diola erreferentzia aipatzen du, epigrafean Calaportu aipatzen baita eta *Lagun izoztua* eleberriko Kalaportuko kontakizuna iraganean kokatzen baita. Azkenik, *Akordatzen* liburuan ere hainbat aldiz aipatzen da Garaizar: "Garaizarrera bideko, Etxeberri barreneko putzuko igelen kantuaz akordatzen naiz" (Sarrionandia 2004: 9); "Mendi haren bestaldekoa nintzen, eta han bestaldean, Garaizarren, ez naiz akordatzen gerraren aipamenik entzun nuenik egundo" (ibid.: 19). Dena den, "Garaizarkoa naizela akordatzen naiz. Baina nor ez da ba Garaizarkoa?" (ibid.: 11) aipuak biltzen ditu umezaroko auzoaren erreferentzia eta antzinakoa izatearen adiera, biak ala biak, aipu bakar batean. Beraz, esan daiteke Joseba Garaizar ezizenaren abizenak ere bi kontuei egiten diela erreferentzia, modu agerian haurtzaroko amaren jatorriko auzoari eta hipotesi moduan bada ere, agian, baita "Enperadore eroa" ipuineko garai zaharrari ere. Hori horrela, jatorrizko edizioko narrazioaren hasieran bertan, kontalariak ipuineko protagonistak aurkezten dituenean, "Garai zaharrean mundu guziak ezagutzen zituen" esaldia biltzen da.

Cuentos incombustibles liburuko eta *NG*eko ipuina erkatuz gero, oraingoan ere epigrafean aurkitzen dugu desberdintasunik nabariena. Jatorrizko 1981ko ipuinean bi epigrafek irekitzen zuten "Enperadore eroa": Li Chang Yin (813-858) txinatar poetaren aipuak –"Liliak zimeldu egiten dira eta erori udazkeneko haizeak eramanak: Norantz doa, berriz, lilien usaina?"– eta Pedro Axularren *Gero* laneko "Gaztetik zahartzera penitentzia luzatzen duenaz" XIII. kapituluko aipuak –"Pintatzaile batek egin baleza imajina eder bat alde guztiz konplitua, eta abantailatua: imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe leraukaio?". Jatorrizko bi aipuek zuzenean iragartzen dute ipuineko leitmotiva, Axularren aipuan bildu bezala, Sarrionandiaren ipuinean pintatzaile miresgarria delako protagonista eta, gainera, imajina erabat ederren sortzailea izatea izango da ipuineko gertakizunak eragingo dituen faktorea. Bestetik, Li Chang Yin poetaren aipuak zuzenean kokatzen gaitu ipuineko kronotopoan, Txinako kondairetako garai zaharretan, hain zuzen. Eta azkenik, "Enperadore eroa" narrazioan liliek, oro har, eta zimelduko den arrosak, batik bat, izango duten garrantzia sinbolikoa ere aurreratzen da. 2011ko *NG*eko edizioan, ordea, Axularren aipua bakarrik mantentzen da, eta Li Chang Yinen poetaren epigrafea baztertua izan da[31].

Testuaren barneko aldaerak direla eta, lehenik eta behin Jing Fu (< Ching-Fu) pintatzailearen protagonistaren eta Han Xin (< Yang-Shin) eskualdearen izenen grafien moldaketa aipatu behar da. Era berean, jatorrizkoan izen guztiak marratxo bidez aurkezten ziren eta edizio berrian, aldiz, ez da

[31] Li Chang Yin poetaren aipua dela eta, Sarrionandiaren epigrafeko bertso-lerroek, hein batean, "Falling Petals" bezala itzuli izan den poeman agertzen den motiboa errekreatzen badute ere, ezin da esan itzulpen zehatza denik. Hori horrela, eta Li Chang Yinen itzulitako poemak arakatuta, ez dugu Sarrionandiaren itzulpenarekin lotzen den jatorrizkorik aurkitu eta, beraz, eta berriro ere hipotesi mailan, aipua agian apokrifoa litzatekeela kontsideratu beharko litzateke, egilea benetakoa izanik ere.

halakorik ematen (Hung-Wu > Hung Wu; Su-Tao > Su Tao). Bestetik, testu mailan kenketak baino gehiketa gehiago aurkituko ditugu eta kenketarik esanguratsuena, Enperadorea eta pintatzailearen istorio intradiegetikoaren denbora ezabatu egiten dela da, hain zuen. Jatorrizkoan hala izanik ere, bertsio eraberrituan ez baita zehazten "Duela sei mende bizi ziren"-ik[32].

Edonola ere, gehiketak dira berridazketak gailentzen direnak eta aldaera gehienak pertsonaien karakterizazioarekin edota ekintzen deskribapenekin loturiko xehetasunak dira. Horrela, pintatzailearen dohainak ("eta ikaragarria zen edozein koadrotan lortzen zuen izadiaren antza eta bizitasuna"), Enperadorearen proposamenari uko egiteko pasarte errepikatuak ("umilki"; "apalki"; "traba baizik ez zela izango jauregiko eskailera eta sala-pasilloetan. Enperadoreak berriz ekin zion eskaerari, edozer emango ziola esanez. Pintatzaileak, Enperadoreak eman zitzakeenetatik, bakea, bakea ematea besterik ez zuela eskatzeko erantzun zuen"), Enperadorearen haserrealdia ("Enperadoreak aurreko bi zangoak altxarazi zizkion zaldiari, agure pintatzailea eta haren alaba ia azpian hartzeko moduan"; "botere ariketa betean, harrokeriak itsuturik") eta azken batean, bi protagonisten arteko kontrastea eta dikotomia indartzeko helburua izan dezaketen ñabardurak lirateke bertsio berridatzian gehitzen diren xehetasunak.

Gehiketekin jarraituz, bestalde, lehen aipaturiko arrosa zimelduaren eszena da bertsio berrian gailentzen den eraldaketa. Bi bertsioetan, testuaren baitan liliei egiten zaien lehen aipua Enperadorea eta pintatzaileak bat egiten dutenean jazotzen da: "Egia zen, pinturako liliak benetakoak bezain ederrak ziren". Jarraian, Enperadoreak koadroko arrosa bat ebakitzen du. Bada, jatorrizko bertsioan, pintatzaileak Enperadorearen bigarren ukoa jaso eta koadroaren aitzinean ematen dituen hiru egunen ostean soilik egiten zaio erreferentzia honezkero zimeltzen ari diren loreei, metafora gisa gobernatzen duena ere eskuartean zimeltzen zaiola adierazteko, hain zuzen. Aldiz, berridatziriko bertsioan, koadrotik ateratako arrosari behin eta berriz egiten zaio erreferentzia. Lehenik eta behin, arrosa moztu eta jada hurrengo egunari dagokion pasartean, "Arrosa moztua laster zimeldu zen Enperadorearen logelako lore-ontzian. Orduan esan omen zuen Enperadoreak lastima zela hura dena egia izan behar eza!" lerroak gehitzen dira. Eta lerro batzuk behereago, pintatzailearen bila joaten denean, ondorengoa eransten da bertsio eraberrituan: "Arrosa ebakiaren zurtoina bilatu zuen Enperadoreak. Han zegoen oraindik, korrejitu gabe, zurtoin moztu pasmatua". Horrenbestez, arrosa ebakiak presentzia bereganatzen du sinbolo gisa, Enperadoreari pintatzailearen uko errepikatuek eragingo dioten haserrealdietan ondoan izango duen elementua baita. Ipuin tradizionaletan usu gertatzen den gisa berean, bitan ukatuko du pintatzaileak proposamena; hirugarrengoan, ordea, enperadoreak ez du uko gehiagorik onartuko eta gradazio horretan ere, arrosak zeresana izango du. Izan ere,

[32]Era berean, eta bitxikeria moduan, esan behar da jatorrizko testuan akats bat ageri dela esaldi horretan. "(…) baina hura Goaro luzea izan zen Txinako Erresuman" irakur daiteke eta Goaro horren atzean zer ezkutatzen den jakiteko ezinbestekoa bilakatzen da Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirrek apailaturiko *Euskal Literaturaren Antologia* (Elkarlanean, 1998) lana. Bertan, epigraferik gabe bada ere, "Enperadore eroa" (285-288) ipuina erreproduzitzen da eta aurrez aipatu dugun esaldia osorik ematen: "baina hura gobernuaren gari hobiak beterik eta laborarien sabelak hutsik zireneko aro luzea izan zen Xinako Erresuman". Hori horrela, *NG*-ko ediziorako eginiko zuzenketa txikietako bat litzateke aipaturikoa.

Enperadorearen mailaka egingo dituen gogoeten azken ondorioa, arrosa eta lilien zimeldurak eragindakoa izango da. Ez alferrik, jatorrizko bertsioan "Ching-Fu.k berak baino botere gahiago [sic] zuela, arriku [sic] bat zela alegia" adierazten bada, ideia hori bera agerikoago egiten den esaldia hau gehitzen da berridazketan: "Beraz, pintatzaileak berak baino ahalmen gehiago zuela".

Amaitzeko, azken paragrafoan ageri diren gehiketak nabarmendu behar, Azkorbebeitiak "komunikazio bikoitza" (1999b: 41) deiturikoaren adierazle gisa, hots, "testuak esplizituki esaten digunaren ondoan beste zerbait dioskula ere irudi dakiguke, irakurketa literalarekin batera beste bat ere posible dela". Horrela, "Enperadore eroa" ipuinaren jatorrizko bertsioan narratzaile intradiegetikoak kontakizuna bukatutakoan entzuleari erronka luzatzen dio, bere istorio sinetsi ezean, bila dezala Enperadore eroaren istorioa konta diezaiokeen beste kontulariren bat eta gogoeta honekin ixten du narrazioa: "Haren narrazioa, berria irudituko zaizun arren berdina izanen da istorioa, nik desberdintasun guztiak dastatu ditudan agure honek diotsut, Tibeteko eta Shangaiko ihiak bezain berdina bederen, edo eta abiatzerakoan zapalduko dituzun orbel bi bezain berdinak". Berridatziriko bertsioan, aldiz, bi esaldi esanguratsu gehitzen dira azken gogoeta horretan, eta izatez, entzule intradiegetikoak bila ditzakeen Enperadore eroa ipuinaren bertsioei buruz loturikoak badira ere, irudi luke, narratzaile inplizitua Sarrionandia egilearen "Enperadore eroa" narrazioaren bi bariazioen eta aldaeren gainean ere mintzo dela. Hain zuzen, hauek baitira berrargitalpenean gehituriko eta "komunikazio bikoitza" eskaintzen duten hitzak: "Egiari loturiko istorioak direlako dira bi bertsioak eta aldaerak berdinak, itxuraz diferenteak izan arren, Tibeteko ihia eta Shangaiko ihia bezain berdinak bederen, edota hemendik alde eginda zapalduko dituzun bi hosto, momentu eta leku desberdinetan eroritako bi hosto bezain berdinak". Izan ere, 1981ko "Enperadore eroa" eta 2011n berridatziriko "Enperadore eroa" narrazioen bi bertsioak eta aldaerak ere berdinak lirateke, hein batean, momentu eta leku desberdinetan idatzi eta berridatziriko bi istorio bezain berdinak, eta aldi berean, desberdinak ere bai.

2.3.2.2. *Narrazioak*

1983an kaleraturiko Sarrionandiaren *N* lehen ipuin bilduma izan da kritikak laudatuena, irakurleenek irakurriena eta argitaletxeak berrargitaratuena[33]. Jatorrizko bertsioak hamar ipuin, "Narrazioei ohar batzuk" eta Bernardo Atxagak idatziriko "Epilogoa, Sasoi ilunak gogoan"[34] atalak zituen. *NG* berrargitalpenean, aldiz, Atxagaren epilogo-ipuina eta "Narrazioei ohar batzuk" atala kanpoan gelditu dira. Eta oharrotan "Sarrionadiak bere horizonte literarioa emateaz gain, bere poetikaren inguruko datu ugari ematen" baditu ere (Rodriguez 2013: 199), post-data gisa idatziriko bildumako narrazioen inguruko azalpenak eta erreferentzia literarioak ez zaizkio *NG*en irakurleari errazten:

[33]Adibidez, 2013ko abenduan 21. berrargitalpena kaleratu zen. Halere, *N*-en berrargitalpenetan ez dira aintzat hartzen *NG*-eko *N* ataleko ipuinetarako eginiko aldaketa, moldaketa, eguneraketa eta azken batean, berridazketak. Beraz, egun, ipuin berdinen bertsio ezberdinak argitaratzen ari direla zehaztu behar da.

[34] 4. kapituluan aipatuko dugun bezala, Atxagak ipuin honen berridazketa *Obabakoak* lanean aurkeztuko du, "Ni, Jean Baptiste Hargous" izenburupean.

beraz, *N* liburuko ipuinetako epigrafe zein egile apokrifoen berririk ez; narrazioetako testuartekotasun ugarien aitorpen espliziturik ez; "Gaueko enkontruaren" hastapen egitura iradokigarria eta irakurlek osa zezakeen atalkako "lehen bertsioa" ere ez da argitzen; ezta beste ipuin batzuen gakoa non datzan ere... Horrenbestez, Rodriguezek bere tesian frogatu eta ondorioztaturikoa *NG*en kasuan ez dela bere horretan betetzen esan genezake. Izan ere, "Sarrionandiak testua esanguratsuak diren elementuez inguratuta maite du, irakurlea prestatuz, eramanez, gidatuz irakurriko duen horretara" (ibid.: 199) eta *N*-en "Narrazioei ohar batzu" atalak burutzen bazuen zeregin hori, *NG*en baztertu egiten dira argibide metaliterario horiek.

Bestalde, eskaintzek ere izan dute aldaketarik. Hain zuzen, jatorrizko bertsioko oharretan ipuinak banan-banan komentatzerakoan, "Kristalezko bihotza" narrazioa Irene Uriarte eta Esteban Uribelarrea amama eta aittitteri dedikatzen die eta, azkenik, "Marinel Zaharra" Fernando Sagarduiri. *NG*eko *N* atala, aldiz, oraingoan abizenik eta bestelako argibiderik gabe bada ere, aurrez aipaturiko Esteban eta Ireneri eskaintzen die Sarrionandiak, eta baita Kandida eta Martini ere[35].

NG eta *N*eko hamar ipuinak alderatuz gero, *Hasierak* ataleko ipuinekin gertatu bezala, zenbait ipuinetako epigrafeek eraldaketak izan dituztela jabetzen gara. Alde batetik, jatorrizkoan epigraferik ez zuen "Itzalarekin solasa" ipuinean umezaroko oroitzapena izan daitekeen ondorengo aipua gehitu du berridazketan: "Umeak ginela, itzala estal genezakeela uste genuen. Eguzkiari bizkarra eman eta harriak botatzen genizkion itzalari, horrela lurperatuko genuelakoan. Harri pila bat egiten genuen, baina itzala gainera igotzen zen". Horrenbestez, *N*en jatorrizko bertsioan epigraferik ez zuen ipuin bakarrean ere aipu bat txertatu da berridazketan. Era berean, ipuin hau jatorrizkoan Jose Julian-i eskaintzen zion eta edizio berrituan, eskaintza agerikoago egin eta Jose Julian Bakedanori dedikatzen dio. Bestalde, "Amodio fantasia" ipuinaren jatorrizko bertsioak bi epigrafe zituen: E.E. Cummings-en "amodioa ez da batere faltsua ez posiblea (ezen imajinatua da, beraz mugagabea)" eta Francisque Michel-en bildumatik harturiko "Eta sareak urzorik gabe miratu nituenian, harritu nintzan joan othe zen hegalik gabe airian" bertso-lerroak. Bada, *NG*en Cummingsen aipua bere horretan mantentzen da eta, aldiz, Michelen *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique* (1857) laneko 324. orrialdetik harturiko bi bertso-lerroak kendu egiten dira.

Ipuinen idazketako testuari dagokionez, estilo aldetik esaldien joskera, paragrafoen antolaketa eta bestelako osagaiek ere –adibidez, letra etzanaren erabilerak, ipuinen baitako hutsarteek, elkarrizketetako akotazioen lekualdatzeek eta elkarrizketen formatuak– makina bat eraldaketa izan dituzte. Ez da gure asmoa esaldi guztien moldaketa zein paragrafo guztien banaketen berri ematea, baina eraldaketen artean, "Sonbreiru baten istorioa" ipuineko letra etzana kendu izana eta "Gaueko enkontrua" ipuineko elkarrizketak paragrafoko testuaren baitan letra etzanez kokatuta egotetik gidoi

[35]Azken bi izen horien inguruan ez dago argibiderik eta Irene eta Esteban amaren aldeko aitona-amonak izanda, agian aitaren aldekoak direla pentsa daiteke; baina esan bezala, testuak ez du kontu hori argitzeko biderik eskaintzen.

bidez adieraziriko estilo zuzenera pasa izana aipatu behar da, letra etzana kenduta. Ipuin berean, gainera, pertsonaietako bat idazten ari den ipuineko pasarteak ere letra etzanez adierazi beharrean, jatorrizkoan bezala, kakotx artean adierazten dira berrargitalpenean. Eraldaketa horren bidez, bestetik, jatorrizkoan baino pasarte gehiago direla ipuinaren baitako ipuinaren parte konturatu gaitezke. Kontrara, "Sonbreiru baten istorioa" ipuineko hainbat pasarterekin alderantzizkoa gertatzen da eta letra etzanik ezean, ez da nabarmentzen pertsonaiaren burutapenak edota idazten ari den ipuineko esaldiak direnik. Izan ere, jatorrizkoan letra etzanez markatu gabeko hainbat pasarte kakotx artean zehazten dira berrargitalpenean. Jarraian ikusiko dugunez, bertsio eraberrituko hainbat moldaketek metaliteraturarekin eta metafikzioarekin dute lotura nabarmena eta ortotipografiaren erabileran eginiko aldaerek ere badute horrekin zerikusirik. Metafikzioa diogunean, ondorengo definizioa egiten dugu geure:

> *Metafiction* is a term given to fictional writing which self-consciously and systematically draws attention to its status as an artifact in order to pose questions about the relationship between fiction and reality. In providing a critique of their own methods of construction, such writings not only examine the fundamental structures of narrative fiction, they also explore the possible fictionality of the world outside the literary fictional text (Waugh 1984: 2).

Gainera, estilo aldetik ere metafikzioaren baliabidea agerikoagoa egiten denean, ondorengoa ere esanguratsua da, Sarrionandiaren ipuinetan maiz gertatzen den bezala, modu argiago batean azaleratzen dela ipuinaren baitako egitura metadiegetikoa eta agerikoagoa da ondorengoa: "la apuesta del escritor por una acción comunicativa capaz de incorporar un acto de construcción textual en la que se ponen en descubierto las estructuras confortantes de ese mismo texto, de modo que el lector se puede volver más activo en la tarea de la construcción del sentido" (Camarero 2004: 457).

Horrela, eta "Gaueko enkontrua" narrazioa berrartuz, bertan ematen da eraldaketarik nagusiena, *N* ataleko bi ipuin lotzen dituen aldaera topa baitezakegu. Izenburuak iragarririko Mirenen eta Mikelen gaueko enkontrua kontatzen du narrazioak, baina ipuina Miren bulegotik kalera irten aurretik hasten da eta lehenengo pasartean bere bulegokide batekin izaten du hitz-aspertu bat. Jatorrizkoan, bulegokideak "gauari buruzko gogoeta batzu" idazten diharduela esaten dio Mireni. *NG* berridatzian, ordea, "Amodio Fantasia deitzen den narrazio esperimental bat idazten ari naiz" erantzuten dio, joko literarioa abiatu eta *N* ipuin-liburuko izen bereko narrazioaren egilea bera dela iragarriz. Ipuinaren epigrafeari buruzko azalpenak ere aurreratzen dira, hain zuzen, bertsio eraberrituan gehitzen den pasarteak honela jarraitzen baitu:

> –Ondo dago –dio neskak barreka– amodioa fantasiarekin lotzea.
> Aho zabalik geratu da mutil potoloa:
> –Dena minuskulaz idatziko dut, e. e. cummingsen moduan. Hau gauari buruzko zati bat da, ez dakit sartuko dudan. Zazpietako hamar minutu falta dira erlojuan (Sarrionandia 2011: 100-101).

Hortik aurrera, aurrez esan bezala, ipuinaren gainerako pasarteetan kakotxen artean zehaztuko da pertsonaia honek idatzirikoa, eta sarritan, gainera, "idazten ari da gazte potoloa", "etxean idazten du gazte potoloak" edota "idatzi du gazte potoloak bere bakardadean" gisako akotazioak ere eransten dira kakotxen arteko pasarteen artean. Eta ipuinaren amaieran, berriro ere, *N*Geko "Amodio fantasia" narrazioaren egilea "Gaueko enkontrua" ipuineko pertsonaia intradiegetikoa dela ematen da aditzera: "(…) gauean berandu jarraitzen du mutil potoloak idazten Amodio Fantasia deitzen den erredakzio zirriborroan".

Era berean, "Amodio fantasia" ipuinean gehitzen den aldaerak ere metafikzioarekin du lotura. Ipuin hau zenbaki erromatarretan zerrendaturiko ataletan egituratzen da eta *N*en jatorrizko edizioan XL atal baditu ere, *N*Gen XL. pasartea da gehitzen dena "*Luma bat eskuan. Esan beharrik ez da usoa eta neska ez zirela izaki bera. Ez bestelakoak*" testuarekin, eta ondorioz, edizio eraberrituko narrazioak XLI pasarte ditu, jatorrizkoan baino bat gehiago. Gehitu den XL. pasarteko testuak, zuzenean garamatza XXXVII. pasartera, usapal bat balitz bezala bat-batean agertu ondoren ihes egindako emakumearen bila, usategiko sareetan usapal bat aurkitu eta askatu ondoren eskuan geratzen zaion lumari egiten baitio erreferentzia testu berriak. Zehazki, "Amodiozko fantasia" narrazioaren baitan letra etzanean idatzitako fantasiazko amodio istorioaren amaiera da gehitzen dena, kontakizunari halako aire fantasiatsuagoa erantsiz. Gogoratu, bestalde, *N*Gen berrargitalpenean jatorrizkoan ipuin honen epigrafea zen Michelek bilduriko "Eta sareak urzorik gabe miratu nituenian, harritu nintzan joan othe zen hegalik gabe airian" bertso-lerroak ezabatuak izan direla eta ezabaketa horrek eransketa honekin lotura zuzena duela.

N ataleko metafikzio mailako aldaerekin amaitzeko, "Estazioko begiradak" ipuinean gehitzen den esaldi bakarra aipatu behar da. Jatorrizkoan, balizko estazioan dagoen balizko pertsonaietako bati buruz "Poema malenkoniatsua ari da estazio honi buruz memoriaz izkiriatzen: trenen gurpilek egunero ehun aldiz zapalduriko erloju baten antzera…" esaten da eta, aldiz, *NG*ko berridazketan, esaldiaren amaieran honako akotazioa gehitzen da: "pentsatzen du, idatziko balu bezala". Eta beste behin ere, "komunikazio bikoitzaren" baliabide gisa irakurri daitezke lerrook, geltoki abandonatuan jesarririk dagoen balizko poeta izan bailiteke "Estazioko begiradak" ipuinaren balizko autore inplizitua ere.

*N*eko kontakizunen berridazketan ere gehiketak dira, jatorrizko bertsioekin alderatuz, idazleak nagusiki txertatzen dituenak. "Arima naufrago bakartiak" narrazioan, esate baterako, aldaera gutxi daude hasierako orrietan, baina ipuinak aurrera egin ahala, eta bereziki amaieran, ipuinaren patu tragiko agerikoago egiten duten hainbat xehetasun nabarmendu eta errepikatzen dira. Galerna ostean itsasontziak izandako lehendabiziko zorigaitza kontatzerakoan eta galdutako marinelen zein gauzen zerrena kapitainari ematerakoan, "Dokumentu luzea zen" esaldia eransten da berrargitalpenean. Eta ipuinaren amaieran, jatorrizkoarekin alderatuz gero, tentsioa nabarmen areagotuko duten elementuak

zehazten dira. Naufragatu ondoren noraezean iristen diren irlako txilioekin dute testu gehiketek zerikusia kasu honetan, txilioen sinbologia sakonduz iragarriko baita ipuinaren amaieran ugaltzen joango den suspense, intriga eta misterio kutsua. Jatorrizkoan txistu soinua entzuten hasten direla soilik esaten da, baina berridazketan "haizeteak teilatu hegaletan egiten duen moduko edo milaka hildakok batera egingo luketena bezalakoa" dela nabarmentzen da. Dortoken eta muskerren irlan, ipuineko ontzi-mutila erotzen hasten da eta jatorrizkoan besoetatik eta zangoetatik lotzen duten bitartean, berridazketan "ahoa tapatu zioten" ere gehitzen da. Geroago, dortoka eta musker haragia jan ondoren, "ahoa tapatu gabe utzi zioten" esaldia gehitu ondoren, txilioen iruditeria berreskuratu eta ondorengo esaldia txertatzen da pertsonaien patu tragikoaren adierazle: "Denborarekin, mutila igunenen eta dortoken txilio txistuarekin bat egiten hasi zen, arratsaldero", milaka hildakok egin antzekoa izanik, heriotzaren iragarle dena ezinbestean.

"Itzalarekin solasean" ipuinean, aldiz, elementu gutxi batzuk gehitzen dira bertsio eraberrituan, jatorrizkoan ere aditzera ematen den esamolderen bat nabarmentzeko eginiko errepikapenak, adibidez:

"Itzalarekin solasa" (2011)	"Itzalarekin solasa" (1983)
Ez zela sinesgarria izango pentsatu zuen idazleak. Itzalarekin halako solasik kontatuz gero, ez zuela inork sinetsiko. Zoratu zela pentsatuko zuela jendeak.	Idazleak pentsatu zuen itzalarekiko solasa kondatuez gero inork sinetsiko ote zeion. Zoratu zela esango zutela.
Idazlea gogaitzen ari zen silueta teatro hartaz eta, areago, ikaratzen. Beldurra sentitu zuen.	Idazlea gogaitzen ari zen silueta teatro haretaz eta, areago, ikaratzen.

Bestalde, badirudi berrargitalpenean bestelako oker txiki bat konpontzeko aukera ere baliatu dela. Izan, ere, jatorrizkoan ez dagoen "–Gainera, liburua izango duk heure zerraldoa –entzun zuen" itzalaren esaldia gehitzen da idazlearen "–Zein liburu?" galderaren aurretik. Badirudi, beraz, jatorrizko bertsioan ere egon behar zuen esaldi hori bidean gelditu zela, galderari bide ematen dion elkarrizketaren lehen zatia delako eta ipuinaren balizko amaiera aurreratu eta iragartzeaz gain, idazlearen galderak ez duelako zentzurik itzalaren esaldi hori gabe.

Azkenik, "Itzalarekin solasaren"-en amaieran itzalaren joko literarioa beste koska bat estutzen da berridazketan, jatorrizko bertsioan itzalak labana altxatzen baitu eta berrargitalpenean, aldiz, itzalak altxaturiko objektua labana ote den ere zalantzan jartzen da azkenean: "itzalak labana altxatzen zuela ohartu zen idazlea. Edo batuta? Edo luma? Molde beltz izugarri hark, horma zurian, labana izan zitekeena altxatuz eraso zion aldamenetik".

"Mezurik gabeko heriotza" narrazioan, mota askotako aldaerak aurki daitezke. Testu gehiketak direla eta, Martintxo protagonistak bere kolkorako esaten dituen ahotsaren esaldi gehiago daude *N*Gen: "Nik egiten nuen bezala", "Nire eskua ematen diot", "neurea da", "hemen bertan geratzen naiz".

Bestetik, amak ipuineko aztiari ematen dion Martintxoren buruzko deskribapenaren inguruko azalpenak ezabatu egin dira berridazketan: "sekula ez da bere kabuz mugitzen, eta haurtzaroan mintzatzen zen arren, iadanik ez du ezer esaten". Era berean, aztiari buruz ipuineko pertsonaia batek amaieran esaten duena ere ezabatu egiten da moldapenean: "Baina ez dut uste Lukukoa agota denik, ez da agota izan beharrik gauza onik ez izateko".

Bestalde, narrazioaren baitako "Isil zaitez" izenburudun pasartean, umeak biltzen diren arratseko iturriko eszena girotzeko Sarrionandiak beste gehiketa bat txertatzen du: "Jolasean eta kontu kontari egoten ziren han, ondo ilundu arte. Eguneko gainerako orduetan zeregin nekosoa zena, ur bila joatea, gazteentzat gogokoa zen ordu hartan". Gainera, azpiatal horretan genero ikuspegiaren aldetik garai berrietara moldatzeko eginiko bestelako eraldaketa bat topa dezakegu, iturri ondoan gaztetxoak ijitoez ohiturez hitz egiten ari direla, jatorrizkoan soilik gizonezkoen ikuspegia gailentzen eta kontuan hartzen den bitartean, bertsio eraberrituan ikuspuntu parekidearen aldeko hautua egiten da:

"Mezurik gabeko heriotza" (2011)	"Mezurik gabeko heriotza" (1983)
(…) buztinezko ontzi bat hartzen du gizonak ezti ardoz beterik, eta edan ondoren lurrera jaurti behar du, eta zenbat zatitan hausten den ontzia, hainbeste urtez biziko dira elkarrekin senar-ematzeak, eta gero beste bat bilatu beharko dute berriz ezkontzeko.	(…) buztinezko ontzi bat hartzen du gizonak ezti ardauz beterik eta edan ondoren lurrera jaurti behar du, eta zenbat zatitan hausten den ontzia hainbeste urtez biziko da emaztearekin, eta gero aldatu egingo du emaztea…

Aipatu narrazioan bada testu aldaketak eragindako bestelako bitxikeria bat ere. Ipuineko Martintxo eta Asun protagonistak iturrira abiatu aurretik, amak konpondutako galtza batzuk ematen dizkie baldin eta iturrian Xabiertxo badago berari itzultzeko. Iturrira iristen direlarik, jatorrizkoan Lidiak galdetzen die ea arratsaldean non izan diren, amak gatz bila eurenera bidali eta ez zeudelako etxean. Aldiz, berrargitalpenean, Lidia "amak galtzen bila" bidali duela irakur daiteke eta, beraz, jatorrizkoan gatza zena galtzak bihurtzen da berridazketan, errata baten ondorioz ziurrenik[36]. Esan bezala, galtzak Xabiertxorentzako baitziren eta aldaera gatzaren eta galtzen arteko hoskidetasunak eragindakoa litzateke horrenbestez.

"Kristalezko bihotza" ipuinean ere kontakizunaren garapenarekin lotura duten xehetasun gutxi batzuk gehitzen dira, nagusiki fraide protagonistaren deskribaketarekin ("zortzi urtetatik aurrera" monasterioan zegoela zehazten da) edota gogoetekin lotura dutenak ("Orreagara neskatoa eskutik helduta nekarrela itzultzen imajinatu nuen ene burua"; "Zer ezaguera eskasia, zer oharkabetasun gogorra izan zen haurra ez begiratzea", etab.). Era berean, jatorrizko bertsioaren hirugarren paragrafoan "deabrua" hitza bakarrik erabiltzen bada ere, berrargitalpenean errepikapena saihestu eta

[36]Erratez ari garela, *NG* liburuan badira berridazketarekin loturiko beste hainbat errata ere. Izan ere, testua eraldatu den kasu askotan puntuazio akatsak ere sartu dira, sarritan esaldiaren osteko puntua falta da (170, 235, 275, 285. orrialdetan kasu) edo bi puntuazio marka daude esaldi amaieran (306. orr.). Bestalde, 292. orrialdean jatorrizko esaldiaren zati oso bat falta, berrargitalpenean komaz amaitzen den esaldiaren osteko "beren bizilekua suntsitu eta migrazio suizidetan abituz", hain zuzen.

hainbat sinonimo aldaeren aldeko hautua egin da. Horrela "Demonioa", "Gaizkina" eta "Galtzagorria" hitzak erabiltzen dira.

Azkenik, "Marinel zaharra" narrazioaren berridazketak ere hainbat aldaera biltzen ditu. Gehiketa batzuk protagonistaren deskribaketarekin dute zerikusia ("Halakoxea da: bizar zuri, larru zimur, begi ilunekoa"); ipuinaren muina laburtzen duen kalatxoriaren eta aita-semeen arteko liskarraren azalpena, berriz, lekuz aldatzen da eta "Semearekin haserretu egin nintzen gorabehera harengatik, harrezkero ez dugu berbarik egin" gaineratzen da bertsio eraberrituan, gertakizunari garrantzia gehiago erantsiz; ipuinaren amaierako tentsioa eta patu tragikoa areagotzen diren hainbat esaldi ere gehitzen dira berrargitalpenean ("Blai eta artega daude ama eta umea"; "Hainbat bider deitzeko astia du umeak ama eta aita, ontzia portura heldu orduko"; "Biraoak eta aitarenak, aieneak eta poz deiak entzuten dira. Harlauzazko eskaileretan behera itzultzen ari gara denak. –Patroia galdu da –entzuten da").

Edonola ere, *N* ipuinetako berridazketaren ondorioz jatorrizko testuak izan dituen aldaera nagusienak aipatzeko, narrazioak kokatzen diren espazio zein denborari loturiko moldaketak nabarmendu behar dira. Horrela, "Marinel zaharra"-rekin jarraituz, ipuinaren bertsio eraberrituan ezabatu egiten da jatorrizkoan zehazten den Kantauri itsaso ondoko herrian gertatzen dela kontakizuneko istorioa. Aldiz, narratzailek marinel zaharrarekin izaten duen elkarrizketan, kontrabandoaren gaia atera aurretik, ipuina kokatzen den garaiari buruz jatorrizkoan ez zegoen zehaztapena gehitzen da: "Afrikako gerla aipatu dut, periodiko guztietako gaia da". Marinel zaharrari dagokionez, ondorengoa eransten da berridazketan: "Bihurtu du aurpegia sekula amaitzen ez den Afrikako gerla aipatzean. Urruna egiten zaio apika, edo gogaikarria, edo lotsagarria". Beraz, "Marinel zaharra" ipuineko denborari buruz jatorrizko bertsioan xehetasunik ematen ez bada ere, berrargitalpenean 1911 eta 1927. urteen artean gertatzen dela ematen da aditzera, urtez luzez iraun zuen Riffeko gerlari egiten baitzaio erreferentzia.

Jatorrizko bertsioan ere egiten zaio Afrikako gerlari aipamenik, aurrez aritu garen "Mezurik gabeko heriotza" ipuinean, hain justu. Asun Xabiertxoren etxera galtzak ematera doanean, alaba alargunarekin bizi den Gaztainatzako agureaz honakoa esaten baita: "Semeak aspaldian Ameriketara alde egin zuen eta ez zegoen aren berririk. Iloba soldaduskako adina konplitzean Afrikako gerlara eraman zuten eta berdin". Baina *N*en berridazketan, hirugarren ipuin batean ere Afrikako gerlaren oihartzuna gaineratzen da. Izan ere, "Gaueko enkontrua" narrazioan bi protagonistek ostatu hartuko duten gelan, jatorrizkoan "horman eskegirik daude soldadu baten argazki horitua eta Ama Begoinakoaren irudi bat" irakur daitekeen lekuan, bertsio berridatzian "horman eskegirik daude soldadu baten argazki horitua, Afrikako gerlakoa beharbada, eta Ama Begoñakoaren irudia" zehazten da. Jakina denez, 2010ean argitaratu zuen Sarrionandiak *Moroak gara behelaino artean?* saiakera mardula eta Afrika iparraldeko historiak saiakeraren haria eta egilearen gogoetak gidatzen dituen

neurrian, 2011ko *NG*en berridazketan ere Afrikako gerlak garrantzia bereganatzen duela esan daiteke, beste maila batean bada ere.

2.3.2.3. *Atabala eta euria*

1985. urtean kaleratu zuen Sarrionandiak bigarren narrazio liburua eta nolabait, *N* lanean abiaturiko bideari jarraitu zion, bai poetika moldeari eta baita obraren egitura zein taxuerari dagokionez: hemen ere hamar ipuin biltzen dira eta amaieran, *N*eko "Narrazioei ohar batzu" hitz-ostearekin egin bezala, "Post scriptum" izeneko gibel solasa eskaintzen da. Liburuak bildumako "Atabala eta euria" narrazioaren titulua bereganatzen du eta ipuinaren izenburuari Azkorbebeitiak (1999b: 19) eta Rodriguezek (2013: 213-214) eginiko irakurketei, beste interpretazio bat gehitu nahiko genioke. Izan ere, egilearen kontakizun guztiak *NG*etan bata bestearen atzetik jarritakoan agerikoago egiten da *Atabala eta euria*[37] izenburuko irudia jada *N*eko "Marinel zaharra" narrazioaren amaieran aipatzen dela: "Euriak, orain, atabalaren moduan, ehun atabalen moduan jotzen du leihoko kristal zabala". Horrenbestez, esan genezake, bigarren ipuin liburuko elementu asko egileak lehenbiziko lanean abiaturiko bideen jarraipen gisa uler daitezkeen heinean, titulurako baliaturiko irudiak ere *N*en izan dezakeela sorburua, nahiz eta ondoren Sarrionandiak irudi hori ere abiapuntu hartu eta narrazio beregain oso bat idatzi.

*NG*eko *AEE* atala dela eta, *N* atalean "Narrazioei ohar batzu" hitz-ostearekin egin bezalatsu, ipuinen nondik norakoak, iturriak eta eraginak, datak eta idatziak izan ziren lekuak, narrazioen inguruko bestelako erreferentzia eta xehetasunak azaltzen diren "Post scriptum" hitz-atzea kendu egin da berrargitalpenean. Bestalde, eskaintza bat gehitu da atal honetan ere eta Miquel Martí i Pol (1923-2003) idazle katalanari dedikatzen dio *NG*eko *AEE* atala. Sarrionandia idazle katalanaren zenbait poemaren itzulpenen egilea da eta *Maiatz* aldizkarian zein *Hezurrezko xirulak* (1991) poema itzulpenen bilduman eman zituen argitara.

*AEE*eko ipuinen izenburuak direla eta, Azkorbebeitiak (1999b: 19) gogoratu bezala, titulu gehienek narrazioaren lehen esaldiko hitzak bereganatzen dituzte. *NG*en berridazketan ordea, bi ipuinetako hastapen esaldiak eraldatu egin dira eta ondorioz, narrazioen izenburuek ere aldaerak izan dituzte. Gainera, bi izenbururen kasuan, jatorrizko bertsioan zuten hasierako esaldiaren hitz kopurua murriztu egin da, nolabait ipuinaren izenburuari orokortasun kutsu zabalagoa emanaz. Horrela, "Eguzkiak ortze urdinean nabegatzen" > "Eguzkiak ortze urdinean" izatera pasa da; "Hiri bazterreko edifizio batetatik" > "Hiri bazterreko eraikuntza" deitzen da orain eta, azkenik, "Ezpata hura arragoan" ipuinak > "Ezpata arragoan" darama izenburutzat.

Paratestuaren azterketarekin amaitzeko, berrargitalpeneko narrazioen epigrafeei begiratuz gero, beste hainbat aldaera txertatu direla ohar gaitezke. Hainbat aipuk izan dituzten ortografia, gramatika edota,

[37] Hemendik aurrera *AEE*.

azken batean, itzulpen-moldaketa eraberrituez gain, esanguratsuagoak dira "Hiri bazterreko eraikuntza" eta "Ezpata arragoan" ipuinen berrargitalpenean txertatu diren epigrafe aldaerak. Lehenengoaren kasuan, –"Badakit kalean inor ere ez dela mintzo nik izkiriatzen dudan bezala. Hauek neure unibertsoak dira"– aipua bere horretan mantendu da, baina jatorrizkoan Ismael Larrea Sarrionandiaren heteronimo eta fikziozko *alter ego*ari egozten bazitzaion, berridazketan "Franz Kafkak belarrira esana" zehazten da aipuaren ondotik. Horrela, epigrafe apokrifoaren jolasa muturrera eraman eta ipuinak bere duen absurduaren trazari estuago lotzen zaion testuartekotasuna aipuan bertan aitortuz. "Ezpata arragoan" narrazioan, aldiz, jatorrizko aipua baztertu eta narrazioko pertsonaiari dagokion epigrafe berri bat eransten da *N*Gen:

"Ezpata arragoan" (2011)	"Ezpata hura arragoan" (1985)
"Parodia egitea erraza da, ezin da errazagoa izan. Tristea ere bada. Ia eginda aurkitzen da." Fool bufoia	"*Acoree*: ehizan harrapaturiko animaliari bihotza erauzi ohi zitzaion; amodioan, *bihotz gabea* zen amorantearen galdeari amore ematen ez ziona; amorantea, orduan, bihotz gabeturik geratzen zen, berak maite zuenak bera maite ez zuelako" Etude sur le Roman Breton

Ipuineko testu egituraketari erreparatuz, *AEE*ko narrazioetan ere *N* atalean aipatu ditugun estilistika gisako eraldaketa asko egiten dira, hots, esaldi, paragrafo, paragrafo arteko hutsarte eta elkarrizketen antolaketak asko aldatu dira. Berridazketan, gehiketak eta eransketak dira nagusitzen direnak, bai ipuin jakinetako tentsio uneak nabarmentzeko, metafikzio elementuak agerian jartzeko edota bestelako xehetasunak azaleratzeko.

Metafikzioari dagokionez, "Hondartzan zure pausoak" ipuinean ageri dira aldaera nagusienak. Jatorrizko kontakizuna paragrafo laburreko 61 pasartek osatzen dute, baina berridazketan, *N*eko "Amodio fantasia"-n egin bezala, paragrafoa berri bat gehitzen da eta ondorioz, 62 pasarte ditu ipuinak berrargitalpenean. Hamargarren paragrafoa da gehitzen dena eta honela dio: "Ez naiz kontatu nahi dudana kontatzeko gauza oraindik. Horregatik pasatu dira bederatzi uhin eta ia ez naiz hasi. Horregatik emango diet hogeita hamaika uhini zehar esanetan pasoa". Beraz, modu esplizituan ematen da aditzera paragrafo bakoitza uhin bat dela, lehendabizi iragan diren paragrafoak aipatu eta ondotik, etorriko diren uhinei erreferentzia eginaz[38]. Gainera, ipuinean zehar gehitzen diren beste esaldietan ere erantsitako elementuek ipuinaren barne-mekanismoekin dute zerikusia: "Neure semearen historia da kontatu gura dudana", "Datorren uhinetik hurrengoa iragandakoan bezala" edota "semearen aita aipatu behar dut lehenengo" adibideetan bezala.

[38] Edonola ere, arraroa da pasoa "hogeita hamaika" uhini ematea, hamargarren paragrafo-uhin horren ondotik izatez berrogeita hamaika uhin baitatoz narrazioan. Errata bat da, akaso?

Bestalde, aipu metaliterarioak direla eta, "Ezpata arragoan"-en berridazketan jatorrizkoan ez dauden idazleen izenak gaineratzen dira. Horrela, ipuinaren protagonista ere baden Arthur erregearen kronisten inguruan jatorrizkoan zerrendaturiko "Galfridus Monemutensis, Chretien de Troyes, Thomas Malory" izenei, "Mark Twain, Alvaro Cunquiero…" gehitzen dizkie Sarrionandiak bertsio eraberrituan.

Aldiz, "Orduan ere ez nuen euskarririk" eta "Hemen ez dago udaberririk" narrazioetako aldaerek ipuineko tentsio uneekin dute lotura. Lehendabizikoan, taberna batera bere bila datozen poliziengandik Ismael Larrea protagonistak nola ihes egiten duen kontatzen da. Ipuin honetako lehenengo gehiketa ere metanarratiboa da: "Mundu guztiak dauka esatekoa, baina zer kontatu eta nola asmatu behar da. Astiro errazagoa da"[39]. Gainerakoan, kontakizuna korapilatzen hasten denean, testu gehiketek ere tentsio giroa ugaltzen laguntzen dute: "zer egin ez nekiela", "Estura larrietan, ez dakit normala den", "Ezin nion Josemariri ezer esan", "Inoren argia eta inoren helbideak euripean kristalaren bestaldean: oroitzapenak ere ez nizkion buruari eman nahi". Bukaeran, bere bila etorririko poliziak despistatzea lortzen duenean, "Alde egin behar diat hemendik albait arinen" eransten da tabernariari ematen dion erantzunean. Amaieran, gainera, ironia edo umore belzdun ateraldi bat ere gaineratzen da berridazketan, bere izaera errariaren inguruan gogoeta egin ostean, iheslaria amorratu edo penatu egiten baita "Eta Josemarik zer eta alferra deitu ninduen" gogora ekartzean. Izan ere, tabernaria zerbait arraroa gertatzen ari zela jabetu izana berridazketarako moldatu diren hitz hauekin azaltzen da aurrez: "–Hi haizen alferrarekin, barman lanean ikusi haudanean berehala ezkutatu nauk hemen". Bigarrengoan, "Hemen ez dago udaberririk" narrazioan, aldiz, hiru presoren kartzelako ihesa hiru aldiz eta hiru modu onirikotan kontatzen da. Bada, berridazketan ihesbidearen prestaketa eta ihes uneak ere tentsioz kargatuko dira intriga areagotuz.

"Soldadu ipuina" narrazioan denbora luzez gerran diharduten eta etsaiaren mehatxupean lubakietan ezkutatuta dauden soldaduen azken erasoaren aurreko uneak kontatzen dira. Berridazketako eraldaketen eta gaineratutako testuen bidez soldaduek bizi duten etsipen egoera tamalgarria da bereziki nabarmentzen dena. Ipuina sei ataletan banatzen da eta bigarren zein hirugarren pasarteetan, adibidez, narratzailearen ahotsean esplizituki gehitzen diren azalpenei ("Hala ere, kontrarioa entzuten zen edonon, hemen baino hobeto han. Ez zen gizarorik inon", "Lubakietako bizimodua latza zen"), elkarrizketen bidez gehiturikoak gaineratzen zaizkie: "–Eguraldi txakurra gaur ere!"; "–Behiaren bosgarren txahala bezalakoak gara"; "–Guk bat galdu dugu, baina badaezpadako bat"; "–Hildakoak lurrera, biziak ere zerurako ezer gabe bueltatuko gaituk", "–Soka beretik zintzilik gaude denok. –Itxuragabea da diozuna. (…) –Ez denik ez dut esan". Horrenbestez, soldaduen ahotsa da berridazketan nabarmentzen dena eta amaierako erasoaren aurrekariak modu zuzenagoan ematen dira aditzera.

[39] Kontuan izan behar da ipuinaren une jakin batean istorioaren bi garapen posibleak kontatzen direla, lehenengo aukeran protagonistaren heriotza narratuz eta ondoren, azalpen metafikzional baten ondotik, bestelako bilakaera izaten duela istorioak.

Jatorrizko bertsioan hirugarren pertsonaren bidezko narratzailearen kontakizunak gidatzen du ipuina, nahiz eta hirugarren ataleko une zehatz batean lehenengo pertsona singularraren eta pluralaren erabilera ere agertzen den: "esan zidan lagunak gaueko sua amatatzen ari ginela" eta "urteak ziren kapitainak aurrera eginen genuela lehenengoz esan zuenetik" esaldiek erakusten dutenez. Aldiz, berrargitalpeneko bertsioan, jatorrizko adibide bakar horiez gain, 1. pertsona pluraleko forma gehiago agertzen dira narrazioaren amaieran. Horrela, "Gauez, soldaduak hilargiari begira egon ziren, esperoan" > "Gauez, ilargiari begira egon ginen, esperoan" izatera pasa da berridazketan; "testiguetaz ohartu gabe" > "gure armadaz ohartu gabe" bilakatu da eta, azkenik, "Biharamun arratsaldean igo ginen" zehaztuko da, 3. pertsonaren eta 1. pertsona pluralaren arteko narratzailearen jauziak ugarituz.

"Hiri bazterreko eraikuntza"-n sisteman erabat sinetsita dagoen 613. funtzionarioaren ibilerak kontatzen dira. Aterik eta leihorik gabeko zementu hutsezko eraikin batetatik oihuak entzuten direla eta, bertara bidaltzen dute ikertzera eta hala-moduzko dedukzio enpirikoez lagunduta, hainbat hipotesi planteatuko ditu oihuen jatorria argitzeko. Esan bezala, sisteman erabat sinesten duen funtzionarioa izanik, nekez ulertu ahal izango ditu arrazoi enpirikoetatik harago doazen ipuineko gertakizunak eta berridazketan egin diren moldaketek ere jarrera hori agerikoago egiteko balio dutela esan daiteke. Horrela, lehenengo aldiz eraikinera hurbiltzen denean, "(…) zalantza bat balu bezala. Arrimatzeaz aldez aurretik damuturik, esan gabe doa. Testigurik ezak bakarrik egiten zuen zilegi egiten ari zena" bezalako esaldiak gehitzen dira bertsio eraberrituan. Ondoren, funtzionarioa erakin barrura amiltzen denean ere, ez du onartuko sisteman akatsik egon daitekeenik eta berridazketan areago, sistemak akatsik izatekotan, "akatsen soluzioa ere planifikaturik dago" esaldia gaineratzen baita. Azkenean, 614. funtzionarioa bidaltzen dute 613.ak argitu gabeko kasua aztertzera eta 613. funtzionarioak eraikin barrutik etorri berriaren hitzak aditzen dituenean bere hasierako hipotesi enpirikoak berregiten, errealitateari bizkarra ematen jarraituko du. Jarrera hori da, hain zuzen, berridazketako azken pasarteetan gehitu diren esaldiek ere nabarmentzen dutena: "Zuzen zebilen eta ez zebilen bide horretan bakarrik" eta "–Oihu hori ilusio kolektiboa da izatekotan". Izan ere, eta aldaerek are nabarmenago erakusten dute Azkorbebeitiak gaztigaturiko ipuinaren atzeko salaketa eta kritika (1999b: 40).

Bi multzotan sailka daitezke, aldiz, "Anderea eta inkuboa" narrazioko gehiketak. Batetik, jatorrizkoan kontakizunaren garaiari buruz argibiderik ematen ez bada ere, bertsio berrian gerraondoan kokatzen dira ipuineko gertakizunak. Erabateko zehaztasunik ez da ematen baina ipuinaren hasieran "Gerlaondoa ez zen zoriontsua ia inorentzat izango" aipatzen da eta aurrerago, berriro heltzen zaio kontuari: "Militarrek irabazia zuten gerla aspaldian, erlijioaren, diruaren eta familiaren alde. Gerlaondoa luzea zen, eta jakina ez ziola zorion handirik ia inori ekarriko". Bestetik, argumentuari loturiko xehetasun nahikotxo eransten dira berridazketan, jatorrizkoan aipatu ere egiten ez den loteriaren bidez lorturiko bainuontziari buruzkoak bereziki. Izan ere, ipuinak senarraren utzikeriak bultzatuta ibaira bainatzera doan emakumearen eta ibaian inkubo ikusezinarekin izaten dituen

harremanak ditu kontagai. Senarrak, ordea, ibairaino jarraituko dio halako batean maitaleren batekin elkartzen denaren susmoak hartuta eta deabrua ikusten ez badu ere, emazteari bainuontzi bat oparituko diola zin egiten dio, ibaira itzuli ez dadin. Horrela, jatorrizko bertsioan deabrua iturgindegira joan eta erositako bainuontziari esker ibaiko dama non bizi den asmatzen duela kontatzen da. Aldiz, berridazketan, bainuontzia nola eskuratzen duten ere adierazten da. Lehendabizi "loteria ilunen bateko saria zen, ez zen nondik zetorren egundo argitu" esaldia gehitzen da. Beranduago, ordea, iturgindegiko pasartea mantentzen bada ere, jatorrizkoan ematen ez diren xehetasun guztiarekin kontatzen da loteriaren kontua eta deabruak azpijoko horretan duen parte-hartzea:

> Gero, paperak faltsifikatzea ez zen zaila izan. Fruta dendako kutxatik hartu zuen dirua, loteria bat asmatu zuen, sarituarentzako zorionak bidali zizkion fruta saltzaileari, enkargurako paperak bete zituen iturgindegian, eta aurrera. Iturgindegiko banatzaile moduan egin zuen azken bidaia, bainuontzian eserita, banatua izan zen (Sarrionandia 2011: 226)

Are, loteriaren kontuarekin senarra gehiago engainatu izana nabarmentzen da, senarraren ondorengo gogoeta ere gehitzen baita berridazketan: "Loterien justiziaz mintzatuko zen ilunabar hartan, gauzak publikoki esateko eskubiderik balitz. Bizimodua ez zen erraza izango, baina sistema ekonomikoa eta politikoa, ezinbestekoa izateaz gain, onuragarria zela frogatzen zen loterietan". Azkenik, anderearen eta inkuboaren amaierako sexu eszenak ere esplizituago egin eta inkubo ikusezinaren eta "benetako gizon gorputzarekiko konparazioa" egiten saiatzen bada ere, ez du lortuko. Bukaeran, gainera, emakumearen eta inkuboaren arteko harremanaren zein ipuinaren muina laburbildu dezakeen esaldia gaineratzen da bertsio berrituan: "Munduak ez zuen eremediorik, bestearen ez izatea abantail ederra zen".

AEE atalaren berridazketaren azterketarekin amaitzeko, "Atabala eta euria" eta "Antzerki zaharren bateko pertsonaia" narrazioetan eginiko eraldaketak askozaz ere murritzagoak eta xumeagoak izan dira. "Atabala eta euria" ipuinean atabalaren onomatopeiak ("*bam*, *bam*, *bam*"), amonak umeari ematen dion agindua esplizitu egitea ("zu hementxe egon"), umeak amonari deitzen dioneko "amama" hitzaren errepikapenak eta, era berean, amonak larrituta umeari deitzen dion "ume, ume, ume" errepikapenak aipatu behar dira gehiketa esanguratsu gisa. "Antzerki zaharren bateko pertsonaia" azken narrazioan, bestalde, kenketa deigarri bat nabarmendu behar da, jatorrizko bertsioan Klitemnestra zain dagoela esaten denean eta ez dakienean nor etorriko den, "Agamenon ez, Egisto ala Orestes" zehazten baita; baina esaldi hori ezabatu egin da berridazketan, eta ondorioz, ipuinaren bertsio eraberrituan Agamenon ez da aipatu ere egiten.

2.3.2.4. *Ifar aldeko orduak*

Sarrionandiaren *Ifar aldeko orduak*[40] jatorrizko narrazio liburuak 1990. urtean ikusi zuen argia. Honakoan ere hamar ipuin bildu zituen, ordura arte landuriko bideari jarraituz baina bestetik, tonu errealistagoa bereganatuz (Uribe 1997; Azkorbebeitia 1999b; Rodriguez 2013). Hirugarren ipuin bilduman, gainera, ez du narrazioen inguruko azalpenak gaineratzeko hitz-atzerik gehitzen, *N*en edo *AEE*n egin bezala. Dena dela, *IAO* liburuko "Oroimena eta desira" azken narrazioan, Martin Lezeta idazle apokrifoaren izen bereko liburuko hamar ipuinen erreseina biltzen da eta Rodriguezek iradokitakoari men eginez:

> esan beharra dago 'Oroimena eta desira' azken narrazioak nolabaiteko gibel-solas lana betetzen duela (…), esan liteke, hitzatze ez den narrazio honi orain arteko bere liburuen hitz-atzeek bete duten funtzioa esleitu diola, alegia idazlearen egoera bitalaren zein idazlearen poetikaren arrastoak luzatzea irakurleak testua determinatu dezan (2013: 235).

Azkenik, *IAO* narrazio bildumak "Josu Muguruza gogoan" eskaintza darama eta *N*Geko *IAO* atala ere "Josu Muguruzari" eskaintzen zaio eta, *AEE* atalean ez bezala, jatorrizko narrazioen izenburuek ez dute aldaketarik jasan.

Bi bertsioetako epigrafeak erkatzen baditugu, bi ipuinetako aipuak eraldatu egin dira berridazketan. Batetik, "Oroitzera eseri" ipuinaren jatorrizko bertsioak Beñat Goihenetxe *Matalas*-en exekuzioaren berria biltzen duen "Mauleko XI. Kronika" eta "…bizia Xiberuarendako ematen beitut, agian agian, egün batez…" kanta herrikoiaren bertso-lerroak ditu aiputzat; baina *N*Geko bertsioan kanta herrikoaren epigrafea ezabatu egin da. Bestetik, "Ifar aldeko nasa" narrazioaren jatorrizko bertsioan Albert Camusen "Bizitzea sekula ere ez da erraza eta…" epigrafea badago ere, bertsio eraberrituan ez da aipu hori mantendu. Horren ordez, Lou Reed-en 1992ko *Magic and Loss* diskoko "What's Good - The Thesis" abestiko "Bizitza, sanskritoa da poni bati irakurria" bertso-lerroa txertatu da[41]. Bi aipu horietan bizitza eta bizitzearen inguruko hitzak aipatzen badira ere, "Ipar aldeko nasa" ipuinaren bertsio berridatzian bada pasarte bat epigrafe berriarekin lotura zuzena duena eta, hein batean, aipu berriaren zergatia ere azalduko lukeena: "Telebistako pantailari begiratu diot. Berriemailea serio mintzo zait, nonbaitetik irakurtzen du beharbada. Bizitza ere halakoa iruditzen zait egunotan, norvegierazko zerbait" (Sarrionandia 2011: 289). Horrenbestez, Sarrionandiaren hiru narrazio bildumen artean *IAO* bazen, epigrafeak aintzat hartuta, "egiletzarik apalena" eta "kultismotik erabat urrun"-tzen zena (Rodriguez 2013: 236-237), *N*Gen kasuan baieztapen hori muturreraino eramaten da, Albert Camus idazle unibertsalaren erreferentzia Lou Reeden aipu bategatik aldatzerakoan.

[40] Hemendik aurrera *IAO*.

[41] Deigarria da, era berean, aipu horrek "Mezurik gabeko heriotza" narrazioko William Shakespearen epigrafearekin duen antzekotasuna: "Bizitza, idiota batek kontaturiko ipuina da". Antzekotasunak antzekotasun, batean kontalariaren profila nabarmentzen da (idiotarena) eta bestean, aldiz, entzulearena (poniarena).

Bildumako ipuinetako testuak hainbat eraldaketa izan ditu eta, esaldi zein paragrafo antolaketa edota hiztegi eta hizkuntza mailako aldaketak alde batera utzita, berridazketa kasu honetan ere gehiketak dira nagusitzen direnak. Zenbait ipuinetan aldaketak oso urriak dira ("Aio aioma", "Haurrak pintaturiko paisaia"), baina beste hainbat ipuinetan mota askotako eraldaketa esanguratsuak gaineratu dira ("Ukabilka", "Iparraldeko nasa", "Oroimena eta desira").

Horrela, "Aio aioma" aurreneko narrazioan gaineratzen den elementu nagusia narratzaile protagonistaren adina argitzen den guardien eta aitonaren elkarrizketa zatia, ("–Zenbat urte ditu mutikoak? –galdetu zioten aitaitari. –Zortzi bete berri –esan zuen aitaitak"), aurrerago egiten den guardien deskribapenarekin batera ("euren uniforme ilunekin eta euren armekin").

"Haurrak pintaturiko paisaia" narrazioan ere xehetasun gutxi batzuk eransten dira bertsio berrian. Batetik, jatorrizkoan ematen ez diren zenbait datu ditugu, leku izen edota pertsona izenekin loturikoak: esaterako, Durangora "Oiztik behera" zihoazela argitzen da hasieran eta bestalde, Garaiolako Martin auzoaren bigarren semearen izena, kartzelan dagoenarena, "Jabi" dela zehazten da. Bestetik, hamaika urtez bisitatu gabe egonagatik, protagonista-narratzaileak deskribatuko duen inguruari eta baserri zaharrari buruz ere hainbat pasarte gaineratzen dira, paisaiaren aldaketa aditzera emateko: adibidez, 1968an autobidea egiten hasi zirela adierazi ondoren, "paraje haren erdi-erditik pasatu behar zuen autobideak. Gobernuak, progresoak eta halabeharrak agintzen zuen eta lur neurtzaileak hasi ziren agertzen, laster agertuko ziren hondeamakinak eta kamioi handiak" gaineratzen da. Apur bat beranduago, protagonista jada baserrian sartzen denean, "gontzek eman zidaten ongietorria. Nik imajinatzen nuena baino askozaz txikiagoa zen barrua. Aitaitaren arotz-zakua zegoen bazterrean, erreminta zahar batzuekin. Ezkerreko atea zabalik zegoen" edota "Antzinako kalendario bat zegoen horman. Hautsa harturik zegoen dena, umetako neure ezkaratz garbian. Umetan hogei pauso ematen banituen, orain ez nituen lau pauso izango horma batetik bestera" bezalako inpresioak dira eransten diren pasarteak.

Pertsonen deskribapenak ere sakontasun gehiagorekin ematen dira berridazketan. Asun auzokoari buruz, adibidez, lehendabizi "lodiago eta zaharrago zegoen" gaineratzen da eta jarraian, "Harriduraren eta barrearen artetik begiratzen zidan, nik zutundu eta hautsa gainetik astintzen nuen artean. Harrituta eta irribarrez nengoen ni ere". Euren arteko elkarrizketan ere gehitzen da esaldirik, baina halere, auzoan bizi den erretiraturiko Guardia Zibil sarjentuaren inguruko datuak eta berarekin izaniko enkontrua da gehien eraldatzen dena berridazketan. Asunek esango dio sarjentua bertan geratu dela, "Salamancara bueltatu gura ez" duelako, eta azkenean, sarjentuaren aipamenak narratzaileari eragindako erreakzioari entzungor ("Nik ez dakit hemengo historiarik, joan egin behar dut"), sarjentua aurkeztuko dio. Eta elkarri eskua emandakoan, sarjentuaren aieru edo susmo txarra aditzera eman dezakeen ondorengo pasartea da gehitzen dena: "Baina begirakunea bestelakoa zuen. Errezeloz begiratu zidan hasieran, Asunek hantxe bertan jaioa nintzela esan eta nire presentziaren

arrazoia onartu zuen arte". Bukaeran, sarjentuaren etxeko Star pistola ikusi, beste hitz-aspertu bat izan eta, Asunek etxekoez galdetu ondoren, hauek dira bertsio eraberrituko bere azken hitzak: "Baletoz jaietan! Ja ez da mezarik, ez txapligurik ez ezer egiten, baina gure egunak dira sanantolinak, eta hemen egongo gara!".

"Hamar liburuak" ipuinean, aldiz, kontu gehiago eraldatzen badira ere, nagusiki polizien eta kartzela funtzionarioaren eta presoaren hartu-emanaren inguruko xehetasunak dira berridazketan aletzen direnak. Lehenik eta behin, jatorrizkoan ez bezala, gaztelera agertzen da poliziaren aurreneko solasean, "Hay más de diez, evidentemente", presoak ziegan dituen liburu kopurua aintzat hartuta. Hortik aurrera, izenburuko hamar liburuak eta ondorengoak bertsio eraberrituan aipatzerakoan, poliziaren ahotsa txertatuko da liburuen zenbaketa edo errekuentoaren berri ematerakoan (uno, dos, tres, eta horrela hamarrera iritsi arte), bai eta bestelako iruzkin laburrik ere ("mira eso", "ni puta idea", "hau seguru marikonada bat dela, esan zuen, pilora jaurtitzen zuela"). Bertsio eraberrituaren hasieran, ziegako miaketaren tentsioa ugaritzeko beharbada, komuneko baldosak mailu batekin tentuz arakatzen dituen funtzionarioaren "tok, tok, tok, entzuten ziren kolpeak" ere zehazten da, baita liburuen zenbaketa hasitakoan "tok, tok, tok entzuten zen ozen" errepikatu ere, miaketaren eta ipuinaren *in crescendo* tonua areagotuz. Hori dela eta, polizien ironia ateraldi eta txantxak ("eskuzabalak izango zirela") areagotu egiten dira amaieran, idatziriko paperak konfiskatutakoan kasu, eta bestalde, presoaren babesgabe egoera ere bereziki nabarmentzen da bertsio eraberrituaren bukaeran ("Biluzik zegoen, funtzionarioaren eta hiru polizien aurrez aurre, tente", "Hotza sentitu zuen lehenengoz", "Hotzez dardarka zegoen, nekaturik, gogaiturik. Bakarrik eta biluzik, pospolorik ere ez zuen".

"Gerla historia" ipuinean, aldiz, ipuinean kontatzen den gertakizunarekin lotura duten pare bat pasarte berridazketan zehatzago azaltzen badira ere, bereziki aitona kontalariaren eta ume entzulearen arteko erreakzioak dira xehetasunez gaineratzen direnak. Une jakin batean, mutikoa barrezka hasten da, eta aitonari "Zer tragikoak eta zer enbidiosoak zineten, aitaita!" leporatzen dio berridatzitako bertsioan. Jarraian, aitonak jatorrizkoan ez dagoen gogoeta egingo du berekiko: "Ez daki aitaitak umeak konprenituko duen, umetzat du oraindik, besaulkian Biologia liburua eskubaloikoek baloia bezala sostengatzen duela. Nolanahi ere, kontatzen segitu du". Amaieran, jatorrizkoan dagoen "Oraingo gazteek ez dakizue sasoi zaharren gauza handirik" esaldia honela moldatzen da berridazketan: "Oraingo gazteek ez dakizue zer pasatu den zuek baino lehenago". Eta ondoren, jatorrizkoan ez dagoen beste esaldi honekin errematatzen du aurrez hasitako gogoeta: "Ia dena pasatu da zuek baino lehenago. Ia dena pasatu da gu baino lehenago". Agurea, ordea, bakarrik mintzo da, eta soilik ipuinaren amaieran jabetuko da kontakizuna bukatzerako mutikoak lo hartu duela besaulkian.

"Oroitzera eseri" ipuinean hizkuntza hautuak dira bereziki moldatzen direnak. Jatorrizko ipuinaren bigarren atalean, adibidez, erdi biarnesez eta erdi euskaraz mintzo den soldadu bat ageri da baina berridazketan, biarnesaren erabilera murriztu eta gainerakoan, euskaraz azaltzen dira soldaduak esandakoak. Bestalde, zehar estilora eraldatu dira jatorrizkoan elkarrizketa bidez estilo zuzenean bilduriko atal honetako hainbat esaldi, eta aldaketa horrekin batera, zuberera kutsuko hizkera formak euskara batuan jarri dira berridazketan, /ü/ grafiaren erabilera baztertuta. Horixe bera gertatzen da IV. eta V. ataleko elkarrizketetan ere.

Azkenik, amaierako eszenako aldaketa aipatu behar da. Jatorrizkoan, herrialdeko jendeak lo hartu ondoren ametsaren bidetik ekiten zaio azken gogoetak harilkatzeari. Berridatziriko bertsioan, ordea, elkarrizketako "berandu duk" azken arrapostuari heldu eta ipuinaren muina argitzen lagun dezakeen iragana, etorkizuna eta oraina nahasten dituen bestelako gogoeta bat gaineratzen da azken irudien aurretik:

> Goiz zen, hala ere. Ez zen iraganik ez etorkizunik, oraina baizik ez zen munduan, eta inork ere ez zekien orainarekin zer egin, hau da, elkarrekin zer egin. Herrialdean zehar alde batetik bestera eskutik helduta zebiltzan agurea eta umea gero eta ikusezinago, ezezagunago, konprenigaitzago bihurtuko ziren (Sarrionandia 2011: 285).

"Disiecti membra poetae" narrazioan ere azken eszenan datza aldaketarik nabarmenena. Aldaketak, elurraren iruditeriarekin du zerikusia eta esan daiteke, berridazketan, are gehiago kargatzen eta markatzen dela elurraren eta berotasunaren sinbologia. Izan ere, lehenik eta behin, jatorrizkoan behin bakarrik agertzen den "Elur guzti hori berorren baitan besterik ez dago esan zion Joanak. Eta agian bai, etenik gabe ari zuen elurra bere baitan, jelatu zuri, ezabaezin" pasartea ia bere horretan errepikatzen da berridazketako azken eszenan, letania gisa, protagonistak "elurra jausten sentitu zuen bere baitan emaro sotana erantzi, atorra erantzi, oinetakoak erantzi zituelarik" zehaztu ondotik. Eta horren harira, berridatzitako bertsioa jatorrizkoa baino modu sotilagoan amaitzen dela ikus daiteke:

"Disiecti membra poetae" (2011)	"Disiecti membra poetae" (1990)
Elurra mara-mara ari zuela esan zuen poeta zaharrak maindirepera sartzean, mundua elurpean geratzen ari zela. Tuntuna, esan zion andereak barreka, berorren barruan bai egiten duela edozer. Gizonaren esku zuri artega hartu eta bere bular sendo epeletara ekarri zuen. Hotza egiten du gauez, besterik gabe. Urtuko dugu baina, berorren elur hori.	Poeta zaharrak, maindirepera sartzean, elurra mara mara ari zela esan zuen, mundua elurpean geratzen ari zela. Inozoa erantzun zion andreak, eta gizonaren esku zuri eta artega hartu eta bere bular sendo epeletara ekarri zuen. Ene hatzamarrak epeldu eta berpiztu egiten dira zure titiak laztantzez. Eta zer laket zaidan gero ene eskua hartu eta, horrela, zure soin biluzian behera sabelpera eramaten didazularik.

"Ukabilka" da *IAO* ipuin bildumako laburrenetakoa da eta halere, narrazio honek izan ditu eraldaketa gehien. Oraingoan, ipuin osoa goitik behera berrantolatuta eta berridatzita dago, agian liburua atera zen garaiko kritikek eraginda (Jimenez 1990; Landa 1990). Jatorrizko kontakizuna ez da paragrafotan

banatzen eta, aldiz, bertsio berridatzia 18 paragrafotan antolatua dago. Eta nahiz eta jatorrizko testuan jada baziren bertsio eraberrituan txertatuko diren testu pasarte ia denak, berridazketan esaldien eta pasarteen antolaketa zeharo aldatu da. Gainera, hainbat paragrafo gehitzearen ondorioz, bertsio eraberritua jatorrizkoak baino orrialde inguru luzeagoa da. Esan bezala, kontakizunaren ordenari dagokionez ere eraldaketak sartzen ditu Sarrionandiak. Jatorrizko ipuinak *in media res* gisako hasiera dauka, eta narrazioak aurrera egin ahala, analepsi bidez jazotzen da borroka unearen hasiera. Berridazketan analepsi hori hasierara eraman da eta, beraz, esan daiteke konta-teknika linealagoaren aldeko hautua egin dela. Osterantzean, jatorrizko testuan zeuden pasarteak nahieran egokitu ditu egileak bertsio berrian, hastapen bertsioan ipuinaren hirugarren orrialdean zegoen eszena lehendabizikora ekarriz edota jatorrizkoan bigarren orrialdean zegoen esaldia orain amaieran kokatuz. Horrela, ipuin berridatzia jatorrizko testu osoaren berregituraketaren emaitza da.

"Ipar aldeko nasa" narrazioan, aurrez aipaturiko epigrafearen eraldaketaz gain, badira bestelako aldaketak ere. Lehenik eta behin, Ismael Larrea protagonistaren eta Anaren arteko solasean, lemming arratoien inguruko azalpen luzean hain zuzen, jatorrizkoan ez zeuden hainbat komentarioa txertatzen dira:

> Zure hainbesteko zientifikotasunak arraildurak ditu edo halako zerbait esateko abagune laburra izan dut, baina ez dit utzi:
> –Herri mitologia da, ezta? Ugalketa hain supitua esplikatzeko kontu leloa. Afera ez da lemmingak kazkabarraren antzera jausten diren ala ez zerutik, baizik eta zergatik eta nola ugaltzen diren hainbeste eta hain bat-batean (Sarrionandia 2011: 288-289).

Baina nagusiki, Ismaelek Hanna Schygulla ikusten duenean eta kasu egitera hurbildu edo ez planteatzen hasten denean datoz gehiketa eta moldaketa nabarmenenak. Batetik, Ismaelek bere baitarako dituen gogoetak ditugu: besteak beste, "Nor zara, egingo lidakeen galdera aldez aurretik erantzuteko, esan nahi dut. Baina seguru ez zaiola nor naizen interesatzen" edota "Eta ez balitz? Susmoa ez, seguru nago Hanna Schygulla dela. Neure edozein lehengusina baino gehiagotan ikusi dut. Baina ez balitz bera? Ez dut izena zuzenean galdetuz nabarmendu nahi". Bigarrenez, behin Hannarekin hitz egitea erabaki ondorengo eraldaketak daude: "–Ez dakit –esan diot, *aidontnou*, ez nintzatekeelako ondo esplikatzeko gauza izango–". Eta bukatzeko, amaierako eszenaren berridazketa aipatu behar da. Izan ere, Hannak Ismael agurtu eta liburu-dendatik ateratzen denean, Ismaelek Hannak erosi duen liburua zen den galdetzen dio liburu-saltzaileari eta honek "Charles Elton. *Voles, mice and Lemmings*" liburua aipatzen dionean, gaizkiulertuaren berri argiago ematen duen ondorengo moldaketarekin aurkitzen gara:

"Ipar aldeko nasa" (2011)	"Ifar aldeko nasa" (1990)
Ez dut uste ondo entenditu didanik. Anak herenegun erosi zuenaz ari naizela uste ote du? Elkarrekin etorri ginen eta, orduko liburua eskatu diodala pentsatu du agian.	Hanna Schygulla edo dena delakoak erosi duena? Anak herenegun erosi zuena? Ala zein liburu erosi aholkua eskatu diodala ulertu du?

Are, bertsio eraberrituan Ismael eta saltzailearen arteko elkarrizketa bat gaineratzen da gauzak gehiago argitzeko:

> –Hau da Hanna Schygullak erosi duen liburua? –galdetu diot, agerian geratzen ari naizelako lotsaturik.
> –Zer diozu –erantzun dit ahoz zabalik, adarra jotzen ari naizen galdezka bezala.
> –Bai, Hanna Schygullak.
> –Nola jakingo dut nik Hanna Schygullak zer liburu erosi duen! –bota du, ergela deituz bezala
> (ibid.: 296)

"Amorante ausarta" narrazioan, berriro ere ziklo arturikoko elementuez baliatuz, Merzlin eta Enareren arteko harremana da kontatzen dena. Merzlin itsuki maitemindurik dago baina Enare bereganatzeko ez du modurik aurkitzen. Protagonistaren nahigabea eta ezinegona azaleratzeko, ipuinaren hasieran bi zentinelek Merzlin ikusi eta hartaz hitz egiten dute, "sena galdu omen" duela eta gauero erdi galduta ibiltzen dela aipatuz. Jatorrizko bertsioan, labur bada ere, gehiegi jakiteak ekar ditzakeen kalteez edota liburuak kaltegabeak ote diren ere planteatzen da; bertsio eraberrituan, aldiz, elkarrizketa horretan pasarte gehiago gaineratzen dira. Batetik, zentinelen ezjakintasunaren berri ematen da irakurketaren inguruko ateraldi txantxa eta umoretsu batekin eta bestetik, epigrafean jada aurreratzen den narrazioaren muina iragartzen da elkarrizketaren amaieran:

> –Zer, ergela izatea bentaja handia dela uste duk?
> –Bentaja batzuk baditik, dudarik gabe. Esaten ditek liburuak leitzen dituen jendea txoratu egiten dela denborarekin.
> –Hori demagogia hutsa duk. Liburuak guztiz kaltegabeak dituk.
> –Seguru hago?
> –Bide xuxenetik zakiat. Nik liburu bat irakurri nian orain sei edo zazpi urte eta, ondoren, berdin-berdin geratu ninduan.
> –Eta onurarik?
> –Batere ez adina!
> –Ba, ez zekiat zer den okerrago. Orduan, zertarako leitzen dituzte?
> –Badakik zerk endredatzen duen jendea? Belarrira esango diat…
> Ia ez zen entzun, gau isilean, zentinela batek besteari esandakoa:
> –Amodioak korapilatzen dik jendea. (ibid.: 308).

Beste hainbat gehiketa, moldaketa eta eraldaketarekin batera (Arturo erregeak gogorrago erantzuten dio Merzlini berridatzitako bertsioan; Josemari Iturralde zaldunarekin izandako elkarrizketan ere hainbat erantzun gehitu dira), Merzlin eta Enare Durangora joaten diren pasartea da bertsio eraberrituan moldaketa gehien jasan dituena. Horrela, Durangoz hitz egiterakoan, jatorrizkoan paragrafo bakar batean eta nahiko modu nahaspilatsuan narratzailearen ahotsean ematen diren zenbait baieztapen Merzlinen eta Enareren arteko elkarrizketan ezartzen dira bertsio berrian:

"Amorante ausarta" (2011)	"Amorante ausarta" (1990)
–*La ville* –dio Merzlinek–, Claude Lévi-Straussek esan zuenez, *la chose humaine par excellence*. –Sinfonia edo poema baten hasiera izan daiteke hori. Merzlinen lizentziatura tesia izan zen: *The city as an Artifact*, Chicago, 5981. Claude Lévi-Straussen aipu hori erabili zuen prologoan. –Edozein sinfonia eta poema bezala, hiria ere naturaren eta artifizioaren baitan dago. (…) –Baten bat ezagutzen duzu hemen? –galdetu dio Enarek aztiari. –Pedro Pablo [sic] Astarloa neure laguna zen. Baina hemendik Madrilera joan zen, lotsatuta, sifilitiko zegoela esan ziotenenan. (…) –Puta! –dio Merzlinek. –*Ipse dixit* –dio Jose Julianek, aztiaren albotik pasatzean, mutil koadrila batekin–. Goazen Lezurira.	La ville –dio Claude Lévi-Strauss antropologoak– *la chose humaine par excellence*. Ez da metaforikoa *la ville* symphonia edo poema batekin konparatzea, hiria ere natura eta artifizioaren artean dago; Merzlinen lizentziatura tesia: *The city as an Artifact*, Chicago, 5981. Pedro Pablo [sic] Astarloa sifilitikoak abandonatzen duen hiria. *Ipse dixit*, dio Jose Julianek, goazen Lezurira.

*IAO*eko ipuinen alderaketarekin amaitzeko, "Oroimena eta desira" kontakizuna aipatu behar da azkenik. Aurrez esan bezala, narrazio honetan balizko Martin Lezeta idazlearen nondik norakoak aurkeztu eta ondoren, "Oroimena eta Desira" obra apokrifoaren hamar narrazioren erreseina egiten da. Jatorrizko bertsioan, Martin Lezeta "1900 urtean eta Igorretako Libano baserrian sortu ze(la)" adierazten bada ere, bertsio eraberrituan baserriaren izena aldatu egin da eta Libanoren ordez, "Igorretako Albania"-n jaio zela zehazten da. Bitxia da aldaera hori, zeren "Haurrak pintaturiko paisaia" kontakizunean ere aipatzen da Igorretako Libano baserria; hain justu, Martin izena duen auzokidea, emaztearekin eta zazpi seme-alabekin, hara mudatzen baita behin Garaiola auzoa utzita. Horrenbestez, bertsio eraberrituan mantendu egin da kontakizun horretako Libano baserriaren izena, baina esan bezala, "Oroimena eta desira" narrazioko Martinen baserriaren izena jada ez da Libano jatorrizkoan bezala, baizik Albania[42].

Ipuinean zehar, bestalde, ez dira eraldaketa esanguratsu asko gaineratzen, baina amaieran, ordea, azken bi-hiru paragrafoetan, gehiketa nabarmenak aurki daitezke. Batetik, jatorrizko bertsioko azken aurreko paragrafoa oinarri izanik xehetasun gehiago gaineratzen dira berrargitalpenean, Martin Lezetaren "Oroimena eta desira" eta *IAO*eko "Oroimena eta desira" narrazioaren jolasa aintzat hartuta. Edonola ere, azken paragrafoak jasan du eraldaketarik nabarmenena:

[42] Atxagaren "Post tenebras spero lucem" ipuineko eskola ere Albania auzoan kokatzen da, Obabako auzunerik urrunenean.

"Oroimena eta desira" (2011)	"Oroimena eta desira" (1990)
Ia dena akabatu, jausi, birrindu edo galdu egiten da, lorratzik ere utzi gabe. Oroiminez eta gurariz topatu, bete, eraiki, osatu behar da dena behin eta berriro. Ez gara ezer, ez bada oroimenaren eta desiraren, eta pentsamenduaren, eta geuk egindakoaren ondorioa… Eta ederra da, bakardadean, atzera begiratzea, zerbait asmatu dela susmatzea, oroitzapenak edo gurariak, pentsakizunak edo zereginak. Edo, sinpleki, beste lagun batzuk dabiltzala jakitea oroitzen, desiratzen, pentsatzen, ekiten. Horixe da Martin Lezetaren libururen amaierak uzten duen inpresioa. Oroimena eta desira, liburuko azken narrazioa, hamar ipuineko beste liburu baten komentarioa da, eta aipatzen den azken ipuina bera ere, bere aldetik, hamar narraziodun beste liburu baten erreseina da. Eta amaitzen da esanez ez diren gauzak ere badirela. Pentsatu ez dena pentsa daitekeela, eta egin ez dena egin. Eta idatzi gabe bazegoen, idatzi egin behar zela.	Orduan ia dena isuri, erori, galdu egiten da. Adierazgarria da, horretaz, Martin Lezetaren Oroimena eta desira liburuko azken narrazioa hamar ipuineko beste liburu baten komentarioa delarik, aipatzen den azken ipuina bera ere hamar narraziodun beste liburu baten erreseina izatea…

Ikus daitekeenez, jatorrizko bertsioko azken paragrafoko testua mantendu bada ere, beste pasarte asko txertatu dira, "Oroimena eta desira" liburuari eta ipuinari dagokion jolas metaliterarioa oraindik eta gehiago korapilatzeko. Adibidez, bertsio eraberrituan "Eta amaitzen da esanez ez diren gauzak ere badirela" esaldia txertatu da eta horrenbestez, esaldiak ipuinaren amaierari men egiteaz batera (esaldi hori amaieran esaten baita), era berean ipuinaren hasierari ere egiten dio erreferentzia, epigrafea horixe bera delako, "Ez diren gauzak dira ederrenak". Gainera, berridazketako amaierako esaldia berrinterpretatzera eraman dezake irakurlea: ez diren gauzak badira ederrenak, idatzi ez diren gauzak ere izan behar luketelako ederrenak, baina ondorio-katearekin apurtzeko, idatzi gabe badago idatzi egin behar dela gaztigatzen digu ipuinak, are berridatzi. Hori dela eta, apokrifoen aldeko manifestu baino, asmamenaren eta fikzioaren aldeko alegoriatzat ulertu nahi genuke azken narrazioan eginiko gehiketek eransten dituzten xehetasunek eskaintzen duten irakurketa.

Izan ere, "Oroimena eta desira" narrazioaren berridazketan gehitu diren azken paragrafoko hainbat esaldik *NG*en "Atariko berridazketa"-n dute oihartzun zuzena. Horrela, badirudi hitzaurreko azken paragrafoko "Dena aldatzen eta dena borratzen da, dena isurtzen da ezerezerantz" esaldia "Oroimena eta desira" jatorrizko "Ia dena isuri, erori, eta galdu egiten da" esaldian oinarrituta dagoela. Ez alferrik, berridazketako bertsioan "topatu, bete, eraiki eta osatu" egin behar dela gaineratzen da eta hori dela eta da lasaigarria "sinpleki, beste lagun batzuk dabiltzala jakitea oroitzen, desiratzen, pentsatzen, ekiten". Hain zuzen, hitzaurrean ere esaten baita "Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria edo Koldo Izagirreren atzetik heldu ginenen eginkizuna ez zen bakartia izango (…) eta sumatzen bagenuen euskal literaturak ez zuela inork aintzat hartuko, horretan ere ez genuen asmatu". Era

berean, hitzaurreko "beste kontakizun batzuk behar dira. Aspaldian eta urruti baten batek hainbat idatzi arren, goizero hemen egiteko ditugu narrazio guztiak" azkeneko esaldiak zuzenean garamatza "Oroimena eta desira" ipuineko azken esaldira, "Eta idatzi gabe bazegoen, idatz egin behar zela". Gure aldetik, gaineratu genezake, "eta idatzita baldin badago, berregin eta berridatzi egin behar zela".

2.3.2.5. Ondorioak

Sarrionandiak *NG* ipuin bildumarako berridatziriko bertsioak aurrez argitaratu ziren aldizkari eta *N*, *AEE* eta *IAO* liburuetako jatorrizko bertsioekin alderatuta, nabaria da eraldaketa nagusiak gehiketa bidezkoak izan direla, hots, jatorrizko testua oinarri izanik hainbat testu atal erantsi direla berridazketan. Hori horrela, ipuinen banan banako konparaketa eta alderaketa zehatza egin ostean, jarraian zerrendatzen ditugun ondorio orokorrak atera daitezke:

- Aldaera nagusi eta garrantzitsuenek *NG*en paratestuarekin dute lotura. Idazlearen narrazio guztiak liburu bakar batean biltzerakoan, kronologikoki antolaturiko ataletan banatu dira narrazioak. Bildumaren hitzaurre gisa 2011ko azaroan sinaturiko "Atariko elkarrizketa" erantsi da eta atal bakoitzaren hasieran, eskaintza bat ezarri da: *Hasierak* atala Potteko lagunei eskaintzen die; *Narrazioak* atala Kandida, Martin, Esteban eta Ireneri; *Atabala eta euria* Miquel Martí i Pol-i eta azkenik, jatorrizkoan egin bezala, *Ipar aldeko orduak* Josu Muguruzari.

Bestetik, *N* eta *AEE* jatorrizko liburukietako hitz-atzeak ezabatu egin dira *NG*en, bi liburu horietako narrazioen jatorrizko bertsioen gaineko argibide, ohar, datak, sorkuntza xehetasunak edota testuarteko iturriak eta eraginak azaltzea baztertuz.

Ipuinen izenburuak mantendu egin dira, oro har, hastapen narrazioek eta *AEE*ko hainbat ipuinen izenburuk eraldaketarik jasan duten arren. Batetik, "Luigi Anselmi: Figlio di un cane" > "Figlio di cane" deitzen da edizio berrian eta "Maggie indazu kamamila"-k ez ditu jatorrizko koma eta amaierako harridura marka mantendu. *AEE*ko ipuinetako hiru narraziok ere eraldaketak izan dituzte, ipuinaren lehendabiziko esaldia aldatzearen ondorioz izenburua ere aldatu egin delako; baina baita "Hiri bazterreko edizio batetik" eta "Ortzi urdinean nabigatzen" jatorrizko ipuinetan azken hitza ezabatu egin delako ere berrargitalpeneko izenburuetan.

Edonola ere, epigrafeek erakusten dituzte aldaera gehien. Hasteko, jatorrizkoan aipurik ez zegoen narrazioetan, "Figlio de cane" eta "Itzalarekin solasean" ipuinetan hain zuen, epigrafea erantsi delako eta horrenbestez, *NG* bilduma ipuin guzti-guztiek epigrafea dute.

Aldiz, jatorrizkoan bi epigrafe zeuden narrazioetatik, horietako bat kendu egin kendu egin da. "Enperadore eroa"-ren kasuan, Li Chang Yinen aipua ezabatu da berridazketan eta "Amodio fantasia" eta "Oroitzera eseri" narrazioetan berriz, bi kasuetan jatorri herrikoia duten bertso-lerroak

baztertu egin dira. Ondorioz, *NG*eko ipuin guztiek epigrafe bakarra daramate, nahiz eta salbuespena "Mezurik gabeko heriotza" narrazio izan, ipuin horrek jatorrizkoan bezala hiru aipu baititu.

Bestetik, "Ezpata hura arragoan" eta "Ipar aldeko nasa" ipuinetan jatorrizko epigrafea aldatu egin da eta berri bat erantsi. Era berean, "Maggie indazu kamamila" ipuinaren bertsio eraberrituan *Xaguxarra* aldizkariko epigrafea baztertu eta jatorrizko ipuin lehiaketako T. S. Elioten aipua berreskuratu da. Bukatzeko, epigrafeen autoretza dela eta, jatorrizkoan "Hiri bazterreko eraikuntza"-ren aipuaren egilea Ismael Larrea bazen, epigrafeko esana oraingoan Franz Kafkak belarrira esana dela zehatzen da.

- Testuaren nolakotasun eta estilo orokorraren egiturari erreparatuz, jatorrizko esaldien taxueran eta paragrafoen banaketan aldaera asko egin dira. Mendiguren editoreak liburuaren aurkezpenean adierazitakoaren ildotik, "esaldiz esaldi estilistika dezente aldatu du eta bestetik, hizkera exotikoa naturalagoa bilatu da". Era berean, jatorrizko elkarrizketek ere aldaketa asko izan dituzte, estilo zuzenetik zehar estiloa eta alderantzira eginiko eraldaketak txertatu dira eta azkenik, baita letra etzana, kakotxen edota bestelako ortotipografia xehetasunak ere moldatu dira.

- Metaliteratura eta metafikzio eraldaketek ere aparteko berezitasun eta garrantzia bereganatzen dute berridazketan. Sarrionandiaren ipuingintzako ezaugarrietako bat ageriko metaliteratura eta metafizkio baliabideak narrazioetan txertatzea izanik, sorkuntzaren inguruko gogoetak eta bestelakoak ipuinaren baitan txertatuz kasu, *NG*eko eraldaketa interesgarrienek ere baliabide horrekin dute lotura. Gainera, ez da ahaztu behar sarritan esan izan dena, hots, ziklo arturikoko "Ginebra erregina erbestean", "Eguzkiak ortzi urdinean", "Ezpata arragoan eta "Amorante ausarta" ipuinetako unibertsoan, besteak beste, testuartekotasunean oinarrituz, "literatur tradizioa berridazten eta berregiten" duela (Azkorbebeitia 1999b: 47) eta palimpsestoaren ideia bereganatuz, idazlearen lana ez ote den berridazketara eta berresatera mugatzen. Gisa berean, Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* eta Sarrionandiaren "Marinel zaharra" narrazioa parekatuz honakoa zioen Aiora Jakak: "Esan liteke poema hartan kontatzen den istorioaren berridazketa bat dela 'Marinel zaharra'" (2012: 322). Horrela, badirudi Angel Erroren "Oro errana da, aspaldidanik. / Oro errana dela ere errana da. / Oro errana da, bada, ezinbestean. / Oro errana da, baina ez nik" poemako hitzek iradokitako bideari ekin eta Sarrionandiak zenbait ipuinetan jada idatzirik zeuden istorioak bere egin eta berridatzi egiten dituela. Eta oraingoan, berriz, jadanik berak idatzita zituen ipuinak dira berridazten dituenak eta ezin bestela izan, kasu honetan ere testuartekoatsunak eta metafizkioak leku nabarmena izango dute berridazketan.

Lehenik eta behin, jatorrizkoan elkarrekin erlazionatu gabeko bi ipuin zuzenean lotzen dira bertsioa eraberrituan, "Gaueko enkontrua" ipuineko pertsonaia bat *N*eko "Amodio fantasia" ipuina idazten ari dela adierazten baita birritan esplizituki, baita ipuinak izango duen epigrafea eta eragina aurreratu

ere. Bestetik, "Amodio fantasia" eta "Hondartzan zure pausoak" ipuinen baitako aldamio narratiboak agerikoago egin eta ipuinaren barne logika literarioa azaleratu egin da berridazketan txertaturiko gehiketekin.

Bestetik, jatorrizko ipuinaren baitan literatura unibertsaleko idazle izenak eskaintzen ziren kasuetan, edo goitik behera aldatu dira izenok, "Figlio de cane" narrazioan bezala, edo jatorrizko zerrendako izenei beste hainbat erantsi zaizkio, "Ezpata arragoan" ipuinaren kasuan bezala.

- Aldaera garrantzitsuenak eta gehieketarik nabarmenenak narrazioen amaieretan txertatu dira eskuarki. Adibidez, "Figlio di cane"-ren kasuan amaiera zirkularraren aldeko hautua egin da berridazketan. Aldiz, badirudi "Enperadore eroa" eta "Oroimena eta desira" ipuinen amaieran erantsitako testu atalek, kasu, "komunikazio bikoitz" gisako irakurketa ahalbidetzen dutela eta ipuinaz gain, berridazketaz ere aritzen ote denaren susmoa piztu digula.

- *N*Geko zenbait ipuinen berridazketan areagotu eta sakondu egin da jatorrizkoan modu sotilagoan agertzen zen irudi edo sinboloa. Horrela, "Figlio de cane"-ko "hauts arrea"-ren erreferentziak, "Enperadore eroa" narrazioko "arrosa"-ren sinbologia, "Arima naufrago bakartiak" ipuineko txilioen esanahia edota "Disecti membra poeta"-ko "elurraren" konnotazioak, besteak beste, ipuin guztira hedatzerekin batera metafora kate gisa funtzionatzen dute, esanahiz kargatu eta sinbologia aberatsagoa bereganatuz.

- Beste zenbait hizkuntza hauturen aldaera hizkera garai berrietara moldatzeko ahaleginaren ondorio dira. "Figlio di cane" edota "Maggie indazu kamamila" narrazioetan "puta" hitz neutroagoa erabiltzen da jatorrizko "emagaldu" hitz gaitzesgarriaren aldean eta "Mezurik gabeko heriotza" narrazioan ere, pertsonaiak ijitoen ohiturez mintzatzerakoan, bertsio eraberrituan ez da gizonaren ikuspegia soilik emango, baizik eta senar-emazteak aintzat hartzen diren ikuspegi parekideagoa gailenduko da.

- Bestalde, aldaera esanguratsuenen artean, narrazioen kronotopo mailako eraldaketak, ipuinen argumentuarekin eta pertsonaien karakterizaziorekin loturiko xehetasunak aipatu behar dira. Narrazio guztietako eraldaketek ez dute maila bera baina "Marinel zaharra" ipuinaren kasuan, gertakizunak jatorrizkoan aipatzen den "Kantauri kostaldeko" inguruetan kokatzen baziren, bertsio eraberrituan datu hori ezabatu egin da eta aldiz, denborari buruzkoa gehitu, esplizitu egiten baita ipuina Afrikako Riffeko gerraren garaian gertatzen dela. Ikusi dugunez, gainera, Afrikako gerraren aipamenak hiru ipuinetan aurkitzen ditugu *N* atalaren baitan. "Anderea eta inkuboa" ipuina ere "gerra ostean" kokatzen da eta bestetik, argumentuaren mailan ere hainbat xehetasun gaineratzen dira ipuineko gertakizun batzuk sinesgarritasuna bereganatu dezaten.

- Azkenik, esan bezala, ipuinen bertsio eraberrituan txertaturiko gehiketa askok eta askok pertsonaien karakterizazioaren inguruko xehetasunekin dute lotura eta horrenbestez, jatorrizkoan ematen ez diren argibide gehiago ematen dira pertsonaien izaera edo nolakotasunaren inguruan.

Beraz, ondorio zerrenda guzti hori aintzat izanik, agerikoa da aztertu ditugun berridazketa aldaerek mugimenduan dagoen testu baten berri ematen dutela. Jatorrizko testuak berridatziak izan dira eta ez soilik esaldiz esaldi, narrazioak inguratzen dituzten paratestuko elementuek ere eraldaketa asko izan dituztelako askotan, bai eta ipuinaren baitako beste hainbat elementuk ere. Ondorioz, berridazketan jatorrizko ipuinaren "espiritua" mantentzen saiatu arren, zenbait ipuin jatorrizkoarekin alderatu eta nabaria da jatorrizko bertsioak izan duen bilakaeraren erruz nekez pareka daitezkeela jatorrizkoa eta bertsio berridatzia, eta hori dela eta komenigarria dela ipuinaren bertsio ezberdinez hitz egitea, hain zuzen, berridazketa jatorrizkoaren gainean egin denez, beste idazketa aldi batean kokatzen bagara eta emaitza ere, nekez izan daiteke jatorrizkoarekin parekagarria.

Narrazio guztiak (1979-1990) izenburuak iradoki eta Sarrionandiak "Atariko berriketan" adierazi bezala, "proiektu narratibo konkretu bat osatzen zuten" narrazioak elkarrekin bildu nahi izan ditu eta agerikoa da biltze ariketa hori egiterakoan batasun kutsua ematea ere izan dela egilearen intentzioetako bat. Are, orain arte Sarrionandiaren *N*, *AEE* eta *IAO* liburuetako ipuinek "ziklo bat" (Rabelli 2011: 61) osatzen zutela esan izan bada eta "Enperadore eroak" narrazioan jada bere narraziogintzaren ezaugarri nagusiak agerian zeudela, *NG* bilduman hastapen lanak ere biltzen ditu eta ondorioz, hiru liburu bildumako narrazioei hastapen garaiko hiru ipuinak gaineratu eta irakurleari ale bakar batean berrargitaratuta eta narrazio bakoitza berridatzita eskaini zaio oraingoan.

2.3.3. Poesia lanen berridazketak, berrargitalpenak eta birmoldaketak

2.3.3.1. Izuen gordelekuetan barrena (1981), *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Izuen gordelekuetan barrena (1978-1980)* eta *Izuen gordelekuetan barrena* (2014)

2.3.3.1.1. *Izuen gordelekuetan barrena*: hastapen argitalpena (1981)

1981an argitaratu zen liburu gisa urtebete lehenago Bilbo Aurrezki-Kutxaren "VI. R.M. Azkue" saria eskuratu zuen *Izuen gordelekuetan barrena* olerki-bilduma[43]. 1981-2-15 datan Carabanchelen sinaturiko "Prologoa"-n egileak hainbat azalpen emateko beharra sentitzen du liburua argitara emateagatik, inoiz ez argitaratzearen ideiarekin jolasten baitu bertan. Horien artean artean aipatzen ditu "poemagintza literaturaren alor sagaratuena" iruditzea, bere liburuarekin alor hori profanatzearen zalantza izatea eta azkenik, "argitarazioari begira, poemagintza bera bezain garrantzitsua da liburuaren tankera eta aurkezpena, eta ezin izan ditut inprentalana eta enparauak ezertan zaindu".

[43] Aurrez aipatu bezala, 1980. urte berean beste bi sari ere lortu zituen Sarrionandiak, Arabako Diputazioaren "IX Ignacio Aldekoa" saria "Maggie, indazu kamamila" ipuinarekin eta Bilboko Udalaren "I Ciudad de Bilbao" "Enperadore eroa" narrazioarekin.

Idazlea kartzelan egonagatik, beraz, ezin izan zuen edukiaz gain, liburuaren forma ere nahi beste zaintzerik izan eta horren gabezia nabarmentzen dute hitzok. Izan ere, agian *Pott Banda*ren aldizkarien argitalpenen eraginagatik edota Atxagak *Etiopia*ren aurreneko edizioan egin bezala, argazkiak eta ilustrazioak txertatzeak, zenbait poemen grafia berezitasunek eta bestelako hainbat xehetasunek are kutsu abangoardista edota bitxiagoa ematen diotelako *Izuen gordelekuetan barrena*[44]-ren edizioari.

Era berean, poemon sorkuntza datari buruz ere argibideak ematen ditu egileak eta bilduma 1980. urtean eginiko poemek osatzen dutela zehazten du, "irailan eta urrian idatzi nuen gehiena, baina urte guzian zehar bildurikako ohar eta gogoetez". Bestalde, poema bilduma izan arren, poemarioak egituraketa zehatz bat duela adierazten da eta ondoren, poetak gidari izan dituen hainbat maisu aipatzearekin batera (Poe, Mirande, surrealistak, Brecht, Aresti), bereganaturiko poetikaren funtsezko hainbat ohar egiten ditu ondoren: "literatura oro literaturaren literatura da", "bizimodu arruntetan ere sortzen dira ideia literarioak" eta Sarrionandiaren erro literariori buruz *Pott Banda*koekin duen zorra aitortzen du.

Azken paragrafoan, behin liburua argitara ematean, "liburua amaitu da niretzat" idazten du Sarrionandiak, "argitaratu gabe, ene gordairuan geratu izan balitz, orduan, amaigabea litzateke" gaineratuz. Edonola ere, *IGB* liburua ez da publikatzerakoan amaitzen eta poemen bilakaerak jarraipena izango du ondorengo argitalpenetan, ondoren ikusiko dugunez.

Jakina denez, *IGB* poema liburuak harrera oso ona izan zuen kritikaren eta irakurleen aldetik, eta hori horrela, poemarioa berrargitaratzeko eskaintza luzatu zioten Sarrionandiari. Egileak ez zuen eskaintza onartu, ordea, eta *IGB*ren berrargitalpena ez egiteko arrazoia, 1984ko ekainaren 24an *Argia* aldizkarian argitaratu eta L. Txaho-k sinaturiko elkarrizketan[45] aurki dezakegu. Bertan, lehenengo liburuaz hauxe baitzioen Sarrionandiak: "Egia esan, sarirako egin nian liburua. Gaur egun horko poema gehienak ez ditiat estimatzen. Agortuta zagok liburua baina berriro ateratzekotan ez nitizkek berrargitaratuko horko poema batzuk besterik".

2.3.3.1.2. *Marinel zaharrak* (1987)

Horrenbestez, *Marinel zaharrak*[46] (1987) poema bilduma izan zen egileak argitara eman zuen hurrengo poema-liburua. "Irakurleentzako abisua" hitzaurrean adierazi bezala, *IGB* bere horretan berrargitaratzea baino, nahiago izan baitzuen hastapen liburuko poemetako batzuk ondoren idatziriko beste poema batzuekin batera tartekatzea. Bilduma berria, "behin behineko bilduma hau", hiru ataletan banatu zuen: "1978 eta 1980 arteko gehienak *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan argitaratu ziren; gartzelan egindako poema gehienak ineditoak dira, *Eguberri amarauna* testuan edo

[44] Hemendik aurrera*IGB*.
[45]*Linterna Gorria* aldizkarian elkarrizketatzailea Mitxel Sarasketa izan zela adierazten da: http://bbk.armiarma.eus/linterna/sarri.htm [2015/01/10ean atzitua]
[46] Hemendik aurrera *MZ*.

Susa aldizkarian emandako bateren batzu salbu; eta 1985eko udaraz geroztikoak ere ez dira egundaino argitaratu" (Sarrionandia 1987: 8).

Poemak kronologikoki antolatuta aurkezten dira, azkena idatzitakotik zaharragoetara joz eta horrela, atal bakoitza idatziak izan ziren urteen aipamenarekin zehazten da: *Tren luze eta bustiak (1985-1986)*; *Gartzelako poemak (1980-1985)* eta *Izuen gordelekuetan barrena (1978-1980)*. Poema bildumako lehenengo bi atalez aurrerago arituko gara eta jarraian, beraz, *IGB*ko liburuko hainbat poemen berrargitalpenari eta berridazketari ekingo diogu.

Izan ere, *IGB* hastapen liburuko 43 poema berreskuratzen ditu Sarrionandiak *MZ* liburuan eta aurrez, *IGB*ko hitzaurrean poemak 1980an idatziak izan zirela zehazten bazuen ere, bilduma berriko atalean 1978 eta 1980 bitartean idatziriko poemak direla argitzen da. Bi liburuetako poemak tentuz alderatuz gero, jatorrizko argitalpeneko poemek hainbat eraldaketa izan dituztela ere jabetu gaitezke. Gainera, bat gatoz Rodriguezekin berresten duenean "erreskatatua izatearen arrazoia erreskatatua ez izana bezain esanguratsuak dira, Sarrionandiaren ustez poema hori (dena delako motiboagatik, izan daitekeena estiloa, edukia…) indarrean dagoen edo ez dagoen adierazten baitu" (2011: 150).

Eraldaketa esanguratsuenen artean, lehenik eta behin, *IGB*n ez zegoen "Kristal garbitzailea" poema *MZ* liburuan gehitzen dela aipatu behar da. Eta bestetik, jatorrizkoan bazeuden "Bitakora kaiera" eta "Soldado hilaren ama" poemen bi bariazio eransten direla bilduma berrian. Aurrenekoaren kasuan, "Bidaztiak izkiriatzen du" izenburu berria jarri, epigrafe modura "beste poema baten bariazioa" dela zehaztu eta ondoren, jatorrizko "Bitakora kaiera"-ko azken ahapaldiak bere horretan biltzen dira. "Soldado hilaren ama" poema berriak jatorrizkoaren izenburu bera du, baina kasu honetan ere epigrafean zehazten da "bigarren bertsioa" dela. Oraingoan ordea, berridazketa bat da eskaintzen dena, jatorrizko poemaren edukia errespetatu arren forma aldetik askoz ere laburragoa eta trinkoagoa dena. Gainera, jatorrizkoan poemako soldaduaren izenak Charles Causley –hain zuzen jatorrizko epigrafean aipatzen den "O war is a casual mistress" bertso-lerroaren egilea– eta William direla aipatzen bada ere, *MZ* liburuan izenon ordez Michel Iriart eta Jean Larrieu izenak agertzen dira, iparraldeko jatorridun eta gerrarekin zerikusia izan zutenen benetako izenak erabiliz.

Bestalde, hainbat poemen izenburu ere moldatu egin dira *MZ* bildumarako. Orokorrean eraldaketa txikiak dira, "Hilarria" deitzen zen poema "Lagunen hilarria" izatera pasa da, kasu[47], eta jatorrizkoan izenbururik ez zuen poema "Dama zahar eta zabala" deitzen da orain, jatorrizko poemako aurreneko bertso-lerroa izenburuan errepikatuz. Aldiz, bestelako eraldaketa jasan dute jatorrizko "Alberto Caeiro-ren bisita" eta "Erin" poemen izenburuek, *MZ* bilduman "Fernando Pessoa" eta "Itsasoaren kontrako harkaitzak" deitzen baitira hurrenez hurren.

[47] Antzerako eraldaketa txikiak aurki ditzakegu ondorengo izenburuetan: "Gnomoak Alexandriara doaz" > "Gizontxoak Alexandriara doaz"; "Ahurreko marrak" > "Esku ahurreko marrak", "Iragan dira horik oro" > "Iragan egin dira", "Haurra" > "Haur sortu berria".

Poemen paratestuko eskaintzekin jarraituz, jatorrizko "Hilarria" poema "Goio.ri" eskainita bazegoen, *MZ* libururako moldaturiko "Lagunaren hilarria"-n "Goio Olabarria gogoan" zehazten da, 1980an otsailaren 1eko atentatuan hildako Durangoko etakidearen omenez idatzitako poema dela argituz. Bestalde, jatorrizko *IGB*n "Oskorriko arragoak" poema "Garaizarko itsuari" eskaintzen bazaio ere, *MZ*eko poemaren berrargitalpenean ez da eskaintza hori ageri.

Bestalde, poemen epigrafeei dagokionez, *IGB*ko "Alberto Caeiro-ren bisita" poeman "'I know what/ tomorrow will bring' erran zuen Fernando Pessoa-k hil baino egun bat lehenago" esaldia eransten da epigrafe gisa, baina *MZ*ko "Fernando Pessoa" poemarako aipua ere eraldatu egin da, Alberto Caeirok sinaturiko "Que dicil ser própio/ e não ver senão visível" bertso-lerroak ezartzen baitira epigrafe gisa. Bestetik, jatorrizko "Apirilari gorazarrea"-k epigraferik ez bazuen, *MZ*ko bertsioan poemaren intertestua epigrafera eraman eta T. S. Eliotek sinaturiko "April is the cruellest month" aipua txertatzen da.

Poemetako testuen formari erreparatu eta *MZ* liburuan berrargitaratzen diren *IGB*ko poemetan bertso-lerro ebakera, puntuazioa eta bestelako xehetasun grafikoak mantendu egin dira.

Azkenik, alderaketa poemaz poema eta hitzez hitz eginez gero, testu-eraldaketak izan badira ere, gehitu, kendu edo moldatu diren hitzak urriak direla esan daiteke. Salbuespena aurrez aipaturiko "Apirilari gorazarre" poeman aurkitzen dugu, jatorrizko poemaren bukaera ezabatu egin baita eta bestalde, *MZ* liburuan "Inork agintzen ez didalako" poema birritan dator, 101. eta 121. orrialdeetan, hain zuzen. Gainerakoan, ordea, bi poemetan bertso-lerro pare bat ezabatu da –"Hiri zaharreko denbora" edota "Oskorriko arragoak" poemetan adibidez, poemen baitako anaforak urrituz–, eta beste poemaren batean alderantziz, bertso-lerro bat gehitu da, "Lagunaren hilarria" eta "Bidaztiak izkiriatzen du" poemetan, esate baterako. Baina esan bezala, eraldaketa ohikoenek hizkuntza hautuekin zein bestelako eguneraketekin dute zerikusia eta adibidez, *N*Gen aldaeren azterketan ikusi izan dugun bezala, jatorrizko poemako "emagaldu" hitzarenaren ordez, "puta" neutroagoaren alde egingo da "Haigu" poemaren berrargitalpenean.

2.3.3.1.3. *Izuen gordelekuetan barrena*: berrargitalpena (2014)

2014. urtean, berriz, aurreneko ediziotik 33 urteren ostean, *Izuen gordelekuetan barrena* liburu osoaren berrargitalpena kaleratu zuen Pamiela argitaletxeak. "Bigarren ediziorako sartaurrea" hitzaurrean adierazi bezala, "edizio honetan idazkera oker batzuk zuzendu, orduko estiloari zegozkien iluntasun batzuk argitu eta 1981eko (…) prologoa kendu da". Jarraian ikusiko dugunez, ordea, berrargitalpenak eraldaketa gehiago ekarri ditu berekin eta 2014-IX-29an sinaturiko hitzaurreko azken hitz deigarriak interpretatuz, esan daiteke berrargitalpenak berridazketa berekin dakarrela iragartzen dela hitzotan: "Amaiera puntuaren ondoren ez dago perfekziorik, ez obra biribilik, baizik eta ezerezetik berriz eta

bestela hasi beharra. Bilaketa delako poesia, eta, gertatu ondoren, beste parte batean dagoelako" (Sarrionandia 2014: 8).

Argitalpen berriaren azaleko zein barneko kreditu orrietarako irudiak José Mari Yturralderenak dira, eta jatorrizko *IGB* liburuaren azaleko Escherren *Klimmen en dalen* ilustrazioa hitzaurrean oso tamaina txikian erreproduzitzen bada ere, esan daiteke Yturralderen marrazkiek badutela Escherren ezineko egiturekin nolabaiteko zerikusirik, azaleko irudiaren *Figura imposible* izenburuak ere iragartzen duenez. Bestalde, jatorrizkoan atal bakoitzaren amaieran kokatzen ziren gainontzeko ilustrazio gehienak biltzen dira berrargitalpenean, lekuz aldatuta, jatorrizko edizioan zeuden 55. eta 73. orrialdetako ilustrazioak baztertu egin diren arren. Edizio eraberrituan, gainera, marrazki askoren ifrentzuan ilustrazioen iturria edo bestelako xehetasunen bat gehitzen da. Era berean, berrargitalpenean jatorrizkoan ez zegoen Arcimboldoren *Il Bibliotecario* lana ere erreproduzitzen da. Azkenik, jatorrizko edizioko 127. irudiaren ordez antzeko irudia agertzen duen argazki bat erantsi da argitalpen berriko 63. orrialdean.

Bestalde, nabarmendu behar da 2014ko edizioan berrargitaratzen diren poemak 1981ko edizioan oinarriturikoak direla eta, salbuespenak salbuespen, *MZ* bildumarako eginiko aurrez aipatu ditugun aldaerak ez direla aintzat hartu *IGB*ren edizio eraberrituan. Ondorioz, izenburuei dagokionez, "Alberto Caeiro-ren bisita" berriro deituko da horrela, *MZ*eko "Fernando Pessoa" izenburua baztertuz; era berean, "Erin" poemak bere jatorrizko izena berreskuratuko du, "Itsasoaren kontrako harkaitzak" izenburua alboratuz[48]. Eskaintzen kasuan ere, *MZ*eko eraldaketak baztertu eta Goio Olabarriaren abizena berriro ezabatzen den bitartean, "Garaizarko itsuari" eskaintza mantendu egingo da. Epigrafeen kasuan, aldiz, "Alberto Caeiroren bisita" eta "Apirilari gorazarre" poemetan, hain zuzen, bai mantenduko direla *MZ*erako eraldaturiko epigrafeak. Jada *MZ*en bilduriko *IGB*ko poemetako testuen kasuan ere, aurrez eginiko eraldaketak ez dira aintzat hartzen eta hizkuntza hautuen eta bestelako xehetasunen kasuan, beraz, jatorrizko *IGB*ko hitzak berreskuratuko dira. Salbuespena, "Pianistaren heriotza" poema dugu, poema horretan mantendu egiten direlako aurrez *MZ*erako eginiko hizkuntza eraldaketak.

2014ko argitalpeneko bestelako berrikuntzak direla eta, oraingoan poema guztiek titulua dute. Jatorrizkoan izenbururik ez zuten hamahiru poemei izenburua jarri zaie eta horretarako, eskuarki poemaren lehendabiziko hitza edo esaldia hautatu da ("Udazkena", "Lili bat", "Loak hartua", "Hil ez da deus hiltzen", "Hegazti errariak", "Gelan bakarrik", "Dama zaharra") edota poemaren baitan esanahi berezia duen hitza aukeratu da ("Argia", "Euripean", "Haizeak eramandakoa", "Leihoa", "Itzalera"). Bestetik, beste hainbat poemen jatorrizko izenburua moldatu egin da: batzuetan jatorrizkoan oinarrituriko ordezko izenburua bereganatuz ("Oskorriko arragoa" > "Oskorria",

[48] Berdina gertatzen da aurreko oin-oharrean aipatu ditugun izenburu guztiekin. Salbuespena, "Esku ahurreko marrak" deituriko poema da; kasu horretan *MZ*-eko izenburua mantendu egiten baita.

"Olerkia" > "Sortzeen olerkia", "Berrogei izen sonetoa egiteko" > "Berrogei izen", "Estatua elbarriaren istorioa" > "Estatuaren istorioa", etab.) edota jatorrizko izenburua erabat eraldatuz ("My Dear eta bere eltxoak" > "Gutunak, usoak, eltxoak", "Hara han hegan" > "Kalatxoria"). Azkenik, jatorrizkoan *Paris neskazaharra* titulaturiko atalaren izena ere eraldatu egin da eta *Asmatzen duten Paris* deitzen da berrargitalpenean.

Edizio berriko liburuaren egitura eta poemen ordenari dagokionez, berrargitalpenerako hainbat poema lekuz aldatu dira, kasu guztietan bi poemen ordena irauliz. Hala egin da ondorengo poemekin: "Apirilari gorazarre" ↔ "Hilarria", "Berrogei izen" ↔ "Inork agintzen ez didalako", "Ulises Itakara bidean" ↔ "Lehendabizi ortzea izan zen", "Alferrik ditut ibili maite" ↔ "*A midsummer nigth's dream*" eta "Esku ahurreko marrak" ↔ "Hil da organista".

Jarraian, eskaintzak edota bestelako aitortzen aldaerak aipatu behar ditugu. "Guda olerkia" poeman ezabatu egin da "Sugea eta sagarrari" eskaintza eta "Aberria hautatu egiten da" poemaren amaieran Angel Crespo sinadura erantsi da, poema hori aipatu idazlearen "Una patria se elige" poemako azken bertso-lerroen itzulpena dela aitortuz, alegia.

*NG*etako berrargitalpenarekin ikusi dugunez, berridazketan narrazioen epigrafeek eraldaketa asko izan dituzte eta *IGB*ko poemen bertsio eraberrituen kasuan ere, epigrafeetan aldaera esanguratsuak nabari daitezke. Jatorrizko hizkuntzan ageri ziren aipu asko euskaratu egin dira 2014ko edizioan, bereziki atalen izenburuko epigrafeetan. *Sorterri hautatuan* aurreneko ataleko epigrafean, aipuaren ondoren "Herri kanta" dela zehazten da, baina ez da "Behenafarroako herri kanta 'Ahaire zahar hontan'" denik zehazten, jatorrizkoan egin bezala. Bestalde, "Ossian" poemaren jatorrizko edizioan "*Jon Mirande zenaren omenez eskribatu dut poema-narrazio hau, harek ere, amets egin bait zuen Tir na n-Og lurraldeaz: 'itsasoaz bestaldean, heriotze gabeko Gazteen Lurra, kristalezko abardun sagar-ondoz estalia den hura'. Han bego*" aipuarekin batera poemaren inguruko argibideak ematen ziren eta berrargitalpenean, aldiz, Miranderen aipua bakarrik mantendu da. Antzekoa jazotzen da "Soldadu hilaren ama" poemaren epigrafean ere, jatorrizkoan "*'Oroith gutaz' irakurri eta 'O war is a casual mistress' erran zuen hilarriaren aurrean soldaduaren ama ikusirik*" azalpena agertzen bada ere, berridazketan "Soldadu batek" sinaduraren aurretik "O war is a casual mistress" aipua bakarrik mantendu da, aurrez aipatu dugun bezala, izatez aipu horren egilearen izena, Charles Causey, poemaren lehen bertso-lerroan aipatzen bada ere. Aldiz, berrargitalpeneko "Ofelia" poeman William Shakespeareren "*And will he not come again?/ And will he not come again?/ No, no, he is dead…*" aipua gehitu da.

Behin poemako testuetan barneratuta, poema asko bere horretan mantendu eta beste askok eraldaketa oso urriak izan badituzte ere, berrargitalpeneko beste hainbat poemetan puntuazioa erantsi eta bertso-lerroen ebakera zein ahapaldien antolaketa eraldatu egin dela jabetu gaitezke. Ez da gure asmoa poema bakoitzak izandako forma-aldaeren berri hemen ematea, baina aipagarria da, adibidez,

"Sortzeen olerkia" poemak izan duen bilakaera, jatorrizko "Olerkia" bertsioarekin alderatuta aldaketa gehien izan duen poema baita. Izan ere, jatorrizko bertsioan hasierako bertso-lerroak amaieran errepikatu egiten dira baina, hala ere, "sortu zuen" > "hil zuen" aditz aldaketak markatzen du poemaren garapena eta bertso-lerroak errepikatu arren, aditza da aldatzen dena; berridazketan, ordea, ez da aditzik aldatu eta "sortu zen" aditza aldatu gabe, amaieran alderantzizko *ritornello*aren gisako teknika erabiliz osatu da poema.

Izuen gordelekuetan barrena (2014)	*Izuen gordelekuetan barrena* (1981)
olerkiak sortu zuen lurra	Olerkiak sortu zuen lurra
lurrak sortu zuen ura	lurrak sortu zuen ura
urak sortu zuen zura	urak sortu zuen zura
zurak sortu zuen hostoa	zurak sortu zuen hostoa
hostoak sortu zuen haizea	hostoak sortu zuen haizea
haieak sartu zuen karnaba	haizeak sortu zuen karnaba
karnabak sortu zuen olerkia	karnabak sortu zuen olerkia
olerkiak sortu zuen karnaba	
karnabak sortu zuen haizea	olerkiak hil zuen lurra
haizeak sortu zuen hostoa	lurrak hil zuen ura
hostoak sortu zuen zura	urak hil zuen zura
zurak sortu zuen ura	zurak hil zuen hostoa
urak sortu zuen lurra	hostoak il zuen haizea
lurrak sortu zuen olerkia	haizeak hil zuen karnaba
	karnabak hil zuen olerkia

Edonola ere, eta orain arte esandakotik ondoriozta daitekeen bezala, poemako testuetan baino, poema inguratzen duten izenburu, epigrafe eta, azken batean, paratestuan oro har aurkitzen ditugu eraldaketa eta aldaera gehienak. Bestalde, harrigarriki, *MZ* bildumarako moldatu eta berridatzi ziren *IGB* liburuko jatorrizko poemak berrargitaratzerakoan, ez dira aintzat hartu orduan eginiko eraldaketak. Beraz, 2014ko edizio prestatzerakoan Sarrionandia jatorrizko 1981ko edizioko testuetan oinarritu dela ondoriozta daiteke eta bere garaian *MZ*erako poemen baitan eginiko moldaketak ez dituela kontuan izan. Hitzaurrean esan bezala, amaiera puntuaren ondoren ez baita perfekziorik baina poesia bilaketa izanik, bilaketa horrek berridazketarekin eta etengabeko berrirakurketarekin du zerikusia Sarrionandiaren poetikaren kasuan, poemek jasan duten bilakaera bilaketa horren emaitza baita.

2.3.3.2. *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Gartzelako poemak (1980-1985)*, *Gartzelako poemak* (1992) eta *Kartzelako poemak* (2011)

2.3.3.2.1. *Marinel zaharrak* (1987) liburuko *Gartzelako poemak (1980-1985)* eta *Gartzelako poemak* (1992)

Aurrez adierazi denez, *MZ* poema bildumako bigarren atala *Gartzelako poemak (1980-1985)* deitzen zen eta Sarrionandiak kartzelan idatziriko 35 poema eskaintzen dira bertan. 1992an argitara emango den

Gartzelako poemak[49] liburuaren ernamuina izan zen: poemarioko aurreneko atalean *MZ*eko 34 poemarekin batera beste 39 poema berri gehitzen dira eta ondoren, *Post scriptum* atalean kartzelatik ihes egin osteko 1986. eta 1991. urteen artean idatziriko beste 8 poema bilduko dira, horietatik 3 aurrenekoz *MZ*eko *Tren luze eta bustiak (1985-1986)* atalean ere agertuak. Bestalde, liburuko lau poemek ("Lau bost harresi", "Hilarri ezkribua", "Esklabu erremintaria" eta "Zuziak eta aizkorak") 1985ko uztailean kaleraturiko *Susa 14/15* alean ikusi zuten argia aurrenekoz[50]. Bestetik, "Urtaroen aldaketa" eta "Epaiketarako bidaia" poemen aurreneko bertsioak, aldiz, "Eguberri amarauna" (1983) lanean kaleratu ziren, "91" eta "119" zenbakiz titulatuta, hurrenez hurren (epigrafe gabe, hori bai). Azkenik, "Afrika iparraldean" poema Sarrionandiak apailaturiko *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) bilduman argitaratu zuen Mohammed Al-Kali idazle apokrifoaren itzulpena balitz bezala.

Rodriguezek (2011: 169) *GP*en barneratu diren bertsioekin alderatu ditu *MZ*eko jatorrizkoak eta ondorioak horrela laburtu daitezke: *MZ*eko "Leonardo da Vinci" poema ez da *GP* liburuan barneratu; zenbait poemei izenburua aldatu die ("Nã es tu faculdade de sentir" > "O sentimento do mundo", "Hierofania II" > "Itzulera", "Oroitzen zaitudanean" > "Presoen amak"); izenburu batzuk moldatu egin dira ("Urtaroen aldaketa" > "Urte giroak ene begietan", "Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik" > "Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik"), beste zenbaitetan izenburua aldatzearekin batera poemaren edukia ere moldatu egingo da ("Hierofania I" > "Hau da udagoiena", "Oroitzen zaitudanean"[51] > "Presoen amak"); batzuetan izenburua aldatu gabe poemako edukia aldatuko da ("Krabelin gorriak arma kanoietan"); batzuetan aldaketek ez diote edukiari ia eragiten ("Gartzelako goiza"); eta azkenik, inoiz aurrez ere aipatu izan dugun garai berrietara moldatzeko ahalegina ere nabari da ("Bakardade gogoeta").

Eraldaketa horietatik guztietatik deigarriena, agian, "Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik" eta "Presoen amak" poemetan forma plurala nola txertatu den izan daiteke, jatorrizko bertsioetan "ni" poetikoa gailentzen zen lekuan orain "gu" bati egiten zaiolako erreferentzia eta, ondorioz, kartzelako gainerako presoekiko halako kontzientzia sozial bat ematen baita aditzera. "Lagun presoak" poeman, bestetik, *MZ*eko bertsioko "Joserra/Koldo/Julen" izen zerrenda ere moldatu egin da *GP*eko bertsioan, hasierako izen horien ordez, "Joserra/Miren/Josu" izenak agertzen dira. Izenen aldaketak, nolabait, lagun preso horiekiko harremanen aldaketa iradokitzen duela esan daiteke.

Aipuak direla eta, C. Drumond de Andraderen "Tenho apenas duas manos/ e o sentimento do mundo" epigrafea erantsi da "O sentimento do mundo" poeman eta era berean, "Bakardade gogoeta" poeman Joao Gimera Rosaren "Só sabemos de nós mesmos/ com muita confusiao" aipua erantsi da.

[49] Hemendik aurrera *GB*.
[50] *MZ* eta *GP* liburuko bertsioekin alderatuz, aldaera oso gutxi aurkezten badituzte ere, "Esklabu erremenatria" poemako "Latinoen pisan" aitortza-epigrafearen ordez "Poeta latinoaren imitazioa" erantsi da eta poemako aurreneko "Euskal Herriko" hitzen ordez "sartaldeko" irakurriko da ondorengo bertsioetan.
[51] Rodriguezek *GP*-rako "Oroitzen zaitudanean" poema ez dela hautatu badio ere, poema hori "Presoen amak" izenburua aldatuta barneratu da liburuan.

Beraz, *GP*erako berreskuraturiko *MZ*ko poemen kasuan ere, poemen testuan baino, paratestuan aurki ditzakegu aldaera nagusienak.

2.3.3.2.2. *Kartzelako poemak* (2011)

2011an, poemarioaren izenburuaren eta liburuaren azaleko paratestuaren eraldaketak ere iragartzen duten bezala, *Kartzelako poemak*[52] liburuaren edizio berri eta eraberritu bat eman zuen argitara Susa argitaletxeak.

*GP*en 1992ko jatorrizko argitalpenean erreproduzituriko Josu Morenoren "Momias culturales" saileko azaleko irudia oraingoan Lander Garrok eginiko eta giltza eta arkatz bat uztartzen diren irudi batek ordezkatzen du. Era berean, liburuaren barreneko Morenoren "Cabezas cortadas" saileko irudiak ere baztertu egin dira edizio berrirako[53].

Bestalde, jatorrizko edizioak Ruper Ordorikak sinaturiko aitzin-solasa eta Joxemari Iturraldek idatzitako hitz-ostea baldin bazituen, edizio berrian "Ezikusia egin ote dakioke itsasoari?" titulatzen den Jose Luis Otamendiren hitz-aurrea gaineratu da eta ondorioz, Ordorika eta Iturralderen testu biak hitz-oste gisa eskaintzen dira oraingoan. Otamendik hitzaurrea aitortzen duenez, "2011ko edizio honi gaurko begia eta eskua ezarri dizkio poetak, eguneratu egin dira testuak eta orain arte argitaratu gabeko sei poema datoz osoa zena osatzera" (2011: 7). Beraz, paratestuko eraldaketez gain, ordura arte argitaragabe zauden beste sei *kartzelako poema* erantsi dira berrargitalpenean: "Ipuina", "El palomar", "XI. galdera", "Alturaren neurria", "Inozenteen eguna" eta "Vis a vis" poemak, hain justu. Benetan deigarria deritzogu, gainera, gaineraturiko sei poemen artean gaztelera hutsean idatziriko "El palomar" egotea; batetik, gaineraturiko beste poemak bezala, oraingoan txertatu egin delako bere garaian *GP* bildumatik kanpo gelditu zena, eta baita edizio berrian gehituriko poema guztien artean egilearen azalpena eta sortze-leku zein data daraman bakarra delako ere: "*El Palomar* deitzen zieten presoek Puerto de Santa Maríako kartzelako zigor-zeldei. Hantxe idatzi zen testu hau 1983an, gazteleraz"[54].

Edizio eraberrituak jatorrizkoarekin dituen eraldaketak aintzat hartuz, poemen izenburuei erreparatuz, esaterako, eraldaketa txikiak egon direla esan dezakegu. Batetik, jatorrizko "Armen kanoiak haien gorputzen aurka" titulua laburtu eta bertsio berrian "Armen kanoiak" deitzen da.

[52] Hemendik aurrera *KP*.

[53] "Cabezas cortadas" serieko bost irudiak jatorrizko edizioko 15., 45., 63., 73. eta 93. orrialdeetan kokatzen dira eta marrazkiarekin batera, data eta lanak eginiko lekua ere aipatzen dira: Herrera de la Manchako kartzela, 1989ko urtarrilean. Jatorrizko azaleko "Momias culturales" lana berriz, Monterrosoko kartzelan 1990ko martxoaren 7a egina dela zehatzen da. Beraz, poetaren kartzelako poemekin batera kartzelan marrazturiko kide baten lanak biltzen ziren jatorrizko edizioan, baina esan bezala, lanok ez dira berrargitaratu edizio berrian.

[54] Azalpen hori da, hain zuzen, Sarrionandiak berridatziriko berrargitalpenean gehituriko ohar bakarra. Aurrez aipatu ditugun *NG* eta *IGB* eta geroago aztertuko dugun *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuen edizio eraberrituetan hitzaurre bat gaineratu du egileak azalpenak edota argibideak emanaz, zenbaitetan egileak aurrez idatziriko hitzaurre (*IGB*) eta hitz-osteak (*N,AEE*) baztertuz, gainera. Baina esan bezala, *KP*-en hitzaurrea Otamendik burutu du eta kasu honetan idazleak ez du bestelako hitzik gaineratu.

Kontrara, jatorrizkoan "Itzulpena I", "Itzulpena II" eta "Itzulpena III" titulatzen diren hiru poemetako izenburuetan hitz bat gehitu eta berrargitalpenean "Itzulpen literala I" , "Itzulpen literala II" eta "Itzulpen literala III" deitzen dira poemok. Izenburuan aldaketak egin arren, poemetako testuetan eraldaketarik ez da gaineratu, edo egin direnak oso urriak izan dira, hizkuntza eguneraketak bereziki.

Bestetik, berrargitalpenean ez dago epigrafe aldaketarik. Jatorrizkoak bere horretan mantendu dira, moldatu, gehitu edo ezabatu gabe. Hori bai, eskaintza bat gehitu da "Oroimeneko portuan" poeman: "Imanoli, eskerrekin". Jakina denez, Imanol Lartzabalek (1947-2004) abesten zuen Sarrionandiak idatziriko "Oroimeneko portuan" *Mea kulparik ez* (1986) albumean, eta gainera, Imanolek Martutenen eman zuen kontzertu bateko bozgorailuan ezkutatuta egin zuen ihes idazleak kartzelatik, Iñaki Pikabea presoarekin batera.

Poemen paratestua dela eta, beraz, aurreko berrargitalpenekin alderatuta esku hartze berezirik ez dela egon ondoriozta daiteke. Testua han-hemenka moldatu den kasuetan ere, aldaketak urriak izan dira eta poemaren ingurumariak bere horretan mantendu dira.

Testu eraldaketa nabarmenenak jasan dituzten poemen arten hiru poema aipatu behar dira: "Sortaldeko orratzak", "Haurtzaroko erretratua" eta "Ezkutuko gutunak". "Sortaldeko orratzak" poeman, adibidez, poemako aditzen denbora markak orainalditik lehenaldira ekarri dira "Jostorratz herdoilduz loturik argitu da gaur ere eguna" azken esaldian izan ezik eta ondorioz, azken bi bertso-lerroek kontraste handiagoa lortzen dute aurrekoekin alderatuz.

"Haurtzaroko erretratua" poeman bertso-lerroak moldatu egin dira baina finean, jatorrizko poemako hitzak ordenez aldatzea eta berregituratzea izan da berridazketaren emaitza. Dena den, badira aipatzea merezi duten bestelako bi xehetasun ere: batetik, berrargitalpenean hasierako familia-erretratuaren eszena "Garaizarren" izan zela gaineratzen da, poemari kutsu are autobiografikoagoa erantsiz[55]; bestetik, poemaren amaiera eraldatu egin da eta umearen ikuspuntuan zentratzen da bertsio berria, "umeak ez du sumatzen" ezarri baita aurrez amona, aitona eta umeari erreferentzia egiten zion "hiruetatik inork ez du sumatzen" forma zegoen lekuan.

"Ezkutuko gutunak" poeman, aldiz, jatorriko poeman euskaraz edo erdaraz idatziriko gutunen artean zegoen dikotomia leundu eta bestelako xehetasun batzuk eransten dira berridazketan. Horrela, "erdaraz baldin badira" gehitzen da funtzionarioen eskuetatik pasatzen diren gutunak aipatzeko aurreneko ahapaldian eta, aldiz, azkenengoan, funtzionarioen bizkarretik eta ezkutuan iristen diren gutun "gehienak" euskaraz izkiriatuak direla zehazten da bertsio eraberrituan. Gainera, euskaraz jasotako gutunak "samurragoak" direla esaten da orain, lehen "intimoagoak" jartzen zuen lekuan, eta ondoren, esan bezala, euskaraz edo erdaraz idatziriko ezkutuko gutunak errebisaturiko erdal

[55] Idazleak "Garaizar"-ekin duen harremana, 2.3.2.1.3. azpiatalean jorratu dugu (81-82. orr.)

gutunetatik bereiziz, "eta erdarazkoak ere garbiagoak dira, inork ikertu edo begiratu ez dituelako" bertso-lerroak ere eransten dira.

Edonola ere, 1992ko jatorrizko *GP*en eta 2011ko berrargitalpeneko *KP*en arteko testu aldaerak oso urriak dira eta oro har, salbuespenak salbuespen, eraldaketek hizkuntza eguneraketekin dute zerikusia. Kontuan izan behar da *KP* dela Sarrionandiak itxura berria emanaz berrargitaratu zuen aurreneko liburu osoa eta oraindik ere ez dela sistematikoa bai paratestuan (izenburu, epigrafe, poemen antolaketa) eta baita testuetan ere eraldaketak, moldaketak eta berridazketa nabarmenagoak sartzeko joera, ondorengo berrargitalpen nagusietan izango den bezala. Dena den, *KP*en berrargitalpena ere berezia da, ordura arte argitaragabe zeuden beste sei poema gaineratzen eta biltzen baititu aurrez argitara emandako poemekin batera eta horrenbestez, idazlearen material argitaragabea eskaintzen duen berrargitalpen bakarra izango da *KP*.

2.3.3.3. *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995*): 1995ko edizioa vs. 2013ko berrargitalpena

1995. urtea amaieran *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)*[56] izeneko poema liburu mardula kaleratu zuen Sarrionandiak. Liburuak harrera itzela izan zuen eta 1996ko urte hasieran berrinprimatu egin zen. Parentesi arteko azpitituluak adierazi bezala, hamar urteko epean idatziriko 159 poemek osatzen dute liburua eta ondorioz, *MZ*eko *Gartzelako poemak(1980-1985)* eta *Izuen gordelekuetan barrena (1978-1980)* ataletako poemarik ez da barneratu *HINMY*n. Aldiz, *MZ*eko *Tren luze eta bustiak (1985-1986)* ataleko 15 poema berriro argitaratzen dira (horietako hiru, "Preso egon denaren gogoa", "Lagun presoak" eta "Joseba Asensio" poemak, *GP*eko *Post scriptum* atalean ere barneratu ziren). Ez alferrik, *HINMY*ko bigarren atala ere *Tren luze eta bustiak* deitzen da eta bertan biltzen dira aurrez *MZ*en argitara emaniko poema gehienak, baina ez guztiak. Izan ere, orduko edizioan poemak kronologikoki antolatuta bazeuden, *HINMY*n bestelako antolaketa baten aldeko hautua hartu du egileak (Rodriguez 2013: 187; Otaegi 2000: 33) eta poemak nolabaiteko batasun tematikoaren trazak dituzten ataletan kokatu dira. Hori horrela, *Tren luze eta bustiak* atalean sailkaturiko poemez gain, *MZ*eko "Martin Larralde" eta "Gabriel Aresti" *Gure arbasoak* atalean kokatu dira, "Marinel batzu" *Marinel korapiloak* atalean, "Preso egon denaren gogoa", "Joseba Asensio", "Bake beltza" eta "Aberriaren astuna paparrean"[57]*Hutsik geratu ez ziren zeldak* atalean eta azkenik, "XI. Hilarri izkribua" *Gure hilak* atalean. Gainera, aurrez aipaturiko hiru poemez gain, *GP* liburuko *Post scriptum* ataleko poema guztiak ere berrargitaratu dira *HINMY*ko *Hutsik geratu ez ziren zeldak* atalean, bi poema berrirekin batera. Beraz, Sarrionandiak aurrez egin bezala, *HINMY* poemario berrian ere poema argitaragabeak aurrez argitara emaniko poemen errebisio eta berridazketarekin nahasten dira.

[56] Hemendik aurrera *HINMY*.
[57] "Bake beltza" eta "Aberriaren astuna paparrean" izeneko poemak *MZ*-en "Defenda ezazue zuen bake beltza" eta "Lagun presoak" deitzen dira (azkenak titulu hori du *GP* liburuan ere).

Aurrenekoz *MZ* liburuan argitara eman eta *HINMY*n berriro berrargitaratu diren poemak direla eta, izan bada aldaerarik bai poemen paratestuan, eta maila txikiagoan bada ere, baita zenbait poemetako testuetan ere. Izenburuei erreparatuz, eta aurrez aipaturiko bi kasuez gain, *MZ*eko "Euria gustatzen zaio kantoiko itsuari" > "Euri eguna" deitzera pasa da *HINMY*n eta "Esteban Urkiaga" poema "Olerkaria" deitzen da. Era berean, *MZ*eko "XI. gutuna" poema orain "Lagun presoei gutuna" titulatzen da.

Epigrafeen kasuan, *MZ*eko "Zuek lore paper ederreko logelan" poeman "Vladimir Maiakovskiren Vam delako poemaren bariazioa" zela zehazten zen bitartean, oraingoan Maiakosvkiren poema horretako "Merezi ote du bizia galtzea zuengatik/ lilitxoak eta ongi jatea maite duzuenongatik?" aipua txertatu da. Aldiz, "Gauetako tren luze eta bustiak" poemaren *MZ*eko jatorrizko bertsioan zegoen R.L. Stevensonen *Ordered South* laneko aipu luzea ezabatu egin da *HINMY*n. Horrela zioen aipuak:

> Horixe da, uste dut, bidaiak trenez egitearen xarmarik nagusiena. Abiantzada hain da erreza eta trena bera hain eragozpen tipia zeharkatzen dituen paisaientzat, non, gure bihotza larreen lasaitasun eta soseguaz betetzen bait da; eta gure gorputza bagoi kateak aurrerantza daraman artean, gure pentsamenduak jetsi egin dira, gogoaren arauera, estazio despopulatuetan...

Testu aldaerei gagozkielarik, "Gauetako tren luze eta bustiak" poemaren *HINMY*ko bertsioan zenbait bertso-lerro gehitu dira baina eraldaketa gehien jasan dituen poema "Gabril Aresti" deiturikoa da, bertan hainbat ahapaldi berri txertatu direlako. Azkenik, deigarria da beste hainbat poemetan hitz oso gutxi aldatu arren, oso esanguratsuak direla eraldaketa horiek. Hori horrela, esate baterako, "Martin Larralde" poemaren jatorrizkoan "–arantzak barrurantza/ itzuliak lituzkeen larrosa legez–" agertzen da ondoren bertsioko "(arantzak barrurantza itzuliak/ lituzkeen sagarroia bezala") esaldiaren ordez. Aldiz, *MZ*ko "Esteban Urkiaga" poeman, "gizona" hitza erabiltzen da birritan poemako poeta aipatzeko eta aldiz, *HINMY*n poemaren izenburu eraldatuari men eginez, "olerkaria" erabiliko da "gizona" hitzaren ordez.

*HINMY*ren argitalpenaren xehetasunetara itzuliz, zazpi ataletan kokatzen diren poemez gain, liburuko gainerako beste hiru ataletan hiru narrazio eskaintzen dira: *Denbora presentea eta denbora pasatua*, *Eta denbora futuroa*, eta *Afrikak eta Europak*, hain zuzen.

Ondorioz, poema kopurua, narrazioen uztarketa eta liburuaren edizioaren gainerako berezitasunak (azal gogorreko eta tamaina handiko argitalpen zaindua) aintzat hartuz, poema bilduma Sarrionandiaren lanen "Summum bat litzateke" (Kortazar 2001: 123) eta "behin-betiko antologiaren aurrean gaudela iradokitzen digu" (Rodriguez 2013: 182). Behin-betikoa behin-behineko bihurtzen da, ordea, 1995an argitara emandako *HINMY* berrargitaratzerakoan aurrez argitaratuko poemei aldaerak gehitzen dizkien neurrian.

Izan ere, 2013. urtean, liburua argitaratu eta ia 20 urtera, *HINMY*ren argitalpen eraberritua kaleratu zen. Jatorrizko edizioaren eta berrargitalpen berriaren arteko desberdintasunak agerikoak izanik ere, besteak beste, tamaina eta itxura arruntagoa baitu berrargitalpenak, azalean bertan esplizituki zehazten da edizio berritua dela oraingoa. Gainera, azaleko irudia ere desberdina da, jatorrizko *HINMY*ko 160. orrialdean dagoen eta 1856ean *Gulliver-en bidaiak* ilustratu zuen J. J. Granvilleren irudia azalera eraman baita edizio berrituan.

Bestalde, Sarrionandiak "Edizio berrirako abisua" hitzaurrea ere gehitu du berrargitalpenean. Eta hain justu, Jonathan Swift-en lan ezaguneko Houyhnhnmen eta Gulliverren arteko solasa ilustratzen duen azaleko irudiari erreferentzia zuzena eginez eta poema liburuaren izenburuaren inguruko argibideak emanaz zabaltzen da hitzaurrea. Aurrez ikertuta dagoen gisa berean (Azkorbebeitia 1999b: 78), "Hnuy illa nyha majah yahoo" esaldiak "Ondo ibili, gizontxoa!" edo "Zaindu zure burua, gizona, ez baita samurra ez erraza bizi garen mundu hau"[58] esan nahi dituela aipatzen du lehendabizi egileak eta nola "herbestean" (sic) ama hizkuntzan idatzi zuen "herritik aparte ibiltzeaz, itsasoaz, desastre ekonomikoaz, kartzelez, amodio endredoez, heriotzaz, konprenitzen nituen gauzez eta konprenitzen ez nituenez" (Sarrionandia 2013: 5). Jarraian, "autore autoritatea erraklamatzeko" intentziorik gabe baina *HINMY*ko hainbat poemei egin izan zaizkien irakurketa bereziki makur batzuen inguruko zehaztapenak ematen ditu, "Bereterretchen kanthorea", "Nire etchea" eta "Tiro hotsak"[59] poemen irakurketen gainean.

Liburuko testuen sorrera dela, erbestean ama-hizkuntzaren laguntza soilarekin errealitatea *izendatzeko* eta bere egiteko ahalegina nabarmentzen du eta Lewis Carrollen Aliziako pasarte bat gogora ekarriz, ez diren gauzei izena eta izana emateak duen garrantzia aipatzen du. 2013ko azaroaren 11n sinaturiko hitzaurreko azken lerroetan, berrargitalpenaren inguruko argibideak ematen ditu: "Orain, berredizio honetarako, oker batzuk zuzendu, idazkera ortografia bateratura egokitu, apur bat berrantolatu eta pasarte batzuk berridatzi dira, testua osorik kendu edo berririk sartu gabe, hitzaurrea, esplikazio edo abisu hauxe salbu" (ibid.: 10). Argitalpen berriaren harira, Elkarreko editore Xabier Mendigurenek[60] honako azalpenak eskaintzen zituen bere blogean:

> Aspaldi samar agortu zen bigarren argitaraldi hura ere, eta berri bat prestatzeko asmoa azaldu zuen egileak, aldaketa zenbait eginez (…). Obraren atalak apur bat aldatuta daude hurrenkeraz, ez asko. Poema berririk ez sartzea eta zaharrik ez kentzea erabaki du, baina denak daude aldatuta. Batetik ortografia gaurkotu du, euskara

[58] Azken esaldi honen oihartzuna topatuko dugu "Kiromantzidxe" poemaren azken bertso-lerroetan ere: "eta kontus ibili/ ortisier/ se ixen be ondo sorue da au/ mundu au bixi gariena".

[59] Patxi Lopez lehendakari izandakoak poema horri egin zion erreferentzia Legebiltzarreko 2011ko kargu-hartze ekitaldian, "Harrizko isiltasuna" esamoldearen bere irakurketa eskainiz eta uste izatekoa da erabilera horretaz diharduela Sarrionandiak hitzaurrean. Bestalde, Ramon Saizarbitoria idazleak ere poema hau, "harrizko isiltasunaren poema", izan zuen hizpide *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* (2002) liburuan eta badirudi berak salatu bezala, "harrizko isiltasunaren metaforak liluratu" zuen ikaslearen gisa berean liluratu zuela metafora horrek Lopez.

[60] "Sarrionandiaren 'Hnuy illa…' berriz kalean, idazleak berridatzita": http://sustatu.eus/xme64/1385145724 [2015/04/07an atzitua].
Info gehiago: http://www.berria.eus/paperekoa/1484/030/001/2013-12-04/deserriko_hitzak_sorterrian.htm [2015/04/07an atzitua].

> batuaren arauetara moldatuz (salbuespen pare batekin: herbeste eta haintzat). Bestetik, ia poema guztiak berridatzita daude: lerroketa itxuraldatuta, hitz eta esaldiak gehituta edo aldatuta, ahapaldi berriak erantsita…

Beraz, jatorrizko ediziotik poema berri edo ineditorik gaineratu eta kendu gabe ere, testuak eraldatu ditu Sarrionandiak (lerroketa itxuraldatuta, hitz eta esaldiak gehituta) eta testuarekin batera, testuingurua ere bai (poemak eta atalak berrantolatuta daudelako). Are, zenbait poemen tituluak ere moldatu egin dira, egitura orokorrean atal berri bat erantsi da eta ondorioz, lehendabiziko ataleko poemak bi ataletan banatu dira berrargitalpenean, atalei izenburua emateko epigrafeak zein poemen sarreretako aipuak ere aldatu egin dira (zenbaitetan aurrez zeudenak kendu eta berriak gehituz), jatorrizko edizioko irudi batzuk baztertu egin dira… Horrenbestez, testuingurua aldatzearekin batera testua ere eraldatu egiten bada, *HINMY*ko poema gehienak berridatziak izan direnez eta jatorrizko bertsioekin erkatuz aldaera nabariak erakusten dituztenez, berridazketa eta eguneraketa horien zertzelada nagusiak biltzen saiatuko gara jarraian.

Aurrez aipatu bezala, liburuaren itxurarena da aurreneko aldaketa, jatorrizko edizioak zituen berezitasunak (azal gogorra, alkandora, orrialdeen neurri handiagoa eta beste) leundu eta eite arruntagoa baitu bertsio eraberrituak eta, aurrez ez bezala, oraingo edizioa Elkar argitaletxeko poesia bildumako gainerako liburuen tankerakoa da. Azaleko irudia desberdina dela adierazi dugu jada, izatez jatorrizko edizioan liburuaren baitan zegoen irudiari protagonismo handiago eman eta azalean kokatu baita orain. Kontrara, jatorrizko edizioko alkandora-azaleko zaldiaren ilustrazioa liburu barruan kokatzen da edizio berrituan, amaieran (291. orrialdean), azken poemaren eta aurkibidearen artean hain zuzen. Hori bai, bi ilustrazio horiek dira edizio eraberrituan mantendu diren bi marrazkiak, jatorrizko *HINMY*n zenbait poemekin lotu eta txertatzen ziren gainerako irudiak baztertu egin baitira: hatz marka erraldoia (43. orr.), Madalena mendiko kaperako irudia (80. orr.), Bereterretxeren estelaren erreplika (83. orr.), soka-korapiloen marrazkiak (121, 127 eta 140. orr.) eta azkenik, itsas karakolen irudiak (137. orr.).

Sarrionandiak hitzaurrean aipatzen duenez, edizio berrirako "apur bat berrantolatu" du liburua eta horrenbestez, nahiz eta jatorrizko edizioa "Denbora presentea eta denbora pasatua" narrazioak zabaltzen zuen, oraingoan *Tren luzeak eta bustiak* ataleko poemek irekitzen dute liburua, "Edizio berrirako abisuaren" ondotik. Gainera, esan bezala, jatorrizko "Tren luzeak eta bustiak" ataleko poemak bitan banatu ditu egileak eta, beraz, *Mundua zabala eta arrotza da* atala erantsi du berrargitalpenean. Horrela, atalaren izenburuarekin zuzenean lotzen den "Gaueko tren luze eta bustiak" poemak ixten du aurreneko atala, ondoren "Denbora presentea eta denbora pasatua" narrazioa kokatu da eta jarraian, *Mundua zabala eta arrotza da* ataleko poemak datoz (era berean, atalari izenburua ematen dion poema ere atalaren azken aurreko poema da). Aldiz, gainerako atalak jatorrizkoan bezalatsu daude kokatuta, nahiz eta jatorrizkoan *Gure arbasoak* izeneko atalari izena eraldatu eta oraingoan *Gure arbasoak eta haien semealaben semealaben semealaben semealaben* daraman titulutzat. Atalaren baitako "Gure arbasoen kronika" eta atala ixten duen "Semealabadun

semealabak" poemen oihartzunek bat egiten dute atalaren izenburuan, arbasoen belaunaldietakoak ondorengoen ondorengo belaunaldikoekin harremanetan jarriz.

Liburuaren hastapen atalen eta egitura orokorraren berrantolaketaz gain, ordea, zenbait poemaren berrantolaketa ere burutu da edizio berrituan. Hainbat poema ordenez aldatu dira, kasu guztietan bi poemen ordena irauliz: "Laket zait zitroi urez izkiriatzea" ↔ "Herri proiektua", "De docta ignorantia ↔ Bereterretchen khantorea", "Uharte ezezagunetako albisteak" ↔ "Mörlango portua", eta azkenik, "Zineko lehoia" ↔ "Maisu zaharrak".

Bestalde, poema asko eta askoren izenburuak ere eraldatu egin dira:

HINMY (2013ko edizio berritua)	*HINMY* (1995eko edizioa)
Geratzeaz eta joateaz	Inongo lekuak
Zuek lore paper ederreko	Zuek lore paper ederreko logelan
Aldamioak	Eror denbora
Kaleak	Kalerik kale
Kukuari koblak	Kukuaren koblak
Neoi argiak ederrenean	Neoi argiak ederrenean daudenean
Badakizu zer den negua?	Ezagutzen duzu negua?
Damuaren pelikulaz	Damurik ez
Badakizu zer den gure herria?	Ezagutzen duzu gure herria?
Minotauroa	Minotauroarenak
De docta ignorantia	Nicholas Krebs
Munduari bira	J. S. Elkano
Arimak	Eromenaren gorespena
Geroko gero	Gerotik gerora
Zurrumurrua	Abots hurrin eta hautsia
Esteban Urkiaga 'Lauaxeta'	Olerkaria
Kaialdeko ostatuko bikotea	Bikotea kaialdeko ostatuan
Mörlango portua	Marinel batzu
Truke balioa	Merkatu beltza[61]
Gerezien sasoia iritsi da	Gereziak jateko sasoia iritsi da
Zineko lehoia	Zinetako lehoia
Arthur Rimbauden zango ebakiari galdera	Arthur Rimbauden zangoari galdera
Ofikzio kideentzako proposamena	Proposamen poetikoa
Amodioen iraupena	Amodio iraunkorra
Zergarik gabe	Duty free
Inbidia	Dena berdin
Belaun zauritua	Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen

Horrela, jatorrizko izenburuarekiko eraldaketa txikiak izan dituzten poemen multzoa berezi daiteke batetik, bai zenbait poemetan azken hitza desagertu egin delako (eskuarki poemaren izenburua aurreneko bertso-lerrotik datorrenean gertatzen da, *AEE*ko zenbait ipuinen izenburuekin gertatu bezala: "Neoi argiak ederrenean daudenean" > "Neoi argiak ederrenean", "Zuek lore paper ederreko

[61] Edizio berrituan "Merkatu beltza" poemari izenburua eraldatu eta "Truke balioa" deitu arren, *Merkatu beltza* atalaren izenburua bere horretan mantendu da.

logelan" > "Zuek lore paper ederreko", eta abar) edota jatorrizko izenburuari xehetasunen bat erantsi, kendu edo moldatu zaiolako (hala nola, "Kukuaren koblak" > "Kukuari koblak", "Arthur Rimbauden zangoari galdera" > "Arthur Rimbauden zango ebakiari galdera", "Kaialdeko ostatuko bikotea" >"Bikotea kaialdeko ostatuan"). Bestetik, zenbait izenburuk eraldaketa sistematikoagoak jasan dituzte: horrela, "Ezagutzen duzu…?" egiturako izenburudun poemak "Badakizu zer den…?" gisako bilakatu dira eta bestetik, zenbait tituluk jatorrizko izenburuaren eta epigrafearen arteko jokoa dute eraldaketaren zioa ("De docta ignorantia", "Munduari bira", "Esteban Urkiaga 'Lauaxeta'"). Azkenik, beste zenbait poemen izenburu aldaketak poemon baitan egon diren askotariko eraldaketen iragarle direla esan daiteke (esaterako, "Damuaren pelikulaz" poema).

Bestalde, eta paratestuaren azterketarekin jarraituz, epigrafeek jasan dituzten eraldaketak ugariak bezain esanguratsuak direla nabarmendu behar da. Izan ere, poema askotako jatorrizko epigrafe, aipu eta azalpen laburrak aldatu egin dira edizio berrituan eta horren adierazgarri da atalen izenburuarekin batera txertatzen diren aipuetan egon diren eraldaketak; nolabait, poemetan ere gertatuko diren aldaketen erakusle bihurtzen diren heinean. Jatorrizkotik moldatu gabeko *Denbora presentea eta denbora pasatua* atala eta *Eta denbora futuroa* mantendu dira soilik bere horretan berrargitalpenean, aurrenekoan izenburua zor dion T. S. Elioten aipuarekin, eta bigarrena John Donneren esaldiarekin. Gainontzeko ataletako epigrafeetan, ordea, aldaketa ugari izan dira.

Hasteko, *Tren luzeak eta bustiak* ataleko jatorrizkoan Ismael Larreak sinaturiko "Bizitza herbestea da" aipua ezabatu egin da eta horren ordez "Ezin dugu bidai egiteagatik bidaiarik egin oraindik. Bidaia eginda izateko egiten ditugu bidaiak, beldurrez" esaldia gaineratu da. Berrargitalpeneko *Mundua zabala eta arrotza da* atala berria da eta ondorioz, erantsitako bi epigrafeak ere berriak dira: bata, Dante Alighieriren *La Divina Commedia*ko aipu bat eta bestea, "Hori bai, beste mundu batzuk asma daitezke mundu horretan. Begira, entzun adibidez Louis Amnstrongen What a Wonderful World?" diona, "Ezezagun bati aditua" azalpena daramana. *Gure arbasoak eta haien semealaben semealaben semealaben semealaben* atalean, jatorrizko José Bergamínen aipua mantentzen bada ere, Margaret Atwooden "As all historians know, the past is great darkness, and filled with echoes…" aipua gehitu da bertsio eraberrituan. Era berean, *Marinel korapiloak* atalean ere jatorrizko Manoel Antonioren "Beteko doguz belak egunsentiko argi naufragoagaz…" aipua gorde egin da baina James Joyceren *Ulysses* eleberriko Buck Mulligan pertsonaiak sinaturiko "The snotgreen sea. The scrotumtightening sea" aipua erantsi da. Aldiz, *Merkatu beltza* ataleko jatorrizko Thomas Benharden "Jendea kontrako zentzuan datorrela kausitzen dut gehienetan" epigrafea ezabatu egin da eta atalaren izenburuarekin zuzenean lotzen diren Arthur Rimbauden eta Candy Vicary-en aipu bana gehitu dira. Lehenengoaren kasuan, *Illuminations* laneko "Soir historique" testuko aurreneko esaldiak osatzen du aipua eta bigarrenari buruz, esan behar dugu Candy Vicary izena ezezaguna egiten zaigula eta litekeena dela, hipotesi moduan bada ere, "Merkatu beltza zabaltzen ari da hiri osora, hartu ditu industria, zientzia, kirola, artea. Merkatutik kanpokoa akabatzen ari edo erdi irreal bihurtzen ari da…" aipua apokrifoa izatea

ere. *Afrikak eta Europak* atalari dagokionez, jatorrizkoan "To that namibian girl" eskaintza bakarrik ageri zen izenburuaren ostean baina edizio berrituan, eskaintza hori ezabatzearekin batera, euskaratua ematen den Namibiar kanta baten bertso-lerroak eransten da. *Monogamo inperfektuak*atalean, jatorrizkoan ere bazen Juan Inazio Iztuetaren aipua gorde da eta Brian Patten poeta ingelesaren "Poetry sould take off its clothes…" esaldia erantsi da, "Prose Poem towards a Definition of Itself" tituluko poematik hartuta. *Hutsik geratu ez ziren zeldak* atalean ere, jatorrizko Ciaran Nugenten aipua mantendu egin da baina Antonio Gramsciren "Giro nella cella come una mosca che nonsa dove morire" esaldia ere txertatu da, *Lettere del carcere* lanetik ekarria. Deigarria da atal honetan *Gartzelako poemak* lanean argitara emandako zenbait poemak berreskuratzen direla eta alde horretatik, esanguratsua da Sarrionandiak Gramsciren lanari egiten dion keinua. Azkenik, *Gure hilak* atalean ere, jatorrizko Cesare Paveseren aipuaren aurretik, atalaren izenburuarekin zuzenean ezkontzen den Gary Indianak sinaturiko "We used to say: How can we live like this? And now the question really is: How can we die like this?" aipua gehitu da.

Atalen izenburuetako epigrafeak aldatu diren bezala, poemarioan hain ugariak diren poema asko eta askotako epigrafeak ere moldatu egin dira. Kasu batzuetan, epigrafe moduan poemari buruzko azalpen edo informazio bat erantsi da. Horrela, "Nire etchea" poeman "Etxeko ganbaran gorderik, irten ezinik, hiru hilabete zeraman mutilaren izkribua" azalpena gehitu da edizio berrituan eta "Kiromantzidxe" poeman ere izenburuaren ondotik "Edo nola leitu zion errumaniar buhame batek mutilari eskua" azalpena erantsi da, poemon kutsu autobiografikoa aipuen bidez azaleratuz. "Munduari bira" poeman, aldiz, "Getariako ikastolako gelan, umeak joandakoan, mundu bola baten bila sartu eta sagar bat aurkitzen duen Juan Sebastian Elkanoren bakarrizketa" azalpena gehitzen da.

Edonola ere, jatorrizko poemen bertsioan ez zeuden eta berrargitalpenean gehitzen diren epigrafeak dira gehienak. Kasu bakar batean ezabatu da jatorrizko aipua, "Zer egin?" poeman baztertu egin baita Persius Flaccusen "Nunc non etumulo fortunaque fauilla nascentur uiolae?" epigrafea. Gehituriko epigrafeen artean, aldiz, honakoak aipatu behar: "Badakizu zer den gure herria?" poeman Shakespeareren aipua; "Mundua zabala eta arrotza da" poeman, aldiz, poemari eta atalari izena ematen dion Ciro Alegriaren "El mundo es ancho y ajena"; "De docta ignorantia" poeman Martin Luther Kingen esaldia; "Arimak" poeman Thomas Moreren aipua; "Barkoxeko lürretan ez xerka Etxahun haren hatzaman nahiz zabiltzanak ondun" poeman A. Lichalten aipua, "Faroaren talaia" poeman e.e. cummingsen epigrafea; "Truke balioa" poeman Leonce Goyhetcheren esaldia, "Sasoi makalak" poeman Bertolt Brechten aipua, "Mundua ikusteko leihoak" poeman Rainer Maria Rilkeren esaldia; "Poemarik behinena" poeman John Maynard Keynesen hitzak; eta azkenik, "Nolabaiteko amodioa" poeman Publio Ovidio Nassoren aipua. Kasu guzti horietan, idazle unibertsal ezagunen erreferentziak gehitzen dira eta aipuetako hitzek, epigrafe izanik espero daitekeen moduan, poemaren muinarekin lotura estua dutela nabarmendu behar da.

Paratestuari dagokionez, poemen izenburu eta epigrafeak bezain esanguratsuak ez izanik ere, eskaintzek ere badute zeresanik eta *HINMY*ren bertsio eraberrituan jatorrizkoan baino eskaintza gehiago aurkitzen ditugu. Lehenik eta behin, "Koblak" izenak biltzen dituen hiru poemak ditugu; jatorrizkoan Mikel Laboari eskaintzen zion "Kukuaren koblak" eta bertsio eraberrituan ere halaxe, baina horrez gain, "Gutunei koblak" izeneko poema Ruper Ordorikari eskaintzen dio edizio eraberrituan, abeslariak *Dabilen harria* (1988) diskoan musikatu baitzuen poema. Azkenik, "Besterriari koblak" poema Isidro Duráni eskaintzen dio. Isidro Durán dela eta, hain zuzen, Ruper Ordorikaren *Lurrean etzanda* (2014) diskoan "Isidrorena" kanta biltzen da eta bertan kontatzen da Isidro Duránen istorioa, 1982an atxilotu, poliziaren autotik ihes egin eta orduz gerotik erbestean pasata, ulergarria egiten da "Besterriari koblak" erbesteratu bati eskaintzea.

Bestetik, "Aldaketarik aldaketa" poema, jatorrizkoan ez bezala, Julio Numhauserri eta Imanol Lartzabali dedikatzen die. Sarrionandiak, horrela, bere poema Numhauser abeslari txiletarrak abesten zuen "Todo cambia" kanta ezagunarekin lotzen du eta, era berean, "Aldaketarik aldaketa" poema *Hori bera da denen ixtorioa* (1996) diskoan abesti bihurtu zuen Imanol Lartzabali ere dedikatzen dio (aurrez, *KP*en edizio berrian "Oroimenaren portua" poema eskaini zion).

Eskaintzeko amaitzeko, "Ia gauerdian ailegatu naiz etxera" poema "Etxekoei" eskaintzen die eta "Errauts gorri xehea", aldiz, Mikel Albisuri, espetxetik ihes egiten lagundu zion Mikel *Antza*ri, hain justu (aurrez, besteak beste, *Marinel zaharrak* liburua ere dedikatu zion).

Poemen formari erreparatuz, jatorrizko poemen bertso-lerro ebakera, ahapaldien antolaketa edota puntuazioari loturiko hainbat elementu moldatu egin dira berridazketan. Poemetako testu aldaerei dagokienez ere, moldaketa eta eraldaketa askotxo barneratu ditu Sarrionandiak, orain arte azterturiko poema liburuen berrargitalpenetan baino askoz gehiago, inondik ere. Ez da oraingo gure asmoa eraldaketa guztiak banan-banan hemen zerrendatzea, baina arrazoi bategatik edo bestearengatik deigarriak iruditu zaizkigulako, hona hemen eraldaketen hainbat berri eta pare bat adibide zehatz.

Nonbait, abesti bihurturiko poemek jasan dituzte eraldaketa gutxien ("Gutunei koblak"; "Kiromantzidxe", "Lingua Vasconum Primitiae"…), Mendiguren editoreak berrargitalpenaren aurkezpenean jakinarazi zuenez: "Kanta duten poemak gutxiago ukitu ditu, esateko moduan ere nolabait finkatu egin dituelako formak horrek. Eta horrek galgatu du idazlearen eskua". Edonola ere, badira salbuespenak, eta abesti bilakaturiko "Aldaketarik aldaketa" poemaren bertsio berria da horren erakusle, abestiko jatorrizko poemaren zortzi ahapaldiak bere horretan mantendu arren, amaieran beste lau ahapaldi eransten baitira berridazketan, are, gaineraturikoa "&" grafiaren ondoren txertatuz. Izan ere, eta poeman gehituriko bertso-lerroetan esaten dena liburu osoaren berridazketara hedatuz, "Aldaketa bera da aldatzen ez dena".

Sarrionandiaren gainerako berrargitalpenetan gertatu bezala, oraingoan ere gehiago izan da jatorrizko testuari gehiturikoa, ezabatu edo kendurikoa baino. Ondorioz, liburuko atalekin eta epigrafeekin gertatu antzera, poemetan ere ordezkatu edota gaineraturiko elementuak nagusitzen dira. Gehiketak txertatzeko joerak direla eta, esanguratsua da askotan poemaren amaieran edota zehatzago, poema ixten duen azken ahapaldian gaineratzen direla moldaketarik nagusienak, poemaren amaiera aldatzearekin batera poema guztia eraldatuz. Horixe gertatzen da, besteak beste, "Aldaketarik aldaketa", "Munduari bira", "Otso gauak", "Ia gauerdian ailegatu naiz etxera", "Arimak", "Truke balioa", "Mundua ikusteko leihoak", "Zer egin", "Itzartu ezinik" eta "Belaun zaurituak" poemen bertsio berrituan. Eta baita "Afrikak eta Europak" narrazioan ere, berridazketan orrialde luze bat gehitzen baita ipuinaren amaieran, narrazioaren baitako ipuinaren ipuinondoaren ingurukoak aletuz hain zuzen, eta maitaleek intzestuaren tabuaz eta Europaz hitz-aspertu luzeagoan jarraituko dute berbetan.

Bestalde, beste zenbaitetan jatorrizko poemaren hasiera eta amaiera bera du poema berridatziak, baina poemaren baitako bertso-lerroetan eta ahapaldietan pilatzen dira berridazketan erantsitako testu berri esanguratsuak. Horixe gertatzen da, esate baterako, "Minotauroarena", "Gabriel Aresti", "Semealabadun semealabak", "Uharte ezezagunetako albisteak", "Mörlango portua", "Ez diren gauzak" eta "Aberriagatik hildakoak" poemetan.

Azkenik, badira gehiketak modu sistematikoan eransten diren poemak ere. Horren adibide, "Filma muntatzean bazterturiko planoak" poema narratiboa litzateke. Bertsio eraberrituan poeman zerrendatzen diren gertaera eszenen ondotik, nahieran baina sistematikoki, paragrafoaren amaieran txertatzen dira bereziki zinemagintza munduko hitz teknikoak edota bestelako xehetasunak: "*Fade in*", "walk-on", "Plano amerikanoa", "*Distance shot*", "Asinkronia", "Plano hurbila, xehetasunezkoa" eta gisako esamolde abar luzea erantsiz. Horrela, estilo ariketa bat baino hareago, poemaren izenburuak biltzen duen kutsu zinematografiko markatuago batekin poemaren muina modu eraginkorragoan transmititzen berrasmatzen duela esan daiteke.

Azkenik, poema guztien artean eraldaketarik gehien jasan duena dakargu hona, berrargitalpenean zenbait poema errotik aldatu direnaren adierazle gisa:

"Damuaren pelikula" (2013)	"Damurik ez" (1995)
Bizitza atzera bizi ahal banu film bat egiten den bezala, hasiera-hasieratik dena bestela montatu ahal balitz, zer ez nuke moztuko, zer ez nuke aldatuko! Bizitza berriro bizitzekotan, *remake* hobetua baino pelikula arras bestelakoa egingo nukeela uste dut.	Ene bizitza atzera bizi ahal banu filme bat bezala, dena hasieratik errepikatu ahal balitz, zer ez nuke moztuko, zer ez nuke tatxatuko, zer ez nuke aldatuko, zer ez nuke emendatuko! Filmea ber egiterakoan -remake- hobetua baino nahiago nuke filme arras

Baina damutu, zuek diozuen moduan damutu, nola damutuko naiz ba zeuei amore edo bake ematearren? Bortxa erabili dugula diozue, askatasun apur bat lortzen ahalegindu ginen bortxaz, zeuen betiko bortxa handiaren kontra. Bortxa gaitzetsi behar dugula diozue: hortixik hasi ginen. Guk bortxa uztea eta arbuiatzea, dena dela, ez litzateke aski, nahi duzuena guk zeuen bortxa onartzea eta laudatzea delako, zeuen polizia eta audientzia nazionalekin zeuen banku eta idazketariekin, eta zeuen moral xelebre horrekin: jendeak uko egin beharko lioke bortxari, zeuek izateko bortxaren monopolioaren jabe eta kudeatzaileak. Zer egiten duzue ba, gu bortxa erabiltzeaz damuarazteko, bortxa erabili baizik? Debekuak, kontrolak, atxiloketak, torturak, gure aurretik eta gure ondoren. Badakit zer den bortxa eta ikasi dut bortxari ezin zaiola bortxaz irabazi, eta bortxarik gabe ere ez, eta horixe da gure pelikuletako arazoa. Irabazlerik eta galtzailerik gabeko igualen gizartea nahi nuke eta ez dut irabazi nahi. Baina, zuek irabazi arren, ez naiz damutuko, ez dudalako irabazle izan nahi. Zeuentzat irabazle papera, ordua. Nik bizitzeko zazpi bizitza banitu ere (elezaharreko katuak bezala) ez dut uste emango nizuekeenik, ezta kapitulazioaren orduan ere, zeuen gustuko damurik ez zeuen pelikula handiaren aldeko argumentu handirik.	bestelakoa. Hala ere, ez naiz zuei amore, atsegin edo bakea ematearren ezertaz edo ia ezertaz damutuko. Ez naiz damutuko ez untziak eraikitzez, ez untziak suntsitzez, ez loreez ez labanez, ez polboraz ez andere biluziez, ez begitako euriez ez ene ahapaldi aldrebesez, ez aldean daramatzadan zauriez. Bizitzeko zazpi bizitza banitu ere katuek bezala ez dizuet ezta kapitulazioaren orduan ere zeuen nehurri eta gustokorik batere entregatuko .

"Damurik ez" poema "Damuaren pelikula" bihurtu den bezala, poemako muina ere eraldatu egin da eta ondorioz, ezin esan daiteke poema bera denik. Izatekotan, jatorrizko poema bihurtu da berridazketarako oinarri eta berridatzitakoak "damuaren semantikan" arakatzen jarraitzen badu ere, bestelakoa da poetaren ahotsa eta lerratzea, eta horretan denboraren garrantziak eta poemak eguneratzeko beharrak zeresan asko izan duela ondoriozta daiteke. "Damuaren pelikulan" poeman, gainera, Sarrionandiak *HINMY*ko beste hainbat poemetan eginiko beste aldaketa baten berri ere badugu, pertsona-marken eraldaketa, hain justu. Jatorrizkoan 1.pertsona singularrean agertzen zaigu "ni" poetikoa, eta poemako esanak 2.pertsona pluraleko "zuei" bati zuzentzen zaio. Bada, bertsio eraberrituan, "ni" poetiko eta "zuek" horiez gain, lehenengo pertsonako "gu" ere erabiltzen da eta, ondorioz, "zuek" vs. "gu" bat planteatzen du poemak. Aurrez ere aipatu dugu nola *MZ*eko "Ene

begiek…" nola bilakatzen den "Gure begiek…" *GP*en eta antzeko joerak nabarmentzen dira *HINMY*ko hainbat poemetan. Izan ere, jatorrizko poeman agertzen diren ahots edo pertsona-marka poetikoak aldatu egiten baitira berridazketan, bestelako konnotazio eta interpretazio batzuk erantsiz.

Horrela, "Ontzigintza" poemaren jatorrizko bertsioan "norbera" indefinitu bat erabiltzen da birritan ontzira nor igoko den zehazteko eta amaiera aldera, aldiz, 2.pertsona singularra ageri da "abia zaitezke" adierazteko. Berridazketaren ondoren, ordea, "norbera" horiek "gu" eta "geu" izatera pasatzen dira eta "abia zaitezke", orain, "abia gaitezke" bihurtu da. Bestetik, "Aberriagatik hildakoak" poemaren jatorrizko bertsioan ahots poetikoa ere 2.pertsona singularreko "zu" bati zuzentzen zaio, aberriagatik hil direnen inguruan kontuak eskatzeko, eta "zu" horri aurpegiratzen dio ondorengoa: "horrela egotea zer den jakin nahi baduzu/ ausart zaitez jende horrek galdutakoa galtzera". Aldiz, bertsio eraberrituan "zu" hori "zuek" bihurtuko da berriro ere: "Horrela egotea/ zer den jakin nahi baduzue/ ausart zaitezte jende horrengana hurbiltzen". Gainera, poemaren berridazketan ere ahapaldi oso bat txertatu da eta bertan are nabariagoa da ni poetikoaren aldarrikapena eta 2.pertsona pluraleko "zuek" horrekiko oldarra. Beraz, poema horien kasuan pertsona marken eraldaketan kolektibo ideologikoei eta "gu vs. zuek" dikotomiari zehatzago tira egin zaiola esan daiteke.

Bestalde, kolektibizaziorako joera horrez gain, badira bestelako pertsona-marka eraldaketak ere. "Badakizu zer den negua?" poeman, jatorrizko 1.pertsona singularraren erabilera 2.pertsona singularrera aldatzen da, "ni" poetikoa "zu" poetiko bihurtzen da, eta nolabait, poeta urrundu egiten da poemak jatorrizkoak iradokitzen zuen lehen eskuko iraganeko oroitzapenetik. "Kontserba fabrikaren aurrean" poeman ere antzera gertatzen da, 1.pertsona singularretik ("esan nion") 3.pertsonara ("esan zion mutilak") pasatzen baita poemako ahotsa, iragana atzean uztearekin batera iraganeko nia ere atzean utzi eta beste norbaiti gertatu balitzaio bezala kontatzen baita poemako eszena. Azkenik, alderantziko eraldaketa dakusagu "Biluzteko orduan" poeman, 3.pertsona singularraren erabileratik 2.pertsona singularrera egiten baita jauzi, "eskatu zidan" agertzen da jatorrizkoan eta "eskatu zenidan" bertsio eraberrituan, eta horrenbestez, eraldaketarekin poemako maitearen ahotsa hurbildu egiten dela esan behar da. Ikus dezakegunez, azken bi kasuetan bi maitaleren arteko oroitzapenak dira poemak mamitzen direnak eta pertsona-marken eraldaketak poemaren gaineko irakurketan ere eragin zuzena du.

Hainbat poemetan zenbait aldaerek duten esanahia ere esanguratsua da, sarritan izen propioei eragiten dieten heinean. Batetik, "Bereterretchen khantorea" poeman, Bereterretxeren jatorrizko baladatik berreskuraturiko "Maria Santzek ezin josiko ditu/ gure ispilu apurtuak" aipatzen zen Sarrionandiaren poeman, baina bertsio eraberrituan erreferentzia hori baztertu eta "amek ezin josiko dituzte/ gure ispilu apurtuak" berridatzi da. "Zer esan adarretan bizi direnez" poemaren jatorrizkoan, aldiz, "Nikolai Lenin" aipatzen da baina bertsio eraberrituan jatorrizko "Vladimir Ilitx Ulianov" izen deituren aldeko hautua egiten da. Bestetik, berrargitalpenean kenketak askoz ere

urriagoak direnez orain arte aipatu ez baditugu ere, deigarria da "Barkoxeko lürretan ez xerka Etxahun haren hatzaman nahiz zabiltzanak ondun" poemaren bertsio berridatzian ezabatu egin dela poemaren baitan jatorrizkoan birritan ageri zen "Pierre Topet Etxahun"-en aipua. "Truke balioa" poemaren berridazketako azken ahapaldi gehituan, bestetik, Ismael Sarrionandiaren heteronimoa agertzen da, bere buruari "Ez duzu ideiarik ere truke balioaz, Ismael. Kontuak az zaizkizu aterako!" kastigatuz.

Azkenik, bestelako xehetasunek eragindako testu aldaerak leudeke. Adibide, "Proposamen poetikoa" poemaren izenburua "Ofikzio kideentzako proposamena" tituluagatik eraldatzean, Sarrionandia barne-testuartekotasun estrategiez baliatzen da. Izan ere, "ofikzioa" neologismoa *Hitzen ondoeza* hiztegi-laneko 681. sarrerari dagokiona da, eta bertan ironikoki euskal idazleen inguruko definizio ironikoa eskaintzen du. Era berean, poeta edo idazle izaera ere lausoago biltzen da berrargitalpenean, poema horretan gaineraturiko "Nor ez da 'poeta' izenaz lotsatzen?" bertso-lerroaren manera ironikoan nahi bada, baina bestelako zehaztasun batzuk ere erantsiko ditu liburuan han-hemenka literaturaren jarduna ezbaian jarri eta distantziatik bada ere umorez aritzeko.

2.3.3.4. Ondorioak

Orain arte aztertu ditugun Sarrionandiaren poesia lanen berridazketak *IGB*, *KP* eta *HINMY*ren berrargitalpen eguneratuen eskutik burutu dira. Gainera, hiru argitaletxe arduratu dira edizio eraberritu horietaz (Pamiela, Susa eta Elkar, hurrenez hurren) eta uste izatekoa da berridazketa eta berrargitalpen prozesu bakoitzak bere ezaugarriak eta xehetasunak izan dituela. Dena den, Sarrionandiak bere poemen aukeraketa eta bertsio eguneratuak egiteko hautua jada 1987an erakutsi zuen *MZ* lanarekin, *IGB*ren berrargitaratzeko eskaintza baztertu eta bere lehendabiziko poema liburuko poema jakin batzuk aukeratu, eta apur bat moldatu ondoren, poema inedito berriekin bildu baitzituen. Gainera, *MZ* liburua ondorengo poemarioetako ernamuina ere bada aldi berean, bertan aurki ditzakegu ondorengo bere poesia lanetako aurreneko aleak, *Gartzelako poemak (1980-1985)* atala liburu bilakatuko baita 1991ean eta era berean, *MZ*eko "Tren luze eta bustiak" atala 1995ean kaletarturiko *HINMY*ko aurreneko atalaren aurrekaria da.

IGB, *KP* eta *HINMY* liburuetako poemen berridazketa dela eta, 2011n *KP* berrargitaratu zen, *NG* argitara eman zen urte berean, eta argitalpenaren berezitasun nagusiena da kartzelako garaian idatziriko 6 poema berri aurkezten dituela da. Horietako bat gazteleraz, "El palomar", eta hain justu poema horri loturik aurkituko ditugu Sarrionandiaren azalpen hitz bakanak, poema noiz eta non idatzi zuen argituz. Gainerakoan, liburuaren paratestuaren eraldaketak dira nabarienak (Lander Garroren azaleko irudi berria, Otamendiren hitzaurre berria, Ordorika eta Iturralderen jatorrizko edizioko testuak hitz-oste gisa kokatu dira, jatorrizko liburuko Josu Morenoren marrazkiak, aldiz, ez dira mantendu). Poemen paratestua eta poemetako testu-eraldaketak, ordea, oso urriak izan dira, nahiz eta zenbait xehetasun txiki erantsi poemen izenburu eta testuetan. Formari dagokionez ere,

berrargitaraturiko poemek ez dute jatorrizkoekin alderatuz bestelako bertso-lerro ebakera, puntuazio edo bestelako aldaerarik ageri.

2013an *HINMY* berrargitaratu zuen Elkar argitaletxeak eta paratestuko bestelako aldaketa guztiekin batera (edizio arruntagoa, azal berria, jatorrizko edizioko liburu barneko marrazkiak baztertu egin dira, egileak sinaturiko "Edizio berrirako abisua" hitzaurrea eta abar), liburuaren azalean zehazten da "Edizio berritua" dela. Eta hala izanik, jatorrizko bertsioarekiko hainbat eta hainbat aldaera erakusten ditu *HINMY*ren bertsio eraberrituak: aurkibidearen eta atalen berrantolaketa bestelakoa da (atal bat lekuz aldatu da, atal berri bat ere gehitu da eta ondorioz, jatorrizko poemak bestelako antolaketa bat dute eta beste zenbait poema ordenez aldatu da); poema askoren forma eraldatu egin da (bertso-lerro ebakera, puntuazioa eta beste), hainbat poemen izenburuak eraldatu egin dira (batzuetan hitz gutxiko aldaketekin baina baita errotikako ordezkatzeekin ere), epigrafe ugari gehitu eta eraldatu dira (bai atalen dagokienez eta baita poemetako aipuei dagokienez ere) eta, azkenik, poemetako testu-eraldaketak direla eta, zenbait poema bere horretan mantendu badira ere (abesti bihurturikoen kasuan, bereziki), poema bakoitzean aurki dezakegu eguneratzeren bat, eraldaketaren bat edota baita goitik beherako berridazketa adibideak ere.

2014an Pamiela argitaletxeak *IGB*en berrargitalpena kaleratu zuen. Bitxia da, *MZ* liburua argitara eman baino lehen Sarrionandiak berak adierazi baitzuen liburu hartako poema asko eta asko "ez zituela estimatzen" eta berrargitaratzekotan, zenbait poema soilik argitaratuko zituela, *MZ*en egin zuen bezala. Edonola ere, *IGB* berrargitaratu egin da, eta oraingoan ere, paratestuan nabarmentzen dira aurreneko eraldaketak (Yturralderen azaletik hasita). Sarrionandiak sinaturiko hitzaurre berria paratu dio egileak eta jatorrizkoarekin alderatuz, poema guztiek izenburua dute edizio berrian. Bestalde, *HINMY*ren edizio berrituan egin bezala, izenburu, epigrafe eta eskaintza asko eraldatu egin dira. Forma aldetik ere, hainbat poemetan puntuazioa erantsi eta bertso-lerroen ebakera zein ahapaldien antolaketa eraldatu egin da. Deigarria da, bestetik, *MZ* bildumarako moldatu eta berridatzi ziren *IGB* liburuko jatorrizko poemak berrargitaratzerakoan, ez direla kontuan izan orduan txertaturiko moldaketak. Beraz, hipotesi moduan bada ere, 2014ko edizio prestatzerakoan Sarrionandia jatorrizko 1981ko edizioko testuetan oinarritu dela ondoriozta daiteke.

Izan ere, eta egilearen poema argitalpenen askotariko lekukotzek adierazten dutenez, Sarrionandiarengan etengabea izan da jatorrizko poemaren baitan eraldaketak, moldaketak eta berridazketak burutzeko joera. Behin-behinekotasuna eta etengabeko bilatze ahalegin bat nabari da idazlearengan, poemak ez iraungitzeko behin eta berriz eraldatu eta eguneratu beharko balitu bezala, aldaketa baita berrargitalpenotan aldatzen ez den gauza bakarra, eite eta molde askotariko aldaketak gainera. "Damuaren pelikula" poeman adierazi bezala, zaila baita bizitza atzera bizi eta filma bat bailitzan hasieratik dena bestela muntatzea. Aldiz, poema eta ipuinekin egin daitekeela erakutsi du

Sarrionandiak eta ondorioz, mozketa, gehiketa eta aldaketa guztien eraginez jatorrizko poemen remake hobetua erdiestea bilakatzen da berridazketarako abiapuntu.

Azkenik, Sarrionandiak 2010ean *Moroak gara behelaino artean?* saiakera mardula argitaratu zuen. Bada, lan hori *¿Somos como moros en la niebla?* izenburupean gazteleraz argitaratu denean honako oharra irakur daiteke liburuko kredituetan: "Esta edición en castellano de la obra original *Moroak gara behelaino artean?* ha sido traducida por JAVIER RODRIGUEZ HIDALGO y revisada y ampliada por el autor" (Sarrionandia 2012: 6). Eta hain zuen, euskarazko jatorrizko edizioak 709 orrialde bazituen (542 + 160 oharrekin), gaztelerazko itzulpenak 973 orrialde ditu (858 + 108 oharrekin), nahiz eta argitaletxe berak argitaratu eta beraz, edizioa berdina da bi argitalpenetan (argazkiak, formatua, letra tamaina, etab.). *Deia* egunkarian eginiko elkarrizketan Luis María Okariz kazetariari (2012-12-2) azalpen hauek eman zizkion *¿Somos como moros en la niebla?* itzulpeneko gehiketez:

> Se amplían algunos temas, se introducen otros. Por ejemplo, al interlocutor vascoparlante no sentí la necesidad de plantearle el tema del valor de la lengua, porque pienso que tiene asumido ese valor. En castellano he introducido una línea de reflexión al hilo de *El oro de Caramablú*, de Johannes Urzidil. Era un escritor judío de Praga, amigo de Franz Kafka, y escribió un hermoso relato simbolista sobre el norte del País Vasco ambientado cuando al otro lado de la frontera se desarrollaba la Guerra Civil. La lengua, el tesoro de la montaña, es la pizca de oro que brilla en los labios de las personas; cada lengua en particular y el lenguaje como tal. He ampliado también el análisis de los conceptos de Miguel de Unamuno y Pío Baroja en relación a la política

Beraz, Sarrionandiaren kasuan, narrazioa edo poesia berrargitalpenetan aldaerak ezartzeaz gain, saiakeraren itzulpenean ere hainbat kontu aldatu eta gehitu ditu (200 orrialde baino gehiago) eta itzulpenean ere esku hartze zuzena izan du.

Izan ere, eta jarraian ikusiko dugunez, sorkuntza-prozesu baten bilakeran autoitzulpena edota kolaborazio motako itzulpena gauzatzen denean, sarritan jatorrizkoarekiko aldaerak jazotzen dira.

2.4. AUTOITZULPENGINTZA ETA KOLABORAZIO BIDEZKO ITZULPENGINTZA

Lefeverek "Translation is, of course, a rewriting of an orignal text" (1992: xi) dela defendatu zuen eta definizio hori are egiatiagoa bilakatzen da autoitzulpengintza edota egilearen eta itzultzailearen arteko kolaborazio bidezko itzulpena denean.

Egilearen itzulpena, autoitzulpena edo *self-translation* deiturikoa Anton Popovicek 1970 inguruan definitu zuen, egile batek jatorrizko obra beste hizkuntza batera itzultzean gertatzen dela berretsiz. Gainera, itzultzailea idazlea bera izaten denean, aurrez idatziriko lana berridazterakoan, bestelako itzultzaile batek eginda onargarriak izango ez liratekeen aldaketak egiteko askatasun eta ahalmen handiagoa izango du. Era berean, itzulpen bat egiterakoan idazlearen eta itzultzailearen artean

kolaborazio estua izan bada, antzekoa gerta daiteke, beti ere idazleak jatorrizko testua eraldatzeko eskumena izango baitu, Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?*en gaztelerazko itzulpenean gertatu bezala.

Euskal literaturaren arloan, autoitzulpengintzaren gaia Lopez Gasenik jorratu du *Autoitzulpena euskal haur eta gazte literaturan* (2005) saiakeran. Lan horretan, euskal haur eta gazte literaturan autoitzulpenak zenbait idazleren lana atzerrian ezagutarazteko izan duen garrantzia azpimarratzeaz gain, fenomeno honen inguruko beste hainbat gairen inguruan azterketa egitea du ardatz: hainbat euskal idazleren autoitzulpen ariketetatik abiatuz, bakoitzaren itzulpen-teknika azaleratzea kasu. Bestalde, Lopez Gasenik autoitzulpengintzaren beste ezaugarri intrintseko batzuk ere aztertzen ditu: elebitasuna, literatur sisteman itzulpengintzak duen papera, edota autoreak bere obra beste hizkuntza batera itzultzeko izan ditzakeen arrazoiak aipatzea, esaterako.

Elizabete Manterolaren tesian oinarrituriko *Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan* (2014) argitalpenean ere atal esanguratsua eskaintzen zaie autoitzulpengitzari eta kolaborazio bidezko itzulpengintzari. Hori horrela, eta Fichen esanei jarraiki, "autoitzultzaileak irakurketa eta idazketa lana egin beharrean, gainontzekoen modura, bi aldiz idatzi behar du testua; nolabait, birsortze ariketa bat egiten du" (Manterola 2014: 53). Eta autoitzulpena ohiko itzulpenentatik gertu egon badaiteke ere, sarritan sorkuntza-prozesutik gertuago egongo da, autoitzulpena jatorrizko testua eraldatzeko, moldatzeko eta berridazteko aitzakia izan baidaiteke idazlearentzat. Horrela, idazle izatetik irakurle izatera pasatu ondoren, berriro idazteari eta jatorrizkoa berridazteari ekingo dio originala itzultzen ari den egileak. Ondorioz, jatorrizko testuaren eta autoitzulitakoaren artean askotan alde nabarmenak egongo dira, eta askotan egokiagoa da bertsioez hitz egitea.

Euskal idazleen artean, asko dira autoitzulpengintza landu dutenak eta Ibarluzearen 2015eko "The Translation *Habitus* of Contemporary Basque Writers" artikuluak erakutsi bezala, euskal idazleen artean ere askotariko joerak daude itzulpegintza edota autoitzulpengintza joarratzerakoan. Horrela, Aurelia Arkotxarentzat itzulpena sorkuntzaren parte da, Sarrionandiarentzat komunikazio ekintza ororen atzean itzulpena dago, Jon Alonsok dio autoitzulpenaren kasuan ezin dela itzulpenaz hitz egin, bertsioez baizik, eta beste hainbat autorek, Kirmen Uribek esaterako, nahiago dute jatorrizkoarekiko fideltasuna bilatzen duten itzulpenak.

Are, zenbait idazlek autoitzulpena jatorrizko testuaren sorkuntza-prozesuaren baitan txertatzen dute eta horrenbestez, testua jatorrizko hizkuntzan idatzi ahala autoitzuli egiten du, sarritan autoitzulpenaren eraginez jatorrizkoa ere eraldatuz. Aldibereko prozesuak izanik, Manterolaren iritziz agian egokiagoa litzateke "sorkuntza elebiduna" deitzea autoitzulpengintza beharrean. Adibideen artean, aurrez aipatu dugun Arcocha-Scarciak ikerturiko Juan Mari Lekuonaren

Mimodramak eta ikonoak lanaren idazketa prozesua aipatu behar dugu, edota aurrerago aztertuko ditugun Atxagaren autoitzulpenak eta kolaborazio bidezko itzulpenak[62].

Azkenik, Manterolak eginiko galderei helduko diogu: izan dal dezake autoitzulpenak jatorrizkoaren maila bera? Izan ere, hizkuntza gutxituetatik hizkuntza nagusira itzultzerakoan, itzulpen alografoekin alderatuz autoitzulpenak bestelako *status* bat bereganatzen du. "Modu horretan, baina, autoitzulpen hori behin betiko testu bihurtzen da, autorearen eskutik pasa denez, bere bermea daukalako. Eta bigarren bertsio hori, hizkuntza nagusian egina izanagatik, kanoniko bihur daiteke, jatorrizkoari behin-behinekotasun bertsioaren izaera emanez" (ibid.: 65). Are, "autoitzulpena gainontzeko erdaretako itzulpenetarako testu kanoniko bihurtzen da ia beti, jatorrizkoaren kaltetan" diotso Lopez Gasenik (2005: 47) baina ikuspegi genetikoaren arabera, idazleak parte hartzen duen berridazketaren azken urratsa bada kanonikoena, autoitzulpenaren kasuan idazleak itzulitako edo gainbegiratutako testua izan beharko litzateke kanonikoena, ezta? Askotan aipatu da *Obabakoak*en kasua eta gure aldetik aurrerago ere helduko diogu gai honi.

[62] Berriki, Itxaro Borda honela mintzatu da bertsio elebidunean kaleratu duen *Ultimes déchets* liburuaren sorkuntza prozesuaz: "Euskaraz egin dut. Euskarazkoa zuzendu eta gainerateko guzia egin, eta beste hiru hilabete eman ditut frantsesezkoaren egiten. Frantsesezkoa moldatzean garapen batzuk sortu zaizkit, eta horiek berriz landu ditut euskarazko bertsioan. Bi hizkuntzen artean elkar aberaste joko sinboliko bat izan da" (Arbelbide 2015)

3. RAMON SAIZARBITORIAREN *EGUNERO HASTEN DELAKO*REN SORTZE PROZESUA AZTERGAI

3.1. SARRERA

Lan honen hasieran aipatu bezala, Literatura eta Literatura Zientzia (Euskal Literatura) doktorego programako Ikasketa Aurreratuen ziurtagiria eskuratzeko *Kritika genetikoa eta idazketa-prozesuaren berreraiketa* izenburudun ikerketa aurkeztu nuen 2007an. Testu-genetikaren oinarrizko teoriak eta aurre-testuak aztertzeko metodologia labur azaldu ostean, testu azterketaren atalean, Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* nobelaren bi edizioren erkaketarekin batera, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*ren bi edizio aztertu nituen: 1969ko lehendabiziko edizioa eta 2007koa, hain zuzen.

Saizarbitoriaren *opera prima* aztergai gisa hautatzeko arrazoien artean, lehenik eta behin, *Egunero hasten delako*[63] nobelak euskal literatura garaikidean izaniko garrantzia aipatu beharko litzateke, 1969an argitaratu zenetik, euskal nobelagintzaren modernizazioaren mugarri bilakatu baitzen. Dena den, hautaketarako bazen pisuzko beste arrazoi bat: 2007an egileak berridatzi egin zuela, aurrenekoz argitaratu zenetik ia berrogei urtera. Gainera, argitalpen horretan Saizarbitoriaren hitzaurre autografoa erantsi zen.

Horrenbestez, *EHD* nobelak jasandako bilakaeraren berri emateko asmoz, 1969ko eta 2007ko edizioetako aurreneko bost kapituluak zehatz-mehatz aztertu nituen, lagin mugatua izanik ere, nobelako testuak jasandako eraldaketen zantzuak azaleratu nahi nituelako ikerketa sakonagoen hastapen gisa.

Beraz, kapitulu honetan *EHD* nobelaren bilakaera testualaren berri eman nahi dugu eta horretarako, lehendabizi, eskuratu ahal izan dugun 1968ko eskuizkribuaren deskribapena eta berezitasunak azaleratuko dira. Jarraian, 1968ko aurre-testua eta 1969ko lehendabiziko edizioa erkatuko dira eta azkenik, 2000ko edizio zuzendu eta eguneratua 2007ko berridazketarekin alderatuko da, tartean izan diren nobelaren bestelako berrargitalpenak alboratu gabe.

[63] Hemendik aurrera *EHD*.

3.2. *EGUNERO HASTEN DELAKO*: 1968KO ESKUIZKRIBUAREN AZTERKETA

Saizarbitoriaren *EHD* nobelak berrargitalpen asko izan ditu eta esan bezala, egileak berak berridatzi egin du bere *opera prima* jatorrizko argitalpenetik 38 urtera. Nobelaren sortze-prozesuaren bilakaera ahalik eta osoen ikertzeko asmoz, hots, testu-genesiaren azterketa sakona egiteko, ordea, aurre-testuak ezinbestekoak dira. Hori horrela, Saizarbitoriarengana jotzea erabaki genuen *EHD* nobelaren argitaratu gabeko lekukotasun idatziak eskuratzeko asmoz.

Beraz, idazlearen eskuzabaltasunari esker eskuratu ahal izan genituen, gutun-azal baten barruan, *EHD*ren 1968ko eskuizkribuaren kopiak (ikus 3. ERANSKINA[64]).

3.2.1. Deskribapen orokorra: orrialdeak eta zenbatze sistema

Ezer baino lehen, bi aldetara eginiko jatorrizko eskuizkribuaren zuri-beltzeko fotokopiak direla zehaztu behar da. Izan ere, ezaugarri horrek azterketa genetikoa mugatu egiten du neurri batean, idatzitakoren inguruko koloreen edota tintaren xehetasunak ez baitira igartzen eta ondorioz, ezin zehaztasun horiek kontuan izan ikerketan: sarritan tinta-kolore jakin baten erabilerak idazketa-aldiak multzokatzeko pistak ematen ditu, baita zuzenketa eta proposamen alografoen berri xeheagoa ere.

DIN-A4 tamainako orri solteek osatzen dute aurre-testua baina, tintarekin gertatu bezala, fotokopiak izanda ezin ondorioztatu daiteke jatorrizko eskuizkribuaren orriek nolako neurria duten zehatz-mehatz, besteak beste, fotokopiak tamainaz eraldatutakoak izan daitezkeelako.

Azkenik, jatorrizko orrialdeen ezaugarriak direla eta, orrialde koadrikulatuak direla esan behar da, hau da, laukitxotan banaturiko orrialdeak direla eskuizkribukoak. Beraz, azterketa genetikoa burutzeko fotokopia solteak izanik, ezin jakin jatorrizko eskuizkribua koaderno bati dagokion edota, aldiz, horri solteek osatzen duten. Edonola ere, fotokopietako orrien ezker eta eskuin aldeetan zulotxo biribilen aztarnek salatzen dutenez, orri solteak karpeta batean batzeko eta sailkatzeko aukera ematen duten gisako orriak lirateke. Halere, ezin jakin jatorrizko eskuizkribua bat egindako orriek edota orri solteek osatzen zuten, gerta daitekeelako hasiera batean koaderno bateko orriak izan eta ondoren orriok eraustea, jatorrizko eskuizkribua osatuz.

Aurre-testuen orrialde kopuruari dagokionez, bi aldetara idatziriko 42 orri edo 84 orrialde dira guztira. Jatorrizko orrialde asko zenbatuta daude, behean ezkerraldean, baina orrien zenbaketa ez da sistematikoa eta, bestetik, hainbat zenbatze arazo atzeman daitezke. Kritika genetikoaren metodologiei jarraiki, eskuizkribuak antolatzeko foliotan zenbatzeko sistema (f°1r; f°1v; f°2r…) baliatu

[64] Era berean, eskuizkribuko laginik esanguratsuenen transkripzio diplomatikoak ere gauzatu ditugu eta 4. ERANSKINEAN bildu ditugu.

behar da, aurre-testuetako orrialde asko zenbakituta egon arren, orrialde guztiak identifikatzea eta modu ordenatu batean lan egiteko bitartekoak izateko.

Dena den, folio bidezko zenbakitzea burutzearekin bat, jatorrizko lekukotasunaren zenbakiak baliatu eta aurrez zenbakitu gabeko orrialdeak orden horren arabera zenbakitzen ere saiatu gara, badaezpada, eskuizkribuaren zenbakitzearen ordena berreraikitzen saiatzeko. Ondorengo taulan, beraz, agerian jarri nahi dira, batetik, foliotan zenbakituriko orrialdeak; bestetik, orrialde horiek aurrez zuten zenbakia ondoan; eta azkenik, kortxete artean, hastapen azterketan guk esleituriko zenbakiak.

Orriaren *recto* aldea	Orriaren *verso* aldea
fº1r →[0]	fº1v →[1]
fº2r →[2]	fº2v →[3]
fº3r →[4]	fº3v →5
fº4r →[6]	fº4v →7
fº5r →[8]	fº5v →9
fº6r →[10]	fº6v →11
fº7r →[12]	fº7v →13
fº8r →[14] (13ren jarraipena baita)	fº8v →17 (15 eta 16 zenbakiak falta dira)
fº9r →[18]	fº9v →19
fº10r →20 (19ren jarraipena da)	fº10v →22 (21 zenbakia falta)
fº11r →24 (22ren jarraipenik ez baina 23 falta)	fº11v →[25]
fº12r →26	fº12v →[27]
fº13r →28	fº13v →[29]
fº14r →30	fº14v →[31]
fº15r →32	fº15v →[33]
fº16r →34	fº16v → 36 (34ren jarraipenik ez eta 35 falta)
fº17r →[37]	fº17v →38
fº18r →[39]	fº18v →40
fº19r →[41]	fº19v →42
fº20r →[43]	fº20v →44
fº21r →[45]	fº21v →46
fº22r →[47] (~~46~~ ageri da, baina 46ren jarraipena da)	fº22v →48
fº23r →[49]	fº23v →50
fº24r →[51]	fº24v →52
fº25r →[53]	fº25v →54
fº26r →[55]	fº26v →56
fº27r →[57]	fº27v →58
fº28r →[59]	fº28v →60
fº29r →[61] (60ren jarraipena baita)	fº29v →64 (61en jarraipenik ez eta 62 eta 63 falta dira)
fº30r →64(errepikatua dago baina 64ren jarraipena da)	fº30v →66
fº31r →[67]	fº31v →68
fº32r →70 (68ren jarraipenik ez baina 69 falta da)	fº32v →[71]
fº33r →72	fº33v →[73]
fº34r →74	fº34v →[75]
fº35r →76	fº35v →[77]
fº36r →78	fº36v →[79]
fº37r →80	fº37v →[81]
fº38r →82	fº38v →[83]
fº39r →84	fº39v →[85]
fº40r →86	fº40v →[87]
fº41r →88	fº41v →[89]
fº42r →[90]	fº42v →[91]

Taulan zehatz-mehatz ikus daitekeenez, egileak orriak zenbatzeko erabiliriko modua ez da sistematikoa. Lehendabiziko zenbakia 5. orrialdean hasten da eta 13. orrialdera arte zenbaki bakoitiak dira zenbatzen direnak (orrien *verso* aldean, fº3-fº7 bitartean, hain zuzen). 13aren hurrengo zenbakia, aldiz, 17a da (fº8v) eta beraz, 15. zenbaki bakoitia faltako litzateke (eta baita balizko orrialde horren atzeko aldea ere, hots, balizko [16] orrialdea). Aldiz, fº8r orrialdeari [14] zenbakia esleitu diogu, izatez egileak zenbaturiko 13. orrialdeko testuaren jarraipena den heinean.

19. zenbakiaren ondotik, ordea, zenbaki bikoitiak zenbatzen dira eskuizkribuan, 20-34. arteko orrien *recto* aldean, baina tarte horretan ere badira zenbatze arazoak erakusten dituzten adibideak. Hasteko, 20. zenbakiaren ondoren 22.a agertzen da, aurrekoaren jarraipenik ez duen testua, eta beraz, 21. zenbakia faltako litzateke; era berean, 22aren ondorengo zenbakia 24a da eta ez denez 22ko testuaren jarraipen, hor ere 23. zenbakia falta da.

Ondoren, egileak zenbaki bikoitiak zenbatzen jarraitu arren, orriaren *verso* aldean zenbatzen hasiko da 34 *recto*aren ondotik 36 *verso*a zenbatzen duenean, fº16aren bi aldeetan hurrenez hurren. Beraz, 35. zenbakia faltako litzateke. Aldiz, 36tik 60ra bitartean ez dago zenbatze arazorik. Hori bai, 46 zenbakiaren ostean zirrimarraturiko ~~46~~ ageri da, errepikapen errata baten ondorioz ezabaturiko zenbakia, izatez ~~46~~ko testua 46. orrialdekoaren jarraipena baita. Horregatik esleitu diogu [47] zenbakia, zenbakia zirrimarratuta egon arren egileak ez duelako beste zenbakirik eransten.

Bestetik, idazleak 60 zenbakia erabiltzen du fº28v izendatzeko eta ondoren zenbatzen duen hurrengo fº29v orrialdeak 64 zenbakia darama. Aldiz, tartean dagoen fº29r orrialdeari balizko [61] zenbakia legokioke, izatez testua 60. orrialdearen jarraipena baita. Beraz, tarte horretan falta zaizkigun orrialdeen zenbakiak 62a eta 63a dira. Bestetik, 64 zenbakia errepikatu egiten da bi orrialdeetan baina uste izatekoa da bigarren 64a errata baten ondorioa izan daitekeela, aurrez 46 orrialdearekin gertatu bezala. Izan ere, fº30r orrialdeko testua fº29v orrialdeko testuaren jarraipena da eta ondorioz, izatez [65] behar luke.

Azkenik, fº31v aldean zenbaturiko 68 zenbakiaren ostean fº32r aldean zenbaturiko 70a ageri da, eta aurreko testuaren jarraipenari ez dagokionez, hor ere 69. zenbakia falta da. Amaitzeko, 70 orrialdetik 88ra bitartean, orrialdeak *recto* aldean zenbatzen dira eta ez da zenbatze arazorik nabarmentzen.

Ondorioz, eskuizkribuko zenbaki-saltsa horrek, hots, zenbakiak falta izateak, oraintxe orriaren *recto* aldea zenbatzea eta oraintxe *verso* aldea, zenbaki bakoitiak zein bikoitiak erabili izanak eta abar, ikerketa genetikorako hainbat auzi planteatzen ditu: idazketaren uneren batean, koadernoko zenbait orri erauzi egin ote dira? Zenbatze arazoak egilearen zenbaketa akats gisa ulertu behar ote dira? Agian, jatorrizko eskuizkribuan orrien alde bakarra erabili da idazterakoan eta bi aldetarako kopiak egiterakoan batu dira izatez banatuta zeuden orrialdeak? Egileak aurre-testuak ikertzaileari pasatzerakoan orrialde batzuk kentzea erabaki ote du?

Galdera asko egin daitezke baina, guztiak ere, argitzeko nekezak diren hipotesi gisa jorratu behar dira. Azken batean, kritika genetikoaren metodologia aplikatu eta aurre-testuen dosier genetikoa berreraikitzeko lanean diharduen ikerlariak eskura duen materiala soilik baliatu behar baitu. Horregatik da, beraz, garrantzitsua fº bidezko zenbaketa sistema, azken batean, eskuizkribuko orriekin zehatz-mehatz zer gertatu den jakin gabe ere, ikertzaileak bere esku duen materiala zenbatzeko modu sistematikoa eta ordenatua baita. Edonola ere, egileak bere garaian erabilitako zenbakiak ere aintzat hartu behar dira, ikusi dugunez, hainbat auzi eta hipotesi ondorioztatu daitezkeelako kontu honen inguruan.

3.2.2. Eskuizkribuaren datazioa

Aurre-testuak datatzea betebehar esanguratsua da idazketa prozesuak kronologikoki izan dituen eraldaketak eta bilakaerak zedarritzeko asmoz. Kasu honetan, aurre-testu edo eskuizkribu bakarra dugu eta amaieran, gainera, fº41r orrialdean, data konkretu bat ageri da: "Fribourg – 1968'go – Aprillakren 25". Hain zuen, data hori berori aipatzen da *Egunero hasten delako* nobelaren lehendabiziko argitalpenaren testu amaieran (eta baita ondoren egindako berrargitalpen guztietan ere). Baina argitalpenetako data eskuizkribuaren amaierako dataren keinu gisa ulertu beharrean gaude, liburua 1969ko azaroan eman baitzen argitara eta aurrerago ikusiko dugunez, eskuizkribuko testuaren eta argitalpenekoaren artean eraldaketa asko daude.

Beraz, nahiz eta nobelaren amaieran data hori agertu eta "idazketa 1968ko apirilaren 25ean burutu zela" (Hernández Abaitua 2008: 103) iradoki arren, data horrek eskuizkribuaren idazketa aldi zehatz baten amaiera iragartzen duela azpimarratu behar da eta idazketa prozesua ez zela data horretan erabat amaitu. Izan ere, esku artean dugun aurre-testua erredakzio dosierrari edo obraren zirriborro nagusiari dagokiola ondorioztatuko dugu, nobela osatuko duen testuaren oinarriak eskuizkribuan izanik ere, oraindik zuzenketa markak eta beste ageri direlako.

Era berean, bada beste datu bat nobela ez zela 1968ko apirilaren 25ean amaitu berresteko. Hernández Abaituak gogorarazten duenez, *EHD*n esplizituki aipatzen da Pablo VI.ak idatziriko *Humanae Vitae* entziklika eta abortuaren kontrako idatzia 1968ko uztailean eman zen argitara. Honela argudiatzen du Hernández Abaituak:

> Ez dugu uste data-desfase hau oso garrantzizkoa denik. Esplikazio bat baino gehiago eman daiteke honetaz: eleberriaren idazketa esandako datan bukatu zen eta entziklikaren aipamena zuzenketak egiterakoan jarri zen; argitaratu baino lehen filtrazioz ezagut zitekeen, argitalpen oharrak egin baino lehen, eta abar (ibid.: 124)

Aldiz, eskuizkribua eskuan, esan dezakegu argitaraturiko *EHD* nobelaren amaieran agertzen den data, 1968ko apirilaren 25a, eskuizkribua edo zirriborro nagusia amaitu ostean ipinitako data dela. Nabarmentzekoa da, ordea, idazketa aroa ez dela hor amaitzen, ondoren etorriko baitziren zuzenketa aldia, argitaratu aurreko aldia eta argitalpen aroa. Eta uste izatekoa da *Humanae Vitae* entziklika

argitaratu zenean nobelan aipatzea erabaki zuela egileak, ziurrenik sorkuntza prozesua artean ere argitalpen aurreko aroan zegoelarik.

Bestetik, eskuizkribuaren berezitasunen artean, sarreran hainbat paratestu edo ohar daudela da. Horietako batean, egileak "HITZ AURREA" gisa izendatzen duenekoan (fº2r)[65], idazketa prozesuaren hasiera aipatzen du idazleak: "Esamin bat bukatu ondoren, amabost eguneko bakazioak, oraingo hau egiteko beta heman dite".

Beraz, eskuizkribuaren amaieran 1968ko apirilaren 25a zehazten denez, badirudi hamabost egun aurretik ekin ziola idazketari eta, beraz, *EHD* nobela bilakatuko den idazketa prozesuaren hasiera data, gutxi gorabehera, 1968ko apirilaren 10aren inguruan kokatu beharko genuke.

3.2.3. Paratestua eta eskema

Hurrengo urratsa, izatez, definitibotzat hartzen den eskuizkribua eta zirriborro aurrekariak parez pare harremanetan ezartzea litzateke; baina gure kasuan aurre-testuen lekukotasun bakarra dugunez, ezinezkoa da zeregin hori burutzea. Horren ordez, eskuizkribuan aurkitu ditugun berezitasunak aipatuko ditugu jarraian, hainbat elementuk berebiziko garrantzia baitute idazketa prozesuaren aldiak zehazteko.

Horrela, aurrean duguna eskuizkribua izan arren eta, beraz, nobelako testu definitiboa izango dena oraindik eginbidean legokeen, paratestu gisa izendatu daitezkeen atalak daude eskuizkribuan. Zehazki, peritestuarekin (Genette 1987: 10) lotu daitezkeen elementuak, nahiz eta izatez peritestua, bereziki, argitalpen eta edizio uneko kontuek definitzen duten (izenburua, azala, aurkibidea, ilustrazioak, epigrafeak, hitzaurreak, oharrak, etab.). Dena den, eskuartean argitaraturiko liburuaren ordez eskuizkribua izan, liburuetako peritestuarekin bat egiten duten hainbat osagai aurki daitezke zirriborroan:

- fº1r: Azal gisa, orrialde zuriaren erdialdean "EGUNERO / HASTEN DELAKO…" titulua maiuskulaz idatzita dago eta gorago, diagonalki eta gorako norabidean idatzita, "Dougynon oral"[66] hitzak daude.

- fº1v: "EGUNERO HASTEN DELAKO" titulua maiuskulaz, orrialdearen eskuinaldean, oso behean.

[65] Esan bezala, kapitulu honetan parentesi artean aipatuko diren eskuizkribuko orrialdeak kontsultagarri daude 3. ERANSKINEAN. Bertan, *EHD* eskuizkribuaren jatorrizko kopiaren bertsio eskaneatu osoa bildu dugu. Aldiz, 4. ERANSKINEAN, hautaturiko lagin zehatzen transkripzio diplomatikoak eskaintzen dira.

[66] Presaka harturiko ohar baten traza dute hitzok. "Dougynon" hilekoarekin zerikusia zuen hormona-medikamentu baten izena zen eta 60ko hamarkadan eta 70ko hasieran haurdun zeudela uste zuten emakumeek abortuak eragiteko baliatu zuten. Saizarbitoriaren *EHD* nobelan (eta eskuizkribuan jada) "Abortsone" izeneko abortiboa agertzen da, izen asmatua nonbait, baina "Dougnynon" medikamentuak nobelan aipatzen diren antzeko erreakzioak eragiten zituen. Hain zuzen, jaiotako umeetan malformazioak eragiten zituelako debekatu egin zen "Dougnynon" 1980an. Beraz, nahiz eta nobelan "Abortsone" izendatu, zinez atzean dagoen medikamentua "Dougynon" litzatekeela salatzen du ohar honek.
Iturria: http://en.muvs.org/contraception/pregnancy-tests/duogynon-id1614/ [2015/05/09an atzitua].

- fº2r: "HITZ AURREA" izenburuaren ondotik nobelaren idazketaren inguruko egilearen azalpenak biltzen dira.

- fº2v: Nobelako emakumezko protagonistari eginiko eskaintza litzateke.

- fº3r: Aipu modura, nobelako tesietako bat agertzen da galdera erretoriko gisa planteatuta.

Eskuizkribuaren erdialdean, bestalde, fº20r orrialdean hain zuzen, testuaren idazketa gelditu eta nobelako pasarteak eta ekintzak izango direnaren halako eskema moduko bat ageri da, albo-ohar baten bidez fikzioko gertakariak bi hilabetera mugatzen direla zehatz argituz. Deigarria da, aurreneko bi ekintzak ("~~Estazioan~~"; "~~G. Reflexioak haurdun dagoela konturatzean~~") eta "bi illabete" hitzak euskaraz idatzita badaude ere, hortik aurrerako guztia gazteleraz idatzita dagoela ("Ensayo"; "Medico"; "Descripción"; "Telefono Jean Louis"; etab.).

Horren harira, eskuizkribuan zehar testuaren inguruko egilearen zuzenketa, inpresio eta metakomentarioak ere aurkituko ditugu eta horietatik batzuk euskaraz daude ("landu", "luzatu", "egin" eta abar) eta besteak, aldiz, gazteleraz ("2ª parte", "VALE con sensaciones", "Descripción", "Agrandar!!"; "Sigue escribiendo cuando entra" eta abar). Beraz, kasu honetan ere argi geratzen da idazle elebidunek edo eleaniztunek sarritan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituztela sorkuntza prozesuaren unean eta eskuizkribuan. Izatez, ez da itzulpenak eginez jatorrizko testua eraldatzen duen idazketa elebiduna, baina ikus daiteke bi hizkuntza erabiltzen direla eskuizkribuan idazterako orduan.

3.2.4. Testuaren ulergarritasuna, zirrimarrak eta bestelako zeinuak

Ulergarritasunaren aldetik, eskuz idatziriko testua izateko garbia eta argia dela esan behar da, bereziki aurre-testuaren lehendabiziko erdia, eta hori oinarrizkoa da deszifratze lanak eta transkribaketak gauzatzeko[67]. Gainera, aurre-testuen bereizgarrietako bat zirrimarrak dira, mugimenduan dagoen idazketaren adierazle, eta eskuartean dugun eskuizkribuan zirrimarra azpiko testuak ere ulertu egiten dira hein batean. Beranduago ikusiko dugun bezala, ordea, zirrimarren artean ere mailak egin daitezke eta zirrimarratzeko modua ere ezberdina izan daiteke testu zati batean edo bestean.

Bestelako hainbat zeinu ere badira eskuizkribuan, marra, gezi, izartxo, gurutze zein halakoak eta hauen esanahia zehaztea izaten da beti zeregin nekezena. Halako markak konbentzio ezagunik jarraitzen ez duten norberaren erabilerara mugatzen dira sarritan, hots, zeinuok norberaren idiolekto idatziaren parte direla ere esan daiteke eta beraz, ez da erraza izaten euren esanahi semiotikoa

[67] Ezaugarri hori dela eta erabaki dugu eskuizkribua bere horretan eranskin gisa aurkeztea eta, aldiz, transkribaketa diplomatikoa egiteko lagin esanguratsu bat aukeratzea. Aurrez aipaturiko elementu peritestualekin batera, eskuizkribuko kontakizunaren hasierako pasartea, amaierakoa eta zirrimarrak ageri diren tarteko pasartea transkribatu dira.

zehaztea. Are gehiago lekukotasun bakarra izanik, zeren eskuizkribuko pasarte batzuk bereziki markatuak eta modu adierazgarri batean sailkatuak izan badira ere, ezin zehatz jakin zein asmorekin egin zen markatze hori. Adibidez, eskuizkribuaren bigarren erditik aurrera, hain justu lehen aipaturiko eskemaren ondotik, pasarte bat baino gehiago daude marraz inguratuta eta zenbaitzuk onespena adierazten duen "VALE" metakomentarioarekin daude. Irudi luke sailkatutako pasartea berridazteko edota beste nonbait bere horretan txertatzeko edo kopiatzeko aukeratua izan daitekeela; baina esan bezala, lekukotasun bakarra izatean ezin jakin ondorengo idazketa aldiren batean bestelako eraldaketarik izan ote duen eta beraz, zenbait zeinu deskribatu bai, baina interpretatzea ezinezkoa suertatzen da.

3.2.5. Zuzenketa proposamenak

Eskuizkribua alderik alde, egilearena ez den idazkeran, zuzenketa proposamenez beteta dago. Ortografiaren aldetik, bereziki, /h/, /s/ eta /z/ hizkiak dira zuzenketa gehien erakusten dutenak eta eskuarki, hitzaren baitan eta erraturiko hizkiaren gainean idazten dira. Zenbait aditz forma, sinonimo edota zenbait hitzen euskal aldaerak edo hautuak ere proposatzen dira eta eskuarki, gisa horretako proposamenak zuzendu beharreko hitz edo esamoldearen gainean kokatzen dira: "kantuan aritzea" > "kantuan ari izatea"; "giratzen naiz" > "giratzen dut nire burua"; "leitzen zaude" > "leitzen ari zera"; "begiratzen" > "behatzen"; "fila" > "herrenkada"; "pretil" > "harresi"; etab.

Gisa honetako zuzenketa alografoak eskuizkribuaren idazketa autografoaren ostekoak izaten dira, idazleak aurre-testua beste norbaiti pasa eta zuzentzaileak eskuizkribuan eskua sartzen duenean, behin zuzendutakoan, ondoren berriro egileari itzultzeko. Hori horrela, Saizarbitoriak eman izan du xehetasunik eskuizkribuaren idazketa eta zuzenketa aldiaren inguruan:

> *Egunero hasten delako* koaderno batean idatzi nuen, eskuz noski, eta Iboni gutunontzian utzi nion. Biharamunean, oso ondo zegoela idatzita esan zidan (…). Asko lagundu zidan txukuntzen, eta berak nobela horretan zerbait aurkitu ez balu, ziur asko ez nuen argitaratuko, eta, beharbada, ez nuen literatura gehiago egingo (Etxeberria 2002: 226-227).

*EHD*ren 2007ko berridazketaren hitzaurrean egileak errepikatu egiten du eskuizkribuaren zuzenketa Ibon Sarasolak burutu zuela eta asko eskertu zion bultzada eta laguntza sortzailea eskaini zizkiola Sarasolak.

Bestetik, lanaren hasierako harreraz diharduenean, "argitaratu aurretik iritzia eskatuz pasatu nion idazle ezagunen batek ere ez zuen entusiasmo handirik azaldu" (Saizarbitoria 2007: 12) gaineratzen du. Eta puntu honetara iritsita, zalantza bat plazaratu beharrean gaude. Badirudielako eskuizkribuko zuzenketen artean, Sarasolaren eskuaz gain, beste eskuren bat ere ibili zela, idazkera aldetik badirelako aldeak zuzenketa batzuetatik beste batzuetara (bereziki, [z] edota [rr] idazterakoan nabaritzen dira ezberdintasun gehien). Aurrez aipatu dugu fotokopiak izateak eta tinta-koloreen

xehetasunik ez izateak behaketa genetiko zehatza egitea mugatzen duela; esaterako, zuzenketak kolore ezberdinez eginak izango balira gure hipotesia frogatzeko baliabide gehiago izango genituzke; demagun, nabaritu dugun grafia ezberdintasunez gain, aipatu zuzenketok kolore ezberdintasunen bat ere eskainiko balute. Edonola ere, eskuizkribuko zuzenketa proposamenei tentuz erreparatzen badiegu eta nahiz eta grafologian adituak ez izan, badirudi Sarasolaz gain beste norbaiten zuzenketak ere izan zirela tartean. Hori bai, egileak horri buruz azalpenik eman ez duenez ezin genezake susmo hori frogatu.

Zuzenketa proposamenekin batera, gainera, zuzentze-lanak egin dituenaren metakomentarioak ere ageri dira eskuizkribuan. Horietako batzuk, egilearekiko konfiantza erakusten dute, hala nola, berritsuaren pasartean munstrokeriari buruzko lerroen ondotik idazleari zuzenduta "Kafka txiki!!" (fº11v) laudoriozkoa idazten denean. Era berean, testuko baieztapena zalantzan jarri eta idazleari bere desadostasuna erakusten dio, "[ez diat uste…]" (fº9v), berriro ere berritsuaren adierazpenen ondotik: "Ba esaten nizun bezala, bai bai, frantsesena, hortan nagusi dire. Nik askotan pentsatu izan dut, batxileratoan, materia bezala dutela edo, gure herrian porrusalda egiten bezala, etxe bakoitzean amak alaberi erakusten dietela".

Metakomentario hauen artean ere, zuzenketa proposamenei buruz ondorioztatu dena berretsi behar da. Izan ere, egilearen metakomentarioez gain, badirudi idatzi diren bestelako oharretan ere esku batek baino gehiagok hartu duela parte. Hori horrela, aurrez aipatu ditugun bi adibideetako idazkerak ("Kafka txiki!!" eta "[ez diat uste…]") eta "luzatu. Guisseleren presentzia gehiago nabarmendu" (fº25v) edota "Periodiko notizia bezala" (fº16v) metakomentarioetako letrak euren artean oso ezberdinak dira. Esan bezala, ordea, auzi honen inguruan hipotesiak soilik landu daitezke, nahiz eta konfiantzazko metakomentarioak idazlearen gertuko lagunen batenak izan beharko luketen eta alde horretatik, uste izatekoa da Sarasola litekeela ohar horien egilea.

Bestalde, zuzenketa proposamenon garrantzia oso esanguratsua da, ez soilik artean egin bidean zen euskara batuaren erabileraren aldetik, baizik eta zuzenketa proposamen horietan aurkitzen direlako maiz argitaratutako edizioan topatuko ditugun aldaeren aurrekariak. Izan ere, sarritan ez da akats gramatikalaren zuzenketa bakarrik proposatzen, estiloari dagokionez ere bariazio edo bestelako eraldaketa hautuak proposatzen dira.

Adibide gisa, pertsona marken auzia dugu. Argitaraturiko *EHD* nobelako Gisèleren istorioaren planoan, narratzaile kanpodiegetikoa nagusitzen da oro har, baina sarritan pertsonaien baitan sartu eta euren pentsamenduak zuzenean islatzen dira zehar estilo libreaz edota barne-bakarrizketaz baliatuta. Efektu hori lortzeko, estilo zuzeneko 1. pertsonako formak erabiltzen dira, gehienetan barne-bakarrizketaren bidez, eta hikako markak erabiliz. Aldiz, eskuizkribuan estilo zuzeneko 1.

pertsona marken ordez, 3. pertsonako narratzailea nagusitzen da. Adibide guztiak Maurice eta Gisèle pertsonaiei dagozkiela aipatzea ere garrantzitsua da[68]:

Egunero hasten delako (1969)	Egunero hasten delako (eskuizkribua)
Irteterakoan apunteak eskatuko **zizkioat**	Irteerakoan apunteak eskatuko **dizkio**
Oraingo huntan ez **nauek** behintzat asistentzi faltagatik suspendituko	Oraingo huntan **etzuten** beintzat asistentzi faltagatik suspendituko
Atakatu egin beharko **diat**	Maurice'k atakatu egin beharko duela pentsatzen **du**
Irteterakoan apunteak eskatuko **zizkioat**	Irteerakoan apunteak eskatuko **dizkio**
Beti **zekik** behar dena egiten Gisèle honek	Beti **daki** behar dena egiten Guissele hunek
Gero parkera eramanen **diat**. Eta etxera kafe bat hartzera inbitatuko **banu**?	Gero parkera eramanen **dut.** Eta gero etxera kafe bat hartzera inbitatuko **baluke**?
(…) inportunatzen ez **banaute**, atakatu eginen **dut**[69]	(…) inportunatzen ez **badiote**, atakatu eginen **du**
gutxienez hamar erre **dizkiat**	gutxienez hamar erre **ditu**
Nire amak itxura hontan ikusiko **banindu**	Bere amak itxura horretan ikusiko **balu**
Ez **niñan** uste horren erreza izanen zenik. Ez **din** esaten duten hainako mina ematen	**Etzuen** uste horren erreza izango zenik. **Etzuen** esaten zioten hainako mina egiten
Eta soeur Justine-k ikusiko **banindu**?	Eta soeur Justine'k ikusiko **balu**?
Ez **dizkinat** bularrak handiagoak ikusten	Ez **dut** bularra handiago ikusten
Bainan beharrezko al **niñan** bestea egitea? Ez **niñan** beharrezko bainan ondo pentsatuta birjintasuna ere ez **niñan** ezertarako nahi…	Bainan beharrezko al **zuen** bestea egitea? **Etzuen** beharrezko bainan ondo pentsatuta birjindadea ere **etzuen** ezertarako nahi…
Burugabekeria izanik ere nahiago **dinat**	Berak inkoszienzia izanik ere nahigo **du**
Zergatik **neri**	Zergatik **berari**?
Ni ez **naiz** inoiz ere horrelako istiluetan sartua ibili…	Bera **etzen** inoiz ere horlako istiluetan sartua ibili…
Ikusiko **banu** hementxe maitasuna egiteko eskatuko **nioke**	Ikusiko **baluke** maitasuna egiteko eskatuko **lioke**
Ez **dut** zorabiatu behar	**Etzuen** mareatu behar
Miller-ek joateko esan **didatenean**, eginen **didala** uste duelako izango da	Millerrek joateko esan **zionean**…
Zer esan **dinat** abortatu egin nahi dudala besterik?	Zer esan **dut** abortatu egin nahi dutala besterik?
Zer da nire barnean **daramakitana**	Zer zen bere barnean **zeraman hura** eta ezagutze etzuen hura?
Soeur Felicitas ez **zitzaidan** inoiz ere abortuaz mintzatu	Soeur Felicitas('ek) **etzion** (ez **zitzaion**) noski abortuari buruz inoiz ere mintza(tu)[70]

Esan bezala, eskuizkribuan 3. pertsonan aipatzen dira Gisèle eta Mauriceren gogoetak baina liburuaren lehen edizioan narratzailearen fokalizazioa aldatu eta barne-bakarrizketa bidezko estilo zuzenean ematen dira hausnarketok. Hori horrela, taulan ezarri ditugun adibideen artean, eskuizkribuan zuzenketa proposamen bidez iradokitzen da aditz marketan gauzatzen den 3. pertsonatik 1. pertsonarako jauzia. Horrela, eskuizkribuko jatorrizko esaldiko 3. pertsonako aditzaren

[68] Hernández Abaituak (2008: 145) igarri bezala: "Fokalizatu sumaezinak gehiago dira Gisèle agertzen den kasuetan, beste batzuetan baino. Horrelakoetan, Gisèleren pentsamenduak eta sentimenduak ez ezik, berarekin dauden pertsonaienak ere agertzen dira, kutsatuko balira bezala". Eta pertsona markei dagokionez ere, halaxe gertatzen da. Beltzez markatu ditugu aditz marken alderaketa errazagoa izan dadin.

[69] Hikako formen erabilera ez da sistematikoa eta sarritan zukako formak ere agertzen dira, bai Mauriceri eta baita Gisèleri dagokionean ere.

[70] Kasu honetan, parentesi artean zehazturiko hitzak zuzenketa proposamenak dira.

gainean 1. pertsonako aldaerak iradokitzen dira eta ondoren, zuzenketa proposamen horiek onartu eta sistematikoki aldatzen dira aditzok edota pertsona markok.

Hain zuzen, aditz markak direla eta, adibide zehatz hauetan aurki daitezke zuzentzailearen proposamenak: "Oraingo huntan etzuten beintzat asistentzi faltagatik suspendituko" esaldiko aditzaren gainean "ez naute" iradokitzen da (fº12v); "Gero parkera eramanen du" esaldia berriz, "-t" erantsiko da "du"-ren atzetik (fº13r); "Bere amak itxura hartan ikusiko balu" esaldian "banindu" ageri da azken hitzaren gainean; eta azkenik, ikusi berri dugun bigarren adibidean bezala, "Ez du bularra handiago ikusten" esaldian ere "-t" bat gehitu da "du"-ren ondoren.

Edonola ere, zuzenketa proposamenetan zukako formak nagusitzen dira eta publikaturiko lehen edizioan, aldiz, hikako formak gailentzen dira 1. pertsonako aditz formetan (nahiz eta goiko taulan igar daitekeen moduan, salbuespenak badiren). Ibon Sarasolak (1969: 10) lehen argitalpenaren hitzaurrean adierazi bezala, "Eleberriaren konplejitatearen araberazko neurriak hartuz, (…) pentsamenduak eta hizketak adibiderik gabe ematen zaizkigu (bainan pentsamenduak 'hika-z' ematen direla)". Bestalde, eskuizkribuan ere ageri dira 1. pertsonako formak, baina kasu zehatz horietan kakotxen bidez markatzen da pertsonaiaren pentsamenduan gaudela: Mauricek, kasu, "'Euria egin egin behar dik'" diotso (fº14r); nahiz eta argitalpenean barne-gogoetatik estilo zuzenera eraldatu eta Gisèleri zuzenduko zaion ("Euria egin behar du…"); Gisèlek, era berean, "'Inkosziente bat. Inkosziente bat naiz'" (fº16r) edota "'Zer esan dut abortatu nahi dutala besterik?'" (fº29v) aitortzen dio bere buruari, beti ere kakotx artean adierazita. Esan bezala, eskuizkribuan kakotx bidez seinalatzen dira halakoak baina argitalpenean, ordea, kakotx guztiak desagertu egin dira. Horrela, aditzaren erabileraren arabera, narratzailea pertsonaien barne munduan barneratuko da edota kanpotik kontatuko ditu pertsonaien gertaerak.

3.2.6. Egilearen zalantzak, izen aldaketak eta testu eraldaketaren adierazpenak

Zirriborroetan ezer nabari badaiteke idazlearen zalantza uneak, ziurgabetasunak eta aldaera aukerak dira. Eta *EHD*ren eskuizkribuaren kasuan ere, halaxe gertatzen da. Lehen zalantza aurrez aipaturiko paratestuko eskaintzan ageri da jada, galdera marka batekin adierazia. Eskaintza, izatez, nobelako emakumezko protagonistari zuzendua dago, baina protagonistaren izena idazterako unean, izenaren bi aldaera idazten dira: "Gisèle´ri: / Guissele´ri: (?)" (fº2v). Hortik aurrera, zirriborroan "Guissele" izena gailendu eta erabiltzen da: hasierako aipamenetan galdera ikurrarekin lagunduta ageri da izena (fº8v), baina ondorengoetan galdera ikurra desagertu eta "Guissele" soilik agertzen da. Edonola ere, nobela argitaratzean "Gisèle" izenaren aldeko hautua egiten da eta beraz, eskuizkribuko "Guissele" guztiak eraldatu egin dira[71].

[71] Gisèle protagonistaren izenaren eta antisorgailuen eta abortuaren aldeko Gisèle Hamili abokatu feministaren izenaren arteko lotura iradoki izan du Olaziregik (2000: 12).

Era berean, bestelako pertsonaien izenak ere eraldatu egiten dira eskuizkributik argitaratutako testura eta gutxi dira, ondorioz, eskuizkributik argitaraturiko testura bere horretan mantendu diren izenak (Maurice, Jean Louis).

Egunero hasten delako (1969)	Egunero hasten delako (eskuizkribua)
"Martin"	"~~Jazinto~~ Martin"[72]
"Maria"	"Carmen"
"Alain Miller"	"Serge Miller"
"Alfred Fontanaz"	"Maxime Fontanaz"
"Baptista Rossier"	"Georges Rossier"
"Berthe"	"Bertha"

Izenen kontuarekin loturik, gainera, argitaraturiko edizioan bada berrargitalpen guztietan iraun duen errata bat. Gisèle abortua egiteko aukera aztertzeko Fontanaz medikuaren kontsultara joaten denean, "Maxime Fontanaz" gisa izendatzen da eskuizkribuan, dagokion bezala; baina argitaraturiko testuan, "Baptista Fontanaz" da birritan ageri den izena. Agi denez, "Alfred" izenaren ordez "Baptista" ageri da, "Alfred Fontanaz" eta "Baptista Rossier" izenen gurutzaketatik eratorria[73].

Azkenik, izenen bitxikeriekin amaitzeko, argitaratutako edizioan nobelako gertaeren hirietako bat "Durkheim" izendatzen bada ere, Emile Durkheim soziologoari gorazarre egiteko (Hernández Abaitua: 165-173), eskuizkribuan une oro "Durkehin" gisa ageri da.

Bestalde, nobelako gertakariak atzerrian kokatu izanagatik, eskuizkribuan Saizarbitoria idazlearen zenbait erreferentzia tokian tokikoak dira eta nobelaren sinesgarritasunaren mesedetan, erreferentziak eraldatu egin dira argitaraturiko edizioan. Eta nahiz eta zirriborroan zalantza aztarnarik edota aldaerarik ageri ez, sarritan margenetan zeinuren batekin markatuta daude adierazpenok (harridura ikurrak edo suge gisako geziak, besteak beste). Argitaraturiko edizioan, hasteko, gaztelerazko adierazpide eta atsotitz gehienak euskarara ekarri, atzerriko aldaera parekide bat topatu edota pasarte horiek ezabatu egin dira. Bestetik, atzerriko hizkuntzetako erreferentziak gehitu dira geltokiko pasarteetan zein kaleko dendak eta erakusleihoak ageri diren eszenetan. Azkenik, "Txindoki" mendiaren ordez atzerriko kutsua duen baliokidea bilatu da.

[72] Kasu honetan, eskuizkribuan ere "Martin" ageri da baina agertzen den hiru aldietako bitan, aurrez ~~Jazin~~ eta ~~Jazintok~~ zirrimarratu ondoren idazten da "Martin". Beste adibideetan, aldiz, eskuizkribuan ez da aldaera zeinurik edo bestelako proposamenik adierazten.

[73] Akats hori 2007an egileak berridatziriko bertsioan zuzenduko du.

Egunero hasten delako (1969)	Egunero hasten delako (eskuizkribua)
Altabozak hiru hizkuntzetan ematen ditu abisuak. "*The train to Riemmes with first class carriage and slleeping-car…*" "*Messieurs les voyageurs le train destination…*"	Altabozak lau hizkuntzetan ematen ditu abisuak. "Messieurs les voyageurs"
"*Au clair de la lune*"	"A la mar fui por naranjas"
[pasarte hori ezabatu egin da argitaratutako edizioan]	Nik esango nuke kastellanuak "con las tripas de Jorge" gertatzen dena ari dela gertatzen "que se estiran y se encojen…
[gaztelerazko adierazpena ezabatu egin da argitaratutako edizioan]	"Mecagüen la puta"
beste herrialde batzuetan etxeko lanak egiten erakusten zaien bezala	gure herrian porrusalda egiten bezala
Shomberg-ko mendira[74]	Txindokira
LE DON JUAN… LAS VEGAS. BÔITE… BUVEZ COCA-COLA… CEHZ MONIQUE… (…) REX… MON CHEZ MOI-SNACK BAR… RIVOLI DANCING…	Betiko izenak: Le Don Juan, Las Vegas, Rex, Chez Monique, Chez…
mihina duenari trabatu egiten zaio	"quien tiene boca se equivoca" (mihina erabiltzen duenari trabatu egite zaio)"[75]
ezagutuko dituzu noski andregai birjina marfilezko kutxan utzi eta hor zear hala moduz ibiltzen diren horietakoak"	Ezagutuko dituzu ba, ohitura oneko andregai birjina kutxan utzi eta "de picus pardus" ibiltzen diren gazteak…

3.2.7. Berritsuaren solaskideen eta kokalekuen auzia

EHD bi planotan egituratuta dagoen nobela izanik, protagonista berritsuaren planoan "historiako irakasle baten bakarrizketa etengabea ematen zaigu, lehen pasartean Durkheim-go estazioan eta bigarrenean telefono-zentral batean" (Sarasola 1969: 9). Bakarrizketa, bai, baina "elkarrizketa baten transkribapen moduan agertzen da, solaskidearen hitzak ezabatzean (A. Camusek teknika bera erabili zuen 1956an *La chute* eleberrian) bakarrizketa bihurtzen dela" (Olaziregi 2000: 88). "Kanpobakarrizketa" terminoa darabil Hernández Abaituak (2008: 134), "nahiz eta bakarrizketa hutsa ez izan". Horrenbestez, nobelaren irakurleak deus gutxi jakin dezake berritsuaren solaskideen inguruan, nahiz eta diskurtso horretatik ondorioztatu daitezkeen hainbat datu:

> —1. narratarioa: kafea, likorea eta tabako gorria gustatzen zaizkio (13); bi seme-alaba ditu, semeak 12 urte ditu (15); moral katolikoa krisian dagoela uste du (25); existentzialista da (133)
>
> —2. narratarioa: fisika eta kimikako irakaslea da (81); "Caporal" erretzen du berritsuak bezala. (ibid.: 161)[76]

Berritsuaren solasa deiki, galdera, bokatibo eta alokutiboko formez osatua dago eta argitaraturiko testuan, kokaleku jendetsuetako polifonia agerian gelditzen da, *EHD*ren hasierako lerroetatik.

[74] Shomberg izenari dagokionez, ez dugu aurkitu izen hori duen mendirik. Dena den, "Schoemberg" edota "Schömberg" *EHD* nobelaren zirriborroa idatzi zen Friburgo hiriko auzoa ere bada eta alemanez "mendi ederra"-ren esanahia dauka.

[75] Parentesi artean zehazturiko esaldia eskuizkribuko gaztelerazko esaldiaren gainean idatziriko zuzenketa proposamena da.

[76] Parentesi arteko zenbakiak *EHD*-n lehen edizioko orrialdeei egiten diete erreferentzia. Bestalde, zehaztu behar da lehengo narratarioak seme bakarra duela, berritsuak "Hamabi urtekoa e? Bai noski, neskato bat ere izan bazenuten… Bikotea izatea da egokiena" (15) aipatzen baitio.

> Arrazoi dozu, estazioetako buffet-etan ematen duten kafeak ez du kafe izenik merezi. Izan al zera noizbait Italia-n? Ez? Ai Italia-ko kafia! Mamma mia! Italia-ko ristretto-ak! Un ristretto signore? eta a ze nolako kafia ateratzen dizuen… Beno, neri egia esateko estazioetako buffet-etan ematen duten kafia ez zait gustatzen, buffetak berak gutxiago.. Estazioak, estazioak deus ez.Estazioak tristeak dira: bagoi abandonatuak, tren bat joaten Agur! Agur!... maletak, besarkadak, malkoak… traka-traka bagoi abandonatua… Beste kafe bat? E, hi gazte! Eta kopatxo bat? Hi gazte bi kafe eta bi kopa. Bai edozein marka. Ba estazioak ez zaizkit laket, baina estazioetan gutxien atsegin zaidana… Ez, ez beltza, erretzen dut. (Saizarbitoria 1969: 13)

Dena den, hain ezaguna bilakatu den nobelaren hasiera horren zantzurik ez dago eskuizkribuan eta hurrengo esaldiaren hitzak dira eskuizkribuko kontakizuneko lehendabiziko esaldia osatzen dutenak: "Ziur naiz behin baino gehiagotan neskatoren bat ikusi izan duzula maleta bat eskuan, edozein estazioetan, trenen bateri itxaroten". Eta antzera gertatzen da berritsuaren nobelako planoetan, hots, zirriborroan ageri ez diren testu pasarte asko gehitu direla, nagusiki atalen hasieran, baina baita eskuizkribuko testuaren baitan txertatuta ere. Eta gehitu diren elementu horiek, gainera, deiki, galdera, bokatibo eta, azken batean, solaskidearen presentzia areagotzen duten adierazpenak dira: "sua mesedez… nik ez dut asko biajatu… eskerrik asko…"; "Ez, ez, eskerrikasko, nahiago ditut nire Caporal-ak… beno, zerbezara pasatuko naiz, ni enaiz oso zerbeza zalea baina noizbehinka… Hi, bi zerbeza!"; "Gustatzen al zaizu euria? Neri? Neri… bai. Bai… beno, ez dakit"; "Zuk nik bezala gazteen ohiturak ezagutuko dituzu noski eta… ezagutuko dituzu noski…" eta abar. Aipatu adibideak *EHD* nobelako berritsua estazioan dagoeneko narratarioari zuzenduak direla zehaztea komeni da, nobelako berritsuaren bigarren kokalekua telefono-zentrala izango delako, nahiz eta kokaleku horren zantzu gutxi agertu eskuizkribuan. Edonola ere, beranduago jorratuko da nobelako kokalekuaren eta eskuizkribukoaren alderaketa.

Eskuizkribuaren hasieran ere "zu" bati zuzentzen zaio berritsua baina bere itaunek galdera erretorikoen zantzu gehiago dute, benetan erantzuna espero duen galderena baino. Gainera, galdera erretoriko horien erantzuna ere narratzaile berritsuaren eskutik dator eskuarki: "Zertan fundamentatzen naizen hori pentsatzeko? Ezertan ere ez" (fº3v); "Baina zer nahi duzu? Ni horrela naiz eta dagonezkero ezin aldatuko naiz gainera" (fº4r). Izan ere, bakarrizketa baten antz gehiago du zirriborroko berritsuaren jardunak, solaskidearen jarduna ezabatu den elkarrizketa baten transkribapena baino.

Hori horrela, zalantza asko argitu eta, era berean, aurreko hipotesia indartzeko bitartekoak eskaintzen ditu eskuizkribuko berritsuaren diskurtsoan ondorengo esaldia aurkitu izanak: "Barkatu zaidazu irakurle beti gai berdinari heltzen ba naiz bainan ez dut haria galdu exenplu asko hartzeagatik" (fº5r). Esaldi horren arabera, beraz, eskuizkribuko berritsuaren narratarioa irakurlea izango litzateke. Argitaraturiko nobelan, ordea, esaldi horren aldaera agertzen da, eta ezin bestela izan, "irakurle" hitzaren ezabaketa da deigarriena: "Beti gai bateri helduko natzaizu, exenplu askorekin haria ez galtzearren" (17). Ez alferrik, eskuizkribuko esaldia eskuin margeneko giltza-zeinu (}) batekin

markatuta ageri da eta "irakurle" hitza parentesi artean dator, eskuizkributik nobelako testura egin beharreko eraldaketan kontuan izateko, ziurrenik.

Hernández Abaituaren arabera, berritsuaren solaskideen erantzunak ez transkribatzea eta berritsuaren diskurtsoa bera, oro har, *EHD* nobelaren atzean dagoen tesia formalki eta estilistikoki mozorrotzeko ahaleginaren emaitza da: "*EHD* ez da tesi-eleberri tradizional bat, eta horretan ere datza bere modernotasuna" (2008: 177). Are gehiago, eleberri modernoak izan zezakeen balizko bertsio tradizionalaren hasiera ere asmatzen du bere ikerketan: "Ene irakurle maitea, zuk ere ikusiko zenuen edozein estazioetan neskatoren bat maleta bat eskuetan trenen bati itxoiten. Nik horrelako hogei bat ezagutu ditut eta orain horietako baten historia kontatuko dizut" (cf. 13-14). Eta behin bakarrik bada ere, eskuizkribuko pasarte batean narratzaile orojakileari dagokion "irakurle" adiera erabiltzen dela ikusi dugu.

Dena den, bada bestelako zantzurik hipotesi horren inguruan, hots, eskuizkribuan berritsuaren diskurtsoa bakarrizketara gehiago mugatzen dela, nobelako diskurtsoarekin erkatuz gero. Edo nahiago bada, narratzaile horrek balizko irakurlearekin (edo irakurleekin) duen elkarrizketa gisa planteatzen dela diskurtsoa zirriborroan, berritsuaren solaskideak irakurle potentzialak izanik. Izan ere, bi orrialde beranduago, berritsua "zu" bati zuzendu beharrean, "zuek" bati zuzentzen zaio: "Ez al dituzute zuek, nik milaka ezagutzen ditut, gustatu behar zaiela esaten dietena eta gustatzen zaiena, bat egiten ez dituztenak" (fº6r). Eta ez da adibide bakarra: "(…) edo nahiago ba duzute beste batzuek dioten bezala, humanizatzen ari dira" (fº7v); "Ezagutzen duzute dogmatiku bat baino abere ridikulogorik mundu relatibu hontan?" (fº9r); "Martin –ez dakit ezagutuko dezuten– bihotz bihotzetik gorrotatzen dut" (fº9r). Adibideek argi erakusten duten bezala, ez da inolaz ere naturala narratario edo solaskide bakarrari 2. pertsona plurala erabilita zuzentzea, baldin eta talde bati aipamenik egin ezean[77]. Eta beraz, zilegi da hipotesi gisa bada ere, berritsuaren 2. pertsonaren erabilera kontakizunaren balizko irakurleei edo balizko narratarioei zuzenduta egotea, idazleak buruan duen edo dituen irakurle inplizituei zuzenduriko jardunaren adierazle.

Halere, 2. pertsona pluraleko erabilerarekin batera, singularreko aditz formak ere ageri dira eta pluraleko adibideak salbuespen modura ere ulertu behar dira, kopuruz gutxiago agertzen diren neurrian. Horrela, aurrez aipatu ditugun pluralezko formak ageri diren orrialde berdinetan aurki daitezke singularreko formen adibideak ere: "Ezin kontatuko dizkizut guziak", "Ondo iruditzen zaizu?" (fº6v); "(hau ezagutuko duzu noski)", "Ba ez dakit zer ari zeran pentsatzen", "Nik etzaitut adiskide interrogante horietatik aterako" (fº7r).

[77] Hain zuzen, nobelako berritsua halaxe zuzenduko zaio lehendabiziko narratarioari, ezkonduta dagoenez, sinekdokeaz baliatu eta ezkondu guztiei zuzenduko balitzaio bezala: "Nire iritziz bai emakumezkoek eta gizonezkoek berdin, galdu egiten duzute ezkontzean… Utzi, utzi konplementatzeak era historiak. Ez da ez zuek uste duzuten bezala, 'libertatea galzeagatik' diodala hau" (29). Ikusi dugunez, haatik, eskuizkribuko 2. pertsona pluraleko adibideak ez dira gisa horretakoak.

2. pertsona pluralaren eta singularraren erabileraren arteko auzian, bestetik, zuzenketek eta zuzenketa proposamenek ere badute zeresana, bi adibidetan pluraleko marka parentesi artean markatua edota zirrimarratua ageri baita, eta singularreko formaren aldeko hautua egiten da: "ez dakit ezagutuko duzu(te)n" (fº9r) eta "Ni ez nauzu~~te~~ teoria berri horien aldeko" (fº9v)[78]. Ondorioz, eskuizkribuaren hasierako orrialdeetan berritsuaren narratarioaren inguruko talka nabari dela berretsi daiteke, eta une batetik aurrera (fº9v-tik aitzinera, hain zuzen), 2. pertsona pluraleko deiki, galdera, bokatibo eta alokutiboko formarik ez da ageri. Salbuespen bakarra fº23r orrialdeko "Serioa aurkitzen duzu~~te~~?" da, eta hor ere zirrimarratuta ageri da.

Izan ere, auzia apur bat argitzeko, fº9v orrialdean bertan solaskidearen presentzia zuzena iradokitzen duen bidearen aztarna nagusia topa daiteke: "Nik ez dut emakume bat ere ezagutzen. Sentidu biblikoan? Zuk egiten dituzu txisteak… Tragoxka bat hartuko bagenuke! Zuk ere ez! Ba ezkondutakoek bai". Esaldi horretan, argi eta garbi geratzen da berritsuaren eta solaskidearen arteko elkarrizketaren aurrean gaudela, eta gainera, kokaleku berdinean daudela, tragoa hartzeko aukerak adierazten duenez. Eskuizkribu osoan, beste hiru bider ageri da "Tragoxka bat?" berritsuaren proposamenaren transkribapena, hiruak eskuizkribuaren amaiera aldera: aurreneko bi aipamenak eszena berean ageri dira, lehena "Zigarrotxo bat?" proposamenaren ostean dator, eta segidan, "Zure osasunera" hitzek aditzera ematen dute tragoa hartzen dutela eta azkenik, eszenaren amaieran ageri den "Beste tragoxka bat?" hitzek ixten dute pasartea (fº35r-fº35v). Azken adibidea eskuizkribuko azkenaurreko orrialdean ageri da.

Baina harrigarriki, eskuizkribuko "Tragoxka bat?" lau esaldietatik, bakarra ageri da nobelan (fº9v. orrialdekoa, hain zuzen), bai behintzat zirriborroan ageri den pasarteari loturik. Beste adibideak, aldiz, nobelan ez dira zirriborroan ageri diren lekuan aurkitzen eta, hein batean, lekualdatu egin direla ondorioztatu genezake. Izan ere, tragoxka hartzearen proposamena behin eta berriz errepikatzen da *EHD* nobelan, baina soilik aurreneko narratarioaren kasuan, hots, kokalekua estazioa denean[79]. Aurrez hona ekarri dugun nobelaren hasieran jada ageri dira "Beste kafe bat?" edota "Kopatxo bat?" eta gisa berean, berritsua estazioan dagoela irakurriko ditugu gainontzeko edateari loturiko gonbidapenak. "Beste zerbeza bat, e?", "Bai, goazen kopa bat eratera", "Hi, bi kopa! E…?" Berdin da, biak niretzako"[80]. Horregatik diogu eskuizkribuaren amaierako aipaturiko adibideak nobelaren hasierako eszenetara lekualdatu direla, nobelaren amaieran, berritsua telefono-zentralean dagoenean, ez baitago halako proposamenik.

[78] Dena den, aurrez aipaturiko pluraleko formak bere horretan ageri dira, inolako zuzenketa proposamenik eta bestelako markarik gabe.
[79] Nobelan, gainera, kontuaren inguruko aipu esplizitu bat gaineratu da: "Nik ez dakit telefoniketan zergatik ez dituzten tafernak jartzen" (130).
[80] Era berean, zigarroak erretzeko proposamena behin bakarrik ageri da eskuizkribuan, baina nobelan etengabea izango da erretzeko ekintza adierazten duten esamoldeak: "Zigarrotxo bat?", "sua medesez… (…) eskerrikasko", "Sua emanen didazu mesedez?... Ederra metxeroa"…

Izan ere, eskuizkribuko berritsuaren kokalekua dela eta, protagonista une oro estazioan kokatzen dela ondorioztatu behar da zirriborroko aipuak aintzat hartuz, eskuizkribuaren amaieran esplizituki adierazten baita berritsua oraindik estazioan kokatzen dela: "Behin, hementxe bertan Durkehin'eko estazioan. Denbora baduzu, adiskide, historia bat kontatuko dizut" (fº41r-fº41v). Gainera, badira bestelako zantzuak ere hori ondorioztatzeko. Batetik, nobelan gertatzen ez den bezala, eskuizkribuaren tragoxkak hartzeko gonbidapenak amaieran ere ageri direlako. Bestetik, eskuizkribuan ez da lekualdaketaren berririk ematen, edo beste hitz batzuekin esateko, ez da aipatzen telefono-zentralaren kokalekurik, ez eta ekintzak bertan jasotzen direnik ere: kokaleku zehatz horren berri ematen duten diskurtso edota polifonia zantzuen aztarnek eskuizkribuan ez dute lekurik[81].

Aldiz, argitaraturiko nobelaren bigarren zatian berritsua zain dago telefono-zentralean Saint-Amand-ekin konexioa noiz ezarriko dioten, bere izebarekin hitz egin eta datorren igandean egin asmo dion bisitaren berri emateko. Horrela, nobelan etengabeak dira telefono-zentralari erreferentzia egiten dioten aipuak, hamaikagarren kapitulutik aurrera: "Gaudard bost franko mesedez. Paris 9701157. Bederatzi, zazpi, huts, hamaika, berroigehitazazpi (…) Paris bederatzian mesedez. Nork eskatu du Roma?" (81); "B. Berne bezala. E. Ernest-ena. L. Lyon bezala. Lyon. Ez ez berriro, L. Bai bi aldi. Orange. Nice. Hor da. Be-llon. Kosta zaio, ez du oso ezaguna izan behar Bellon delako horrek" (100)… Hain zuzen, halako erreferentziek berritsuaren kokalekua zehazteko baliabide gisa ere jokatzen dute, estazioan dagoela tren zirkulazioaren inguruko oharrak etengabeak direlako eta funtzio bera lukete telefono-zentraleko erreferentziek. Eskuizkribuan ordea, estazioaren kokalekua soilik agertzen da eta beraz, nobelan ez bezala (estazioa eta telefono-zentrala, hurrenez hurren), berritsuaren espazioa estaziora mugatzen da.

Aurrez esan bezala, nobelan berritsua bi solaskideri zuzentzen zaiola dirudi eta banaketa hori nobelako kokalekuen banaketarekin bat dator gainera. Eskuizkribuan, ordea, kokaleku bakarra ageri dela argi dagoen arren, solaskide eta narratarioaren auzia lausoagoa da. Hasteko, zirriborroan ez dira ematen ondoren nobelan emango diren hainbat xehetasun (bigarren narratarioa fisika eta kimikako irakaslea dela, kasu) eta beste hainbat eraldatuta ageri dira (eskuizkribuan aurreneko solaskidea ezkongabea da eta nobelan, aldiz, ezkonduta dago). Bestetik, nobelako aurreneko solaskidea litzatekeenak tren bat hartzen duenean agurtzen du berritsuak "Agur adiskide" esanaz[82] eta eskuizkribuan, estazioan presaka aldentzen zaion solaskideari zuzentzen dizkio hitzok, aurrez "Tira, tira, eseri gaitezen momentu bat. Presaka zerala? Izanen duzu momentu bat orain esanen dizudana entzuteko" esan ondoren. Horren ondotik, nobelako berritsuaren planoa telefono-zentralera lekualdatzerekin batera, solaskidea ere beste bat dela interpretatzen da eta eskuizkribuan ere antzekoa

[81] Egia esan, eskuizkribuaren azken orrialdean bai ageri dela telefono-zentralari erreferentzia egiten dion aipu bat, zirrimarraturiko pasartearen ordez, egilearen zuzenketa moduan ohar gisa beranduago gaineratuta ziurrenez. Baina auzi horri azpi-atal oso bat eskainiko diogunez, aurrerago jorratuko dugu gaia.

[82] Esanguratsua da nobelako estazioko eszenak eta berritsuaren elkarrizketa bere solaskideak tren bat hartzen duenean amaitzea, are gehiago bederatzigarren kapituluko solasa ere bizitzan aukeratu beharreko trenbideen inguruko diskurtso metaforikoak osatzen duenean. Hortik aurrera, berritsua telefono-zentralean agertuko da.

ondorioztatu daiteke, solaskide bat agurtu ostean beste batekin hasten dela hitz egiten, baina estazioan bertan.

Ondorioz, berritsuaren eta narratarioen auzia nobelan nahiko definituta badago ere, eskuizkribuan oraindik erabat ebatzi gabe legoke berritsuaren izaera eta berarekin loturiko elementuak. Lehenik eta behin, 2. pertsona singular eta pluralaren erabileraren talka ageri da eta gainera, pluraletik singularrera pasatzeko zuzenketa proposamenak ere ageri dira. Bigarrenik, "irakurleari" zuzenduriko aipu esplizitua legoke, baina ondotik, solaskidea berritsuaren kokalekuan dagoenaren zantzuak gailentzen dira "tragoxka bat" eta antzeko gonbidapenekin. Bestalde, berritsuaren gertakizunek kokaleku bakarra dute eskuizkribuan eta nobelan bikoiztu egiten dira espazioak. Aldiz, eskuizkribuko solaskideen perfila lausoago da eta berritsuaren jarduna zuzenagoa eta jarraituagoa, hots, ez da solaskideen, tabernarien edota bestelako ahotsez hain etena. Aztarna guzti horiek, ondorioz, argi eta garbi erakusten dute berritsuaren diskurtsoa eskuizkribuan oraindik ere egin bidean zela edo guztiz taxutu gabe zegoela. Eta beraz, nobelan ageri den testuak, eskuizkribuko aurre-testuarekin alderatuta, gehiketa eta berridazketa asko eta esanguratsuak izan dituela.

3.2.8. Bi planoen arteko erlazio-loturen auzia: *excipit* bat zirrimarratzearen ondorioak

EHD nobelaren berezitasun nabarmenena kontakizuna osatzen duten bi planoen arteko erlazio-loturen auzia da. Izan ere, argitaratutako nobelan ez da Gisèleren eta berritsuaren planoek bat egiten dutenaren ziurtasunik ematen: "konplexutasuna, ordea, ez dator bi azpihistoria hauek txandakatzetik bakarrik, diegetikoki ez nahastetik baizik (…) Alegia, azpihistoria bateko pertsonaiak ez dira inoiz ere agertzen beste azpihistorian" (Hernández Abiatu 2008: 105)[83]. Izan ere, nobela baten baitan bi plano edo gehiago ageri badira, irakurlearen igurikimen zerumuga eta aurreiritziak plano horien arteko harremanak finkatzen saiatuko dira, eta *EHD*n aldiz, bi planoen arteko bat egitea ziurra ez izateak, irakurketa mailen aukerak ugaritzen ditu. Horrela, estazioetan maleta batekin bakarrik trena hartzear dauden neskek errukia ematen diotela esanaz hasten da berritsuaren kontakizuna eta nobela eta, geroago, Gisèle agertuko da estazio batean maleta batekin trena hartzear. Irakurlearen esku gelditzen da, ordea, bi gertakizunen arteko harremanaren inguruko interpretazioa egitea, testuan esplizituki aukera bakar bat adierazten ez denez.

Hernández Abaituak bi planoen arteko erlazio-loturen auzia jorratu du bere tesian. Hasteko, aurrekariak errepasatzen ditu eta *EHD*ren bigarren edizioko J. M. Lasagabasterren hitzaurreari egiten dio erreferentzia: "Baina, nobela, texto bakarra denez, batasunen bat izan behar duelarik, bi historia horien arteko erlazioa edo nolazpaiteko lotura aurkitu beharrean gaude" (Lasagabaster 1979: 11). Lasagabasterrek, bi planoen arteko harreman semantikoak azaleratzen ditu aurrena eta ondotik, berresten du "bi historien topa-punturik garrantzitsuena ez d[el]a historiarena edo fikzioarena,

[83] Dena den, aipuarekin batera Hernández Abaituak oin-ohar batean dakar 2007an egindako edizio berrituan, askoz nabarmenago iradokitzen dela berritsuak Gisèle ezagutzen duela.

narrazioarena, kontatzearena baizik". Hori horrela, Gisèleren kontakizuneko narratzailea kanpodiegetikoa izanik eta berritsua bere baitako diskurtsoko narratzaile barnediegetikoa, berritsua bera Gisèleren istorioaren narratzailea izan daitekeela planteatzen du. Eta ondorioa ere berea da: "Nor da, orduan, Gisèleren historia hori kontatzen digun kontalaria? Narrazio osoaren logikak berritsua bera dela esatera bultzatzen gaitu" (ibid.: 16).

Orduko interpretazio eta irakurketa proposamen berri hau, ordea, Saizarbitoriaren *100 metro* nobelaren hitzaurreko testuan baztertu egingo du:

> *Egunero hasten delako* nobelan fikzioaren eta diskurtso narratiboaren desarroilua oinarritzen duten bi ardatzak — Gisèle'n historia ta berritsuarena— paraleloki doaz eta nekez datoz bat; nik neuk proposatutako hipotesia — diskurtso narratibo-mailan gertatzen den lotura, berritsuak berak Gisèle'n historiari posibilitatea ematen diolarik, bere hitz-jario damugabe horretaz— "ile puntetatik" harrapatuta dago nolabait. (Lasagabaster 1997: 118 [1986])

Ondoren, 1989ko artikuluan Bakhtinen teoriak aintzat hartuz bi planoen arteko auzia berrinterpretatzen saiatzen da Lasagabaster:

> Desde esta visión de la novela, el discurso de la historia de Gisèle y del aborto no es más que una continuación o ilustración del discurso desmitificador del personaje hablador.
> (…) Luego las analogías temáticas, por ejemplo, el motivo de la muchacha de la maleta, no hacen sino reforzar la unidad del texto novelesco, afirmando al mismo tiempo su condición "heterológica". (Lasagabaster 1989: 332)

Lasagabasterren ekarpenen balioa onartu arren, Hernández Abaituak estrategia narratiboen araberako irakurketa proposatzen du bi planoen arteko erlazio-loturetan sakontzeko. *EHD* tesi-eleberria izanik (Sarasola 1975), hots, liburuko istorioak kontatu bitartean fikzioaren bidez irakurleak bereganatuko duen tesi bat ere bideratu nahi denez, Hernández Abaituak ondorioztatzen du idazleak askotariko estrategia narratiboak erabiltzen dituela abortatzeko eskubidearen aldeko tesia agerikoegi suerta ez dadin[84]. Horrela, autore inplizituak ahalegin nabarmena egiten du nobelako alderdi formal eta estilistikoak behartuz irakurleari tesi-eleberri tradizional baten aurrean ez dagoela frogatzeko[85].

Era berean, berritsuaren planoa nobelak babestu nahi duen tesia irakurleari hobeto helarazteko litzateke eta elkarrizketa moztuaren teknika erabiltzea ere asmo horri lotua legoke, askotariko iritziak plazaratzeko narratzaile orojakilearen figura saihesteko aukera ematen duen heinean. Izan ere, diskurtso mailako marka formalei (analepsiaren garrantziari, kasu) edota berritsuaren hizketa gaien garrantziari xeheki erreparatuz, Hernández Abaituak berresten du bi azpidiskurtsoen arteko erlazioa ideologikoa dela nagusiki. Gisèleren istorioak abortatzea lortzen duen protagonistaren kasua islatuko luke baina berritsuak, ekintza horren aldeko ikuspegi ideologikoa lantzen du modu zuhur batean.

[84] *EHD*-ren 2007ko edizioko hitzaurrean Saizarbitoriak arrazoia ematen dio ikerlariari: "nire nobeletan beti dago edo ia beti –beti esango nuke– tesiren bat defendatu nahia (…) eta mezu [sozial eta politiko] horiek kontakizunean era literario batean –disimuluan ere, esan nezakeen– integratzeak ematen dizkit lanik handienak" (Saizarbitoria 2007: 10).

[85] Dirudienez, nobelako tesiaren kamuflatze baliabide honek izan zuen eraginik gainera, liburuaren zentsura auziaz arduratu zen irakurleak honako epaia eman baitzuen irakurketaren ostean: "Aunque el aborto se realiza no se impone la tesis de la moralidad del aborto sino que recurre a la moral de circunstancias".

> Gainera, tesi-eleberria izateak esplikatzen du beste ezer baino hobeto obra honen egitura, inoiz gurutzatze ez diren bi azpidiskurtsoen existentzia: Gisèleren istorioak berritsuaren euskarri ideologikoaren beharra du. Eta horretan datza eleberri honen modernotasuna: oso eleberri tradizionalarena den helburu batekin (tesiarena), konta-teknika modernoak erabiliz edukia askoz gehiago indartzen da eleberri tradizional batean baino. Engaiamendu mozorrotu horri ematen dion formak egiten du hain modernoa eleberri hau. Kontatzen diren bi azpihistoriak ez dira konplexuak, baina bai planoak konbinatzetik sortzen den diskurtsoa. Konplexutasuna ez dator bi azpihistoria hauek txandakatzetik bakarrik, diegetikoki ez nahastetik baizik. Eta tesi-eleberria dela frogatzeak azaltzen du ongien bi azpihistorien arteko erlazioa, hor baitago giltzarria eleberria zergatik dagoen antolatuta dagoen moduan ulertu ahal izateko (Hernández Abaitua 2008: 178).

Bestetik, eskuizkribuko hitzaurreko egilearen hitzak aintzat hartuz –"Irakurriko duzutena ez da nobela bat ezta ensaio liburu bat ere. Ez dakit zer den (hobekiago esan ez dakit zer atera zaidaten)" (fº2r)–, liburuko plano bikoiztasunak genero literarioaren auzia ere berekin dakarrela dirudi. Izan ere, idazleak bere lana nobelaren edo saiakeraren generoan kokatu ez arren, bien generoen arteko uztarketa planteatzen du tesi-eleberriaren irakurketak. Are, nahiz eta egileak entsegu liburua ez dela berretsi, nolabaiteko saio baterako asmoak hor dirauela esan behar da, zirriborroko eskeman eta eskuizkribuan hainbat bider ikus daitekeen bezala, berritsuaren planoak izango diren pasarteak izendatzeko "ensayo" terminoa erabiltzen duelako idazleak.

Esan bezala, *EHD*ren gaineko harrera eta irakurketa kritiko nagusienak nobelaren bi planoen arteko erlazio-loturak aztertzetik eratorri dira, hori izan baitzen, besteak beste, Saizarbitoriaren lehendabiziko nobelak zekarren berritasun formal nagusienetakoa. Edonola ere, ikerketa horiek guztiak 1969ko *EHD*ren testuan oinarrituta egin izan dira.

Izan ere, 2007an Saizarbitoriak berridatzi egin zuen *EHD* eta edizio berrituko 15. kapituluan askoz nabarmenago iradokitzen da berritsuak Gisèle ezagutzen duela, eta ondorioz, bi planoek bat egingo lukete historiaren une horretan, nahiz eta kasu honetan ere ez den esplizitatzen Gisèlek ezagutzen duen gizona berritsua denik. Hernández Abaituak ere aipatzen du kontua oin-ohar batean, baina bere azterkizuna 1969ko *EHD*ra mugatzen denez, ez du aintzat hartzen "XXI. mendeko *EHD*" argitalpen aldatua. 2007ko berridazketaren azterketaren aurretik, ordea, eskuizkribuko aurre-testuaren amaierari erreparatu behar diogu, bi planoen erlazio-loturen auziaren inguruan zer aztertu badagoelako.

Hain zuzen, eskuizkribuko azken bi orrialdeetan (fº41r-fº41v), berritsua estazioan dagoela zehaztearekin batera, horrela mintzo da: "Behin, hementxe bertan Durkehin'eko estazioan. Denbora ba duzu adiskide, historia bat kontatuko dizut…". Ondoren, argitaratutako edizioaren azken paragrafoan ere agertzen diren antzeko hitzak aurki ditzakegu: "Esan gero zuk, gizonen legeak, Naturak, hala destinoaren joku txar baten jolas den gaztea den kulpablea… Gaur Ez! edo bai! Esan behar da garbia izateko ez gure denboran bezala buruko jestu nabarrak (anbiguos) egin da pasa…".

Azkenik, ordea, eskuizkribuko azken paragrafoa litzatekeena dator. Baina harrigarriki, azken bost lerroak zirrimarratuta daude, aurrez eskuizkribuan ageri diren bestelako zirrimarrak baino zirrimarratze ekintza adierazgarriago baten bidez gainera (bi norabidetan eginiko lerro diagonalez osaturiko zirrimarra da). Zorionez, zirrimarraren azpiko testua irakurgarri bezain esanguratsu suertatzen da: "…Historia. Ba, ~~trenari itxoiten zegoen neska~~ maleta batekin bakarrik, trenari itxoiten zegoen neskatilla bat ikusi nuen: Guissele Sergier. Hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea, mehea… Dena. Bonboi bat".

Horiek izango lirateke eskuizkribuko une bateko azken hitzak, ondoren aurrez ere aipatu dugun data zehazten baita hutsune baten ondoren eta eskuin aldera lerratuta: "Fribourg – 1968'go – Aprilla~~k~~ren 25". Edonola ere, une batean eskuizkribuko azken lerroak izan zirenak zirrimarratuta daude eta eskuineko margenean giltza baten bidez zehazten da zirrimarratutako testua ordezkatuko duen pasartea:

> Saint Amand-ekin 6gn kabinara. Nola, neria ere zurea baino lehen? Aizu andereño anulatu zazu mesedez. Saint Amand
> anulatuta. ~~Geroxeago deituko diot nire izebari~~. Gaur ez! edo Bai! esan behar da garbia izateko ez gure denboran bezala buruko jestu nabarrak baita ez esan nahirik egin eta pasa. Ezin egin daitekeena zera da prolemak sinplifikatu prolemak

Eskuizkribuko azken orrialdeak, beraz, informazio baliotsua eskaintzen du: batetik, nobelako bi planoen arteko erlazio-loturen auzia argitzeko zantzuak aurki daitezkeelako eta, bestetik, telefono-zentralaren aurreneko aipamena ere azken unean zirrimarratua izan den pasartearen ondoren gehituriko hitzetan ageri baita.

Era berean, zirriborroaren bilakaeraren berri izatea eta idazketa aldiak bereiztea ere ahalbidetzen du azken orrialdeko zirrimarren kontuak. Izan ere, agerikoa da azken paragrafoa zirrimarratu ondoren gehitzen dela azkenik ordezkatuko duen pasartea. Baina, hain justu, ordezko testua idatzi aurretik jada eskuizkribuaren idazketa aldi baten amaiera adierazten duen data idatzia zegoenaren aztarnak ere badira, zirrimarra ondoren gehitzen den oharra data baino hiru lerro gorago hasi eta, eten egiten delako dataren lekuan eta ondoren, behean jarraitzen du oharrak. Horrenbestez, erraz ondorioztatu daiteke azken paragrafoaren ondotik idatzi zela data, eta behin zirrimarra egin ostean gehituko den ordezko testua beste idazketa aldi bati dagokiola. Gainera, egile beraren eskuz idatziak izan arren, idazketa aldetik ere nahiko ezberdinak dira eskuizkribuko azken lerroak eta ondoren gehituriko oharreko idaztankera.

Beraz, azken orrialdea mugimenduan dagoen testuaren adierazle ezin hobea bihurtzen da, zirriborrotik argitalpenerako testuak izandako bilakaeraren berri biltzen duelako. Izan ere, idazketa aldiko une zehatz batean eskuizkribuaren excipitak berritsuak solaskideari kontatuko dion historiaren hasieraren berri emango luke eta horretarako, irakurleak jada irakurria lukeen Gisèleren deskribapena

errepikatuko litzateke nobelaren amaieran, bi planoen arteko erlazio-loturen auzia argituz eta berritsua dela Gisèleren historiaren narratzailea aditzera emanez. Horrela, aurrez eskuizkribuan fº8v orrialdean dagoen "Guissele Sergier, hogeita bi urte. Kirrua begi urdinak, luzea eta mehea. Dena bonboi bat" esaldia azken unean errepikatuz eta aurretik "Ba maleta batekin, bakarrik, trenari itxoiten zegoen neskatilla bat ikusi nuen" gehituz, eskuizkribuaren idazketaren une baten amaieran diegetikoki bat egingo lukete Gisèleren eta berritsuaren azpihistoriek. Gainera, hitz horiexek dira nobelan Gisèle aurkezten den aurrenengo aldian erabiltzen direnak eta horiek lirateke eskuizkribuaren une jakin bateko idazketa aldi batean agertuko liratekeen azkeneko hitzak.

Excipiteko hitzak zirrimarratu eta ordezko pasartea gehitu aurretik, beraz, idazlearen asmoa nobelaren amaieran bi planoak bat egitea eta euren arteko erlazio-loturen auzia argitzea zela erakusten du eskuizkribuaren azterketak. Eta horrenbestez, Lasagabasterrek bigarren edizioko hitzaurrean proposatzen zuen irakurketak, hau da, berritsua dela Gisèleren historia kontatzen duena, agerikoa eta esplizitua litzateke.

Baina zirriborroak erakusten duenez, une batean eskuizkribuko excipit hitzak zirenak zirrimarratuak izan dira eta ondorioz, mugimendu horri esker, jada ez dira nobelako azkenengo lerroak izango. Azken hitz horiek zirrimarratzea ekintza erabakigarria izango da *EHD* nobelaren bilakaeran, batetik bi planoen arteko erlazio-loturak argitzea galarazten duelako eta hain zuzen, bi planoak ez gurutzatu izanari egotzi izan baitzaio, besteak beste, Saizarbitoriaren lehendabiziko nobelaren konta-tekniken berritasun eta originaltasuna. Aurrez ikusi dugunez, askotariko irakurketa eta interpretazioak burutu beharko dira bi planoen arteko erlazio-loturak azaltzeko, izan erlazio semantikoak, lotura narratiboak edota tesi-nobela moderno eta eraginkor bat egiteko idazlearen ahaleginari loturikoak. Edonola ere, eta ez dugu uste urrunegi joatea denik, une zehatz bateko zirrimarratze ekintza horrek nobelaren idazketa, eta, ondorioz, ondorengo irakurketak goitik behera baldintzatu zituela esatera ere ausartuko ginateke.

Bestalde, behin zirriborroaren excipiteko hitzak zirrimarratu ondoren erantsitako ordezko lerroetan, berritsua telefono-zentralean kokatzen dela nabaria da ("Saint Amand-ekin 6gn kabinara. Nola, neria ere zurea baino lehen? Aizu andereño anulatu zazu mesedez. Saint Amand / anulatuta. ~~Geroxeago deituko diot nire izebari~~"), nahiz eta zirriborroan ordura arte ez zaion telefono-zentralari aipurik egiten eta une oro berritsua estazioan dagoela aditzera eman. Azken eraldaketak erakusten duena, beraz, egileak jada berritsuaren pertsonaia kokatzeko bi espazioak aukeratuak dituela da, estazioa eta telefono-zentrala, hurrenez hurren. Ondorioz, eskuizkribuaren azken orrialdean gehitu diren azken lerroek jada argitaraturiko *EHD*n agertuko diren berritsuaren bi kokalekuen berri eskaintzen dute, nahiz eta gainerako zirriborroan telefono-zentralaren kokalekuari buruzko aipurik ez izateaz gain, ondorengo eraldaketetan aintzat izateko zuzenketa proposamenik edota gainerako metakomentariorik ere ez dugun aurkitu. Izan ere, eskuizkribuko azken lerro erantsiek eragingo

dutena, gutxien-gutxienik, berritsuaren pasarteak berridaztea izango da bere kokalekua bitan bereiziz eta berritsuaren planoa ere bi zatitan banatuz.

Eskuizkribuko azken orrialdeko zirrimarra eta gehituriko pasarteari dagokionez, ondorioztatu dugu gehiketa behin zirriborroaren aurreneko bertsioari amaiera data jarri ostean burutzen dela eta beraz, bi idazketa aldi bereziri dagozkiola zirrimarra egitea eta ordezko lerroak gaineratzea. Edonola ere, eskuizkribuaren lekukotasuna aztertuz ezin dugu bestelako argibiderik eskaini eraldaketa hori bultzatu zuen arrazoiaren inguruan. Baliteke behin eskuizkribua Sarasolari pasatu ostean eta honen esku hartzearen ondorioz, zuzenketa proposamenekin batera, eskuizkribuaren amaieraren inguruko auzia ere aipagai izatea eta nolabait, Sarasolak nobelaren azken orrazketan parte hartu bazuen, azken lerroen aldaketan ere eragina izana. Hain zuzen, *EHD*ren lehen argitalpeneko Sarasolaren hitzaurreko ondorengo hitzek aditzera eman dezakete nobelaren idazketa aldian suertaturiko zenbait arazoren berri izan zuela:

> Saizabitoriaren nobela bere osotasunean entelegatzeko sensibilitate bat behar da, eta sensibilitate hau, gaur eguneko literatura-korrontetan murgilduz erdietsi dieke soilik. Sensibilitate huntaz usatuz nobela ausart bat burutu du, batez ere teknika eta formaren aldetik. Hunen ondorioz konplejitate handi bat atzeman dezakegu. Eta aitortu behar dut nahi aise soluzionatu dituela egileak prestatu zaizkion prolema ugari eta zailak (Saizarbitoria 1969: 9).

Eta formaren eta teknikaren aldetik, arazo zailenetako bat bi planoen arteko erlazio-loturak agerian uztearena edo ezkutatzearena izan liteke. Eskuizkribuko excipiteko hitzak zirrimarratu ez balira, nobelaren amaieran Gisèleren istorioa kontatzen duena berritsua dela argi geratuko litzatekeelako. Teknikoki nobela berritzaile eta moderno bat egiteko, ordea, amaieran bat egiten duten bi planoen askaerak eite askoz ere tradizionalagoa emango lioke nobelari eta beraz, aukera hori baztertu eta, azkenean, bi planoak erlazionatzeko bestelako baliabideak erabiltzen direla agerikoa da, tesi-eleberri polifonikoago eta anbiguoago baten alde.

Baina balizko hipotesiak eta irakurketak alde batera utzita, eskuizkribuko ebidentziek erakusten digutena zera da, zirrimarraren ondoren erantsitako lerroak egilearen eskuz eginak izan direla eta ondorengo idazketa aldi bati dagozkiola. Hortik aurrera, hipotesiak besterik ez genituzke.

3.2.9. Eskuizkribuaren eta 1969ko lehen argitalpenaren arteko erkaketa

Orain arte aztertutakoaren arabera, ikergai dugun eskuizkribuaren eta 1969an argitara eman zen *EHD*ren edizioaren artean aldeak badira: zirriborroko berritsuaren kokaleku bakarra estazioa da (azkeneko lerroetan gehitutako aipura arte behintzat), eskuizkribuko izenak eta nobelakoak sarritan ez datoz bat, eta abar. Baina esan bezala, agerikoa da eskuizkribuaren eta argitaraturiko nobelaren artean bestelako idazketa aldiren bat izan dela, argitaraturiko nobelan eskuizkribuan ez zeuden pasarte asko gehitu baitira. Zenbait pasarteren gehiketa eskuizkribuko metakometarioen bidez

iragartzen bada ere, "luzatu" edo "landu" hitzekin esaterako (fº22r, fº25v eta fº26r orrialdeetan), beste hainbat gehiketen zantzurik ez dago eskuizkribuko testuan.

Aurrez ordea, argitaraturiko nobelan eskuizkribuko peritestu guztiak baztertuak izan direla aipatu behar da. Eskuizkribuan ageri diren hitzaurrea, Gisèleri zuzenduriko eskaintza eta aipu gisa nobelako tesia babesten duen galdera erretoriko bidezko salaketa, beraz, alboratuak izan dira publikaturiko ediziorako. Kontu honen inguruan ere hipotesiak soilik eman ditzakegu. Baina Hernández Abaituaren irakurketa ontzat eman dugun neurrian, hau da, *EHD* abortatzeko eskubidearen aldeko tesi-eleberri mozorrotua burutzeko idazlearen ahaleginaren emaitza dela, paratestuko epigrafeetan Gisèle protagonistaren jarreraren aldeko hitzak edota abortua krimentzat jotzen dutenei eginiko galdera-salaketa agertzeak nabarmenegi utziko luke nobelak transmititu nahi lukeen tesia eta ideologia. Eta hori izan daiteke eskuizkribuko paratestuko elementuak baztertzearen arrazoia, nobelako tesia mozorrotzen ibiltzeak ez bailuke zentzurik epigrafeetan jadanik abortatu nahi duen protagonistaren alde jarriz gero, edota abortuaren kontrakoen inguruko gogoeta hain zuzenki aipatuz gero.

Aldiz, eta jakina denez, lehen argitalpenak Sarasolak sinaturiko hitzaurrea darama eta, besteak beste, euskal nobelagintzaz aritu ostean, Saizarbitoriaren aurkezpena egin eta *EHD* nobelaren bertuteak aipatzen ditu.

Bestetik, 1969ko nobelako zenbait kapituluren aztarnarik ez dago eskuizkribuan eta beraz, uste izatekoa da eskuizkribuaren idazketa aldiaren ostean idatziak izango zirela, nahiz eta idazketa aldi horren lekukotasunik ez dugun eskuragarri. Eskuizkribuan ez dauden testu gehiketak, oro har, nobelako kapitulu gehienetan txertatu direla esan daitekeen arren, *EHD*ren argitalpeneko "SEI", "ZAZPI" eta "BEDERATZI" kapitulu osoen aztarna txikienik ere ez da ageri azterkizun dugun zirriborroan. Nobelako 6. kapitulua berritsuaren planoari dagokio eta amodio erromantikoaren aurkako gogoetak planteatzen dizkio solaskideari, Jaques Prevert-en "Pour toi mon amour" poema abiapuntu izanik. Aldiz, 7. kapituluan Maurice eta Jean Louisen arteko pasartea biltzen da, emakumeekiko dituzten harremanen inguruan solasean eta bereziki, Maurice eta Gisèleren arteko harremanaren inguruan arituz. 9. kapitulua, ostera ere, berritsuaren planoari dagokio eta tren estazioan solaskidea agurtzen duenekoa kontatzen da, bizitzan aukeratzen eta egokitzen diren trenbideen inguruan hitz egin ondoren.

Berritsuaren planoko bi kapitulu oso gehitzeak izan dezake loturarik protagonistaren kokalekua gehitu izanarekin, estazioko eta telefono-zentraleko kapituluen artean nolabaiteko oreka mantentzeko, alegia (berritsua agertzen den planoko bost kapitulutan estazioan dago eta beste sei kapituluan, berriz, telefono zentralean). Aldiz, 9. kapituluan Maurice eta Jean Louisen arteko solasa erreproduzitzen da, emakumeez eta bereziki Gisèleri buruz hitz egiten gainera, agian bi pertsonaien karakterizazioan apur bat gehiago sakontzeko eta elkarren arteko aldeak nabarmentzeko (nahiko

antzekoak izanagatik, batak, ez badaki ere, haurdun utzi baitu Gisèle eta besteak neskari abortatzen lagunduko dio). Bestalde, hain gertu dauden kapituluak gehitzea izan daiteke kate-eraginaren ondorioa ere, Gisèleren planoko kapitulu berri bat txertatzeak bere horretan berritsuaren planoa gehitzea ekarriz, edo alderantziz.

Eskuizkribuan ageri ez eta argitalpeneko edizioan gehituta dauden hiru kapitulu osoez gain, ordea, beste kapitulu batzuetan pasarte esanguratsuak ere gehitu dira, hala nola, "HAMAIKA" kapituluko amaiera, "HAMABI" kapituluko hasiera eta azkenik, "HAMAIRU" kapituluko hasiera.

11. kapituluan Gisèle hilekoaren faltaz ohartu eta haurdun egon daitekeela konturatzen den pasartea erantsi da eta eskuizkribuan izan badira gehiketa horren zantzuak. Horrela, gehituriko pasartearen aurrekariak diren eskuizkribuko paragrafoak nobelan ageri dira eta hain justu, zirriborroko eszenaren amaieran, "VALE" metakomentarioaren bidez pasartea ontzat emateaz gain, etorkizuneko berridazketa batean aintzat hartzeko "con sensaciones" metakomentarioa zehazten da. Hain justu, nobelako kapituluaren amaieran protagonistaren sentipenen bidez kontatuko da haurdun egon daitekeenaren berri.

12. kapituluan hasierako pasartea da gehitu dena, Gisèle Miller doktorearen kontsultako itxaron gelan dagoenekoa. Eta itxaron gelako aldizkarien bidez, datu kronologiko esanguratsu bat ere gehitu da pasarte horretan: 1968an Estatu Batuetara iritsi zen Shirley Chisholm emakumezko beltzaren aipua. Era berean, kontrapuntu gisa, urte horretako Miss Mundo lehiaketan egon zen Miss Australia eta Miss Israelen inguruko polemika biltzen duen albistea ere aipatzen da aldizkarietan.

13. kapituluan Gisèleren eta Jean Louisen arteko enkontrua kontatzen da eta argitaraturiko bertsioan bederatzi orrialde izan arren, eskuizkribuan nobelako pasartearen azken zatia soilik agertzen da (zehazki, Gisèleren txikitako oroitzapen bat eta umeak ekartzearen inguruko bere gogoeta goiztiarra aipatzen dira) eta orrialde eta erdi eskas hartzen ditu. Gainera, eskuizkribuko pasarte horretan badirudi Gisèlek Mauriceri kontatzen dizkiola kontuok, pasartea "Berandu da oso Maurice…" (fº23v) esaldiaren ondoren amaitzen baita. Are gehiago, pasartearen amaieran, orrialdearen ezker aldean, beranduago erantsitako alderantzizko L gisako zeinu bat ageri da eta azpian, borobil batean sartuta, "Jean Luis" gehitu da. Nolabait, pasarte hori berridaztean Gisèleren solaskidea Jean Louis, eta ez Maurice, izan dadin gogorarazteko metakomentarioa. Azkenik, eskuizkribuko fº26r orrialdean aurkitzen dugun "← JP G" zeinuak iragartzen du azkenean Jean Louis eta Gisèleren solasaren pasartea non kokatuko den[86], Miller doktoreari eginiko bisitaren ondotik, hain zuzen, eta ez aurretik, eskuizkribuan ageri bezala. Horrela, zirriborroko orrialde horretan aurkitu daiteke Gisèlek Jean Louisi laguntza eske egiten dion deiaren berri eta argitaraturiko edizioan horren ondoren kokatuko da bien arteko solasera mugatzen den 13. kapitulua. Bada, zirriborroan aztarnarik ez den elkarrizketa

[86] Nahiz eta izenetako JP laburdurak, harrigarriki, ez duten bat egiten Jean Louisen siglekin.

horretan, Gisèlek Jean Louisi haurdun dagoela aitortuko dio eta Mauriceri ezer ez esateko eskatu ostean, abortatzen lagun diezaiokeen galdetuko dio. Honek, Riemmesera joatea proposatzen dio eta "Abortsone" botikaren[87] izena ere ematen dio. Rossier medikuaren izena ere Jean Louisek ematen dio Gisèleri, honek aurrez Millerri[88] abortiboaren harira badaezpada beste bisita bat egingo diola iragartzen dionean.

Beraz, eskuizkribuan nobelako 13. kapituluko amaierako testua ageri bada ere, Gisèleren eta Mauriceren arteko elkarrizketa litzakeena nobelan Gisèleren eta Jean Louisen arteko solasa bilakatu da. Bestetik, zirriborroan Gisèlek Jean Louisi laguntzarik eskatu izanaren aztarna ematen da ("Jean Louis'ek esan bezala Guissele'ek, Rossier medikuarengana jotzea erabakitzen du" fº33r) eta "Abortsone" hartzeko lagun batek iradoki ziola ere zehazten da (fº26r), baina aldiz, Jean Louisek eta Gisèlek izaten duten elkarrizketaren zantzurik ez dago. Beraz, zirriborroan elipsi gisa planteatzen den enkontrua eta izandako elkarrizketa da nobelako 13. kapituluan esplizituki ematen dena.

Azkenik, eta eskuizkribuan ageri ez baina publikaturiko edizioan aurki daitezkeen gehiketa nabarmenen eta esanguratsuenen zerrendatzearekin amaitzeko, nobelako "HAMASEI" kapituluan biltzen den "*Azaroaren 8-ko Le Temps aldizkaritik*" hartutako prentsa artikulua aipatu behar da (135-138). Artikuluak abortu ilegalen ondorioz astero hiltzen diren emakumeen datuen haritik tira eginaz abortuaren inguruko eztabaida planteatzen du, abortua debekatzea ez dela soluzioa salatuz zein pilula antisorgailuaren garrantzia nabarmenduz. Baina eskuizkribuan ez da ageri prentsa artikulu honen inguruko aztarnarik eta beraz, eskuartean dugun zirriborroaren ondotik gehitua izan da prentsako artikulua simulatzen duen pasarte hori ere.

Bestetik, eskuizkribuan nobelako testuaren zantzuak egon arren, eraldaketa nabarmena jasan duen pasartea Gisèle abortatzera "Comission de secours par l'interrution légale de la grossesse"-ren egoitzara doanean jazotzen da. Izan ere, eskuizkribuan jarraitu beharreko prozesuari buruzko oinarrizko argibideak ematen dira, nahiko zabar egia esan:

> Prozesua, tramitea ez da ez luze eta ezta konplikatua ere. Kasua mediku bateri presentatzen zaio abortua egiteko prest dagoen ginekologoaren rekomendazioarekin. Gero hamar minutu baino gehiago itxoinarazi gabe, lehendabiziko permisua ematen dute sikiatrari presentatzeko. Hunen baimenarekin eta bukatzeko juezak bi minututan erabakitzen du kasua. (fº36v)

Aldiz, argitalpenean urratsez urrats zehazten dira abortatze eskaria betetzeko aurkeztu beharreko agirien inguruko argibideak (150-151), informazio txartel edo paskin baten transkribaketa izango balitz bezala. Alde horretatik, *Le Temps* aldizkariko albistearekin egin bezala, nobelako testu

[87] Aurrez esan bezala, izena asmaturiko "Abortsone" botikaren funtzioa eskuizkribuko azalean idatzita ageri den "Dougynon oral" botika errealaren berdinak lirateke.
[88] 1968ko uztailaren 25eko Humanae Vitae entziklikaren aipua ere eskuizkribuan idatzitakoaren ondoren gehitu diren pasartean ageri da: "—Miller-engana? Bainan zu zoratuta zaude. Bainan horrentzat Humanae Vitae progresismoa da" (107).

narratiboan txertatzen da, bere horretan, informazio txartel edo eskuorri batean legokeen testuaren transkribaketa.

Gehiketekin alderatuz, zirrimarraturiko pasarteak (ezabaketa-, ordezkatze- eta lekualdatze-zirrimarrak) askozaz ere urriagoak dira eskuizkribuaren eta argitaraturiko edizioaren artean. Eskuizkribuko ordezkatze-zirrimarrarik bakan baina esanguratsuena jadanik aipatu dugun eskuizkribuko azken orrialdean dago, berritsuak Gisèle ezagutzen duela aditzera eman eta bere istorioa kontatzen duela adieraziko lukeen lerroak ezabatu eta horren ordez, berritsua telefono-zentralean hizketan ari denaren pasartea gehituz.

Lekualdatze-zirrimarrak direla eta, eskuizkribuan halako zirrimarrarik ageri ez bada ere, bada aipatzea merezi duen salbuespen bat. Hain zuzen, eskuizkribuko fº31r orrialdean, Fontanazen kontsultan izan ondoren azken honen galdera baten harira, barne-gogoeta hau egiten du neskak: "Zergatik etzion esan: 'Ezkon zindezke ez galdu itxaropena, ezkontzaren merkatuan erdia balioko baduzu ere, ez dira arabeak bakarrik birjindadea esijitzen dutenak…". Aldiz, argitaraturiko nobelako 142. orrialdean, hitzok lekualdatu eta Rossier medikuaren ahotan jartzen dira, aldaera gutxi batzuekin: "Ez dira arabeak bakarrik birjintasuna esijitzen dutenak… eta haur bat izateak… barkatu horrela hitzegitea, bainan ezkontzaren merkatuan zure prezioa asko gutxituko luke".

Ezabatze-zirrimarrak direla eta, zirriborroan hainbat adibide aurkitu daitezkeen arren, esanguratsuena narratzaileak Mauriceren deskribapena egiten duen pasartea ezabatua izan dela da. Bai eskuizkribuan eta baita argitaraturiko bertsioan ere zehazten da "Berak dioena: ez diat arkitu bi aldiz leitzera bultzatu nauen nobelarik eta ezta bigarren aldiz maitasuna egiteko desiratu dutan emakumerik ere" baieztapena, baina eskuizkribuan jarraian datozen xehetasun guztiak, zirrimarratu ondoren, ezabatuak izan dira eta ez dira ageri argitaraturiko edizioan:

> Reizidentziak lotzen ditek eta nik ez diat loturarik behar… Nork esaten zidak bihar trolebusean ez diatela ordurarte ikusitako emakume ederrik ikusiko? Bestalde neskak ez dituk bizitza guzirako hiri begira (izorratuak) gelditzen". Maurice, maitasuna deporte bezala egiten duten horietakoa da don Juan bat, plazerra baino zerbait baliotsuago billatzen dutenetakoa (ez konfunditu Casanovakin) morbosoa. Mauriceri etzaio gustatzen neska batekin maitasuna behin baino gehiagotan egitea, neskari gehienetan oso atsegin etzaion momentua akordaraztea; punta ateratzea. Punta ateratze hunen hasarretik datorkio gehienetan igesbidea. (fº21r)

Lerro horietan aipatzen diren xehetasun zenbait argitalpenean gehituko den Maurice eta Jean Louisen arteko pasartean ageriko dira, esan bezala, euren arteko elkarrizketan emakumeekin duten harremanen berri ematen delako eta nolabait, bi pertsonaien karakterizazioa euren hitzen eta ekintzen bidez adierazten da, narratzailearen esku hartzerik gabe, ezabaturiko pasartean egin bezala alegia.

Bi bertsioen erkaketarekin amaitzeko, eskuizkribuko kontakizunaren eta argitaraturiko bertsioaren artean dauden orden aldaerei erreparatu behar zaie. Izan ere, hainbat pasarte lekualdatuta ageri dira

zirriborrotik nobelarako jauzian. Horrela, aurrez aipatu dugu nola nobelan ageri den Gisèle eta Jean Louisen enkontruaren kapitulua berridazteko eskuizkribuan ageri den testu atal bat berrerabiltzen dela, horretarako zirriborroko atalaren ordena aldatuz. Horrelako hainbat adibide daude eta nabarmenen artean, lehenik eta behin, Gisèle aurrenekoz deskribatzen den pasartea nobelan eskuizkribuan baino aurrerago ageri dela esan behar da. Zirriborroan, aurreneko atalak berritsuaren diskurtsoari eskainitakoak dira eta ondoren dator Gisèle aurkezten den atala. Aldiz, nobelan berritsuaren diskurtsoaren atalen artean txertatu da aipatu Durkheimeko geltokiaren eta Gisèleren deskribapenaren atala (fº8v), 2. kapituluaren hasieran (19-20), hain zuzen.

Era berean, Gisèleren eta Mauriceren arteko bigarren enkontruaren pasartea ere lekuz aldatu da nobelan (67-73) eta eskuizkribuan (fº20v-fº22v) baino aurrerago kokatu da, 8. kapituluan[89]. Kontrara, Gisèlek bisitatuko dituen medikuen deskribapenaren atala, hots, nobelako 10. kapituluari dagokiona, zirriborroan kokatzen dena (fº16v-fº18r) baino atzerago lekualdatu da argitara emandako edizioan (77-79). Azkenik, nobelako 12. kapituluan (100-101) ageri den berritsuaren pasartea ere lekualdatu egin da eskuizkribuko kokalekuarekin alderatuz (fº22v-fº23r), atzerago eramanaz.

Testu mailako kontakizuneko orden aldaketa hauek lotura izan dezakete aurrez aipatu ditugun eta eskuizkribuan ageri ez diren kapitulu berrien gehiketekin. Izan ere, nobelako 6., 7. eta 9. kapituluen aztarnarik ez dago zirriborroan eta era berean, 8., 11., 12. eta 13. kapituluek ere gehiketa asko izan dituzte, aurre-testuko kontakizunarekin alderatuz. Beraz, kapitulu berrien txertaketak eragina izan dezakeela uste izatekoa da eskuizkribuko pasarteen lekualdatzean.

3.2.10. Ondorioak

*EHD*ren 1968ko eskuizkributik 1969an argitara emandako ediziora, beraz, aldaketa asko eta esanguratsuak gauzatu dira.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da 1968ko aurre-testua idazlearen inguru pribatuari dagokion lekukotasuna dela, eskuizkribu modernoa, eta nobelaren erredakzio aldiko aroari dagokionez, ez dela inolaz ere argitaratu aurreko aldiko zuzenketa urriak ageri dituen aurre-testua. Hori horrela, testua artean egin-bidean denaren zantzu nabarmenak aurki daitezke nobelaren zirriborroan: egilearen zalantza eta ezbaiak (adibide argiena, nobelaren une bateko amaierako lerroak zirrimarratu eta ordezkatzea litzateke), metakomentarioak ("luzatu", "landu", etab.), zuzenketek duten garrantzia, berritsuaren diskurtsoko zehazgabetasunak (kokalekua, narratarioen auzia)…

[89] Hain zuzen, eskuizkribuko fº22r orrialdeko ezker aldean ohar bat dago Gisèle eta Mauriceren arteko elkarrizketa zati bat markatuz eta "landu" metakomentarioarekin. Horrela, aurre-testuko eta argitara emandako nobelako pasarte hori ere nahikotxo eraldatu da batetik besterako bidean. Testuko aldaerez gain, pasartearen denbora iraupenaren berri ematen den "ROAMER 11,20", "ROAMER 11,30" eta "ROAMER 11,35" baliabide narratiboa ere ez da eskuizkribuan ageri eta nobelan bai, ordea.

Gainera, bi lekukotasunen alderaketa egin ostean, nabarmena da 1968ko eskuizkribuaren eta 1969ko argitalpenaren artean izandako bilakaera. Batetik, egitura mailako gehiketak txertatu dira: hanhemenka etengabe gaineratutako testu segmentuez gain (berritsuaren diskurtsoan zehar, kasu), kapitulu osoak (6., 7. eta 9.), kapitulu atal luzeak (11., 12. eta 13.) eta *Le Temps*eko artikulua erantsi dira. Bestetik, eskuizkribuko elementu peritestual guztiak ezabatu egin dira. Azkenik, estilo edo forma aldetiko zehaztapenak ere gauzatu dira argitalpenean: eskuizkribuan Gisèleren planoan gailentzen ziren 3. pertsonako formak 1. pertsonara moldatu dira, hikako formen aldeko hautua nagusituz gainera.

Izan ere, eta aldaera guzti horiek aintzat izanik, 1968ko eskuizkribuaren eta 1969ko argitalpenaren artean gutxienez beste idazketa aldi bat izan zela ondorioztatu daiteke. 1968ko eskuizkributik argitalpenera bitarte txertatu diren eraldaketen lekukotasunik eskura izan ez arren, agerikoa baita 1968ko aurre-testua argitalpenean nolabait definitibo egingo den testutik urrun dagoela oraindik. Gehituriko kapitulu eta atal luzeak dira horren erakusle. Baina bestetik, nobelaren une bateko excipita dago: eskuizkribuan berritsuaren kokalekua geltokia da une oro, azken zirrimarraren ordezko testuan telefono-zentralaren kokalekua iragartzen denera arte; eta erabaki horrek, berritsuaren kokalekua biderkatzea eragiten du, aurreko idazketa aldiko geltokiko zenbait pasarte telefono-zentralera egokitzera behartuz.

Azkenik, nobelaren baitako bi planoen arteko erlazio-loturen auziak garrantzia nabarmena bereganatzen du aurre-testuan, une zehatz bateko excipita zirrimarratuta ageri baita eskuizkribuan eta bertan, Gisèleren istorioa berritsuak kontatuko lukeela ematen da aditzera. Idazleak, ordea, excipit zehatz hori baztertu eta bi planoen arteko bestelako lotura bat (edo loturarik eza) iradokitzen badu ere, Lasagabaster bezalako kritiko zorrotzen intuizioa ere azpimarratu behar dugu, bera izan baitzen bi planoen arteko erlazioa zirriborroan une batean aditzera ematen den gisa berean interpretatu zuena.

*EHD*ren sorkuntza prozesuko 1968 eskuizkribuko zirriborroaren aurre-testua eta 1969 lehen argitalpenaren arteko erkaketa gauzatu ostean, beraz, aurre-testuan garapen bidean zen testua nobelaren argitalpenean nola egonkortzen den aztertu dugu. Baina sarritan, lehen argitalpeneko testua ez da behin-betikoa izaten eta *EHD*ren sorkuntza prozesua ere ez dela hor amaitzen aztertuko dugu jarraian. Saizarbitoriak egingo duen nobelaren berridazketaren ostean, 1969ko lehen argitalpenak aurre-testu izaera bereganatzen baitu 2007ko berrargitalpenarekin alderatuz gero.

3.3. *EGUNERO HASTEN DELAKO*: 2007KO BERRIDAZKETAREN AZTERKETA

3.3.1. Berrargitalpenak

*EHD*ren lehendabiziko argitalpena 1969ko azaroan kaleratu zuen LUR argitaletxeak, Kriseilu bildumako 10. ale gisa. Liburuaren edizioaren paratestuko ezaugarriei erreparatuz gero, azalaren diseinuaz Alberto Corazón diseinatzailea arduratu zen eta bertan neska baten aurpegia azaltzen da. Testuaren inguruko peritestuari dagokionez, aurrez esan bezala, lehen argitalpeneko hitzaurrea Ibon Sarasolak sinatu zuen. Nobelako atalak *kapitulu mutuen banaketa* bidez izendatzen dira (Genette 1987: 301), hau da, intertituluak zenbaki bidez soilik izendatzen dira, zenbakiok hitzez adierazten dira eta lehen argitalpenean hemeretzi kapitulu bereizten dira (hori bai, "Bost" intertitulua bi kapituluren goiburuan ageri da).

Bigarrengo argitalpena Hordago argitaletxearen eskutik iritsi zen 1979an. Azala lehen argitalpeneko Corazónen irudiaren moldaketa batek osatzen du eta aurrez aipatu bezala, bigarren edizioaren hitzaurreaz J. M. Lasagabaster arduratu zen. Ondotik, lehen edizioko Sarasolaren hitzaurrea eskaintzen da. Intertituluak direla eta, oraingoan ere zenbakiak erabiltzen dira baina hitzez adierazi beharrean, zenbaki arabiarrak ageri dira. Kapitulu kopuruari dagokionez, 20 kapitulu bereizten dira. Izan ere, lehendabiziko edizioan errepikatzen zen "Bost" intertitulua eraldatu eta 6. kapitulu gisa ageri da edizio horretan. Halaber, atal-banaketaren izendatze eraberritu hau berrargitalpen guztietan erreproduzituko da, 2007ko berrargitalpenean egileak berriro zuzendu arte. Azkenik, Hordago argitaletxeak beste bi berrargitalpen ere kaleratu zituen, 1982an eta 1983an.

1987ko abenduan, aldiz, Erein argitaletxeak berrargitaratu zuen *EHD*. Kasu honetan, azala Antton Olariagak jatorrizkotik moldatua da. Kredituen artean, berriz, argitaletxearen ohar bat erantsi da: urte eta erdi lehenagotik nobela agortua egon arren, egilea beste argitalpen bat ontzen ari zela eta, nahiago izan zutela *EHD* lehenago ez berrargitaratzea[90]. Bestetik, aurrez argitara emandako Sarasolaren eta Lasagabasterren hitzaurreak bere horretan erreproduzitzen dira, hitzaurre berririk gehitu gabe. Kontrazalean, berriz, Lasagabasterren hitzaurreko pasarte bat txertatu da aurreneko aldiz. 1987az geroztik, Ereinek *EHD*-ren sei berrargitalpen kaleratu ditu: 1989an bigarren argitalpena, 1991an hirugarrena, 1993an laugarrena, 1997an bosgarrena eta azkenik, 2000ean seigarren argitalpena. Lehendabiziko bost berrargitalpenek eite bera dute eta harrigarriki, 1987ko edizioko Erein argitaletxearen oharra berrargitalpen guztietan mantendu da, 2000ko edizioan izan ezik.

Bestelakoa baita 2000ko seigarren berrargitalpenaren kasua, edizio zuzendu eta eguneratua delako. Horrela, berritasunen artean, azalaren diseinua Iturrirena izatea da, oraingoan ere Alberto Corazónen marrazkian oinarritua. Bestetik, Iñaki Iñurrietak sinaturiko apailatzailearen oharra erantsi da liburuko

[90] Izan ere, *Ene Jesus!* (1976) nobelaren ostean, ordurako Saizarbitoriaren argitalpen berri baten iragarpenaren zurrumurruak ba omen zebiltzan, nahiz eta jakina denez, *Hamaika pauso* hurrengo nobela ez dela 1995 urtera arte argitaratuko.

peritestuan eta edizio berrirako lexiko aldetik aldaketa asko egin direla aitortzen du, *EHD*k argia ikusi zuenetik euskara batuak ere bere bidea egin duelako eta egungo euskara literario estandarrera hurbiltzeko saioa burutu dela[91]. Zalantza interesgarri bat ere planteatzen du Iñurrietak: "Bestalde, beti geratzen da zalantza: zenbateraino 'zuzen' edo 'hobe' daiteke nobela bat? Horrelakorik egiteko eskubidea, inork izatekotan, egileak bestek ez du" (Saizarbitoria 2000: 7). Eta aurrerago xeheki ikusiko dugunez, horixe bera egiten saiatuko da egilea bera 2007ko berridazketarekin.

Edizio zuzendu eta eguneratuan, gainera, M. J. Olaziregik idatziriko hitzaurre berri bat eskaintzen da nobelaren aurretik eta, kontakizunaren ondotik, Sarasolaren eta Lasagabasterren hitzaurreak erreproduzitzen dira. Kontrazalean, aldiz, sinatu gabe agertzen den nobelaren sinopsia biltzen duen testua gaineratu da eta liburuko azal-hegaletan, egilearen bio-bibliografia eskaintzen da azalekoan eta azkenik, kontrazaleko hegalean Erein argitaletxeko narratiba bildumako zenbait izenburu ematen dira.

Azkenik, seigarren argitalpenean oinarrituriko bertsio elektronikoa ere kaleratu du Ereinek, 2010an, hain zuzen.

3.3.2. 2007ko berridazketa eta egilearen hitzaurrea

2007an, ordea, Erein argitaletxeak *EHD*ren berrargitalpen eraberritu bat kaleratu zuen poltsiko-edizioko bildumaren baitan[92]. Paratestuari erreparatuz, esplizituki ez da zehazten egilearen berridazketa baten aurrean gaudenik. Azalaren egilea Aritz Albaizar da, oraingoan ere Alberto Corazónen lehendabiziko edizioko marrazkiaz baliatuta eta kontrazalean, aldiz, jada seigarren edizio zuzenduan ageri zen testu bera erreproduzitzen da. Poltsiko-edizioa izanik, liburuak ez du azal-hegalik baina aurrez hasierako hegalean zetorren egileari buruzko informazioa hitzaurrearen aurretik kokatu da orain.

Bestalde, Saizarbitoriak sinatzen duen hitzaurrea erantsi da edizio berrian eta bertan zehazten du, besteak beste, berrargitalpen berria berridazketaren ondorioz sortutako birmoldaketa dela. Kontrara, aurreko edizioetako Sarasolaren, Lasagabasterren eta Olaziregiren hitzaurreek ez dute lekurik berrargitalpenean.

Kontakizuneko kapitulu mutuen kopurua dela eta, *EHD* berridatzia berriro banatzen da 19 kapitulutan, lehendabiziko argitalpena bezala. Izan ere, lehen argitalpenean errepikatuta ageri zen "Bost" intertitulua ezabatu eta oraingoan bi atalak intertitulu bakarrean bildu dira. Beraz, aldaketa

[91] Edonola ere, hizkuntz bilakaeren ondorioz edizio zuzendu eta gaurkotuan egindako *EHD*-ko aldaera lexikoen azterketa ez dugu hemen egingo. Batetik, jorratu nahi dugun kritika genetikoaren ikerlerroren xede nagusia ez delako hizkuntz egokitzapenen aldaeren ikerketa filologikoa egitea. Eta bestetik, idazketa aldien lekukotasunen bidez obra zehatz baten sorkuntza prozesua azaleratu nahi denez, egilearen esku-hartzearen ondorioz egindako aldaerak soilik hartuko ditugulako gure ikerketarako abiapuntu.

[92] Erein argitaletxeko web orriaren arabera, edizio honen azken berrargitalpena 2013ko urrian burutu da.

horrekin aurreko edizioetako banaketa berriro eraldatu da, "hurrengo edizioek zenbait akats konpondu badute ere, berriak sortu dituzte[lako] (Hernández Abaitua 2008: 107). Ondorioz, eta esan bezala, lehendabizikoaren osteko berrargitalpenetan "6" intertitulu gisa aldatu zen kapitulua bosgarrenaren baitan kokatu da eta beraz, 1969ko kapituluen banaketa berreskuratu du Saizarbitoriak.

Hitzaurrera zinez da esanguratsua, berrirakurketaren eta berridazketaren inguruko arrazoiak zein inpresioak, lehen argitalpenarekin loturiko gorabeherak eta, azken batean, idazleak *EHD*ren sorkuntza prozesuari buruzko argibide asko aletzen dituelako.

Lehendabizi, nobelaren aurreko berrargitalpenetan hizkuntza egokitasunez arduraturiko "filologo oso konpetenteak" aipatu eta eskerrak ematen dizkie Ibon Sarasola, Koldo Izagirre, Ramon Etxezarreta eta Iñaki Iñurrietari. Eta jarraian, Iñaki Aldekoa editorearen kezka – "hainbeste errebisioaren ondoren, testuak ez ote duen bere jatorrizko zerbait galdu, ez ote den jatorrizkotik gehiegi urrundu"– eta idazleari luzaturiko proposamena aipatzen ditu: "originala eskuan, neronek berrikustea eta kezka lexikalak alde batera utzita, hala baneritzon, neurera ekartzea berriro" (Saizarbitoria 2007: 8).

Eskaera onartu zuela eta bere obren berrirakurketaren inguruko azalpenak ematen ditu Saizarbitoriak ondotik. Behin argitaratuta ez omen du eta ohiturarik berak aurrez idatziriko testurik berrirakurtzeko[93]. Dena den, lehen argitalpenean zegoen akats tekniko bat zuzentzeko nahia izan zen nobela berrirakurtzera bultzatu zuena. Izan ere, Gisèlek abortatzen duen pasartean, medikuak forzeps bat eskatzen dio laguntzaileari eta bi hilabeteko enbrioi baten abortatze operazioan erabat lekuz kanpo dagoen elementua izaki, akats hori obsesio bihurtu omen zen egilearentzat, are gehiago, Saizarbitoriak *Perinatalidad y prevención* (1981) eta *Nacer en Guipúzcoa* (1981) lanak ere idatzi baitzituen. Beraz, akats tekniko hori zuzentzeko asmoak eraman zuen Saizarbitoria 1969an argitara emandako *EHD* ia berrogei urte beranduago berrirakurri eta berridaztera. Bere hitzetan, "orain, literatura egiteko saioan zerbait zaintzen badut, obsesiboki zaintzen dudala ere esango nuke, zehaztasun teknikoa da, eta irakurle gisa jasangaitza gertatzen zait zabarkeria" (ibid.: 9).

EHD berrirakurri ondoren, nobela freskoa iruditu zitzaiola aitortzen du idazleak eta agerikoa dela kontakizuna, hitzez hitz, planifikatutako egitasmo baten emaitza dela. Jarraian, nobelaren gai nagusia eta defenditzen duen tesiarekin lotuta, garaiko zentsura frankistarekin izan zitzakeen arazoak saihesteko, Arestiren gomendioz Antonio Arruerengana nola jo zuen azaltzen du Saizarbitoriak eta argitaratzeko baimena azkenean nola lortu zuen. Era berean, liburuaren azaleko irudia medio José de

[93] Salbuespenen artean, ikergai dugun nobelaz gain, *Hamaika pauso* eta *Martutene* izan omen dira berrirakurri dituen bere nobela bakarrak eta kasu horietan obren itzulpenarekin loturiko kontuek behartuta egin zuela adierazi zuen *Literaktum* jaialdiaren barruan 2015eko maiatzaren 7an eman zuen hitzaldian.

Artecherekin izaniko tirabira ere aipatzen du[94] eta horrenbestez, eta Alberto Corazónen omenez, argitalpen berri bakoitzean azalean gorde nahi izan duela idazleak irudi hori.

Nobelan agertzen den sexuaren eta maitasunaren kontzepzioen inguruan ere egiten ditu hainbat ohar egileak baina aurrerago xehekiago jorratuko dugu gai hau, hitzaurrean adierazitako kontuek badutelako berridazketan gehitutako pasarte batekin lotura zuzena.

Azkenik, berridazketa eta birmoldaketaren inguruko argibideak emanaz amaitzen du hitzaurrea. Aurreko zuzentzaileen testuarekiko adeitasunaren eta lanaren eraginkortasunaren ondorioz, zenbait erdarakada moldatzera mugatuko zela bere lana uste izan zuen idazleak hasieran. Lexiko mailako aldaketatxoak sartzerakoan, ordea, beste hainbat akats tekniko eta errazkeri atzeman eta horrenbestez, nobela berridaztea erabaki zuen Saizarbitoriak.

> Beraz, han eta hemen perpausak aldatzen hasi nintzen, paragraforen bat ere bai –neurea zenez, ez bainuen testua errespetatu beharrik–, eta azkenerako, bosgarren kapitulutik aurrera batez ere, ia dena berridazteari ekin nion, errazago gertatzen baitzitzaidan. Oso lan neketsua eta aspergarria izan da, esan dut lehen ere, testua traizionatzea bainuen, baina neurri batean baino ez, nolabait esateko, lehengo bera izaten jarraitu behar zuelako. Esango nuke lortu dudala, jatorrizko bertsioa berean mantenduz, punturen bat argitzeaz gain nobela han eta hemen sarriegi kaltetzen zuten desegokitasun narratiboez libratzea, eta iruditzen zait lehen ere irakurria lukeen norbaitek oraingo bertsioa hau berrirakurtzeko lana hartuko balu, ez litzatekeela konturatuko egin ditudan aldaketez (ibid.: 20-21)

Ordea, hurrengo ataleko azterketa horrexetara mugatuko da, *EHD*ren 2000ko edizio zuzendu eta eguneratuaren eta 2007an idazleak berridatziriko nobelaren arteko alderaketa zehatza egin eta berridatziriko bertsio berriak aurreko bertsioekin dituen aldaerak azaleratzea izango baita gure zeregina.

3.3.3. Berridazketaren eta aurreko bertsioen arteko alderaketa: aldaeren azterketa

Hitzaurrean zehaztu bezala, Saizarbitoriak bosgarren kapitulutik aurrera ekin zion "ia dena berridazteari". Hori horrela, 2007ko *EHD*ko aurreneko lau kapituluetako aldaerak urriak dira ondoren etorriko direnekin konparatuta.

Lehendabiziko aldaera erreferentziak eguneratzearen emaitza da, aurreko bertsioetan Sacha Distel irakur zitekeen lekuan, orain Marlon Brando irakur baitaiteke berritsuaren ahotan: "Marlon Brando ez naizelarik ere, iaioa naiz geltokietan maleta batekin bakarrik dauden neskatoen adeitasuna lortzen". Nobela idatzi zen garaian Distel abeslari frantsesa oso ezaguna izanagatik ere, agerikoa da Marlon Brando zinemako ikonoa ezagunagoa dela egun. Aldaera horrez gain, ordea, hizkuntza egokitzapenak eta ordezkapenak dira bereziki lehen lau kapituluetan idazleak egiten dituen aldaerak ("semeen" > "seme-alaben").

[94] Hain zuzen, Artecherekin izandako tirabira eta Corazónen marrazkiaren inguruko kontuak xeheki aletu zituen Hernández Abituak *Argia*n ateratako "Eleberri modernista baten blasfemia jakingabea" artikuluan (2009/04/12).

Izan ere, ez dira alferrik igaro ia berrogei urte nobela aurrenekoz kaleratu zenetik eta eguneratze nabarmenenak, ezinbestean, ginekologoen kontsultako pasarteetan edota aurrerago ikusiko dugun *Le Temps* aldizkariko artikuluaren berridazketan aurkituko ditugu. Halere, aurreneko aldaeretan ere aurki daiteke denboraren iragaiteak eragindako bestelako eguneratze bat ere, egungo gizartean elizak duen boterea gutxietsi gabe, are boteretsuagoa baitzen nobela argitaratu zen garaian, eta hortik ziurrenik, ondorengo moldaketa:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Gaurko Elizak herriarekin egon nahi omen du. Ba, horretarako, nahitaez, neurri batean edo bestean, herriaren esanari adi egon behar du, beste erremediorik gabe.	Gaur Elizak herriarekin diardu, harekin nahi du lotua egon, horrela ba honek regulatzen du.

Azkenik, beste zenbait aldaerek orrazketa literarioarekin dute zerikusia eta estilo sotilagoaren aldeko hautua iragartzen dutela dirudi, metaforak eta irudi poetikoak leuntzeko joera bat, alegia.

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Eguzkia zeruan ezkutatzen, basoan txori baten kanta ere ez da entzuten.	Eguzkia zeruan pitzatuta –zuhaitz adarrak bola gorriaren aurrean, pitzatutako itxura ematen diote– txori baten kanta ere ez da entzuten.
Areto barneko argitasuna gordina da.	Bonbila bat piztuta dago egun argiari konpetentzia egiten bezala.

Lehendabiziko lau kapituluetako aldaera nagusia, ordea, gehiketa baten emaitza da. Laugarren kapituluaren amaiera aldera, berritsua Frantziako emakumeen estiloaz mintzo denean, herrialde horretan sedukziorako duten trebetasuna aipatzen da. Aurreko bertsioetan ez bezala, ordea, pasarte bat gehitu du Saizarbitoriak berridazketan.

> Zenbat Lolita ikusi ditudan Pariseko kaleetan, metro erdi neurtzen ez zuten ume musugorriak beren adats ongi zainduekin, seduzitzeko zuten gaitasunaz jabe zirenak. Baina ez ezazu nitaz behintzat gaizki pentsa, ni ez naiz Nabokov, nahita ere ez nuke tximeleta bat inoiz hilko… Ez ezazu barrerik egin… Zertaz ari nintzen? (ibid.: 41-42)

Gehiketa zinez da garrantzitsua. Batetik, ondorengo kapituluetan etorriko diren askotariko gehiketa eta gainontzeko aldaera esangurtasuen aurrekaria delako; eta bestetik, gehiketa bidez aurreko bertsioetan baino testuartekotasun aipu gehiago txertatuko direlako bertsio eraberrituan eta horren erakusle dugu aurreko adibidea. Literatura unibertsaleko erreferentziak txertatuz, Lolitaren irudi estereotipatuari men egin eta Nabokoven tximeleta ehiztariaren irudiaz baliatuz alegia, berritsuak estazioetan maleta batekin bakarrik dauden emakume gazteekiko asmo txarreko erakarmenik sentitzen ez duela adierazten du.

5. kapitulutik aurrera, esan bezala, aldaera askoz gehiago txertatuko ditu idazleak eta egokiena, beraz, aldaera garrantzitsuenak aipatuz atalez atal errepaso bat egitea izango dugu.

Hain zuzen, 5. kapitulua mugarria da, lehen edizioan kapituluaren izena errepikatuta ageri zelako eta ondorengo zuzenketetan bi kapitulu bereizi zirelako, ondorengo kapitulu mutu guztien zenbakia ere aldaraziz. Aldiz, egilearen berridazketan kapitulu bakar batean biltzen ditu lehendabiziko edizioko 5. kapituluko bi atalak eta ondorioz, ondorengo kapitulu guztiek lehendabiziko edizioko zenbaketa berreskuratzen dute.

Bestetik, 5. kapitulutik aurrera nobelaren berridazketan sistematikoa bilakatuko den eraldaketa aurki dezakegu. *EHD*ren eskuizkribua eta lehendabiziko argitalpena alderatu direnean ere atera da kontua; nola hasiera batean aurre-testuan 3. pertsonaren aldeko hautua egiten zen Gisèleren istorioko pertsonaien gorabeherak kontatzeko une jakin batzuetan, baina une batetik aurrera, ziurrenik zuzenketa proposamenenen ondorioz gainera, 1. pertsonako formak gailendu eta pertsonaien barne-gogoeta bidez eskaintzen diren euren bizipenak, gehienetan hikako formak nagusituz. Bada, 2007ko berridazketan, Gisèleren istorioaren baitako 1. pertsonako marka ia guztiak desagertu egingo dira eta agertzen badira kakotxen artean zehaztuko dira, estilo zuzenaren adierazle gisa, hikako formarik gabe, gainera. Horrenbestez, narratzaileak 3. pertsonaren erabilera baliatuko du oraingoan ere, eskuizkribuko hasierako lekukotasuneko une jakin batean bezala, pasarteon eta gogoeton aurreko bertsioetako fokalizazioa eta subjektibotasuna alde batera utzi eta narratzailearen objektibotasunaren aldeko apustua eginaz.

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
"Oraingo honetan ez **naute** behintzat asistentzia faltagatik suspendituko".	Oraingo honetan ez **nautek** behintzat asistentzia faltagatik suspendituko.
Mauricek (…) erasora pasatzea erabakitzen **du**.	Erasora pasa beharko **diat**.
Apunteak klasean bertan ala irten eta gero **eskatzeazpentsatzen duen** bitartean,	Irteerakoan, apunteak **eskatuko zizkioat**
Beti **daki** behar dena egiten Gisèle honek.	Beti **zekik** behar dena egiten Gisèle honek.
Gero parkera eramango **du**. Eta ondoren etxera gonbidatuko, kopa bat hartzera. Gisèlerekin kafe bat hobe kopa bat baino. Gainera badaki lehendabiziko egunerako gehiegi korritzea izango **litzatekeela**.	Gero parkera eramango **diat**. Eta gero etxera kafe bat hartzera gonbidatuko **banu**? Ez. Lehendabiziko egunerako gehiegi korritzea izango **huke**.
Ez zaio iruditzen papertxoak botaka jardun duten burugabe horiek irteeran Gisèlerengana hurbilduko direnik, baina, edonola ere, erabaki finkoa hartua **du**, ausartuko balira, "barkatu, gazteak, baina nik hitz egin behar dut neska honekin" esateko.	Eskubi aldeko bi alu horiek inportunatzen ez badute atakatu **eginen dut**, bai horixe...
Beste Gaulois bat; klasetik ateraz geroztik, gutxienez hamar erre **ditu**.	Beste Gaulois bat; klasetik ateraz geroztik, gutxienez hamar erre **dizkiat**.
Ama **datorkio** gogora, zer esango lukeen jakingo **balu**, eta prentsamendu horrek izara artera gordetzera darama.	**Nire** amak itxura honekin ikusiko **banindu**. Nahi gabe izera artean ezkutatzen da.
Ez **zuen** uste horren erraza izango zenik. Ez **zaio** iruditu esaten duten adinako mina egiten duenik.	Ez **ninan** uste horren erraza izango zenik. Ez **din** esaten duten adinako mina egiten.
Soeur Justinek asko hitz egiten zien haragiaz, mutilen kontra ohartarazten zituen, beti sexu beharrean zeudelako.	Eta Soeur Justinek ikusiko **banindu**?
Ez **ditu** bularrak handiagoak ikusten.	Ez **dizkinat** bularrak handiagoak ikusten.
--	Zer egingo **dinat**, esnatu gabe joan?
--	Baina beharrezkoa al **nuen** bestea egitea? Ez **ninan** beharrezkoa, baina ondo pentsatuta birjintasuna ere ez **ninan** ezertarako behar.

Burugabekeria izanik ere, nahiago **du** deus espero gabe ematea.	Burugabekeria izanik ere nahiago **dinat**. Egia esan, deus ere espero gabe, zerbait emateko orduan burugabea izan behar.
Burugabe bat omen **da** Gisèle,	Burugabe bat **naun**.

5. kapituluan, aurrekoan bezala, testuartekotasun aipu bat txertatu da, kasu honetan pintura arloko artelan bati erreferentzia egiten diona. Izan ere, Gisèle eta Maurice elkarrekin ateratzen direnean, neskak mutilari esango dio baduela arraunlari itxura, "Renoirren 'Arraunlarien gosaria' koadrotik aterea dirudiela. Mauricek ez du koadroa ezagutzen eta ez daki, ezta ere, adarra jotze aldera esaten dion". Azalpena ere eransten du jarraian, Renoir asko gustatzen zaiola eta "Arraunlariaren koadroa bereziki" gaineratzean. Bertsio berrian protagonista Renoirren artelan famatuaz baliatzen da, beraz, Mauriceren deskribapena burutzeko – "lastozko kapelua buruan eta maukarik gabeko elastiko zuriekin beso mardulak erakusten ageri den arraunlari harro horien antza hartzen dio"–, eta apurtxo bat aurrerago, berriro errepikatzen da konparazio hori: "Egia da Renoirren arraunlarienetako bat gogorarazten diola eta bizarra latza duela, baina ederra da".

*EHD*ren aurreko bertsioetan halako aipurik ez bazegoen ere, Saizarbitoriaren bigarren aroko zenbait lanetan pintura arloko artelanek duten presentzia esanguratsua denez, baliteke gehiketa berria idazlearen joera horren ondorio izatea (adibidez, Hooperren koadroak *Bihotz bi*n, Prerrafaeliten lanak *Rossettiren obsesioa*n, "La Cárita romana" *Martutene*n, etab.).

Era berean, Gisèle eta Mauriceren enkontruan A. N. Whitehead filosofo eta matematikariaren izena ere gehitu da, mutilak neska liluratzeko bere lagun Jean-Louisi entzundako "filosofia oro ez dela Platonen idazkietan oin-ohar bat baino gehiago" aipua erabiltzen duenean, hain zuen. Mutilak ez bezala, ordea, Gisèlek argi du nor den esaldiaren egilea eta are, Platon dela eta, neska harritu egiten da "bi mila eta bostehun urte lehenago jaiotako gizon bat hain gertuko sentitzea, egungo pertsona asko eta asko baino gertukoago".

Bestetik, Gisèle eta Maurice elkarrekin hitz egiten hasten direnean, pasarte zehatz bat Gisèleren barne-bakarrizketatik elkarrizketara moldatu da, hots, zehar estilotik estilo zuzenera. Gisèlek bere buruari Maurice bizarrik gabe hobeto legokeela zioen lekuan, oraingoan elkarrizketa bidez jakinaraziko dio mutilari eta horren erreakzioaren ondotik, "barre egiten dute. Lehen aldia da egiten dutela eta Maurice lasaiago sentitzen da" esaldiak gehitu dira.

Kapitulu honetan gehitu diren gainerako pasarte esanguratsuenen artean, beranduago aipatuko dugun protagonistaren amaren presentzia areagotzeaz gain, Gisèleren barne-gogoeta luzea nabarmendu behar da. Berarekin oheratu ondoren, Mauricek klaseetara joateari utziko dio eta horren harira, Gisèleren heldutasuna eta harremanekiko duen jarrera agerian geratuko da. Aurreneko esaldia

aurreko bertsioetan ere bazen, baita pasartearen erdiko esaldi bat ere, baina beste guztia, bertsio berridatzian gehitua izan da:

> Ondorengo egunetan Gisèlek ez du Maurice klasean ikusten. Ihes egiten diola uste du. Alde batetik, nahiago du horrela, ez bailuke jakingo zer esan, zer aurpegi jarri. Baina bestetik, badaki hobe litzatekeela proba horri lehenbailehen aurre egitea. Maurice lasaitu nahi luke, esan ez duela zergatik lotuta sentitu behar maitasuna egin zutelako. Ez luke nahi, batez ere, mutilek uste ohi duten bezala, sexua bera harrapatzeko amu bezala erabili duela pentsatzea. Bere adiskidea izan nahi luke, atsegin duelako, zergatik ez badaki ere, arraunlari gorputz gihartsua duelako akaso, azaletik lotsagabea eta alproja badirudi ere, atsegina eta xamurra delako. Baina ez du maite. Ez litzateke berriro berarekin oheratuko, egin izanaz damu ez bada ere. Ziur da orain mutil batenganako maitasunaz ziur egon gabe ez lukeela harreman sexualik izango. Baina haren falta sentitzen du. Egunak aurrera doaz, garaiak agintzen duen bezala, euritsuak. Askotan klasetik irtetean eta nola ez dakiela, ibaiertzeko petril gainean aurkitzen du bere burua eserita. Atsegina zaio nostalgia, hostoek euriarekin ateratzen duten hotsa maite duen bezala. Batzuetan arrabia ere sentitzen du Mauriceren kontra, baina ez abandonatu duelako –"erabili eta bota, paperezko musuzapi bat bezala", esango zukeen Berthek–, baizik eta beren enkontruaz hitz egitea eragotziz, beren enkontrua zikindu bezala egin duelako. Burutik kentzeko konpromisoa hartzen du eta, lortzen ez badu ere, azkenerako, gogora ekartzerakoan, ez du deus sentitzen, hutsune arraro bat izan ezik (ibid.: 53)

Pasarte luzearen gehiketak Saizarbitoriak hitzaurrean aipaturiko hitzak dakartza gogora. Izan ere, nobelako protagonistaren maitasunarekiko eta sexuarekiko trataera dela eta –"Ziur da orain mutil batenganako maitasunaz ziur egon gabe ez lukeela harreman sexualik izango"–, idazleak dio egungo zenbait ikuspegitatik begiratuta agian "anakroniko xamarra" eman badezake ere, Saizarbitoriak arlo horretan Gisèleren jarrerarekiko nostalgia sentitzen duela berresten du hitzaurrean.

5. kapituluan dena ez da gehiketa ordea, eta Gisèleren gogoeta baten kenketak ere atentzioa deitzen du, Mauri cerekin oheratu ondoren, honakoa ezabatu baita berridazketan: "Kanpaiak isildu egin dira… Txikitan kanpai hotsa entzundakoan negar egiten zuen. Beti norbait hil zela uste izaten zuen; bere amonaren herrian norbait hildakoan jotzen zituzten…". Izan ere, 2007ko *EHD*ren berridazketaren inguruko elkarrizketa batean, Saizarbitoriak aitaren herrian, Mutrikun, bera umea zela heriotzak herrian zuen pisuaren oroitzapena nabarmendu zuen eta gertakari zehatz bat aipatzen du, *EHD*ren idazketan eragina izan zezakeelakoan:

> "Egun batean, heriotzaren inguruko giro hori sumatu nuen herrian, hil kanpaiak jo zituzten, herri osoa goibel ikusi nuen eta jakin nuen neska gazte batek bere burua hil zuela, eskopetaz sabelean tiro eginez, haurdun zegoelako", hasi zen idazlea 'Egunero hasten delako' eleberriaren sorreran izan ziren gertakariak arakatzen (Agirre 2009: 16)[95].

6. kapitulua berritsuaren planoari dagokio eta oso laburra denez, zenbait hitz egokitzapen eta sintaxiaren ordenarekin lotutako aldaerez gain, ez da gehiketa edota kenketa nabarmenik txertatu.

7. kapitulua Jean Louisen eta Mauriceren arteko elkarrizketak osatzen du, lehendabizi elkarrekin arraun egitera ateratzen direnean eta ondoren, Jean Louisen etxean. Mauricek Gisèlerekikoak kontatu

[95] Edonola ere, ezin ziurta dezakegu Gisèlek oroitzen dituen umetako hil kanpaien aipua ezabatzeak elkarrizketan adierazitako Saizarbitoriaren umetako hil kanpaien oroitzapenarekin loturarik ote duen.

eta bere kezkak plazaratzen dizkio. Atal honen bertsio berridatzian, aurrekoetan ez bezalako jarrera erakutsiko dute bi mutilek. Gisèlerekiko abegitsuagoa, nolabait esatearren eta pertsonaien karakterizazioari begira biengan bestelako jarrera bat gailentzen dela ikus dezakegu, nahiz eta *de facto* kontakizunaren bilakaeran eraldaketarik ez eragin. Aldaerak xumeak izan arren, aurreko bertsioetan Mauricek, Jean Louisen gomendioz herrira ospa egitea erabakiko du eta ondoren, Gisèle "pikutara bidaltzea". Bertsio berrian, aldiz, Gisèlekin hitz egin eta argi jokatzeko aholkatzen dio Jean Louisek eta Mauricek "saiatuko dela ongi portatzen" zin egiten dio. Hona hemen aldaera guztiak xeheki zerrendatua:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
–(…) Esaiok egia, maite ez baina estimatzen duala. Neska jatorra duk eta ulertuko dik. –Bai, hori egingo diat.	– (…) Aurrera itzak bakantzak eta etxera hadi… Buru apur bat baldin badu, konprenituko dik… Nik hartuko dizkiat unibertsitateko firmak. –Bai, hori egingo diat seguruena…
–Nahi duana. Baina ez huen Gisèlerekin hitz egin behar? –Bai, zenbat esne? –Nahi duana. Eta orduan? –Ez zekiat, bihar edo etzi azalduko nauk fakultatean.	–Nahi duana. Baina ez huen etxeratu behar? –Bai, zenbat esne? –Nahi duana. Eta orduan? –Ez zekiat, bihar edo etzi joango nauk.
–Ez didak erantzun. Noiz hitz egin behar duk Gisèlerekin? –Ez nauk ausartzen… pena ematen zidak. (…) –Hori da, eta penarik ez sentitzeko, gehiago izorratu. –… –Nire iritzian, hik oso taktika zikinak erabiltzen dituk. Hasieran, Romeo bezala[96], "maite zaitut" asko, eta behin bustiz gero, hor konpon Mari Anton.	–Ez didak erantzun. Zer egin behar duk Gisèlerekin? –Joan den egunean uzteko esan hidan. (…) –Zer egin behar duan ez, nik esan nian… –… – Nire iritzian, hik oso taktika zikinak erabiltzen dituk. Maite zaitut, hau hori eta bestea esanda gero, gaizki geratu behar.
–Beno –"brûllante et douce"– garbi jokatu behintzat. Ez daukak gustatzen zaizkian neska guztiak maitatu beharrik. Berak ere ez dik akaso hori nahi. Neskak ez dituk ofendituta sentitze maitatzen ez ditualako, engainatze ditualako ziur aski bai. Gainera, gezurra ez da praktikoa. Egia esanda, beste baterako ere ondo gelditzen haiz, ez duk ihesean ibili beharrik.	–Beno… "brûllante et douce" garbi jokatu behintzat. Horrela, behar dituanean ondo gelditzen haiz.
–(…) Orain serio Maurice, izan hadi leiala neska horrekin. Ez ezak gehiago izorra. –Aita bat bezala mintzatzen haiz. Zer, gustatu egiten zaik? Agendarena? Ez didak esan izen bat baino gehiago edukitzen ikasi behar dudala? –Ondorenak onartuz, ordea. Haien agendak ere errespetatuz, eta hik, ikusten denez, ez duk horretarako balio. –Saiatuko nauk ongi portatzen, eta orain joan hadi pikutara.	–(…) Orain serio Maurice, uztak bakean. Irabazi duk, ez? Ez haiz kontent? Ez ezak gehiago izorra. –Aita bat bezala mintzatzen haiz. Aurreko kaputxinoen influentzia, beharbada? Eta agendarena? Hasieran berriz, ez uzteko esan didak, herorri ere ez haiz entenditzen. –Agendaren ondorenak onartuz. Haien agendak ere errespetatuz eta hik, ikusten denez, ez duk horretarako balio. –Berarekin egongo nauk eta pikutara bidaliko diat.

Gainera, bigarren mailako pertsonaien jarrera eta, ondorioz, karakterizazio aldaketa ez dator soilik esaten eta adierazten dutenetik, baita Jean Louisen logelaren deskribapen eraberritutik ere. Horrela, aurrez poster aski pornografikoak zeuden lekuan orain film-posterrak aurkituko ditugu eta haien

[96] Beste behin ere, pertsonaia bat karakterizatzeko jada topiko bihurtu den erreferentzia intertestual bat txertatu da, Shakespeareren *Romeo eta Julieta*ko Romeorena, hain zuzen.

ondoan, gainera, "Gernika"ren litografia txertatu da bertsio eraberrituan. Pinturaren alorreko aipu intertestual bat izateaz gain, konnotazio askoz sakonagoak dituen aipua, inondik ere:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Gela ere gorritik gertu dagoen arrosa kolorez margotua dago, horma ikusten den lekuetan behintzat, "Gernika"ren litografia handi batez gain, ia dena film-posterrez josita baitago.	Gela ere gorriz pintatuta dago, horma ikusten den lekuetan; dena posterrez beterik aurkitzen baita, gehienak aski pornografikoak

Gisèleren eta Mauriceren bigarren enkontrua biltzen duen zortzigarren kapituluan, 5. kapituluko aldaeretan aipatu dugun pertsona marken eraldaketa (1. > 3.) aipatu behar da:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Berak dioena: ez **du** aurkitu bi aldiz irakurtzeko gogoa piztu dion nobelarik eta ezta bigarren aldiz maitasuna egiteko adina desiratu duen neskarik.	Berak dioena: ez **diat** aurkitu bi aldiz bultzatu **nauen** nobelarik eta ezta bigarren aldiz maitasuna egiteko adina desiratu duen emakumerik.
Edukitzen dena desiratu ohi **da**.	Edukitzen ez dena desiratu ohi **duk**.
Etxeratu banintz hobe –**pentsatzen du**–.	Etxeratu **banintz** hobe.
Alde egiteko gogoa egin **zaio** Mauriceri: nahiagoko zuen etxeratu izan **balitz**.	Alde egin beharko **diagu** hemendik, etxeratu **banintz** hobe…
—Horixe behar **genuen**! "Ez dezagun honda", gainera[97].	Falta **zitzaidana**. "Ez dezagun honda" gainera.

Bestalde, kapitulu honetan aurreko argitalpen guztietan errepikatu den errata bat ere zuzendu da. Hain zuzen, pasarteak iraun lezakeen denboraren berri Roamer erlojuari egiten zaizkion aipuek ematen dute aditzera eta halako batean, aurreko bertsioetan "ROAMER 11:30. (…) Hamaikak eta hogeita bost" zegoen lekuan, "ROAMER 11:30. (…) Hamaikak eta erdi" zuzendu da.

9. kapitulua, seigarrena bezalatsu, berritsuaren planoari dagokion pasarte oso laburra da eta ez dugu nabarmentzeko moduko aldaerarik aurkitu.

10. kapitulua Gisèlek banan-banan bisitatuko dituen sendagileen deskribapen soilek osatzen dute eta eskuizkribuko metakomentario batean zehazten zen bezala, "periodiko notizia bezala" idatzita aurkezten dira. Deskribapenotan, xehetasun gutxi batzuk gehitu eta beste zenbait ezabatu egin dira. Hasteko, Miller sendagilearen deskribapen amaieran, hitzaldi ziklo batean jazoriko gertakaria aipatzen bazen, bertsio eraberrituan xehetasun gehiago erantsi zaizkio kontu horri:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Orain hilabete batzuk eman zuen hitzaldi ziklo batek esamesa franko sortu zuen, modu txarrean amaitu baitzen. Hiru hitzaldi zen ematekoa, eta lehendabizikoan pilulak emakumearen osasunari kalte egiten diola azaldu zuen, bereziki minbiziaren arriskua areagotzen omen duelako. Lehendabiziko horretan ez	Orain hilabete batzuk eman zituen konferentzia batzuek zeresan handiak sortu zaituzten. Konferentzia horietan pilularen kontra altxatu zen eta ez zen deus ere pasa izango entzuleen artean –Durhkheimgo kontserbatzaileak gehienak– kimikako estudiante

[97] Aurrez barne-gogoeta gisa jasotako testua elkarrizketa moduan eman da oraingoan.

zen deus gertatu, entzuleria –gehienbat Ekintza Katolikoko kideez osatua– bera bezain kontserbatzailea zelako. Bigarrenera, ordea, ikasle ugari azaldu zitzaizkion, eta elkarrizketa orduan haietako batek hitza hartu eta pilularen defentsa sutsua egin zuen ez bakarrik haren osagarriak diren estrogenoek ez omen dutelako minbizia izateko arriskua handitzen, baizik eta Estatu Batuetan jasotako esperientziaren arabera –non pilula aspaldidanik erabiltzen baita–, gutxitu egiten dutelako. Millerrek, bere onetik aterata, kontrazepzioaren auzian garrantzia arrazoi moralek zutela erantzun zion eta bertan behera utzi zuen hirugarren hitzaldia.	batzuk ez balira aurkitu. Pilula emakumearen organismoarentzat kaltegarria zela esandakoan, ikasleek arrazoi batzuk presentatu zituzten: Estatu Batuen esperientzia eta pilularen konposizioa ez zaiola organismoari arrotza, berez dituen hormona batzuk direla etab., alegia. Miller sendagileak arrazoi moralak zituela erantzun zien.

Bestetik, Alfred Fontanaz medikuaren deskribapena egiten denean, beste hainbat aldaera txertatu dira. Batetik, aurreko bertsioetan aipaturiko "Ordenaren maniako dela esan daiteke, eta gehiago alkatetza garaian, artxiboetako ordena agindu eta zuzendu zuenean, kobratzeko paperetan hirurehun mila franko aurkitu zituenez geroztik" ezabatu egin da. Era berean, jarraian zetozen emazteari eskainitako hitzak ere ezabatu egin dira berridazketan: "Bere emazteak ere, hura baino hamarren bat urte gazteagoa, arrano aurpegia du, arranoek begi urdinak baldin badituzte behintzat, eta garai batean italiar emigrante gazte bat maitale izan zuela zabaldu zen". Ondorioz, bertsio berrian ez da Fontanazen emazteari eginiko aipurik agertzen[98], nahiz eta seme-alaben aipua mantendu egiten den.

11. kapituluan, aldiz, bat egiten dute berritsuaren planoak eta Gisèlerenak. Aurreko kasuetan bezala, berritsuaren atalean lexiko aldaketa batzuk badiren arren, egungo euskarara moldatzeko hizkuntza egokitzapenak dira, oro har. Gisèleren atalean, berriz, haurdun egon daitekeela jabetzen den pasartea kontatzen da eta atala eguraldiari buruzko hainbat oharrekin abiatzen bada ere, eguraldiari loturiko sarrera laburtu egin da berridazketan zenbait esaldi moldatuz eta beste zenbait ezabatuz. Bestetik, 1. pertsona marken erabilera saihestu eta 3. pertsonaren aldeko hautua egiten da atal honetan ere. Pertsona marken aldaketak, gainera, idazkera eta estiloan ere eragina du, bere buruarekin hitz egiten ari den Gisèleren esaldiak moztuta ematen baitira aurreko bertsioetan eta berridazketan, aldiz, guztia askoz ere objektiboago kontatzen da.

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Ez daki zer den, zer **duen**.	Ezinegona. Zergatik. Zer **dinat**.
Ez **daki**, baina Michèlleren gutuna jaso **zuenean**, ilbehera **zegoen**, eta gordea du nonbait.	Bai, Michèlen karta jaso **nuenean** hilekoarekin **nengonan**. Emilerena kontatzen **zidanan**, bai, hilekoarekin **nengoen**, hemen, hemen nonbaiten.
Ez da egia, ez da egia. Gaixo egon nahi **luke**, edozein gaixotasunez gaixo.	Ez da posible, gaixo **nago**, hori da dena.

[98] Aldiz, Rossierren deskribapenean, emaztearen aipamenak bere horretan dirau bertsio eraberrituan: "Rossierren emaztea gazte denborako edertasuna galdu ez eta estiloa irabazten dute berrogei urteko emakume horietakoa da. Ezkondu aurretik, senarraren talde kirurgikoan egiten zuen lan erizain gisa, eta egin dituen lau seme-alabek ez diote lanerako kemena kendu".

Azkenik, kapitulu honetan Gisèleren logelaren deskribapena ere gehitzen da eta horrekin batera, amaren inguruko beste aipu bat gaineratzen da: "(…) argi urdindu batek betetzen du umetakoa duen gela, amarengandik gordetzen dituen panpinez eta pelutxe ugariz hornitua". Izan ere, Gisèleren amaren presentzia nabarmenagoa da berridatzitako bertsioan eta han-hemenka txertatuko da amaren inguruko aipu berriren bat.

12. kapituluan eraldaketa esanguratsu asko aurkitu daitezke. Hemen ere bilduta datoz berritsuaren eta Gisèleren istorioak baina oraingoan neskarena doa aurretik, eta atal horretan ematen dira aldaera garrantzitsuenak. Miller sendagilearengana joaten denekoa kontatzen da eta aldaera asko eta nabarmenak ematen dira bertan. Hasteko, Millerren kontsultako itxarongelako pasartea jazotzen da eta bertan, hainbat esaldi moldatu badira ere, behin eta berriz azpimarratzen da Gisèle ez dela kontsultako beste emakumeak bezalakoa. Bertsio berrian askoz gehiago nabarmentzen den kontua da eta berridazketan gehitu diren esaldietan esplizituki behin bano gehiagotan ere adierazten da: "Izan ere, hain da nabarmena ez dela haur bat mundura ekartzeko zain dauden emakume berritsu horiek bezalakoa…"; "Ez daki zigarro bat atera ala ez. Ez da ausartzen, ez dagoelako inor erretzen, emakume batek esan baitu haurrentzat oso kaltegarria dela; emakume erretzaileek garaiz aurretik erditzen dutela"; "Andereño, jakina, agerikoa baita ez dela beraiek bezalakoa".

Dena den, aldaera nagusiak Miller eta Gisèleren elkarrizketan eta neska haurdun ote dagoen jakiteko probak egiten dizkionean ematen dira.

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
—Eskerrik asko. —Ezkondua hala ezkongabea. —Ezkongabea. Millerrek luma dotorez idazten du, denbora hartuz, astiro. —Ikaslea. —Zertan lagun diezazuket? —Haurdun nago. Gisèlerei eztarrian trabatzen zaizkio hitzak, irribarre atsegina galdu gabe Miller leunki mintzo bazaio ere. —Bi falta. Sabaiko argi bortitzak, nikelezko tresneriaren distirak, hormaren zuritasunak begiak erretzen dizkiote. Ez du analisirik egin bere ustea baieztatzeko, baina zoritxarrez –eta ez du hitz hori ezustean erabiltzen–, bere gorputzak ez dio zalantzarako betarik uzten. Mundu berri batean bizi dela esango luke. Lehen apenas sumatzen zituen usainak nabarmenak dira orain, jasanezinak; eserita dagoen aulkiaren tapizatua kasu, oinetakoen betuna… jateko guztiek eragiten diote goragalea. Eta bi faltak daude, nekea, bular handituak, titipunten minbera. Millerrek esku txiki eta iletsuak aurreratzen ditu mahai gainean. Edozelan ere, testa egin beharko luke baieztatzeko, beharbada hutsagatik dagoelako kezkatuta. Egun, ernaldia pixaren bidez antzemateko berehalako metodoak omen daude, kasik odol	—Eskerrik asko. —Ezkondua? —Ez. Millerrek fitxa betetzen du. —Ikaslea. —Zertan lagun diezazuket? —Haurdun nagoela uste dut. Gisèlek ez du deus pentsatzen, makinalki hitz egiten du. Millerrek leunki, irribarre zabala estali gabe. —Bi falta. Sabaiko fokuak hipnotizatu bezala egiten du. Fokuak eta nikelezko aparatu guztiek. Esekitoki bat, plastikozko errezel bat. Sastreriako aldagela bat bezalakoa. Gisèlek jantzi guztiak eranzten ditu. Ez du lotsarik sentitzen… Zerri bat bezala, hildakoa tripa irekitzen diotenean. Zangoak goraka eta zabalik. —Ahalik eta zabalen. Hori da. Orain erridikulu sentitzen da, nerbioak eztarrian kontzentratuak. Ordu arte ez du nabaritu medikuak hitz egiterakoan eskua bizkar gainean jartzen diola. Esku txiki bat behatz iletsuekin. —Zer nabaritzen duzu? Gisèlek xehetasun guztiarekin hitz egin dio. Gustua ematen dio medikuari irekitzeak; azkenaldian mundu

analisien fidagarritasuna dutenak. Berehala aterako dira zalantzatik. Zenbat denbora da pixa egin ez duela? Bainugela txikian, medikuak pixa jasotzeko eman dion pote txikia eskuan duela, ihes egiteko gogoa sentitzen du. Beti, estutasunetan dagoenean, desio horrek hartzen du, hondartza batera ihes egitekoa, eguzkipean etzan eta marea gorak eraman zain geratzekoa. Mauricez gogoratzen da, egiaz istant bateko izpia da, irudi bihurtu dakion baino lehen arbuiatzen duena. Ez luke gorrotatu nahi.

Hamar minutuan jakingo duela dio Millerrek. Eternitatea. Zerrenda zurgatzaile bat sartzen du potean. Haurdunen pixan egon ohi den gonadotrofina izeneko hormonak papertxoaren kolorea aldatzen omen du. Gisèlek ez du jakin nahi. Millerrek goian eusten dio plastikozko potetxoari et bost minutuko eternitate baten ondoren baietz esaten dio, haurdun dagoela. Eskuak konketa txiki batean garbitzen ditu gero, arreta handiz.

—Ez zenuen umerik eduki nahi, ezta?

—Ez –esperantzatsu, medikuak aurpegiera zorrotza badu ere.

—Lehenago pentsatu behar zenuen…

—…

—Bikote asko pozik leudeke zuk nahi ez duzun haurra hartzeko.

Une batean elkarri begira geratzen dira. Isilik. Leiho erdi irekitik, belar moztu berriaren usaina datorkio.

—Ez dut umerik izan nahi.

—Esan dizut, lehenago pentsatu behar zenuen. Nik ezin dezaket deus egin.

Maurice, Miller jauna, haurra. Zergatik? Zergatik berari? Non ote dago Maurice?... Zer da historia hau? Bera ez da inoiz ere horrelako istiluetan sartuta ibili.

—Abortatzea nahiko nuke.

—Abortatzea kantoi honetan legearen kontra doa. Gainera, ni katolikoa naiz. Elizak eta Estatuak debekatzen didate.

Elizak eta Estatuak. Negar malkoak masailetan zehar; garratzak dira ezpainetan. Gisèlek poltsa miatzen du musuzapi bila baina urduritasunarekin ez da aurkitzeko gai. Millerrek eskaintzen dion paperezkoa hartzen du.

—Eskerrik asko.

—Nik ezin diezazuket deus ere egin, dagokidan bezala ume osasuntsu bat izateaz laguntzeaz aparte –altxatu egiten da kontsulta amaitu dela adieraziz, bi eskuak bata zuriaren patriketan dituela–. Nire idazkariak esango dizu zenbat den.

berri batean bizi dela sentitzen duela esatea.

—Usaimena. Lehen usaintzen ez nituen gauzak orain ezin jasan ditut. Tabakoa, oihala, butaken tapizatua ez dut sufritzen… Nire ondoan dauden oinetakoen betuna. Janari guztiek ematen didate goragalea.

—Bai.

—Bularra gogorra, zainak lodituak…

Millerrek, gurpildun aulki batean eserita, auskultatu egiten du neskak hitz egiten duen bitartean. Neskari eskuak dar-dar zital batek mugitzen dizkio.

—Lasai, andereño.

Zangoak gehiago zabaltzen dizkio. Maurice. Non ote zegoen? Leku hartatik ihes egiteko eutsi ezineko gogo ikaragarri bat sentitzen du. Ihes egin. Hondartza batera. Betidanik une gaitzetan hondartzara ihes egiteko gogoa sentitu ohi du. Eguzkipean, hondar bustian, larru hutsik marea gorak eraman arte.

—Lasai.

Tutua ahotik aterako zaiola iruditzen zaio.

—Ikus dezagun, lagundu, ez egin tentsiorik, lasai… hori da.

Fokuari begiratzen dio. Kristal karratuak ditu.

—Bai, andereño, hemen dago zure haurra.

Zure haurra, zure haurra. Zorabiatzeko beldur da. Zure haurra. Millerrek eskuak konketa txiki batean garbitzen ditu.

—Analisiak egin beharko ditugu baina ziur da, haurdun zaude. Hondartza. Hondartza luze bat. Itsasoa olatu zuritan hausten da. Ezpainetan kresalaren gustua sentitzen du. Olatuak. Olatu eta hodei biribilak. Eguzkiarena beroa eta gero ur freskoa gorputzaren barrendik sartuko balitz bezala…

—Ez du merezi analisi egiterik. Ez dut haurrik eduki nahi. Oihu bat izan da. Bera ere harritu egiten da esandakoaz, berak esan beharrean beste norbaiti entzun izan balio bezala. Haurra. Ez dut nahi. Nik ez dut haurrik nahi. Nik ez dut haurrik izan nahi. Ohatilatik altxatu eta bere jantziak hartzen ditu. Tuta, haurra. Negarrari eusteko ahalegin guztiak egiten ditu. Millerrek ez du itxura aldatu; mahaia ertzean eserita, betiko irribarreaz begiratzen dio:

—Nor da aita?

—Berdin da, ez du inportantziarik.

Une batean elkarri begira geratzen dira. Isilik. Leihotik bustitako hostoen usaina sartzen da. Euria hasi du.

—Nik ezin dezaket deus egin.

Maurice, Miller jauna, haurra. Zergatik? Zergatik niri? Non ote dago Maurice?... Zer da historia hau? Ni ez naiz inoiz horrelako istiluetan sartuta ibili.

—Abortatzea kantoi honetako legeen kontra doa. Ni, gainera, katolikoa naiz. Operazioa oso da erraza, batere arrisku gabe egin diezazuket. Baina debekatua dago, Elizak eta estatuak debekatzen didate…

Elizak eta Estatuak. Negar malkoak masailetan zehar, mikatzak, ezpainetaraino erortzen zaizkio.

—Odolgaltze bat izaten ez baduzu, nik ezin diezazuket deus ere egin. Ahots hari batekin, Millerrek justu-justu entzuteko eran.

—Eta hemorragia edukitzeko?

Baina honek ez dio erantzuten.

Pasarte luze horietan ikus daitekeenez, haurdunaldiaren probaren kontaketa da aldaketetako bat. Berridazketan ernaldia ziurtatzeko pixaren testaren metodoak erabiltzen diren heinean, Gisèlek ez du biluztu beharrik izango eta ez du zertan "zerri bat bezala, hildakoaren tripa irekitzen diotenean. Zangoak goraka eta zabalik" medikuaren aurrean etzan hark auskultatu dezan. Haurdun egoteak Gisèleri sortzen dion zorabio sentsazioa ere leundu egin da berridazketan eta ez dira aurreko bertsioetako "zure haurra, zure haurra" bezalako esaldi errepikakorrak agertzen, ezta "Haurra. Ez dut nahi. Nik ez dut haurrik nahi. Nik ez dut haurrik izan nahi" esaldiak ere. Era berean, bertsio berrian Millerrek ez dio umearen aitaz galdetzen aurreko bertsioetan bezala eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, odol-galtzearena edo hemorragiaren aukerarena ere ezabatu eta lekualdatu egin da pasarte honetatik.

Bestalde, pasarte horretan ere Gisèleren 1. pertsonako formak 3. pertsonara aldatu dira ("Zergatik **niri**?" > "Zergatik **berari**?) eta gauza bera gertatuko da kontsultatik atera ondoren, Gisèlek paseoan egingo dituen gogoetetan ere: "Nekatuta **negon**, oso nekatuta" > "Behartuta **dago** gelditzera arnasa hartuko badu". Gainera, aurreko edizioetako paseoan Gisèleren barne-gogoetak gailentzen dira, estilo desordenatu edo hautsi batean: "Hil, Nik. Gisèlek. Jauna, zer egin? Bakarrik"; "Pertsona al da? Bi hilabete. Noiz hasten da pertsona bizitzen? Ez dun deus oraindik. Enbrioi bat, hori da. Mamorro bat bezala. Ez"; "Maurice. Ikusiko banu, hementxe maitasuna egiteko eskatuko nioke". Halako adierazpen guztiak, ordea, ezabatu egin dira berridazketan. Horrela, bere baitako gogoetetan, abortiboen aukera planteatzen du Gisèlek aurreko bertsioetan eta Jean Louisi laguntza eskatzea erabakitzen du. Hain zuzen, Jean Louisi eginiko deiarekin amaitzen da Gisèleren pasartea. Aldiz, bertsio berridatzian laguntza eskatzea pentsatzen badu ere, oraindik ez da argitzen abortiboen aukera, ezta Jean Louisi deituko dionik ere.

12. kapituluko berritsuaren diskurtsoan aldaera txiki bat aurkitzen dugu, aurreko bertsioan berritsuaren solaskideak, berak bezala, Caporal markako zigarroak erretzen zituelako ("Zuk ere Caporalak erretzen dituzu, e? Eskerrik asko"). Aldiz, berridatzitako bertsioan ez da hala gertatzen ("Ez, ez, eskerrik asko, nahiago ditut nire Caporalak").

13. kapituluan ere aldaera dezente txertatu dira. Gisèleren eta Jean-Louisen arteko enkontrua kontatzen da bertan, neskak mutilari abortiboak eskuratzeko laguntza eskatzen dionekoa. Lehenik eta behin, Gisèle haurdun dagoela jakitean Jean-Louisek aurreko bertsioetan barne-gogoeta bidez eginiko hausnarketa elkarrizketa bidezko estilo zuzenera eraman da. Horrela, gainera, 1. pertsonan eginiko hausnarketak saihesten dira ("Nire problemekin ez diat aski eta orain" gisakoak, kasu). Bestetik, Jean Louisen ondorengo galdera zakarra leuntzeaz gain ("Baina noiz atera zinen mojetatik? Ez zenekien badagoela pilula izeneko gauza bat?"), Gisèleren erantzunak ere beste heldutasun bat agertzen du, medikuarengana joan dela aditzera emateaz gain. Era berean, ezabatu egin da haurdun gelditu

ondoren behartutako ezkontzari egiten zaion aipua ere. Beste hainbat esaldi, aldiz, lekualdatu egin dira:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Jean-Louisek zigarro bat pizten du, zer beste egin ez dakiela. —Eta noski, artista, Maurice –Gisèlek burua makurtu baino ez du egiten–. Hori da aparejua. Berak ez daki eta nik esatea nahi duzu. —Ez –burua larritasunez astintzen duela, esku bat luzatzen du mahai gainean, mutilarena ukitu arte–. Mesedez, hori ez. Ez du jakin behar. Jean-Louis da orain urduri dagoena, Hain zuzen, era horretako eszenak ez bizitzearren egiten die ihes konpromisoei. "Maurice alua". "maite nuelako egin nioan maitasuna", eta malkoak Jean-Louisentzat. —A zer tipoa –zigarroa hautsontzian arrabiaz itzaliz–. Baina zuk, non zenuen burua ordea? —Mesedez, ez iezadazu errietarik egin –begiek berriro edalontziaren hondora ihes egiten diote–. Zure aurretik laguntza eske joan natzaion beste bat ere etikaz mintzo izan zait. Badakit burugabea izan nintzela; ez nuke jakingo esaten nola gertatu zen. Dena den, orain alferrik da. —Eta nola lagun diezazuket? —Ez dut haurrik izan nahi. —Ulertzekoa. Nik ere ez nuke nahi.	Jean Louisek zigarro bat pizten du. Neskari begira geratzen da isilean. Nire problemekin ez diat aski eta orain… Maurice madarikatua. Zerria. "Neskak pena ematen zidak" ez zian ba esan. Eta orain Jean Louisengana. Malkoak Jean Louisentzat. Eta zerri fama nik zeukeat, hori duk okerrena. "Maite nuelako egin nioan maitasuna". —Baina noiz atera zinen mojetatik? Ez zenekien badagoela pilula izeneko gauza bat?[99] —Ez nuen uste… Ez dut ohiturarik. Ustekabean izan zen. —Ustekabean. Margarite, beste pastis bat. Batzuek horrelakoxe handiak zeuzkatek. Besteak ere ez zuen ohiturarik? Botika batean sartu eta "Syn Ager" kaxa bat erostea ez dut uste horrenbesterainoko lana denik. Beno orain berandu da. —Bai. —Berak ba al daki? —Ez, ez du jakin behar. Mesedez, ez esan inori. —Ez ezazu beldurrik izan, ez naiz horretara dedikatzen, hipopotamoak lortzearekin aski dut. Arra eta emea gainera. Zer egin behar duzu orain? —Horretarako deitu dizut. Ez dakit zer egin behar den… —Jendea ezkondu egin ohi da –pastis kopa trago batean edaten du. —Ez dut haurrik izan nahi. —Konprenitzekoa. Nik ere ez nuke nahi.

Horrela, Jean Louisen laguntzarekin, Gisèlek abortatzeko pilulen izena (Abortsone) eta non lor ditzakeen jakiten du jarraian, baina irtenbidea Riemmeseko mediku bat bisitatzea dela iradokitzen dio lagunak, kantoi horretan baldintza jakin batzuetan abortatzea legala delako. Gisèle beldur da baimena lortzerik izango ez ote duen eta eman ezean, beste konponbiderik badagoen galdetzen dio. Aurreko bertsioetan, "Orduan akabo. Baina emango dizute, ikusiko duzu" erantzuten dio Jean Louisek eta beranduxeago, "botika eta mediku helbideak nahi dituzunak emango dizkizut, baina konponketa horiek egiten dituen atso baten zuzenbiderik ez eskatu,ez dut batere ezagutzen eta bestela ere ez nizuke emanen". Eta hain zuen, azken hari hori berridazketan garatuago ematen da:

> —Badira mediku hipokrita batzuk abortua egin ez baina odol-isuri batekin bazoaz kuretajea egiten dizutenak. Ez zaitut ordea ikusi nahi orratzak sartzen dituzten sorgin horietako baten sukaldeko mahai gainean. Ez dut inor ezagutzen, eta ezagutuko banu, ez nizuke izenik emango –Gisèleren esku bat hartzen du maitekor–. Ez zaitez

[99] Aurreko bertsioetan beranduago ere berresten da ideia hori, Gisèlek "Zer pentsatzen duzu nitaz?" galdetu eta Jean Louisek "Deus ez, benetan. Beno, nik konprenitzen ez dudana zera da…, nola ez zenituzten neurriak hartu". Gisèleren erantzuna hala holakoa da: "Nik ez nekien deus ere, beste mundu batean nengoen, ezingo duzu konprenitu sekulan". Aldiz, bertsio berridatzian, Gisèleren "Zer pentsatzen duzu nitaz?" horri "Neska zintzoa zarela" erantzuten dio Jean Louisek, besterik gabe.

> ezkorra izan, emango dizute baimena. Dena den, abortua egiteko prest legokeen mediku bat behar da ezer baino lehen. Ezagutzen duzu medikuren bat Riemmesen? (ibid: 105)[100].

Bestetik, berridazketan gehitu den azken aldera horrek tramaren bilakaeran ere eragin zuzena du. Izan ere, aurreko bertsioetan, abortu-eragilea non erosi adieraztearekin batera, Rossier doktorearen izena ematen dio Jean Louisek Gisèleri. Berridazketan, aldiz, neskari galdetzen dio ea honek Riemmeseko medikurik ezagutzen al duen eta hona hemen bertsio eraberrituan gaineratzen den ondorengo pasartea:

> —Entzunez bai. Berthek udak Riemmesen pasatu ohi ditu, eta azkeneko oporretan baginitis bat izan zuenez, ginekologoarengana eraman behar izan zuen amak –gogoan du adarra jotzen ziotelako, infekzio bat harrapatzeko zer zikinkeria egin ote zituen galdezka, eta Berthek berak garrantzi handia ematen ziolako bere buruari "esperientzia ginekologiko hura" izan zuelako. Askotan hitz egin zion Fontanaz doktoreaz, oso atsegina zela eta aholkuak eman zizkiola harreman sexualei buruz, eta horregatik liberalegia iruditu zitzaiola bere amari. Fontanaz da Zientziaren Filosofiako irakaslea ere; horregatik oroitzen da bere izenaz.
> —Ongi, bestela neska lagun bati galdetuko diot. (ibid.: 105-106)

Rossier doktorearen ordez, Fontanaz da kapitulu berridatzi honetan aipatzen dena eta badu bere zentzua, Gisèlek ondoren bisitatuko duen medikua Fontanaz baita, eta ez Rossier. Aurreko bertsioetan, aldiz, Jean Louisek Gisèleri jada Rossier medikuaren izena ematen badio ere, honek Millerrek berriro joateko esan diola eta halaxe egiteko aholkatzen dio mutilak. Halaxe egingo du Gisèlek hurrengo kapituluan eta mediku horrek bideratuta iritsiko da protagonista Fontanazengana. Berridatziriko *EHD*n, ordea, ez da berriro Miller doktorerik agertuko eta ikusi bezala, Bertheren bitartez joko du Gisèlek Fontanazengana. Ondoren ikusiko dugunez, kapitulu honetan eginiko eraldaketak ondorioak izango ditu ondorengoetan ere.

Azkenik, bi lagunak autoan sartzen direnean, Jean Louisek ahaleginak egiten ditu Gisèleri barrea eragiteko eta txiste bat kontatzen dio. Bertsio berridatzian aldatu egin da txistea eta gainera, txistearekin batera testuartekotasun aipu bat txertatzeko parada baliatzen du Saizarbitoriak:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
—"Baina nola da posible", bezeroak jostunari haserre, "Jainkoak sei egunetan egin zuen mundua eta zuk sei hilabete behar izan dituzula galtza pare bat egiteko?". Eta jostunak orduan: "Baina, jauna, begira ezazu mundua eta begira itzazu zure galtzak". Ez egin barrik, negargarria iruditzen zait. Beckettena da. Ezagutzen duzu Beckett? —Godoten esperoan… Tristea da, bai.	—… eta orduan gizonak "ni argiaren matxura baten ondorioa naiz" erantzuten dio –Jean Loisek barre egiten du–. Ez zenekien? Ez ezazu edukazioagatik barrerik egin, oso gaizki dago.

[100] Pasarte honek 1961an Luis Martin-Santosek idatzitako *Tiempo de silencio* nobelako abortuaren eszena ekartzen du gogora, nahiz eta nobelan emakumearen aitak egiten dion zoritxarreko ebakuntza eta alaba odolustuta hiltzen den. Gainera, nobela horrekiko miresmena inoiz aipatu izan du Saizarbitoriak (Etxeberria 2002: 225).

14. kapitulua, aurreko bertsioetan, Gisèleren eta Millerren arteko solasak irekitzen du eta neskak abortu-eragilearen errezeta eskatzen badio ere, medikuak ukatu egingo dio. Halere, neskak pilulak hartu egingo dituela jakinarazten dio eta Millerrek, barne-gogoeta baten ostean, ezin duela beste ezer egin ondorioztatzen du. Bada, aurrez esan bezala, bertsio berridatzian 13. kapitulutik aurrera ez da Miller doktorea berriro agertuko eta beraz, 2007ko edizioan ezabatu egin da Gisèle eta medikuaren arteko hasierako pasarte hori. Horrela, kapitulu eraberritua Gisèlek behin Abortsoneak hartu ondorengo pasarteak irekitzen du eta hemen ere egin dira zenbait moldaketa, egokitasun linguistikoetatik haratago. Adibidez, botikariak emandako medikamentuaren inguruko azalpenak elkarrizketatik zehar estilora pasa dira eta beste hainbat esaldi ezabatu ("Nik emango dizkizut, baina konprenituko duzu ez dudala nigan errespontsabilitaterik hartzen").

Hurrengo pasartearen estiloa ere goitik behera aldatu da. Aurreko bertsioetan, kaleko eszenen deskribapen mugatua eta Gisèlek ibilian dituen sentsazioak azaltzen dira, baina ebakitako esaldi edo hitz bakarreko perpaus segiden bitartez, halako modu esperimental batean, nolabait esatearren. Aldiz, berridazketak estilo hori eraldatu eta Gisèleren ibileren deskribapen ohikoagoa gailentzen da, bere inpresio zatikatuen ordez. Horrela, beheko adibidea hautatu dugu pasarte osoan egiten den estilo aldaketaren berri emateko:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Itsutu egiten duten argi gordinez argitutako erakusleihoak. Beren eskainiari so pilatzen den jendea, ez oztopatzeko sigi-sagan ibiltzera behartzen dutena. Beren jantzi bustien usaina, kolonien lurrina, izerdiaren kiratsa, usaimen hautamena gutxitzeko lepoko zapia ia begiak estaltzeraino igoa badarama ere. Busa geltokian, argi-keinukariak ateratzera doala seinalatzen.	Aukerak. Gabardinak. Prezio guztiak. Neurri guztiak. Kolore guztiak. Berdea, gorria, zuria, beltza, urdina. Platano almazen bat. Goma erre usaina. Autobus bat geratzen da. Izerdi eta jantzi busti usaina. Nahasian. Eztarria erretzen du.

Azkenik, pasarte horren amaieran esaldi berri bakarra gehitu da –"Fontanaz doktorearen helbidea"–, zeinak aditzera ematen duen Gisèleren ibilaldiaren helmuga. Izan ere, kapituluaren hasierako pasartea bezala, aurreko bertsioetako azken eszena ere ezabatu egin baita. Bertan, Gisèlek Millerri telefonoz deitzen dio eta azkenean, honek ematen dio Fontanaz doktorearen helbidea eta abisua, "Entzun dudanez, egin izan ditu horrelako gauzak… Batez ere ez esan nire partetikan zatozenik". Ikusi dugun bezala, ordea, bertsio eraberrituan ezta Miller berriro agertuko eta Bertheren bitartez izaten du Gisèlek Fontanaz doktorearen berri.

15. kapituluaren hasieran Gisèle Durkheimgo geltokian dago Riemmeserako trenaren zain. Aurreko bertsioetako pasarte horretako lehen paragrafoko geltokiko deskribapenak ezabatu eta laburtu egin dira berridazketan. Bestetik, Gisèle irakurtzen hasten den liburuko aipuak ere eraldatu egin dira. Lehendabiziko edizioan irakur daitekeen aipua hau da: "Kino ia illunpetan esnatu zen. Zerua izarrek

argitzen zuten eta…"[101]. John Steinbecken *Perla* (1947) nouvelleko aurreneko hitzak, hain zuzen. Aldiz, bertsio eraberrituan Steinbecken lanaren aipua ezabatu eta beste honengatik aldatzen da: "Pauline esnatu zenean, besoa luzatu eta izara haztatu zuen. Bakarrik zegoen".

Aldiz, pasarte oso bat erantsi da geltokiko eszenaren amaieran. Izan ere, trenaren esperoan dagoela, tabako beltz usai sarkorra darion gizon edadetu bat esertzen zaio ondoan eta hizketan hasten zaio:

> —Ikaslea zara, ezta? –Gisèlek buruaz baietz egiten dionean, "ezagun duzu" gaineratzen du gizonak–. Eta zer ikasten duzu, jakin badezaket?
> —Filosofia.
> —Filosofia, "denok dakiguna konplikatu baino egiten ez duen zientzia" –eztul sakona bihurtzen den algaraz–. Ez gaizki hartu, otoi. Ni neu Platonzale amorratua nauzu, haurrei jolasaren bidez irakatsi behar zaiela esan zuelako, besterik ez bada ere. Hara pedagogia berria, duela bi mila eta laurehun urte asmatua (ibid.: 116)

Filosofiaren gaineko Juan Beneten aipu ezaguna aipatu ostean[102], beraz, Platon agertzen zaigu berriro ere. Gainera, Gisèleri "pena ematen dio solasa ukatzeak, atsegina baitirudi, baina ez du animorik". Trena iristean, gizonak, "Zure nahiak bete daitezen opa dizut, andereño" adeitsu batekin agurtzen du.

Gizon honen presentzia dela eta, Hernández Abaituak (2008: 105) ere baieztatu du "2007an egindako edizio berrituan, zeinean autoreak lerro berri anitz sartu dituen, askoz nabarmenago iradokitzen da berritsuak Gisèle ezagutzen duela estazio batean (ikus 15. kapitulua)". Eta egiazki, badira motiboak hipotesi hori babesteko, berritsua bezala, gizona ere geltokietan bakarrik dauden neskengana hurbiltzen delako modu oso adeitsuan. Bere solasak berritsuarena ekar lezake gogora eta azkenik, Caporalena izan daitekeen tabako beltzaren usai sarkorra dario. Edonola ere, gizon hori berritsua ote den edo ez ziurtatzeko aski argibide ez direla ematen ez dela berretsi behar da eta beraz, irakurlearen esku gelditzen dela kontu horren inguruko interpretazioa egitea.

Behin Alfred Fontanazen kontsultan, batetik, ez da 1. pertsonako formen erabilera mantenduko Gisèleren asaldadura subjektiboki nabarmentzeko ("Ez **dinat** haurdun egon nahi" > "Ez **du** haurdun egon nahi"; "Zer esan **dinat** abortatu nahi dudala besterik" > "Zer esan **dio**, abortatu nahi duela besterik?). Eta bestetik, Fontanazen zenbait erantzun eta erreakzio ere eraldatu egingo dira. Gisèlek abortatu nahi duela esaten dioenean, aurreko bertsioetan medikuak galdetzen zion ea nork esan dion berarengana jotzeko eta neskak Miller doktorea salatzen du. Horren ondotik, kasu berezietan abortuak egin izan dituela aitortzen dio Fontanazek baina Gisèleren kasuan ezetz, "egin dezakezu lana edo ezkon zintezke" erantzuten baitio. Beranduago, berriz, "Zein da zure erlijioa?" galdetzen dio medikuak eta neskak katolikoa dela esan ondoren, "Eta zer dio Eliza Amak, erremedio horretaz?" galdetu ostean, gogor hitz egingo du Gisèleren abortatzeko asmoen aurka. Azkenik, Fontanazek

[101] Dena den, bigarren ediziotik aurrea Kinoren izena aldatu egiten da eta Kinia agertzen da.
[102] Egile horrekiko mirespena Etxeberriaren elkarrizketan (2002: 225) aitortzen du Saizarbitoriak.

"Commission de secours par l'interruption legale de la grossesse"ra joateko ea mediku liberalen bat topatzen duen esanaz egozten du kontsultatik.

Bada, aipatu pasarte horiek guztiak ezabatu egin dira bertsio berridatzian eta horien ordez, aurreko bertsioetan Miller doktoreak esandako hainbat elementu Fontanaz medikuaren hitzetan jarri dira oraingoan. Hau da, orain arte Millerren eszenari zegozkion hainbat esaldi lekualdatu eta Fontanazen ahotan jarri dira: "Nor da aita?"; "Nik ezin diezazuket deus egin odol-isuririk gabe".

Ez dira kapitulu horretako lekualdatze bakarrak, baina alderantziz, beste testu segmentu bat kapitulu honetatik kendu eta 12. kapitulura lekualdatu da. Izan ere, Fontanaz medikuak lagunduko ez diola esan eta berak nahi ez duen ume hori haurrik izan ezin duten bikoteek gustura hartuko luketela gaineratu ondoren, aurreko bertsioetan Gisèlek adopzioaren inguruko gogoeta burutzen zuen, 1. pertsonan eta hikako forman: "Zer egingo dinat bestela, haurra egin eta utzi? Eta hori berriz ez dun krimena. Haurra bularretik eranstea; norberaren begiak bere begietan, orduan abandonatzea ez dun abortatzea. Orain ez dinat deus ere sentitzen, nazka baizik. Ez dinat deus ere ikusten". Aldiz, bertsio eraberrituan pasartea 3. pertsonara aldatu eta Miller doktorearen kontsultatik atera ostean egingo duen kaleko paseoan egindako gogoeta gisa txertatu da bertsio berrian.

Bestalde, Gisèlek Fontanazen kontsultan gaztetako oroitzapen bat gogoratzen du, hamasei urterekin ilea moztu zuenekoa. 5. kapituluan ere errepikatzen den oroitzapena da eta bertsio eraberrituan ere erantsi da xehetasunik kapitulu horretan, protagonistak ez bezala, "amak, berriz, bai, negar egin zuen" gaineratu delako. Era berean, 15. kapituluan ere xehetasunak eransten zaizkio aurrez kontatu den gertaerari eta oroitzapen errekurrentea dela ere esplizituki adierazten da oraingoan. Ondorengo pasartea da edizio berrian gehitu dena:

> Umetan oso adats luze eta ederra zuen, bere amak asko maite zuena eta ordu guztietan eskuilatzen ziona. Egun batean, besterik gabe, moztu egin zuen eta ama erabat nahigabetu zen. Lehen aldia izan zen kontzienteki hura atsekabetzeko zerbait egiten zuena. Egunotan, zergatik ez dakiela, askotan datorkion oroimen horrek negarra eragiten dio. Ezin eutsi dion negar isila (ibid.: 119-120)

Izan ere, 2007ko *EHD*n Gisèleren amaren presentzia ugaritu egin da, oro har. Horrela, gogoeta horren ostean beste aipu berri bat erantsi da, Gisèlek amak bere egoeraren berri balu izango lukeen erreakzioa asmatzen duenekoa. Aldiz, aurreko edizioetan besterik gabe gogora ekartzen diren amaren hitzak ere eraldatu egin dira:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Bekatu egiteagatik. Hori esango luke amak. Ama hain kezkatua bere alabatxo maitea logelako argia piztuta liburu gainean lokartzen delako; mutilek telefonoz deitzen ez diotelako. "Gure Gisèle hau, hain ederra izanda, bere jantziez hain gutxi arduratzen dena". Zer esango ote luke jakingo balu. Jainkoak zigortu duela.	"Ba nire Gisèle hau ez da sekulan ere mutilekin ibiltzen, beti estudiatzen beti estudiatzen, ni oso kezkatuta nauka benetan". (…) "Beti ikasten, ni oso kezkatuta nauka"

Azkenik, 15. kapituluko azken aldaerak hirugarren mailako pertsonaiaren izena eta izanarekin du zerikusia. Aurreko bertsioetan, atal honen amaieran Gisèle Soeur Felicitas izeneko mojarekin gogoratzen zen, aurrez 5. kapituluan Soeur Justinekin gogoratu bezala. Bada, berridazketan Felicitas izena desagertu eta horren ordez, Soeur Justine ageri da. Aurreko edizioetan izen desberdineko bi moja zirenak, beraz, izen bereko pertsonaia bat eta bakarrera ekartzen dira berridazketan.

Bertsio berriko 16. kapitulua berritsuaren diskurtsoak eta *Le Temps* aldizkariko artikuluaren erreprodukzioak osatzen dute. Izan ere, aurreko bertsioetan kapitulua zabaltzen zuen elkarrizketa pasarte oso bat ezabatu egin da: etengabeko "zergatik" galdetzaile errepikakorrari Gisèlek azalpenak ematen dituenekoa, hain zuzen. Aurrerago ikusiko dugunez, 18. kapitulutik ere erauzi egingo da gisa bereko elkarrizketa pasartea.

Berritsuaren diskurtsoari dagokionez, apur bat eraldatu dela aipatu behar da. Batetik, "omen" partikularen bidez leundu da pasarteari hasiera ematen dion esaldia eta jarraian, etorkinen inguruko egungo aurreiritziekin osatu da:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Bai, gero eta etorkin gehiago ari gara hartzen eta jendea ez da kontent. Inbasioa omen da, gure kultura eta ohiturak arriskuan jartzen dituena, gure idiosinkrasia.	Bai, eta gero eta gehiago, azkeneko urteetan gertatzen ari dena inmigrante inbasio bat da.

Jarraian, zuzendu egin da berritsuak hizpidera ekartze duen eta aurreko bertsioetan oker aipatzen den Aldous Huxleyren lanaren izenburua (*Counterpoint*>*Point Counter Point*) eta aldiz, aurreko bertsioetan egiten zen Julien Huxley anaiaren aipua ezabatu egin da. Esan bezala, hainbat esaldi moldatu dira atal honetan eta hain justu, berritsuaren pasartearen amaieran gehiketa garrantzitsu bat aurki daiteke, protagonistak beste idazle unibertsal baten hitzak ekarriko dituelako hizpidera erretzearen kontuaren inguruan. Bestalde, berritsuaren oraingo solaskideak, aurrekoak ez bezala, Caporal erretzen duela ematen du aditzera gehiketa berriak:

> Erre ezazu beste Caporal bat, gizona. Zuk ere utzi nahi duzu? Nik ez. Tolstoik esan zuen bezala: "ez diot erretzeari lagako argi jakin arte zein den erretzea ondorio duen errua, bekatua, bekatua bera ukatuko ez dudan bitartean". Erretzen jarraitzeko aitzakiak, noski. Ea Caporaltxo bat (ibid.: 128)[103]

Bestalde, *Le Temps* aldizkariko artikuluak ere nahikotxo eraldaketa jasan ditu. Artikuluaren azpititulutik hasita –"DEUX CADAVRES DES FEMMES AVORTÉES ARRIVENT PAR SEMAINE A

[103] Aipu horren aldaera *Martutene* nobelan ere berridazten du, gainera. Honela mintzo da bertako pertsonaia bat: "Onera egin duenean, begiak malkotan oraindik, ez diola erretzeari utziko esan du, harik eta argi izango ez duen arte zein den erre beharra datorren errua, bekatua, galbidea, harik eta bekatuari berari uko egingo ez dion arte… Tolstoiri irakurria bart" (Saizarbitoria 2012: 251).

L'INSTITUT MÉDICO-LEGAL DE PARIS"–, ezabatu egin da aurreko bertsioetan jarraian datorren "BEACOUP PROVOQUENT DE MALADIES DEFINITIVES". Artikuluaren hasiera aurreko bertsioen tankerakoa izan arren, hirugarrengo paragrafoa goitik behera aldatu da. Bi bertsioetan Eliza katolikoak abortuaren inguruan duen ikuspuntuaren aurkako alegatua egiten da, baina oso bestelako argudiatze moduak erabiliz:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Gurean, moral katolikoa da abortua legeztatzearen aurkaririk zitalena. Eliza katolikoaren arabera, gameto maskulinoa eta femeninoa batzen diren unetik beretik sortzen da gizakia. Egia da enbrioia biziduna dela, gene konbinazio berezia, bakarra eta errepikaezina. Baina horrek ez du esan nahi gizakia denik, giza bizia eta gizakia ez baitira gauza bera. Judu ortodoxoen arabera 40. egunean bihurtzen da enbrioia gizaki, eta musulmanen ustez 40. eta 120. egunen artean. Zientzialarien ustea, berriz, zaila da zehazten. Noiz jarri muga, nerbio-sistemaren lehenengo arrastoak agertzen direnean? Eta garunik gabe, gizakia da? Zer da gizakia? Beraz, irizpideak zehaztea ezinezkoa denez, izan gaitezen praktikoak eta atxiki gatzaizkien gauza konkretuei. Hona hemen, hasteko, Frantziako "kontzientzia oneko" jendeari egiten dizkiogun pare bat galdera. Abortua hain erradikalki arbuiatzen duen gizarte honek, zergatik ez ditu neurri gehiago jartzen haurdunaldi nahi gabeak saihesteko? Zergatik hezkuntza sexuala eta kontrazepzio metodoen erabilera errazten ahalegindu ordez, trabak jartzen zaizkio?	Argumentu moral bezala arrazoiketa katoliko zaharra besterik ez dugu aurkitzen. Fetua arimaduna izanik, bataiatzen ez bada zeruko ateak betiko ixten zaizkio. Zer erantzun berriz arrazoiketa horri? Gerla santuetako bataiatugabeen sarraskiak, Inkisizioa eta besteak aipatu behar? Zergatik onesten ditu Elizak gerla batzuk, zergatik exekuzioak? Hitz batean: zergatik baimentzen du Elizak "egindako" gizon bat hiltzea? Zeruko ateak zabalik izango dituztelako ziurtasuna al du? Baina guk ezin konpreni dezakegu zergatik eta zein neurritan ixten dizkien Jainkoak atea arimei, ez gizonik egindakoenari eta ezta fetuenari ere; horregatik, ezin konpreni dezakegulako, ezin diskuti dezakegu eta gaurkoz behintzat ez gara Elizaren posturaz arduratuko.

Artikuluaren ondorengo zatian lerro gutxi batzuk gehitu egin diren arren –"Deigarria da zenbat baloratzen den fetuaren bizitza eta, behin mundura jaioz gero, bere ongizateak zein ardura gutxi duen", adibidez–, gainerako aldaerak zehaztapen gisako moldaketak dira, esaldiaren egitura edo sintaxi mailakoak.

Edonola ere, orain arteko birmoldaketekin alderatuz, nobelako azken hiru kapituluetan aurki daitezke berridazketaren ondorioz txertaturiko aldaera nabarmen eta nagusienak.

17. kapituluari ere berritsuaren hitzek ematen diote hasiera. Gehiegi hitz egiteko ohituraren ondorioez mintzo da eta pasartearen amaiera aldera, gehiketa luze bat erantsi da, zeinetan berritsuak txikitako oroitzapen bat ekarriko duen gogora:

> Asko hitz egiten dugunoi fundamentuzko zerbait esatea exijitzen zaigu. Nire ama zena, ni neu bezala, ni hura bezala hobeto esateko, oso zen hiztuna. Aita, berriz, hitz gutxikoa zen, gizon serioa. Gogoan dut behin, ume nintzela, amak zerbait esan eta aitak errieta egin ziola, "emakumea, ea apur bat pentsatzen duzun zerbait esan aurretik", eta amak, "ondo nengoke, hitz egin behar dudan bakoitzean pentsatu beharko banu". Erantzun egokia eman zion. Hitz egite aldera hitz egiteari ariketa ona deritzot, isilik egotea baino hobea edozein kasutan. ez dakit

> zuk, baina nik musika isilaren kontu hori ez dut oso argi ikusten, edo entzuten, propioago esanda. Edozein kasutan ere, hitz gutxikoak ez dira berritsuok baino burutsuagoak. Gauzei buelta gehiago ematen dizkietela buruan, agian bai, ez dizut ukatuko, baina horrek ez du esan nahi gehiago, eta are gutxiago hobeto pentsatzen dutenik (ibid.: 134).

Jarraian, pasarteari amaiera emanaz, idazleen jarduna hartzen du hizpide eta aurreko bertsioetako lerroak eraldatu egin dira, laburtu egin da, eta leundu ere bai, nahi bada:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Aizu, eta zer esaten didazu idazten ez duten idazleez? Oi, ezerezaren pultsioak erakartzen pedante antzu horiek! Isilik daude, Jainkoa bezala. Jainkoa, hori bai isiltasunaren maisu. Hara! Pariserako deia berriro ere.	Beno, ba, esate baterako, ikus dezagun gaur egungo literatura. Ez dago proportziorik egileen eta liburuen artean. Aspertu egiten naute poemarik gabeko poeta on horiek eta nobelarik gabeko nobelistek. Bi hitz esaten dituzte bakarrik: poeta naiz edo nobelista naiz, gero aire inportante bat hartu eta hor geratzen dira poeta edo nobelista bezala. Eta okerrena, ezin dela esan txarrak direnik, ez baitute hitz egiten edo izkribatzen, berorien kasuan. Nire denboran jendeak asko hitz egiten zuen, eta oraingoek ezetz esango badute ere, gehienetan zerbait esateko. Nobelistak nobelista ziren, eta bizitza osoa nobela izkribatzen pasatzen zuten eta poetak berdin. Orain, berriz, mihia nola ez duten erabiltzen, whisky eskatzeko baizik, ez zaie trabatzen, eta luma ere nola ez duten erabiltzen, ba ezin borroirik egin. Eskritoreak hitz egin behar du, eskribitu nahi dut esan, bestela ez da eskritorea. ez al zaizu iruditzen?

Halere, atal honetan ere Gisèleren planoan ematen dira eraldaketa garrantzitsuenak. Hasteko, "Jean-Louisek eginiko gomendioari jarraituz, Gisèlek Rossier doktorearengana jotzea erabaki du, laguntza lortzeko esperantza handirik ez duen arren" esaldiak irekitzen du kontakizuna eta ez dugu ahaztu behar, aurreko edizioetan egin ez bezala, berridatziriko bertsioan nobelako une honetara arte informazio hau ez dela esplizitu egiten. Izan ere, Jean Louisek Gisèleri Riemmesera joateko aholkatzen dion kapituluan Fontanazengana joatea bururatzen baitzaio neskari, aurrez Bertheren bisitatutako medikuarengana, hain zuzen. Mutilak orduan erantzuten dio, "Ongi, bestela lagun bati galdetuko diot" eta 17. kapituluan esplizitatzen da, azkenik, ordura arte elipsi bidez jazorikoa, hots, Jean Louisek lagunaren bidez lortu duela Rossier medikuaren izena eta Gisèleri lagundu diola. Halaxe adierazten da edizio berriko ondorengo esaldian ere, aurreko bertsioetako 13. kapitulutik lekualdatu eta egokiturikoak: "Hark aholkatu bezala, telefono-gida batean aurkituko duzu zenbakia arazo handirik gabe".

Ondorengo lerroetan, Rossierren etxe-aurrea deskribatzen da eta hemen ere esaldi esanguratsuak gehitu dira, aurrez bisitaturiko medikuen etxeekiko kontrastea eginaz eta kontsultan gertatuko denaren iragarle: "[etxea] alaia da, kolore argiz margotua dagoelako, zuriz hormak, leihoak berdez, eta barlasai eta balkoi guztiak lorez apainduak ageri direlako. Seinale ona izan daitekeela esaten dio Gisèlek bere buruari, otoitz egiten bezala".

Eta une horretatik aurrera, aurreko bertsioetako testua erabat ordezkatu da, itxarongelako eszena eta Rossierrekin izandako pasarte osoa goitik behera eraldatu baitira berridazketan.

Itxarongelako eszenari dagokionez, aurreko bertsioetan ondorengoa bakarrik kontatzen da: "Itxarongela handia bada ere, jendeak zutik itxoin beharra du. Bi ordu eta erdi pasatzen dira gutxienez errezibitzen duenerako, bi ordu eta erdi, azken karta jokatzea itxoiten den bezala". Aldiz, berridazketan itxarongelako eszena zehatz-mehatz aletzen da, aurrez elipsian emandakoa xehetasun askorekin kontatuz. Horrela, jendez gainezka dagoen itxarongelako giroa deskribatu ondoren, halako batean aurreko kapituluko *Le Temps* egunkariko titularra ageri da eta aditzera ematen da Gisèlek itxarongelako mahaitxoan zegoen egunkaria eskuetan izaten duela. Are, artikuluak ondoeza eragiten diola ere ondorioztatu daiteke: "Bat-batean egunkaria itxi eta mahaitxo batean uzterakoan, ongi dagoela esaten dio albokoari, zorabiatzeko puntuan zegoela nabari bide baitu eta ea laguntzarik behar duen galdetu". Aurreko bertsioetan, ordea, *Le Temps* egunkariko titularra Rossier medikuaren bulego barruko eszenan kokatzen zen eta beraz, Gisèlek artikulua irakurtzeko aukerarik ez zuen.

Bestetik, ondoko neska eta Gisèle izango dira, hurrenez hurren, kontsultara sartzen azkenak eta berridazketan euren arteko solasa gehitu da. Neskak medikuarengana antisorgailuen bila doala jakinaraziko dio Gisèleri eta honek, "lagun minenarekin partekatu ez duen sekretua ezezagun horri" azaltzeko tentazioa sentitzen badu ere, isilik geratuko da. Suerte ona opatuz agurtu eta kontsultan sartzen da neska ezezaguna eta horrela, Gisèle da Rossierrek artatuko duen azkena. Aldiz, aurreko bertsioetan, behin Gisèle kontsultatik atera eta medikuaren laguntzarekin, "itxaron-gelatik aurretik pasatzen dira. Oraindik jendez beterik dago" adierazten da.

Era berean, eta aurrez esan bezala, protagonistak Rossier doktorearekin izaten duen pasarte osoa ere guztiz eraldatu da:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
"*Madmoiselle*". Rossier bera da igarotzeko gonbita egiten diona, ziur asko, azkena denez, erizaina joana izango delako jada. "*Madmoiselle*", berriro ere, aulkia eskaintzen dionean. Ez du behintzat ezkondua ala ezkongabea den zehaztu beharrik izan. Ahalik eta galdera gutxien erantzun beharra nahi luke, lehenbailehen adierazi zertara datorren, eta prest du eskaria mihian. Hala guztiz ere, otzan erantzuten dio buruz dakien itaunari. Rossierrek ez dirudi presatua dagoenik, astiro mintzo da, hitz bakoitza ongi aukeratuz bezala. "Filosofia, gauzen azken arrazoiaren zientzia"[104], esaten du, irribarretsu, ze ikasketa egiten dituen jakinarazten dionean. —Ongi esan al dut? —Hala uste dut –berak. Geltokian suerte ona opa dion agurea datorkio gogora.	Rossierren mugimendu bakoitzean bizitasun sobera duela nabari daiteke. Gisèle haren kontsultan sartzen denean, telefonoz hitz egiten ari da, burua jaso eta irribarrez ongietorria ematen dio. Gisèle apalago dago, medikuak tresna esekitzen duenean dagoeneko hain ohiturik dagoen galderei erantzuten die. Haurdun dagoela besterik ez dio esan, abortatzearena aipatu gabe. —Beno baina zuk ez zenuen pilulen berririk? —Bai jauna. —Baina zuk ezin dezakezu haurrik izan. Hondamena izango litzateke zuretzat. Oso tristeturik bezala, baina, baina, askotan esaten du. jaiki egiten da eta atzeko horman zintzilikaturik dagoen erretratu bat zuzentzen du. —Hondamena, konprenitzen duzu? Gisèlek ez du sinetsi nahi. Guztia broma bat iruditzen

[104] Aristotelesen aipua.

—Ongi. Orduan, zertan lagundu diezaioket filosofa gazte honi?
Lasaitasuna egiten zaio barnean ziurtasunez abortatu nahi duela adierazterakoan. Ez dirudi bere eskaera entzuteak medikua harritzen duenik. Ukalondoak butakaren besoetan ditu bermatuak, kokotsa esku gurutzatuen gainean.
—Ongi pentsatu al duzu?
—Bai.
—Badakit orain esatea alferrik dela, baina egin beharra dut hala ere. Neurriak hartu behar zenituen bere garaian, eta edozein modutan ere, hobe izango zenuen lehenago azaldu bazina. Esplikatuko dizut polikiago, baina orain badira aukera errazagoak. Dena den, beranduegi da jada.
—Hala da, bai.
—Ez da erabaki erraza hartzen duzuna, eta ez operazioa zaila delako, erraza baita. Beti esan ohi den bezala, hagin bat ateratzea baino errazagoa. Baina ez da hori kontua, beste maila batean dago arazoa, ez dut argitu beharrik, ongi pentsatu duzulakoan bainago. Ongi pentsatu duzu, ezta?
—Hilabete daramat beste ezertaz pentsatzen ez dudala.
—Gajoa…
Rossierren ahotsa gozoa da eta irribarrea ulerkorra, horregatik Gisèlek ez du eragozpenik hilabete horretan izan dituen gogoetez jarduteko. Ez daki berekoikeria den, neurri batean agian bai, baita koldarkeria ere –gurasoak atsekabetu nahi eza bereziki–, baina ez du erraietan daraman hori bizigai bezala sentitu nahi. Ez du nahi.
Azkenerako, medikuaren begirada adeitsuaren aurrean, gainezka egiten dio emozioak eta korapilatu egiten zaizkio hitzak eztarrian. Rossierrek lasaitzeko esaten dio.
—Erantzukizun handiegia da haur bat mundura ekartzea erru baten fruitua izan dadin. Ongi egiten duzu, lasai zaitez. Orain zeuregan bakarrik pentsatu behar duzu, etorriko zaizu umeei buruz pentsatzeko aukera gerora ere.
Mahai ondoan duen artxibagailutik orri bat hartuz, idazteko makinan kokatzen du.
—Laster amets gaizto bat irudituko zaizu hau guztia. Sergier esan duzu?
Bi hatzez idazten du baina azkar, izapideak jakinarazten dizkion bitartean. Gisèlek gutxi gorabehera ezagutzen ditu, Jean-Louisek esanda. argibide berri bakarra, kantoiko psikiatra batekin elkarrizketatu beharko duela. Baina ez kezkatzeko esaten dio, bere egoeran haur bat izatea psikologikoki kaltegarria gerta lekiokeela informatuko duela.
Rossierrek irteerara laguntzen dio.
—Eta baimenik emango ez balidate?
—Ez ezazu kezkarik izan –berokia janzten laguntzen diolarik–. Dena ongi aterako da, ikusiko duzu –eskua luzatzen dio orain–. Batzorde Bulegotik erantzuna jaso bezain laster itzuli nigana.
Lorategira daramaten hiru eskailerak batera jaisten ditu Gisèlek, eta lasterka doa ia, poza gorputzean zaio. Aho zabalik baietz egitea besterik ez lortzen.
—Gurasoak, gizartea, zerorri ere, ez zaudete holako haur bat onartzeko prestatuak. Tamala da, badakit. Ikasketak utzi beharko zenituzke, gau batean ilusio bat bezala maite izan zenuen gizonari lotu bizitza guztirako, berak nahi lukeen kasuan. ez dira arabeak bakarrik birjintasuna exijitzen dutenak… eta haur bat izateak… barkatu horrela hitz egitea, baina ezkontzaren merkatuan zure prezioa asko gutxituko luke[105].
Berriro ere eseri egiten da, eskuetan duen boligrafo batekin jolasean. Telefonoaren tinbrea entzuten da. Bai, bihar hamarretan ospitalean. Prestatu ekipoa. Eseki eta isilik geratu da. "Deux cadavres des femmes avortées arrivent par semaine a l'institut médico-legal…".
—Ni ginekologoa naiz, badakit emakumeak haur bat izatean iristen duela bere halabehar fisiologikoa. Gure artean: hitzak. Horrela esanda sinplea eta polita da. Nik ezagutzen ditut haur bat ezkonaurretik izandakoak eta gero beste norbaitekin ezkondu direnak. Ezkontzak ez dira gaizki joan, ezkontza gehienak, hori, joan egiten dira bakarrik. Joan. Senarrak, konprentsiorik handienaren jabe bada ere, ez du barkatzen. Gorbata itsusi bat erostea aski arrazoi izan ohi da gehienetan ezkon aurretiko "erortze hori" aipatzeko. Zuk filosofia estudiatu behar duzu. andereño –medikua haur bati hitz egiten zaion era berean mintzatzen zaio–, jolasa oso da arriskutsua, baina emakumeek badituzue orain egiatan libre izateko medioak… Orain abortatu besterik ezin dezakegu egin… Zein erlijio da zurea?... Bai. Praktikatzen duzu?
—Ez.
—Beno –hasperen luze bat egiten du eta gero, boligrafia mahai gainean botatzen duelarik–. Kantoi honetan abortatzea legala da kasu batzuetan. Zurea, ezkongabea, ikaslea, familia katoliko klasiko batekin, ez da zaila izango pasatzen nire gomendioarekin. Zer diozu?
—Egia esan, hori eskatzera nentorren.
—Sartu zarenerako banekien. Baina eskerrik asko esan duzulako.
Mahai azpitik orgatxo batean duen idazmakina atertatzen du.
—Estatuko sikiatra baten baimena behar duzu gero… Sergier esan duzu? Baina zure egoeran dagoen neska bati nerbioetako zerbait diagnostikatzea ez da gauza zaila izaten sikiatra batentzat… Ikaslea. Helbidea? Gero juezak ematen du baimena…
Ia ilunetan daude eta Rossierrek ez du argirik pizten. Bere besaulkia neskarenaren ondoan jartzen du.
—Operazioa, egia esan, ezin esan daiteke operazioa denik, interbentzio bat baizik, oso da sinplea. Hori bai, Estatuaren baimen hori gabe nik ezin diezazuket ezer egin. Lehenago etorri bazina… Badaude injekzio batzuk batzuetan efektua egiten dutenak, baina orain berandu da.
—Nik hartu ditut pilula batzuk.
—Horiek lehendabiziko egunetan hartuz gero egiten dute efektua, oso gutxitan gainera… Beno, orain karta

[105] Aurreko atalean ikusi dugunez, azken bi esaldi hauek eskuizkribuan Fontanazek esaten zituen eta aldiz, argitaraturiko edizioan Rossierren hitzetara lekualdatu dira. Berridazketan, ordea, hitzok ezabatu egin dira.

kabitzen ez zaiola egiten du sarrera aterainoko bidea. Iristerakoan konturatzen da ez diola Rossierri eskerrik eman eta keinu bat egin nahi lioke, baina bueltatzen denean, etxe barnean desagertu da jada.	honekin "Commission de secours par l'interruption légale de la grossesse"ra joan zaitez, kartazalean duzu helbidea eta ez izan kezkarik, dena konponduko da, Jaiki eta argia pizten du. —Orain ikus dezagun nola dagoen hori. Berriro tutua… Kalanbrea. —Oso ondo zaude. Handitze hori atsedenik hartzen ez duzulako da. Ohean etzanik egon behar duzu egun batzuetan. Goitxo izan arren, ez da zaila izango. Eskuak garbitzen dituen bitartean, Gisèle jantzi egiten da. Pozik dago, baina ezin ditu betiko kezkak ezkutatu. —Eta epaile delako horrek baimenik ez badit ematen?– Medikuak berokia janzten laguntzen dio. —Lasai. Ez ezazu kezkarik izan. Kanpoko atera laguntzen dio. Itxaron-gela aurretik pasatzen dira. oraindik jendez beterik. Pasilua pinturaz beterik dago, erakusketa batean bezala; batzuek onak ematen dute. —Kemena eta esperantza behar dituzu izan… Eskua luzatzen dio. —… baimena izan bezain laster etorri nigana. Ospitalean hiru edo lau egun pasa beharko dituzu… Eta ez larritu, oso sinplea da. Ez dio eskua uzten. Gisèlek berea izerditsua dauka eta lotsa ematen dio. —… gibeletik edo hesteetatik operatuko bazina bezala tratatuko zaituzte, ez ba larritu. Eskua estutzen dio, ia mina egiteko eran, baina konfiantza arrasto bat ematen dio. Jardinetako hiru eskailerak batera jaisten ditu eta, lasterka, burdinsareko atea ixten du. gelditu eta atzera begiratzen du, baina une hartantxe Rossier doktoreak kontsultako atea ixten du.

Aldaketa nagusia abortatzeko erabakiaren ingurukoa da, aurreko bertsioetan Rossierrek berak planteatzen baitio Gisèleri abortatzeko premia, honek soilik haurdun dagoela esan ostean. Hortik aurrera, bere proposamenaren arrazoiketa gauzatzen du medikuak eta Gisèle erantzun laburrak ematera mugatzen da. Aldiz, berridazketan Gisèlek aitortuko dio abortatu nahi duela eta Rossierren jarrera ulerkorraren aurrean, gainezka egiten du. Aurreko bertsioetan, Gisèlek Abortsoneak hartu dituela aitortzen du eta medikuaren galderari erantzunez, baita familia katoliko bateko kidea dela ere, nahiz eta bera ez izan praktikantea. Xehetasun horiek ezabatu egin dira, ordea, 2007ko edizioan, baita Gisèleri errebisioa burutzen dion pasartetxoa ere, eta beste zenbait erantsi egin dira. Eta nahiz eta funtsean, argumentu nagusiari dagokionez eszenaren aldaerek eraldaketa nabarmenik ez ekarri, azkenean Gisèlek Rossierren laguntza izango baitu bietan eta elkarrizketako elementuak ere antzerakoak izan arren, kontakizunaren xehetasunak dira berridazketaren oinarri eta emaitza.

18. kapituluari ere berritsuaren hitzek ematen diote hasiera eta aurreko bertsioetan bezala, arazo sexualak hizpide izango baditu ere, pasarte osoa berridatzi da kasu honetan ere. Aurreko bertsioetan, animaliek eta gizakiok egindako sexu jardunaren alderaketa eginez abiatu eta egungo gazteek duten problematikaz aritzen da eta solaskideari beste zigarro bat erretzeko proposamena luzatu edota

telefono-zentraleko hitzak ere tartekatzen dira. Berridatziriko bertsioan, aldiz, sexuaren gai bera jorratu arren, bestelako hitzak gailentzen dira. Berridazketaren hasieran ere animalien eta gizakiaren arteko desberdintasunei heltzen zaio, baina oraingoan berritsuak hildako lagun idazle baten hitzak ekartzen ditu gogora: "Nire lagun idazle batek –zendu zen gizajoa; zenbat maite nuen!– zera esan ohi zuen, kalean topo egiten duten bi zakur ez dituzula inoiz ere hirugarren bati buruz gaizki esaka denbora galtzen ikusiko"[106]. Horrela, ondorengo hiru paragrafoetan, jada Saizarbitoriak hitzaurrean aurreraturiko gogoeta mamitzen da, hots, "maitasuna egin" edo "larrua jo" esapideen inguruko alderaketa egiten da, "maitasuna egin" adieraren alde:

> Larru-jotzea, zelako hitz itsusia! Nik mila aldiz nahiago "maitasuna egin", zer nahi duzu esatea. Kurtsia izango naiz, baina gehiago edo gutxiago, samurki maite izan ditut ohean besarkatu izan ditudan gorputz guztiak. "*L'home est une passion inutile*". Ez dakit zergatik etorri zaidan burura. Eta, egia esan, jakin ere ez dakit zehazki zer esan nahi zuen Sartrek esaldi horrekin (ibid.: 142)[107]

Eta era berean, testu berria txertatzearekin batera beste testuartekotasun aipu berri bat erantsi da berridazketan, Sartreren aipu existentzialista, hain zuzen.

Ondoren, 16. kapituluan egin bezala, aurreko bertsioetako azpi-atal oso bat ezabatu da, elkarrizketa modura irudikaturiko zergatik errepikakorrei erantzuteko ahaleginari dagozkiona, hain zuzen.

Azkenik, Gisèleren planoak ixten du 18. eta azken aurreko kapitulua. Abortatzeko baimenaren eskariak betetzeko bulegoetara joaten denekoa kontatzen da eta eskakizuna betetzeko argibideei dagokionez, hiztegi motako aldaerak erantsi dira, argibideen pasartea tipografikoki gainerako testuaren moldeetatik bereiztearekin batera. Bestetik, itxarongelako eszenan ere xehetasun gutxi batzuk gehitu dira, gehienbat ordura arte protagonistak bisitatu dituen itxarongela guztiekiko desberdintaunak markatzeko, esplizituki adierazten den bezala: "Zain daudenak dezente bereizten dira azken hilabetean Miller, Fontanaz edo Rossierren kontsultetan lagun izan dituztenengandik"; "[ondoko emakumea] zigarro bat erretzen ari da. Hori da agian beste kontsultekin konparatuz nabari duen berezitasuna, erre egin daitekeela hemen".

Bestalde, Rossierren kontsultan ondoko emakumearekin hitz egiten duen bezala, Gisèlek aurreko bertsioetan ez zegoen elkarrizketa bat izango du jatorri italiarreko emakume batekin. Falopioren tronpak lotzeko baimen eske doa bera, "garbitzaile lana gehi bost ume eta senarraren zaintza bizimodu gogorra direlako" baina ondotik gaineratzen duen bezala, "neurri batean pozik dago Italiatik atera izanaz, han ez lukeelako ume gehiago izateko neurririk hartzeko eskubiderik, elizak

[106] Markos Zapiainek (2015: 45-46) berritsuaren hitzok 6. kapituluan aipatzen diren "Munduan ba al da logikarekin jokatzen duen inor? Abereak bakarrik: gosea dutenean jan egiten dute, logaleak direnean lo egiten dute eta beharra dutenean larrutan egiten dute" hitzekin lotzen ditu eta era berean, berritsuaren gogoeta Aresti gogoan eginikoa dela ere babesten du.

[107] Era berean, nobelako berritsuaren gisa berean hitz egin zuen Saizarbitoriak hitzaldi batean: "Errepresioaren garaia zen eta esango nuke nobelan agertzen den sexualitatearen gailurrean maitasuna dagoela eta horixe da nik orain, beharbada zaharra naizelako, aldarrikatzen dudana. Iruditzen zait gaur sexua banalizatu egiten dela eta nik kurtsia irudituko zaizuen gauza bat aldarrikatzen dut, maitasuna egitea, alegia" (Agirre 2009).

indar gehiegi duelako". Gisèlek "auguri" esanaz agurtzen du, aurrez Rossierren kontsultako neskak berari "zorte ona" opatzen dion gisa berean.

Irudi luke jatorri italiarreko emakumearen eszena Elizak herrialde batzuetan oraindik ere duen ernalketaren inguruko politiken gaineko boterea salatzeko txertatu dela, ez baita ahaztu behar aurreko bertsioetan Elizak gai horrekiko zuen jokamoldea askoz ere gehiago kritikatzen zela. Nolabait, nobela aurrenekoz argitaratu zenetik 38 urte iragan eta zenbait gauza askotxo aldatu badira ere, beste hainbat errealitatek bere horretan irauten dutela aditzera emanaz.

Kapituluko azken paragrafoa ere 2007ko edizioan gehitu da. Bertan, itxarongelan dauden ama-alaba batzuk ikusten du Gisèlek eta amak alabari "ongi zaindutako adats horaila aldentzen dio aurpegitik, maitekiro. Gisèle amaz oroitzen da eta negarrez hasteko gogo eutsiezina sentitzen du".

19. kapitulua da nobelako azkena eta Gisèleren istorioak ematen dio hasiera. Ospitalean ingresatu, abortuaren ebakuntza gauzatu eta ospitaletik ateratzen denekoak ematen dio amaiera, hain zuzen, Gisèleren kontakizunari. Ondotik, berritsuren diskurtsoaren azken adierazpenek ixten dute *EHD*.

Gisèleren planoaren hasieran eguraldiaren deskribapena egiten da eta berridazketan, aurreko bertsioetako elementu nagusiak mantendu arren, estilo aldetiko eraldaketak gehitu dira xehetasun berriak erantsiz. Riemmeseko laku ondoko parkean dago Gisèle ospitalera sartu aurretik eta bere gogoetak ere moldatu egin dira, luzatu eta sakondu, ondorengo alderaketan ikus daitekeenez. Besteak beste, Mauricekiko bestelako hitzak erabiltzen dira berridazketan eta era berean, berriro agertuko da Gisèleren amaren irudia:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Ingurunearen lasaitasunaz kutsatua sentitzen da bera ere, aspaldiko partez askatu egin zaio urdailean sentitzen zuen korapiloa. Gai da orain Mauricez pentsatzeko, harekin pasaturiko gauaz, xehetasun gehiegirik gabe bada ere. Pasartea burutik ezabatzeko ahaleginak ez baitira alferrikakoak izan eta neurri batean horregatik, ez daki ziur haren desioari amore eman izanagatik damu den. Edonola ere, ez daki, eta harrigarria gertatzen zaio sentimendu hori gainera, edo sentimendu falta hori, ondorioz jasan behar izan duen sufrikarioarekin. Ez du Maurice gorrotatu nahi. Gogoan du haren azala oso leuna iruditu zitzaiola, eta harritu egin zuela hain min gutxi sentitu izanak, entzunak zituen gauzen ondoren. Pena du oroimen politagoa ezin eduki izanaz, baina pena leun bat, gozoa ia. Ez da inoiz burugabe bat bezala sentitu orain arte. Alderantziz, arduratsuegia izateko konplexua izan du beti. Zenbat txantxa ez ote zizkion egingo amak berak horregatik! Zer esango luke orain… Hala eta guztiz ere, gehien dolutzen duena maitasunik gabe entregatu izana da, tamalez ez baitu uste minutu batez ere maitatu zuenik.	Une batzuetan, sakrifikatzera daramaten hilgai bat dela iruditzen zaio, eta orduan sentimendu hori haizatzeagatik, Mauricez pentsatzen du. Maitasuna egiteko gogoa sentitu nahi luke, sentimendu bat aurkitu harekin pasatako gauaz pentsatzean, baina ez du aurkitzen bere axolagabetasunetik aterako duen sentimendurik. "Burugabe bat". Burugabekeria bat egin ez ote zuen pentsatzeak beldurtzen du, axolagabekeriaz obratzeak. Haurdun egoteak ez dio jada problemarik ematen. Maitasuna nahi izan gabe edo amodiorik gabe, momentuko amodiorik gabe gutxienez egin ez ote zuen pentsatzeak, berriz, samindu egiten du. Maurice maitatuko balu zer egingo lukeen, zer hautatuko lukeen pentsatzea ere badatorkio aldizka, beharbada Mauriceren aurpegian gauza hura ikusteak bakarrik emango lioke haurdun kontzientzia.

Ospitalera bidean, Gisèle kanposantu txiki batetik pasatzen da eta aurreko bertsioetan hilarri batean "Gure amatxo maiteari. Goian bego" irakurtzen zuen lekuan, orain "Gure alabatxo maiteari. Goian bego" irakur daiteke. Jarraian, aurreko bertsioetan Gisèlek ebakuntza aurretik konfesatu gabe dagoela eta, apaiz baten aurrean bere abortuaren auzia konfesatzen duenekoa irudikatzen du. Aldiz, bertsio berrian gogoeta horren inguruko argibideak gehitzen dira: "Azken boladan lehenago ez bezala tentatzen dute pentsamendu morbosoek, eta une batez operatu aurretik ere konfesatzen ari dela irudikatzen du".

Behin ospitalera iritsitakoan, eraikinaren deskribapenari dagokionez ere aurreko bertsioetako oinarria mantendu den arren, deskribapen zehatzagoa eskaintzen da berridazketan. Horrenbestez, "moja irribarretsu batek egiten dio harrera" eta onarpen fitxa betearazten dio. Aurreko aldietan, ebakuntzan ezbeharren bat gertatuz gero ohartarazi beharko litzatekeen pertsonaren izena betetzerako orduan, Gisèlek Berthe Junge lagunaren izena ematea imajinatzen du, baina azkenean zein izen ematen duen ez da zehazten. 2007ko edizioan, ordea, galdera horren aurrean "berriro ere fantasia morbosoei abandonatzeko desira" izaten du protagonistak eta Bertheren aukeraren ostean, "zergatik ez dakiela, Jean-Louisen izen-abizenak idazten ditu, baina helbideaz gogoratzen ez denez, kalearen izena asmatu egiten du. Rue de l'espoir. Esperantzaren karrika".

Ospitaleko gelan barneratzen denean ere, ondoko emakumearen inguruan aurreko bertsioetan ez zeuden xehetasunak gaineratu dira, ostera ere amaren irudia gogora ekarriz: "Ez dago bakarrik bere gelan. Bere amaren edadeko emakume batek eskua altxatzen du ohetik agurtzeko. (…) Gelakideak zer egingo dioten ez du galdetu beharrik. 'Ikusiko duzu, ez da deus'".

Jarraian, abortuaren ebakuntzari dagokion eszena dator eta pasarte hau goitik behera aldatu da berridazketan. Aurreko bertsioetan, gainera, ebakuntza aurreko unea ere kontatzen zen baina pasarte hori ezabatu egin da eta berridazketan zuzenean ekiten zaio ebakuntzaren eszena kontatzeari. Aldaketa oso esanguratsuak dira, inolaz ere:

Egunero hasten delako (2007)	*Egunero hasten delako* (2000)
Gisèle 207 zenbakidun ohean jarri dute eta horregatik berari ere 207 esaten diote. Zenbaki bat da, ekarri eta eraman egiten dute, esertzeko eta zutitzeko agintzen, ahoa edo zangoak zabaltzeko. Ez du pentsatu beharrik, eta atsegina gertatzen zaio abandonatzea, otzanki agintzen diotena egitea. Beste zenbaki bat lukeen edozein bezala tratatzen dute, zer den ez dakien fibroma bat balu bezala, apendizitisa. Bera txikia zela ama apendizetik operatua egon zen Dukheimeko ospitalean, eta aitarekin bisitara joan zirenean, arrantzaka egin omen zuen negar, ez zuelako nahi han utzi. Ez du amaz pentsatu nahi –nola sufrituko lukeen zein egoeratan dagoen jakingo balu–, ez du bere burua	Hurrengo goizean leihotik sartzen den argi zuri batek esnatzen du. Lehendabiziko aldiz du, ospitalean dagoenetik, egin behar diotenaren kontzientzia, eta beldurra besterik ez du sentitzen. Ospitaleko engranajean dago sartua, beste gaixoekin gaixo bat gehiago da, orain berak ez du deus egiten, besteek egiten diote. Auzo bateko etxe zikinen batean, petrikilo edo sorgin baten ohean dagoen emakumearentzat errazagoa izango da bekatuaren kontzientzia izatea. Ospitalean, Riemmeseko ospitalean, Gisèlek ez du beldurra besterik sentitzen, hesteetatik edo bihotzetik operatzeko zain dagoenak bezala. Alboko atsoa pastak eta txokolatea jaten ari da, arratoi baten moduan bi

errukigarri sentituz gozatu nahi. Hori da Berthek batzuetan egiten duena, eta ez dago ondo.

SÉRVICE DE GYNECOLOGIE ET OBSTÉTRIQUE

Ebakuntza gelako argia oso da gogorra. Gelatik lagundu dion erizainak bere historia ematen dio ia lurreraino iristen zaion bata zuri batez jantzitako emakume lodikote bati. "Berrehun eta zazpigarrena". Txano zuri bat jantzia duen arren, ez dio kaobaz tindaturiko adatsa erabat estaltzen. Ez da moja. Ez luke operazioan moja bat presente egoterik nahi, baina ez da eskaera hori egitera ausartzen. "Ez dadila moja egon, ez dadila moja egon, ez dadila moja egon", esaten du bere kolkorako hiru aldiz, eta lotsatu egiten da hain umea izateagatik.

Emakumeak mahai ginekologikora igotzeko agintzen dio. "*Ma petite*". Zakar xamarra dirudi, baina nahiago du hori tratu amatiarra jasan beharra baino. Ez du arazorik laguntzarik gabe zango irekiak altzairuzko euskarrietan kokatzeko, eta emakumeak izara batekin estaltzen dizkio. Rossier doktorea berehala etorriko dela esaten ari zaio, hain zuzen ere, atean azaltzen denean, bata luzearen gainean amantal bat jantzita eta bainurakoa dirudien txanoa buruan. Barregarria deritzo. Eskua besagainean jartzen dio lasai egoteko esaterakoan. Irribarretsu. Bere izenaz oroitu da, edo historia irakurri du, akaso. Berrehun eta zazpigarrena.

"Ez zaitez kezkatu, ez dizut minik egingo", esaten dio, baina orain ez du ikusten, zapiaren bestaldean ezkutatu baita bere zango irekien artean. Mina ez da kezka. Eskularruak jartzeko latex hotsa entzuten du, tresneriarena metalezko bandejan, ur zorrotadarena. Hormako erlojuaren tik-tak bortitza da kezkagarriena, hala ere. Rossierrek eta emakumeak gurutzatzen dituzten hitz bakanak, berriz, lasaigarriak. Emakumeak lehenago hasitako solasari jarraitzen diola dirudi. Oporrez dihardu: tamalez atzeratu egin beharko omen ditu. Rossieren agindu solteak. Atsegina du ahotsa, lasaia. "Epeldu ezazu espekulua". Merkurokromo usaina nagusi orain, formolarena dela uste duenaren gainetik. Rossierren eskua sentitzen du izter barrenean; baginan sartzen zaion zerbait.

Oinazerik sentituko balu ohartarazteko berresten dio, baina berak ez du kexatzeko asmorik, prest dago behar den min guztia jasateko. Merkurokromo usaina, alkoholarena, mendarena ere bai esango luke, formolarena. Erlojuaren tik-tak bortitzak segundo batekoa baino askoz luzeagoa den kadentziaz markatzen duela iruditzen zaio. Dentistarenean xurgagailuak egin ohi duen zurrupatze hotsaren antzeko hori eta nonbaitetik, oso urrutitik, haur baten negarra.

Karranpa moduko bat izter barrenetatik erraietaraino. Minik sentitzen duen galdetzen dio Rossierrek. Ezetz dio. Formola, deskonposaketa eragozteko erabiltzen den likidoa. Institutuan, zientzietako laborategian formol botila batean gordea zegoen fetua datorkio gogora. Erlojuaren tik-taka eta xurgagailuaren zurrupa. Emakumea bere gainean makurtzen da. txanoa kendu du. Gogoz bada, egiteko negar esaten dio, eskutik helduz, eta Gisèle, aurpegirik ezkutatu gabe, eskuez hartuz eta aurreko bi hortzekin, dituen bakarrak ziurki, txikituz. Minutuak motel pasatzen dira. Erizaina bizarra kentzeko tresnarekin ikustean ez daki egiatan esnatu den. Usain hark zorabiatu bezala egiten du, gainera azken egunetako tentsioak nerbioak hautsi bezala egin dizkio.

Atzetik irekitako kamisoia kentzen diote. Erizain batek garbitu eta, berehala, kamila batean, operatzeko salan sartzen dute.

Aparatu batzuk ezagunak egiten zaizkio… Bere zangoak zintzilikatuko dituzten esekitokiak, kristal karratuko foku handia bere burutik metro gutxira zintzilik, gero guanteak, pintzak, guraizeak, oxigeno botilak, gomazko mantal bat zintzilik; bere ezkerrean, erlojupean, zertarako balioko duten ez dakien aparatu bitxi batzuk orratz askorekin. Usaina gelan baino mila aldiz sarkorragoa. Hamar minutu itxoiten, hankak goian irekiak eta zintzilik, besoak bezala uhal batzuekin lotuak. Erlojuaren tik-tak lehorra besterik ez da entzuten… Sentitu… izerdi hotz bat sortarazten duen beldurra izan ezik, deus ez.

Berrogei urte inguruko moja batek eskua bekokian jartzen dio.

—Lehenago operatu izan zaituzte?

Erizain gehiago sartzen dira. guztiak maskarilarekin. Ihes egiteko gogoa sentitzen du behin gehiago ere… Ihes egin. Ihes.

—Lasai… Mojak irribarrez begiratzen dio.

Gero indizioa. Besoak uhaletik libratu nahi lituzke.

—Lasai… Oso urrutitik entzuten du, gero eta urrutiagotik.

—Dena prest?–Rosierrek, bata berdea lotzen dioten bitartean, gomazko bota zuri batzuk janzten ditu…

—Prest.

—Ondo –hormatik gomazko mantala hartzen du–. Eskerrik asko.

—Goratxo izango da oraindik… Ikus dezagun… Hori da…

—Zunda[108], mesedez.

Lehenagoko gelan esnatzen da, negarrez eta oihuka:

—Hil egin nahi dut… Hil!

Odolez blai eginik dago, eta ikaragarrizko egarria sentitzen duela. Ez du arnasa indarrez hartzen mugitzeko beldurrez. Oinazeak alde guztietatik zaztatzen du. Eskua bizkar gainetik pasatzen du odolez betea kentzeko… Gero ez da gehiago mugitzen. Alboko atsoak oso aurpegi tristearekin begiratzen dio, hunkituta balego bezala. Gisèlek bizirik dagoela daki bakarrik, eta oinaze handi bat sentitzen duela gorputz osoan. Erizainak begiratu eta, deus esan gabe, joan egiten dira. Ikaragarrizko egarria sentitzen du, baina ez da ezer eskatzera ausartzen… Nonbaitetik haurren negarrak entzuten dira. Ebakuntza berdinaren fruitua. Gorputza ezinean, burua alde batetik bestera mugitzen du norbaiti indarrez ezetz esaten ari balitzaio bezala.

—Lasai, andereño, dena pasako da, ikusiko duzu.

Atsoak oso maitekor hitz egiten dio irribarre triste batekin, baina berak ez du ikusten.

—Hori ez da deus, laster ahaztuko duzu dena. Gazte zara… Ikusiko duzu nola dena berriro hasten den.

[108] Aurreko bertsioetan ageri zen "forzepsa", "zunda" hitzarengatik aldatu zen 2000ko edizio zuzendu eta eguneratuan.

aspaldidanik negarrari abandonatzen zaio, haur bat bezala. "Apenas zentimetro bateko gauzatxoa zen", esan dio Rossierrek, hatz erakuslea gizenaren kontra estutuz; baina hala ere, ezustean, libururen batean ikusitako fetuaren irudia datorkio gogora, zangoak bilduta eta eskuak batuta haztxoa miazkatzen, eta eginahalak egin behar ditu burutik kentzeko.	Haurrak negarrez… Ez du gehiago entzuten… Tantoka… litro erdi. Beroa, goxotasun arraro bat. Suero botilari begira lo geratzen da. Formatuta egongo zen, bi eskutxoak batera zituela, eskutxoak izango zituen noski, errezatzen bezala. Nire semea.

Bi testu zatietako aldaerak aintzat harturik, aurreko bertsioetako ebakuntzaren kontaketa askoz ere tragikoagoa da. Beldurra eta ihes egiteko nahia gailentzen dira protagonistarengan eta ebakuntza egin osteko oinazeak, "Hil egin nahi dut… Hil!" oihuak edota odolez blai egotearenak areagotu egiten du eszenaren tremendismoa. Aldiz, 2007ko edizioko abortuaren eszena aseptikoagoa da, nolabait esatearren. Gainera, berriro ere amaz oroitzen da Gisèle, amak apendizitisa izan eta ospitalean utzitakoan egin zituen negarrak dakartza gogora, nahiz eta oroitzapena alboratu nahi: "Ez du amaz pentsatu nahi –nola sufrituko lukeen zein egoeratan dagoen jakingo balu". Bestetik, aurreko bertsioetan ez bezala, kasu honetan mojak ez du parte hartzen ebakuntzan. Azkenik, ebakuntza egin ostean Gisèlek galdu berri duen haurra gogora ekartzerakoan egin diren aldaketak ere nabarmenak dira.

Ondorengo pasartean Gisèle ospitaletik ateratzen denekoa kontatzen da eta hiztegi mailako egokitasun batzuez gain, ezer gutxi aldatzen da emakumezko protagonistaren azken eszenan.

Azkenik, eta aurreratu bezala, azken kapituluko azken pasartea berritsuaren planoari dagokio eta eszena honetan, berriz, ez da aldaketa aipagarririk jazo. Egia da, berritsua gazteen jokamoldeari buruz hizketan ari dela, berridazketan amaierako esaldi bat ezabatu dela ("Gaur 'ez' edo 'bai' esan behar da garbia izateko, ez gure denboran bezala keinu nabarrak eginda pasa…"). Baina aldaera horretaz aparte, ez da bestelako moldaketarik ageri *EHD* ixten duen azken pasartean.

Amaieran, azken lerroan, aurreko bertsio guztietan bezala, aurrez aztertu dugun eskuizkribua idatzi zeneko lekuari eta datari egiten dion erreferentzia mantendu egin da: "FRIBURGON, 1968KO APIRILAREN 25EAN".

3.3.4. Ondorioak

Saizarbitoriak hitzaurrean zehaztu bezala, aurreko bertsioa traizionatu gabe burutu nahi izan zuen berridazketa, nolabait, lehengo bera izaten jarraitu behar zuelako eta bere hitzetan, "Esango nuke lortu dudala, jatorrizko bertsioa berean mantenduz, punturen bat argitzeaz gain nobela han eta hemen sarriegi kaltetzen zuten desegokitasun narratiboez libratzea" (ibid.: 20-21). Baina nekez izango da testu bat lehengo bera behin aldaerak txertatuz gero eta hori horrela, aldaeren eraginez jatorrizko bertsioa ez den beste bertsio bat da berridazketaren emaitza. Are gutxiago, jatorrizko lehendabiziko

ediziotik idazlearen berridazketaren ediziora arte hizkuntza hautuak eta lexikoa bezalako elementuak ere moldatu direnean.

Egia da, bestalde, berridazketan erantsitako aldaketek ez dutela zentzu hertsian argumentuan eragiten, hau da, argumentuko trama nagusiak edota nobelako protagonistak zein baliabide narratibo nagusienak bere horretan diraute *EHD* birmoldatuan ere. Baina zentzu zabalean, xehetasunen batuketek osatzen dute argumentua edo pertsonaien karakterizazioa eta bertsio berridatzian xehetasun asko gehitu, kendu, aldatu, moldatu, egokitu, lekualdatu eta eraldatu diren heinean, aurreko bertsioetatik bereizten den bertsio eraberritu bat eskaintzen du 2007ko *EHD* berridatziak.

- Testuartekotasun aipuak gehitu dira: 2007ko *EHD*n Lolita eta Nabokov, Renoir eta "Arraunlarien gosaria", Romeo, Tosltoi, Beckett eta *Godoten esperoan* edota Sarteren aipuak txertatu dira, maiz pertsonaien karakterizazioarekin lotuta.

Horrela, Lolita Frantziako zenbait neska nerabe izendatzeko erabiliko du protagonista berritsuak eta era berean, bera ez dela Nabokov nabarmentzen du, ez lukeelako tximeletarik hilko, ez eta neska gaztetxorik seduzituko ere. Aldiz, Mauricek Renoirren arraunlaria dakarkio gogora Gisèleri eta Jean Louisek, berriz, Romeo deituko dio Mauriceri maiteminerako duen grinagatik. Bestetik, Jean Louisen logela deskribatzean, Picasssoren "Gernika" litografia handia kokatu da film-posterren ondoan, aurrez soilik poster aski pornografikoak aipatzen ziren lekuan…

Esan bezala, xehetasun horien bidez pertsonaiek bestelako karakterizazio bat bereganatzen dute, bereziki Maurice eta Jean Loisen kasuan. Aldaketa sotilak dira, baina esanguratsuak, Jean Louisen logelako oraingo deskribapenari esker bestelako Jean Louis bat irudikatu behar baita orain.

Bestetik, Gisèle filosofiako ikaslea izanik, berridatziriko bertsioan filosofiari buruzko Whitehead, Benet eta Platon edota Aristoteles-en aipuak ere txertatu dira, Jean Louis, berritsuaren eta Rossier doktorearen ahotan, hurrenez hurren.

Azkenik, moldatu den beste testuartekotasun aipua Gisèle Durkheimeko geltokian irakurtzen ari den liburuari dagokio. *EHD*ren lehendabiziko edizioan Steinbeck-en *Perla* kontakizuneko aurreneko esaldia transkribatzen zen baina 2007ko berrargitalpenean esaldia ordezkatu, eta aurreko aipuko iratzartzearen eszena mantentzen bada ere, "Paulina esnatu zenean, besoa luzatu eta izara haztatu zuen. Bakarrik zegoen" berridatzi da oraingoan. Tamalez, aipu berria ezin izan dugu ezein obrarekin lotzerik lortu. Dena den, litekeena da aipuaren amaierako "bakarrik zegoen" hori Gisèle protagonistaren bakardadea nabarmentzeko berridatzi izana. Ez alferrik, jarraian neskaren bakardadeaz dihardu narratzaileak eta gogoan izan behar da, Gisèleren lehendabiziko deskribapena egiten denean ere, azkeneko hitza "bakarrik" dela: "Gisèle: neska bat eserita maleta batekin, geltokian, jende artean. Bakarrik".

- Abortuarekin eta medikuekin loturiko eguneratzeak: 1969ko ginekologiaren edota abortuaren inguruko praktikak ikaragarri aurreratu dira azken 38 urteetan eta *EHD*ren berridazketan ere nabarmen igartzen den kontua da. Horrela, besteak beste, Millerren kontsultako haurdunaldiaren probaren eszena eraldatu eta aurrez auskultazio bidez eginiko proba gernu probarengatik ordezkatu da. Bestetik, abortuaren ebakuntzaren eszena eta ebakuntza osteko pasarteen bi aldaerak erkatuz gero, bertsio berridatziko eszena askoz ere aseptikoagoa da, dramatismo gutxiagokoa, odol, oinaze eta garrasi gabekoa. Era berean, protagonistak medikuekin edota itxarongeletako emakumeekin izaten dituen elkarrizketak ere eguneratu egin dira.

Le Temps egunkariko abortua legeztatzearen aldeko artikuluan abortuaren aurkako moral katolikodunen pentsamoldea salatzeko erabilitako argudiaketa ere eraldatu egiten da. Aurreko bertsioetan fetuaren ariman jartzen bazen eztabaidaren fokua, oraingoan enbrioia gizaki bihurtzen den uneari buruzko zenbait erlijiotako ikuspuntu kontrajarriak aipatzen dira. Bestalde, oraindik ere Elizak abortuaren inguruko kontuetan duen boterea salatzeko, italiar jatorriko emakumearen kasua gaineratu da, besteak beste.

- Pertsonaiekin loturiko aldaerak: Italiar jatorriko emakumearekin bezala, bertsio eraberrituan Gisèlek medikuen kontsultetako emakume gehiagorekin izango du hartu emana.

Aldiz, beste hainbat pertsonaien presentzia mugatu eta murriztu egin da. Miller doktorearen kasua da deigarriena, aurreko bertsioetan hiru aldiz agertzeaz gain, paper garrantzitsua jokatzen baitzuen Gisèle Fontanaz medikuarengana bideratuz. Orain, ordea, behin bakarrik agertuko da Miller pertsonaia eta Fontanaz bisitatzeko aukera Berthe lagunaren iraganeko pasadizo batek eskainiko dio Gisèleri.

Bestetik, Soeur Justine eta Soeur Felicitas deitzen ziren Gisèlek oroitzen dituen gaztetako bi mojak baina bertsio berridatzian, Sour Felicitasen izena ezabatu egin da eta horren ordez Sour Justine aipatzen da bi oroitzapenetan. Beraz, 3. mailako bi pertsonaia izan beharrean bakarra dugu 2007ko berrargitalpenean.

Dena den, euren presentzia murriztu den pertsonaien kasua baino garrantzitsuagoa da bertsio berridatzian gehitu diren pertsonaiena. Lehenik eta behin, Gisèleren amaren presentziaren ugaritzea aipatu behar da. Aurreko bertsioetan protagonista une zehatz gutxi batzuetan soilik oroitzen da amarekin baina berridazketan, nabarmen ugaritu da amaren presentzia eta pertsonaiaren amarekiko lotura.

Gehituriko pertsonaia guztien artean, ordea, geltokian Gisèleri hurbilduko zaion adineko gizona da garrantzitsuena. Pertsonaia hori berritsua izan daitekeela argi dago, geltokian maleta batekin bakarrik dagoen neskarenagana hitz egiteko asmoz adeitsuki hurbiltzen den tabako beltz usain sarkorreko

gizona baita. Horrela, berridazketan *EHD* nobelako bi planoak une zehatz batean plano bakarrean batu direla edo daitezkeela aditzera emateko saiakera egon badago, aurreko bertsioetan baino askoz ere modu esplizituagoan, alegia. Eta alde horretatik, nobelako bi planoen auziaren inguruko berridazketa da, azken batean, bertsio berrian eskaintzen dena. Ikusi dugunez, eskuizkribuko zirriborroaren une batean, berritsuak Gisèleren historia kontatzeari ekiten zionean amaituko zatekeen nobela. Aldiz, une bateko zirrimarra batek aukera hori alboratu eta bi planoak esplizituki ez lotzea erabaki zuen idazleak *EHD*ren lehendabiziko argitalpenerako. Ikusi dugunez, irakurleen eta literatur kritikarien artean mota guztietako interpretazioak eragin dituen nobelaren ezaugarria da elkarrekin uztartu bai baina inoiz gurutzatzen ez diren bi planoen auzia. Eta 2007ko berridazketan ere, berritsuak Gisèle ezagutzen dueneko unea izan daitekeen eszena txertatzearekin, idazleak auzi honen inguruko berrirakurketa bat planteatzen du berrinterpretazioak egiteko aukerak ugarituz, baina orain arte eginiko interpretazioak ezeztatzera iritsi gabe.

Izan ere, hainbat idazketa aldi ezagutu dituen *EHD*ren sorkuntza prozesuan egon diren aldaeren berri emateko adibide paradigmatikoa izan daiteke bi planoak bat egiten duten edo ez aditzera ematen diren inguruko xehetasunen eraldaketak.

3.4. SAIZARBITORIAREN NARRATIBA ETA BERRIDAZKETEN GARRANTZIA

Kapitulu honetan Saizarbitoriaren *EHDopera prima*ren sortze prozesua aztertu eta kontakizunak izan duen bilakaera eta berridazketak azaleratzera mugatu dugu ikerketa. Baina Saizarbitoriaren narratibagintza oparoa aintzat izanik, elementu narratibo errepikatuak eta berridazketak idazlearen poetikaren oinarrizko ezaugarrietako bat direla atzeman daiteke. Lehenik eta behin, idazlearen nobela gehienetan behin eta berriz errepikatzen diren pasarteek gidatuko dutelako kontakizunaren haria, errepikapen bakoitzean pasarteari xehetasun gehiago erantsiz. Eta nolabait, berridazketa gisa uler daitezke errepikapen horiek ere. Nobeletan nagusitzen diren protagonisten oroitzapenak izaten dira maiz, memoriaren kapritxoei men eginez behin eta berriz errepikatuko diren eszenak eta, gutxika-gutxika, etengabeko errepikapenei esker, aipatu pasarteek ere bestelako esanahia bereganatuko dute, aldian-aldian gehituriko xehetasunei esker. Horrela, irakurleak aurreko pasarteak berrirakurtzen ari denaren sentsazioa izan dezake, baina berridazketa orotan bezala, errepikapen huts ziruditen aurreko pasarteak, egiazki, berridazketaren ondorioz sorturiko bestelako bertsioak dira eta hori horrela, bestelako berrirakurketa bat eskaintzen eta eskatzen dute berridazketok: "proposamen honen aurrean, irakurleak prest egon beharko du etengabe egiten eta berregiten doan fikzioan barneratzeko, lehenago ezagutzen dituen pasarteei esanahi berriak emateko" (Olaziregi 2001: 90).

Zapiainek *Saizarbitoria eta iragana* saiakeran kontuari heldu eta honela azaltzen du Saizarbitoriaren teknikaren nondik norakoa, hainbat ikerlarik eginiko interpretazioak biltzearekin batera: "Horregatik da hain muntazkoa errepika Saizarbitoriaren nobeletan: eleberri guztietan darabil teknika narratibo gisa hitzen, elkarrizketen eta eszena osoen errepikatzea; eta horregatik da nobelagilearen obraren inguruko literaturan sakonkien jorraturiko aztergaia" (Zapiain 2015: 164). Edonola ere, obra baten baitako errepikapenak, era berean, berridazketa ariketa gisa ulertzea ere garrantzitsua delakoan gaude.

Dena den, jarraian, Saizarbitoriaren lanek euren artean dituzten loturen inguruan arituko gara, labur bada ere. Gai hau aurrez ere sarritan jorratu izan dute literatur kritikariek: besteak beste, Aldekoa *Hamaika pauso* eta *Bihotz Bi. Gerrako Kronikak*[109] lanen arteko harremanaz aritu zen (Aldekoa 2008: 399) eta baita *HP*k egilearen aurreko liburuekin dituen loturez ere (1998: 109-153), Apalategik ere *HP* Saizarbitoriaren aurreko nobelekin nahiz ostekoekin alderatu izan du (Apalategi 2013: 79) eta Olaziregik egilearen unibertso literarioa zedarritzean ere nobelen arteko loturak izan ditu sarritan hizpide (Olaziregi 2001). Hori horrela, asko dira egilearen liburu batetik bestera jauzi egiten duten elementu narratiboak eta zenbait baliabide aipatuko ditugu jarraian, egilearen narratibagintzan berridazketek duten garrantziaren berri emateko.

Hori horrela, Saizarbitoriaren "Hemen nago, liburuz inguratuta, zutaz pentsatzen" (2003) ipuineko narratzaileak erabiltzen dituen hitzak ezin egokiagoak dira ondoren jorratuko ditugun jauzien berri emateko. Ohe ondoan pilatzen zaizkion liburuen inguruan egiten du gogoeta protagonistak, baina liburuak bata bestearen atzetik idazten dituen idazlearen hitzak ere izan zitezkeen:

> Pentsatu ere pentsatzen dut joera horregatik dudala burua nahasia, gauza gehiegirekin betea, pertsonaia askorekin, bata bestearekin gurutzatzen diren gertakizunez, ez hasierarik ez amaierarik duten istorioz gainezka.
> Egia da, ongi begiratuta, istorio batek ez duela ez hasierarik ez amaierarik izan; amaitu ohi dena liburua da, baina ez historia ordea; istorioek liburu batetik bestera egiten dute salto" (Saizarbitoria 2003: 48).

Liburu batetik bestera jauzi egiten dute, esaterako, pertsonaien izenek eta ezaugarriek. Iñaki Abaitua eta Julia protagonistak 1995ko *HP*n agertzen dira aurrenekoz baina 2012ko *Martutene*[110] nobelako bi protagonisten izenak ere badira, pertsonaia berberak izan gabe. Aldiz, *M*ko Martin idazlearen *alter ego* literarioa den Faustino Iturbe izango da *Lili eta biok*[111](2015) nobelako protagonista, bera ere idazlea izanik. Are, *M*n Martin idazten ari zen *Gizona ispiluaren aurrean* nobelaren egile gisa aurkeztuko zaigu Faustino *LEB*n. Bestetik, J. J. Lasa psikiatra, 1976ko *Ene Jesus*[112] nobelako epilogoaren egilea, pertsonaia bihurtuko da *HP*n eta 1996ko *BBGK* zein *LEB* nobeletan ere aipatzen da. Era berean, *BBGK*eko protagonista Flora deitzen da, *Gorde nazazu lurpean* (2000) liburuaren baitako *Bi Bihotz. Hilobi bat*[113]

[109] Hemendik aurrera, *HP* eta *BBGK*, hurrenez hurren.
[110] Hemendik aurrera *M*.
[111]Hemendik aurrea *LEB*.
[112] Hemendik aurrea *EJ*.
[113]Hemendik aurrera *BBHB*.

kontakizunekoa bezala, eta *M*ko Martin idazleak Flora Ugalde izena aukeratzen du Juliaren *alter ego* literario gisa. Eta *BBGK*eko Flora bezala, Bioleta eta Benitoren izenek ere jauzi egingo dute *BBHB* nobelara.

Izan ere, nobelen izenburuek iragartzen dutenez, 1996ko *Bihotz bi* eta 2000ko *Bi bihotz* kontakizun beraren bi aldaera direla esan daiteke, edo zehatzago izanik, *BBHB BBGK*ren berridazketa dela; "aldakia" (Olaziregi 2001: 90) edo bertsio berri bat (Aldekoa 2008: 408; Lopez Gaseni 2009). Hori bai, berridazketa berrian irauli egin dira aurreko nobelako protagonisten ezaugarriak: Flora da orain gizonezko protagonista gogaitzen duena eta gizon narratzailea izango da bere ingurunera moldatzen ez dena. Era berean, Bioleta eta Benito izenak *BBGK*en ere agertzen ziren baina *BBHB* nobelan bestelako pertsonaiak dira. Horrenbestez, Apalategik (2013: 209) nabarmentzen du antzeko izenburuek edota pertsonaien izenak errepikatzeak berridazketa baten aurrean egon gaitezkeelako pista faltsua eskaintzen dutela, izatez aipatu bi nobelen analogiak hor amaitzen direlako. Are, Saizarbitoriaren narratibagintzan izenak errepikatzearena ohikoa dela gogorarazi eta beste zenbait nobeletan errepikatzen diren beste hainbat pertsonaien berri ere eskaintzen du: Abel, Samuel, Marga… Jarraian, aldiz, *Gorde nazazu lurpean* liburuko *BBHB* eta *Rossettiren obsesioa*[114] kontakizunak alderatzen ditu.

Antzeko izenburu eta protagonisten izen errepikatuez gain, sarritan protagonisten hainbat ezaugarrik ere egiten dute salto liburu batetik bestera: batzuk aipatzearren, entziklopedia saltzailea da *HP*, *BBGK* eta *BBHB*eko protagonista; emakumezko protagonista bat baino gehiagok dute orezta bat lepoan; sardinak jango dituzte *EHD*ko Mauricek, *BBGK*ko narratzaileak eta *LEB*eko Faustino Iturbek idatziriko *Ez zara inoiz ezertara iritsiko* nobelako emazteak abandonaturiko protagonistak ere; nobeletako protagonista idazleak nobelak idazten aurkituko ditugu *HP*, *RO*, *M* edota *LEB* nobeletan…

Hain zuen, metaliteratura eta metafikzioaren garrantzia ere aipagarria da Saizarbitoriaren nobeletan, sarritan fikziozko protagonistaren baitan aurkituko dugulako berridazketa ariketa. Horrela, *HP*ko Iñaki Abaitua Daniel Zabalegiren bizitzako azken uneak bilduko dituen "Hamaika pauso" izeneko nobela idazten ari da eta horretarako, Daniel Zabalegiren auziko sumarioa berridatziko du. *RO*n, berriz, protagonista aspaldi Eugeniari igorritako eskutitza berridazten saiatuko da, mezu berberarekin Victoria konkistatzeko. Baina ezinezkoa zaionez hitzez hitz mezua berridaztea, garai batean galdu zuen nobela berridatzi ezin duen bezala, eskutitza berreskuratzeko ahaleginean galduko da narratzailea, Rossettik bere maitale Elizabeth Siddalen hilobitik berreskuraturiko bere poemen gertaerarekin ispilu jolasa burutuz. Aldiz, *Asaba zaharren baratzan* kontakizunean ere "Sabino Aranaren desehorzketari buruzko bertsio ezberdinak testuratzen ditu narrazioak; aitaren kontakizuna eta Gamarraren lekukotza idatzia, alde batetik, eta Ceferino Xemeinen 1937ko desehorzketa agiria, bestetik (417-419)" (Arroita 2014: 198). Era berean, idazlearen eta idazketaren zereginaz hainbat

[114] Hemendik aurrera *RO*.

pasarte irakurri daitezke *HP*n, *RO*n, *M*n eta *LEB*n eta, eginbidean dagoen nobelaren gaiari tira eginaz, *LEB*eko Faustino idazleak idatziriko *Work in progress* izenburudun ipuin ironikoa adibide egokia da, azken finean, aipatu lanetan egin bidean dauden hainbat sorkuntza prozesuren berri izango duelako irakurleak.

Beste zenbait kasutan, pasarte edo eszena jakinak dira liburu batetik bestera salto egiten dutenak. Esanguratsuena, agian, *BBGK* eta *M* nobeletan behin eta berriz errepikatzen diren Flora eta Julia protagonistaren desleialtasunaren eszenaren ondorengoak lirateke. Bietan, emaztea beroki gorria jantzita etxeratzen da goizaldean maitalearen etxean lo hartu duela aitortuz eta bietan, antzeko hitzak errepikatuko dira etengabe: "banoa", "ez naiz garbitu", "ez iezadazu historia hondatu", eta abar. Are, *M*n fikzio-gai ere bilakatuko du eszena hori eta Julia protagonistari Flora izena emanaz, *Beroki gorria jantzita ohe ertzean jesarrita dagoen emakumea* ipuina idatziko du.

Bestetik, *RO*n Juan Martin eta Victoria protagonistak *Gloria victis* monumentua bisitatuko dute Londresen eta era berean, *M*ko Iñaki Abaituak eta Lynn protagonistak eskultura beraren Bordeleko erreprodukzioa bisitatuko dute. Eta bi nobeletan argumentua eta trama bestelakoak izan arren, eskulturaren aurrean *RO*ko antzeko pasartea berridatziko da *M*n:

Martutene (2012)	*Rossettiren obsesioa* (2000)
Sweat defeat. Eskulturak derrota gozoa delako ideia transmititzen duela dio neskak. Zerikusirik ez garailea patxadazko pinakulu puntan edo ezpata erabiltzeko prest zaldi putinkari baten gainean kokatu ohi den beste monumentu horiekin. Zeinen gozoa ordea soldadu horren heriotza, halako aingeru ederraren besoetan. Isn't it? Abaitua galtzaileen kulturan hazitakoa da, eta derrota duina zela transmititu zioten. (…) Galdu egin zuten baina bere duintasunak garbi iraun zuen orbainik gabe. Hori transmititu zieten bere gurasoek, hobea dela derrota, duina denean.	"Gloria victis" zuen izena, "aintza bentzutuei". "Horra, derrotari eskaini nahi zenion monumentua". (…) "La douce défaite" esan zidan, "porrot gozoa. jakingo duzu noski, zerbait horretaz". (…) "—Cuando se encuentra el sentido estético de la derrota, el interés por la vistoria desaparece" (…) "Es muy duro estar allí arriba, en el pináculo de la victoria, como Nelson, y, sin embargo, que dulce yacer en los brazos del bello ángel de la derrota"

LEB azken nobelan ere, aurrez *BBGK*n agerturiko bi pasarte berridazten dira. Bi pasarteak dira gerrako gertakariekin lotuak: lehendabizikoa, gerraren eztandak eragindako eguneroko bizitzaren antzaldatzearen absurdua islatzeko erabiltzen da eta bigarrenak, aldiz, gerrako eszena krudela du abiapuntu. Gainera, fikzioan kontatzen diren bi eszenak benetako gertakarietan oinarrituta daudela ematen du eta hala ematen da aditzera *LEB*en ere, Faustinok garai batean bilduriko gerrako kontakizunetako lekukotasunetatik eratorritako pasadizoak diren neurrian:

Lili eta biok (2015)	*Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996)
Jasotako adierazpen guztietatik, gertakizun haren absurdoa erakusteko, bat aukeratu behar balu, Juanjo Lasa sendagileak kontatu ziona aukeratuko luke: mutil gaztea artean, Beorleguiren erreketeak Donostian sartzear daudela jakinda, kairantz abiatzen da ea Bizkaira joateko ontziratzerik baduen, eta kontrako	[Samuelek] Gogoan zuen hondartzara joan zela, eta handik bueltan izan zuela erreketak sartzen ari zirelako berri. Beste batzuk bezala, ihes egiteko erabakia hartu eta porturako bidean zihoala, Bastida izeneko batekin topo egin omen zuen, eskuineko zinegotzia izandako baten semea, bera ere, aita bezala, gerra ostean

zentzuan etxerako bidean, alboan bizi den ikaslagun bat, eskuindar familiakoa, gurutzatzen baitu, eskatzen dio jakinarazteko amari ez itxaroteko bazkaritarako, gerrara doala eta. "Bi gazte bata besteari mandatuak eskatzeko eta egiteko gai direnak, eta, oso denbora gutxiren buruan, bakoitza trintxera batean tiroka borrokatuko ziren" burutzen du, txiste bat kontatzen jakin ez eta ondoren esplikatu beharra izan duenaren frustrazio sentimendu berriarekin.	zinegotzia izango zena, eskola laguna eta auzokoa, koitadu bat, kalean gurutzatzerakoan etxekoei enkarguak emateko erabiltzen diren horietakoa: "Esaiok nire amari berandu iritsiko naizela", edo "mendira joango naizela" eta abar, eta orduan ere, amari, bera gerrara zihoala eta ez itxaroteko abisua emateko agindu zion. Ezin ulertu nuen nola Bastida delakoari ez zion enkarguarekin batera belarrondoko bat luzatu, hori gutxienez, azken batean etsaia baitzen, biharamunean, akabatzeko asmoz, fusilaz apuntatuko zituenen antzekoa. Ez dut uste berak ere ulertzen zuenik.
Iturrinoko sukaldeko eszenak beste baten oroimena ekarri dio gizonari, Otzetatik ez oso urrun, Elgetan, bere dokumentalerako elkarrizketak egiten zituen garaian jasotako gertakizun bati dagokiona, zeinaren berri liburu batean baino gehiagotan eman duen. Kasu hartan ejertzitoko mairuak izan ziren baserri bat arpilatzera sartu zirenak. Besoak lapurtutako erlojuz beteak zituzten mairuek, eta, mandioko belar onduen atzean ezkutatua, ama bat eta bere alaba nerabea aurkitu zituzten. Haiengana zihoazela, emakumearen senar eta neskatoaren aitak eragotzi nahi izan zien. Matxetez akabatu zuten.	Ezkerreko eskuaren hiru hatz hartzen zituen eskuinekoan, hiru erdikoak, bere lagun Elgetakoari gertatutakoa kontatzerakoan. Esan bezala, mairu bat ikusten zuen bakoitzean kontatzen zuen, Elgetan mairuak harrapaketarako eskubidearekin sartu zirelako, haiek sartzen ziren herri guztietan bezala. Hor ziotean, Francok, ordain gisa, hartzen zituzten herrietan harrapaketarako eskubidea ematen ziela. Eskubide horrekin edo gabe, kontua da Klaudiaren lagunaren etxean sartu zirela, eta aitaz aparte ez zegoela gizonik, gurasoak eta neska zeudela, hamabost urte ingurukoa. Kontua da gurasoak neskaren aurrean hil zituztela, eta gero berau harrapatu nahi izan zutela, bortxatzeko noski, "ze, badakizue nolakoak diren mairuak" esaten zuen Klaudiak, eta neskak ganbarara egin zuen ihes, eta hango leihotik sorora salto egiteko zegoela, eskuak leiho barrenari helduta eta gorputza kanpora zintzilik jada, mairu bat iritsi, aihotzaz jo, eta hiru hatz, hiru luzeenak –Klaudiak bereak erakusten zituen banan-banan–, "erpurua eta txikia ez beste guztiak, erakuslea, erdikoa eta nagia moztu zizkion". Neskak, sorora erori edo jauzi, ez dakit, eta arto artean korrika ihes egitea lortu omen zuen. Klaudiak Hanbreko leihoa seinalatzen zuen, neskatoak handik ihes egin bailuen, eta denok geratzen ginen hara begira. Uste dut gehienetan geuk ere ezkerreko hiru hatz erdikoak eskuineko eskuaz hartzen genituela.

Pasarte edo eszena errepikapenen antzera, liburu batetik bestera jauzi egiten duten esaldiak ere aurki daitezke Saizarbitoriaren narratibagintzan. Aurrez aipatu dugu *EHD*ko 2007ko berridazketan eta 2012an kaleraturiko *M*n esaldi bat errepikatzen dela, Tolstoik erretzeari uzteko arrazoiaren ingurukoa. Era berean, *EHD* izenburua biltzen duen eta nobelaren amaieran aurki daitekeen aipua, *BBGK*n ere aurki daiteke:

Bihotz bi. Gerrako kronikak (1996)	*Egunero hasten delako* (1969)
Zerbait esan eta burua makurtu zuen. "Bizia egunero hasten da", beharbada. Bizia egunero hasten dela esaten baitzuen gauzak ongi ez zihoazkionean, eta harekin ere nirekin zegoenean esaten zituen gauzak esango zituen.	Biharko bizitzari itxoinaz, aurrera, bizitzera, bizitza egunero hasten delako.

Beste esaldi esanguratsu bat, *HP*n behin baino gehiagotan aipatzen den Claude Simonen "Memoria plater hautsi bat da" esaldia dugu, *LEB* nobelan modu ironikoan errepikatuko dena:

Lili eta biok (2007)	*Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996)
Areto osoa dauka berak zer esango zain, begira, baina ez zaio besterik bururatzen, Claude Simon aipatuz, memoria plater hautsi bat dela esatea baino, eta ez daki harridura ala dezepzioa den nagusi entzuleengan.	Eta Claude Simonek, Güel parkeko mosaikoen desordena magikoa gogoan, "memoria plater hautsi bat da", esan zuzen. Ez du zentzurik platera apainduren marrazkia osatuz kolatzeko ahaleginak, beti faltako baita birmoldaketa ezinezkoa edo desitxurosoa egingo duen esmalte zatiren bat.

Azkenik, Saizarbitoriaren nobelagintzan berridazketek duten garrantziaren zerrenda laburrarekin amaitzeko eta azken azpi-atal honetan aipaturiko berridazketa adibideen azterketa sakonagoa etorkizuneko ikerketetarako utziz, *M*ren paperezko argitalpena eta edizio digitala erkatu behar dira. Izan ere, 2012an argitara eman zen paperezko edizioarekin alderatuz, bi hilabete beranduago kaleratu zen edizio digitalean pasarte esanguratsu bat gehitu zen. Hau da, hain zuzen, *M*ren sorkuntza prozesuaren denboraz galdetuta, erantzun zuena:

> Emango nituen, nik uste, bederatzi urte edo… Eta gero nobelak erabat idatzita urte eta erdi bazeraman. Kentzen ahalegindu nintzen eta kendu nuen. Gehiegi ere bai, guraizea joan egin zitzaidan —hori e-bookean konpondu dut, pasartetxo bat gehitu dut, Lynnen antidepresiboekin lotua— (Bereziartua 2012)

Eta hau da, zehazki, paperezko edizioko 216. orrialdean, hamargarren lerroko "dioenez" eta "Traduttore traditore" hitzen artean joan beharko lukeen eta edizio digitalean gehitu den pasartea:

> Hitz egingo dutela ping-pong mahaia probatu ondoren idazle enplastuak, berriro ere ukalondotik helduz, eta neskak salara itzultzea beste irtenbiderik ez dauka, bi tanto jokatzeko baino ez, aski serio, ez duelako izerditu nahi eta gainera kontu korrontearen zenbakia emango balio, errentaren dirua ingresatu ahal izateko.
>
> Pilotaren klaskek ez diote Juliari lanerako laguntzen. Montauk-en idazleak dio ping-pong pilotaren tik-tak hotsa dibertigarria gertatzen dela areto hutsean. Julia ordea bere onetik ateratzen du iristen zaion oihartzunak. Ideia oldarkorrak. Pala hartuta jipoi eder bat biei. Baina hobe frontoian, benetako pala eta pilotarekin. Neskatotan asko jokatzen zen mutilekin, baita eskuz ere. Pilotak frontoian ateratzen duen hotsa bestelakoa da oso. Kolpe lehor bortitza, harria harriaren kontra.
>
> Orain nagusi den hotsa, pilota kaskarrak tik-tik-tik lurraren kontra egiten duen errepika.
>
> Enough for today. Utzi dute jokoa halako batean. Gazteak izerditan dagoela argudiatu du nahikoa duela esateko, aztarrenik ikusten ez zaion arren. Idazleari bai, arnasa estutu zaio, eta aurpegiko gorritua areagotu, neskak kontu korrontearen zenbakia agindu bezala emateko eskatu diolarik. Arrazoiren bat tarteko idazleak ez du nahi, eta zergatik zegoen hain haserre galdetu dio ihesean, baina neska ez dago etsitzeko: ordaindu egin nahi du. Juliari harrigarria gertatzen zaio Martin, hain memoria txarrekoa izanik, bere kontu korrontearen zenbaki sail luzea buruz esateko gai izatea. Fitxa, folio eta post-it paketetxoz inguratua badago ere botika kaxa huts batean idatzi du, Juliak badaki zergatik. Begi bistakoa da bezperan berari egin zion jolaskeria errepikatu nahi duela. Antidepresiboak hartzeari utzi ziola aipatu zuen –penthouse neskak animoa altxatuta, pentsatu zuen berak–, zeuzkan pilula guztiak pentsamenduen parterrera bota zituela eta on egin zietela nabarmenki. Hain zuzen ere, goizean landareak mardulago zeudela iritzi baitzion, irrigarria iruditu zitzaion –amerikarrari ere grazia egiten dio, of course–, baina orain Juliari penagarria egiten zaio erreparorik ez izatea gag hori antzezteko, bera aurrean ez balego bezala.

Gure ikerketa *EHD*ren sortze prozesuan lekukotasunak eta berridazketak azaleratzera mugatu bada ere, Saizarbitoriaren narratibagintzan berridazketek zer ikertu ematen dutela agerikoa da, liburu batetik bestera jauzi egiten dutenak ez direlako nobeletako protagonistak soilik, baita euren ezaugarri, nobeletako pasarte edota esaldi zehatzak ere. Are, argitalpen berri bakoitzean aurki daiteke egilearen beste libururen bateko oihartzunik eta azkenik, gainera, *M*ren paperezko argitalpenaren eta digitalaren artean gehituriko testuak ere aditzera ematen du egileak, behin liburua argitaratuta ez duela sortze prozesua erabat alboratzen eta aldaerak ere erantsi dituela berrargitalpen berrian, eta ondorioz, baita gaztelerazko liburuaren itzulpenean ere.

4. BERNARDO ATXAGAREN IDAZLANEN BILAKAERA GENETIKOA AZTERGAI

4.1. SARRERA

Berridazketa teknikak etengabeko sormenerako baliabide gisa erabili dituen euskal idazleen artean Bernardo Atxaga da nabarmendu beharrekoa: "Gurean egilerik bada bere testuen etengabeko berridazketa edo bermoldatze eragiketetan murgilduta ibili dena, idazle hori, ezbairik gabe, Bernardo Atxaga da" (Olaziregi 2009: 291).

Berridazketaren askotariko adibideak aurki daitezke bere literatur ibilbidean: argitaraturiko hainbat ipuin berridatzi eta bestelako eite batez publikatzeaz gain, bestelako literatura proiektu eta lanetan txertatu ditu (*Obabakoak*eko zenbait ipuin, kasu); hainbat lan literatur generoz mudatu dira sorkuntza prozesuan (*Sara: Zumalakarregiren zelatari* irrati-nobelatik *Sara izeneko gizona* gazteentzako eleberrira; *Zeruak* ikuskizunetik *Zeru horiek* eleberrira; *Logalea zeukan ekilibristaren kasua* antzerkitik *Italiako zirku batean* kontakizunera); argitaraturiko edizioen zenbait aurre-testu eskuragarri daude (*Bi anai*ren makinizkribua, adibidez); autoitzulpenari dagokionez ere makina bat publikazio burutu ditu egileak; hainbat lan edizio zuzendu gisa ere berrargitaratu ditu; bere sormen lanak ondorengo lanetan hizpide izan ditu (*Soinujolearen semea*n edota *Nevadako egunak*en); zenbait obra zinemara (*Obaba*; *Zeru horiek*; *Bi anai*) eta antzerkira (*Jimmy Potxolo*; *Soinujolearen semea*) moldatu dira eta fikziozko lanetatik at, argitaraturiko iritzi-artikuluak ere berridatzi eta liburu gisa bateratu ditu (*Lekuak*).

Aipaturikoak adibide batzuk besterik ez dira eta, halere, erraz igar daiteke berridazketek Atxagaren literatur sorkuntza eta poetika alderik alde zeharkatzen dutela. Kritikak ere erreparatu dio ezaugarri horri eta askotan goraipatu izan da Atxagaren berridazketarako joera sormen baliabide orijinal gisa. Jarraian, Atxagaren obrako hainbat berridazketen gainean kritikak azpimarraturikoak aipatuko ditugu.

4.2. AURREKARIAK

4.2.1. *Ziutateaz* eta *Etiopia*

Arestik editatu eta askoren lanak biltzen zituen *Euskal Literatura 72* izenburudun bilduman argitara emaniko "Borobila eta puntua" antzezlanaren eta "Oskar edo nola egin behar den publizidaderako prospektu berri bat" narrazioaren ostean, *Ziutateaz* (1976) eta *Etiopia* (1978) lanen bidez iritsi zen Atxaga idazlearen aro esperimentalista eta abangoardista deitu izan denaren gailurrera. Bi liburuen egitura formalari erreparatuz gero, bi obretan generoen arteko hibridismoa lantzen dela ohartzen gara. *Ziutateaz* liburuan narrazio motzak, poemak eta antzerki lan bat biltzen dira, eta *Etiopia*n aldiz, poemak eta narrazio motzak. Hala ere, lehendabizikoan prosa gailentzen da eta bigarrenean, berriz, poesia.

"*Ziutateaz* eta *Etiopia*: obsesio berdinez eraikitako bi unibertso" artikuluan Josu Landak Atxagaren bi lan horietako ardatz tematikoak eta bi unibertsoen arteko berdintasunak eta desberdintasunak jorratzen ditu. Ardatz tematikoen antzekotasunen artean ziutatearen gaia, apatriden auzia, bidaien alegoria, krudelkeriaren edo ankerkeriaren gorazarrea eta poeta-idazlearen irudiaren desmitifikazioa zerrendatzen ditu Landak.

Era berean, Aldekoak *Ziutateaz* nobela esperimentaletik *Etiopia*ra igarotako motiboak zerrendatzen ditu: "trenak, esploradoreak, Ikariarrak, boxeolariak, hitzaren eta isiltasunaren arteko borroka (mututasuna), lemazain itsua (Hyeronymus) edo Caryl Chessman heriotz zigorrera kondenatu eta 1960an gaseatuta hil zuten gaizkile-idazlea" (Aldekoa 2009: 16). Are, aipaturiko erlazio sarea are estuago bihurtzen da bi liburuetan gai konkretu bera modu ezberdinean jorratzen dela ohartuz gero; Caryl Chessman pertsonaiaren inguruko errekreazio literarioa, adibidez, bai *Ziutateaz* eta baita *Etiopia*n ere aurkituko dugu, aurrerago sakonduko dugun bezala.

Lourdes Otaegik ere, "Distopia eta paradisua Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren *Etiopia* makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak" artikuluan, distopiaren gaiak bi liburuak alderik alde gurutzatzen dituela ondorioztatzen du eta bi obren arteko lotura gehiago nabarmentzenditu:

> *Etiopia* ulertzeko balio handikoa da *Ziutateaz* eleberria, bi urte aintzinagotik idatzia denez, bien arteko loturak ugariak baitira. Bietan suma daiteke literatura fantastikoaren zaletasuna, bereziki Marcel Schwob eta Jorge Luis Borgesen ildokoa. Bestalde, generoen hibridaziorako joera suma genezake bietan. Azkenik, *Ziutateaz* eleberrian dauden testu poetikoek enuntziazio lirikoari dagokionez, *Etiopia*ko monologo dramatikoarekin harreman estuan ikus dezakegu (Otaegi 2013: 116)

Bestalde, Azkorbebeitiak *Ziutateaz* eta *Etiopia* lanetako poesia-moldeak, metaforak eta prosa ikertu ditu eta bi lanetan estilo bertsua azaleratu du, idazlearen ondorengo etapetako estiloekin alderatuz eta hipotesi interesgarriak ondorioztatuz. Horrela, Atxagaren hastapenetako lanetan metafora bortitzak

gailentzen dira, hizkuntza eta haren atzean dagoen errealitatea bortxatuz: "garrantzitsuena hemen –'mezua', nahi izanez gero– ez dagoke hitzok esaten duten horretan, atzean ezkutatzen den asmoan baizik, hizkuntzaren eta hizkera poetiko estereotipatuaren kontra jotzeko asmoan, hain zuzen" (Azkorbebeitia, 1999: 124).

Etiopia estreinakoz 1978an argitaratu zuen Pott Liburutegiak eta bigarren argitalpena 1983an egin zen Ereinen eskutik, jatorrizkoan sartu ez ziren bi poema berri ere txertatuz: "Kamamila edanez ere" eta "Esploradore nekatu batek", hain zuzen. Bi poemak aurrez *Pott Bandaren Praka* 1979ko uztaileko aldizkarian kaleratu ziren[115]. Baina gehiketa horrez gain, bigarren argitalpenak izan zuen bestelako eraldaketarik: batetik, liburuaren baitako J. M. Susperregiren argazki guztiak baztertu ziren, azaleko irudiaren xehetasun bat izan ezik, oraingoan azala Antton Olariagarena baita Susperregiren irudia moldatuz; eta bigarrenik, lehendabiziko edizioko hitzaurre gisako Atxagaren oharra ere kendu egin zen. Hitzaurre horretan, Atxagak liburuaren sorkuntza prozesuaren inguruan argibide esanguratsuak biltzen zituen:

> Poema liburu honen prozesoa aski luzea izan da, oso lantsua eta –azken hilabetetan, batez ere– oso nekosoa neretzat. Bi urtetik gora kostatu zait poemak eta beste lan literarioak osatzea (denbora horretan, lau forma desberdin izan ditu liburuak, gutxinez) eta gaur ipini ditudanak, definitiboak, ez dira selekzio bat besterik. (Atxaga 1978: 5)

Ereinek 1988an kaleratu zuenoraingoz azken berrargitalpena den *Etiopia*ren alea, 83ko edizioa bere horretan mantenduz. Halere, Atxagak bere poemen bestelako aukeraketa bat apailatu zuen 1990ean eta Visor etxeak kaleraturiko *Poemas & híbridos* lanean bildu zituen *Etiopia*ko hainbat poema, poema guztiei aurrez zehaztu gabeko izenburu bat ezarrita eta bertsio elebidunean.

Aldiz, *Ziutateaz* liburuaren 1976ko argitalpena Kriselu argitaletxeak egin zuen bi liburukitan, bata gorria eta bestea berdea: *Ziutateaz* (I) eta *Ziutateaz* (II). Aipatzekoa da, liburuaren argitalpena baino lehen *Zorion Ustela* (1976) aldizkarian nobela ixten duen pasartea argitaratu zela:

> Atxagaren [*Zorion Ustela*ko] testua, izenburu gabea, *Ziutateaz*en argitaratuko zuen hilabete gutxiren buruan "Monsieur Salat da mintzo" izenburuarekin. Liburuko azkenaurreko atala osatu zuen zati hark eta hor ageri zaizkigu liburuko pertsonaia nagusiak, Theo eta Scardenalli (aldizkarian "Scarlatti"). (Sarasola 2015: 47).

*Ziutateaz*en bigarren argitalpena, berriz, hamar urte beranduago egin zen, 1986an. Erein argitaletxeak kaleratu zuen eta edizio hartan bi liburukiak batean apailatuta kaleratu ziren. Berrargitalpen honetan ere, hainbat aldaera txertatu dira eta ondorioz, paratestuko peritestuari dagokionez bederen, eraldaketa nabarmenak burutu dira. Aurrez adierazi bezala, Ikasketa Aurreratuen ziurtagiria eskuratzeko *Kritika genetikoa eta idazketa-prozesuaren berreraiketa* izenburudun ikerketan, besteak beste,

[115] Bi poema horien data dela eta, Koldo Izagirrek apailaturiko eta Atxagari eskainiriko *Poesia kaiera* antologian poemok 1978koak direla zehazten bada ere, *Pott* aldizkariko izenburuak, "Maiatzean amaitu bi poema (bat kantatzekoa)", argi uzten du poemok 1979an burutu zituela Atxagak.

Ziutateaz nobelaren 76ko eta 86ko edizioak erkatu genituen eta jarraian aipatuko dira berrargitalpeneko aldaera nagusiak.

Lehenik eta behin, 1976ko bi liburukien azalean Melchor Sarasketaren argazki esperimentalak agertzen dira eta liburu barneko atalak bereizteko ere antzeko argazkiak erabiltzen dira (hasiera batean *Pott* aldizkarirako izan behar zuten irudiok).

Hitzaurre gisa Atxagaren ohar bat agertzen da lanaren inguruko argibideak eskainiz: "Ziutateaz lana, osotasuna duen zerbait bezala egiten joan banaiz ere, irakur dezakezu zerikusirik gabeko lan bilduma bailitza, inongo –hala uste nik behintzat– eragozpenik gabe" (Atxaga, 1976: 5). Ondorengo lerroetan, bi liburukietako poemak, "theatroa" eta ipuinak nola banatzen diren aipatzen du. Gainera, antzerkiak "Bilintxi omenaldia" eta ipuinek "Scardenalli", "Joe", "Gomez" eta "Barraketakoak" izenburua dutela zehazten da.

Testu literarioan barneratu aurretik, hiru eskaintza eta aipu bat txertatzen dira. Hiru eskaintzak ilunak bezain esanguratsuak dira: lehenengoa idazketaren inguruan gaztelaniaz idatzitako metapoema gordina da; bigarren eskaintzako poemak familia du hizpide eta hirugarrenak, berriz, lagunei eginiko keinuaren ondoren, hainbat bertso biltzen ditu.Hiru eskaintzen ondoren egileak Ezra Pound-en elkarrizketa zati bat gehitzen du epigrafe gisa (*Etiopia*ko hamargarren zirkuluan ere aipatzen den idazlea da Pound).

Jarraian, poemak, narrazioak, eta antzerkia bilduko dituen testua datoz. Hitzaurrean egileak zenbait atalen izenburuak aipatzen baditu ere, liburuan ez da intertitulurik zehazten narrazioak eta antzerkia bereizteko, eta esan bezala, azpi-atalen banaketa egiteko Sarasketaren argazkiak erabiltzen dira.

Azkenik, testu osoaren ondoren, bi gibel solasek ixten dute 1976ko edizioa. Lehenegoak "Lan honek hemen du bere amaiera artifiziala" darama izenburutzat eta irakurleari eginiko argibide zerrenda osatzen du. Oraingo honetan, ordea, nolabait dei egiten zaio irakurleari sortzaile bihur dadin: "Eskribitzea eta irakurtzea hilargi berbera baitira" edota "Neure lan honek zeurearen lagungarri izan nahi bai luke, kreaziozko lanak katiaturik ekarri behar bai lukete beste bat, zeurea adibidez" (ibid.: 116). Zerrenda honen atzetik, "Bizpairu proposamen, oraindik" azken gibel solasa dator eta bertan, hiru ohar metaliterario ematen dira irakurleak testuarekin jolasten jarrai dezan, pertsonaiei izenak aldatuz, amaieratik istorioa asmatzen jarraitzeko animatuz eta abar.

1976ko edizioko peritestua 1986koarekin alderatzen badugu, aldaketa nabarmenak daudela jabetuko gara. Lehenengo bi liburukiak bigarrenean batean biltzea da aurrenekoa, liburuaren azaleko irudiaren aldaketa dator gero, Sarasketaren argazkiak ere ez dira agertzen edizio berrian eta kontrazaleko hitzak gehitu dira, lehenengo edizioko Atxagaren hitzaurrearen ordez Joxe Mari Iturraldek idatzitako beste bat dago. Zehaztasunez aztertu beharreko aldaketak guztiak ere.

Lehenik eta behin, bigarren argitalpenaren azaleko irudia hartu behar da kontuan. Bertan Arnold Böcklin pintorearen *Hildakoen irla* margolan esanguratsua agertzen da. Azaleko irudi horrek *Ziutateaz*eko testuarekin lotura oso estua du. Izan ere, Atxagak bere obran *Hildakoen irla* hitzen bidez esplizituki deskribatzen eta "Ikaro-en uharte" gisa berreraikitzen du eta gainera, margolaneko pertsonaiak ere fikzioan txertatzen ditu, izenak aldatuta (Caronteren ordez, Hyeronymus dakusagu orain, ziurrenik *El Bosco* margolariaren omenez):

> Uharte bat da, bi harkaitz izugarri eta berdeskaz osatua. Erdialdean zuhaitz batzuk ere badaude, luma itxurakoak, harkaitzak baino gorago igotzen direnak. Harkaitz paretetan zuloak daude, zauriak dirudite.
> —Non gaude, Hyeronymus?
> —Bidaiaren azkenean, Ikaro-en uhartean (Atxaga 1986: 37).

Azkenik, joko intertestuala borobilduz, *Ziutateaz*en berreraikitako uharte hori Böcklin-en "Hildakoen irla" dela berretsiko da hitzez hitz hurrengo orrialdean: "Ez dago dudarik. Ikaroen uhartea hilotzen uhartea da".

Bestalde, azalaren aldaketarekin batera kontrazala ere aldatu egin da eta editorearen aurkezpenaren ondoren, Atxagaren hitzak biltzen dira bigarren edizioan.

1986ko edizioaren hitzaurrea, berriz, Joxemari Iturraldek sinatzen du eta liburuaren lehen argitalpenaren inguruko hainbat kontu kontatzeaz gain, *Ziutateaz*n irakurketarako hainbat bide eskaintzen ditu. Beraz, bigarren edizioan lehen argitalpeneko Atxagaren hitzaurrea ez da agertzen eta, horrenbestez, bertan aipatzen ziren narrazio eta antzerkiaren izenbururik ere ez.

Esan bezala, lehen edizioko testuek ez dute intertitulurik baina bigarren edizioan intertituluak eransten dira. Atalak zehazteaz gain, banaketa lana burutzen duten intertitulu hauek, ordea, ez dira lehenengo edizioan aipaturiko "Scardenalli", "Joe", "Gomez", "Barraketakoak" eta "Bilintxi omenaldia" izango eta narrazio bakoitza nolabaiteko azpi-intertituluetan banatzen da. Horrela, adibide gisa, "Scardenalli" deituko litzatekeen narrazioa 1986ko edizioan "Scardenalli da mintzo", "Scardenallik jarraitzen du", "Scardenalli orain ere", "Scardenalli", "Scardenalli", "Antonin da mintzo" eta "Scardenalli, Antonin" azpi-intertitulutan banatzen da. Eta antzekoa gertatzen da gainerako narrazioekin ere, intertituluek pasarte horretako protagonista nor den aurreratzen baitute. Bestalde, lehenengo edizioan aipatu ere egiten ez diren "Egilea bera da mintzo" eta bestelako zenbait intertitulu berri ere gehitzen dira. Aldiz, "Bilintxi omenaldia" antzerkia agertzen den pasartea ez da intertitulu batez bereizten.

Bestalde, 1976ko edizioko hitz-osteetatik gibel solas bakarra agertzen da bigarren edizioan, "Bizpahiru proposamen, oraindik" izenburua duena, hain zuzen. Horrenbestez, lehenengo edizioan egilea irakurlearengana zuzentzen den gibel solasa ezabatu egin da bigarren argitalpenean.

Paratestuan ageri diren aldaerekin erkatuz, testuaren mailan gertatzen direnak azalekoak dira, zuzenketarekin lotura estua duen berridazketaren ondorio ziurrenik. Izan ere, testua aurkezteko modua edota testuingurua da bereziki aldatzen dena 1976ko ediziotik 1986ko argitalpenera. Eta ondorioz, forma aldatzean edukia ere eraldatu egiten da eta *Ziutateaz*en kasuan, literatura abangoardistako ezaugarri asko leundu egin dira bigarren edizioan. Horrela, irudi esperimentalak ezabatu egin dira (*Etiopia*ko bigarren edizioaren kasuan bezala) eta irakurleari zuzenduriko Atxagaren hitzaurrea eta gibel solasetako bat ezabatu egin dira (*Etiopia*ko bigarren edizion ere egilearen hitzaurreko oharra ezabatu egin zen). Badirudi, *Ziutateaz*en bigarren edizioan ohikoagoa den testuingurua eta testua eskaintzeko ahalegina egiten duela egileak, intertituluetan pasarteetako narratzaileak zehaztuz eta, horrenbestez, hastapenetako hermetikotasuna saihestuz.

Ziutateaz lanarekin amaitu aurretik, Atxagaren lan honek egilearen beste lanekin duen testuartekotasuna aztertzea dagokigu. Atal honen hasieran aipatu bezala, berridazketa estrategia batzuk ohikoak izan dira Atxagaren poetikaren baitan, eta *Ziutateaz* liburuko hainbat pasarterekin ere antzekoa gertatuko da. Hain zuzen, *Henry Bengoa Inventarium*[116] (1988) lanean agertuko dira *Ziutateaz* obrako oihartzun nabarienak. Lehenengo eta behin, *Ziutateaz* liburuan Joe pertsonaiaren narrazioan Ipar Polora iristeko Admunsenen eta Scotten arteko norgehiagokaren berri ematen da hiruzpalau paragrafotan (Atxaga 1986: 84-85). Auzi horren kontakizuna Joe pertsonaiaren ahotik ezagutarazten da liburuan eta pertsonaiaren izaera obsesiboaren berri emateaz gain, Scott galtzailearekiko Joek sentitzen duen miresmena kontatzeko ere balio du.

HBI lanean Scott eta Admudsenen espedizioen gaiaren inguruan berriro idatziko du Atxagak "Scott kapitainaren azken anotazioak" izenburupean. *Ziutateaz*eko bertsioarekin konparatuz, bertsio berriak eraldaketa asko eskaintzen ditu narrazio-mailan. Oraingoan, Ipar Poloan jazotako gertaera desagertutako Henry Bengoak utziko du idatzita eta bere bila atera diren lagunek topatuko dute testua. Narrazioaren hariari jarraiki jakingo du irakurleak Henry Bengoak lagunen saio baterako espreski idatzitako narrazioa dela Scott Kapitainaren narrazioa. Modu autobiografikoan idatzitako errekreazio hau hiru ataletan banatua dago, Scotten bizitzako azken hiru egunetako oharrak bilduz. Kontakizunaren aurretik, ustez narrazioa idatzi duen narratzaileak idatzitako beste ohar hau ere irakur daiteke: "Hauxe bidaltzen dizuet saio literariorako. Robert Scott kapitainari egin nahi izan diodan omenaldi bat" (Atxaga 1988: 40). Eraldaketa honetan agerian gelditzen da Olaziregik *Obabakoak* liburuko ipuinetako berridazketetan aipaturiko narratzaile-protagonistaren eraldaketatik eratorritako maila narratiboaren bikoiztasuna (Olaziregi 1998: 89-90). Esan bezala, Scotten narrazioa Joe protagonistaren bidez ezagutarazten da *Ziutateaz*en; baina *HBI*n, narrazioa moldatuta agertzeaz gain, testuaren narratzailea Scott autodiegetikoa izango da.

[116] Hemendik aurrera *HBI*.

Are, *HBI* gaztelerara itzulitakoan, *Poemas & híbridos* liburuaren baitan, kredituetan "Diario del Capitán Scott (tomado del libro de E. Zweig *Momentos estelares de la humanidad*)" zehazten da euskarazko edizioan egin ez bezala eta izatez Zweig-en liburuan Scotten abenturak biltzen badira ere, Atxagak ez ditu Zweigen testuko hitzak transkribatzen, baizik eta abiapuntu gisa harturik bestelako birsorkuntza bat burutzeko erabiltzen ditu eta azken batean, Scott kapitainaren azken oharrak asmatzen eta entzule/irakurleari eskaintzen dizkiola esan daiteke.

Bestalde, *HBI* gaztelaniazko itzulpenean bada beste berezitasun bat, *Ziutateaz*eko lehen eskaintzan gaztelaniaz agertzen den poema berragertzen baita. Euskarazko bertsioan, "Orduan" izenburuarekin ezagutzera eman den eta jada *Etiopia*n argitaratu zen poema agertzen da leku berean. Esan bezala, ordea, *HBI*ren gaztelaniazko itzulpena *Poemas & híbridos* lanean aurkezten da eta liburu hasierako poema bilduman "Orduan" poema eta haren itzulpena poema autonomo gisa agertzen direnez, *HBI*ren itzulpenerako *Ziutateaz*eko "También el último de todos los días" berreskuratzen da. Horretarako arrazoia, ziurrenik, liburu berean poema bitan errepikatua agertzea eragoztea izan liteke.

Kasu honetan ere, egileak testu bat bere jatorrizko testuingurutik atera eta beste testuinguru batean txertatzen du eta nolabaiteko berridazketa honekin aukeratutako testuari beste zentzu bat eransten dio. Esan bezala, berridazketa-estrategiak idazlearen hastapenetako lanetatik ageri zaizkigu Atxagaren poetikan.

Azkenik, aipatu *Ziutateaz*en azken berrargitalpena Ereinek burutu zuela 2008. urtean, poltsikoko edizioan, eta 1986ko testua eta peritestua bere horretan mantendu direla. Soilik azala eraldatu da, Iturrik eginiko irudi berria txertatu baita oraingoan, eta ondorioz, bigarren argitalpenean azaleraturiko Böcklinen *Hildakoen irla* margolaneko irudia eta, aurrez ikusi bezala *Ziutateaz* lanean esplizituki aipatzen dena, baztertu egin da.

4.2.2. *Bi anai*

1982an "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena" ipuinean agertzen zaigu aurrenekoz Obabako geografia asmatua eta ondorengo urteetan, Atxagaren aro fantastikoa edo Obabako zikloa deiturikoa garatuko du: *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) edota *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1985) gaztetxoentzako kontakizunetan aurrenik, eta *Bi anai* (1985) eta *Obabakoak* (1988) nobelekin iritsiko da gailurrera.

Bi anai nobelaren kasua berezia da, 1985an argitara eman zen liburuaz gain, 1984ko aurre-testu argitaragabea ere eskuragarri baitago Koldo Mitxelenako gordailuan, Xabier Leteren fondotik berreskuratua. Karpeta batean bilduta, 32 zentimetroko 47 orrialdek osatzen dute dokumentua eta jatorrizko makinizkribuaren fotokopia lirateke. Azalean, Leteren honako hitzak datoz: "'BI ANAI' nobelaren makina-izkribua BERNARDO ATXAGA berarena. Berak zioen 'azken-urreko' erredakzioa

zela. Baina gero nobela aski aldatua atera zen, batez ere hasierako kapituloetan. Neri hobea iruditu zitzaidan hemen dagoena"; dokumentuan zehar eskuz eginiko zuzenketatxo batzuk daude (ziurrenik Atxagarenak berarenak); eta dokumentuaren azken orrialdean, data ageri da: 1984ko uztaila. Dataren ostean, hitzez zehazten da "Erredakzio azkenaurrekoa" litzatekeela zirriborroa.

Olaziregik egin du bi bertsioen arteko erkaketa "Testuak mugimenduan. Iruzkin laburrak egungo euskal literatur lan zenbaitez" artikuluan eta ondorioztatu du aldaera nabariak daudela aurre-testuaren eta ondoren argitaratuko den nobelaren artean: "Bistan da esku artean dugun izkribu hau ez dela, segur aski, «azken aurreko» zirriborroa, aldaketa itzelak baititu gerora argitara eman zen testuarekin, aldaketak bai istorioari berari dagozkionak, baita paratestu eta konta teknikei dagozkienak ere" (Olaziregi 2013: 293). Jarraian, banan-banan zerrendatzen ditu bi bertsioen arteko aldaketa nagusiak: iraganeko 3. pertsonako kontalari bakarretik animaliek (txoria, kattagorria, sugea, eta antzarak) osaturiko narratzaileak izatera; kontakizuna Paulo protagonistan fokalizatuta egotetik fokua zabaldu eta animalia bakoitzak duen izaera eta gainerako protagonistekin duten identifikazioaren aldeko hautua egiten da azkenean; protagonisten adinak eta istorioaren denbora iraupena ere aldatu egin dira; istoriaren amaiera garatu egin da argitaraturiko bertsioan eta gainera, amaiera fantastikoa gailentzen da; eta azkenik, testuartekotasun keinuek eta oihartzunek ere eraldaketa izan dute. Bestetik, erretoreak ere pisu gehiago izango du argitaraturiko edizioan eta Obabako giroa ere itogarriagoa izango da.

Aldaketa horiek guztiak kontuan izanik, bertsio batetik bestera fabula moral modernorako bilakaera nabarmentzen du Olaziregik, narratzaile animalien ahotsen erabilera erakusle paradigmatikotzat ulertuz.

Bestalde, *Bi anai* argitaratu eta hamar urtetara, 1995an hain zuzen, *Dos hermanos* gisa autoitzuli eta argitaratu zuen Atxagak. Jatorrizkoa argitara eman eta iragandako denboraren faktoreak eraginda, kasu honetan ere, bestelako aldaera zenbait erantsi zizkion aurrez euskaraz kaleraturiko bertsioari, hala nola, animalien ahotsei gaineratzen zaien izar narratzailea. Paratestuan ere hainbat aldaketa burutzen dira: tituluan azpi-izenburu bat ezarri da (*Dos Hermanos. El cuarto canto*) eta horrekin loturiko Lautreamont-en aipua erantsi da epigrafe gisa ("Es un hombre o una piedra o un árbol / quien va a comenzar el cuarto canto"); intertituluetan kontalarien izenak aurreratzen dira eta ondotik argumentuarekin loturiko laburpen hitzak eskaintzen dira. Izan ere, "sorkuntza prozesuan eragina izan dezakeen beste aldagai bat jatorrizkoa eta itzulpenaren artean igarotako denbora tartea dugu" (Manterola 2014: 73) eta gaztelerazko bertsioko epilogo berrian Atxagak ezin hobeki adierazten duen bezala:

> Bastaron un par de consejos y la invitación a publicarlo para que me pusiera a escribirlo de nuevo, afrontando así, una vez más, la realidad del escritor bilingüe: una clase de escritor que —con cierta ingenuidad al principio, con algo de amargura después— suele querer escribir lo mismo dos veces. Pero lograr dicha ingenuidad es imposible,

> sobre todo cuando entre esas dos veces han pasado once años y la lengua de la segunda vez no se parece mucho a la de la primera: imposible volver a ser lo que fuimos antes, imposible escribir como entonces, imposible encontrar la palabra exacta sin traicionar el original. De ahí que, a pesar del parecido, este *Dos Hermanos* no sea aquel *Bi anai*. En términos vagamente aritméticos, yo diría que este *Dos Hermanos* es igual a *Bi anai* más-menos once años de la vida de su autor" (Atxaga 1995: 157).

Azkenik, *Bi anai* nobelak Atxagaren beste lanekin duen loturez aritzea dagokigu. Ondoren ikusiko dugun bezala, *Gizona bere bakardadean* nobelak badituelako *Bi anai*ren oihartzunak eta harreman hori are estuagoa bilakatzen da *Soinujolaren semea* nobelaren kasuan, *Bi anai*ko testu pasarte bat berridazten baita bertan (Pochelu 2010: 90-107).

Era berean, izenburutik bertatik iragartzen den *Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuko hasierako pasarte nagusia berreskuratu eta errepikatu egiten da *Bi anai* nobelan, sugeak txoriari begiratzen dionekoa hain zuen. Berridazketa edo pasartearen birmoldapena eskaintzen da, ordea, gaztetxoen kontakizuneko txoriak protagonisten laguntzarekin ihes egiten duen bitartean, nobelako txori narratzaileak bestelako patua izango baitu:

Bi anai (1985)	*Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984)
Orduan, iturriaren harri gainean pausatzearekin batera, itxututa gelditu nintzen. Une batez iturriko ura ikusten nuen, burniak ikusten nituen, iturriaren harriko goroldioa ikusten nuen; hurrengo unez ez nuen ezer ikusten. Bapatean ez nuen ezer ikusten, edo hobeto esanda itxutzen ninduen diztira bakarrik ikusten nuen, eta ezinezkoa zitzaidan nire begirada beste inora zuzentzea; aurrera egin nuen, atzera egin nuen, hegal egitera saiatzen nintzen. Alferrik zen guztia, ezin nintzen apartatu diztira hartatik. Zer ari zait gertatzen? —pentsatu nuen. Orduan mizpira arbolan esaten zidatena gogoratu zitzaidan: —Itxututa eta diztira baten mende gelditzen bazarete eman galdutzat zuen burua. Sugeak hilko zaituzte seinale hori azaltzen zaizuen egunean. Sugeak galduko nau orain, pentsatu nuen. Luze gabe min haundi bat egin zitzaidan buruan.	Sugeak txoriari begiratzen dionean, txoria itxutu egiten da, eta ordurarte begien bistan eduki duen munduaren zati laburra —zuhaitz batzuk, bizpairu teilatu, bidea, zeruaren urdina— izkutatu egiten zaizkio bapatean. Barraketako magoen paineluekin gertatzen den bezala, une batez hantxe dauka guztia: koloreak, mugimendua, argia. Hurrengoan, berriz, guztia joan egin da, ezin liteke hutsune beltz bat baizik sumatu. Txoriak gaua etorri zaiola pentsatzen du, eta gau horren erdiko izar batena dela bera hainbeste itxutzen duen diztira malizios hori. Ez da ohartzen sugeaz, eta honek eragindako hipnosiaz. Egia latzegia litzatekeelako apika, nahiago bide du gezur xehe batetan sinestea. Itxututa, txoria dantzan hasten da. Baina bere mugitzeko moduak ez du dantzari batenaren antzarik izaten. Ostroen artean galdutako mozkor bat dirudi aldiz, hegoak zalapartan astinduz, abarrekin estrapozo eginez. Lepoa ia zartatzeraino bihurtzen zaio, eta kantatu ere trakets kantatzen du.

Bestalde, Xabier Etxanizen *Bela Kabelatik Ternuara. Atxagaren Haur eta Gazte Literatura* (2007) lanean ondorioztatzen denez, Atxagaren literatur produkzioa ezagutzeko Haur eta Gazte Literatur lanak oinarrizkoak izan dira. Izan ere, Atxagaren obran gertaturiko eboluzioa, garapena, aldaketak eta hobekuntzak, HGLn izan dute ispilu eta sarritan, oinarri. Horren erakusle bihurtzen da goiko adibidea.

4.2.3. *Obabakoak*

1992. urtean kaleratu zuen Iñaki Aldekoak *Antzara eta ispilua(Obabakoak-en irudien mundua)* saiakera eta honako hitzek zabaltzen dute liburua: "*Obabakoak*, Bernardo Atxagaren ipuinik aipagarrienetako batzuren bilduma (berridazketa) izateaz gainera, ipuinok bere barnean bildu eta, aldi berean, gainditzen dituen esparru narratibo berri baten sorkuntza da" (Aldekoa 92: 7). *Obabakoak*[117] liburuko berridazketen auzia sakon aztertu zuen Olaziregik bere tesian eta berridatzi eta berrargitaraturiko ipuinen zerrenda kronologiko zehatza aurkezteaz gain (Olaziregi 97: 48-49), Atxagak ipuinak behin eta berriro berridazteko joerari buruz idatzirikoak ere bildu zituen:

> Ba, nik ere, batzutan nahita eta beste batzutan nahi gabe, nire karpetak, nere izkribuak, denbora untzi bihurtu nahi izan ditut. Zer esan nahi du honek praktikan? Ba, honek esan nahi du orain dala hamar urte egindako ipui bat berritu egin zala eta hola aldatuz joan dala azkenean kaleratua izan dan arte. Hor badago esate baterako, liburuan, *Obabakoak* delako horretan "Klaus Hahn" izeneko ipui bat eta nik uste det ipui hori aurreneko aldiz 78an edo idatzi nuela, baina ordu horretan bi folio, bi orrialde baizik ez zituen. Gero, jakina, pentsatu egiten dituzu gauza berriak edo sentitu egiten dituzu, edo ikusi egiten dituzu, esperientziak beti lagundu egiten dizu gauzak argitzen, eta orduan eman nion beste idaztankera bat 80an, 82an beste bat hartu zuen. Gero, itzultzeko tenorea suertatu zitzaidan eta itzuli egin nuen, eta itzulpenak ere aldatu egin zuen ipuia, eta azkenean liburuan atera dana, ba, izango da, seguru asko, seguru asko, ipui horrek izan duen hamabigarren bersioa edo horrela, ezta?.

Adibide gisa "Klaus Hahn" ipuina aipatzen du idazleak baina Olaziregik "Jose Francisco" eta "Margarete, Heinrich" ipuinek izandako eraldaketa argiak aletzen ditu, narrazio mailari dagozkion aldaketak diren heinean. *OBB*eko "Jose Francisco"-n narrazio maila bikoiztu da zintaren aurkikuntzarekin eta irakurleari kontakizunari buruzko xehetasunak emateарekin batera, beste hainbat xehetasun erantsi dira; erretorearen presentzia, adibidez, liburuko aurreneko ipuinarekin lotura iradokiz. "Margarete, Heinrich" ipuinean, ordea, protagonistaren jarduna lehenengo pertsonatik hirugarrenera aldatu da eta ipuinaren amaiera ere lausotu egin da. Era berean, Olaziregik "Post tenebras spero lucem"edo "Wei Lie Deshang" narrazioek izandako aldaerak ere aipatzen ditu. Kasu horietan, denbora narratiboa da aldatzen dena: "Bigarrenean orainalditik lehenaldirako aldaketa ematen bada, *Post tenebras...* ipuinean, maistrak herrian zehar egiten dituen ibilbideen pausu kontaketak, zehazgabetasun kronologikoan murgiltzen du narrazioa" (ibid.: 50).

Bestetik, bai Aldekoak eta baita Olaziregik ere, *OBB* liburuan Atxagaren aurreko lanekiko oihartzunak edo intertestualitatea aztertu zituzten. Olaziregik, besteak beste, "Ezkontaurreko izenez, Laura Sligo" eta "X eta Y", hurrenez hurren, Antzoki-iluneko *Amazonas ibaian barrena* zein *Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu aurkituko* irrati-nobelekin parekatzen ditu. Aldekoak, aldiz, *Ziutateaz* (1976), *Etiopia* (1978) edo *Bi anai* (1985) lanetako zenbait motibok (antzarek zeruan V bat egitea, kalatxoriak…) jarraipena dutela zehazten du eta azkenik, honakoa ondorioztatzen: "B. Atxagaren testuek oihartzunez zeharkatutako korrespondentzia sare bat osatzen dutela. Eta oihartzun horiek ipurtargien

[117] Hemendik aurrera *OBB*.

antzera piztuko dira orain eta gero hemen, bigarrena aurrenekoaren oihartzunez piztu balitz bezala, eta halaxe behin eta berriro" (Aldekoa 92: 22-23).

Are, *OBB* lanetik aurrera Atxagaren konstanteetako bat den ezaugarria bilakatuko da aipaturikoa, hots, egilearen sormen lanetan idazlearen unibertso literarioko elementuak elkarrekin nahastea palinpsesto bat osatuz. Horrela, besteak beste, *Gizona bere bakardadean*[118](1993) nobelaren gainean, "nobela honetako gai tratamendu batzuk eta baliabide narratiboetako batzuk *Bi anai* nobelarekin lotu behar dira neurri batean, esate baterako, fabulaziorako joera, heriotzaren tratamendua eta norberaren barne mintzoen ahotsa" nabarmentzen du Lourdes Otaegik (1999:68). Eta ezin gogora ekarri gabe utzi *Soinujolearen semea*[119](2003) nobelaren kontrazaleko hitzak: "Liburu honek Bernardo Atxagaren aurreko guztiak hartzen ditu bere baitan. Irakurleek lehendik ere ezagunak zaizkien pertsonaiak eta gaiak aurkituko dituzte orrialde hauetan (…). Aldi berean, ordea, berria egingo zaie dena: mundu zabalagoa ea sakonagoa aurkituko dute".

Azkenik, bi hitz *OBB* nobelaren gaztelerazko itzulpenaren inguruan[120]: "OBB Espainiako Sari Nazionalerako itzuli beharrak eta ondoren argitaratzeko moldatu beharrak egokitzapen lan handia eginarazi zion autoreari publiko berriarentzat sortu beharreko testuan" (Manterola 2014: 514). Ondorioz, itzulpenaren emaitza ez da jatorrizkoaren berdina (adibidez, aurkibidearen egituraketa moldatu egin da eta "Jose Francisco" ipuina ez da gaztelerazko bertsioan eskaintzen). Gainera, beste hizkuntzetara eginiko gainerako itzulpenek gaztelerazko bertsioa hartu dute oinarritzat edota jatorrizko testutzat eta horrek hainbat interpretazio eragin ditu: "autoitzulpena gainontzeko erdaretako itzulpenetarako testu kanoniko bihurtzen da ia beti, jatorrizkoaren kaltetan" (Lopez Gasenik 2005: 47). Edonola ere, eta bigarren kapituluaren amaieran genionari lotua, egileak beste itzultzaileekin batera talde lanean burutu duen itzulpena edota autoitzulpena sorkuntza prozesu bateko bestelako urrats gisa ulertu beharko litzateke. Alde horretatik, jatorrizkoaren gainean egiten den berridazketa litzateke autoitzulpengintza ariketa edota idazleak gainbegiratu eta ontzat emandako beste inork eginiko itzulpena. Eta horixe da, izan, gaztelerazko, eta ondoren beste hizkuntzatara, itzuliko den *OBB*en kasua.

[118] Hemendik aurrera *GBB*.
[119] Hemendik aurrera *SS*.
[120] " —*Beraz, zuk orraztu egin zenuen itzulpen guztia...*
Berridatzi egin nuen. Orraztu nuen Sari aurretik, baina gero berriro den-dena goitik behera berritu egin nuen. Orduan konturatu nintzen ezinezkoa dela ohizko itzulpen hori: guk normalean itzulpena esaten dugunean zera ulertzen dugu: hemen testu bat, hemen bestea; ahalik eta paralelotasun gehiena, eta abar. (…) Literaltasuna eta jatorrizko testuarekiko errespetua, hori segituan konturatzen zara, hasi orduko konturatzen zara, ezinezkoa dela. Hain zuzen ere, errazagoa delako idaztea, itzultzea baino; askatasun gehiago daukazu eta orduan errazagoa da... (…) eta orduan bertsio bat egiten duzu.
(*Honetantxe zetzan nire kezketako bat, askori entzuna baitiot -eta neure irudipena halaxe zen- ezin zela guztiz itzulpentzat jo* Obabakoak*ena, bertsiotzat baizik. Elkarrizketariak ez du, hala ere, oraingo honetan bere ausardia frogatzeko aukerarik izan, berak aipatu baitu hitza. Badaezpada ere, haatik, ea hala den galdetzen diot, eta Atxagak baietz, zati batzu itzulpen alderago eta beste batzu bertsio librerago egiten dutela, baina orohar bertsio izena dagokiola*)" (Garzia 1990: 16).

4.2.4. *Zeruak* eta *Zeru horiek*

1995an argitaratu zuen Atxagak *Zeru horiek*[121] eleberriak ere idazle beraren aurrekari zuzen bat du ernamuin gisa: *Zeruak* jendaurreko ikuskizuna, hain zuzen, eta izenburu berarekin Ereinek 1994an argitaratu zuen irakurraldiko testua. *ZH* nobela, beraz, *Zeruak* errezitaldiko testuaren berridazketa da. Ibon Egañak *Zeruak* errezitalditik Aizpea Goenagak moldaturiko *Zeru horiek* (2005) filmera luzatzen den sorkuntza prozesua ikertu du eta zuzeneko ikuskizuneko jatorrizko testuaren eta nobelaren alderaketatik ondorengoa ondorioztatzen du:

> Esan liteke, beraz, errezitaldiko testutik eleberrira dauden aldeak nobelak genero bezala eskatzen dituen exijentzien gehikuntzak direla oro har: tramak konplexutzea, pertsonaien ibilbidea eta ekintzak justifikatzea, testu poetikoen garrantziaren murriztea eta hauen justifikazioa historiaren barruan bilatzea… Aitzitik, ohartzekoa da jatorrizko testuan dagoeneko ezarriak daudela eleberriak (eta filmak) jorratuko dituen gai nagusiak: bakardadea, birgizarteratzearen aukera, maitasunaren galera, traizioa… Halaber, izenburutik beretik hasita, garbi dago errezitaldian bezala eleberrian ere zeruaren sinbologiak pisua duela, dela pertsonaiaren subjektibitatearen ispilu gisa, dela narrazioaren denboraren mugarri legez (Egaña 2009: 106).

Beraz, aurrez Ruper Ordorika eta Joxe Mari Iturralderekin batera aurkezturiko Atxagaren *Henry Bengoa Inventarium* zuzeneko irakurraldia testu gisa 1988an argitara eman bazen ere, orduko hartan errezitaldiko testuak bere horretan mantendu ziren. *Zeruak* ikuskizunetik *ZH* nobelara, ordea, sorkuntza prozesuak jarraipena izan du eta bilakaera narratibo esanguratsua burutu da aurre-testu batetik ondorengo testu berridatzira.

4.2.5. *Sara: Zumalakarregiren zelatari* eta *Sara izeneko gizona*

Sorkuntza prozesu bide luzea izan duen beste obra bat hasieran irrati-nobela gisa sorturiko *Sara: Zumalakarregiren zelatari*, ondoren prentsan kaleraturiko "Un espía llamado Sara" moldaketa eta azkenik, *Un espía llamado Sara* eta *Sara izeneko gizona* gaztetxoentzako nobelak bilakatuko direnaren artekoa da.

> Obra horren lehen bertsioa 80ko hamarkadan sortu zen, Euskadi Irratiko "Antzoki iluna" irratsaiorako euskarazko irrati-gidoi gisa. Orduko hura euskara ikasten ari ziren helduei zuzendutako irrati-nobela moduko bat izan zen, 12 kapituluz osatua, *Sara: Zumalakarregiren zelatari* tituluaren pean, eta gerora, 1990ean, irratiko grabazioarekin batera argitaratua. Sei urte geroago, 1996ko udan, Diario Vasco eta El Correo egunkarietan istorio horren moldaketa bat argitaratu zen, gaztelaniaz eta 15 emanalditan zehar, "Un espía llamado Sara" izenarekin. Handik gutxira, berriz, testu hori (titulu berarekin eta geroago aipatuko ditugun gehiketa batzuekin) liburu formatoan argitaratu zen Acento argitaletxean eta, geroxeago, euskaraz, *Sara izeneko gizona* tituluarekin, Pamiela argitaletxean, biak gazteentzako bildumak (Lopez Gaseni 2005: 73-74).

Horrenbestez, antzerki generoaren baitan kokatu daitekeen irrati-nobelako ezaugarriak nobelaren generora moldatuko dira *Sara: Zumalakarregiren zelatari*tik *Sara izeneko gizona*ra. Hau da, narratzaileak

[121] Hemendik aurrera, *ZH*.

gidaturiko elkarrizketetan oinarrituriko testua nobelak berezkoak dituen ezaugarrietara eraldatuko dira, trama korapilatsuagoa izango da, pertsonaia gehiagok eta garatuagoek hartuko dute lekua liburuan eta barne-gogoetek garrantzia handia izango dute. Bestalde, egunkarian ateratako bertsioari bestelako gehiketa batzuk eransten dizkio egileak nobelak argitaratzerakoan. Hala nola, kapitulu bakoitzaren atzean gaineratu eta narratzailearen kontrapuntu gisa funtzionatzen duten epilogoak.

Hizkuntzaren faktorea ere erabakigarria da sorkuntza prozesuan, idazle elebidunek egin dezaketen bezala autoitzulpenaren bidez Atxagaren ibilbidean aurrenekoz, gazteleraren eta euskararen elkarreraginez aberasten den sormen praktika baliatzen duelako. Atxagak berak aitortu du nobela izaten amaituko duen bilakaera narratiboaren aurrekari nagusia liburua baino hamasei urte lehenago idatziriko "balio gutxiko irrati nobela zela"[122]. Ondotik, euskarazko bertsioa burutu zuen, baina baztertu egin zuen, aurrez gazteentzat ateratako *Behi euskaldun baten memoriak*en mailakoa ez izatearren. *ElDiario Vasco* eta *El Correo* erdal egunkarietatik egin zioten proposamenari esker, 1982ko *Jakin* aldizkariaren 25. zenbakian adierazitakoa abian jartzea erabaki zuen, hots, idazle elebidunak ez diola muzin egin behar bigarren hizkuntzari eta gazteleraz berridatzi zuen atalka aurrez euskaraz idatzirikoa. Baina gaztelerako testua ere bazterrean geratu zen, berriki eginiko elkarrizketa batean Atxagak adierazi duenez:

> Alde batera, bi bertsio neuzkan, bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, ez erabat berdinak. Bestera, arrazoi sakonena, ez zitzaidan errelatoa gustatzen, Zerbait gehiago behar zuen. Zorionez (…) inbentu txiki bat bururatu zitzaidan. Liburuan dagoen ideia literariorik onena, nik uste. Epilogoak egitea atalei. Eta oraingoan bai, liburu batean argitaratzeko moduan zegoela erabaki nuen (Paz de Ziganda Ikastola 2014: 9).

Beraz, azkenik berriro berritzuli eta berridatzi zuen bai euskaraz baita gazteleraz ere egungo nobela itxura eman arte.

Aitzitik, "*Sara: Zumalakarregiren zelatari* izeneko irrati gidoia beste testuekin konparatuta hain desberdina izanik, (…) geroko itzulpenetako sorburu testutzat baino gehiago, eleberria izango zenaren enbrioi narratibotzat hartu behar genuke[ela]" ondorioztatzen du Lopez Gasenik (2005: 76). Eta hein batean hala izanik ere, bere azterketaren xedea autoitzulpengintza baita, egia ere bada nobelako elementu asko eta asko (argumentu nagusia bereziki, baina baita pertsonaien izen, xehetasun, akzio zein pasarteak) zuzenean ekarri eta moldatu direla irrati nobelatik gaztetxoentzako nobelara. Beraz, *Sara: Zumalakarregiren zelatari*, "Un espía llamado Sara" eta *Sara izeneko gizona* zein *Un espía llamado Sara* sorkuntza prozesu korapilatsu baten baitako urrats eta aurre-testu desberdin gisa ulertzea egokiagoa da.

Edonola ere, *Sara izeneko gizona* nobelaren sorkuntza prozesua ez da hor amaitzen, 1996ko azaroan bi argitaraldi izan ostean, 2014ko azaroan aurkeztu baitzen liburuaren edizio berritua. Edizio

[122] Zabala, 1996: 30 *apud.* Etxaniz, X, 2007: 34-35.

eraberrituaren xehetasunen inguruan galdetu ostean, honela erantzun zuen Atxagak elkarrizketa batean: "Batez ere edizio berritua dela. Oso berritua, gainera. Urteak ez dira alferrik joaten, eta Asun Garikanok eta biok testua arintzeko beharra ikusi genuen. Arintzea, normalean, argitzea da. Testua argiago egitea, hori zen helburua. Bestalde, liburua bera, objektu bezala, ederra da" (Paz de Ziganda Ikastola 2014: 9).

Hain zuzen, liburuaren peritestuko aldaerak dira lehen begi-kolpean atzematen errazenak. Azaleko irudi nagusia jatorrizko edizioan erabilitakoa izan arren, maketazioa aldatu egin da eta gainera, azaleko beheko ezker partean edizio berria dela esplizituki zehazten da. Kontrazala ere moldatu egin da eta idazlearen eta ilustratzailearen datuekin batera, nobelaren aurkezpen testuak ere aldaerak izan ditu (jatorrizkoan, nobelaren 12. orrialdeko paragrafo bat errepikatzen zen eta oraingoan, aldiz, protagonista aurkeztu eta testuinguru historikoaren berri ematen da). Era berean, kontrazalean ere zehaztu egiten da edizio berritua dela. Liburuaren barruko irudi asko ordezkatu egin dira, bai babesorrietako marrazkiak (Javier Martin eta Caspar David Friedrich-en marrazkiak erabili dira oraingoan) zein testuaren aitzinekoak ere (jatorrizkoan ere bazen Baroi G. von Rahden-en 1834ko maparekin batera, edizio berrituan egile beraren karlistadetako beste bi ilustrazio erantsi dira, Koldo Mitxelena eta Zumalakarregi museoaren ondaretik hartutakoak). Azkenik, peritestuan eginiko testu-aldaera nagusia bertsio eraberrituan "Sarrerako ohar" bat erantsi dela izan da; baina, hain justu, ohar horretan errepikatu egiten dira kontrazaleko nobelari buruzko hitzak.

Testuaren baitako aldaerak direla eta, lehendabiziko kapituluko sarreran daude aldaketa nabarienak. Jatorrizko edizioan kontakizuna Lehen Karlistaden testuinguru historikoaren inguruko xehetasunekin hasten da, 1833ko martxoan Espainiako Errege Fernando VII.ak bere anaia Carlosi igorri zion eskutitzaren ingurumariekin. Orrialde eta erdian azaltzen dira gerla karlisten aurrekariak eta ondoren, Martin Saldias protagonista aurkeztu ondoren, 1984ko uztailaren 14an abiatzen da *Sara izeneko gizona* kontakizuna. Edizio berrituan, ordea, ezabatu egin dira Karlistaden aurrekari zehatzak eta istorioa Martin Saldiasen bidaiarekin abiatzen da zuzen-zuzenean. Bestalde, bertsio berrian kontakizunaren hasiera uztailaren 14an kokatu beharrean, abuztuaren 12an kokatzen da. Beste aldaketa nagusietako bat, hasierako gertakarien kokalekua ere aldatu izana da, aurrez Irurtzun baitzen abenturen gertalekua eta orain, berriz, Lekunberriko herriagatik ordezkatu da. Aldaera nagusi horiez gain, testua goitik behera eguneratua, zuzendua, moldatua eta, hitz batean esateko, berridatzia izan da. Eta Atxagak adierazi bezala, berridazketaren helburu nagusia testua arintzea eta argitzea izan da.

4.2.6. *Soinujolearen semea*

Testu-genesiari eta idazketa prozesuari dagokionez, ordea, Atxagaren obra guztien artean *SS* da sakonki eta zehatzen azterturikoa. Izan ere, 2010ean Joana Pocheluk *Etude d'un dossier génétique fragmentaire: Réécriture. Ecriture. Désécriture dans* Le fils de l'accordéoniste *de Bernardo Atxaga*tesia

aurkeztu zuen Aurelié Arcocha-Scarciaren zuzendaritzapean. Euskal literatura garaikidean oinarrituriko lehendabiziko testu-genesi ikerketa sakona da. Tesian, Atxagari esker lorturiko nobelaren inguruko tapuskrito informatiko guztiak xeheki aztertu zituen ikerlariak: erredakzio aurreko aroko 14 dokumentu (programaziorako oharrak, hitz zerrendak, argumentuaren hezurdura) eta erredakzio aroko 5 zirriborro. Halere, hastapenetik zehazten da dosier genetiko fragmentario edo osatu gabearen analisia eskainiko dela tesian, esan bezala, idazleak emandako tapuskrito laginek osatzen baitute ikerketarako corpusa.

Hori horrela, MEDITE (Machine d'Etude Diachronique et Interprétative du Travail de l'Ecrivain) izeneko baliabide elektronikoa erabiltzen du Pocheluk testu aldakiak elkarrekin erkatzeko eta testuak jasandako aldaerak eta bilakaerak azaleratzeko. Programak automatikoki identifikatzen ditu kenketak, gehiketak, aldaketak eta mugimendu guztiak.

Bestetik, berreraiketa genetikoa egiteko Atxagaren aurreko obretako oihartzunek *SS* nobelan duten lekua ere aztertzen du. Izan ere, aurrez aipatu dugu nobela horretan ordura arteko guztia sartu nahi izan zuela egileak, bere idazle bizitzako atal bat ixteko. Hain zuzen, "autoréécriture" terminoa baliatzen du Pocheluk Atxagaren *SS*ren idazketa zedarritzeko eta honela definitzen du kontzeptua: "cas particulier de l'intertextualité où l'auteur des récurrences textuelles intentionnelles, en se référant sciemment et visiblement à quelque production antérieure propre" (Pochelu 2010: 81).

Horrela, *SS*ko pertsonaien berridazketa, zerrenden erabilera edota berridazketa tematikoak hartzen ditu aintzat. Atxagaren obra horretan abiapuntua Daviden memoriak direnez, *Behi euskaldun baten memoriak* nobelan edota Esteban Werfell ipuinean memoriek duten garrantziarekin lotzen du ikerlariak. Era berean, Davidek zein Josebak ETA erakundearekin izango dituzten harremanak *ZH* edota *GBB* obretako protagonisten gatazken berridazketa dira hein batean. Bestetik, *Bi anai* laneko Daniel eta Paulo Lubis eta Pantxo bilakatzen direla ondorioztatu du Pocheluk eta, aldiz, Teresa pertsonaia ere Carmenekin lotzen du. Zerrenden erabilera dela eta (fusilaturiko gizonen zerrenda, Miss Obaba erabakitzeko zerrenda, "Obabako lehen amerikanoa" kontakizuneko zerrenda guztiak eta gehiago), *Groenlandiako lezioa*, *HBI* edota *OBB*eko "Finis Coronat opus" narrazioko oihartzunak nabarmendu dira, besteak beste. Azkenik, idazlearen berridazketa tematikoak genituzke: erlijioaren ingurukoak, gizaki estigmatizatuak, zenbaketaren baliabidea, erbestearen gaia, eguraldia protagonisten gogo aldartearen ispilu gisa erabiltzea eta azkenik, auto-aipamenak.

Bestetik, *SS*ko zinta karreraren pasartea *Bi anai* nobelako zinta lasterketaren berridazketa gisa aztertzen da Pocheluren tesian eta bi idazketak xeheki erkatzen ditu, berridazketan mantendu diren berdintasun eta gaineratu diren desberdintasunak tentuz azaleratuz. Are gehiago, Atxagak zehazki pasarte hori berridatzi izanaren arrazoien hipotesia ere eskaintzen du Pocheluk: *Bi anai* nobelan pasarte garrantzitsua da kontakizunaren itxiera baldintzatzen duen neurrian eta *SS*n ere une

erabakigarrian kokatzen da zinta lasterketaren pasartea, gertakizun horren ondotik Davidek gazte izateari utzi eta helduaroaren atariko lehendabiziko erabaki garrantzitsuari egin beharko diolako aurre.

Era berean, *SS*ko fikzio lanean Don Pedro Galarreta pertsonaiaren gertakariak bi aldiz kontatzen dira: "Obabako lehen amerikanoa" narrazioan eta "1936ko abuztuaren 15ean gertatutakoa kontatzen du" pasartean. Jakina denez, Don Pedro Galarreta, gainera, Arabako Foru Aldundiko diputatu errepublikazale Pedro Salinas Arregi (1887-192) pertsonaia errealaren trasunto literarioa da. Errepikapen eta berridazketaren atzean literaturaren funtzioa bera nabarmentzen dela ondorioztatu du Olaziregik:

> *Soinujolearen semea*k gertakari beraren bi aldaki eskaintzen dizkigu, literaturak errealitatearekin duen harremanaren inguruko hausnarketa metaliterario bat burutzeko: "errealitatea tristea da eta literaturak edertu egiten du". Finean, Literatura eta Historia interpretazio bat eskaintzen duten diskurtso narratiboak besterik ez direla ohartarazi nahi digu narratzaileak (Olaziregi 2005: 94).

Pocheluk tesian aurrena eta *Lapurdum* aldizkariko "Aldakiak eta aldaerak: Atxagaren Obabako amerikanoa" artikuluan ondoren, liburuko bertsioen beste aurre-testu bat ere aztertzen du eta MEDITE baliabidea aurkeztuz eta aplikatuz, narrazioaren genesia xeheki dokumentatzen du.

Azkenik, tesiko "La désécriture" atalean azken unean nobelan barneratu ez ziren erredakzio aroko hiru testu lagin aztertzen dira: "Hegazkin alemaniarrak" izeneko ipuina eta "Arotz aberatsaren semea" izeneko narrazioaren bi lekukotza. Pocheluk ordura arte ineditoak ziren testu horien azterketa ere burutzen du, nobelan agertu ez arren sorkuntza prozesuko aurre-testu diren heinean. Hain zuzen, "Hegazkin alemaniarrak" ipuina *SS*n txertatu ez bazen ere, *Lauxeta: idazleek idazleei omenaldia* izeneko liburuan argitaratu zen 2005ean "Hegazkin alemanak" izenburupean. Pocheluk argitaraturiko bertsioa aurre-testuekin erkatu eta aldaera gutxi daudela ondorioztatzen du, nahiz eta argitaraturiko ipuinari aurre-testuko azken paragrafoa kendu zaion. Baztertutako paragrafoan ipuinak *SS*ko gertakariekin duen lotura azaltzen da.

Edonola ere, Pocheluk aipatu ez arren, "Hegazkin alemaniarrak" narrazioaren pasarte garrantzitsuenetako bat 1994ean argitara emandako "Método para escribir un cuento a volapluma" eta urte bete beranduago euskaraz kaleraturiko "Ipuin bat airean idazteko metodoaren" ipuinaren berridazketa da. Ipuin horretan idazketaren inguruko gogoeta narratiboa proposatzen zen bolaluma baten hegaldiari jarraikiz. Une batean, bolaluma Bilbora iritsiko da eta 1937ko apirilaren 17an eroritako eta G. L. Steer kazetariak bildutako gerra hegazkinaren istorioa transkribatzen da ondotik:

> "Beste bi alemanak" dio istorioak. "Nerbioira erori ziren. Saiatu ziren jauziegiten, baina parakaidek ez zuten zabaltzeko betarik izan, eta ura indar handiz jo eta kolpearen ondorioz hil ziren. Baten itxura nahiko arrunta zen, baina besteak zer-pentsa handia eman zien euskaldunei. Euskaldunak ez zeuden horrelakoetara ohituta. Berria zen

> beraientzat. Buelta eman zioten gorputz luze, horail hari. Aurpegia mailatuta zeukan,, baina hala ere harrigarria egin zitzaien. Zeren bekainak depilatuta baitzeuzkan, eta ahoa berriz gorriz pintatuta; eta gorri hura ez zen ahoaren ertzetik zihoakion odolarena. Eskuak begiratu zizkioten, txuriak eta finak: atzazalak, manikura eginda, txukun-txukun esmaltaturik eta puntan moztuta. Oso bitxia. Euskaldun inuzenteek, zer pentsa ez zekitela, gorputza kotxe batean kokatu eta Guda Osasunbideko egoitzara bidali zuten. Harrigarria alemanek gerra-piloto bezala emakumeak erabiltzea, pentsatu zuten; zer asmatu behar ote zuten hurrena. Bilbon ordea, Guda osasunbideko egoitzan, sendagile eta gizon esperientziadunak zeuden. Gorpua erantzi eta zehazkiago aztertu zuten. Galtzarbetako ileak ere depilatuta zeukan, eta bere azpiko-arropa femeninoa zen, zeta arrosakoa. Baina betetzen zituen, juxtu-juxtu bazen ere, gizontasunaren gutienezkoak

Eta hain zuzen, Atxagak pasarte zehatz hori aukeratu zuen "Hegazkin alemaniarrak" ipuinean txertatzeko eta pasartea, salbuespen oso gutxirekin, hitzez hitz berridatzi zuen, nahiz eta narrazioaren oraingo muina eta egituraketa narratiboa oso bestelakoa izan. Ipuina, liburuaren izenburuak iragarri eta beste egileen lanak bezalaxe, Lauaxetari eginiko omenaldi narratiboa da. Atxagak 1976an kokatzen du istorioa eta idazle baten handinahikeria, gerra denboran Lauaxetaren txofer izandako alaba bizilagunarekin izandako enkontrua eta Lauaxetaren balizko azken poemaren lekukotasun baten istorioa korapilatzen dira narrazioan. Poema horren kopia bat G. L. Steeren liburuan aurkituko du protagonistak, eta bestelako garapen narratiboen ondoren, Atxagak lehen aipatu dugun pasartea garrantzizko aldaerarik erantsi gabe transkribatzen du berriro ere. Oraingoan paragrafoetan banatuko du lehenagoko bertsioan bakarrean biltzen den gertakaria. Jarraian, narratzaileak transkribaturiko pasartearen errekreazio literario bat egingo du Steeren pasarteko pertsonaiaren iragana asmatuz, *Ipuin bat airean idazteko metodoa ipuinean* ez bezala.

Eta berridatziriko pasartea bi bertsioetan ia bera izanik ere, transkribaturiko pasartea inguratzen duen guztia arras ezberdina da bi narrazioetan. Beraz, zentzu hertsian jada ez gaude ipuin baten bi bertsioren aurrean, ez bada pasarte bera jasotzen duten bi narrazioren aurrean.

Pasartearen ondotik, Steerren liburuko gertakariaren inguruko gogoeta ere eskaintzen du narratzaile intradiegetikoak, eta pasarte hau bai berridatzi eta luzatu egin dela "Hegazkin alemanak" ipuinean.

"Hegazkin alemanak" (2005)	"Ipuin bat airean idazteko metodoa" (1994)
Oinarrian gai hura izango zuen kontaera idaztea pentsatu nuen, eta lanean aritu nintzen abuztua bukatu eta hiria, isiltasunetik atereaz, lan egunetako zarata lasaigarrira itzuli zen arte. Baina ez nuen helburua lortu, gaia handiegia baitzitzaidan –handiegia baitzen ni orduan nintzen bezalako gazte batentzat–; gainera, nola egin bidea G.L. Steer-ek hain ondo deskribaturiko irudietaraino?: "Hirugarren pilotuak depilatuta zeuzkan bekainak, eta ahoa berriz gorriz pintatuta; eta gorri hura ez zen ahoaren ertzetik ziohakion odolarena". Nola asmatu horrelako irudi garai batek behar duen ataria? Teknikoki ere kontaera oso zaila zen.Dena dela, nahiz kontaera ez amaitu, onuragarria suertatu zitzaidan. Idatzi bitartean uxatu egin nituen nire etxeko espiritu guztiak, onak eta txarrak, eta lasaitu egin nintzen.	Istorio iluna, latza, ezohizkoa, bere garaian G. L. Steer Times-eko kazetariak kontatu ziguna, baina, nolanahi ere, airean eta bizi-bizi idazten dugunoi ezer gutxirako balioko diguna. Ezinezkoa, pasadizo hori garatzeko beharko litzatekeen sakontasuna lortzea. (…) Horrela, bada, arazoa ez da istorio bat aurkitzea, baizik eta airean gora igo eta guganaino iristen diren gehienak –etxeetatik, zubietatik, itsasuntzietatik– bazterrean uzteko gai izatea.

Bestalde, aipatu behar da Atxagak 2007an argitaraturiko *Markak. Gernika 1937* saiakeraren amaieran, eranskin modura, egilearenak ez diren baina Gernikako bonbardaketaren inguruko egia argitzera datozen hainbat egileren testu atal, lekukotasun eta gogoetak bildu dira. Horien artean, Steeren *The Tree of Guernica: a Field Study of Modern War* liburutik hartutako zenbait pasartek ixten dute Atxagaren saiakera. Eta pasarteen artean, nola ez, pilotu alemaniarraren gertakaria transkribatzen da berriro, jatorrizkotik Asun Garikanok itzulita oraingoan. Bukatzeko, *Markak* lanean "Hegazkin alemanak" ipuineko beste pasarte baten oihartzunak ere agertzen dira: hain zuzen, Lauaxetak idatziriko azken poema narratzaileari eskuetara iritsi zitzaionekoa eta poemaren inguruko xehetasunak.

Azken unean *SS* nobelan bildu ez zen "Arotz aberatsaren semea" izeneko narrazioa dela eta, Pocheluren ikerketako aurre-testuak ere izan du bilakaerarik, berriro berridatzi ostean 2013an kaleraturiko *Nevadako egunak* liburuan bildu baitu kontakizuna "Adrian egur artean (Nadiaren historia, Truckee ibaiaren ertzean entzundakoaren arabera)" izenburupean.

SS nobelaz eginiko elkarrizketa batean, ondorengo balizko liburuari buruzko hainbat argibide eman zituen Atxagak: "Nobelako pertsonaia batzuen inguruko ipuinak batuko ditu: Teresa, Adrian, Agiriano izeneko korrikalaria, Paulino Uzkudun, Gernikako pasadizo batzuk… Batez ere tonu arazoengatik utzi ditut nobela honetatik kanpo" (Zabala 2003).

Harrigarriki, *SS*ko David idazle protagonistak, "Obabako lehen amerikanoa" ipuin intradiegetikoarekin batera, beste bi narrazio ere idatzi zituela aipatzen da nobelan: "Beste bi ipuin ere idatzi zituen Obabako bere bi lagunei buruz. Baten titulua *Teresa* zen, eta bestearena (…) *Adrian*" (Atxaga 2003: 17). Eta nobelan ipuin horien berri gehiagorik eman ez arren, Atxagak 2004an *Teresa, poverina mia* kontakizuna argitaratu zuen. Aldiz, *SS*ko idazketa prozesuan bazterrean geraturiko "Arotz aberatsaren semea" aurre-testua ostera berridatzi eta hamar urte beranduago kaleratu da *Nevadako egunak* nobelaren baitan, "Adrian egur artean" izenburupean.

4.2.7. *Nevadako egunak*

2009an *Zazpi etxe Frantzian*[123] kaleratu ostean, esan bezala 2013an argitaratu zuen Atxagak *Nevadako egunak*. Liburuaren kontrazaleko testuan liburua idazlearen aurreko lanekin lotzen da: "*Obabakoak* bezain aldakorra da, eta *Soinujolearen semea* bezain trinkoa".

Eta aurrez aipatu dugun *Adrian* ipuinarekin gertatu bezala, *SS*ren idazketan alboratuta geratu ziren hainbat testu liburu honetan bildu dira: Paulino Uzkuduni buruzko testu sorta eta "Aguiriano (Oroitzapena)" izenekoa dira horren lekuko.

[123] Atxagaren obren artean, *Zazpi etxe Frantzian* da egilearen poetika eta idazte estrategia ohikoetatik gehien aldetzen den nobela eta hori dela eta, berridazketa edota beste lanekiko oihartzunak nekez aurki daitzke bertan.

2011n, Etxepare Institutuaren eskutik, *Borrokaria* izeneko liburuxka kaleratu zuen, edizio hirueledunean. Hiru testu desberdinek osatzen dute *Borrokaria*: liburuaren izenburua ematen dion "Borrokaria" lehendabiziko kontakizunak, "Borrokaria prentsaren aurrean" da bigarrena eta azkenik, "Urrezko armadura" izenekoak ixten du liburua. Eta hain zuen, *Nevadako egunak* liburuan berriro agertuko dira testuok, hainbat aldaera erantsita.

Izenburuei dagokionez, aurreneko testuari azpititulu bat ezartzen zaio ("Borrokaria. Paulino Uzcudunen aita gogoan"), bigarrenaren izenburua bere horretan mantentzen da eta hirugarren testuari izenburua aldatu zaio ("Urrezko armadura" > "Paulino Uzcudunek utzitako irudiari buruzko gogoeta"). Testuari erreparatuz, lehendabiziko bi testuek ez dute aldaera aipagarririk jasan; baina hirugarrenaren kasuan, 2010ean kaleraturiko bertsiotik hainbat paragrafo ezabatu dira 2013ko bertsiorako. Hain zuzen, 2010ko bertsioari izenburua ematen dion eta kontakizuna zabaltzen duen "urre armadurako zaldunaren" istorioa eta ondotik datorren Mark Bloch-en inguruko kontakizuna dira *Nevadako egunak* liburuko bertsioan ezabatu direnak eta zuzenean heltzen zaio Paulino Uzcudunek utzitako irudiaren gogoetari.

Bestalde, "Jose Francisco (Oroitzapena)" kontakizunean Atxagak *OBB*en euskarazko bertsioan agertu zen "Jose Francisco" ipuinaren bestelako bertsio bat idazten du, *OBB*eko ipuinaren ingurumaria autobiografikoak azaleratuz oraingoan. Elkarrizketa batean, honakoa dio egileak testu horretaz: "Esate baterako, 'Jose Francisco' ipuina. Nik lehenbizikoz gai dramatiko honi heldu nionean, orduko ikuspuntua drama bera zen. Denbora pasa da eta konturatu naiz gai askoz garrantzitsuagoa dela dramaren aurreko indiferentzia. Hori islatzen da oraingo testu berrian" (Ibargutxi 2013).

Azkenik, *Nevadako egunak* liburuan barneraturiko beste hainbat testu aurrez argitaratuta daudela ere zehaztu behar da. Liburuko *Azken pieza* irekitzen duen "Izaskun Eibarren dago" ipuina "Ama Eibarren dago" izenburuarekin kaleratu zen 2012an *1937: Bizitza eta bonbak* liburuan, José Fernández de la Sota, Miguel González San Martín eta Ignacio Martínez de Pisón idazleen ipuin banarekin batera. Aldiz, "Salvador Dalíren egunerokoaren irakurketa (Ipuin siniestroa)" kontakizunaren jatorrizko bertsioa gazteleraz idatzi zen eta 2004an eman zen argitara *El mundo* egunkariko *Uve* gehigarrian, nahiz eta ordudanik argitalpen gehiago ere izan dituen.

Bestalde, Atxagak 2007. urtean blog bat jarri zuen abian eta 2008 urtera arte, *Nevadako egunak* etiketarekin, ondoren liburuan jasoko diren hainbat eta hainbat aurre-testu zintzilikatu zituen: adibide bat jartzearren, blogeko "Arteak irabazi - Asun Garikanori" sarrera libururako moldatu eta aldaerak izan ostean "Italian amarekin (Oroitzapena)" bilakatuko da. Eta antzera gertatzen da blogeko gainerako testuekin ere ("Hillary Clinton", "Barack Obama", Leviatani edota Beldurrari eskainitako testu sortak, etab.).

Azkenik, *SS*ko hainbat aurre-testurekin gertatu bezala, *Nevadako egunak* liburuan sartu ez ziren "Andoniren heriotza LSDaren argitan" eta "Pierrek dioena entzuten dut" kontaerek eta "Lawrence Arabiakoa" saiakera laburrak urtebete beranduago argitaraturiko *Txoriak kolpeka* liburuan ikusi zuten argia. Eta "Pierrek dionea entzuten dut" ipuina dela eta, Atxagak aitortu du "honen lehen apuntea ere, aspaldi idatzi nuen. *Gizona bere bakardadean* idazten ari nintzen garaian, pentsa". Eta jarraian, testu hori oinarri izanik etorkizunerako asmoetako bat ere gaineratzen du: "Testu berezia da hori. Egunen batean berriro helduko diot akaso, eta luzeago egingo dut" (*Uberan*, 2015-01-23).

4.2.8. Saiakerak: *Groenlandiako lezioa, Lekuak, Markak. Gernika 1937* eta *Muskerraren bidea*

Gure ikerketa fikziozko lanetan oinarritzen bada ere, Atxagaren saiakera liburuetan ere berridazketak etengabekoak direnez, aipamen bat egingo dugu segidan labur bada ere.

Groenlandiako lezioa 1998an kaleratu zen, *Lista de locos y otros alfabetos* gaztelerazko bertsioa argitaratu zen urte berean. Euskarazko bertsioan, testuen artean jada ezagunak diren idazlearen poemak txertatzeaz gain, aurrez argitara emandako zenbait testuren berridazketa ere burutzen da eta horien artean esanguratsuena "Lezio ttiki bat plajioari buruz" da. Izan ere, 1990 eta 1991 bitartean *Zehar* aldizkarian atalka argitaraturiko "Plajioarekiko alfabetoa" da bertsio berriaren ernamuina, eta alfabetoa zena lezio bihurtu du Atxagak. Olaziregiren hitzetan, "Testuaren luzera bera da atentzioa deitzen duen lehenengo alderdia, 1990ekoa gerora argitaratuko zenaren bikoitza baita" (Olaziregi 2009: 292). Jarraian, bi bertsioen arteko erkaketa burutzen du, testuak jasan dituen aldaera nabarmenenak azaleratuz.

Era berean, liburuko "Italieraz ikasi" narrazioa ere aurrez "Ipuin hau, *italieraz ikasi* izenekoa" gisa kaleratu zen 1991an *ASJU*ren gehigarrian. Hori bai, *Groenlandiako lezioa* liburuko bertsioarekin erkatuta, gramatika edota ortografia egokitzapenak soilik izan dira testuak jasan dituen aldaerak, ipuinaren izenburua aldatu den arren.

Azkenik, Atxagaren ibilbide literarioan behin eta berriz agertzen diren pertsonaiak ere berriro agertzen zaizkigu *Groenlandiako lezioan*. "Mamuak harrapatzeko sarea" ataleko Sacamantecasen kasua dugu, aurrenekoz *Pott tropikala* (1980) aldizkarian agertua, *Obabakoak*en ere aipatzen dena eta baita *Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu inon aurkituko* irrati nobelan ere.

> "Galipott'kritiken" atala itxiz *El Sacamantecas* izeneko testua genuen [*Pott tropikala*n], herri kulturako pertsonaia horri buruzkoa. Haren jatorriaren inguruko testutxoa zen; berez ez du interes apartekorik, baina pertsonaia horixe hartu zuen Atxagak *Groenlandiako lezioa* liburuko testu batean. Liburukoa, bada *Tropikala*koa sakontzen duen testua da nolabait, hemeretzi urte ondoren (Sarasola 2015: 114)[124].

[124] Xehetasun gisa, berretsi behar da bi testuen arteko hemeretzi urteren buelta horretan Atxagak behin baino gehiagotan berrartu duela Sacamantecas izeneko pertsonaiaren kasua.

Lekuak, aldiz, 2005an argitaratu zen eta izatez, Atxagak aurrez han-hemenka argitaratu zituen artikulu, gogoeta, ipuin, elkarrizketa-zati eta bestelakoen bilduma da. Hori bai, berezitasun jakin batekin: gehiago edo gutxiago, aurrez kaleraturiko testu guztiak berridatziak izan dira. Horrela, liburua irekitzen duen "Obaba" testua, adibidez, osoki eraberritua izan dela aitortzen du egileak testuaren osteko argibideetan, nahiz eta gaztelaniazko bertsio bat 2004an *El Pais*en argitara eman. Era berean, testuen artean "Eranskinak" gehitu ditu Atxagak, hein batean *Sara izeneko gizona*n kapitulu amaieran erantsitako epilogoen antzera, aurrez idatzitakoa errepasatu eta ondoren sortutako gogoetekin aurrekoa osatzeko.

Bestalde, aurrez argitara emandako testu guztiak "leku" kontzeptuaren inguruan harilkatu eta egitura zehatz baten baitan egokitu eta aurkezten direnez, berregituraketa hori ere berridazketa gisa ulertzea garrantzitsua da. Batetik, idazlearen hausnarketak garatuago daudelako eta bestetik, bata bestearen alboan irakurtzeko aukera eskaintzen dutelako, alegia. Horrela, aurrez modu autonomoan funtzionatzen zuten testuak orain beren kasa ez ezik, liburuko beste testuekin lotuta eta elkarrizketan bildu dira, liburuaren antolaketari esker.

Jadanik aipatu dugun *Markak. Gernika 1937* saiakeran, berriz, bestelako berridazketa mota bat da proposatzen dena. Izan ere, liburuaren bigarren zatian beste hainbat egileren Gernikako bonbardaketaren inguruko hainbat testu bereganatzen ditu Atxagak eta bere obraren baitan kokatzen ditu, aurrez idatziriko testuei bestelako testuinguru eta balio bat emanaz. Bestalde, Pamiela argitaletxeak 1937an Eusko Jaurlaritzak Gernikako bonbardaketa nazioartean salatzeko argitaratu zuen *Guernica* faksimile-edizio mugatua ere banatu zuen Atxagaren saiakerarekin batera.

Muskerraren bidea (2015) argitalpen berriak, berriz, Obaba literarioa eta Asteasuko herria batzea du xede eta, izatez, Donostia 2016k eta Asteasuko Udalak ibilbide gisa antolaturiko egitasmoaren testua biltzen du liburuak. Baina liburua bera testu txatalez osaturiko mosaikoa dugu, eta argitalpenerako espresuki idatziriko testu berriekin batera, aurrez *Bi anai*, *Obabakoak*, *Lekuak*, *Nevadako egunak* edota *Txoriak kolpeka* liburuetako pasarteak ere transkribatzen dira. Bestetik, Atxagaren zenbait fikziozko lanen atzean ezkutatzen diren gertaera errealen berri ere ematen da liburuan. Hala nola, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* liburuko harri-jasotzailearen gertaera.

4.2.9. Ondorioak

Atal honetan erreparaturiko Atxagaren produkzio literarioari dagokionez, berridazketa ariketa idazlearen ibilbidean konstante bat dela berretsi da (Olaziregi 1999; Aldekoa 1992), hots, Atxagaren idazketa prozesuko berezko ezaugarri intrinsekoa dela berridazketa (Olaziregi 2009). Hastapen lanetatik hasi eta molde eta genero desberdinetan baliatu ditu egileak askotariko berridazketa proposamen eraberritzaileak, berrirakurketak eta berrinterpretazioak: hala nola, sorkuntza prozesuaren baitako hainbat lekukotza genero literarioz mudatu dira kasu askotan (Egaña 2009); beste

zenbaitetan testu jakin bat aurrez zuen testuingurutik askatu eta beste testuinguru batean txertatu da, testuari bestelako balioak erantsiz; idazlearen hainbat aurre-testu ere eskuragarri daude idazketa prozesu baten lekukotzen bilakaera aztertu ahal izateko; egileak eginiko (auto)itzulpenak ere, jatorrizkotik abiatu eta beste hizkuntza batean sortzen diren bertsio gisa ulertu behar dira (Garzia 1990; Lopez Gaseni 2005; Manterola 2014).

Berridazketak norbere lanaren etengabeko behaketa eskaintzen du eta berridazketari emana den idazlea prest dago aurrez landuriko edota argitaraturiko testuak amaitutzat eman beharrean, berriro ere mugimenduan jartzeko, testuak eta idazkiak "denbora untzi" bihurtu eta denboragarrenera berriro beste modu batez berridazketari ekiteko. Izan ere, literatura konparatuaren oinarriak aintzat hartuz, zentzu zabalenean eta T. S. Elioten hitzei jarraiki, Sarrionandiaren "literatura oro literaturaren literatura da" aldarrian literatur adierazpen oro tradizioaren berridazketa ere badela eman nahi da aditzera, testu oro testuartekotasun sare baten baitan kokatzen dela, alegia. Eta are gehiago, norbere sorkuntza lanak etengabeko behaketaren bidez berridatziz, testuartekotasun loturez harago, Atxagaren *Soinujolearen semea* nobelaren idazketa prozesua zehazteko Pocheluk (2010) erabilitako "autoréécriture" kontzeptua idazlearen gainerako idazketa prozesuak definitzeko ere baliagarria da.

Bestalde, Atxagaren berridazketa ariketak ez dira homogeneoak eta emaitzak ere askotarikoak dira. Egilearen aro esperimentala edo abangoardista oinarri hartzen badugu, E. Pound-en *Make it new!* bere eginez, abangoardia berriekin kontagintzaren berritasuna hibridotasunaren bidez lortuko du Atxagak. Horrela, sarritan elementu hibridoak elkarrekin lotzeko egituraturiko lanaren bizkarrezur nagusiak testuak han eta hemen txertatzea eragingo du, testu horiek aurrez beste testuinguru batean agertu baziren ere. Abangoardien eragin soziala ere kontuan hartzeko ezaugarria da eta Atxagak gidatu zuen *Pott* aldizkariak ere paper garrantzitsua jokatu zuen zeregin horretan. Bestalde, esperimentalismoaren bidetik, motibo eta gai asko era desberdinean landu ditu Atxagak eta berridazketa horiei esker zenbait elementu errekurrente bilakatu dira ezinbestean.

Bestalde, Atxagaren Obabako aroari dagokionez, narraziogintzan murgildu eta horretarako, besteak beste, aurrez argitara emandako zenbait ipuin berridatzi eta *Obabakoak*en txertatuko ditu, liburuak aurkezten duen "narrazio testuinguru emailea" (Gabilondo 1994; Olaziregi 1999) deituriko egitura berritzaileak horretarako aukera ahalbidetzen baitu. Gainera, Obaba ardatz duten lanetan ere motibo askok jauzi egingo dute obra batetik bestera.

Izan ere, Atxagaren bilakaera literarioan berridazketek beti izan dute lekua eta idazlearen garapena zenbat eta konplexuagoa izan, berridazketarako gaitasuna ere eraberritu egin da. *Soinujolearen semea* bezalako lan batean, kasu, aurretik idatziriko guztia batu, azaldu eta berrerabiltzeak berridazketa ahalegin berezia eskaintzen du, aurrez egin izan dituen berridazketen bilakaeran ere koska bat

estutuz. Era berean, berdin gertatzen da saiakerekin edota haur eta gazte literaturako zenbait lanekin ere.

Azkenik, Atxagak bere lanak itzultzerakoan jatorrizkoaren bestelako bertsio bat bilatzeak idazlearen berridazketa ariketa sorkuntza prozesuko sakoneko jarduna dela adierazten du. "Itzulpenaren epistemologia postmodernoan behin eta berriro azpimarratzen da itzultzaileak testua transformatu, berridatzi edo errebisatzean gauzatzen duen ahalmen eraldatzailea" (Jaka 2012: 56), eta beraz, itzultzea ere sormen ariketa izanik, autoitzulpenaren kasua areago dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, jatorrizko bertsioa idatzi duen idazle-itzultzaileak lizentzia gehiago hartzeko aukera luke eta beraz, aldaera gehiago txertatzeko eskumena ere bai. Ondorioz, autoitzulpengintzaren bidez jatorrizko testutik eratorritako bestelako bertsio bat sortzen denean, sorkuntza prozesuaren baitako beste urrats bat bihurtzen da. Eta Manterolaren *Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan* tesiak berretsi duenez, Atxagaren itzulpenen kasua ildo horretan kokatzen da.

4.3. AURRE-TESTUEN AZTERKETA

Esan bezala, Atxagaren ibilbide literarioan agerikoa da berridazketek duten garrantzia eta gertaera hori idazleak idatzi, berridatzi, argitaratu eta berrargitaratu dituen lanetan erraz igarri daiteke. Horrenbestez, argitaraturiko hainbat lanek elkarrekin dituzten lotura, oihartzun eta elkarreraginek testu aldaerak eta testuen bilakaera aztertzeko parada eskaintzen dute. Hori argitaraturiko lanez ari garenean jazotzen bada, uste izatekoa da agerikoago egiten den idazketa prozesuaren atzean testuen arteko oraindik eta lotura eta harreman estuagoa egon daitekeela. Eta horretarako, ezinbestekoa bilakatzen da aurre-testuen azterketa burutzea. Aipaturiko ikerketen artean, Olaziregik *Bi anai*ren aurre-testuaren eta argitaraturiko bertsioaren arteko erkaketa burutu du; baina ikerketa guztien artean, Pocheluren tesia nabarmendu behar da. Izan ere, Atxagaren *Soinujolaren semea*ko aurre-testuak ikertuz garatu baitu nobela horren idazketa prozesua azaleratzeko metodologia eta aurreko lanetako berridazketek nobela berrian duten lekua, besteak beste.

Hori horrela, gure aldetik ere aurre-testu gehiagoren bilaketa lanari ekin genion eta Atxagarekin elkartu eta bere eskuzabaltasunari esker, hainbat material eskuratu ahal izan genuen. Gure eskaeraren oinarrian egilearen ezein aurre-testu lortzeko asmoa zegoen baina era berean, aurrez *Ziutateaz* liburuaren argitalpenen inguruan gauzaturiko ikerketaren interesak bideratuta, idazlearen hastapen aroko testuen inguruko jakin-mina nagusitu zitzaigula ere ezin da ukatu. Eta ondorioz, eskuraturiko aurre-testuak 90eko hamarkada baino lehenagokoak dira, 1974 eta 1988 bitartekoak, hain justu.

Lehenik eta behin, Atxagaren eskutik lorturiko materiala oparoa bezain zabala dela zehaztu behar da eta beraz, ikerketa honetarako aukeraketa zehatz bat gauzatu dugula. Izan ere, eskuraturiko

lekukotasun eta aurre-testuen artean askotariko ezaugarridun lekukotzak aurki daitezke: asko eta asko ineditoak edo argitarabageak dira, argitaraturiko lanetatik kanpo geraturiko testuak; euskaraz gain, gazteleraz idatziriko testuak ere badira; beste zenbaitetan itzulpen estrategiak agerian uzten dituzten laginak aurki daitezke, zenbait kasutan egilearen autoitzulpen ariketak eta saiakerak azaleratzen dituztenak; beste hainbat testu, aldiz, garai bateko testu definitiboak dira, hots, argitaratu ziren bertsioen makinizkribuko lekukotasun aurrekariak; eta abar.

Bestetik, gure aldetik ere eskuratu ahal izan dugu beste lan argitaragabe bat. Hobeki esan, argitaratu den bertsioaren aurrekaria litzatekeen aurre-testua litzateke, bere horretan argitaratu ez bada ere eraldaketen ondoren argitara eman dena: Atxagak idatziriko *Logalea zeukan trapezistaren kasoa* izenekoa, hain zuzen. Ondoren, Maskarada taldeak taularatu zuen *Logalea zeukan ekilibristaren kasua* izenburupean eta azkenik, Atxagak berak testua moldatu eta Astakiloen bildumarako *Italiako zirku batean* kontakizuna moldatu zuen. Baina azterketa horren aurretik, Atxagak esleituriko materialaren deskribapen orokorra burutu eta zenbait zirriborro eta aurre-testu xehekiago ikertuko ditugu.

Atxagak berak ordenaturiko lau paper multzo jaso ahal izan genituen idazlearengandik eta multzo bakoitza argibide laburrekin zehaztuta zetorren: "Ziutateaz idatzi aurretik"; "Panpina Ustela, Ziutateaz… garaiko testu batzuk"; "Etiopiaren oinarri batzuk"; eta azkenik, "OBABAKOAKen bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera". Esan bezala, ikerketa honetarako aztergaia mugatu beharrean aurkitu gara eta zehazki, lehendabiziko eta azken multzoari helduko diegu, nahiz eta beste material guztiaren garrantziaz ondotxo jabetu eta aurre-testu horien azterketa etorkizuneko ikerketetarako utzi[125].

Hautaketa horretarako arrazoi nagusia, aurre-testu asko eta asko argitaragabeak izatea da eta beraz, zentzurik hertsienean, argitaraturiko testu idatzietan alboratuta geratu diren aurre-testuak lirateke. Uneren batean sorkuntza-prozesu jakin bateko zirriborroaren zati izan baziren ere, azkenean baztertuta geratu diren zirriborroak dira, egin bidean geratu direnak. Gisa horretako aurre-testu batzuk besteak baino garatuago daude, eta berridazketa zantzurik ere aurki daiteke aurre-testuen artean. Baina ineditoak izatean, argitaraturiko testuen artean ez dugu aurre-testuen bilakaera islatzen duen lekukotasunik aurkitu eta beraz, ezin aurre-testu eta testuaren arteko erkaketarik burutu.

Aldiz, ikerketarako aukeratu ditugun multzoetan, Atxagak ondoren argitara emandako testuen zenbait aurrekari aurkitu ditugu eta hori dela eta, aurre-testuen azterketa zehatzari esker, testuek izandako bilakaeraren berri eman daiteke. Bestalde, aurre-testu multzo guztietan lekukotasun

[125] Hala nola, aurrez Otaegik (2013: 138) *Etiopia*ren inguruko ikerketa sakonean jada aipaturiko "Etiopiaren liburuaren lehen eskuizkribuaren dossierrean diren testuen eskuizkribuetako zenbait oharrek aditzera ematen dute poemategiaren atal batek behintzat honako titulu hauxe zeramala, 'Erretzen (fumatzen?)' Lau testutan gutxienez ageri zen, zenbakiez lagundurik" bezalako xehetasunak azaleratzeko parada eskaintzen dute aurre-testuek. Atxagak utzitako "Etiopiaren oinarri batzuk" aurre-testuetan, adibidez, lau aurre-testutan baino gehiagotan ageri da "erretzen (fumatzen?)" esapidea eskuz idatzita, eskuz zein makinaz idatziriko hainbat poemen goiko aldean. Bestalde, hainbat poema argitaragabe ere badira, baina esan bezala, aztergai horiek beste batean sakonduko ditugu.

argitaragabeak nagusitzen direnez, hautaturiko multzoetan ere corpusaren aukeraketa mugatu behar izan dugu.

4.3.1. Caryl Chessman: baztertutako aurre-testuetatik argitaraturiko lekukotzetara

4.3.1.1. Fitxen deskribapena

Lehendabiziko eskuizkribu multzoa, beraz, "Ziutateaz idatzi aurretik" izenekoa litzateke (5. Eranskina), post-it batean Atxagak zehaztu bezala. Fitxa gisako 5 orrik osatzen dute eta nagusiki, soilik orriaren recto aldea dago idatzita. Salbuespenak 3. eta 4. orrialdeak dira, kasu horietan verso aldeak ere idatzita baitaude. Bestalde, fitxak zerrendatuta daudela esan daiteke, orrien recto aldeko goiko ezker aldean "LL" hizkiak[126] eta zenbaki bat eransten baitira fitxa bakoitzean, 1etik 5era. Dena den, eta harrigarriki, Atxagak "Ziutateaz idatzi aurretik" zehazteko fitxetako baten gainean kokatutako post-it-a ez da "LL1" izendaturiko fitxan kokatu, baizik eta "LL2" fitxan. Eta ondorioz, fitxok aurkezten duten lehendabiziko arazoa ordenarena litzateke, uste izatekoa baita "LL1"-etik "LL5"-era zerrendatuta egonik, lehendabiziko fitxak "LL1" izan beharko lukeela. Horri horrela, egileak aurkezturiko fitxen ordenaren ordez, zenbakituriko ordenari emango diogu lehentasuna, testuan iltzatuta geratu den zerrendatze markaren aldeko hautua eginaz.

Bestetik, "LL1" eta bestelako zenbakiez gain, fitxa bakoitzaren recto aldean izenburu moduko bat ere zehazten denez, fitxa bakoitza, nolabait, autonomoa dela ere esan daiteke, euren artean batasun bat osatu arren. Deskribapen orokorrarekin amaitzeko, fitxa guztiak tinta urdinez idatzirik daude, zirrimarra gehiegirik ez da ageri, soilik Chessmani eskainitako poeman daude zuzenketatxo batzuk, eta itxura guztien arabera, etorkizuneko proiektu baterako gidoi edota eskema bat osatuko lukete fitxetako aurre-testuek. Gainera, Atxagaren ibilbidean halako lanik gauzatu ez bazen ere, aurre-testu hauetatik eratorri daitezkeen hainbat ezaugarrik idazlearen ondorengo obretan oihartzuna izan duela agerikoa da.

4.3.1.2. Transkripzioa

Ordenaren arazoa saihesteko, "LL1" zenbakituriko fitxa f°1r bezala izendatu dugu, beraz, eta idatzita daude fitxen orrialdeak aintzat hartuz, ondorengo zerrenda osatu genezake: f°1r, f°2r, f°3r, f°3v, f°4r, f°4v eta f°5r. Fitxa bakoitzeko testuen transkribaketari dagokionez, berriz, hauxe irakur daiteke fitxotan:

[126] Zoritxarrez, "LL" siglen atzean ezkutatzen den esanahia zehaztea ezinezkoa zaigu, idazlearengana jo gabe behintzat.

LL1

Hiltzaile nagusien erakunde sacratua. (HINES)

Hau litzateke LLn, Maria Garmendia sartzen den azken erakundea
Hemen ezagutu lituzke erregelak era abar, eta hemengo serbizioan geldituko litzateke. Hortarako, bere aitak hil eta gero, beste hilketa asko eta krudelak egin behar ko lituzke.

Baitaere, honen barruan ezagutuko luake, zergaitik esis titzen diren Nuremberg eta antzeko HINES kontrako jokaerak, HINESekoak eramanak gainera. Bi arrazoin daude: bata: { beste HINES bat sortu nahi zuten
bestea: { HINES berera arriskuan jartzen zuena, eta sakrifikatu egin beharko ziren.

fº1r

LL2

GERRA-KRIMOEGILE EPAILEEN AGIRIA

Lehen epaileak: Oh Harry[127] gurea
Missouriko nekazari zuzena
benedikatzen eta
adoratzen zaitugu
eskerrak ere ematen dizkitzugu
Hiroshima eta Nagasakin
bonba bota zendualako.

bigarrenak .- Oh maitea, oh justoa, oh laztana

hirugarrenak .- Boom Nagasaki boom, boom
[Hiroshima boom

fº2r

LL3

CARYL CHESSMANEN POEMA

Maria Garmendiaren bizitza kontatzen denez gero, esan beharko da, non, noiz eta zeinetatik jaio zen ezezik, ze liburu irakurri zituen etab.
Poema liburuak ere horixe irakurri zituala. Eta klase hontako liburu batean, adibidez, poema hau:

CARYL HILTZAILE DESIRATUA
NOIZ JARRIKO DITUK NIGAN HIRE BEGIAK
NOIZ ERAMANGO NAUK KAMIO ZABALEKO HERTZ BATERA
NOIZ SARTUKO GARA BIOK BASOAN?
SENTITU NAHI DIZKIAT HIRE BEHATZAK ENE IZTERREAN
SENTITU NAHI DIZKIAT HIRE ESKUAK ENE BULARRETAN
ODOLAREN BULTZADA SENTITU NAHI DIAT HIRE BESOETAN
CARYL CARYL

fº3r

EMAKUME GUZTIK NAHI DIAGU
HIRE ESKUETAN BIZITZA
[GALTZIA
SETAZKO GALTZERDIZ
[EZTARRIA URRATZEA

OH Beste fitxa baten maknetofoien kapitulua azaldu behar dut, eta zein harrisku handiko-en kontrola

fº3v

LL4

Guillermo Tell-en benetako istorioa

Lan literarioaren barnean joango da istorio hau, eta bes teaskoen artean "maria garmendiak irakurri zituen ipuinak" deitu leiken arloan sar liteke. Hemen, jakina, istorio berri bat egin beharra dago, "bertsio libre" bat baino zerbait gehiago, zeren hiltzailea izatera ailegatzeko eman zituen urratsak adierazi nahi baditut.
Istorioaren zenbait xehetasun:
a) mariak, Guillermoren gertaerak irakurri eta gero, erabaki tzen du ezin dela horrela gertatu izan, sagarraren arazoa, punteriare na etab., eta beste esplikazio bat bilatzen du. Gauak hola, "benetakoa" bilatzen du, herri-liburuetako gela gorde batean.
b) Benetako gertaerak izan litezke, adibidez.
- Hilketa bat izan zen Tell.ena. bere semearen burua erdibitu zuen fletxa (haiztur?) handi

fº4r

[127] Harry S. Trumanek (1884-1972) Bigarren Mundu Gerra amaitu zuen, bonba atomikoak Japonian jaurtitzeko ordena eman zuenean. Bestetik, poema honetako oihartzunak aurki daitezke Atxagaren "Eguneroko bizitza" poemako "Eta panpina amerikanoak lehertzen zitzaizkien Vietnamgo umeei eskuan boom bang" bertso-lerroetan. Azkenik, *Obabakoak*-eko "Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago" ipuineko tabernetako batek ere Nagasaki izena hartzen du.

batekin.

- Hil bazuen, bere semearen konfiantzari traizio eginez, dirua gaitik izan zen, baino ez pentsa triste eta kexuturikan eman zionik heriotza: ez, lan literario honetan ezin ager datezke sentimentu hoik.

- Pagatzailea, erresuma hartako gobernadorea izanen da, eta honen ardura adierazten ari naizen bien bitartean, Gipuzkoa Nafarroa edo beste euskal probentzietako gobernadore baten ak izanen dira azalduak. Beraz, ipuin txit politizatua beharko du izan.

d) Haria nundik eraman hobeki jakiteko, erabili nezaket istorio horretaz daukaten liburua (Asteasun).

f°4v

LL5

MARIA GORETTIREN BIHOTZA

Honen antzeko biographia bat erabili behar dut "anti-ispilu" bat bezala. Honelako baten estruktura jaso, eta gero sinplifikatuaz (esperpento maila, politiko maila, poetiko maila sartuaz) sortu diteke nahi dudan liburua.

f°5r

Transkribaturiko lerroetan igar daitekeenez, liburu baten proiektua legoke eskema, oinarrizko bizkarrezur edota fitxetako apunte horien atzean. Fitxetan bi aldiz aipatzen da protagonista Maria Garmendia deituko litzatekeela eta liburuak bere bizitza izango lukeela oinarrian, hilketa bortitzak eragin eta "Hiltzaile nagusien erakunde sacratuan" barneratu arte. Era berean, Maria Garmendiak irakurri edota idatzi dituen idatziak ere aipatzen dira zirriborroan: "Caryl Chessmanen poema" eta "Guillermo Tell-en benetako istorioa". Izan ere, liburuak izan beharko lukeen egiturari dagokionez ere, egiturak testu autonomoak txertatzeko balio duela argi geratzen da eta hori dela eta, agerikoa da aurre-testu honen oinarrian generoen arteko nahasketa gauzatzeko asmoa izan bazela. Hori horrela, Atxagaren hastapen lanetan nahasten diren prosa, poesia edota antzerki generoaren aurrekari gisa uler daiteke zirriborro hau batetik, eta bestetik, baita *HBI* edota *Zeruak* ikuskizunetan gailenduko den egituraren aurrekari gisa ere. Horren erakusle da Caryl Chessmani eskainitako poema aurkezteko erabilitako baliabidearen formula –"Poema liburuak ere horixe irakurri zituala. Eta klase hontako liburu batean, adibidez, poema hau:" –, *HBI*n behin eta berriro errepikatuko dena.

Bestalde, zirriborroan aipatzen diren beste hainbat hari tematikok (hiltzaile zikoitz bihurtzen den protagonista, erresumako gobernadorearen esku-hartzea, Maria Gorettiren bizitza "anti-ispilutzat" ibiltzea) izan dezake loturarik *Ziutateaz* liburuan agertuko diren hainbat hari narratiborekin ere (hiltzaile eta borrero nagusi bihurtzen den Scardenalli pertsonaia, Loiola deituriko pertsonaiaren bidez botere kristauari eginiko kritika). Edonola ere, zentzu hertsian ezin esan dezakegu "LL" egitasmoa *Ziutateaz*en aurre-testua denik, kronologikoki lehenagokoa izan eta bertan perfilatzen diren hainbat gaik Atxagaren argitaraturiko aurreneko liburuan jarraipena izango badute ere.

4.3.1.3. Caryl Chessmanengan oinarrituriko idazkiak

Jarraian, fitxetako Chessmanen poemaren aurre-testuaren azterketara mugatuko gara, Atxagaren *Ziutateaz* eta *Etiopia* hastapen lanetan ere badelako pertsonaia horri eskainitako testurik. Aurrez ere zehaztu dugu bi lanok elkarrekin duten harreman estua, baina aipaturiko erlazio sarea are estuago bihurtzen da bi liburuetan gai konkretu bera modu ezberdinean jorratzen dela ohartuz gero. Eta ikusi denez, Caryl Cheessman pertsonaiaren inguruko errekreazio literarioa *Ziutateaz*en eta *Etiopia*n aurkitzen gain, hizpide dugun aurre-testuan ere aurkitzen da.

Caryl Cheessman (1921-1960) heriotza zigorraren ondorioz hildako gaizkilea da. Bortxaketak eta hilketak egin izana egotzi zioten baina askoren iritziz, heriotza-kondena gehiegizko zigorra izan omen zen eta egotzitako krimenetako bere partaidetza ez omen zen inoiz guztiz frogatu. Bestalde, kartzelan zuzenbidea ikasten hasi eta heriotza zigorraren aurkako borrokan murgildu zen Chessman. Zortzi aldiz bederen bere heriotza zigorra atzeratzea ere lortu zuen jarritako alegazioei esker, baina azkenean, ezarririko 1948ko heriotza zigorra hamabi urtez atzeratu bazuen ere, 1960an gaseatuta hil zuten. Bere bizipenen inguruko hainbat liburu eta nobela bat ere argitaratu zituen, ondoren zinemara ere eraman zirenak: *Cell 2455* eta *Death Row* dira, agian, ezagunenak.

Baina has gaitezen Atxagak Chessmani buruz idatzi eta argitaraturiko lekukotzetatik. Lehenengoan, *Ziutateaz*en, Scardenalli protagonista nagusiak sinatzen duen poemako protagonista da:

> CARYL CHESSMAN
>
> ZER HUEN; zergatik
> andreek jazten zizkiaten seda beltzeko galtzerdiak
> hire maitasun anker eta mingotsaren bila joateko
> ah, Caryl, hire babes mortalak
> opalo grisak banio gehiago balio zian.
>
> ah, Caryl, sagarraren lorek bezain
> apalak hituen
> hik kontsolatzen hekien bihotz
> abandonatu haiek
>
> Oh, Hellie, Hellie,
> hire semea gaseatu zuten egunean
> (San Quintin, 1960-5-2)
> oraindik bakardade gehiago hazi huen
> emakume gajoen gorputzeko
> zelaietan.
>
> *Scardenalli* (Atxaga 1986: 58).

Poeman adierazten den egunean hil zuten Chessman eta bere ama ere aipatzen da poeman, izatez Hallie izena bazuen ere. Baina deigarriena, ziurrenik, poeman Chessmani kontuak eskatzen zaizkiola da, bere heriotzaren ondotik balizko biktimen bakardadea gehiago hedatuko den neurrian. Ez da ahaztu behar poemaren egilea nobelako borrero nagusi bilakatuko den Scardenalli dela eta izen hori Hölderlin poetak erotutakoan erabilitako izenetik eratorri dela. Gainera, krudeltasuna *Ziutateaz*eko orrialde guztietara hedatzen da eta kasu honetan ere, ezin bestela izan.

Bestalde, *Etiopia* liburuan narrazio testu baten bidez aipatzen da Chessman. Liburuko bigarren zirkuluaren amaieran kokatzen da testua eta heriotza zigorraren bezperako gauean biografoak gaizkileari eginiko bisita kontatzeaz gain, Chessmanen hilketa teknikei buruzko hainbat datu ere ematen dira: "Gogoz bestera 'Definitiboki argi gorridun hiltzailea bezala pasako haiz historiara' esaldi maltzurra ahoratu zitzaidan. Emakumeak bahitzeko bere autoari argi gorria imintzen ziola esaten zen horrela poliziaren itxura hartuz eta biktimen konfiantza irabaziz" (Atxaga 1978: 58). Narratzailea den biografoaren zereginen berri ere ematen zaigu eta azken unean, Chessmani zuzenean galdetuko dio aspalditik isilean izaniko kezka: "Caryl, egia al da, zuk hil al zenituen emakume haik?". Nahiz eta honen esaldiak ezustean harrapatu –"Egia esan behar badut, ez naiz ezertaz gogoratzen"– eta azkenik, elkarrizketa beste esaldi batekin sententziatuko du Chessmanek: "A, ene biografo ttikia, oraindik gazteegia haiz zenbait gauza konprenitzearren". Testuaren amaieran, parentesi artean zehazten da testuaren balizko jatorria: "(Caryl Chessmanen biografiatik)".

Balizko jatorria diogu, bat egiten dugulako Otaegik esandakoarekin: "Testuak Chessmanen biografia batetik hartua dirudi, baina identifikatzen ez denez, apokrifoa izan daiteke" (Otaegi 2013: 122). Izan ere, *San Francisco Examiner*en argitaratu zelako exekuzioaren bezperan Chessmanek kazetari lagun bati idatziriko gutuna ezagutzen den arren, inolaz ere ez da hori *Etiopia*ko testua.

Chessmanen inguruan Atxagak argitaraturiko lekukotzei, ordea, aurre-testuetan aurkituriko eta jada aipaturiko poema hau erantsi behar genieke:

> CARYL HILTZAILE DESIRATUA
> NOIZ JARRIKO DITUK NIGAN HIRE BEGIAK
> NOIZ ERAMANGO NAUK KAMIO ZABALEKO HERTZ BATERA
> NOIZ SARTUKO GARA BIOK BASOAN?
> SENTITU NAHI DIZKIAT HIRE BEHATZAK ENE IZTERREAN
> SENTITU NAHI DIZKIAT HIRE ESKUAK ENE BULARRETAN
> ODOLAREN BULTZADA SENTITU NAHI DIAT HIRE BESOETAN
> CARYL CARYL
> EMAKUME GUZTIK NAHI DIAGU
> HIRE ESKUETAN BIZITZA GALTZIA
> SETAZKO GALTZERDIZ EZTARRIA URRATZEA

Aurre-testuko poeman, ni poetikoa ere balizko biktima bat izan daiteke Chessmanen eskuetan bizitza galtzea desiratzen duen emakumea irudikatzen baita. Ondorioz, *Etiopia*ko testuarekiko lotura zuzenik ez badu ere, aurre-testuko poema *Ziutateaz*eko poemarekin erkatzen bada, badituzte antzekotasunak elkarren artean: zetazko galtzerdien aipua edota Chessmanek biktimei ematen zien tratuaren berri emateaz gain, emakume biktimen ahotsa edota ikuspuntua gailentzen da bi poemotan. Baina zentzu hertsian, pertsonaia beraren inguruko bi poema badira ere, ezin esan fitxetako aurre-testuko poema *Ziutateaz*eko poemaren aurrekari zuzena denik, nahiz eta aurre-testuko poemak agerikoago egin Atxagak Chessman pertsonaiarekiko zuen fijazioa.

Azkenik, Aldekoak (2009) eta Otaegik (2013) gogorarazten dutenez, litekeena da Atxagaren Chessmanekiko interesa Novistengandik (edota zinematik) jaso izana, beren testuetan heriotza zigorraren aurkako borrokaren sinbolo bihurturiko auziak ere garrantzia izan zuenez. Horren adibide argiena L.M. Paneroren "Homenaje a Caryl Chessman" poema da, zeinetan gaseaketa bidezko heriotza zigorraren prozedura teknikoa objektiboki kontatzera mugatzen den. Edonola ere, Atxagaren Chessmanen testuek bestelako helburu bat dutela ere ondorioztatu daiteke, hilketek, borreroek eta bestelako krudelkeriek gain egiten duten *Ziutateaz* eta *Etiopia* liburuetan jada ikono bihurturiko Chessman bezalako pertsonaia ezin hobeki txertatzen baita liburuek iradokitzen duten giro ilunean.

4.3.2. Camilo Lizardi: *incipit* baten azterketa

4.3.2.1. Aurre-testu multzoaren deskripzio orokorra

Atxagak utzitako aurre-testu multzoen artean, "OBABAKOAKen bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera" izendaturikoari erreparatuko diogu jarraian. Zazpi dokumentu sortek osatzen dute aurre-testu multzoa:

- "BASURDE ZURIA" eskuizkribua (orri bat) (8. ERANSKINA) eta "Camilo Lizardi erretore etxean aurkitutako gutunaren azalpena"-ren makinizkribua (8 orrialde) (7. ERANSKINA)

- "Literatura ez da hipotesi mingarri baten bilakaera baino": makinizkribua eta 5 orrialde. Lehendabizi *Pott Tropikala*n (1980) "Margarete" izenarekin eta azkenik *OBB*en "Margarete, Heinrich" izenarekin argitara emandako ipuinaren aurre-testua. (6. ERANSKINA)

- "Printzea": makinizkribua eta 3 orrialde. Hainbat hitz eskuz idatzita. Argitaragabea.

- "Izenburu gabea I": 3 orrialde makinaz idatzita eta atzeko aldeetan eskuz eta makinaz hainbat ohar. Argitaragabea. "Abiatu eta gero" esamoldearekin hasten da aurre-testua eta aurreneko bi orrialdeen ostean, badirudi hirugarren orrialdea aurreko aurre-testuaren berridazketa dela, "Abiatu eta gero" esamoldearekin hasi eta aurreko bi orrialdeetako pasartea laburtzen baita finean.

- "Izenburu gabea II": makinizkribua eta 3 orrialde. Argitaragabea. Amaieran egilearen izena eta data zehazten dira: "bernardo atxaga. Otsailak 26–1978".

- "(A1)": Makinaz idatziriko 5 orrialde eta 3. orrialdean eta 4.ren atzeko aldean hainbat ohar eskuz idatzita. Argitaragabea eta gazteleraz idatzia.

- "Graffiti (bat)": makinizkribua eta 3 orrialde. Izenburuaren goiko aldean "Interwiew" eskuz idatzita. Argitaragabea. Amaieran egilearen izena eta data zehazten dira: "b atxaga. Otsailak 17 –1984".

Aurrez esan bezala, aurre-testu multzo honetan ere zirriborro argitaragabeak nagusitzen dira eta gisa horretako testuen garrantziaren jakitun izanik ere, Atxagak argitara emandako testuen aurrekari izan diren aurre-testuetara mugatuko gara oraingoan ere. Beraz, aurreneko bi dokumentu sorten azterketa da sakonduko duguna: lehendabizi "Margarete" ipuinaren aurre-testua, eta azkenerako utziko dugu "Camilo Lizardi" ipuinaren incipitaren azterketa.

4.3.2.2. "Margarete" ipuinaren bilakaera

Olaziregik (97: 48-49) egoki bildu bezala, Atxagaren "Drink Dr. Pepper" narrazioak 1979ko Donostiako Hiria I saria eskuratu zuen eta, 1980ko apirilean *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkariko 170 zenbakian argitaraturiko sarituriko bertsioaz gain, aldaera gutxi batzuk zituen bestelako bertsio bat ere kaleratu zen 1980ko maiatzeko *Pott Tropikala*n, beste izenburu batekin: "Margarete: Schewester Sturmischer Schvermet (Margarete: atsekabe trumoitsuzko arreba)", hain zuzen. Azkenik, ipuina osoki berridatzi eta *OBB*en txertatu zuen, "Margarete, Heinrich" izenburuarekin. Era berean, Olaziregik bere ikerketan *Pott*eko eta *OBB*eko ipuinaren bertsioak alderatu ditu, gorago ikusi dugunez.

Bada, "OBABAKOAK-en bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera" aurre-testu multzoan ipuin horren aurre-testua biltzen da. Aurreneko orrialdeko post-it batean Atxagak eskuz eta arkatzez idatziriko oharrak ere horixe gogorarazten du: "'Margarethe' (Donostiako ipuin saria irabazi zuen, eta gero Obabakoak-en sartu nuen". Are, aurre-testu osoa makinaz idatzita badago ere, hasierako aipuaren aurretik ere arkatzez idatzi dator "Margarethe" eta itxura baten arabera, post-it-eko oharra idazterakoan idatzi zen tituluari lotura egiten dion izena ere.

Dokumentuak berez ez du izenbururik eta tituluaren lekuan ipuinaren aurreneko bi argitalpenetan mantendu den Prousten *Jean Santeuil* nobelako aipua biltzen da: "Literatura ez da hipotesi mingarri baten bilakaera baino". Deigarria da aurre-testuak oraindik izenbururik ez izatea, eta aldi berean, gertaera horrek ondoren ipuinak izan zituen izenburu aldaketa ulergarriago egiten laguntzen du. Izan ere, Donostia Hiria saria irabazi zuen "Drink Dr. Pepper" izenburuak ez du ondorengo berridazketan ipuinak izango duen bilakaera iragartzen eta ondoren ikusi denez, behin-behieneko izenburua izan

zen. Aldiz, *Pott*eko bertsioan Margarete pertsonaiak bereganatuko du izenburua, jadanik testuan aipatzen zen esaldi bat izenburura eramanaz: "Margarete: Schewester Sturmischer Schvermet (Margarete: atsekabe trumoitsuzko arreba)". Eta azkenik, bide horretatik gauzatuko da *OBB*eko berridazketa ere, nahiz eta Margaretheren anaia Heinrich protagonistaren izena ere izenburura eraman, ipuinaren eta pertsonaiaren bikoiztasuna izenburutik iragartzeko.

Aurre-testuak 5 orrialde ditu, orrialdeak ezkerreko goiko aldean zenbatuta eta aurreko aldetik soilik idatzita. Eta aurre-testuak datarik ez badu ere, 1979. urtean Donostia Hiria I sarira aurkezturiko lekukotzaren aurrekaria dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, "Drink Dr. Pepper" ipuinetik "Margarete: Schewester Sturmischer Schvermet (Margarete: atsekabe trumoitsuzko arreba)" ipuinera, izenburuaz gain, hainbat aldaera txertatu zituen Atxagak eta eskuartean dugun aurre-testuak 1980ko *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkariko bertsioarekin egiten du bat.

Hain zuzen, narrazioaren erdialdean hainbat aldaera txertatu zituen ipuinaren sariketako bertsiotik *Pott*en kaleratu zen bertsiora. Aldaera gehienak gehiketa edota ordezkapen txikiak diren arren, Heinrich protagonistaren bakardadearen berri ematen duen pasartea ezabatu egin da, ipuinean zetzan aipu intertestual bakarra ere kenduz:

> Ni bezalakoak, ordea, apika lotsatiak izateagatik, batek daki zergatik, ez dute, ez dugu inor izaten lagun urko. Eta kaleetatik nekagabe paseatzen, edo jende ugari biltzen den plaza eta errestaurantetatik ibili arren, ez dugu bakardadearekin baino estrapozo egiten. Bakardadeak, gauden tokian gaudela, txistu egiten digu kobra bat bailitz. Giacomettik esan zuen bezala: ez nau ezerk hainbeste kezkatzen elkarren artean daukagun tarte infinito horrek baino.

Gainerako aldaerak erantsi diren xehetasunek osatzen dituzte. Alde batetik, aurrez Margarethe idazten zen lekuan ondoren "ene arreba" edota "ene arreba maitea" bezalako esamoldeak txertatu dira Heinrichen arrebarekiko miresmena indartzeko. Gehiketak direla eta, gehienak xehetasun txikiak dira, anaiak Margaretheren erregaliekin "aldare bat osatu" duela edota erosi zuen lehenengo soinekoa "Margarethek erretrato batean zeraman beste batekin berdina zelako" aukeratu zuela zehazten denean, adibidez.

Dena den, badira bestelako bi gehiketa esanguratsu, Heinrichen bilakaeraren berri esplizituki adierazten dutelako, "Drink Dr. Pepper"-en ez bezala. Lehendabizikoa, gizonezkoa emakume arropaz janzten hasten denean dator, bertsio berrian "Denboraren poderioz alegrantzia zoro bat jabetu izan balitzait bezala, ordurarte behin ere ernetu gabeko gogoa etorri zitzaidan. Kantatzeko gogoa. Liburu zaharretan esaten denez, kantuak bihotza zabaltzen du, eta izpirituak ez du ezagutzen mezulari hoberik. Oso zoriontsu sentitzen hasi nintzen" gehitu baita bere eraldaketaren adierazle. Bigarrena, berriz, Heinrich pertsonaiaren gainbeheraren lehen zantzuak agertzean txertatzen den esaldi esanguratsua da: "Askok hitzegin dute simetriaz; orain, niri ere, ene bizitza berriaren bestalde erakusten hasi zait".

Beraz, eskuartean dugun zirriborroan aldaera horien aztarnarik ez dagoelako eta *Punto y hora de Euskal Herria* argitalpeneko sarituriko ipuinaren bertsioarekin bat egiten duelako, sariketara bidalitako bertsioaren aurrekaria (edota kopia agian?) litzatekeela ondorioztatzen dugu esku artean dugun aurre-testua, gehienez ere 1979. urtekoa, edo lehenagokoa agian.

4.3.2.3. "Camilo Lizardi" ipuinaren aurre-testuak: ipuinaren bertsio zatikatua eta "Basurde zuria" izeneko *incipit*-a.

"OBABAKOAK-en bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera" oharrarekin izendatu du Atxagak ikergai dugun aurre-testu multzoa eta nolabait, bide zalantzati horretako lehen harrietako bat "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena" izan zen. 1982an argitaratu zen ipuinak Irun Hiria saria eskuratu zuen 1981an eta bertan agertuko da lehendabizikoz Obaba herria. Eta jakina denez, ipuin horrek ematen dio hasiera *OBB* liburuari ere.

Bada, aurre-testuen artean, "Camilo Lizardi" ipuin argitaratuaren aurreko bertsio batekin batera, ipuinaren incipita ere aurki dezakegu, hau da, ipuina izatera iritsiko zenaren idazlearen aurreneko hitzak eskuz idatzita ageri diren lehen apuntea.

"Camilo Lizardi" ipuinaren aurre-testuari dagokionez, makinaz idatzita dauden 8 orrialdek osatzen dute zirriborroa baina, tamalez, ipuinaren amaierako orria falta da. Paradoxikoki, ipuineko narratzaileari gertatzen zaiona gertatzen zaigu guri ere: fikzioan aurkituriko Camilo Lizardiren gutuna erabat irakurgarri mantendu ez denez narratzailearen azalpena ere zatikakoa baita, eta gure kasuan ere ez zaigu ipuinaren aurre-testua bere osotasunean iritsi. Beraz, amaierako orria falta zaigunez, ezin jakin "Camilo Lizardi" ipuinaren aurre-testuak zehazki zein bukaera zuen. Izan ere, argitaraturiko bertsioarekin alderatuz, esku artean dugun aurre-testuak baditu hainbat aldaera ipuinaren azkenaurreko orrian eta agian, azkeneko orrialdean ere izango ziren aldaera gehiago, baina lekukotasunik ezean, ezinezkoa da hipotesi hori baieztatzea.

Argitaratu zen bertsioarekin erkatuta aurre-testuan aldaerak egoteak lekukotza hori lehenagokoa dela berresten du. Ez dira aldaera esanguratsuegiak, esaldien antolaketa edota hiztegi mailako bestelako hainbat xehetasun dira eraldatzen direnak eta bereziki Matias pertsonaiaren eta Camilo Lizardi protagonistaren arteko elkarrizketan txertatu dira, Matias basurde zuria hiltzeko baimen eske joaten zaionean, hain zuzen. Aurre-testuan baziren eta argitalpenerako ezabatu ziren esaldien artean, Matiasen jarreraren inguruko xehetasun bat aipatu behar da lehenik: "niri ez dit ajolik eiztari jendeari guertatuac! –moztu cichian copeta arro alchaz! Nic esan nien! Basurdeac eguiten dituan calteac ez naute cipitzic ere quezcatzen!". "Cerc, orduan?" galdetzen dio Camilo Lizardik, baina bere erantzuna ez dator testuan, kezkatzen duena basurdea Javier izan daitekeela iradokiz eta umeak Camilo Lizardirekin duen harremana aditzera emanaz.

Azkenik, aldaera nagusienen artean Camilo Lizardik egiten dituen prolepsietako bat lekuz aldatu da aurre-testutik argitaraturiko bertsiora –"baña au guztia gerora ezagutu diat"–, eta aldiz, beste prolepsi bat ezabatu egin da: "Nik ori jaquin izan banu! … niri bai inporta cidala non pentsatzen zuen iltzea jaquitea!". Gainerako aldaerak, esan bezala, xehetasun txikiak dira: hala nola, argitaraturiko bertsioan painelu batean bilduta ekarriko du basurdearen moztutako hanka, basurdearen oinazearen arrazoia ere azaltzen du Matiasek, eta abar.

Aldaera urriak edota argumentuari dagokionez behintzat garrantzi gabeak izan arren, eta argitaraturiko testuan mantenduko ez diren aldaerak direnez, aztergai dugun aurre-testua sariketara bidalitakoaren aurreko bertsioa dela ondorioztatzera garamatza, eta beraz, gehienez ere 1981koa dela, edo lehenagokoa agian.

Makinaz idatziriko "Camilo Lizardi" ipuinaren bertsioarekin batera, ordea, Atxagak eskuz idatzitako incipitaren orri bakarreko lekukotasuna ere gorde da. Incipita, gogora dezagun, testu baten lehendabiziko hitzek edo esaldiek osatzen dute.

Orrialdeari itsatsirik Atxagak idatziriko ohar hau zetorren: "Lehen apuntea 'Camilo Lizardi' izango zen ipuinerako. Apuntea irrati saio baterako egina dago → ikus orri ostea nahiz gero libururako gorde nuen". Eta hain zuzen, incipit orriaren atzeko aldean Atxagak antzerki testuak sortzeko erabiliriko idazketa teknikaren berri dugu: orrialdea bitan banatuta dago bertikalean eginiko lerro bati esker eta aurrerago ikusiko dugun bezala, ezkerreko aldean xehetasun dramatikoak eta akotazioak zehazten dira eta eskuinekoan, berriz, antzezlaneko hitzak eta elkarrizketak.

OBB liburuko aurreneko sei ipuinen inguruan aritzeko, Atxaga Gasteizko Letren Fakultatean egon zen 2011ko azaroaren 21ean eta "Camilo Lizardi" ipuinaren garaiaz hitz egiten hasi zen hitzaldian. Horrela, 1980an Bartzelonara joan eta irrati kontakizunak, gidoiak eta ipuinak idazten hasi zela gogoratu zuen eta hortik sortuko zirela, besteak beste, *Antzoki iluna*ko lanak. Eta gerora "Camilo Lizardi" ipuina bilakatuko zena ere, hasiera batean irrati-gidoi gisa hasi zela idazten. Hasierako asmoen atzean basurde bat ehizatzeko herri guztia nola inplikatzen den kontatu nahi zuela aipatu zuen, hein batean John Hustonen *Moby Dick* zinema moldaketarekin bat eginez. Azkenik, ordea, irrati-kontaeraren ordez, ipuin bat idatzi zuela eta horretarako, gutunaren kontaketaren bidez narrazioa bikoiztu egin zuela, erretorearen eta aurkitzaile arrotzaren ahotsak nahastuz. Eta era berean, istorioaren gaineko gogoeta planteatu nahi zuela, pertsonak animalia bihurtzeko sineskeriaren aurrean, intelektualaren begia eta bere erreakzioak bildu nahi zituela.

Hitzaldian ez zuen aipamenik egin, baina Olaziregik bildu bezala (1998: 95), ipuinaren oinarrian "egileak berak aitortu duenez, Asteasun behiala gertatutako gertakizun bat dagoelarik (basurde bat menditik jaitsi eta herri erditik ibili zela)". Berriki, beste elkarrizketa batean, Atxagak gertaera horren

garrantzia nabarmendu du: "Nire nerabezaroan eta nire haurtzaroan izandako bost sei inpresio erabakiorren artean, nire herriko kalean basurde bat ikustea izan zen" (*Uberan*, 2015-01-23).

Horiek dira "Camilo Lizardi" ipuinaren sorreraren inguruko zertzelada orokorrak eta une honetan, incipit aurre-testuak erakusten digunari egin behar diogu erreferentzia, hots, orrian markatuta geratu den lekukotzari. Eta hona hemen "Camilo Lizardi" bilakatuko den ipuinaren aurreneko hitzen lekukotasunaren transkripzio diplomatikoa (Ikus 8. ERANSKINA):

CHICK COREA:Tiempo muerto
2 BASURDE ZURIA… BADEN POWEL: Tempus fugit

— Ume batzuk basurde batekin jostatzen… ume batek "oso zakur han diarekin ari gara jostatzen… non da zure neba?...)

— Jesus eta Santos: basurdea dela!

—Herritik pasatzen da → batek tiroa bota eta zauritu egiten du…
—Tabernan komentarioak (harro — baina batek ez du ontzat hartzen…
— Seinale txarra…
— Onean etorri eta gaiztoan joan…
— Norbait izango zen, pertsonaren bat, herrikoren bat
— Hurrengo egunean — baserri batean — erasoa … basurde kirrinka…
—Mendira batzuk alai… besteak ilun "arkaikoa" ….
—Mendira joan deneko baten etxeko andrea izuturik … atakatu egiten du… ORDUAN: ~~badaki gu~~ bazekik hi bere atzetik henbilela…

— HOR DIHOALA, HOR DIHOALA… Tiro pum bat hiltzen dute basurde bat… hil diagu…. baina ezta xuria… basotik atera… xuria bat zauritu…. aiii aiii…

— EHIZTARI bakarra badaki nondik dabilen… basurdeak ere bai… (ze… bere ustez badaki nor den… badaki nondik dabil

—ETORRI HADI…

—Nekatuak biak…

—Sartzen da zuloan… hara bakarrik etorriko da…

—ETORTZEN da biak hilik .

Transkripzio diplomatikoa: fº1r

"Basurde zuria" izenburu ezin argiagoa du zirriborroak eta izenburuaren ondoan, Chick Corea eta Baden Powel izenak aipatzen dira, "Tiempo muerto" eta "Tempus fugit" ondoan hurrenez hurren idatzita dituztela. Izenon kontua dela eta, ez dugu lotura zuzenik aurkitu Baden Powell eta Chick Corearen artean, baina baliteke bestelako azalpenik egotea. Izan ere, Chick Coreak aurrez Bud Powellek, eta ez Baden Powellek, interpretaturiko "Tempus fugit" abestiaren bertsioa egin zuen eta litekeena da Corearen moldaketari erreferentzia egitea hitz horien bidez, hasiera batean izan behar

zuen irratsaioan kontuan hartzeko musika gisa. Beraz, Baden Powel-en ordez Bud Powell litzateke abesti horren egilea eta errata baten aurrean geundeke. Edonola ere, eta ziurtasun gehiagorik ezean, hipotesien eremuan ari gara mugitzen oraingoan ere.

Bestalde, modu eskematikoan nahi bada, baina incipitean jada "Camilo Lizardi" ipuineko argumentu nagusia biltzen da: basurde bihurtzen den umearen istorioa eta herri guztia bere kontra altxatu ondoren, umearen itxuraldaketa salatzen duen agureak basurdea hil eta nola bera ere hil egingo den.

Gainera, incipiteko hainbat hitz eta esaldi argitaraturiko ipuineko testuan aurkitzen dira: basurdea herritik pasatzen denekoa eta batek tiroa bota eta zauritzen duenekoa, basurdea kirrinkan hastearena eta azkenik, aurre-testuko pertsonaia arkaikoaren "onean etorri eta gaiztoan joan" argitaraturiko testuan Matiasen hitzak ondorengo bilakatuko dira: "gaizqui ari zarete, bera onean etorri eta zuec tiroca artu: Etorrico dittuk ordañac".

Bestetik, ipuinean agertuko ez diren bi izen ere aipatzen dira, Jesus eta Santos, baina izen horiek desagertu egiten dira "Camilo Lizardi" ipuinean, eta erretoreaz gain, Javier ume-basurdearen eta Matias basurdearen hiltzailearen izenak aipatzen dira bertan. Basurdearen istorioa dela eta, incipitean badirudi basurdeak eta gizon "arkaikoak" elkar hilko dutela eta "Camilo Lizardi" ipuinean, aldiz, basurdeak Matias hil eta honek basurdea hilzorian utziko badu ere, azkenean erretorea izango da basurdea errematatuko duena.

Dena den, incipita eta argitaraturiko testuaren artean idazketa prozesu oso bat gauzatu dela argi dago eta erredakzio aroko lekukotasunik ezean, ezin incipitetik testu definitibora gertatu den bilakaera konplexua aztertu. Lekukotasun horiek ez izateak, ezinezkoa egiten baitu testuaren garapen genetikoa burutzea eta, ondorioz, incipita bide zalantzati baten hasiera eta argitaraturiko testua bide baten amaiera izanik, gainerako aurre-testurik ezean ezin tarteko bideko bilakaera ikertu.

Horrenbestez, "Camilo Lizardi" ipuinaren lehen apuntean ez da narrazioak eskainiko dituen konplexutasunen berri ematen. Aurrez aipatu bezala, argitaraturiko narrazioak bi istorio biltzen ditu, bata Camilo Lizardiren gutunaren azalpena eta bestea, gutunean bertan kontatzen den istorioa. Eta incipiteko eskemak oso modu laburrean gutuneko istorioa aurreratzen badu ere, bestelako xehetasun garrantzitsuen berririk ez du ematen eta horren erakusle da erretorearen aipamenik ez aurkitzea hasierako zirriborroan.

Erretorearen irudiarekin batera, ordea, bere hizkerak eta idazkerak esanahi berezia bereganatzen dute testuan eta esan bezala, horren aztarnarik ez da incipitean ageri. Uste izatekoa da, izatez hastapen zirriborroa irrati kontakizun baterako idatzi izana eta ipuina idazteko erabakia hartu ondoren, baliabide narratibo konplexuagoen aldeko hautua egitea. Eta hor agertuko lirateke erretorea eta bere hizkeraren zein idazkeraren berezitasunak. Olaziregik (98: 125) "Camilo Lizardik Agirre Asteasukoak

bezala hitz egiten du[ela]" baieztatu zuen eta Atxagak ere kontatu izan du (Etxeberria 2002: 23), Arestiren aholku bati jarraiki, Axular eta Juan Bautista Agirre Asteasukoa bezalako klasikoak irakurtzera dedikatu zela aldi batez. Agirre Asteasukoaren eragina, besteak beste, "Camilo Lizardi" ipuinean baliatu zuen. Baina esan bezala, esku artean dugun hastapen zirriborroan ez da horren inguruko xehetasunik ageri.

Azkenik, incipit orriaren atzeko aldea dela eta, esan dugu Atxagak antzerki testuak sortzeko erabiliriko idazketa teknikaren berri ematen duela batetik, orrialdearen ezker aldean akotazioak eta eskuin aldean elkarrizketak idatzita baitaude; eta bestetik, orrialde horretan Narragilearen hitzak badatoz ere, Atxagaren haurrentzako antzerki lan bateko pertsonaia aipatzen da: Mariatxo, hots, Maria Txorakeri, oraintxe berretsiko dugunez.

4.3.3. *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*: antzerkiaren bertsio argitaragabetik oholtzako bertsiora eta *Italiako zirku batean* ipuinera.

Azterkizun dugun azken aurre-testuen zirriborroa ez dagokio Atxagak esleituriko dokumentu-multzoari. Izan ere, bestelako gorabehera batzuk tarteko, Atxagak haurrentzat idatziriko antzerki-lan baten berri izan genuen eta dokumentu hori gure eskuetara iritsi zenean (9. ERANSKINA), Atxagak Maskarada antzerki taldearekin 1981an taularaturiko *Logalea zeukan ekilibristaren kasua* antzezlanaren aurrekaria zela jabetu ginen[128].

Zirriborroak 23 orrialde ditu orotara eta makinaz idatzitakoaren fotokopiek osatzen dute. Dena den, aurreneko 7 orrialdeek antzerki-testuaren peritestua osatzen dute: Lehendabiziko bi orrialdeetan izenburua eta ohar nagusi bat txertatzen dira, hirugarren eta laugarren orrialdeetan pertsonaiak eta euren ezaugarriak aurkezten dira eta azkenik, gainerako hiru orrialdeetan eszenografiaren, koloreen, koreografiaren eta hots-sustantzien inguruko argibideak zehazten dira.

Izenburuari dagokionez, lehendabiziko orrialdean "MARIA TXORAKERI SEÑORITAREN ISTORIO HARRIGARRIETAKO BAT / Haur txontxongiloa" zehazten da eta lema gisa, Maria Txorakeri Señorita errepikatzen da[129]. Bigarrengo orrialdea, aldiz, izenburu are zehatzagoa txertatzen da: "Haur txontxongiloa (giñola) / LOGALEA ZEUKAN TRAPEZISTAREN KASOA / Panpina zeina aktorentzat paraturiko jokaldia / MARIA TXORAKERI SEÑORITAK aurkeztu, zuzendu eta idatzia…". Orrialdearen amaieran, egilearen oharra dator: "Aurreko orrialdean ipinitakoa,

[128] Zehazki, Atxagak bere lagun bati alabaren jaiotza zoriontzeko 1980an bidali zion antzerki lana da. Antzezlanarekin batera ohar bat igorri zion Atxagak lagunari, Bartzelonatik azaroaren 5ean bidalia: "Teatro lan ttiki hau bidaltzen diat. Dedikatzen zioat hire alaba halaber ttikiari (zerkuluz testuaren lehen letrak seinalatu dizkiat, hor zegok dedikatoria: "Zuk bost urte izandakoan ikustekoa zen baina tira, orduan ezinezkoa izan zen. Irakur ezazu-ba orain"… ustez landua zeok oso, eta interesgarria duk bere nimiñotasunean. Besarkada bero bat. Joseba".

[129] Zirriborroak lema bat izateak sariketa batera aurkezturiko lan baten aurrean egon gintezkeela adieraziko balu ere, ez dugu datu horren inguruko informaziorik aurkitu eta beraz, ezin dugu argitu antzezlana lehiaketaren batera aurkeztua izan ote zen.

txontxongilo serie baten izenburu orokorra da. Orrialde honetakoa, berriz, serie horretatik atera eta bakarka aurkezten den lanarena".

Hori horrela, eskuartean dugun *Logalea zeukan trapezistaren kasoa*[130]-az gain, Maria Txorakeri protagonistan oinarrituta antzerki serie bat idazteko asmoa aipatzen da hasieratik eta hain zuzen, horrekin lotu behar dugu "BASURDE ZURIA" incipitaren atzeko orrialdean aurkituriko Mariatxo izena, Maria Txorakeriren txikigarri gisa.

Ondorengo bi orrialdeetan Maria Txorakeri Señorita, Trapezista, Motorista eta Zirkuko jabea aurkezten dira[131] eta bakoitzaren ezaugarriak zerrendatzen dira. Esaterako, Maria Txorakeri eta Trapezista pertsonaia bikoak izango direla, hau da, batzuetan aktoreek antzeztuta eta besteetan panpina hutsak hartuko duela euren lekua. Gainera, trapezistaren panpina egiteko egileak "gizoniloa" deituriko esku-jostailua aipatzen du eta baita jostailu horren marrazkiak egin ere, panpina trapezistaren mugimenduak azaltzeko.

Peritestuko antzezlanaren oharrak direla eta, azken hiru orrialdeetan eszenografiaren inguruko xehetasunak zerrendatzen ditu Atxagak. Izan ere, antzezlanak proposatzen dituen berritasunen artean aretoaren alde banatan bi eszenario edo jokaleku ipintzea legoke eta horrenbestez, ikusleak bi eszenarioen artean kokatuko lirateke. Bestetik, Motoristaren eszena egiteko argiztapenarekin loturiko hiru bide ere proposatzen ditu Atxagak eta eszenatokiaren neurriak ere zehazten dira sarrerako argibideetan.

Baina gatozen antzerki-testura. Hamasei orrialde ditu orotara eta aurrez adierazi bezala, orrialdeen antolaketak Atxagak antzerki gidoiak idazteko erabiliriko teknikaren berri ematen du. Orrialde guztiak bi zatitan banatuta daude lerro bertikal baten bidez eta ezkerreko aldean xehetasun dramatikoak eta eskuinekoan elkarrizketak idazten dira paraleloki[132].

Antzezlanaren laburpen gisa, aipatzekoa da hasiera batean Maria Txorakeriren zeregina ipuina kontatzekoa izan behar zuela baina poliki-poliki, pertsonaia garrantzia bereganatzen joango da eta antzezlaneko bigarren foku bilakatzen da bere hutsegite komiko eta ateraldi barregarriekin. Bestalde, meta-antzerkiaren esparruan ere sartzen da antzezlana, Maria Txorakerik kontatu behar duen ipuina kontatzen hasi aurretik OFF-eko ahotsak etengabe zuzendu beharko dituelako haren hanka sartzeak. Azkenik, ordea, diskurtsoa bideratu eta ipuina kontatzen hasiko da. Horrela, gero eta zailagoak diren trapezistaren balentrien berri eman eta zirkuak duen arrakasta azaltzen da ondorengo lerroetan. Maria Txorakeriren jokalekura itzultzen gara jarraian eta honek, ohiko okertze eta nahasteen ondoren,

[130] Hemendik aurrera "*Trapezistaren kasoa*".
[131] Pertsonaiak ataleko izenburua eta Maria Txorakeriren aurkezpena egitean, egileak letra batzuk zirkulutan sartzen ditu eta zirkulutako hizkiak batuz, antzezlana dedikatua dagoen lagunaren izena osatzen da.
[132] 8. eta 9. ERANSKINAK erkatuz gero, "Basurde zuria"-ren orrialdearen atzeko aldeak eta antzezlaneko testuko orrialdeek egitura bera dutela ikus daiteke.

Trapezistak gauez izaten duen arazoari ematen dio bide. Izan ere, argia itzaltzean motorista bat sartzen da leihotik eta loa galarazten dionez, hurrengo egunetan ezingo du lorik egin eta ondorioz, ezta zirkuko jauziak ere. Harik eta azkenean, denen artean irtenbidea aurkitu eta motorraren ihes-hodian tronpeta bat jarri eta handik aurrera, motorraren zarata musika bihurtuko denez, trapezistaren arazoa amaitu egiten da eta baita Maria Txorakerik kontatu beharreko ipuina ere.

Antzezlanak baditu bestelako berezitasunak ere: hala nola, Maria Txorakerik etengabe errepikatzen duen "mesedez eta faborez / faborez eta mesedez" leloa, ametsa eta errealitatearen arteko mugarekin jolastea, bai trapezistak eta bai Maria Txorakerik haur ikusleekin dute interakzioa, une oro xehetasun dramatikoetan zehaztua, eta abar.

Antzezlan horren inguruan, eta Atxagaren gainerako antzerkigintzaz, 1982an Mikel Antzak "Bernardo Atxagaren (orainarteko) antzerkigintza: Inkurtsio berritzaileak" artikulua kaleratu zuen *Susa* 5. aldizkarian eta bertan, besteak beste, eskuartean dugun *Trapezistaren kasoa*ri egiten dio erreferentzia, bertsio hori bere horretan oholtzara iritsi ez bazen ere.

Izan ere, Atxagak eta Maskaradak sinaturiko *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*[133] izan zen haurrentzako 1981an estreinatu zuten antzezlana, Atxagak *Trapezistaren kasoa* Maskaradakoentzat berridatzi ostean[134]. Izenburuko aldaketa, antzerki testu osoan eta antzezlanaren muntaketan izandako eraldaketa guztien iragarle da[135].

Testuaren egiturari dagokionez, eszena bakarreko *Trapezistaren kasoa* bakoitzak bere izenburua duen hamaika eszenatan banaturiko *Ekilibristaren kasua* bilakatu da eta Atxagaren aurre-testuan ez bezala, gidoi honetan ez da inolako akotaziorik ageri.

Argumentua kontuan izanik, hari narratibo nagusia antzekoa dela esan daiteke, ekintza nagusia, edota gainditu beharreko gatazka, ia bere horretan mantentzen baita: ekilibrista arrakastatsuari gauetan motorista bat agertuko zaio logelan eta lo egin ezinak ekilibrista-lana egitea eragotziko dio, harik eta azkenean irtenbide bat topatu arte. Eta hala ere, berridazketan elementu asko aldatu dira.

Pertsonaien karakterizazioa da biziki eraldatu den ezaugarri nagusia. Horrela, aurrez trapezista edota zirkuko jabea ziren bigarren mailako pertsonaiek garrantzia askoz gehiago bereganatu eta, hurrenez

[133] Hemendik aurrera *Ekilibristaren kasua*.
Antzerki testua helbide honetatik hartu dugu: http://www.teatro-testuak.com/logale.html [2015/12/19an atzitua]
[134] Atxaga eta Maskaradaren artean eginiko beste elkarlana *Jimmy Potxolo eta Zapataria* antzezlana izan zen. Antzezlan horretako testuaren sorkuntza prozesuaz, honakoa irakur daiteke teatro-testuak.com helbidean: "Lehenbizian Bernardo Atxagak txontxongiloentzat idatziriko gidoia, Maskarada Taldeak bere erara egokitu eta panpina, maskara, aktore-sak eta beste elementu batzuekin eskenaratu zuen 1982. urtean".
[135] Kritika genetikora mugatuko garenez, antzezlanaren muntaketako kontuak alde batera utziko ditugu, nahiz eta jakitun izan *Trapezistaren kasoa*-n bi jokaleku aurreikusi zirela eta *Ekilibristaren kasua*-n, aldiz, jokaleku bakarrean burutu zirela eszena guztiak. Era berean, oholtzara eraman zen bertsioan ez zen panpinarik erabili Maria Txorakeri edota trapezistarena egiteko. Antzerki generoari loturiko kritika genetikoaren esparruko ikerketetan sakontzeko antzerkiari eskainitako *Genesis* 26. monografikoa (2005) eta 2010ean Grésillon, Mervan-Roux eta Budor-ek zuzenduriko *Genèses théâtrales* argitalpena aholkatzen ditugu.

hurren, Piarres Champignon eta Bambolini pertsonaia bihurtuko dira. Ekilibrista frantsesa da eta frantsesezko adierazpenak txertatuko ditu bere jardunean, tronpeta jotzen du eta bere izenarekin jolas eginaz, txanpinoiak soilik jaten ditu. Bambolini, aldiz, italiarra da *Trapezistaren kasoa* aurre-testuko pertsonaia bezala eta italierazko esamoldeak erabiliko ditu, oholtzako testuan areagotuko den ezaugarria hori ere. Eta Maria Txorakeri protagonistari dagokionez, lehenik eta behin bere izaera txoriburua areagotu, hitz jokoen eta leloen erabilera ugaldu eta "hau txorakeria txoroa, nahastu egin naiz" izango da bere lelo erabiliena. Gainera, hainbat pertsonaia antzeztuko ditu: lehenik eta behin detektibearena egiten hasiko da, ondoren, zirkuko lana eskuratzeko, Maria Trorakeriesnovenka dantzari errusiarrarena eta Maria Txorakevitz poloniar biolin jotzailearena egingo du eta azkenik, Meri Jein Mac Txorakeri bilakatuko da hegazkin pilotu lana eskuratzeko.

Pertsonaia izenak biderkatzearen estrategia hori bera erabili zuen Atxagak 1982an kaleraturiko "Siberia treneko ipuin eta kantak" bildumako kontakizunak aurkezteko. Treneko bagoi batean lau ezezagun elkartzen dira eta bakoitzak ipuin bat kontatuko du: *Boriz Atxagof* errusiarrak *Jimmi Potxolo* ipuina kontatuko du; Mc Atxagen Ingalaterrakoak *Txitoen istorioa*, Atxaginik *Antonino Apreta* eta azkenik, Atxaga euskaldunak *Asto bat hypodromoan* ipuina. Antzekotasunak nabariak dira eta beraz, Maria Txorakeri biderkatzearen baliabidea Siberiako treneko bildumakoaren aurrekaria genuke.

Bestetik, protagonista berberak izanik pertsonaiak ugaritzen diren bezala, espazio fikzionalak ere biderkatu egiten dira: pertsonaia bakoitzak antzeztuko duen jatorriko lurraldetasun estereotipoak erabiliz batetik, eta bestetik, ekilibristaren arrakastaren ondorioz munduan zehar egingo duten biraren berri emango duelako OFF-eko ahotsak. Azkenik, ekilibristaren erronka handiena ere Afrika hegazkin batean igarotzea izango da eta lorik ez egiteagatik istripu bat izan eta basamortuaren erdian aurkituko dira bera eta Meri Jein Mac Txorakeri. Nolabait, Antoine de Saint-Exupéryri eginiko keinu gisa ere ulertu daiteke pasarte hori.

Istorioaren amaieran ere egin dira zenbait aldaera. Lehenik eta behin, aurreko eszena batean ekilibrista Karolina deituriko tronpetarekin hitz egiten agertzen da eta bukaeran, tronpeta bera izango da ekilibristari belarrira irtenbidea proposatuko diona: tronpeta motorreko ihes-hodian sartzea, alegia. Eta ez *Trapezistaren kasoa*n bezala, non irtenbidea trapezista, Maria Txorakeri eta haur-ikusleen artean bilatzen zuten. Bestalde, *Ekilibristaren kasua* ez da ekilibrista lotan dagoela amaitzen, Maria Txorakerik motorista ametsa edota benetazkoa den jakin nahi baitu eta azken eszenan, bakarrik geratzen da eta motoristari mozorroa kentzen dionean, harrigarriki, ez da ezer agertuko mozorroaren azpian, errealitatearen eta ametsaren arteko auzia koska bat estutuz.

Horiek dira antzezlanaren aurre-testuaren eta oholtzara emandako antzerki testuaren arteko erkaketatik atera ditzakegun berdintasun eta desberdintasun nagusienak. Edonola ere, ekilibrista bilakaturiko trapezistaren idazketa prozesuak bestelako urrats bat ere izan zuen eta Atxagak, 1987an

argitaratzen hasi zen "Flannery eta bere astakiloak" bildumako *Italiako zirku batean* kontakizuna idazteko berridatzi eta generoz aldatu zuen ordura arteko aurre-testua. Aurrez, Maskaradarekin antzezturiko *Jimmy Potxolo eta Zapataria* Siberia treneko *Jimmy Potxolo* ipuina moldatu zuen gisa berean, nolabait, baina bestelako behar batzuei erantzunez kasu honetan.

Izan ere, "Flannery eta bere astakiloak" bildumaren baitan zortzi ale kaleratu ziren eta guztietan, lau astakilo musikariak dira protagonistak: Patxiku alai eta ekintzailea, Mikel urduri eta hitz-totela, Patxiku triste edadetua eta azkenik, Olegario asto filosofoa. Maria Txorakeri pertsonaia zentrala ezabatzea esan nahi du horrek eta kontakizuna parametro narratibo berrietara egokitu beharra. *Italiako zirku batean* kontakizuna bildumako bigarren alea da, eta astakiloak Italian daudela abiatzen da. Goseak amorratzen daudela, dirua lortzeko Mikelen tronpeta saltzea proposatuko diote besteek baina orduantxe, zirku bateko zuzendaria den Signore Tomaso agertu eta Olegarioren trapeziorako dohainak atzeman ondoren, zirkuan trapezista gisa lan egiteko kontratatzen du. Beraz, ekilibrista izatera pasa zen trapezistak bere jatorrizko izaera berreskuratu duela esan daiteke.

Hortik aurrera, kontakizuneko argumentuak aurre-testukoari jarraitzen dio eta azkenean, Patxiku eta Josetxo Olegariori laguntzen saiatuko badira ere, Mikel izango da bere tronpetaren bidez irtenbidea aurkituko duena.

Aipatzekoa da, bestetik, ipuinaren idazketan pertsonaia bakoitzaren karakterizazioak zein ongi funtzionatzen duen eta testua antzerki lanetik ipuinaren generora eraldatzean Atxagak erabiliriko hainbat teknika narratiboren txertaketa oso egokia izan dela: hala nola, motorista logelan agertzen den bakoitzean gehitzen eta eraldatzen den testu letania, edota Olegariok lokartzeko erabiltzen duen abestia txertatzea.

Esan bezala, "Flannery eta bere astakiloak" bilduma zortzi ipuin liburuk osatu zuten eta telebistarako marrazki bizidunak ere egin ziren. Baita disko bat ere, Atxagaren letra eta Juan Carlos Perezen musikarekin, jadanik aipatu ditugun istorioen gaineko moldaketak eginaz: hala nola, *Zapatari* abestian *Antonino Apreta*ren istorioa bilduko da, *Jimmy Pottolo*ri eskainirikoa da beste abesti bat eta *Txitoen istorioak* ere badu bere moldaketa. Gainera, Etxanizek azaldu bezala (2007: 15), astakiloen zenbait abenturek Atxagaren aurreko haur literaturako lan batzuekin lotu daitezke: horrela, *Gitarra baten bila gabiltza zoratzen* ipuinak *Txitoen istorien* antza du eta bietan, protagonistak zinemako pantailan sartzen dira nahiz eta bestelako helburu bat izan. Era berean, *Asto bat hypodromoan* eta *Astakiloen izkutuko teknika* kontakizunetan ere, istorioak arras bestelakoak izan arren, kokaleku nagusia berdina da bietan: hipodromo bat, alegia.

1993. urtean, ordea, Atxagak *Astakiloak jo eta jo* liburua argitaratu zuen eta bertan, aurrez Flanneryren bilduman agerturiko lau ale berreskuratu eta astakiloen beste lau kontakizun berrirekin batera bildu zituen. *Italiako zirku batean* ipuina argitalpen berrian txertatua izan zen. Bilduma berrian berreskuratu

ez ziren astakiloen lau ipuinak *Gitarra baten bila gabiltza zoratzen*, *Astakiloen izkutuko taktika*, *Mikelek problema bat dauka* eta *Neska dun-dun bat* izan ziren. Aldiz, gehitu diren beste lau ipuinak *Astakiloak New York-en*, *Astakiloak Afrikan*, *Afrikako zuhaitz ttikia* eta *Afrikako zuhaitz ttikiarekin gertatutakoa dira*. Flannery bilduman argitaratutako eta *Astakiloak jo eta jo* liburuan berrargitaraturiko ipuinak bere horretan eman dira eta gehitu diren lau ipuinei buruz esan, elkarren arteko lotura gehien duten lau kontakizunak direla. Bereziki azken hirurak, abentura baten hiru kapitulu balira legez, ekintzek jarraipena dutelako ale batetik bestera eta aurreko hiru kontakizunetako gertaerei erreferentzia egiten zielako ondorengo aleetan.

Beraz, *Trazpezistaren kasoa* antzezlan xumearen idazketarekin abiatu zen sorkuntza prozesua nola garatu den aztertu dugu goiko lerroetan. Idazle baten bakarkako lana izatetik, antzezlana taularatzerako unean antzezle eta gainerako dramaturgileen arteko talde-lanean murgildu ostean, *Ekilibristaren kasua* izan zen emaitza eta hainbat antzezpen egin ondoren, Atxagak aurre-testua berridatzi eta generoz mudatzen du, antzezlanetik ipuin bat moldatuz. Azkenik, *Italiako zirku batean* kontakizunaren hasierako testuingurua ere aldatu egingo du, *Astakiloak jo eta jo* liburuan bilduriko kontakizunak ez baitira "Flannery eta bere" astakiloak bildumako berdinak izango.

4.3.4. Ondorioak

Kapituluaren bigarren atal honetan Atxagaren zenbait aurre-testuren eta argitara emandako hainbat testuren azterketa eta erkaketa burutu dugu, idazlearen sorkuntza prozesuaren xehetasunak gehiago ezagutzeko asmoz. Egilearengandik jasotako aurre-testuen material guztia aztertu ostean, aukeraketa mugatu eta hainbat zirriborroren ikerketa hurrengo baterako utzi beharra izan dugu, batetik arrazoi kuantitaboak direla eta aurre-testu asko esleitu zizkigulako eta bestetik, zirriborro asko eta asko argitara eman gabeko testu ineditoak direlako eta argitaraturiko testuen artean ez dugulako aurre-testuen bilakaera aditzera ematen duen argitaraturiko testurik aurkitu. Horri horrela, atal honetako ikerketarako "Ziutateaz idatzi aurretik" idatziriko fitxak, "OBABAKOAK-en bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera" aurre-testu multzoko "Margarethe" ipuinaren zirriborroa, "Camilo Lizardi" ipuinaren lekukotasun bat eta bereziki, "Basurde zuria" izeneko incipitalandu ditugu. Azkenik, Atxagak haurrentzako idatziriko *Logalea zeukan trapezistaren kasoa*ren aurre-testua Maskaradak oholtzara emandako *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*rekin alderatu eta bukatzeko, *Italiako Zirku batean* ipuinaren bilakaera ere jaso dugu.

Xede nagusia aurreko atalean ikusirikoa sakontzea eta garatzea izan da, hots, Atxagaren ibilbide literarioan berridazketa ariketak sorkuntza prozesurako funtsezko bide izan direla berrestea. Eta horretarako, ezinbestekoa izan da aurre-testuak eskuratu eta argitaraturiko testuekin harremanetan jartzea.

Adibidez, bai *Ziutateaz* eta baita *Etiopia* liburuetan agerturiko Caryl Chessmani eskainiriko poemaren eta pasartearen aurrekariak azkenean garatu ez zen Atxagaren proiektu batean topa daitezkeela, baina bi kasuetarako berridatzi egin zela aurrez idatziriko zirriborroa. Are, fitxa horietan aurkituriko hainbat elementuk Atxagaren ondorengo lanetan izango dute jarraipena, proiektu osoaren egitura orokorrak edota zenbait motibo tematikok, esaterako.Esan genezake, beraz, *Ziutateaz* eta *Etiopia* lanek erakusten duten genero hibridaziorako joeraren (Olaziregi 1998, Aldekoa 2009, Otaegi 2013) aurrekariak, zein ondorengo proiektuetarako (*HBI*, *Zeruak/ZH*) bizkar-hezur estrukturalaren zantzuak, nonbait bere horretan garatu ez zen fitxetako zirriborroan aurki daitezkeela.

Bestetik, hasiera batean modu autonomoan kaleratu baina era berean *OBB*en ere bilduko ziren bi ipuinen aurre-testuak aztertu ditugu, "Margarethe" eta "Camilo Lizardi" ipuinen makinizkribuak, hain zuzen. Lehendabizikoaren kasuan, hainbat berridazketa eta argitalpen izan zituen eta *OBB* libururako berriro berridatzi zuen Atxagak. Bigarrenari dagokionez, 1982an argitara emandako "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena" kontakizunak eta *OBB* liburuko ipuinak bat egiten dute. Narrazio horren sorkuntza prozesuaren bilakaera azaleratzeko, ordea, berezitasun nabarmenena eta esanguratsuena ipuin izaten amaituko zuen irrati-gidoiaren incipita aztertzeko aukera izan dugula izan da. Tamalez, ipuin horren incipita eta erredakzio aroaren osteko bertsio ia definitiboa besterik ez ditugu eskuratu eta beraz, ezinezkoa izan zaigu narrazioaren bilakaera genetiko osoa berreraikitzea. Edonola ere, lehen apuntearen azterketa zehatzak bi lekukotasunen artean dauden jauziak nabarmetzeko balio izan digu, aurre-testuan "Camilo Lizardi" ipuineko istorio narratiboaren muina egon arren, ipuinak azkenean hartuko duen konplexutasun mailaren beste zenbait aurrekari ez baitira hasierako incipitean ageri.

Azkenik, Atxagaren haur eta gazte literaturako lanei erreparatu eta zehazki, 80ko hamarkadako antzezlan baten idazketaren bilakaera dokumentatu dugu, eta lehen aurre-testutik talde lanaren emaitza izan zen oholtzako bertsiora lehenik eta haurrentzako argitaraturiko "Flannery eta bere astakiloak" bildumako ipuinera azkenik. Aurrez aipatu dugun bezala, *Jimmy Potxolo* ipuinak ere antzeko ibilbidea burutu zuen eta bestetik, Atxagaren haur eta gazte literaturan ere, helduei zuzenduriko literaturan ikusi bezala, sorkuntza lan askoren artean aurki ditzakegu euren arteko oihartzunak, Siberia treneko ipuinen eta astakiloen bildumako lanetan, adibidez.

Egilearen sorkuntzarako bideetan etengabeko berridazketak burutzea idazlearen oinarrizko baliabidea izanik, uste izatekoa da fikzio lanetan ere berridazketaren inguruko kontuak azaleratzea. Atxagaren lanei erreparatuz, agerikoa da *OBB*en metaliteraturak duen garrantzia. Gainera, gure zeregina fikzioko paper bilatzailearen lanarekin ere konpara daiteke, ipuineko narratzailearen gisa berean ezin izan baitugu ipuinaren azken orria aztertzerik izan. Bestalde, esanguratsua da, Olaziregik aztertu bezala (1998), *Behi euskaldun baten memoriak* lanean ere hainbat berridazketa ezkutatzen direla. Dena den, berridazketek fikzioan duten lekuari buruz ari bagara, kontakizunaren amaiera da

aipaturikoaren erakusle argiena. Mo behia, izan ere, beldur baita bere memoriak idatzi ondoren ez ote den berehala hilko eta Pauline Bernardettek emango dio irtenbidea: "Korreji, Mo! Orrazta, Mo! Apaintü, Mo! Eta hori düzü egin behar düzüna baitakoari obeditu nahi badeiozü: orain artinoko paperak korrejitü, orraztatü eta apaindü, Mo" (Atxaga 1991: 179).

Bernardetten aholku horren atzean, literatura ulertzeko kontzeptualizio bat ere erator liteke. Izan ere, lan bat burutzeak norbere bizitzaren amaiera edo heriotza ekar dezakeela iradokizten da eta horri aurre egiteko modua, idatzirikoa berridaztea da, batetik, autoritea eta berritasun gisako ideia erromatikoei muzin egin eta idazketa oro tradizioaren berridazketa dela babestuz, garrantzitsuena idazketaren prozesua bera izanik, bizirik dagoen testuak idazlea ere bizirik egotera behartuko bailuen.

Era berean, berridazketaren auziak *SS* nobela guztia zeharkatzen du. Ez soilik Atxagak ordura arte eginiko ibilbidearen *summum* bat burutu nahi zuelako soilik, fikzioari dagokionez ere agerikoa delako Daviden memoriak eta Josebak burutzen duen berridazketaren arteko auziak planteatzen dituen askotariko irakurketa mailak, besteak beste, kontaketa indibidualari gailentzen zaion kontaketa kolektiboa iradokiz –"Obabako soinujolearen semeak idatziriko hitzak ageri dira liburu honetan; berak eta adiskide izan gintuen askorenak". Antzeko funtzioa dute, azkenik, testuan bertan txertatzen diren Obabako edota Galarretako amerikanoaren inguruko berridazketek ere, narratzaile-idazlearen hitzak parafraseatuz, errealitatean gauzak fikzioan bano are tristeagoa izan zirela, alegia. Izan ere, kasu batzuetan osagarriak diren bi norabidetan gauzatzen baita Atxagaren berridazketetarako joera: berridazketak Atxagaren sorkuntza prozesuan hain garrantzizko izanik, fikzio lanetan agertzea ezinbestekoa baita.

Berretsi dugunez, Atxagaren berridazketa ariketak, edota beste hitz batekin laburbiltzeko, literatur sorkuntzaren inguruko gaiak egilearen hastapen unetik izan baitu berebiziko garrantzia bere literatur ibilbidea behar bezala ulertzeko.

5. ONDORIOAK

Doktorego tesi honetan, kritika genetikoaren ikerketa eremuak proposaturiko kontzeptualizazioa euskal literatura garaikideko lau autore kanonikoren –Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxaga– hainbat idazketa prozesuetan aztertu da. Egungo euskal literaturaren analisirako gutxitan erabili den metodologia kritiko honek idazkuntza, etengabeko sorkuntza prozesu gisara ulertzen duen heinean, irakurketa bera, egin eta berregiten den prozedura gisara ulertzen du, literaturaren kontzeptualizazio garaikidean, literaturaren sortzaile/hartzaileei esleitzen zaien rol aktiboarekin bat datorren metodologia bihurtuz. Hastapen hipotesiari jarraituz, argitaraturiko idazlan baten inguruan, idazketa prozesu horren baitako *eskuizkribu modernoak* eskuragarri izateak eta *zirriborro* eta *aurre-testu*en behaketa zorrotzak idazlanon bilakaera zedarritzea ahalbidetzen du *dosier genetikoa* osatuz eta interpretaziorako argi eta bide berriak proposatuz.

Hori horrela, lehendabiziko kapituluan kritika genetikoa ikerketa eremuaren sorrera, oinarrizko kontzeptuak, metodologia eta edizio genetikoei buruzko azalpenak bildu dira. Lehendabizi, 1.1. atalean ikermolde eraberritzailearen azterbideak eta helburuak laburtu ditugu eta behin-betiko testuari baino behin-behineko *aurre-testu*ei (Bellemin-Nöel 1972, 1977) erreparatzeak, *eskuizkribu moderno* "nozio hibridoaren" (Biasi 2011) bilakaerak eta tipologiak (Lebrave 1992), *zirriborro*en *eta dosier genetikoa*ren arteko zehaztapen terminologikoak eta idazketa aldien banaketa bezalako kontzeptuak, tresna metodologiko bikainak bihurtzen direla berretsi dugu literatur lanen analisi hermeneutikorako, aztergaiaren fokua "amaituriko" obratik idazketa prozesuaren azterketara eraldatuz, sorkuntza prozesuaren baitan idazleek dituzten gatazka, edo hautu poetikoen adierazle ere bihurtzen diren neurrian.

Atal horren hasieran ikusi dugun bezala, Louis Hayk 1979an zuzenduriko *Essais de critique génétique* obra kolektiboak berebiziko garrantzia izan zuen ikerketa eremu berritzailearen garapenean. Ez soilik *kritika genetiko* izendapena lehendabizikoz erabili zuelako edota kritika genetikoaren teoriak eta metodologiak sakontzeko ezinbesteko genetista taldea bildu zuelako (Debray-Genette, Bellemin-Nöel, Mitterrand, Brun, etab.), baizik eta hain zuzen, testu literario idatzien ekoizpenaz arduratuko den ikerketa genetikoaren definizioaren aldarrikapen zehatza egiten duelako (Hay 1979: 227). Ikuspuntu aldaketa da ikerlerro berriak proposatzen duena, hau da, egileari baino idazteari eta idazten duenari erreparatzea, idazlanari baino idazketari, egiturari baino egituratze prozesuari, eta finean, obrari baino genesiari edo ernalketari. Horrela, amaituriko obrarekin alderatuz, egin bidean den idazketa prozesuaren azterketak denboralizazioaren kontzeptua dakar berekin, eta bestetik, baita espazioarena

ere, obrarekin batera obra hori osatzeko erabilitako gainerako testu edota lekukotzak baitira orain aztergai berriak, amaituriko obra idazketa prozesuko laginekin osatuz.

Bestetik, kritika genetikoaren ikerketa eremuaren jaiotzari egotziriko kritikak ere aipatu ditugu, besteak beste, ikerketa filologikoen oinordekotzat hartu baitzen kritika genetikoa. Edonola ere, bi ikerketa eremuen azterketarako lantresnak antzekoak izanagatik ere, euren helburuetan dautza aldaketa nabarmenenak (Lebrave 1992): lehenak egilearen hastapen asmoetara atxikitzen den jatorrizko testua ezarri nahi duen bitartean, bigarrenak "behin betiko" testua kolokan jarri eta testuaren aurrekariak aztertzea du xede, idazketa prozesua nola garatu den azaleratzeko.

Era berean, egitate bat da kritika genetikoaren metodologia praxiaren ondorioz eratu zela bereziki. Ikerlari genetistek zituzten beharrizanei zenbait idazlek euren eskuizkribuekiko izan duten jarrera gehitu behar zaio, eurak izan baitziren beren eskuizkribuei erreparatu eta idazketaren sortze prozesua aintzat hartu zutenak (Victor Hugo, Flaubert, Poe, Ponge). Horrela, eta Heinrich Heineren eskuizkribuak 1968an BNF-k bereganatu ostean, Hayren gidaritzapean 1974an Centre d'Analyse des Manuscrits Modernes (CAM) sortu eta 1982an Institut de Textes et Manuscrits Modernes (ITEM) gisa birbataiatu zen. Halaber, ITEMeko lantalde bereziei eta 1992tik kaleratzen den *Genesis. Revue internationale de critique génétique* aldizkariari esker, kritika genetikoaren oinarri teoriko eta tradizio metodologiko nagusia Frantzian finkatu eta garatu den arren, ikerketa eremu hau beste herrialdeetara ere hedatu da, Alemaniara, AEBra, Erresuma Batura edo Italiara, besteak beste. Esparru hispanikoari dagokionez, *ARCHIVOS* bildumaren nazioarteko egitasmoa aipatu behar da.

Bestetik, idazketa moduen banaketa dela eta, Hayk (2002) proposaturiko "programazio bidezko idazketa vs. prozesu bidezko idazketa" binomioaren ordez, Biasik (2008) erabiliriko izendapena lehenetsi dugu: "gidoi bidezko idazketa vs. inprobisazio bidezko idazketa". Era berean, idazketa aldien banaketari dagokionez ere, Biasiren (1998, 2011) sailkapena geureganatu dugu, aurrez Arcocha-Scarciak (2008) *Literatura Terminoen Hiztegia*n aurkeztutako terminologia erabiliz: erredakzio aurreko aroa; erredakzio aroa; argitaratze aurreko aro; eta azkenik, argitalpen garaiari dagozkion idatziak.

1.2. atalean, dosier genetikoa berreraikitzeko metodologiak azaldu ditugu, bereziki Grésillonen (1994, 1996) eta Biasiren (1996, 2011) lanetan oinarrituz. Lehendabizi, eskuizkribuak dituen ezaugarri guztiei erreparatu, foliotan zenbatzeko sistemaren bidez orrialdeak *verso* eta *recto* aldeetan banatu eta zirriborroen bereizgarri intrinseko diren zirrimarra motak bereizi ditugu: besteak beste, *ezabatze-zirrimarra*; *lekualdatze-zirrimarra* eta *ordezkatze zirrimarra*. Gehiketa, kenketa, aldaera, zuzenketa eta berridazketa ekintzak xeheki bereizteko bitartekoak eskaini eta ondoren, dosier genetikoa berreraikitzeko urratsak labur azaldu dira: Corpusa zehaztu eta antolaketa kronologikoa; zirriborroen sailkapen genetika; eta deszifratzea zein transkripzioa. Transkripzioei dagokionez, Grésillonen (1994: 129-136) metodologiari jarraiki, gure tesi ikerketan transkripzio diplomatikoaren aldeko hautua egin

dugu eta horren adierazle dira eranskinetan eskaintzen diren Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*ren (3. ERANSKINA) eskuizkribuko laginak edota Atxagaren fitxak (5. ERANSKINA) zein "Camilo Lizardi"-ren ipuinaren incipit-aren (8. ERANSKINA) transkripzio diplomatikoak

Halaber, dosier genetikoa berreraikitzeak sor dezakeen ilusio teleologikoa ere auzibidean jarri dugu, idazketa prozesuan denboraren nozioa txertatzeko zirriborroen eta gainontzeko lekukotasunen sailkapen genetiko ideala egiten denean, azken lekukotasunetik abiatu eta aurreneko incipiteraino modu jarraitu batean antolatzen baitira idazkiak, eta hortik ilusio teleologikoarena. Aldiz, "téléologie plurielle" (Ferrer 2009) kontzeptuaren bidez, bilakaera teleologikoarena konbentzio edota simulazio metodologiko bat dela ondorioztatu dugu eta paradoxikoa badirudi ere, zirriborroek testu definitibo bihurtzeko xedea izanik ere, aurre-testuak ez direnez inolaz ere egonkorrak, ezta gertagarriak ere, eraldaketak izan ditzaketen gertakizunak baizik, ezin esan teleologia zurrun bati jarraitzen dietenik.

Atalaren amaieran, dosier genetikoa interpretatu ahal izateko literatur kritikako korronte nagusiak eta lan esanguratsuenen adibideak zerrendatu dira eta lehendabiziko kapituluaren amaierarako utzi dugu edizio genetikoen sailkapena eta ezaugarriak aurkeztea.

Behin kritika genetikoaren azalpen teoriko eta metodologikoak bildu ostean, euskal literatura garaikidea azterkizun izanik testu genetikan oinarrituriko lanei eta aurrekariei erreparatu diegu bigarren kapituluaren hasieran (2.1.), bereziki Pocheluren tesiaren (2010) ekarpena eta Arcocha-Scarcia, Lluch-Prats eta Olaziregik zuzenduriko *En el taller del escritor: génesis textual y edición de textos* (2010) lan kolektiboa nabarmenduz. Jarraian, argitaraturiko lanen atzean egon daitezkeen aurre-testuak identifikatzera eta aztertzera mugatu gara. Izan ere, eta doktorego tesi honetan erabili dugun bigarren hipotesiari jarraiki (2.1.3.), behin argitaraturiko lan bat ondoren etorriko den beste lan baten ernamuin, abiapuntu eta oinarri bihurtu daiteke eta halako kasuetan, aurrez publikaturiko testua idazketa prozesu berriaren aurre-testu gisa ulertu beharko litzateke. Horrela, zentzu hertsian eskuizkribu edo zirriborroak erakusgarri egin ez arren, halako bilakaera izan duten literatur lanak eraldaturiko testutzat eta ondorioz, berridazketatzat hartu beharko genituzke.

Bigarren kapituluaren 2.2. atalean testu-analisiaren lehen urratsari ekin diogu eta Gabriel Arestiren ipuinen, antzezlanen, gutunen eta nobelen arteko loturak eta sortze prozesua izan ditugu hizpide. Sakonki aztertu diren Arestiren lanak "Maria Madalen enamoratua" (1960) ipuina, *Oilarganeko etxola batean* (1962?), *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua* (1963), *…eta gure heriotzako orduan* (1964) eta *Justizia txistulari* (1967) antzezlanak eta azkenik, *Mundu munduan* (1965) nobela izan dira. Euren azterketak ondorio esanguratsuetara eraman gaitu, Arestiren ipuinen, antzezlanen eta nobelaren alderaketari dagokionez, hiru literatur generoen arteko emaitzen artean lotura estuak daudela ondorioztatu baitugu. Lotura horiek, 2.2.1. atalean burutu den analisi xehean ikusi denez, maila askotarikoak izan dira: ipuinek "ziklo antzeko" bat osatu arren (Sarasola 1979), metaliteratura

eta metafikzioaren antzeko baliabideak aurkituko ditugu Arestiren *Beste mundukoak eta zoro bat* antzezlanean ere. Eta bestetik, Arestiren ipuinetan eta antzezlanetan zenbait motibo ohikoak dira: Maria Magdalenaren pertsonaiaren agerpena, zoroaren gaia edota kokapen geografikoak (hala nola, hainbat lanetan Oilarganeko txabolei eginiko aipu errepikatuak), esaterako. Horrenbestez, lehendabiziko ondorio nagusiena ipuinetan jorraturiko hainbat ildori ("Andre Madalen enamoratua") antzerkian jarraipena eman izana (*Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua*) eta antzezlanetik antzezlanera ere tramak berridatzi izana aipatu behar da (*…eta gure heriotzako orduan*).

Idazlearen antzezlanen eta narratibaren azterketaz gain, Arestiren gutunek sorkuntza prozesuen inguruko argibideak ematen dituztela ere jabetu gara 2.2.2. azpiatalean eta *Oilarganeko etxola batean* edota *…gure heriotzako orduan* lanen datazioaren inguruan zehaztasunak gehitzeko balio dutela berretsi dugu. Edo gutxienik, aurrez aupaturiko datazioak zalantzan jartzeko, bederen. Horrela, *Oilarganeko etxola batean* edota *…eta gure heriotzako orduan* antzezlanak 1963 urtean beharrean, ziurrenik 1962an idatzi zituela esan daiteke, edo bai behintzat lan horien aurreneko zirriborroa. Alde horretatik, Arestiren eskuizkribu, makinizkribu eta zenbait obren lekukotasun ugariak ikertzeko modua izatea ere garrantzitsua izan da. Horrela dokumentatu ahal izan dugu atal berean aztertzen dugun Arestik idatziriko *Justizia cistulari* eta Leteren laguntzaz lau eskutara moldaturiko eta argitara emandako *Justizia txistulari* lanaren lekukotasun guztien eta antzezlaneko idazketaren bilakaera.

Bestetik, gure ikerketatik atera litekeen ondorio gisara nabarmendu behar genuke idazleen aurre-testu, zirriborro eta gainerako lekukotasunak lortzeko dauden zailtasunak kontuan izanik, idazleen lanak gordetzen diren artxibategi eta dokumentazio zentroek berebiziko garrantzia bereganatzen dutela. Euskal Herrian ez da, ordea, espresuki zeregin horri erantzuteko artxibo, liburutegi nazional edota bestelako erakunderik eta zoritxarrez, idazleen lan asko hortik zehar sakabanatuta daude, asko eta asko galbidean. Arestiren *Harri eta Herri*ren inguruko azken aurkikuntzak ere horren berri ematen du, berriki ganbara batean aurkitu baitira azken unean *Harri eta Herri*n barneratu ez ziren bi poemen lekukotasunak. Eta esan izan den bezala, litekeena da Arestiren aurre-testu edo zirriborro gehiago aurkitzea ere, gutunetan aipatzen dituen heinean, izan bazirelako amaitu gabeko obrak, poemak, eta bestelako idazlanak.

Gainera, Arestik gutunetan nobela bat idazteko grina behin baino gehiagotan nabarmentzen du eta baliteke, ondoren datorren 2.2.3. ataleko gure azterketan frogatu dugun bezala, *Oilarganeko etxola batean* antzezlanetik eratorririko *Mundu-munduan* nobelarako bilakaeraren arrazoi nagusia ere hori izatea. Izan ere, 1963ko sariketa batera aurkeztu baina azkenean argitara eman gabeko *Oilarganeko etxola batean* antzezlanari dagokionez, lehenik *Peccata mundi* gisa eta, azkenik, *Mundu-munduan* (1965) argitaraturiko nobelan eman zion aterabidea. Horrela, Saizarbitoriak Arestiren antzezlanak izendatzeko erabiliriko "teatro-nobela" kontzeptua moldatuz –nobela gisa irakurtzen diren antzezlanak izendatzeko, hain zuzen–, antzerki gisa irakurtzen den "nobela-teatro" gisa ere izenda

genezake *Mundu-munduan*. Esan bezala, *Oilarganeko etxola batean* antzezlana da nobelaren aurre-testua eta antzezlaneko hiru ekintzek osatzen dute nobelako gertaeren bizkar-hezurra, nahiz eta beste lau kapitulu erantsi diren. Berridatziriko lehendabiziko kapitulua besteengandik bereizten da, analepsi bidez nobelan azkenean gauzatuko den profeziaren testuingurua iragartzen baita bertan eta azken kapitulu berrian, aldiz, aurrez irekirik geratzen den kontakizunak amaiera itxi bat izango du. Hasierako antzezlanetik ondorengo nobelara egindako bilakaeren berri zehatza ere bildu dugu eta teatro lanean ez zeuden elementuak sortzerako orduan Arestiren antzerkian eta ipuingintzan ohikoak diren eta aurrez aipatu ditugun ezaugarriak baliatu direla ondorioztatu dugu: hala nola, argumentua are gehiago korapilatzeko oso esanguratsuak dira nobelan zehar barreiatzen diren metafikziozko hainbat elementu (gutunak, egunerokoaren zatiak edota aitortza idatzia, esaterako).

Jarraian, Joseba Sarrionandiren narrazio lanen eta poemarioen berrargitalpenak ikertu dira. *Narrazio guztiak (1979-1990)* (2011) bilduma aurrez argitara emandako *Narrazioak* (1983), *Atabala eta euria* (1985) eta *Ifar aldeko orduak* (1990) lanetako narrazioak zein idazlearen lehendabiziko hiru ipuinak berridatziriko narrazioekin erkatu eta aldaeren kritika burutuz, etengabeko eraldaketak agertzen dituzten berrargitalpenen atzeko bilakaera finkatu da 2.3.1. azpiatalean. Kontakizunen garapen narratiboa dela eta, *gehiketa bidezko aldaerak* dira argitalpen berrian nagusitzen direnak, eta *Narrazio guztiak* lanaren paratestuak ere aldaera nabarmenak eskaintzen ditu: hitzaurrea eta eskaintzak gehitu eta *Narrazioak* eta *Atabala eta euria* liburuko hitz-osteak ezabatu egin dira (narrazioen jatorrizko bertsioen gaineko argibideak, oharrak, datak, sorkuntza xehetasunak edota testuarteko iturriak eta eraginak ezabatuz). 2.3.2. atalean, ipuinez ipuin xeheki aztertu dira aldaera guztiak eta berretsi dugunez, ipuin gutxi batzuen izenburuak moldatu egin badira ere, epigrafeek erakusten dute aldaera gehien. Bestetik, metaliteratura eta metafikzio eraldaketek ere aparteko esanahia bereganatzen dute berridazketan, Sarrionandiaren ipuingintzako ezaugarrietako bat izanik, sorkuntzaren inguruko gogoetak ipuinaren baitan txertatuz kasu, *Narrazio guztiak*eko eraldaketa interesgarrienek ere baliabide horrekin dute lotura. Beste zenbait hizkuntza hauturen aldaera hizkera garai berrietara moldatzeko ahaleginaren ondorio direla ere berretsi da.

Beraz, agerikoa da aztertu ditugun berridatziriko ipuinen aldaerek mugimenduan dagoen testu baten berri ematen dutela. Jatorrizko testuak berridatziak izan baitira eta ez soilik esaldiz esaldi ("Figlio di cane" eta "Ukabilka" ipuinen berridazketak adibide paradigmatikoak dira), narrazioak inguratzen dituzten paratestuko elementuek ere eraldaketa asko izan dituztelako (*Narrazio guztiak*eko atalen paratestuko aldaera guztiak dira horren lekuko: eskaintzak aldatu edota gehitzea, hitz-osteak ezabatzea, epigrafe berriak, etab.), bai eta ipuinaren baitako beste hainbat elementuk ere (*Narrazioak* ataleko hainbat ipuinetan ekintzen kokalekuari eta denborari dagokionez kasu, Afrikako gerraren garaiari behin baino gehoagotan egiten zaio erreferentzia edota atal bereko "Gaueko enkontrua" eta "Amodio fantasia bat" metafizkionalki lotzen dira berridazketan, jatorrizko edizioan ez bezala).

Sarrionandiaren poesia dela eta, ikertu ditugun berridazketak *Izuen gordelekuetan barrena* (2014), *Kartzelako poemak* (2011) eta 2013ko *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)* liburuen berrargitalpen eguneratuen eskutik burutu dira. Edonola ere, Sarrionandiak bere poemen aukeraketa eta bertsio eguneratuak egiteko hautua jada 1987an erakutsi zuen *Marinel zaharrak* lanarekin, lehendabiziko poema liburuko poema jakin batzuk aukeratu, eta apur bat moldatu ondoren, poema inedito berriekin bildu baitzituen bertan (ikus 2.3.3. atala). Are, liburu hori ondorengo poemarioetako ernamuina ere bada aldi berean, bertan aurki ditzakegulako ondorengo poesia lanetako aurreneko aleak, *Gartzelako poemak (1980-1985)* atala liburu bilakatuko baita 1991ean eta "Tren luze eta bustiak" atala, aldiz, 1995ean kaleraturiko *Hnuy illa nyha majah yahoo*ko aurreneko atalaren aurrekaria delako.

Berrargitalpen eta edizio berrituen azterketaren ondotik, prozesu bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak izan dituela berretsi da. *Kartzelako poemak* liburuan, adibidez, poema argitaragabeak txertatzea da berritasun nagusiena eta aldiz, poemarioaren paratestuan aldaerak izan badira ere, aurrez argitaraturiko poema gehienek ez dute aldaerarik izan (2.3.3.2. azpitala). Aldiz, *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)* poema-liburuaren edizio berrituan, aipatu ditugun liburuko paratestuaren aldaera guztiekin batera (2.3.3.3.), obraren egiturak eta poema berridatziek ere jatorrizko bertsioarekiko hainbat eta hainbat aldaera erakusten dituzte: aurkibidearen eta atalen berrantolaketa bestelakoa da; poema askoren forma eraldatu egin da, hainbat poemen izenburuak eraldatu egin dira, epigrafe ugari gehitu eta eraldatu dira eta, azkenik, poemetako testu-eraldaketak direla eta, zenbait poema bere horretan mantendu badira ere, gainerakoetan eguneratzeren bat aurki dezakegu, eraldaketaren bat edota baita goitik beherako berridazketak ere. Azkenik, *Izuen gordelekuetan barrena*ren poemen jatorrizko bertsioan ez bezala, edizio berrian poema guztiek izenburua dute eta bestetik, izenburu, epigrafe eta eskaintza asko eraldatu egin dira. Aldaera guztiek euren berezitasunak izan arren, esan daiteke poemen etengabeko berreguneratzearen ondorioz, kasurik gehienetan poemen interpretazio hermeneutikoa erraztu edo laguntzea bilatzen dutela. Hau da, irakurle inplizituaren marka ditugula, irakurketa bat bideratu nahi duten estrategia testual gisara. Bestalde, beste hainbat aldaeretan, poema jakinek unean uneko errealitatea izendatzeko balio izan bazuten ere, errealitatea aldatzean Sarrionandiak poema eraldatzea ekarri du ("Damurik ez" poemaren "Damuaren pelikula" berridazketa, kasu).

Ondorioz, Sarrionandiarengan etengabea izan da jatorrizko poemaren baitan eraldaketak, moldaketak eta berridazketak burutzeko joera. Behin-behinekotasuna eta etengabeko bilatze ahalegin bat nabari da idazlearengan, poemak ez iraungitzeko behin eta berriz eraldatu eta eguneratu beharko balitu bezala, aldaketa baita berrargitalpenotan aldatzen ez den gauza bakarra, eite eta molde askotarikoa gainera.

Gainera, Sarrionandiaren berridazte prozesu hori zenbait itzulpenetan burutu izan duenaren oso kide edo antzeko da, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* argitalpenean egin bezala, beste autoreen

itzulitako eta berridatziriko poemekin bere poemak txertatzen baititu edota Jakak (2012) bere tesian ondorioztatu bezala, ikaragarria da Sarrionandiak itzulitako eta sorturiko lanen arteko harremana, baita itzulpenean egilearen birsortze ariketek duten garrantzia ere. Baieztapen horri, beraz, idatzi eta etengabe berridatziriko bere narrazio eta poemen arteko harremana gehitu behar diogu.

Tesiko hirugarren kapituluan 2007n berridatzia izan den Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) nobelaren azterketatik abiatu eta, idazlearen eskuzabaltasunari esker, lehen argitalpenaren aurreko 1968ko eskuizkribua aztertzeko modua ere izan dugu.

1968ko eskuizkributik 1969an argitara emandako ediziora aldaketa nabarmen asko gauzatu dira eta testuak izandako bilakaera xeheki azter daiteke. Batetik, nobelaren zirriborroan testua artean egin-bidean denaren zantzu nabarmenak aurki daitezke: hala nola, zirrimarrak, egilearen zalantza eta ezbaiak, metakomentarioak, zuzenketek duten garrantzia eta berritsuaren diskurtsoko zehazgabetasunak (3.2. azpiatala).

Gainera, nobelaren baitako bi planoen arteko erlazio-loturen auziak esanahi berezia bereganatzen du aurre-testuan, une zehatz bateko *excipit*-a zirrimarratuta ageri baita eskuizkribuan eta bertan, Gisèleren istorioa berritsuak kontatuko lukeela ematen da aditzera. Idazleak, une batean excipit hori baztertu eta bi planoen arteko bestelako lotura (edo loturarik eza) iradokitzen badu ere, Lasagabaster bezalako kritiko zorrotzen intuizioa ere azpimarratu behar izan dugu, bera izan baitzen bi planoen arteko lotura, zirriborroan une batean aditzera ematen den gisan interpretatu zuena (ikus gai honi buruz 3.2.8. azpiatalean xeheki egindako azterketa).

Bestetik, egitura mailako aldaerak txertatu dira argitalpeneko bertsioan: han-hemenka etengabe gaineratutako testu segmentuez gain, kapitulu osoak kapitulu atal luzeak eta testu atal asko erantsi dira (3.2.9. azpiatala). Halaber, eskuizkribuko elementu peritestual guztiak ezabatu egin dira. Azkenik, estilo edo forma aldetiko zehaztapenak ere gauzatu dira argitalpenean: 3. pertsonako formak 1. pertsonara moldatu dira, hikako formen aldeko hautua nagusituz gainera. Beraz, 1968ko eskuizkribuaren eta 1969ko argitalpenaren artean gutxienez beste idazketa aldi bat izan zela ondorioztatu daiteke, zirriborroa argitalpenean nolabait definitibo egingo den testutik urrun baitago oraindik.

Esan bezala, Saizarbitoriak nobela birmoldatu egin zuen 2007an eta 3.3. atala horri eskaini diogu. Izan ere, nahiz eta berridazketan erantsitako aldaketek ez duten zentzu hertsian nobelaren argumentuan eragiten, bertsio berridatzian xehetasun asko gehitu, kendu, aldatu, moldatu, egokitu, lekualdatu eta eraldatu dira: besteak beste, testuartekotasun aipuak, medikuntza arloko eta abortuarekin loturiko eguneratzeak, pertsonaien karakterizazio mailako aldaerak gehitu dira (ikus 3.3.3. atala).

*Egunero hasten delako*ren berridazketaren bilakaerarekin amaitzeko, berragitalpenean Gisèleren eta berritsuaren planoen arteko auzia ere koska bat estutu dela nabarmendu behar da, berritsuak Gisèle ezagutzen dueneko unea aditzera ematen duen eszena txertatzen baita. Horrela, idazleak auzi honen inguruko berrirakurketa eraberritua planteatzen du berrinterpretazioak egiteko aukerak ugarituz, baina orain arte eginiko interpretazioak ezeztatzera iritsi gabe. Izan ere, 1969ko nobelaren berritasun formal nagusienetako bat Gisèleren eta berritsuaren planoak intradiegetikoki ez zutela bat egiten izan zen. Irakurlearen parte hartze aktiboago bat eskatzearekin batera, ordea, irakurketa aukerak ere ugaritu egiten ziren horrenbestez, une batean Gisèle aurrez berritsuak deskribaturiko estazioko neska gisa ikusiko baitu irakurleak nahiz eta testuak ez eskaini horretarako ziurtasunik. 2007ko berridazketan, ziurgabetasun hori muturrera eramaten da eta une batean, berritsua izan daitekeen pertsonaia bat Gisèlerekin hizketan hasiko da, eta kasu honetan ere testuak ez du eskaintzen erabateko ziurtasunik pertsonaia hori berritsua izan ote daitekeen pentsatzeko, baina ezta ezeztatu ere. Beraz, 1969ko argitalpenean Gisèleren eta berritsuaren planoaren uztarketaren interpretazioa irakurleen esku geratzen bazen, 2007ko berridazketan ere halaxe gertatuko da, nahiz eta bestelako baliabide narratiboak erabili interpretazio aukerak biderkatzeko.

Beraz, *Egunero hasten delako* nobelaren berridazketa garaiko hartzaileari egokitzeko ahaleginaren ondorio dela ikusi dugu eta jatorrizko bertsiotik 38 urtera idazleak berak eginiko birmoldaketak, are, idazlearen errepetorioko *opera prima*ri balio erantsia gehitzen diola, idazleak berak bere iragan literarioa onartu eta hastapen lana gaur egunera ekartzeko ahalegina burutu baitu.

Tesiaren laugarren kapituluan Bernardo Atxagaren ibilbide literarioan berridazketek sorkuntza prozesuan izan duten ezinbesteko garrantzia nabarmendu dugu, idazlearen idazketa prozesuko berezko ezaugarri intrinsekoa baita berridazketa. Atxagak berridazketak eskaintzen dituen askotariko teknikak etengabeko sormenerako baliabide gisa erabili dituela berresteko, lehenik eta behin, argitara emaniko zenbait obretan berridazketek duten garrantzia azpimarratu dugu 4.2. atalean. Izan ere, hastapen lanetatik hasi eta molde zein genero desberdinetan baliatu ditu egileak berridazketa proposamen eraberritzaileak, berrirakurketak eta berrinterpretazioak: obra batzuk generoz mudatu dira berridazketan (*Zeruak* ikuskizun poetikoa nobela bihurtuko du); testu bera testuinguru desberdinetan txertatu da (*Obabakoak* baino lehen idatzirik zeunden hainbat ipuin nobela itxurako *Obabakoak*eko traman txertatuko dira); jatorrizkotik eginiko (auto)itzulpenak ere bertsio gisa ulertu behar dira (*Bi anai* vs. *Dos hermanos. El cuarto canto*), adibidez. Gainera, idazlearen zenbait aurre-testu eskuragarri egoteak bertsioen arteko alderaketa egin ahal izatea ere ekarri du (*Bi anai*ren zirriborro bat edota Pocheluren tesiko *Soinujolean semea* nobelako testuak).

Berretsi dugunez, berragitalpen, berridazketa eta itzulpenen bidezko bertsioei esker, sarritan hartzaile berrietara egokitzeko ahaleginak eragindako aldaerak dira. *Ziutateaz* liburuaren bigarren argitalpenerako, adibidez, esperimentalismoa apur bat lausotu eta ohikoagoa den testuingurua eta

testua eskaintzeko hautua egiten du egileak, intertituluetan pasarteetako narratzaileak zehaztuz eta, horrenbestez, hastapenetako hermetikotasuna saihestuz.

Kapituluaren hirugarren atalean, Atxagaren eskuzabaltasunari esker aurre-testu gehiago ikertzeko aukera izan dugu eta hori horrela, "Ziutateaz idatzi aurretik" bazterturiko sorkuntza prozesu baten fitxen lekukotasuna (5. ERANSKINA) edota *Obabakoak* idazten hasi aurretik idatziriko narrazioen zirriborroak aztertu ditugu xeheki 4.3. ataletan (6., 7. eta 8. ERANSKINAK). Azkenik, haurrentzako idatziriko *Logalea zeukan trapezistaren kasoa*ren aurre-testua (9. ERANSKINA) Maskaradak oholtzara emandako *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*rekin (1980) alderatu eta bukatzeko, *Italiako Zirku batean* (1987) ipuinaren bilakaera ere jaso dugu.

Azterketa horien helburu nagusia kapituluko aurreko atalean ikusirikoa sakontzea eta garatzea izan da eta Atxagaren ibilbide literarioan berridazketa ariketak sorkuntza prozesurako funtsezko bide izan direla berrestea, frogak emanez eta berridazketa horien oinarrian leudekeen arrazoi poetikoak iradokiz. Eta horretarako, ezinbestekoa izan da aurre-testuak eskuratu eta argitaraturiko testuekin harremanetan jartzea. *Ziutateaz* (1976) eta *Etiopia* (1978) lanetako Caryl Chessmani eskainitako testuek bazterturiko proiektuan aurrekari zuzena dutela berretsi dugu eta aipatu bi lan horietako testuak berridazketatzat hartu behar direla. Are, zirriborroan aurkituriko hainbat elementuk –egitura orokorrak edota motibo tematikoek, kasu– jarraipena izan dute Atxagaren ondorengo lanetan.

"OBABAKOAK-en bukatuko zen bide zalantzatiaren hasiera" aurre-testuaren multzoan (ikus 4.3.2. atala), bereziki deigarria da "Basurde zuria" izeneko *incipit*-a, hasiera batean irrati gidoi baterako eginiko hastapen oharrak kausitzen baitira bertan. Azkenean, ordea, "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkituriko gutunaren azalpena" ipuina izan zen sorkuntza prozesu horren emaitza eta narrazioko hari narratibo nagusietako baten oinarriak jada *incipit*-ean daudela berretsi dugu: Basurde zuriaren istorioaren trama, bereziki. Edonola ere, lehen apuntearen azterketa zehatzak bi lekukotasunen artean dauden jauziak nabaritzeko balio izan digu, aurre-testuan "Camilo Lizardi" ipuineko istorio narratiboaren muina egon arren, ipuinak azkenean hartuko duen konplexutasun mailaren beste zenbait aurrekari ez direlako hasierako *incipit*-ean ageri, hala nola Camilo Lizardiren gutunaren azalpena edota gutunaren beraren grafia edota Asteasuko Agirreren eraginak.

Azkenik, berridazketek Atxagak jorraturiko haur eta gazte literaturan duten balioa aztertzeko asmoz, egileak bakarrik idatziriko *Logalea zeukan trapezistaren kaso*tik, Maskaradakoekin berridatziriko *Logalea zeukan ekilibristaren kasu*ra eginiko aldaerak aletu eta bukatzeko, antzezlana ipuinaren generora eta astakiloen bildumara egokitzeko eginiko moldaketak zedarritu ditugu. Kasu honetan, ikusi dugunez, balizko hartzaile gazteen sailera egokitu beharrak bultzatutako aldaketa literarioak direla ikusi dugu.

Aurre-testu horien azterketak Atxagaren ibilbide literarioaren hastapen unetik berridazketak aintzat hartzea funtsezko berezitasuna dela berresten du eta berridazketak eskaintzen dituen askotariko baliabideetan sakontzea idazlearen sorkuntza prozesuko oinarrizko ezaugarria dela nabamerndu du.

Ikusi dugunez, hastapenetako hipotesiak bete dira tesi honetan: sorkuntza etengabeko idazketa/zuzenketa/osatze eta berridazketa prozesua dela, prozesu amaigabea berez. Euskal literaturara etorriz, lau idazle esanguratsuenen sorkuntza prozesuaren konplexutasunaz jabetu gara kritika genetikoari esker, baina ez hori bakarrik, metodologia kritiko hau tresna analitiko eta hermeneutiko bikaina bilakatu da kritikagintza lanetarako, hau da, testu analisi eta interpretazioan argibide poetiko ugari eskainiz.

6. BIBLIOGRAFIA AIPATUA

ABAROA, A. (2008): "Euskal historiaren faltsutze ironikoa", *Berria*, 2008-10-26.

AGIRRE, J. (1991): *Gizon bat bilusik pasilloan barrena*, Donostia: Erein.

AGIRRE, J. (2008): *La lutte finalle*, Donostia: Erein.

AGIRRE, J. (2009): "Nobelagintzan muga", *Gaur8*, 2009-11-06.

ALDEKOA, I. (1992): *Antzara eta ispilua(Obabakoak-en irudien mundua)*, Donostia: Erein.

ALDEKOA, I. (1996):*Iharduna eta zentzua Gabriel Arestiren poesiagintzan*, Bilbo: UPV/EHU. On-line: http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ Inaki_Aldekoa_TESIA.pdf [2015/09/21ean atzitua].

ALDEKOA, I. (1998): "Gabriel Arestiren *Maldan Behera*", *ASJU*, 32. zenb.; 435-510.

ALDEKOA, I. (1998): *Mendebaldea eta narraziogintza*, Donostia: Erein.

ALDEKOA, I. (1998): *Munduaren neurria (Arestiren ahots biblikoaz)*, Irun: Alberdania.

ALDEKOA, I. (2008): *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.

ALDEKOA, I. (2009): "Bernardo Atxagaren *Etiopia*" in A.A., *Juan Mari Lekuonari Omenaldia. Iker*. 23. Bilbo: Euskaltzaindia; 3-24

ANTZA, M. (1982): Bernardo Atxagaren (orainarteko) antzerkigintza: Inkurtsio berritzaileak" in *Susa*, 5 zenb., 1982-apirila. On line: http://andima.armiarma.eus/susa/susa0506.htm [2016/01/12an atzitua]

APALATEGI, U. (2013): *Ramon Saizarbitoria. L'autre ecrivain basque*, Paris: L'Harmattan.

ARBELBIDE, N. (2015): "Euskal munduak euskaraz guti irakurtzen du", *Berria*, 2015-12-30.

ARCOCHA-SCARCIA, A.; LLUCH PRATS, J. & OLAZIREGI, M. J. (ed.) (2010): *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*,Bilbo: UPV/EHU.

ARESTI, G (1960): "Andre Madalen enamoratua" in *Egan*, 3/6-1960 zenbakia; 182-185.

ARESTI, G (1962a): "Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Magdalenaren seme santua"in *Egan*, 4/6-1962 zenbakia; 324-348.

ARESTI, G (1962b): "Jainkoa jaio da Otxarkoagan" in *Egan*, 4/6-1962 zenbakia; 214-219.

ARESTI, G. (1964): "…eta gure heriotzeko orduan" in *Egan*, 1/6-1964 zenbakia; 207-235.

ARESTI, G. (1965): "Mundu munduan" in *Egan*, 1/6-1965 zenbakia; 186-258.

ARESTI, G. (1967): "Justizia txistulari" in *Egan*, 1/6-1967 zenbakia; 138-176.

ARESTI, G. (1973): *Lau teatro arestiar*; Donostia: Lur.

ARESTI, G. (1985): *Mundu-munduan*, Donostia: Erein.

ARESTI, G. (1986a): *Antzerkia*, Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (1986b): "Beste mundukoak eta zoro bat" in ARESTI, G., *Antzerkia*, Zarautz: Susa; 169-223.

ARESTI, G. (1986c): *Narratiba*, Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (1986d): *Artikuluak, hitzaldiak, gutunak*, Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (d.g.): [Correspondencia entre Koldo Mitxelena y Gabriel Aresti] [Manuscrito], KM fondo gordeak, Signatura: K.M. C11.

ARESTI, G. (d.g.): *Justizia cistulari bi zatitan konpondutako ancerkia* [Eskuizkribua], Xabier Leteren fondotik etorritako alea, KM fondo gordeak, Signatura: 091 Ms 95.

ARESTI, G. (d.g.): *Justizia txistulari bi zatitan konpondutako antzerkia* [Eskuizkribua], Xabier Leteren fondotik etorritako alea, KM fondo gordeak, Signatura: 091 Ms 94.

ARESTI, G. (d.g.): *Justizia txistulari bi zatitan konpondutako antzerkia* [Eskuizkribua], Xabier Leteren fondotik etorritako alea, KM fondo gordeak, Signatura: 091 Ms 96.

ARESTI, G. (d.g.): *Oilarganeko etxola batean* [Eskuizkribua], Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren fondotik etorritako alea, KM fondo gordeak, Signatura: C-381 F-14.

ARKOTXA, A. (1993): *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti*, *ASJU*, 27. zenb; 3-239.

ARKOTXA, A. (2008): "Kritika genetiko" in A.A, *Literatura terminoen hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia; 487-491.

AROCENA, E. (2000): *Gabriel Aresti: Euskal antzertian. Biola eta mailuarekin*, Azpeitia: Eugenio Arocena. On line: http://www.amarauna.org/azpeitia/antzerkia/GabrielAresti.pdf [2015/10/17an atzitua].

ARROITA, I. (2014): Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik, Bilbo: UPV/EHU. On-line: file:///C:/Users/Mikel/Downloads/TESIS_IZARO_ARROITA_AZKARATE%20(3).pdf [2015/09/25ean atzitua].

ATXAGA, B. (1976): *Ziutateaz(I)* eta *Ziutateaz(II)*, Donostia: Kriselu [Berrarg.: 1986, Erein].

ATXAGA, B. (1980): *Etiopia*, Bilbo: Pott Liburutegia [Berrarg.: 1982, Erein].

ATXAGA, B. (1980b): "Drink Dr. Pepper" in *Punto y hora de Euskal Herria*, 170 zenb., (1980 apirilak 10-17); 49-50.

ATXAGA, B. (1980c): "Margarete: Schewester Sturmischer Schvermet (Margarete: atsekabe trumoitsuzko arreba)" in *Pott Tropikala*; 57-58.

ATXAGA, B. (1982): *Camilo Lizardi erretorearen etxean aurkitutako gutunaren azalpena*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki kutxa probintziala.

ATXAGA, B. (1984a): *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1984b): *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1985): *Bi anai*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1987): *Italiako zirku batean*, Donostia: Elkar.

ATXAGA, B. (1988a): *Obabakoak*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1988b):*Henry Bengoa Inventarium*, Elkar, Donostia, 1988 [Berrarg.: 2004, Pamiela (disko-liburua)].

ATXAGA, B. (1990a): *Poemas & Híbridos*, Madrid: Visor.

ATXAGA, B. (1990b): "Sara , Zumalakarregiren zelatari" in *Antzoki iluna*, Donostia: HABE.

ATXAGA, B. (1990c): "Amazonas ibaian barrena" in *Antzoki iluna*, Donostia: HABE.

ATXAGA, B. (1990d): "Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu aurkituko" in *Antzoki iluna*, Donostia: HABE.

ATXAGA, B. (1991): *Behi euskaldun baten memoriak*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (1993): *Gizona bere bakardadean*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (1994): *Zeruak*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1995): *Zeru horiek*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (1995b): *Dos hermanos: el cuarto canto*, Madril: Ollery & Ramos.

ATXAGA, B. (1996): *Sara izeneko gizona*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (1999): *Sara izeneko gizona*, Donostia: Erein.

ATXAGA, B. (2003): *Soinujolearen semea*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (2004): *Teresa, poverina mia*, *Argia*.

ATXAGA, B. (2005): *Lekuak*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (2007): *Markak. Gernika 1937*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (2013): *Nevadako egunak*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (2014): *Txoriak kolpeka*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (2015): *Muskerraren bidea*, Iruñea: Pamiela.

ATXAGA, B. (d.g): *Bi anai* [Eskuizkribua], Xabier Leteren fondotik etorritako alea, KM fondo gordeak, Signatura: C-517 F-6.

AYERBE, M. (2006): "*Ziutateaz*-eko hiria" in *Lapurdum*, 11. zenb.; 49-57.

AZKORBEBEITIA, A. (1999a): "Hamaika hitz Bernardo Atxagaren unibertso metaforikoaz, eta bat gehiago" in A.A., *Atxaga Baionan*, Alegia: Hiria eta Egan; 119-160.

AZKORBEITIA, A. (1999b): *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat*, Bilbo: Labayru/Amorebieta-Etxanoko Udala.

BASTIDA, M. (2014): *Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat*, Donostia: Elkar.

BELLEMIN-NÖEL, J.(1972):*Le texte et l´avant-texte. Les brouillons d´une poème de Milosz,*, Paris: Larousse.

BELLEMIN-NÖEL, J.(1977): "Réproduir le manuscrit, présenter les brouillons, établir un avant-texte" in *Littérature*, nº 28; 3-18.

BELLEMIN-NÖEL, J.(1979):*Vers l'inconscience du texte*, París: P.U.F.

BEREZIARTUA, G (2012): "Zergatik atzeratu zen hainbeste Martuteneren argitalpena" in *Argia. Boligrafo gorria*-ren bloga, 2012/08/28. On-line: http://www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/2012/08/28/zergatik-atzeratu-zen-hainbeste-martuteneren-argitalpena/ [2015/11/7an atzitua].

BIASI, P.-M. de (1996): "Qu'est ce qu'une rature" in ROUGÉ, B. (arg.), *Ratures & repentirs*, Pau: Publications de l'Université de Pau; 17-47.

BIASI, P.-M. de (1998): "Qu'est ce qu'un brouillon? Le cas Flaubert" in CONTAT, M. & FERRER, D. (zuz.), *Pourquoi la critique génétique? Méthodes, théories*, Paris: CNRS Éditions; 31-60.

BIASI, P.-M. de (2000): *La génétique des textes*, Paris: Nathan.

BIASI, P.-M. de (2002): "Ajout et genèse" in BIASI P.-M. de, HERSCHBERG PIERROT, A. & NEEFS, J., *Figures d'ajout : phrase, texte, écriture*, Paris: Presses Sorbonne Nouvelle; 29-48.

BIASI, P.-M. de (2008): "Les six grandes étapes de la recherche en génétique des textes" in CRASSON, A. (zuz.), *L'Édition du manuscrit. De l'archive de création au scriptorium électronique*, Louvain-La-Neuve: Academia Bruylant; 25-46.

BIASI, P.-M. de (2011): *Génétique des textes*, Paris: CNRS Éditions.

BILLELABEITIA, M. (2008): "Mundu munduan" in KORTAZAR et al., *Euskal Literaturaren Hiztegia – Idazlanak*, Bilbo: UPV/EHU. On-line: http://www.ehu.eus/ehg/literatura/?p=880 [2015/11/6an atzitua].

CAMARERO, J. (2004): "Las estructuras formales de la metaliteratura" in IÑARREA LAS HERAS, I. & SALINERO CASCANTE, M. J. (koord.), *El texto como encrucijada: estudios franceses y francófonos*. Logroño: Universidad de la Rioja, Vol.1, 457-472.

CERQUIGLINI, B. (1989): *Éloge de la variante. Histoire critique de la philologie*, Paris: Seuil.

COLLA, F. (koord.) (2005): *Archivos. Cómo editar la literatura latinoamericana del siglo XX*, Poitiers: CRLA-Archivos.

CONTANT, M. (1996): *Pourquoi et comment Sartre a écrit Les Mots : genèse d'une autobiographie*, Paris: P.U.F.

CONTAT, M. & FERRER, D. (zuz.) (1998): *Pourquoi la critique génétique? Méthodes, théories*, Paris: CNRS Éditions.

DEBRAY-GENETTE, R. (1977): "Génetique et poétique: esquisse de méthode" in *Littérature*, nº 28; 19-39.

DEBRAY-GENETTE, R. (1988): *Métamorphoses du récit. Autour de Flaubert*, Paris: Seuil.

DUCHET, C. (1985): "Notes inachevées sur l'inachèvement" in GRÉSSILLON, A. & WERNER, M., *Leçons d'écriture. Ce que disent les manuscrits. Hommage à Louis Hay*, Paris: Minard; 241-255.

EGAÑA, I. (1999): "*Zeru horiek*: errezitalditik filmera" in Kortazar, J. (zuz.), *Egungo euskal nobela eta zinema*, Bilbo: UPV-EHU; 99-121.

ELORRIAGA, U. (2005): *Vredaman*, Donostia: Elkar.

ELORRIAGA, U. (2006): *Matxinsaltoaren belarriak*, Donostia: Elkar.

ELORZA, G. (1999): "Jerardo Elorzaren partehartzea" in *Gabriel Arestiri omenaldia. Bilbok bere seme prestuari, 1986ko Ihardunaldien Aktak*. Bilbo: Bilboko udala; 111-126.

ETXANIZ ERLE, X. (2007): *Bela Kabelatik Ternuara. Atxagaren Haur eta Gazte Literatura*, Iruñea: Pamiela.

ETXEBARRIA, A. (1986): "Mundu munduan" in *Idatz&Mintz*; 30. On-line: http://kritikak.armiarma.eus/?p=3845 [2015/11/6an atzitua].

ETXEBERRIA, H. (2002): *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Irun: Alberdania.

FERRER, D. (2007) [1994]: "La toque de Clementis: rétroaction et rémanence dans les processus génétiques", *ITEM*. On-line: http://www.item.ens.fr/index.php?id=14030 [2014/08/10ean atzitua].

FIORMONTE, D. (2003): *Scrittura e Filologia nell'era digitale*, Torino: Bollati Boringhieri.

FIORMONTE, D. (2010): "La representación digital de la génesis del texto. Un caso práctico" in ARCOCHA-SCARCIA, A., LLUCH-PRATS, J., & OLAZIREGI, M. J. (ed.), *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*,Bilbo: UPV/EHU.

GABILONDO, J. (1994): "Obabera" in *Hegats*, 8. zenb.; 47-53.

GARTZIA TRUJILLO, S. (2008): "Bitorino Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* poema liburuaren metamorfosia" in A. A, *IKER 21 Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia; 177-210.

GARZIA, J. (1990): "*Obabakoak*-en itzulpenaz" in *Senez 9*, 13-24.

GENETTE, G. (1987): *Seuils*, Paris: Seuils.

GERRIKAGOITIA, A. (2009): "Sortze-prozesuak euskal literaturan", *Oihenart*, 24. zenb.; 135-200.

GRÉSILLON, A. (1994): *Éléments de critique génétique. Lire les manuscrits modernes*, París: P.U.F.

GRÉSILLON, A. (1996): "Raturer, rater, rayer, éradiquer, radier, irradier" in ROUGÉ, B. (arg.), *Ratures & repentirs*, Pau : Publications de l'Université de Pau; 49-60.

GRÉSILLON, A. (2007): "'Nous avançons toujours sur des sables mouvants'. Espaces et frontières de la critique génétique" in GIFFORD, P. & SCHMID, M. (zuz.), *La création en acte. Devenir de la critique génétique*, Amsterdam-New York: Rodopi; 29-40.

GRÉSILLON, A. (2008): *La mise en œuvre. Itinéraires génétiques*, Paris, CNRS Éditions.

GRÉSILLON, A. (2009): "Qu'est-ce que la génétique? Aide-mémoire et propositions théoriques" inDANDREY, P. (arg.), *Génétique matérielle, génétique virtuelle. Pour une approche généticienne des textes sans* archives, Québec: Les Presses de l'Université Laval, 11-17.

HAY, L. (1994): "Critiques de la critique génétique", *Genesis,*n°6, 1994, 11-23.

HAY, L. (2002): *La Littérature des écrivains. Questions de critique génétique*, Paris: José Corti.

HAY, L. (2007): "Critique génétique et théorie littéraire: quelques remarques" in GIFFORD, P. & SCHMID, M. (zuz.), *La création en acte. Devenir de la critique génétique*, Amsterdam-New York: Rodopi; 13-27.

HAY, L. (zuz.) (1979): *Essais de crítique génétique*, Paris: Flammarion.

HERNÁNDEZ ABAITUA, M. (1996): *Ahotsak*, Donostia: Erein.

HERNÁNDEZ ABAITUA, M. (2001): *Ohe bat ozeanoaren erdian*, Donostia: Erein.

HERNÁNDEZ ABAITUA, M. (2008): *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*, Bilbo: UPV/EHU.

HERSCHBERG PIERROT, A. (2012): "Du style des manuscrits aux styles de genèse" in BIKIALO, S.&PÉTILLON, S., *Dans l'atelier du style. Du manuscrit à l'oeuvre publiée*, Rennes: Presses universitaires de Rennes; 43-60.

IBARGUTXI, F. (2013): "Hemen Marx asko eta Freud gutxi izan dugu. Hortik gure konbentzionalkeria" in *El Diario Vasco*, 2013/12/23. On-line: http://www.diariovasco.com/v/20131223/cultura/hemen-marx-asko-freud-20131223.html [2016/01/08an atzitua]

IBARLUZEA, M. (2015): "The Translation Habitus of Contemporary Basque Writers" in *Estudios de Traducción*, vol. 5; 59-75.

JAKA, A. (2012): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, *IKER*, 28, Bilbo: Euskaltzaindia.

JIMENEZ, E. (1990): "Izkiriaturik aurkitu ditudan nire ipuinak" in *Egin*, 1990-05-01.

KORTAZAR, J. (2001*): Oroimenaren eszenatokiak. Pott bandaren poesia*, Bilbo: Labayru-BBK.

LANDA, J. (1982): "*Ziutateaz* eta *Etiopia*: obsesio berdinez eraikitako bi unibertso", in *Susa*-5; 33-43. On-line: http://andima.armiarma.eus/susa/susa0507.htm [2015/12/12an atzitua]

LANDA, J. (1990): "Trajedien kronika klabe minorrean" in *Argia*, 1990-04-20.

LANDA, K. (1985): "Hitzaurrea" in Aresti, G., *Mundu munduan*, Donostia: Erein; 7-10.

LASAGABASTER, J. M. (1979): "Bigarren edizioaren hitzaurrea" in SAIZARBITORIA, R., Egunero hasten delako, Donostia: Hordago; 5-19.

LASAGABASTER, J. M. (1989): "La novela vasca al borde de la realidad" in A.A., *Congreso de Literatura. II Congreso Mundial Vasco*, Madrid, Castalia; 319-346.

LASAGABASTER, J. M. (1997): "Funtzionatzen duen testua" in SAIZARBITORIA, R., *Ehun metro*, Erein; 115-120 [1986].

LEBRAVE, J. L. (1992): "La critique génétique: une discipline nouvelle ou un avatar moderne de la philologie?" in *Genesis*, nº 1, Paris; 33-72.

LEFEVERE, A. (1992): *Translation, Rewriting and the Manipulation of Literary Fame*,Londres: Routledge.

LEJEUNE, P. & VIOLLET, C. (zuz.)(2000): *Genèses du "je". Manuscrits et autobiographie*, Paris: CNRS Éditions.

LEKUONA, J.M. (KORTAZAR, J. & KORTAZAR, P., ed.)(2008): *Ibaiak basamortuan*, Bilbo: UPV/EHU.

LEVAILLANT, L. (1982): *Ecriture et génétique textuelle: Valéry à l'oeuvre*, Lille: Presses universitaires de Lille.

LLUCH-PRATS, J. (2009): "Las variantes de autor en el proceso genético y editorial del texto literario contemporáneo" in *Lapurdum*, 13. zenb.; 233-244.

LLUCH-PRATS, J. (2010): "Los estudios de génesis textual" in ARCOCHA-SCARCIA, A.; LLUCH PRATS, J. & OLAZIREGI, M. J. (ed.), *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*, Bilbo: UPV/EHU; 19-54.

LOIS, É. (2001): *Génesis de la escritura y estudios culturales. Introducción a la crítica genética*, Buenos Aires: Edicial.

LOIS, É. (2005): "De la filología a la genética textual. Historia de los conceptos y las prácticas" in COLLA, F. (koord.). *Archivos. Cómo editar la literatura latinoamericana del siglo XX*, Poitiers: CRLA-Archivos; 43-83.

LOIS, É. (2012): "Los estudios de crítica genética en el campo de la literatura hispanoamericana" in VAUTHIER, B. & GAMBA CORRADINE, J., *Crítica genética y edición de manuscritos hispánicos contemporáneos*, Salamanca: Universidad de Salamanca; 45-64.

LOPEZ GASENI, M. (2005): *Autoitzulpena euskal haur eta gazte literaturan*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

LOPEZ GASENI, M. (2006): "Intra-testuartekotasuna" in *Behinola*, 16, 2007; 49-50.

LOPEZ GASENI, M. (2009): "Ramon Saizarbitoria" in KORTAZAR et al., *Euskal Literaturaren Hiztegia – Idazleak*, Bilbo: UPV/EHU. On-line: http://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=840 [2015/10/19an atzitua].

MALAGON, A. (2014): *Lasai, ez da ezer gertatzen*, Donostia: Elkar.

MALAGON, A.: http://samulasaitasuna.tumblr.com/ [2015/11/14an atzitua].

MANTEROLA, E. (2014): *Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan*, Bilbo: UPV/EHU.

MENDIGUREN, X. (1994): *Ipuin bakanak*, Donostia: Elkar.

MITTERAND, H. (1979): "Programme et préconstruit génétiques: le dossier de *L'Assommoir*" in HAY, L. (zuz.), *Essais de crítique génétique*, Paris: Flammarion; 193-226.

MITTERAND, H. (1986): *Carnets d'enquêtes*, Paris: Plon.

MITTERAND, H. (1989): "Critique génétique et histoire culturelle : les dossiers des Rougon-Macquart" in HAY, L. (zuz.), *La Naissance du texte*, Paris: José Corti; 147-162.

MITXELENA, K. (1979): "Gabriel Aresti eta 'Egan'" in ARESTI, G., *Ipuinak*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala; 11-16.

OKARIZ, L. M. (2012): "Todos somos moros de alguna manera" in *Deia*, 2012-12-2.

OLAZIREGI, M. J. (1997): *Literatura eta irakurlea, testu estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*, Bilbo: EHU/UPV. On-line: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MARIA_JOSE_OLAZIREGI.pdf. [2015/12/03an atzitua].

OLAZIREGI, M. J. (1998): *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Donostia: Erein.

OLAZIREGI, M. J. (2000): *Euskal eleberriaren historia*, Bilbo: Labayru/Amorebieta-Etxanoko Udala.

OLAZIREGI, M. J. (2001): *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, Bilbo: Labayru/BBK.

OLAZIREGI, M. J. (2005): "Paradisua… hemen" in *Landázuri elkartea*, 11-12-13. zenbakiak. On-line: http://www.landazuri.com/revistas/landazuri_8301219232006.pdf [2016/01/10 atzitua].

OLAZIREGI, M. J. (2009): "Testuak mugimenduan. Iruzkin laburrak egungo euskal literatur lan zenbaitez" in *Lapurdum*, 13. zenb.; 289-295.

ORIOL-BOYER,C. (zuz.)(2003):*Critique génétique et didactique de la réécriture: travailler avec les brouillons d'écrivains*, Paris: Bertrand-Lacoste.

OTAEGI, L. (1999): *Bernardo Atxaga. Egilearen hitza*, Bilbo: Labayru/BBK.

OTAEGI, L. (2000): *Joseba Sarrionandia. Marinel zaharraren kantua*, Bilbo: Labayru Ikastegia/BBK.

OTAEGI, L. (2013): "Distopia eta paradisua Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren *Etiopia* makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak" in *Lapurdum*, 13. zenb.; 187-199.

OTAMENDI, J.L. (2011): "Ezikusia egin ote dakioke itsasoari?" in SARRIONANDIA, J., *Kartzelako poemak*, Zarautz: Susa.

PASTOR PLATERO, E. (koord.) (2008): *Genética textual*, Madril: Arco.

PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA (2014): "Bernardo Atxagak sara izeneko gizona berritu du" in *Lehiotik*, 40. zenb.; 7-9.

POCHELU, J. (2004): "Testuen genetika. Lau dosier genetikoren azterketa, Eñaut Etxamendi-ren testu argitaragabe batzuen trapuetan oinarriturik" in *Euskonews*, nº 269. On-line: http://www.euskonews.com/0269zbk/gaia26904eu.html [2014/10/12n atzitua].

POCHELU, J. (2005): "Etude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxamendi" in *Lapurdum*, 10. zenb.; 331-336.

POCHELU, J. (2006): "Où on parle (toujours) de génétique textuelle…" in *Lapurdum*, 11. zenb.; 305-309.

POCHELU, J. (2009): "Aldakiak eta aldaerak: Atxagaren Obabako amerikanoa" in *Lapurdum*, 13. zenb.; 297-303.

POCHELU, J. (2010):*Etude d'un dossier génétique fragmentaire: Réécriture. Ecriture. Désécriture dans* Le fils de l'accordéoniste *de Bernado Atxaga*, Michel de Montaigne-Bordeaux 3, Doktorego tesia (argitaragabea).

PONGE, F. (1971):*La Fabrique du Pré*, Genève: Albert Skira.

RABELLI, A. (2011): "Sarrera. Gaurko ipuingintzaren historia. 1983/2003" in KORTAZAR, J. (zuz.), *Egungo ipuingintzaren historia*, Bilbo: UPV/EHU; 13-116.

RODRIGUEZ MARTIN, E. (2013): *Joseba Sarrionandiaren "Lagun izoztua" eleberriko hiru itsasoak Irakurketa proposamen bat*, Bilbo: UPV/EHU. On-line: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eider_Rodriguez_TESIA.pdf [2015/09/21ean atzitua].

SAIZARBITORIA, R. (1969): *Egunero hasten delako*, Donostia: Lur [Berrarg.: 1979, Hordago; 1982, Erein; 2000, Edizio berritua; 2007, Poltsiko edizioa].

SAIZARBITORIA, R. (1973): "Hitzaurrea" in ARESTI, G.: *Lau teatro arestiar*, Donostia: Lur; 5-13.

SAIZARBITORIA, R. (1995): *Bihotz bi. Gerrako kronikak*, Donostia: Erein.

SAIZARBITORIA, R. (1995): *Hamaika pauso*, Donostia: Erein.

SAIZARBITORIA, R. (2000): "Bi bihotz. Hilobi bat" in *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein.

SAIZARBITORIA, R. (2000): *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein.

SAIZARBITORIA, R. (2003): "Hemen nago, liburuz inguratuta, zutaz pentsatzen" in A.A., *Begiz jotako ipuinak*, Irun: Alberdania.

SAIZARBITORIA, R. (2007): "Hitzaurrea" in *Egunero hasten delako*, Donostia: Erein; 7-21.

SAIZARBITORIA, R. (2012): *Martutene*, Donostia: Erein.

SAIZARBITORIA, R. (2015): *Lili eta biok*, Donostia: Erein.

SAN MARTIN, J. (1986): "Aresti zenaren 'Mundu munduan' eta lan argitaragabeak" in *Egan*, 5/6-1986 zenbakia; 81-83.

SARASKETA, M. (1984): "Literatura, bizitzeko modua besterik ez da" in *Argia*, 1984ko ekainaren 24a. On-line: http://bbk.armiarma.eus/linterna/sarri.htm [2015/01/10ean atzitua].

SARASOLA, B. (2015): *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*, Bilbo: Labayru/ Amorebieta-Etxanoko Udala.

SARASOLA, I. (1969): "Hitz-aurre" in SAIZARBITORIA, R., *Egunero hasten delako*, Donostia: Lur; 3-11.

SARASOLA, I. (1975): *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)*, Donostia: Kriselu.

SARASOLA, I. (1979): "Gabriel Aresti ipuinlari" in ARESTI, G., *Ipuinak*, Donostia : Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala; 7-10.

SARRIONANDIA, J. (1979): "Luigi Anselmi: figlio di un cane" *in POTT bandaren praka. On-line: http://andima.armiarma.eus/pott/pott0510.htm [2014/12/19an atzitua].*

SARRIONANDIA, J. (1980a): "Maggie indazu kamamila" *in Xaguxarra*, 1; 21-30.

SARRIONANDIA, J. (1980b): "Ez gara abereak baino dohatsuago", *Egin*, 1980. On-line: http://bbk.armiarma.eus/linterna/narra010.htm [2014/12/22an atzitua].

SARRIONANDIA, J. (1981a): *Izuen gordelekuetan barrena*, BILBO: BAK [Berrarg: 2014, Iruñea: Pamiela].

SARRIONANDIA, J. (1981b): "Enperadore eroa" in *Cuentos incombustibles. I Concurso de Cuentos del Ayuntamiento de Bilbao*, Bilbo: Bilboko udala; 101-105.

SARRIONANDIA, J. (1982): "Maggie indazu kamamila!" *in Concurso de cuentos Premio "Ignacio Aldecoa 1980-1981*, Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia; 75-88.

SARRIONANDIA, J. (1983): *Narrazioak*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J. (1982): "Maggie indazu kamamila" *in 23*, Donostia: Hordago; 163-173.

SARRIONANDIA, J. (1985): *Atabala eta euria*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J. (1985): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Iruñea: Alberdania [Berrarg: 2006].

SARRIONANDIA, J. (1987): *Marinel zaharrak*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J. (1988): *Marginalia*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J. (1988): *Marginalia*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J.(1990): *Ifar aldeko orduak*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J.(1992): *Gartzelako poemak*, Zarautz: Susa [Berrar: *Kartzelako poemak*, 2011].

SARRIONANDIA, J.(1995a): *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)*, Donostia: Elkar [Berrarg.: 2013].

SARRIONANDIA, J.(1995b): *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Donostia: Erein.

SARRIONANDIA, J. (1998): "Enperadore eroa" in MENDIGUREN ELIZEGI, X. & IZAGIRRE, K., *Euskal literaturaren antologia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa*, Donostia: Elkarlanean; 285-288.

SARRIONANDIA, J. (1999): *Hau da ene ondasun guzia*, Tafalla: Txalaparta/Esan ozenki.

SARRIONANDIA, J. (2004): *Akordatzen*, Tafalla: Txalaparta.

SARRIONANDIA, J. (2010): *Moroak gara behelaino artean?*, Iruñea: Pamiela.

SARRIONANDIA, J.(2011): *Narrazio guztiak (1979-1990)*, Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, J. (2013): *¿Somos como moros en la niebla?*, Iruñea: Pamiela.

SEGRE, C. (1995): "Critique des variantes et critique génétique" in *Genesis*, nº 7; 29-45.

E. E. (2015): "Heriotzaz eta presagioez mintzo da *Txoriak kolpeka* (Pamiela) liburuan", *Hitzen Uberan*, 2015-01-23. On-line: http://uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/bernardo-atxagari-elkarrizketa# [2016/02/04n atzitua]

URIBE, K. (arg) (2001): *Azken aldiko euskal narratiba: sortzaileak eta irakurleak,*Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

URIBE, K. (2008): *Bilbao-New York-Bilbao*, Donostia: Elkar.

WAUGH, P. (1984): *Metafiction. The Theory and Practice of Self-Conscious Fiction*, New York: Methuen.

WILLEMART, P. (2007)[1995]: "De quel inconscient parlons-nous dans le manuscrit?" *ITEM*. On-line: http://www.item.ens.fr/index.php?id=172734 [2014/08/25ean atzitua].

ZABALA, J. L. (2003): "Poesiaren borroka erretorikaren eta estereotipoaren aurkakoa da beti", *Berria*, 2003/12/13.

ZABALA, J. L. (2014): "Liburu bakar baten egileari", *Berria*, 2014/10/10.

ZALDUA, I. (2005): *Animalia disekatuak*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

ZALDUA, I. (2007): "Anchorage", *Berria*, 2007-08-05.

ZALDUA, I. (2008): *Euskaldun guztion aberria*, Irun: Alberdania.

ZALDUA, I. (2010): "Azken finean, ipuinlaria naiz konbentzituta nagoelako ipuina genero nagusia dela literaturan", *111 Akademia*, 2010/11/09: On-line: http://www.111akademia.com/kilkerren-soka/item/606-iban-zaldua-azken-finean-ipuinlaria-naiz-konbentzituta-nagoelako-ipuina-genero-nagusia-dela-literaturan.html [2015/09/02an atzitua].

ZAPIAIN, M. (2015): *Saizarbitoria eta iragana*, Zarautz: Susa.

ZELAIETA, A. (2000): *Gabriel Aresti biografia*, Zarautz: Susa.

ZUBIKARAI, A. (1999): "Azaleko irizpide bat" in *Gabriel Arestiri omenaldia. Bilbok bere seme prestuari, 1986ko Ihardunaldien Aktak*. Bilbo: Bilboko udala; 101-103.

7. ERANSKINAK

7. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

Sr. D. Luis Mechelena
C/. de Arriba, nº 6
RENTERIA (Guipuzcoa)

Llodio, 17 de Enero de 1.963

Muy Sr. mio:

Mucho agradecería a Vd. que no proceda a la publicación en la revista "Egan" de los originales que le hice entrega el otro día, el poema dedicado a Jorge Oteiza y los versos de "El Secretario de Astepe", por haber encontrado una mejor posibilidad de publicación, ya que estando en tratos con la Editorial Icharopena para la publicación de un libro, quisiera incluirlos en el mismo y me exigen que todo sea inédito.-

De todas formas puedo ofrecerle cualquiera de mis dos comedias inéditas: "En la hora de nuestra muerte" y "Una chabola en Ollargan". Vd. me dirá.-

Reciba un cordial saludo

G. Aresti

Llodio, 3 de Julio de 1.964.-

Sr. D. Luis Michelena, Rentería.-

Muy apreciado amigo mío:

No sé por qué endiablada razón hemos de escribirnos en la lengua de Cortinete, pero ya que así empezó así siga. Le escribo la presente para enviarle copia de carta que con esta fecha envío a los Sres. Zubicaray, Onaindia, Artola y Lekuona. Es mi opinión que, por lo menos en la Academia, debíeramos adoptar este u otro sistema parecido de votaciones, ya que si no en las decisiones internas de la Academia, cosa que sería muy de desear, sí por lo menos en lo que a concursos literarios (también de versolaris), se refiere.

Aprovecho la oportunidad para inquirir de Vd. noticias sobre la eventual publicación de la comedia mía que obra en su poder, ya que Vd. me dió a entender)o así lo entendí yo), que la iba a publicar en el pasado número de EGAN. La publicará en el próximo? Por favor, dígamelo claramente, para si no, buscar otra solución, ya que esta es una comedia para ser leída.

Supongo que habrá de alguna manera llegado a sus manos algún ejemplar de un libro de me acaban de publicar en Icharopena, bajo el título de PIEDRA Y PUEBLO. Si no lo conoce dígamelo para que con mucho gusto le envíe un ejemplar. Si lo conoce le rpgaría un coemntario o crítica, sincera y exhaustiva, tan profunda como las que hizo de la Iliada o del Idaztuena, para bien o para mal.

Ya seé que no le gusta que le vayan con coplas, pero es favor que espero recibir de Vd.

Sinceramente le ringracio,

Gabriel Aresti

San Sebastián, 7 de julio de 1964.

Sr, D. Gabriel Aresti

Bilbao

Querido amigo:

He recibido la suya, con la copia adjunta. A mí, personalmente, me parece perfectamente bien que haya un modo fijo de fallar en los innumerables concursos a que estamos sometidos. En principio, también, me parece bien la suya, aunque no he considerado en detalle sus diversos aspectos. En todo caso, me parece mejor tener un modo establecido, aunque deficiente, que improvisar en cada caso.

En el que nos ocupa, sólo puedo someter su proyecto a la Academia en la próxima reunión, a finales de este mes. Esto, que es lo único que está en mi mano, lo haré con el mayor placer, porque está de acuerdo con mi propia manera de pensar.

Tengo en este momento delante las pruebas de su "tragedia cristiana" que, si las quiere ver, se las mandaré con mucho gusto. No fue en el último número, porque llegó el ladrillo euripídeo-zaiteguiano y ya estaba bien para una vez: de teatro quiero decir, no de pelmada. En atención a las circunstancias personales, me pareció mejor dar prioridad a los ausentes, con daño de los presentes.

Cuando leí su tragedia, no me pareció demasiado escandalosa: quiero decir, no demasiado escandalosa para ser una obra de V.

dada la palabra, saldrá, aunque con ello desaparezca Egan.

He leído, como no, su PP o HH y hasta los comentarios que viene suscitando. Ya tenía pensado hacer esa crítica o comentario extenso. En líneas generales, como ya se habrá figurado, estoy a favor, por muchas razones, algunas de ellas totalmente extrapoéticas. Si yo rezara, perdón, si fuera presidente o miembro de algún consejo de administración, estaría seguramente en contra.

Para Egan me gustaría además publicar algo suyo, además de la obra de teatro. Aquí, entre papeles diversos, hay varias cosas en verso, que reseño: "Jenioen liburutik" y "Nire graziatik", y además la traducción de tres poemas de Musset.

Hay alguna cosa de éstas, u otras, que le pareciera bien publicar? A mí, con la aparición de su libro, me parecería oportuno incluir incluso una especie de selección de cosas de distintas épocas de su producción. V. me dirá si se puede hacer algo o qué se puede hacer.

Cordialmente,

P.S.- No suelo pedir libros, pero me gustaría mucho tener un ejemplar de HH con dedicatoria, aunque sea insultante.

2. ERANSKINA

MUNDU O

GABRIEL ARESTI ETA SEGUROLA

P E C C A T A

M U N D I

****

Agorako 1.964 Gipuzkoa premiora

presentatzeko nobela laburra.-

****

Egilearen adreza:

Calle General Davila, 20-3º

B I L B A O

****

Oharra: Lan hau, Mundu-munduan irenez argitaratu zen Egan aldizkarian. Lehenik, Toribio Alzaga antzerki sarira aurkeztu zen eta gero Agora sarira eleberri gisa.
Ikus, Egan, 1965, 1-6 zenb., 187-258 orr., eta irakur

O N A R R A !

Irakurleak eztezan atentziorik gal, orain banan-bana aipatuko ditugu nobela honetan mintzatzen diren solastariak:

Joko Amiskutsuak kapituluan:

Bost haurrak:

Miramamolin, Kordobako kalifa (Petri Mota).
Fatima (Joana Mendia), eta
Zoraida (Tereza Urresti), haren emazteak.
Antxo Nagusia Nafarroako erregea (Josepe Zufia)
Iruineko borreroa (Eztebe Mendia).

Pederasta erren bat.

Zerutik Sua eroriko da kapituluan:

Josepe Zufia, taferna bateko jabearen semea.
Tereza Urresti, haren maitalea eta tafernako neskamea.
Hernando Zenarro, tafernako morroia.

Famili-biltzarra kapituluan:

Josepe Zufia.
Eztebe Mendia apaiza, haren kuinatua.
Andere Zufia, Joseperen aita eta tafernako jabea.
Katalin, haren emaztea eta Joseperen ama.
Neskame bat.

Holofernesik gabeko Judit kapituluan:

Hernando Zenarro.
Tereza Urresti.
Bazkoarem Arrona, etxola bateko xxxxxxx jabea.
Eneko, haren semea.
Haur jaio berria.
Arratoia.

Nebarrebartean kapituluan:

Eztebe Mendia.
Joana Mendia, haren arreba eta Joseperen emaztea.

Bihurrerarik eztuen ordua kapituluan:

Hernando Zenarro.
Tereza Urresti.
Josepe Zufia.
Bazkoare Arrona.
Eneko Arrona.
Ruiztegi polizia.
Donostiako soldado bat.

Kontuak gurtiok pasatu behar dituzu kapituluan:

Josepe Zufia.: JOKO ARRIESKUTSUAK

Eztebe Mendia.

Paulo Amantegi pederasta kondenatua.

Petri Motzen espiritua.

Basaiberko herrian gaude. Egok ostu Basaiberko herria ezagutzen? Inork ez. Mundu guztia Basaibarko herria nun dagoen entera da jin, Gernikatik Karkiasera dom kan zoaren ondoan ostatuela seamen dugu.

Oraindik ostoge Kopainian gerrarik, baina Alemanian jakintsu batzuek ariotarren artean nola sajora liteken estudiatzen dute. Bitartean demokraziak negozio zikinetan komprometitzen dira, eta burdinazko gortinaren atzean herri digunteak gogorki lan egiten du.

Baina gurtu honek guri ostigu zuzla. Gu Basaiberko herritan gaude, Arkaitz sigristin konpan. Bastina eta agurra atzenitzeko ar-kolatiak dauden lekuan, paradisu bat ikusi nahi dugu, herri hau zuk ezagutzeko ostinduko duen mendabala hurbil dagoela konturatu gabe.

Bertan hamarrek, oraindik maliziatu gabeko hamarrek, ongieren eta gaizkiaren artean bereizten ostzhitzen hamarrek, hamar errugabeak, hamar inozentek, hamar ankerrek, jokotu, olgatu eta destatu egiten dute. Joko arriskutsuak dira; baina zertzi urte oraindik bete gabeko hamarren joko arriskutsuak debekatzeko modurik ostu oraindik ezein lege-ezaleak asmatzen.

Gure hamarrak host dira, hiru mutiko eta bi neskatila: Josepe, zaspi urte; Petri eta Joana, bolna urte; Eztebe, bost urte, eta Teresa, lau urte eta erdi. Eztebe eta Joana nebarrebak dira. Petriri, Motz, Petri ,ots deitzen dio amatu gurtiak, baruan hilorik eta aurpegian ez bapururik ez bitilerik ernadukaleko, baren aitona batek karlistada batean gifilie bategatik prima gurtzeri utzirikako herentzia.Ordutzetik, baren familiako gizon guztiak gorpua guztiun tilcren ostarrunik are ostaiukatzela jaiotzen dira mundura eta hiltzen dira mundutik.

Hamarrak, asfari batean oraindik zapaldu gabeko oihanetik zuzart ateratzen diren ihistarien modura, herritik atera dira basora, eta orain, etxetik hurbilenetik kilometro batera daude. Pinudi batean daude, eta olgatzen dauden lekutik hamar metrora leiza ariende handitegi batako ahora izugarria igartzen da.

"Hire aitonak azken karlistadan burrukatu zuen", dio Petri Motzek.

"Euskaldunen alde ala gaztelarren alde", galdetzen dio Eztebek.

"Eztakit. Txapel gorria ozen zeraman."

"Orduan," esaten da Josepe, "ailoen alde burrukatu zuen. Oiar batzen ontza edukiko zuen."

Petri Motz haserretzen da

3. ERANSKINA

Diagrama oral.

EGUNERO
HASTEN DELAKO...

EGONERO HASTEN DELAKO

HITZ AURREA.

Orain illebete batzuek direla, nobela bat eskribitzen asi nintzen; betiko lehendabiziko nobela autobiografikoa. Aspertu egin nintzen. Neramakien mortxan, ainbeste gai ikuritu nahirik, triloji bat ateratzo jitzaidan bilduorrez utzi egin nuen.

~~Orain~~, Etsamin bat bukatu ondoren, amabost egunetako bakazioak, oraingo hau egiteko beta heman dute. Egia esan bukatzeko ilusio handirik gabe eta seriotasunik gabe ekin diot landari.

Irakurriko duzuten ez da nobela bat ezta ensaio liburu bat ere. Ez dakit zer den (hobekiago esan ez dakit zer atera zaidaten). Tratatzen dutan problema ez da berria ezta tratatzeko era ere. Ez da zaila izanen presa eta inesperientzia nabaitzen.

Tolerantzi apur bat besterik ez dizuet eskatzen eta barkamena nire lehendabiziko liburua, jolasean egin dutalako.

Gisèle'ri : (?)
Guissele'ri:

Egunero hasten den bizitzan irauntzeko
hain beharrezko diren
eguneroko ilusioa eta itxaropena
opa dizkizut...

Abortatzea kriminena bada.
Zergatik ez dute legala den herrietako
Katolikuek (gutxienez) kriminaren legalizazioaren
kontra, rebolizioa egiten ...?

(1)

* Ziur naiz bein baino gehiagotan neskatoren bat ikusi izan duzula maleta bat eskuan, edozein estazioetan, trenen bateri itxoiten. Asko ikusten dire. Batzuetan pentsatu izan dut "Protection de la jeune fille"k inpakto egiteko, propaganda bezala ez ote dituen jartzen. Ni kunkitu egiten naute; haur bat jotzen ikustea eta hori, neska gazte bat maleta batekin bakarrik trenari itxoiten, gehien tristatu nauten bi gauzak direla uste dut. Zeren eta neska horren destinoa tren horrek ekarri eta eramango duela pentsatzen bai dut, nahi ez izanik ere.

Egiten ditut bai bestelako reflexioak "Ama ikustera joanen duk," edo egun batzuk Rieunes' era alaiki pasatzera". Bainan ez, azkenean derrigorrezko ~~dut~~ zait abandonatutako neskato bat dela pentsatzea eta tren horrek bere gal lekura eramanen duela.

Zertan fundatzen naizen hori pentsatzeko? Ezertan ere ez. Nire esperientzieri kasu eginaz, kontrako arrazoia izanen litzake lojikuena. Zeren eta ni, gazte urteak joan bazaizkit ere, maleta batekin estazioetan bakarrik dauden neskekin amistadea egiten espezialista bat naiz. HOgei gutxienez izanen dire zirkustantzi horietan ezagutu ditudanak eta ez dut izan baserik nigan sentimentu hori, intuizio beltz hori gordetzeko.

Gehienak, ~~[illegible]~~, kasu bakarren bat izik, neska sanoak ziren, guraso pare batekin eta estudiatzera edo libertitzera zijoazenak, zijoazen lekura. Gainera neska batek suizidatzeko asmoz, Rieunes'eko trena hartuko lukela pentsatzea - suizidioa destinoaren joku txarrena bezala hautatuz - ez da lojikoa; zeren eta hori dagoen lekuan

egingo luke gehiagorik gabe, bestalde kapritxu hori ijanik ere ez luke maletaren beharrik ijahen.

Bainan zer nahi duzu? Ni horla naiz eta dagonezkero ezin aldatuko naiz gainera. Ez dut lojikaren aztarrenik ere ene buruan eta biaje bat egin behar dutan aurretioko bi egunak, munduko estazioetan, bakarrik arkitzen diren neska horietaz pentsatzen pasa di ditut. Lo egitea ere zaila egiten zait eta azken momentuan, rubio pakete bat erosten dut ziurki arkituko dutanari eskeintzeko..

Kolejioetan edukazio bat ematen zaigu. Materia bat beste askoren kartean. Matematika eta edukazioa, deribadak eta atsoei eskuan nola musu eman. Gero urteak aurrera, aplikatzeko garaiean, edukazioan besteetan bezala etzaiz-kigula estudio razional batzuek eman bistan agertzen zaigu. Praktikan errenak gerala nabarmen. Esate baterako: Atso zahar bateri trolebusean lekua utzi behar zaiola jakinik ere. Nola egin beste guzien (aurrean nabarmendu) atenzioa deitu gabe? Nola buruko

illean erainetaino gorritu gabe? Nik horregatik bakarrik eta atsoari lekua oso pojik utziko niokela ere leihotik begiru jartzen naiz ikusiko ez baru(ke) bezala.

Oilaskoa nola jan behar den badakigu. Erakutsi zaigu bainan pasatako teknika batekin. Horregatik zirujano baten abilidadearekin, oilaskoa atakatzera prestatzen geranean, beste mahi lagunek "mundu gizonek" guziek atzaparrekin artzen dutela ikustean zer egin jakin gabe geratzen gera erabat harrituta gure teknikaren balio eskasagatik. Erakutsi zaiguna alperrikakoa zaigu eguneroko bizitzan. Etzaizu hala iruditzen? Ene jainkoa, zenbat gauza etzizkiguten izkutatu edo zaizki erakutsi ikasle urteetan!

Esate baterako, eta hau ez dizu diskutituko: Ez al da importanteagoa estazio batean maleta batekin bakarrik dagoen neskatoari zigarro bat eskeintzen jakitea atsoei eskuek nola miztu jakitea baino? Eta kara, kara... Ez al da importanteagoa gaisoek edo premek bizitatzea baino estazioetan bakarrik dauden neskatoeri kompañi egitea? Niiritji hortakoa nauzu beintzat eta ez dut arrazoi bat ere kontrakorik ikusten.

Nik ez dut asko biajatu bainan konsidera zazu, zelako beltz eta zarratz beharduen ikusi etorkizuna neskato batek RENFEKO estazio batean. Bizitza bere relatibismo osoan agertzen zaio trenari bi edo bost ordu itxoin beharko dizkion ez dakielarik. Eta Prantzian SNCF'ko tren bateri itxoiten? Huelga egiteko beti prest dauden funtzionario horien artean? Gizon batek, gazte izanik hobe, salba ditzazke destinoaren atzaparretatik... Bainan zelako es-

Kasa eskoletako edukazioa...

Estiloa, estiloa... Edukazioak ez du soiliki estiloa ematen. Eskoletan edukazioa soilki ere ematen ez digutelarik ezin ba estilorik eman. Hau silojismo bat ugte dut dela. Edukazioa lortu egiten da estiloa edukitzeko berriz, jaistzez behar izan puntu bat gero ~~desarrollatzeko~~ urteak aurrera desarrollatzeko.
Urteetan atsoei eskuetan muru emanaz azkenik estilo bat lortzen da: Burua behar bezala makurtu, eskua behar bezala luzatu tab. Estiloa oso da importantea eta estilorik gabeko pertsonak eta ez komunistek egiten dute mundua desagradablea. (atsekabea)

(2) * Barkatu zaidazu (irakurle) betigai berdinarikeltzen ba naiz bainan ez dut nahikaria galdu exenplu asko hartzeagatik.
Edukazioaren neofito bat bereala nabarmentzen da. Ez du oraindik estilorik. Haurrak jo egiten dire atsoei trolebusean jarlekua uzteko. Ez dakite bi bekatzekin bizkarrean nola ikuitu eta ezta ere akzio ona egitek zabaldutako irriparra estaltzen. Estilorik gabeko personek dijnidadea galtzen dute ate aurrean nor

lehendabizi pasa diskutitzen.
Gauza hauetan, egunero presentatzen direnak guziek, jendeak estilorik ez badu okasio batzuetan bakarrik presentatzen direnetan?
Noiz eta nola behar da atera tabako paketea patrikatik? Nola jakin abotsaren inflesio justua "erretzen duzu" galdera egiterakoan? Edozein gauzak sanindu dezake estazio batean maleta batekin bakarrik dagoen neskatoa, edozein estilo faltak, edo bildurtu dezake ~~edo~~. Estilorik gabeko pertsonen falta destinoak, trena bilurtuta, neskatoa abiada ero bizi batean gal lekura eramaten ba du.

Zer da gustoa? Gustatzen ~~[illegible]~~ edo etzaizkigun gustatzen gauzen espresioa da. Edo nahiago ba duzu: gustoaren espresioak gustatzen eta etzaizkigun gustatzen espresioa dire. Edukatzen gaituzten personek edukazio partikular batekin batera, gusto partikular batzuek nahi dizkigute eman. Eta ematen gainera! Gustoa personalidadearen atal oro importantea da eta maixu praile ta monjen personalidadearekiko influentzi horreri sozio-logoek "Plan bertikaleko" influentzia deitzen diote. Txorakeria dirudi "A la mar fui por naranjas" bi urtetan eskolako koruan kantatzen aritzia, bainan ez da txorakeria

9

gauza ~~hori~~ oso da serioa. Hori, eta urteak aurrera, hori bezaelako gauzak ~~biurtzen dire~~ gure ~~alienazioak~~ ~~alienazioetaak~~ alienazioak biurtzen dire. Bai, bai ez harritu, alienazioak. Eta ~~[illegible]~~ gogorrago oraindik pentsa noraino kenduko dizkiguten gure zerak, gure egitazko izakera, gure nor hori - haur bat ez litzake pakean utzi ezkero "A la mar fui por naranjas kantatze añako gusto txarra izateko kapaz izanen, sekulan-, noraino kenduko edo aldatuko diguten gure izakera, jaun batek "Gizona zirkustantzi sozialeen produkto bat da" hitz garratz horiek esateko. E, 1 Duan...

Egia da, jaun harek arrazoi guzia zeukan. Nire amak eskutik hartuta Jesusen Bihotzaren prailetako kolejiorako bidean eraman nindua-nean ~~etzakian~~ noski pentsatuko, ni "produkto hau" behar bada beste produkto bat~~ian~~ biur-tzeko bidean naramanik. Besterik ez nioke seku-lan ere barkatuko.

Bainan bidetik ateratzen ari naiz, gaiak tentatu egin nau. Barkatu behar didazu batzuetan haria utzi eta nire ~~a~~piritu, sinple dibagatzalle hunek, adarretik, adarrera, lorerik lore deu-sere sakondu gabe ibiltzen ba nau.

Zerekin...? Gustoarekin ezta!... Bai gustoarekin eta edukatzaillen influentzian...

Ez al dituzute zuek, nik milaka ezagutzen ditut, gustatu beha zaiela esaten dietena eta gustatzen zaiena, bat egin nahi dituztenak? Ez dute ia sekulan ere lortzen... Zen bat atso ez ote dire ~~k~~orduak eta ~~k~~orduak musika klasika entzuten aspertzen, ona dela ta gustatu behar zaiela esan zietelako! Gaur berdin pasatzenda! Ezin esan duga "Neri hau gustatzen zait" edo hori etzait gustatzen, gure gustoa ta personalidadea aspal-

di jaizetu bai zizkiguten.
Hau esatean Kolejioan pasa zitzaizkidanak datorzkit burura... Ezin kontatuko dizkizut guziak bainan redakzio tema batzuekin pasatzen zitzaiguna oso deritzait nire edukadoreen influentzia, txarra noski, adierazteko.
~~Egun batean, esate baterako, gai hau jarri zigutan: "Zure ~~[illegible]~~ bizitzako egunik zoriontsuena."~~
Nik ez dakit zenbat redakzio tokatuko zizkidan gai huneri buruz egitea: "Zure bizitzako egunik zoriontsuena". Bao gaia esan orduko guziok unanimidadean, gure mingain urdinak bigotean pasatuaz, letra redondillakin: "Nire jaunartzeko eguna" eskribi~~tzen~~ araztan ginen... Ordurako, gure "ni" laizetua genuen eta "gustatzen zaizuna" "gustatu behar zaizuna", "bezala eta maite duzuna" "maite behar zenukena" bezala entenditzen genituen.
Behin, akordatzen naiz, errebeldi arraro bat sumatu nuen ene baitan. Ba nire egitazko nitaz bakarrik akordatzeak, zero bat balio izan zidan redakzioan. Hau zen gaia: "Zure eguneroko bizitzan zer da gehien gustatzen zaizuna?"
Ba nik orduan eta oraindik gaur kasik gehien gustatzen zaidana jarri nuen, zirkustantziak agintzen zidana jarri beharrean:
"Zelaican, belarra buztia dagoanean, eta zeruan eguzkia, gora begira etzanda egotea eta eskuak ~~[illegible]~~ altxiaz eguzkiarekin jostatzea." Praile harek eninduen konprenitu eta gainera etzuen nire gustoa errespetatu. Ondo iruditzen zaizu!
Zergatik enuen esan behar? Eskua zerura altxa ezkero eguzkia baino handiagoa dirudi. Momentu batean tapatu egiten duzu, eta eskua itxi ezkero esan diteke euli bat bezala arrapatu duzula. Haunditzat jotzen duzu zure burua. Haundia sentitzen zera. Zero begiak itxi une batean eta berriro irikitzean eguz-

kiaren neurria egitazko distantzian kalkulatzen duzu eta, handia, oro haundia iruditzen zu berriz txikia... Luk ere prueba egiten ba duzu eta tontua ez ba zera, gustatuko zaizu, jiur naiz. Eta... (han ezagutuko duzu noski) eta ~~egus~~ eskua eguzkiaren kontra jarriaz, odola ikustea? Eguzkiarekin ainitz gauza egin ditezke... Ba praileak esan dizutan bezala etzuen konprenitu nahi izan. Beste gusto batzuek behar nituen izan... Orain badakit bizitzan hamar puntu izateko agintzen dutenen gustoak behar direla izan. Maleablea...

Badakit zer ari zeran pentsatzen. Orain atseginen zaidana, esta zioetan bakarrik dauden neskatoekin hitzegitea dela, ez? Ba ez, ez, ez duzu igerri... Hori etzait laket.

*~~~

Zer da morala? Zein da nire morala? Zurea? Eta hunen, haren, haien aurrean, zein da zure morala? Zenbat moral mota daude! Zirkustantzi bakoitzak moral bat eskatzen du? Ez dago moralik! Nik etzaitut adiskide interrogante horietatik aterako. Enaiz trebe. Hortarako ere erakutsi zidaten: Eliza, Amak ditu dotkoreak, behoiek..." Behoieri galdetu. Zeren eta nire iritziz onena ixiltzea, kezka horiekin ez da aterramendu onik ateratzen eta beharbada erantzuten saiatzian astakeri galantak esan...

egian tronpatu ezkero...

Nik bakar bakarrik huxe esanen dizut; Ez dutala konprenitzen zer ari den pasatzen azken urte hauetan. Oraindik azpaldi ez dela hara apaiz batek esan zidana: "Morala krisisean dago". Dena dago krisisean ba, superestruktura eta infraestruktura, laister ez dugu kontradikziorik ezagutuko eta dena soilki betik konponduko. Eta ara beste batek esan zidana: "Gaur egun persona baino moral gehiago daude, dekadentzia Erroman bezala, hemen han jainkoak bezala bakoitzak egiten dik morala bere gustora." Bainan nire ustez gaur egun mundua inoiz ez bezala arduratzen da kuestio horietaz. Gertatzen dena... Horixe, reflejuak ditugu hala Jainkoa kontxo. Zorionak! Hori da gertatzen moral katolikoa dagoela krisisean nahi juen esan apaiz harek...

Moralakin zerbait ari da pasatzen dudarik ez dago. Nik esango nuke kastellanuak "con las tripas de forge" gertatzen dena ari dela gertatzen "Que se estiran y se encogen" edo nahiago ba duzute, beste batzuek dioten bezala, humanizatzen ari dire.

Gaur egun esan diteke ideiak masa handi batenak direla, munduarenak. Zerbait esateko, politikaz, moraletaz, zerorrek nahi duzun darlotaz, masa eduki behar da kontuan. Kontra eginen du? Onartuko du? Elizari hori zaio gertatzen: Norbaitek kaso egingo badio. elastizatu egin behar. Esan dezagun: "Hijas de Maria" alkarteak ez du bi eguneko bizitzarik, apaizek kulpitutik lehen botatzen zituztenak botatzen ba dituzte. Eliza estaduakin batua dagoen lekuetan, estaduak regulatzen du Elizaren egitea. Morala. Gaur Elizak herriarekin diardu, harekin nahi du lotua egon. Hunek regulatzen du...

13 Sirkustantziko morala. Zer esaten dizu horrek?

Konprenseoko morala tab, tab... Morala krisisean egongo da bainan gero eta moralik gabeko gizon gutxiago ezagutzen ditut.

Kuetiva hau da: Zer egin behar dut nik hunen aurrean. Ni naiz eta hori eta bere aurrean naiz... Ez, ez... Ez da zuk ezagutzen duzun kasua. Ni naiz eta hori! Zer egin behar dut? Aguro! Zer esaten zuen ogarren urteko polikopiatuak? Deusez, deusez esate baterako bakardadearen zirustantziari buruz.

Bakardadea bakarrik egotea da, Zirkustantzi bat. Bakarrik zauden bezala egon zindezke lagunekin. Bakardadea... Izande arratsaldean parke bat. Hizeak arbolak dantzatzen ditu eta zure aurrean oro poliki horriak lurreratzen dire. Nun egoteko faioak ote dire horriak? Noski, segur zein urtearo izan... Udazkenean euri lanbro arraro bat bezala zure gainetik laizetuz dijoazenean, lurrean egoteko eginak dire... Zure pausoa bizunagoa egiteko.

Eguzkia zeruan pitzatua. Zuaitzadarrak bola gorriaren aurrean pitzatutako ikura ematen diote. Txori batenkantua ere ez. Ixiltasuna. Zu eta gauzak... Zu bakarrik.

Ezta...? Ez ez, ez... Ez da hori nik diodan bakardadea.

Durkehin'eko estazioa beltza da. Hamar anden ditu. Kontroleko etxe bat, ez dakit nola, lehenda bizikotik, hamargarrenera, tren bideen gainetik zeru beltzetik zintzilikatua bezala dago...

Altabozak lau bezkuntzetan ematen ditu abisuak. "Messieurs les voyageurs" - - - - - - - - -

Estazioak hamar irtera ditu tren bideetako aldera eta hamarretatik jendeak hamar ibai osatzen dituzte bakoitza anden batera. Ibai bateri parraitu behar diozu, egokiago: ibai batek zaitu bultzatzen... Maletak ez dute pix urik. "Mecagüen la puta". Emigranteak.

Garrafoiak, maletak eta maletak eta paketeak. Jendea. "Messieurs les voyageurs" Hamar minutu ibaiak zure lekutik oro urruti ez bazaitu uzten eman ditzazkezu eskerrak... P.T.T'en karro elektrikoak. Kontu! Ez dago gehiago ibairik, itxaso bat da. Lehen, klasia bigarrena, couchettes. Bokadilluen, karruak. Emigranteen haurrak nigarrez. Jendea. Kontroleko etxean aparatuek argi gorriak eta berdeak piztu eta itzaltzen dituzte...

Hamargarren ~~ibai~~ bagoia, lehen klasea, Tren bat gelditu da. Beste itxaso bat. Besarkadak. Ondo?

Guissele: Sergier, hogeitabi urte. Kirrua begi urdinak, luzea eta ~~[illegible]~~. Dena. Bonboi bat.

Lehen klasea, bigarrena. Salle d'attente deuxième classe.

Aulkiak berrenkan. Lurra kolillaz betea. Hautsa, paperak, jendea. Jende asko, denak periodikuak letzen...

Guissele: Neska bat eserita maleta batekin, estazioan. Bakarrik.

Oso errez da ezkondutakoak eta ezkon gabeak bereizten. gizonezko eta emakumezkoek berdin. Nire iritzij bai batzuet eta bai besteek galdu egiten dute kanbioan. Utzi, utzi konplementatzeak eta historiak. Ez da ez zuk uzteko duzun bezala "libertade galtzeagatik" diotala hau. Ez, ez, ez, gizona ez da libre ez estadu batean eta ez bestean... zainera lotararik handiena beste pertsona bat izan ahal balitz... libertade galtze hori, hala izanik ere, oro da txikia beste guzien hartean. Pertsonak kentzen dizki guten, libertadeak dire gutxienekoak adiskide... Beste gauza... Hara bersiro! Haria, haria. Nun nen goen? Bereizkuntzak. Hori da. Bereizkuntzak...

Ba gizona ezkontzen danlan dogmatiko bihurtzen da. Ezagutzen duzute dogmatiku bat baino abere ridikulogorik mundu relatibu huntan?

Gizona ezkontzen danlan paragiz asetutako abere bat bihurtzen da eta horregatik panparroi. Zenbat soportatu behar izaten diegu, guk ezkondu gabeok, ezkondutakoei... Ai, dogmatismoa eta panparrokeria...

"Ai gazte, nire edadea badu ere, ez hadi ezkondu, edo ezkondu hadi... Bijitza... ikuriko duk bai" "Ia noiz egiten ditukan hik, nik bezala, lau seme alaba" eta guziok dakigu zailena ez dela seme alabak egitea, ez egitea baizik... Ezkonduen deportea, ezkondu gabeak humillatzea da eta ez dakite horrekin behoiek degradatzen direla. Martin - ez dakit ezagutuko duzuten - bihotz bihotzez gorrotatzen dut eta ezkondu zen egunetik. Egunlan lau aldiz ikusten ba nuen eskuekin bere magailla potoloak egurtziz hau esango zidan: "Bizerra egunlan bi aldiz kentzen diat, badakik esijentziak"... Eta lagunen hartean apari bat egiten ba genuen? Hamarretik, hamar: ~~[illegible]~~ Mahitik altxiaz - aparia zenian eskuakin tri

Igurtzi di zuen, guziok entzuteko eran: "Beno, beno ni banuak. Badakizue obligaziwak..." Eta hitzak jestuekin laguntzen ez ba zituen pozik.

Nik ez dut emakume bat ere ezagutzen. Senti du biblikoan? Guk egiten dituzu txisteak... Tragoxka bat hartuko bagenuke? Guk ere ez? Ba ezkondutakoek bai. Ezkondutakoek ezagutzen dituzte emakumeak. Galdetu bestela Martineri... Kasu batekin metodo de induccion completa egiten dute...

~~Jazin~~ Martin'ek ez dizu esango: Nire Carmen ~~ezagutzeko berarekin ezkondu~~ ezagutzen diat. Ez, ez: "Emakumeak nik ezagutzen digkiat."

Nik esaten diodana, guziekin edo askorekin ezkondu behar... Ba ez, denak bere Carmen bezelakoak komen dire.

~~Jazintoki ez~~ Martin'ek ez du maitasuna ezkontzatik kanpo konprenitzen eta ezta amititzen ere noski. Horregatik konprenitzen du solteruen zera... beharra.

Eta emakumezkoek! Emakumezkoekin berdin. Horiek bai galtzen dutela emakumeak behar duten zera hori. Guk gizonok kainbeste maite dugun zera. Emakumeak misteriva diardu. Emakumearen estilva, misterio hori da. Ni ez nauzu teori berri horien aldeko. Emakumeari misteriva kentzen badiozu, emakumerik gabe geratzen zera. Misteriwarekin jolasten jakin behar du. Hortan prantsesek dute teknika izugarria. Etorriko natzaizu puntu huntara.

Misteriva deskubritu eta urrengo egunean, misteriva berriro deskubritzeko. Ba esaten nizun bezala, bai bai, prantsesena, hortan naguri dire. Nik askotan pentsa izan dut, butxi leratoan, materia bezala dutela edo, gure herrian porru salda egiten bezala, etxe bakoitzean amak alaberi erakusten diela.

[ez diat uste].

Ba ez kondutakoek misteriva ezkon biajeko lehen hoteleko ohe gainean uzten dute eta gehienetan ez dute errekuperatzen. Tamala benetan.

Nik mundu guziko ama guziek errespetatzen ditut. Fleming'en ama, Einstein'en ama, nere ama. Kriminalak ere ekartzen dire mundura bais, bainan horren kulpa ez dute beren amek. Rousseau'k zionez, izatez gizon guziok gera onak gero kondatzen gaituzte. Amak haur guziek onak egiten dituzte... Eiur asko emakumearen bizitzako momenturik handiena, ama egiten den, momentua izanen da... Egia ez? Bainan ama izateko posibilidaderik eman etzaigunoi soportatu behar dieguna...

Lehen dabizikoa izatean, bularrean otera zitzaizkien pikorrak. Bigarrenarekin izan zituzten lukainka antojuak. Guzien pixua. Eta gainera azkenaren gatik egin zieten zesarea eta gutxi balitz bezala barizen kontua... Hori bai puntuari utzigabe. Puntua egiteak relajatu egiten komendu, ez dakit egiteak bainan ikusteak... Emakume bat puntua egiten ikusteak nerbioro jartzen nau.

Durkehin'eko estazioa, hutsik geratu da. Bigarren klaseko sala de esperan lehen baino kolilla gehiago lurrean, hauts gehiago, bokadillo paperak. Periodikuak aulki gainetan.
Guissele orain ere bakarrik dago. Bakarrik. Larruzko maleta bat albuan eta esku hartean liburu bat, bainan ez du irakurtzen.
Merkantzi baten maniobra hotsa entzuten da...
Bonbilla piztua dago egun argiari konpetentzia egiten. Paretak propagandazko kartelez betlak. Billete familiarrak. Izan zoriontsu, biajatu Aurence Kompanian: El Cairo. Berlin. Roma. Air France.
Guissele ez da mugitzen. Noiz pekinka bakarrik ondo zaindutako esku bat pasatzen du bekokian zehar.
Kanpoan dena hila dago. Baita merkantziko trena ere geldirik. PTT'ko karroak ~~[illegible]~~ filan urrengoko trenari itxoiten.
~~Aurreko~~ Aurrean tunarin zai, dagoen fabrika baten tximiniko kea, zerura doa zuzen zuzenik batere zabaldu gabe. Oso goian bakarrik espiral batzuek egiten ditu.

Ni, zu bezala noski, bi zatitan nago erdibitua. Bat gorputza oso konkretua, bainan izpirituari oso arraroa zaiona eta izpiritua bera. Biak daude gerra bizian, bata besteagandik libratu nahirik. Ni esistentzialista nintzen. Zu ere bai? Ba ni gaur enaiz (iodonik gehiago?) modatik paria dagoelako, bainan beti maite izango dut esistenzialismoa.

Esan dutan bezala, bestela orain esaten dizut, "ni" bat oso zaio arraroa besteari. Ni ispilloan begiratzen dut nere burua, eta izpirituari, neri, oso zaio estraina gorputza. Nire izpiritual partea normala da eta gehienetan berak du influentzia gorputzagan. Beregatik ez balitz izan ni enintzen Txindokira igoa (ioa) izanen io izan naizen bezala. Egia da bai beste batzuetan izpirituak ez duela gorputz motel hau bere inerziagatik ateratzia lortzen; bestela larunbata arratsaldeetan hodei batera igoko nitzake hiriko argiak goitik ikustearren, hori bai da nire izpirituari gustatuko zitzaiokena. Beno hori tira. Bainan benetan sofritzen ez dutana gorputzak besteari independientzia irabaztea da. Konturatu gabe bere kaga dabillela sentitzen dut. Ez dakit zuri inoiz ere pasako zizaizun: Esate baterako leitzen (ari zera zaude). Eskua bera bakarrik, beratzak pauso arraro batean mugituz zigarro baten bila joaten zaizu. Irakurtzeari utzi eta begira, begira jartzen zera. Bera ere gelditu egiten da. Askotan arrapatu izan dut eskua, horla bere kaga, mahi gaineau ibiltzen. Eta zangoak? Nolako indarrak ez ote ditu egin izan behar nire adimen hunek, gorputza, berak nahi duen lekura joaten ez uzteko. Hau zirkustantzi normaletan eta ia ia ditu naiz. Bainan azken bolaran gero eta sarriago pasatzen ari zaidana!

24- Eskubiko eskuarekin pasa di zait gehienetan

Entretenitua nagoela kasten zait mahi gainean ibiltzen, bainan ez hori bakarrik. Momentu batean haunditu egiten zait eta gero pixkanaka pixkanaka gero eta haundiagoa oraindik... Prehistoriko animali horietako baten forma hartzendu eta niyandik separatu egiten da. Begira partzen gera, nik ezin sinisturik hura ere ni naizenik. Monstruo bat. Nire espiritua, momentu guzietan bijilantzian ez balitzake egonen, beharbada, haur txikiak eta amonatxo zaharrak eztarritik kelduta hiltzeko kapaz litzake... Monstruo bat da bai... Ni monstruo bat.

Kafka txiki !!

Monstruo bat. Hori. Beharbada monstruo bat daramaki Guissele Sergier'ek bere sabelean. Zortzi "abortsome" grapea lau egunean, bigarren killab etean dagoen fetua mostruo bat bihurtzeko kainaldosisa...

Bainan zergatik? Nola? Nolaz? Berak ere ez lizuke jakingo galdera hoieri erantzuten... Hola izan da. Egina dago...

Guissele horietakoa da. Ez du emakume izena merezi.

Ezin kontatu du nola goiz batean biolfatoekin esnatu zen. Nola etzuen pozik sentitu bere barnean zeramakianaren bizia sumatzean. Ezin bihurtu diteke haur ezin nekerik sentitu. Bere zirkustantzietako amak - Guissele ama baida bere barnean daramakiana monstruo bat bada ere - ezin bai dute nekerik sentitu. Guissele ez da "Le livre de la jeune maman"ren azalean salto de cama arrosarekin agertzen den ama bezalakoa. Guissele beste ama klase bat da. Horietakoa...

Bainan burua jasotzen duanean begi urdinak malkotan eztaliak ikusten zaizka...

(3) Durkehin'eko filosofiko fakultadean, kosmolofiko klasean, Guisselek apunteak hartzen ditu. "Espazioa... Aristoteles'ek lekuen lekua deitzen zion"... "Lekuen lekua" esku seguruakin eskribitzen du, letra haundiarekin. Ile luzea aurpegi aurretik paper gainean erortzen zaio eta

profesoreari begiratu behar dion bakoitzean, burua oso atzera botatzen du bi eskuekin ilea belarri atzian sujetatuz.

Goiko leihoetatik eguzkiak zuzenik eta gogor jotzen du klaslan. Goitik behera eguzkiak jotzen duen sentiduan pupitreak dirdirats u ikusten dire; horietan ez da inor eseritzen eta pasilo bat bezala, pasillo mobil bat noski, libre geratzen da.

Mauricek ez du eskribitzen... Begiak erdi itxiak Guisseleri begiratzen dio, bere mugimendu bat ere galdu gabe.

Burua atzera botatzen ikusten duanlan, desioak jan eginen duela pentsatzen du... Bi fila atzerago dago jarria, azken bolaran nahiago du horla. Lehendabiziko egunetan bere ondoan jartzen zitzaion, bainan eguen batlan, klase erdi erdian besarkatuko zuen bildurra eduki zuen. Gainera gehiegitan arrapatzen zuen begira... Gero bere atzlan jartzeko ditura hartu zuen, horrela asko iraun zuen, ilea ikuitzeko posibilidadeak zeuzkan. Zelako ilea, Kristo! Bainan albokoek gehiegitan arrapatzen zuten zirkustantzi hortan eta gehiegitan baita ere inkordiatzen. Azkenik estratejikoagoa iruditu zitzaion gaur dagoen bezala bi horrenkala fila atzerago eta apur bat ezker aldera jartzia. Oraingo huntan etzuten eznaute behintzat asistentzi falta galik suspenditukо...

(4)

Bainan Maurice ez da zirkustantzi horietan gehiegi aguantatzen dutenetakoa; "Kristo, hiru hillabete ligatu gabe"... Desioak barrendik erretzen zuen bainan bazekien Guissele besterik ez lukeala soportatuko.

"Newton... Newtonen interpretaziva"... Mauricek sensorio hitza eskribitzen du. Adorno askorekin "jainkoaren sensorioa".

Antijodun txiki batek, seminarista bat, altxiaz ia "sensorio" hori zer den galdetzen dio profesoriari. Profesoreak esplikazioak ematen dizka eta seminarista asko gorritzen da. Lutoz jantzitako haur bat dirudi. Maurice'k atakatu egin beharko duela pentsatzen du. Guzenik irabaz(i) edo gal. Dena hobe zalantza hartan bizitzea baino. Bere eskubian dauden bi Guisseleri paperak botatzen kasten dire, bainan hunek ez die kasorik egiten... Prinzipianteak pentsatzen du Maurice'k...

Irterakoan ~~zerbait~~ apunteak eskatuko dizkio eta zerbait hartzera inbitatu... Besteak paperekin jarraitzen dute. Guissele bueltatu egiten da. Ez du kasarre itxurarik, bainan ez du irriparrerik egiten ere. Beti daki behar dena egiten Guissele hunek... Eguzkia hodeien batek iskutatuko zuen... Goitik beherako ~~[illegible]~~ reflejua borratu egin da. Maurice'k gora begiratzen du, klaraboietatik zelar... Gero parkera eramanen dut. Eta gero etxera kafe bat hartzera inbitatuko ba luke? Lehendabiziko egunerako gehiegi korritzia iganen litzake. Hobe igandean zinerako inbitatu ta ordurako utzi.

Newton... Profesoreak abots monotono batekin hitzegiten du. Oso aproposa lokartzeko. Asko begiratzen dio erlojuari, guziek daude tinbreak noiz joko zai...

(behatzen)

Makinalki begiak klaraboiatik Guissele'rengana zuzentzen ditu. Atzera begira dago; paper gehiago bota dizkie. Momentu batlan berari ere begiratzen dio; eskribitzeko itxura egiten du. Beregan Guisseleren begirasuna sentitzen du, haiek ktzikarak. Bi minutu... Maurice ~~[illegible]~~ito egiten da. Eskubi aldeko bi aluek inportunatzen ez ba diote atakatu eginen du, bai orixe...

(5)

28

... Parkean, haurrek eta atsoek maitaleei lekua uzten dien ordua. Guissele eta Maurice, ibai ertzetik pasiran doaz. Ez dute hitzik egiten. Maurice'k forman (sasoiean) ez dagoela sentitzen du. Beste "gaulois" bat, klasetik atera ezkeroztik gutxienez hamar erreditu. Banku apropos guziek okupatuak...
Guisselek ez daki, Maurice gustatzen zaion ala ez. Begietan ba du halako zerbait... Ez da ez ederra ezta itsusia ere, bainan ikusten dio zerbait... Ziur asko bizarra kenduko baluke ia guapoa izanen litzake.
"Kristo inspirazioa", ez, alperrik, enegok forman. Zirkustantzi normaletan honuzkero besarkatua izan behar nian..."
Ibaia oso dago beltza. Alde bateko eta besteko argiak juntatu egiten dire ureltan. Pretil (harrezi) gainean eseritzen dire...
- Atsegin zaizu filosofia?
Nabarmen isiltasunaren pisua zaitza zaiola soportatzen. Guisselek baietz esaten dio...
- Eta zuri?
- Neri? Bai, bai, asko. Batez ere Tomismoa.
Parre egiten dute. Guisselen hortzak oso dire zuriak. Beren aurretik maitale bikoteak pasatzen dire. Oso baju hitzegiten dute...
Biak eskuak, pretil gainean gorputzaren alde bakoitzean jarri dituzte. Liburuak montoi batean.

Fabrika baten sirena hotsa entzuten da. Hodei beltz pixutsuak nekez aguantatzen dute zeruan. "E uria egin behar dik"
Kotxeen faroak bide ertzeko arbolak argitzen dituzte. Franja txuriekin pintatuak. Soldadu kerituen gerrako buelta dirudi, beren bendajeekin... Haur batzuen algarak entzuten dire... Parejak bijilatzen ziurrena Mauricek eskua mugitzen du pretil gainean. Guisselerena sentitzen du... Oso hotza. Gero behatz batekin neskaren txikia hartzen du...

- Maurice lo dago oraindik. Ahoa irikita... Noizpeinka lau edo bost aldiz uzpainak iriki eta itxi egiten ditu, oso biziro. Titia hartzen ari balitz bezala. Guisselek oso poliki esku izerditsua kendu egiten dio bere bular gainetik. Etzanda gora begiraka geratzenda. Ezin ditu begiak hetxi itxi eta ez du indarrik bista lanparatik kentzeko. Ahoa pasta mikatz batekin garbitua balu bezala danka eta hortzak ez ditu bereak bezala sentitzen. Maurice'k bularra billatzen dio eta pixka bat apartatu egiten da. Ederra da... Bainan ez dio deus ikusten begietan. Ametsetan irripar egiten du... Kaupoan kaupai hotsa... Bere amak itxura hartan ikusiko balu? Nahi gabe izera hartean izkutatzenda. Lehenagoko kaupai hotsari bi edo hiru gehiago juntatzen dire... Etzuen uste horren erreza izango zenik. Etzuen esaten zioten kainako mina egiten...

Gorputza abandonatua bezala sentitzen du...
Bainan nola? Etzaio ajolik. Homasei urtekin nola ilea moztu zuen akordatzen da. Eskolako neska guzien inbidia zen... Eta egun batlan ispillu aurrian bere burua "garçon" estilora ~~moztua~~ ikusi zuen.
Etzuen nigarrik egin...
Zer esan zuen profesoreak gela "sensorio" hitza!
I6 Sensorio, sensorio... Kanpaiak. Isildu egin dire... Txikitan kanpaikotsa entzutlan nigar egiten zuen. Norbait hila zela uste izaten zuen; bere amonaren herrian norbait hildakoan kanpaiak jotzen bai zituzten... Txikitan mutikoek asko gustatzen zaizkiola akordatzen da. Beti izaten zituen bi eta iru "nobio" batera. Euri lanbroak leihoko kristaletan jotzen du. Maurice... Esnatzeko gogua ematen dio. Begietako hura joan etzaio ikusi nahi luke... Bainan ez horrela pentsatu dezake. Eta soeur justine'k ikusiko balu? Parrasi eusteko indarrak egiten ditu. Soeur justine... Zer ote zekien? Ez da kain zaila soeur justine... Begira ohe gainean etzaten zera eta kito! Etzait deus falta... Lehena gokoa naiz, begira, begira... Atzo birjinidadea nuen gaur ez... eta hala ere guissele naiz... Enaiz aldatu.
Bainan normala ote zen deusez sentitzea?
Norbaitek maitasuna egin da bularrak handitu egiten zirela esan zion...
Guissele ohetik jeikitzen da. Ile kirrua aurretik bularretara iristen zaio. Lehenago baino edewagoa dago. Ezpainak pixka bat haunditu ak, dibujatuagoak. Oraindik bainatzeko trajearen marka nabaitzen zaio. Ispillu aurrean jartzen da. Ez dut bularra handiagoa ikusten. Urpreskoak on egiten dio.
"Zer eginen dut esnatu gabe joan?" Soinekoa jantzi eta leihoko kurtina ja sotzen du... Ez da argi gehiegi sartzen. Maurice'k lengo posturan jarrai-

tzen du, ez painak zabalduz eta hitxiaz, bi besoak zabalik. Haur bat dirudi. Bainan ez dio begietan lehenagoko hura ikusten... Kanpoan ez dago jenderik. Asfaltoa oso dago beltza brilantea, ibaia baino areago... Ikusten duen paisajeak ~~plo~~ block kuadrikulatu baten pentsarazten dio. Etxe kuadratuak leiho kuadratuekin...

Guissele zora begiraka dijoa. Euri preskoa aurpegian sentituaz, eskuak poltzikuan dituala. Gosea du. "Ara behar bat gehiago". Bainan beharrezko alzuen bestea egitea? Etzuen beharrezko bainan ondo pentsatuta birjindadea ere etzuen ezertarako nahi...

Hala guztiz ere urrengo bi egunak hortan pentsatzen pasatzen ditu... Ez daki egin duena ondo ala geizki egin duen. Bere bizitzan lehendabiziko aldiz bere aktu bat juzgatzeko ez da kapaz gauza sentitzen.

Urrengo bi egunetan Guisselek ez du Maurice klasean ikusten. Nahiago du horla bestela ez bai du jakingo bestela zer esan... Egunak aurrera doaz, garaiak

agintzen duen bezala euritsuak. Klasetik irtendakoan askotan eta nolaz jakin gabe, ibai ertzeko pretil gainean arkitzen da eserita... Maite du hostroak euriekin ateratzen duten hotsa. Azkenerako ez da Maurice'ez akordatzen eta egiten badu ez du deusere sentitzen hutsune arraro bat ~~ezjak~~

Estudioak denbora esijitzen diote eta lehen baino gehiago estudiatzen du. Ez da inorekin mintzatzen Bertha'rekin izan ezik, eta beste erremediorik ez duelako.

Bertha birjina da. Egia esan birjiñatasun. bere propiedade bakarra egin du. Berthari birjindadea kendu ezkero etzaigu Bertharik geratzen. Gai huneri - birjindadeari - eta konserbatzeko arxikitzeko emakumeek egin behar izaten dituzten laneri, asko lotzen zaio Guisselerekin izan ~~oi~~ dituen berriketan. Asko maitedu, Guissele ~~gizonek~~ gizonen kontra prebenitzea. (Beretzat) gizonek birjindadea lapurtzeko peti prest dauden animaliak dire. Nobioa du ~~eta~~, miope trankil bat arkeolojiko estudiantea.

"Pierre'kin ditudan lanak" dio berez erdi itxiak dituen begiak zekero itxiaz. "Bainan entregatu ezkero, zer geratzen da ezkontzarako?" ?

Guisselek ez du Pierre "maitasuna egin nahirik" imajinatzen... Baietz dio buruarekin. Berak ez du ettegatzerik. "Hori" entregatzerik. Etzaio ajola beste zerbait entregatu beharko du... Bera Guissele. Ez du konprenitzen senar gaia duten nesken jokabidea. Egoismoa? Bilduria? Zergatik ez eskeini gorputza maite den gizonari? "Itxoin bizitza luzea da ta" - Meteri

Moralaren aldetik ez daki; bainan parkeetan eta zinetan ikustenzirenak ez ikusteagatik bakarrik... Eta dautza lekuak?..."Emakumeen egoismoagatik ote da dignidade diñatasun galtze hori...?. Edo batzuek egoistak dire edo besteak inkonszienteak burugabeak...

... Inkosjenzia. Entregatzia. Egoismoa ... eustia".
Berak inkosjenzia izanik ere nahiago du. Egia esan personak emateko momentuan, inkosjenteak izan behar.. Bestela ez litzake sekulan deus emango.
"Bertha gaiwa. Mauricekin oheratu dela jakingo balu?". Gustatu egiten zaio berekiko "Bertha Maurice'kin oheratu nintzen" esatia, besteak gelditu gabe hitzegiten duen bitartean. Entzungo balioke "Oi, oi Guissele" esanen luke bere flauta txista abotsarekin...
Abenida nagusia hartzen dute. Gustatu egiten zaio gizonen begirasunak gorputzean sentitzea. Jendea bulegoetik ateratzen den ordua da. Abenida kafeterien argi dirdiratsuak animatzen dute. Betiko izenak: Le Don Juan, Las Vegas, Rex, Chez Monique, Chez...
"Inkosziente bat. Inkonsziente bat naiz"
~~Ber eztarrian~~ Lepoan Mauricen muxuak sentitzenditu. Errlaz bezala. ~~Bat~~ Eta bihotzaren banbatekoak berriro gorputza gainean balu bezala... Ahoko gusto hura. Mauricen sorbalden azala...
"Bertha!... gizon bat maiteko banu nire gorputza eskenikonioke. Nun ~~eta~~, noiz eta nola begiratu gabe eta ez litzake eskeinitako gauzarik onena izanen..." Bera ere harritu egiten da esandakoagatik.
oi oi Guissele!..
Bertha atzean geratu da begi txikiak ezin irikirik...
Euria ~~egiten~~ ari du. Euri lanbro gris piña... Guisselerentzat beste guziak ez du inportantziarik.

Periodikoa ustizio lezola

* Abenida nagusian, hamar bizitzako bloke batian. Serge Miller sendagille jaunaren konsulta arkitzen da. Horrela dio etxepeko plakak: Serge Miller gynecologe.

Bizitza, medikuen konsulta inpersonal horietako bat gehiago da. Paisaje kopia txar batzuek paretetan gusto txarreko muebleak (erredizak), errebista zaharrak. Gastatutako alfonbrak lurrean. Miller beraren etxea bezin gusto txarrekoa bainan dena zaharrago izatea.

Miller doktorea berrogeita hamar urte inguruko gizon txiki ta buru soil bat da. Antijoduna, raiadun galtzerdiak ikusten zaizkien horietakoa. Sendagille on fama du eta gainera puntua egiten duten atso horien artean oso sinpatiku eta persona gizon forestutzat daukate on bezala tratatzen dute.

Miller katolikoa da eta konserbatzailea. Eazpi seme alaba ditu.

Orain killebete batzuek eman zituen konferentzia batzuek, esan behar haundiak sortu zituzten. Konferentzi horietan "piluten (pillura) kontra pronunziatu zen eta etzen deus ere pasa izango, entzuleen artean. Durkehin'eko konserbatzaileak gehienik. Kimikako estudiante batzuek ez ba ziren arkitu.

Pildora (pillura) emakumearen organismoarentzat kaltegarria zela esatean, estudianteak argumentu batzuek presentatu zituzten: I par Ameriketan hamar urtean pastilla hartzen zuten emakumeak etzutela besteak baino kazer porzentaje handiagorik eta konposizioa etzaiola organismoari estraina berez dituen hormona batzuek direla tab. Miller sendagileak arrazoi moralak zituela esan zien.

Maxime Fontanaz'en etxea, marmorezko beltza da Riemmes heriko erdi erdian.
Riemmes'en mundu guziak ezagutzen du orainhiru urte alkate izan zelako eta hamar urte ezkeroztik Hospitaleko buru delako. Hirurogei urte ditu bainan ez du ematen. Arrano aurpegia dauka begi borobil ta guzti, illea zuria eta atzera orraztua. Oso ondo fazten du traje arre gris eta urdinekin. Bere birtuterik importanteena: ordenua, ordenaren temakoa dela esan diteke eta gehiago alkatetza garaiean artxibuetako ordena agindu eta zuzendu zuanean hirurehun milla franko kobratzeko paperetan deskubritu zituan ezkeroztik.

Bere emazteak ere, bera baino hamarren bat urte gazteagoa, arrano aurpegia du, arranoak begi urdinak ba dituzte behintzat, eta garai batean, italiar gazte bat, emigrantea, maitale bezela izan zuela zabaldu zen. Lortzi seme alaba dituzte, ginekologo on guziek bezala, propaganda egiteko nunbait eta zaharrenetik gazteenera arrano aurpegiakin baita ere.

Konsulta, etxe ondoko garaje itxuruko "anexo" batian dauka. Apaindurarik gabe, garbia eta egokia.
Fontanaz sendagille fauna protestantea da. Beharko izan Riemmes'ko alkate izateko. Protestantea eta oso jenio txarrekua, hezuori reuma atake hura izan zuen ezkeroztik.



Georges Rossier'en etxean sartzeko, jardin bat pasa behar da. Bizpahiru zapin izdi, pare bat piñu eta belarrean Giacometti'ren eskultura bat imajiña. Etxeak harri labratutakoa bi bizitza ditu. Rossier jaunak ginekologoa eta protestantea baita ere berrogei ta lauren bat urte izanen ditu. Oso da itxura onekoa, sport jantzia asko gustatzen zaio. Aurpegi beltzean asko nabarmentzen zaizka begi urdinak, ilea, grisa, oso motza zepilluan ebakia. Ameriketar zientzia errebistetan ateratzen diren jakintsu horietako baten itxura ematen dio. Rossier'en emaztea, gazte denborako edertasuna galdu ez eta estiloa irabazten duten, berrogei urteko emakume horietakoa da. Ezkondu aurretik senarraren ekipo kirurjikoan egiten zuen lan enfermera bezala eta egin dituen lau seme alabek-bera bezala begi berde eta ille beltzezko bi bikote eder- ez diote lanerako gogua kendu.

Rossier'ek liberal fama du eta zenbait katolikuk amoral bezala bapo jorratzen dute "Le jour" egunkarian bere deklarazio batzuek atera ziren ezkeroztik.

Deklarazio horietan, Rossier jaunak, etziola emezortzi urteko neskatoari "pilule" ukatzen esan zuen. "Zertarako ukatu?" zion. "Konsultara "pilule" eske etortzen zaizkidan hamarretik hamarrek maitaleak dituzte... Zergatik bultzatu beste metodo batzuetara, maitasuna egiteari ez diote utziko, hau ba da se-

guruena? Edade Adin hortako neskak kondatzen ditu~~zte~~ haur batek gehien. Zer egindezaket besterik?
Edukatzailek dute hitzu, beboiek erakutsi behar gazteeri pildorakin eta pildoraren ~~[illegible]~~ den-boran garaiean bizitzen.

Nire morala? Nik ez dut nahi inoren bizitza-rik ~~[illegible]~~ kondatu...

Askotan peutsatu izan dut. Barkatu, baina etzaitut beintzat molestatuko? - Beno ba askotan peutsatu izan dut, mundu huntan, hainbeste milla millo litro ur badaude ta hainbeste milla milloi tonelada aluminio edo burni... Hitz batean materia ez bada ez sortzen eta ez destruitzen transformatzen baizik. Zergatik ez gizonaren intelijentziarekin berdin?

Zoroa iruditzen zaizu. Ba neri ideia hau etzait horren zoroa iruditzen. Hainbeste intelijentzi unidade daude libre - hildakoenak - jaiotakoak berriak hartzen dituzte, batzuek gehiago besteak gutxiago. Unibersidade batzuek intelijentez beteak daude, hortarako dauden zentro espezializatuak berriz, mogolez beterik.

Historian aurrera jakintsu asko sublebatu dire zirkustantzi horren aurka. Zirkustantzia infustuadela? Baliteke baietz bai, bainan hemen beintzat Naturak jakinduri prueba bat eman du... Nola esplotatuko litzake petroleoa ludi guzian apur bat zabaldua balego? Ezin inundik ere. Esplotatzeko derrigorrezkoa bolsa haundietan leku batzuetan bakarrik konzentratua egotea. Ala ez? Ba intelijentziarekin berdin. Prantzian denak erdi intelijenteak balitzazke ez ingo litzazke "Institut de recherches" egiten dituen inbestigazioak aurrera eraman. Hortarako prantses batzuek listoak izan behar, besteak, intelijentzi apur bat beharden lanetarako ez oso tontuak eta besteak (ez da gehiago geratzen reparturako) mogol hutsak.

Eta orain atentzio piska bat mesedez. Materiakin eta intelijentziarekin hori gertatzen balitz. Zergatik ez ondasuna eta gaiztakeriarekin berdin? Hori horrela balitz - balitz te? Intelijentziaren kasua izango genuke hauda: Hildakoek libre utzitakoa, jaio berrien hartean

banatuko
repartituko litzakela.

Nola juzgatu beraz banaketan repartoan gaiztakeri unidadeak besterik tokatu etzaizkion kriminal gizarajo hori?

Nik juezari esango niokena: "Juez jauna juzga ta kondena zazu Natura..."

Etzazu parrik egin ez. Horiek beharbada bilar eguneko teoriak dire, munduak ezin ditzazke gaur oraindik konprenitu... Gainera ezitzaidazke barkatuko sekulan aterako nituzken konklusioak. Bainan zurekin badut konfiantza... Begira - ez dago esan beharrik, hau gure artean. E? - eslaboi bat gehiago kateari: Ondasuna eta gaiztakeria kostanteak izanik, eman dezagun hoiek produzitutako akzioak ere horla direla. Kostanteak. Momentu lerne huntan ~~[illegible]~~ hainbeste ta hainbeste egintza akzio on eta txar egiten dire, ba urrengo momentuan berdin, beti berdin. Zuk akzio on bat egiten badu zu, boluntadeak borondateak, nahiak ondasun unidadeak pikoraak maximuan jarririk eta gaiztakerianak (reprimituz), akzio on bat lapurtzen diozu norbaitieri. Pentsa "boy scout" gizarajoak... Gaiztakeria egiten badu zu berriz, denok unidade txikitan gaiztakeria egiten badugu, ez da kriminalik egonen. Zer iruditzen zaizu? ~~[illegible]~~

Boluntadea amititzen badut badagoela kriminala kondenatzea? Ez duzu ~~[illegible]~~ fitzik ere konprenitu. Boluntadea - konstantea hau ere noski - Ondasuna eta gaiztakeriarekin konbinatua arkitzen da, behar diren kaña akzio on eta txar produzitzeko. ~~[illegible]~~ gehienak akzio txarrik ez egiteko eran, regulatuak gaudela momentu batean? Orduan gaiztakeri unidade handiko eta boluntade unidade gutxiko ameriketar estudiante batek kamabost enfermera hiltzen ditu fusil bat hartuta. Nahiago baduzu: "Juez jauna

juzga zazu horrengan Natura eta, Natura naize-
larik, nire pekatua."

Konprenditzen duzu orain? Esan dizut bai
horiek biharko munduak konprenitzeko teoriak direla.
Bainan mekanismo miragarri hori deskubritu gabe
ere argi dago gaur ere ~~[illegible]~~ batzuek onak
izateko bestek ~~[illegible]~~ gaizto behar dutela izan. Batzuek
eskuak garbi izateko, besteak bi aldiz zikindu be-
har, dio Sartrek. Eta nik diotsut, ez ote deju
bduntzat gusto txarreko gizona naizenik pentsatuko,
birjinak edukitzeko putak eduki behar. ~~[illegible]~~
~~[illegible]~~ Gareztitxo deritzait
birjina batzuen birjindadea. Ezagutuko dituzu
ba, ditura oneko andregai birjina kutxan utzi
eta "de picus pardus" ibiltzen diren gazteak...
Ezal litzake normalagoa? Bainan ez enua esatera...

I { A) ~~[illegible]~~
B) ~~G. [illegible] (Hermina Lagoeta Kontura, Jean).~~

II { C) ~~Ensayo.~~

III D) Medico
E) Descripción
F) Teléfono Jean Louis
G) Jean Louis Gisèle
H) ~~[illegible]~~ Miller Consulta (Abortsone).
I) Efectos abortsone
J) Teléfono Miller
K) ~~Consulta médico II~~ Descripción auto médico II.
L) Ensayo
M) Medico II
N) Descripción.
Ñ) Ensayo
O) Porqué?
P) Medico III
Q) Ensayo
R) Porqué?
S) Sala de pegado
T) Descripción
U) Hospital. Todo
X) Ensayo

Por Alberto

Aste osoan garaierako oso normala ez den eguzki batek argitu ditu Durkehin'ego harriak. Udaberri faltsa batek hegoak zabaldu eta hiri osoa transformatu du. Parkean arbolak ere espejismoa sinetsi dute eta eguzkiaren dirdira pean berdeagoak dirudite; persona ta ganza alaiagoak...

Durkehin'ego abenida nagusian jendea gora ta behera doa apur bat despistatua oraindik, aurpegi berriak estrainatuko balituzkete bezala, deskonzertatuak eguzkiaren argiarekin, ~~[illegible]~~ alaiki beren sweter berriak bezala.

Eguraldi oneko arratsaldeetan paseante ~~abituala~~ ohiko ibiltariak intruso jende pilla tarte batean arkitzen dire, haize epela sumatzeak bultzatutako gizon ta emakume. Tehendabiziko egunetan letargo batetik ateriak bezala, deskonzertatuak, Durkehin berri baten deskubrimentua egiten dute, eta arraroa egiten zaie, lagartoari usteroko harri zupala arraro egiten zaion antzo. Udaberria da eta ez da. Kalendariuan oraindik heldu ez delarik ikus ditezke neguko erropak, bainan gehienek aski dute eguzkia zeruan ikustea apirila iritxia dela sinesteko...

VALE

cu sensacions

VALE



Snack barretako argiak piztu eta eguzkia itzaltzen den ordua da... Haize hegoak bidean arkitutako musika guziak nahasten ditu eta arrastatuz beste berri bat konposatzen ~~[illegible]~~ guztiz alaia... Durkehin'ego biztanleak zerura begiratzen ba dute. Izarrez betea ikusiko dute. Arratsu zaaro da erosoa.

(Bar batian Quissele eta Maurice mahi batean eseriak daude. Ez dute hitzik egiten) Mauricek hitzik ere ateezen duen guzietan bezala Gauloise bat bestearen atzetik erretzen du. Situaziva etzaio berria. Filosofiko estudiantearekin pasatzen zaiona, kimikaskoarekin, ekonomikaskoakin eta beste askorekin gerta zaio: Aspertu eginda... Ez du erremediorik. Berak diona "Ez diat arkitu bualdiz letzera bultzatzen dikan nobela eta ezta bigarrengo aldiz maitasuna egiteko desiratu diaten emakumerik. Reinzidentziak lotzen ditek eta nik ez diat loturarik behar... Nork esaten zidak bihar trolebusean ez diatela ordurarte ikusitako emakumerik ederrena ikusiko? Bestaldee neskak ez dituk bizitza guzirako hiri begira (izorratuak) gelditzen." Maurice, maitasuna deporte bezala egiten duten horietakoa da donjuan bat, plazerra baino zerbait baliotsuago billatzen dutenetakoa (ez konfunditu Casanovakin), morbosoa. Mauriceri etzaio gustatzen neska batekin maitasuna behin baino gehiagotan egitea, neskari gehienetan oso atsegin etzaion momentua akordaraztea bayik punta ateratzea. Punta ateratze hunen kasarretik datorkio gehienetan igesbidea.

Jes punta?

– Zerbait gehiago hartu nahi duzu?

Quisselek jestuakin ezetz dio.

– Buelta bat emango bagenuke!

Kanpoan barnean baino beroago egiten du eta laizea zigarro kearen ~~[illegible]~~ anbientea ~~g~~ baino pisutsuago sentitzen da. Jendea ugaritu egin da kaleetan eta lehendabiziko edo azkeneko egunlan elgarrekin ateratzen diren parejekin gertatu ohi den bezala, bien

tartetik
hartean pasatzen dire jakin gabe rito bat betetzen dutelarik...
Ibaia, berez beltza brea linburtze geldo bat dirudi gabean.
- Ordundik ez gera ikusi ezta!
- Ez. Ordundik ez...
- Zergatik?
- Guk jakinen duzu. Zu zera klasean azaldu etzerana...

Mauriceri momentua iritxi zaio. Gauza inportanteetan pentsatzen dagoanlan eskuekin inportantzi gabekoak egiten ditu eta oraingoan ibaira harri t ikiak botatzen ~~ezt~~ da...
Ez dakit, dio pentsatu baino lehen hitzeginaz. Beharbada zu saninduta ikusterik enuelako nahi... Beharbada zu damututa ikusteko bildur mintzen. Damututa zaude?
- Damututa? Ez, ez nago damuturik.
- Berriz ere egingo zenuke beraz?
- Ez, oraingoz ez dut interesik.
Guisselek ardururik gabe hitzegiten du, han egonen ez balitz bezala... Besteak eskuan dituen harri guziak botatzen ditu kolpera, kesarre jesto batekin, gero abotsari dijnidade azentu handiena keman nahirik:
- Maitasuna ez da interesatzen denlan bakarrik egiten.
- Nahiago ba duzu: Oraingoz ez dut maitasuna egiteko gogo uztarrenik ere.
Mauriceren historialean lehendabiziko aldiz gertatzen da horlakoren bat. Ez da situaziraren jabe sentitzen.
- "Ez maite!" Oraingoan benetan asaldaturik.
Ni ez naiz maitasuna egiteko tresna bat, behar duzunlan hartu eta behar ez duzunlan uzteko.
- Begira Maurice. Gauza ondo zijoan, etzenuen zer-

gatik telefonoz deitu beharrik. Zergatik egin duzu? Errez da, nik esanen dizut - Guisselek bizito hitzegiten du hasarre bezala bainan bere aurpegian ezin irakur diteke inungo reakziorik. "Zure ohean sartu ninduzun. Puntu bat zuretzat. Nire gorputza lortu zenuen. Gaur lanari errematea eman nahi zenion. Brotxea jarri. Ba ez Maurice. Nirekin ez duzu lana konpletatzerik. Guissele hunek ez du ez nigarrik egingo, ez behar zaitula esango ez deus. Konprenitzen duzu Maurice? Deus.

Maurice rentzat ibaia bera ere geratu egin da. Hura bukaera zen bainan ez berak espero zuena. Nola atera handik dignidadea galdu gabe? Letxia! Karta bat besterik: Maurice sanindua:

"Beharba eta ez dakizularik ere nire seme bat daramakizu sabelean eta horla mintzatzen natzaizu! Haurdun bazera zer!

- Haurdun banago konponduko naiz ni bakarrik. Begira: Zuk enauzu maitatzen hori bistan dago, ez esan ezetzik, eta ezta nik zu ere. Maitasuna egin genuen, altan maite ez genuelarik. Zergatik? Hori ez dakit. Gaizki egina bada orain ez du importantziarik ez baidu ezta ere erremediorik. Dena dela ridikulua iruditzen zait ohe batek bi bizitza batzea.

- Ohe batek ez dakit baiña haur batekin beharko. Hizu ni enaiz zerri bat.

- Haur batek ere enau ez zugana eta ez inorengana bultzatuko.

- Haur bat izanen bazenuke nik nire obligazioak betetzen jakinen dut.

- Begira, bat hondatzea ere askotxo iruditzen zait Maurice. Nik ezin dut iges egin, izatekotan nigan izango bai dut haurra, bainan zu salba zindezke eta niregatik lasai asko. Gainera ez ote guaz urrutitxo haurraren historikakin? Beraudutu egin da joango bagindezke!

Candy

Ibaia pasatzen dute. Apenas txapoteo bat entzuten danik, kurak zubiaren posteetan jotzean. Zero beti ibai ertzetik zentroruntz jotzen dute.

2ª parte

Cor 1er ensayo

Ez dizut deus esango bere edertasunetaz edo perfekzioaz ~~edo razionalitatea~~. Bere legeetaz, bai. Zer iruditzen lege naturalak ez direla ezte bezin razionalak esaten ba dizut? Lege fisikoekin edo kimikoekin enaiz arduratuko. Garanti bat dute eta gainera beti da eskertzekoa gaztetan ikasitako $SO_4H_2 + Zn \rightarrow SO_4Zn + H_2$ reakzioak betiko balioko ditala eta inungo reformak ez duela aldatuko jakiteak... Bainan Naturak baditu beste lege batzuek ez oso perfektoak edo ~~beintzat~~ era bat kapritxosuak bekintzat gauza onerako. Ez dakit zu inoiz ere konturatuko zinen huntaz: gizon iger, igor eta luze guziek baju abotsa izaten dute eta lodi txikiek fina. Naturaren lege hun ondo egina iruditzen zaizu? Nire iritziz gizon lodien triparekin armonian egongo litzakena ~~[illegible]~~

~~tsa~~ abots lodi bat izanen eitzake eta makila bat bezelakoak direnentzat flautaren antzekoa. Lege hori ez alda Kapritxosua? Serioa arkitzen duzu?

Natura perfetkoa izatekotan, nunbait izatekotan bere gogortasunean iruditzen zait dela. Nolako inflexibilidadea! Zelako gogortasuna! Arrai handiak txikia jaten du eta azkarrak ahula debila menderatzen. Naturak ez du barkatzen. Esango dute nahi dutena bainan lege natureleri farraitzen diotenak ez dute zerurik irabaziko, lege ~~natura~~ horrek ez bai du humanidade astarrenik ere. ~~Lege~~

Balea arrai txikiez mantentzeko sortu duela ko, horregalik bakarrik ere nazka ematen dit Naturak.

Badakizu txiste hori? Gizon batek besteari esaten dio: Ni argiaren aberi baten produktoa nauk. "Txikitan nigar asko egiten nuen - zigarro bat emanen didazu!- Gauza guziek fartzen nindulen triste- Eskerri Kasko - Oso nintzen sentimentala. Bainan batez ere negu bat mendietako herrixka batean pasa nuanetik bihotzetik geizki ibili nintzen luzaroan. Egunero, egunero, mendi tontorretatik zazpi bat ~~bat~~ edo hamar basakuntz feisten ziren herrenkan. Pentsa zenbatterañoko elurra egonen zen burna besterik ezitzaiela ikus

ten ibiltzeko salto batean gorputz orva atera behar izaten zuten, eta urrengo saltoa emateko indarrik gabe geratzen ziren. Gogorrenak herrira iristen ziren, salbatuak zauden urrengo urteaa karte. Besteak kiru edo lau metro barnera zegoan lurrean janaria arkitu nahirik edo indartsuagoen pausoak segi nahirik bertan hiltzen ziren. Ezin dezakezu konpreni animali hariek elur tartean lurperatuak, ehortziak geratzen zirela ikusteak nire barnean sortzen zuen oinazea... Gero urteak aurrera ez pentsa ditu naizenik. Izan ere eguzkiak etzuela guzientzat berdin berotzen iruditzen zitzaidan...

Gero bizitzaren misteriva izan zen. Bizitzaren misteriva. Bi gorbutzen bitartez beste bat egitea. Persona nagusien hitzak konprenitzen ditu zunean... Konklusioak ateratzen dituzu eta konturatzen zera gehienetan semeak deskuido batean etortzen direla... Semeak gurasoen konbikzio egizkor batek desiatze espiritual batek ekarri behar lituzkete ez haragiaren unio abul batek bakarrik... Bai, badakit: Batasun espirituala dute ez kondutakoek haragizkoa baino lehen, bainan ekarri, haragiak ekartzen ditu haurrak. Plazerra bakarrik billatzen baduzu korritu arixkua... Egokia iruditzen zaizu pokerrean galtzeagatik haur bat izatea!

Berandu da oro Maurice...

Batzuek ekibokatze baten produktoak gera, gurasoena, Ogiorena... ez dakit... Orain ez eskerrikasko, aski erre dut.

Jean Luis



Egin.
Luyatu.
Annetio ko sensyiwak
Libro familia.
altanya.

Enfermerak "mademoiselle" deitzen diola entzutean
Miller jaunaren sala de esperan dauden emakume
guziek eta derrigorrezko diren "guardia de corps"
ek Guisselen'gan jartzen dituzte begiak...
- "Hemendik mesedez"
Miller doktoreak neskaren fitxa du eskuetan irri-
par zabal batekin errezibitzen du.
- "Haurdun nagoela uste dut".
- "Bi falta"
Guisselek ez du deus pentsatzen, makinalki hitze-
giten du. Miller'ek legunki, irripar zabala estali ga-
be.
- "Estudiantea"
Tetxuko fokuak hinotizatu bezala egiten du. Fo-
kuek, eta despatxua betetzen duten hikelezko apa-
ratuek.
Kolgadore bat, plastikozko kurtina bat. Sartreriko
probadore bat bezala... Guisselek erropa guziek eraz-
ten ditu. Ez du lotsarik sentitzen...
Zerri bat bezala, hildakoan tripa irikitzen dio te-
nean. Zangoek goraka eta zabalik.
"Ahalik eta guzien", jabalen
Orain ridikulua sentitzenda, nerbioak eztarri-
an konzentratuak. Ordurarte ez du nabaitu medi-
kuak hitzegitean eskua bizkar gainean jartzen
diola.
Esku txiki bat beatz illetsuekin...
- "Zelako sensazioak dituzu?"
Guisselek detalle guziekin hitzegiten dio. Gustoa
hartzen dio medikuari irikitzea; azken aldian
mundu berri baten bizi dela sentitzen duela esatla.
"Ofalua"... Lehen usaintzen ez nituen gauzak
orain ezin soportatu ditut. Tabakoa, tela, butaken
tapizatua ez dut sofritzen... Nire onduan dau-
denen oinetakoen betuna. Janari guziek ematen
didate bomito farria...

Bularra gogorra, zainak loditu ak.
Millerrek erruberuzko silla batian neskak hitzegiten duen bitartean ueskultatu egiten du.
Eskuak dardar zital batek mugitzen dizkio.
– "Lasai andereño"
Zangoak gehiago zabaltzen dizka. Maurice. Nun egongo ote zen? Leku hartatik iges egiteko gogua sentitzen du. Iges egin. Ondartza batera...
Txikitatik momentu txarretan ondartza batera iges egiteko gogua sentitu di du. Eguzki pean larru hutsik marigorak eraman harte...
– "Lasai" ~~andereño~~
Tubua ahotik aterako zaiola iruditzen zaio...
"Ikus dezagun, lagundu, ~~[illegible]~~ ez egin tensiorik, lasai... hori da.
Oinazeak izerdi(tu) arazi egiten du... Gero kalanbre bezelako bat...
Fokuari begiratzen dio kristalak kuadratuak ditu...
"Bai andereño, hemen dago zure haurra."
Zure haurra, zure haurra. Mereatzeko bildur da. Zure haurra.
– "Analisisak egin beharko ditugu bainan ziur da: haurdun zaude...
Ondartza... Ez painetan kresalaren gustoa sentitzen du... Olatuak... Eguzkiaren beroa eta gero ur preskoa gorputzaren barrendik sartuko balitz bezala...
– "Ez du merezi analisik egiterik. Ez dut haurra eduki nahi.
Hitzegin beharrlan ~~[illegible]~~ egin duela deritzaio. Bera ere harritu egiten da esandakoaz, ~~[illegible]~~ esan beharrlan besten bateri entzun izan balio bezala.
Millerrek ez du jesuita aldatu. Mahi ~~[illegible]~~ ertzian eserita betiko irriparrarekin ~~[illegible]~~

~~[illegible]~~ hitzegiten dio.
"Zein da aita?"
"Ez du nahiko"
Une batian begira geratzen dire. Isilik. Leihotik bustitako lostroen usaia sartzen da...
"Nik ezin dezaket deus egin"
Maurice, Miller jauna, haurra... Zergatik? Zergatik berari? ~~[illegible]~~ Nun ote zegoen Maurice?... Zer zen historia hura? Bera etzen inoiz ere horlako ~~[illegible]~~ istiluetan sartua ibili.
"Hemorrajirik ez ba duzu nik ezin dezakezut deus egin."
Abotskari batekin Millerrek justu justu entzuteko erai:
"Eta hemorrajia edukitzeko?"
Bainan hunek ez dio erantzuten.

Atzera.

Uzatu. Guisseleren presentzio gehiago nobarmendu

Kalean bustitako lostroen usaia indar guziarekin uzaintzen du... Onda egiten dio euria aurpegian sentitzeak. Ez du etxerako presarik...
Abenida nagusia lutsik dago... Metro batzuek korrika egiten ditu aurretik datorren euria indartsuago sentitzearren. Automobillak txipristatu egiten dute...
"Krimen bat osatzeko zirujano bat solizitatzen da"
Aizeak fuerteago dakarki euria.
"Ni ere, prest al nago abortatzeko?" Lehendabiziko aldia da hortaz pentsatzen duela. "Abortatu, berak, Guisselek". Eho, Eho zer?" "Zer ote zen? Neska ala mutikoa? Etzen ezer oraindik. Enbrioi bat. Ez, enbrioi bat baino gehiago. Bililla bete. Noizkaften da persona bizitzen? Ez. Noiz dago persona?

kontuz

54

Maurice. Ikusiko baluke maitasuna egiteko eskatukolioke." Berriro abenida azkeneraino korrika egiten du. Gero eskubi aldeko kale txiki batetik, parkeruntz jotzen du.

Ibai ertzetik dijoala galdera berdinak egiten dizkio bere buruari. Erantzuten ez dakien galderak. Azkenerako bere prolema nagusia abortatzeko medioak arkitzea da, abortua krimena den edo ezari begiratu gabe.

Norengana jo? Durkehin'en ez bainan Rieuwes'en abortua legala dela badaki. Zein kondizioetan bainan? Eta abortibuek?

"Norbaitek jakitekotan Jean Louis'ek. Unibersidade osoan kaizetzen ez ba du bekintzat."

Parke erdian telefonu kabina bat dago. Gehiago pentsatu gabe, bidean ajendan numeroa billatzen duela zuzenik abiatzen da.

Ez du euririk gehiago egiten (ateri dago (atetu ijondu)), erropak zelaro bustiak dauzka eta usaiak goragarria egiten dio. →

"Hemen dago zure haurra" →

Ez du numeroakin (numeroa asmatzen) azertatzen... →

"Hemorraji bat izan ezik..." →

o'y eparo

"Jean Louis! Zurekin mintzatu behar naiz. Bai lehen bailehen". ATZERA.



"Nork Heman dizu hori"? Gaurkoan Miller serio mintzatzen zaio.

"Lagun batek"

"Esan nizun nik ezin dizutala hortan lagundu. Ezin dezaket deus egin, ezta rezeta Heman ere... Hemen debekatua dago eta gainera nire prinzipioen kontra dofa...

"Ondo da, hartu eginen ditut. Badakit nun lortu

LUZATU

ditezken."
"Egin zazu nahi duzuna".
"Ez dute beintzat kalterik egiten?"
Millarrek ez dio erantzuten. Hartua du har dezaken erabaki bakarra. Neskak pena ematen dio, bainan abortatzen laguntzla krimen bat litzake. Neskari atzea emanaz leihotik begira jartzen da. Nekatua dagoanlan bezala etxe aurrean aparkatuak daunden kotxeak kontatzen..."Batzuek haurra eduki nahirik. Besteak... Eta behoiek ginekologoek... Ginekologoek inpotenteak. Bi aldetatik prolemak. Haurrik ezin edukitakuek zorubidean eta beste ama horiek... haurrak kasik."
"Esan arren, ez dit kalterik eginen?"
"Atso zahar baten korratzak gal ditzazke ~~bien~~ amaren eta haurraren, bien bizitza. Zenbat kasu etzituen berak ezagutu? Berak bazekien. Guisselen gabelean zegoana persona bat zela eta gizon batet ez duela inoiz ere persona bat hiltzeko eskubiderik. Ezin zezakean deus egin.
"Haritzazu nahi baduzu, bainan nik ez dizut rezetarik emanen. Zerorrek ikusi. ~~Zerbait~~ ... Zerbait izatlan etorri.

Urrengo aste osoa ohean pasa zuen. Zangoak beruna bezin pisutsuak sentitzen zituen eta aguantatu ezinezko oinaze larri bat gabelean eta ingletan. Burua handitua ijan balu bezala, ezin egon zitekean minutu batean ere geldi ohean kain zen zorrotza zulatzen zuen oinazea...
"Abortsone" pastillak matriza handitu egiten dute eta lehendabiziko illabeteetan dagoen fetua, kasu batzuetan - oso gutxitan bestalde - deskolatu egin dezakete.

Egundik egunera handitzen zaio Gabela eta gorputzaren deformaziovak agaldatu egiten du. Pastillak hartu ezkeroztik bera ere ez da soportatzen, eta haurragandik libratzeko desioa bizitu egin zaio. Desio bat baino gehiago obsesio bat da, beste soluziorik planteatzeko gauza ez delarik... Ideia bakar horrek, kalentura erdian bi eskuekin Gabela jo arazten dio. Natura osoa rebelatzen zaio haurraren kontra.

→ Gortzigarren egunean kalentura gutxitzen kasten zaio eta gero poliki poliki enbarazoaren sensazio normalak bakarrik sentitzen...

Descripción? Monstruo?

"Miller sendagille jauna?
"Beharrezko dut orain hitzegitea."
Boltsoan dituen gauza erdiak lurrera erortzen zaizka boligrafoa atera nahiean. Telefonua matrallata bizkar tartean sujetatzen du...
"Fontanaz. Riennes..."
Telefonuan bestaldean Miller'en abotsa legorra dirudi...
"Ezin dezaket besterik egin ... Entzun dutanez egin izan ditu horlako kasuak... Batez ere ez esan nire partetikan zoazenik."

Durkehin'ek estaziovak bere bizitza errekupera-

tu du. Quisselek "sala de espera" utzi ta bere trena billatzen du. Hirugarrena. Durkehin, Kieuue, Bastien. "Non fumeurs". Bero egiten du abrigua eramateko bainan tripa zahar harekin ezdaki zer jantzi.

Periodikua letzen duen agure baten aurrean esertzen da... Betun usaia. Etzuen mareatu behar... Azkeneraino jo behar zuen. Etzegoen haurdun. Hura pasako zen gaitz bat besterik etzen. Bainan ez, egia haurdun zegoala zen. Nola ahaztu tripa gabe hare haz? Eta bularrak? Abriguaren arrajadurak rozeak ere ta nima egiten zion...

Aurrekoaren periodikuari begiratzen dio... "Anunzio laburrak".

"Abortatzeko kolaboradore bat eskatzen da".
"Krimen baterako espertu bat billatzen da".
"Bainan ez... Fuera historiak. Utikan ixtoriak. Braindik jaio etzena zelan zitekean hil? Zergatik krimena?".
Trena martxan abiatu egiten jartzen da.

"Ene barnean bizitza bat daramakit. Ez dut gorabiatu mareatu behar. Bai, makinaruntz begira, mareatu gabe..."

"Nolakoa ote zen Fontanaz hori? Gaztea! Zer esango ote zion?

Miller'ek esan juanez bestetan egin di izan du. Bizitza bat galtzea ba da ez dago zirkustantziarik. Zirkustantziek ez bai dute bizitza bat kentzeko faina indarrik sekulan... Gainera Kieuue'en legala da. Kasu batzuetan. Zergatik kasu batzuetan? Ez proliferatzeagatik ziurki... Bainan moralaren aldetik prejuiziorik gabe kasu bat onartzen ba zuen etzukean berea zergatik ukatu behar... Gainera Millerrek joateko esan zionean... Miller, aze nolako tipua. "Nik ezin dezaket krimen hori egin bainan ezagutzen dut kriminal bat..."

58. Pilatos baino tipo antipatikoa gorik historian...

Onena deusz pentsatzea Fontanaz'en tinbrea jo
~~K~~arte...

(74) Egia esan orain ez dut soportatzen, oso intelijentea eta nahi duzuna bainan bere polasa ez da gusto onekoa estilvaz gauza berdina ezin esan baditeke ere. Min gehiegi egiten du bere ironiakin eta imajinaziwaren zaztatekoekin. Gainera impertinente bat da eta etzait sinpatikoa iruditzen ~~[illegible]~~ eramaten dituen traje zuri eta korbata loredun handi horiekin... Huxley Indian plantaziwak dituen ingeles baten arketipoa da. Etzait laket.

Irakurri duzu "Brave New World"? Pena da. Gustatuko zitzaidan zurekin ~~[illegible]~~ nobela hortaz diskutitzea. Bainan esplikatuko dizut hitz gutxitan obra horren mamia.

Badakizu komunista batzuek jaiotzen kontrola eta gizonen intelijentzia eta gorputzen adaptaziwa anunziatzen zuten, industriaren beharretara. Julian Huxley (Aldous'en anaiak) zientifikoki tratatu zuen prolema hori. Ba mundu futurista hortan sartzen gaitu "Brave New World" nobelan "Contrepoint"en egilleak. Haurrak ez dire orain bezela sortzen baizik eta enbrioiak tratatuz artifizialki inkubatzen. Horrela hiru tratamentu diferentekin hiru persona klase diferente sortzen dire: α, β, ta γ. Persona bakoitza sozietatearen behar bakoitzarentzat, esate baterako α direkzio lanetarako, β purokrazjarako ta γ makinak mugitzeko. Bai β'tat eta baita γ'k ere klasifikatze han naturalki hartzen dute, hortarako ezinak bur daude eta gainera mundu "happy", mundu zoriontsu baten bizi direla sinesteko eran. Gizon bakoitza oso pozik arkitzen da bere funtzioekin eta metodoloji perfektu batekin guzieri inkulkatzen zaie soziedadearentzat beharrezko direla eta bakoitza bere lanean guziak direla bere soporteak. Mundu zoriontsu bat edo behar bada hiru mundu zoriontsu α, β, ta γ'na bainan dena dela orden bat: soziedade futurista horrena.

Boletus

60

Nik ez dakit 4 zakurrek ote duten beren txakur kondizioaren konzientzirik edo ratonero alu baten tristezia "berger allemand" baten aurrean dituen inferioridadeak analizaturik fundamentatu ditekenik bainan hori ez da beintzat "New World" eko gamnuen prolema.

Huxley'ek utopiak errealizatu egiten direla dio edo esan nahi du. Zoritxarrez utopiko haien teoriak errealitate bikurtu dire... Huxley'ek arrazoi du eta horregatik beharbada ez dut hainbeste inaite.

Gizona ez idazu esan ikusten ez duzularik: Sozietatearen behar bakoitzarentzat gizon perfektu bat. α, β, γ perfektu bat. Badakit hau asko porratutako teoria dela bainan hala ere ni enaiz lotsatzen gizon batzuek enbrioi diranetik α, β, edo γ izateko ~~klasifik~~ predestinatuak daudela. Sozieadadeak γ'k behar ditu. Nazio kapitalista aurreratuenak ere γ'k behar dituzte lanik neketsu eta zikinenetako. γ'k produzitu beharra dago progresoa gelditukо ez bazaigu. Bainan... eta hemen historiak: Zuk nikbezala badakizu herri horietan pareja bakoitzak (γ izanik ere) seme bat besterik ez badute produzitzen oso zaila izanen dela seme hori γ izaten, gutxienez β eginen dute. Reguladore mirajarri batek - Moralak agian - hori ebitatuzuen behar kaina γ fabriketan sartuaz.

Suiza eta Alemani bezalako herrietan ia esan diteke γ'k orfelinato eta tankera horietako etxetatik bakarrik ateratzen direla. Etxe horietan zuk eta nik inoiz ere izan ez dituzun bokazioak sortzen dire. Zergatik? Huxley'ek "New World" hortan enunziatzen dituen ~~es~~ netoduetik oso urrun ez dauden adaptazio lan bategatik.

Ecole ~~primaire~~ primaire egiteko edadean Orfelinato batean lagatzen den aurra école secondaire egiteko edaderako bi urtez atzeratua egonen da.

Guissele Maxime Fontanaz'en marmorezko etxe beltzaren aurrean dago. Material aberatsekin egina izanik ere ez da ederra ia esan diteke gustotxarrekoa dela. Arratsaldeko bostak inguru dire eta hodei beltz batzuek etxearen teilatua ikuitzen dutela dirudi, aide okerbat euranik...

Konsultako tinbrea jotzen du. Ez da deus entzuten txorien kantua izan ezik. Aizeak ez du hodeiak mugitzeko indarrik eta enfermera batek atea irikitzen dionean, euri tanta batzuek erortzen hasten dire.

Sigue escribiendo cuando entra.

Guisselek Fontanaz bere arrano aurpegiakin ikusten duanean, konprenitzen du ezingo duela deusere lortu harengandik. Oso serio errezibitzen du kaobazko mahia baten atzean.

"Andere edo andereño?" Konsultako leiho bakarrak kale txiki batera eramaten du. Hodeiak (eror diren)" lau tantuen pixuaz libraturik goruntz dijoaz poliki, poliki...

- "Zertan lagundu dezaikezut?" dizaizuket

Une batean tontokeria iruditzen zaio haurdun dagoala pentsatzea eta gustotxarrekoa abortuaren historia... Dena amets gaizto bat izan balitz bezala edo pelikula baten ikusia...

- "Zuk esanen duzu" Arranoaren abotsak reakzionatu arazten dio. "Lehen baitlehen bukatzea onena".

- "Abortatu egin nahi dut".

Fontanaz mahiatzetik jeikitzen da eta Guisseleri jo eginen duela iruditzen zaio bere aurpegi asaldatua ikustean. "Zer esan dut abortatu egin nahi dutala besterik?" Bestalde eztago oso segurua berak [dua berak] esan duanetaz. Beste batek ez du esan? Burua hodeiekin batera igesten dion sensazioa sentitzen du.

"Bai hori esan dut". Abotsa firmea atera zaio...
- "Barkatu andereño" Fonanaz'ek bi eskuak mahi gainean jarririk eta sudurrarekin neskarena ikuitzeko eran mintzatzen zaio: "Zu konfunditu egin zera". Ni Maxim Fontanaz naiz. Ginekologoa. Haurrak mondura ekartzen laguntzera dedikatzen diren horietakoa. Ez sorginak bat, ez kriminal bat!"
Fontanaz'ek egitia korra dirudi. Despatxutik alde batetik bestera parira nerbioso batzuek ematen haztten da.
- "Nork esan dizu nigana jotzeko.?"
Arrano begiak atera egin behar zaizkala dirudi. "Lagun batek" nahi du esan... Bainan gustua ematen dio "Durkehin'eko Miller jaunak" esatiak.
- "Hara hara, bestea. Zergatik ez diozu esan berak egiteko! Ez dituzu zuk bakarrik kulpak. Hara hara bestea, konzientzia garbia izanen du horrek beti ziurrena. Zuk ba al dakizu abortatzea zer den! Nik egin izan dut beste erremediorik ez denlan". ~~Ez da justifikatzeagatik~~. Ez du justifikatzeagatik hitzegiten. "Amaren bizitza arrixkuan dagoanian edo semez josia dagoen langillen baten emazteari. Bainan zuri - bektzakin seinalatzen dualarik - eta zu bezelakoeri?"
~~Kanpotik~~ Kanpoan euria hasi du berriro. Lehendabizi tanta lodi batzuek, gero euri lanbro fin batean gerutzen da...
"Zu semeak edukitzeko jaioa izan zera. Gaztea zera eta sanoa, egin dezakezu lan. Edo ezkon zindezke...
"Euria egiten du" "Ezkon zindezke" "Puta ere biur nindeke". "Puta: haur baten legalismoagatik gorputz ta espiritu saltzen dituen emakumea". "Puta legal bat, hain beste señora bezala."

"Ez dut inor maite" dio ~~alta~~ goratik bainan interesik gabe.

- "Ez duzu inor maite? Haurdun egoteko oiferatu zera ba norbaitekin... Ala ez!

"Maite izan ~~k~~ala ez izan. Zer importa ote zitzaion?"

- "Bai maite ez nuelarik egin nuen maitasuna"

- "Eta ondo egiña iruditzen zaizu?"

- "Ezdakit" gero oituka: "Ez!"

Isilik geratzen dire. Eurikotsa entzuten da bakarrik eta alboko serrerin bateko sierra soinua...

"Txikitan ilea moztu nuen eta ennen ebaki behar" esateko gogua ematen dio. Biak isilik irauntzen dute.

- "Nik ez dizut esango norekin edo nola oheratu behar zeran bainan bai gutxienez responsablea izateko. Gizona gizon eta emakumea emakume direnetik elgarrekin oheratzeak haurrak dakarzki. Bazenekizun. Orain izan responsablea"...

"Responsablea, naiz horregatik nahi dut abortatu. Abortatzea ez da responsable izatea? Guisselek ez dio erantzuten.

- "Abortatu, abortatu, ederra erremedioa" Fontanaz'ek irripar batean hortzak erakusten dizkio "Horida errezezena izan ere. Zein da zure erlijioa?"

- "Katolikoa"

- "Eta zer dio Eliza Amak, errenedio hortaz? Zein da zure morala?" Publiko bateri mintzatuko bazitzaio(ke) bezala mintzatzen da, zutik, esku bat silla kadiza, atelu baten respaldu gañean eta bestearekin (asko gestikulatzen) duelarik.

..."Zein da gaurko gazteen morala? Hobekiago: Baduzute moralik! Abortua krimena. Zure Elizarentzat eta gizonentzat, bizitza bat kentzea krimena delako. Eta zugan orain bizitza bat dago, bizitza da gizonaren lehen eskubidea. Ez duzu sinesten gizonaren eskubideetan? Ba nik bai eta ezin dezaikezut lagundu hilkintza krimen bat egiten."

Alde batetik bestera, bere pasira nerbiosoekin hasten da berriro, sendimendu guzietan ikuitua

balitz bezala... "Jainkoa nora goaz...?" "Zein mo-
ral...?" Gero sala de espera oraindik jendez bete-
rik duela akordatuaz: "Bainan zu etzera etorri
lekzioak entzutera... Nik ezin dezakezut dizaizuket hori
egin estaduaren permisorik ez ba duzu. Joan ~~Ex-~~
~~terruption legale de la grossesse~~ "Commission de secours
par l'interruption légale de la grossesse."ra han libera-
len bat tokatzen ba zaizu emanen dizute behar bada
permisoa, bainan ez dut uste." Atea zabaltzen du
Guissele oso poliki altxatzen da butakatik, nigarrez
haßteko bildur da...
"Ez, gaurkoagatik ez dizu deus zor."..

Berriro kalea, berriro euria. Bi edo biru aldiz ~~arnasa~~
oso fuerte ~~artzen du~~ arnasatzendu haize preskoa.
Jendea lantegietatik etxera dijoazte, artaldeak dirudi-
te. Autoak, motozikletak bizikletan batzuek...
Lieumes'ko argiak piztu egin dire, euri laubro
artean behin gehiago Fontanaz'en etxeari begira-
tzen dio: han, beltza. Azken bolaran sarritan ger-
tatzen zaion bezala ez du ia sinesten han sartua
egona denik, bainan badaki han bizitutakoa e-
tzaiola inoizere ahaztuko.
"Ezkon zindezke" Norekin? Maurice'kin?" Norekin
bestela? Zergatik etzion esan: "Ezkon zindezke ez gal-
du itxaropena, ezkontzaren merkatuan erdia
balioko ba duzu ere. ez dire arabeak bakarrik
birjindadea esijitzen dutenak...
"Zergatik ez dut abortatu behar ahal ba dut?
Estudioak utzi bestela? Hori sekulan ez." Zerzen

bere barnean zeraman eta ezagutzen etzuen hura!
Agia zen bizitzen benetan? Zergatik izan zuen bizitza emateko deretxua zirkustantzi harietan?
Buru gainetik beti bezala zoro antxeta batzuek pasatzen dire oikuka... Riemnes'ko lagua, laguak mugitzen diren gezurrezko olatu horiekin mugitzen da. Ordenik gabe, solemnidaderik gabe...
"Abortatu"... ideiz fijo horrek ez du aunetsetan ere uzten. Abortatzea pekatu da... Pekatu... Maitasuna ezkon aurretik egitea bezala... Bezala ez, handiagoa noski. Pekatuen eskala... Loeur Felicitas (ek) ezintzaion noski abortuari buruz inoiz ere mintzatu. Pelikula txarretaz eta bakarrik. Hoietara joatea ere pekatu zen liburu txarrak irakurtzea bezala. Bainan abortua handiagoa. Krimena. Konzepzio egunetik du arima... Krimena beraz, leku batzuetan permititua bada ere... Loeur Felicitas'en pelikula txarrak ikustea hori leku guzietan zegoen permititua, bainan pekatu zen baita ere. Bainan responsabilidadeak? Batzuek haurra egin eta renunziatu egiten zuten. Hori etzen krimena, etzen abortua. Hori eginen zuen berak ere? Ez. Hori ere abortua zen ludarik gabe... Abortua izan behar haurra bularretik arrankatzea, norberaren bizitza txikiaren zainetan sentitzen danean, norberaren begiak bere begietan, abandonatzea. "Akort daude gizonen legeak eta Naturarenak?"
"Ordena... naturaren ordena. Txoriak zeruan eta arrainak ureletan bezala orain haurra nire gabelean...
"Nordu bete trenerako". Riemnes gabeko bizitzarako prestatzen ari da. Neon'ak piztutzen, bere kaleak (inbadituko) dituen jendeekin ados egoteko traje (fribolo) bat jazten...

Adiskide, orain benetan adiskide. Adiskide egin bai gera. Badakizu askotan adiskide hitza formula bezala erabiltzen da esan nahiari begiratu gabe. Andere edo jauna esaten danean bezala...

Adiskide egin gera. Eta zergatik? Nire berritsukeria gatik. Berritsukeria ez dela gauza ona diote eta nik ez dakit zergatik ez den izan behar. Moda da. Ni, badakizu? Ni lehengoetakoa naiz, es oso lehengoetakoa bainan aski oraingoetakoa ez izateko. Asko hitzegiten dugunok ez gerala pertsona onak esan ohi digute. Zuk zer deriotsu? Desenmaskara ditzagun hitzik ere esaten ez duten horiek. Hoieri seriuak eta intelijenteak deitzen zaie. Nik ez dut nahi esan seriuak ez direnik, bainan zergatik intelijenteak? Dakitena esaten ez dutelako? Eta hori da intelijente izatea?

Tira, tira, eseri gaitezen momentu bat. Presaka zerala? Izanen duzu momentu bat orain esanen dizutana entzuteko; Zergatik ez da esaten: Hitzegiten ez dutenak deusere esateko ez dutelako izanen da eta hitzegiten dutenak ez dutelako ~~deus~~ deusere isiltzeko? Esepziuak? Bai, bai, nahi duzuna... Esateko deusere edukigabe hitzegitea isiltzea baino okerragoa izanen da bainan, aupatu dezagun intentoa. Ze arraio! Bestaldekoek ez dute esepziorik amititzen. Gaur egunean tontoa dena isildu eta listo bezala azaltzen da. Eta zu hitzegiten dugunok "quien tiene boca se equivoca" mihina, [illegible] [illegible] [illegible] [illegible]. Konfunditzen bagera tonto bezela agertzen gera esan ditugun gauza onari begiratu gabe. Eta hori, adiskide, zuzena iruditzen zaizu?

Ni aspertu egiten naute poemarik gabeko poeta on horiek eta nobelarik gabeko nobelistek. Halako ez dakit nork, oso poeta ona dela esan du, ile luzea utzi eta poeta konsakratu bat bihurtzen da.

Nire denboran jendeak asko hitzegiten zuen eta ordingoek ezetz esanen badute ere gehienetan zerbait esateko. Nobelistak, nobelista ziren eta bizitza osoa nobelak eskribitzen pasatzen zuten, ~~Orain? Orain:~~ eta poetak ferdin. Orain? Orain:

Eguzkia

Oinazea

Viet Nam'go gerra

Poema horrekin gehiagorik gabe eta horrenbeste hitzegingo ez banuke poeta importante bat bikurtuko nitzake.

Bai, bai... Presaka ba zera etzaitut gehiago molestatzen. Agur, agur... Agur adiskide.

Abandon 66

- Zergatik?
- Ez dakit...
- Zergatik..?
- Ez dakit. Begiak... Ez dakit... Zerbait bai zuen begietan. Maite nuen zerbait.
- Zergatik?
- Parkean begiratu ninduanean, odol guzia burura io zitzaidan. Giltzetan eta bihotzean danbateko gogor bat sentitzen nuan. Ez dakit nun gogorragoa... Gero eskuak hartu zizkidan...
- Zergatik?
- Bainan batez ere begietako hura nik maite nuen hura...
- Zergatik...?

- Jean Louis'ek esan bezala Guisseléak, Rossier medikuarengana jotzea erabakitzen ~~[illegible]~~. Esperantza ez da galtzen, bainan Guisseleri etzaio asko gelditzen. Abortuaren soluzioa bururatu zitzaionetik, prolema hortan dago itxia, beste iges biderik ikusi gabe... Abortatzeko hartutako erabakiak berak baino maitasuna anodiorik gabe ~~egiteak gehiago kezkatzen~~ egin ez ote zuen pentsatzeak gehiago kezkatzen du nola nahi ere.

Georges Rossier'en konsulta, Fontanaz'ena bezala Riemmes'en baita ere zentrotik aparte xamar arkitzen da. Eguraldia joandako egunekoa baino hobeagoa izanik ere grisa da. Eguzkiaren argiak pelikula grisean filtzatuz, difuminatuz aski indar du nola nahi ere gauzeri relibiea emateko.

Rossier'en etxe aurreko piñu eta zapinak ~~&~~ ezaldoi gigante beltzak dirudite eta etxea harrizkoa bada ere ez du-
dira te ondo ~~konjugatzen~~ ezhortzen, egokitzen bi bizitzen txikitasunarekin, bestalde egokiagoa jeranio batzuekin bakarrik ornatua izateko, pretensio gehiagorik gabe.

Sala de espera handia bada ere jendea zutik itxoin beharra du. Bi orduterdi pasatzen dire gutxienez medikuak errezibitzen duaneko. Bi orduterdi azken karta jokatzea itxoiten dan bezala.

Bainan Rossier ikusteak bakarrik trankildu egiten du. Bere mugimentu bakoitzean bitalidadearen sobra duela esan diteke; Guisseleri pegatu egiten zaio bitalidade hori. Aspaldidanik ~~[illegible]~~ aztutako segurantzi bat sentitzen du beregan. ~~[illegible]~~

Haurdun dagoela besterik ez dio esaten, abortua adierazi gabe.

Rossier'ek begietara begiratzen dio irripar zabal bat eskeñiaz eta noizpeinka buruarekin neskak esaten duena konprenitzen duela adierazi az. Telefonuaren tinbrea entzuten danean Guissele isildu egiten da ez daki nundik jarraitu.

Bi edo biru hitz baino gehiago ez ditu esaten, gero kolgatuz eta neska konbenzitu nahirik bezala:

"Bainan zuk ezin dezakezu haurrik izan. Ondamena izanen litzake zuretzat... Bainan... bainan"... Jeiki egiten da eta atzeko orman zintzilikaturik dagoen bere erretratu aski on bat zuzentzen duelariki "Pilulen berririk ez al zenuen ala?"

Guisselek ez du sinestu nahi. Broma bat iruditzen zaio dena. Aho zabalik, buruarekin baietz egitea lortzendu bakarrik...

"Andereño, medikuak haur bateri hitz egiten zaion eran mintzatzen zaio"... Jolasa oro da arriskutsua, orain abortatu besterik ezin dezakezu egin... Zein erlijio da zurea? Bai. Praktikantea?

– Ez, ez

"Beno, beno..." Hasperen luze bat egiten du eta gero boligrafoa mahi gainera botatzen duelarik:
- Kantoi huntan abortatzea legala da kasu batzuetan. Zurea, soltera, estudiante tab. ez da zaila izanen pasatzen sire rekomendaziwarekin..."
Mahi azpitik karrotxo batian dagoen eskribitzeko makina ateratzen du... "Estaduko sikiatra baten baimena behar duzu, gero... Sergier?"
Bi behatzekin eskribitzen du "Bainan etzaio asko kostatzen eskizofreni bat diagnostikatzea, zu bezelako amak beti dute zerbait sikiatrarentzat... Estudiantea... Zuzen bidea? Gero juezak ematen du bainena.
Ia illunpetan daude eta Rossier'ek ez du argirik piztutzen... Bere butaka neskarenaren onduan jartzen du...
"Operaziwa, egia esan ~~es~~ interbenzio bat besterik ez dela esan diteke, oso da sinplea. Hori bai estaduaren baimenik gabe nik ezin dezakezut egin. ... Lehenago etorri izan bazina... Badaude inyekzio batzuek batzuetan bere efektua egiten dutenak... Bainan orain beraudu da.
- Nik hartu ditut pastilla batzuek. "Abortsome" pastillak.
- Nork esan dizu hori hartzeko? Hoiek lehen illabetean egiten dute bakarrik efektua eta oso gutxitan gainera... Beno, orain karta hunekin "Commission de secours par l'interruption légale de la grossesse"ra joan zaite eta ez izan kezkarik, seguru konponduko duzula...
Jeiki eta argia pizten du "Orain ikusi dezagun nola dagoen hori".
Berriro tubua... Kalanbrea...
- "Goitxo izan arren ez da zaila izanen..."
Lababro txiki batean eskuak garbitzen ditu.
74 Guisseleri sujetadorea ez duela sekulan ere lotuko

iruditzen zaio... Pozik dago bainan ezin ditu bere kezkak iskutatu.

– "Eta ukatzen ba didate?"

– Orduan ez dago deus egiterik bainan ez kezkarik izan...

Kanpoko atera laguntzen dio. Pasillua pinturaz betea dago, esposizio batean bezala, batzuek onak ematen dute. Eskua luzatzen dio.

– Permisua izan bezin laister etorri nigana hospitalizatzeko, kiru edo lau egun pasa beharko dituzu... Eta ez larritu, oso da sinplea.

Eskua ez dio uzten, Guisselek berea izerditua dauka eta lotsa ematen dio.

– "Gaipeletik edo estomagutik operatuko ba zinake bezala tratatuko zaitue, ez ba larritu.

Eskua kestutzen dio mina egiteko eran ia, bainan konfiantza ematen dio.

Jardineko kiru iskillak batera jeizten ditu eta biziro berjazko atea irabazten, gelditu eta atzera begiratzen du, bainan une kartantxe Rossier doktoreak konsultako atea kosten du...

Gizonak ez dut uste sekulan ere, gauza batzuetan beintzat animalia dela aztu nahi duen denboran baino animalikeri gehiago inoiz ere egin dituanik. "Zigarrotxo bat?" Zertan fundatzen naizen hori esateko? Hartu dezagun esate baterako zera, kuestio sexuala... Zer esaten zitzaigun guri oraindik gazte ginenean kuestio sexo-arazoaz sexualari buruz? Deusez. Badakit ez dagoela ondo... Bai badu zer ikusirik, itxoin.

Animali guziek erreproduzitzen dire eta gizona ere bai. Gizona besteak bezala (akto sexuala) eginaz. Lehen, esan dutan bezala, ezitzaion inportantzi handirik ematen kuestio horreri, egin eziten genuen gehiagorik gabe. Guk uste baino konplikatuo dela sexualidadearen historia hori! Badakit bai... Bai, bai ados nago zurekin, sikoloji, fisioloji alde guzietatik ditu erreperkuzioak, bainan... Gehiegizkoa deritzat oraingoaki. Guk ere bagenekiegun, bere alde animalienean ere, akto sexuala egiteko momentuan gizona ezin konparatu ditekeala zezenarekin, gizona ez baida abere hutsa (ez dut eginen egin dezaketan txistea). Tragoxka bat? Bainan ez al zaizu iruditzen bere inportantzi psikolojiko, fisiolojiko edo ez dakit zer guziek ta guzti... hori egitea e? Ba laister diploma bat eskatuko dute. Sexualidadeari buruz jakin behar dena! Gure garaiean ez al zen sinpleagoa? Eta makurrago ginen psi edo fisio edo alde horietatik? Ez, ezta inundik ere... Gure osasunera. Neska bat gustatzen zitzaigun eta ez genuen bi egunean jaten, bagenekiegun normala zela, gero... Bainan dena zen normala. Gaurko gazteak arkitu dezaketen baino gehiago billatzen dute relazio horietan, desengañatu egiten dire eta nola edo hala gehiago billatu nahi.

76 Gaur egun gauzak konplikatzen ari dire

~~eta ain zuzen~~ abere sinpletasuna kentzen eta hain zuzen, maitasun librea tab, metodu berrieriesker primitibotasun batera iritxi nahi danean.
Lehen tipo hortako relakzioak apaizarekin kontaktuan egotea exigitzen zuten, orain sikologoarekin, sikiatrarekin eta sexologoarekin... Gauzak neurri bat du. Etzaizu iruditzen? Badakit bai hain da zaila ekilibrio bat lortzen... Beste trafoxka bat?

- Zergatik?
- Ez dakit ... Ez dut nahi...
- Zergatik?
- Ni... Galdua naiz orain haurrik edukitzen ba dut Gainera ... Ez la jaio ... Ez da beraz krimena. Legala, hori, legala da, eta krimen bat ez da legala sekulan ere... Jaiotzen uztea okerragoa litzak beretzat, ez litzake normala izanen, ez luke fameli normal bat inviz ere ezagutuko... Okerrago litzake.
- Zergatik...?
Zergatik zer? Zergatik, zergatik. Zergatik zer? Ni enago haurdun. Gaixorik nago. Hori da guzia. Gaixorik... eta operatu eginen naute. Tumore bat dut edo ez dakit zer... Sabela handitu zait... Gainera etzait inporta... pekatu ba da etzait inporta. Dena da pekatu... Bat gehiago... Etzait inporta!
- Zergatik?
- Bainan, zergatik, zergatik...?



"Commission de secours par l'interruption légale de la grossesse" Katedral katolikoaren ondoan arkitzen da. Itxuraz edozein estasiotako sala de espera batekin konpara diteke. Ezker aldean juzgatua arkitzen da eta eskubi aldean pasillu txiki batekin komunikatzen dela "Bureau des problèmes (laborales)"?

Sala de espera hori emakumez betea dago, ofizina astian bein besterik ez baida irikitzen, asteartetan, batzuerik gizonezkon batek laguntzen die. Sala de espera normal bat da... Abortatzeko permiso zai dauden emakume hauek, klase eta eda-

de guzietakoek, puntua edo errebistak irakurtzen dituzte, ~~den~~ dentistari itxoiten balitzazke bezala.

Prozesua, tramitea ez da ez luze eta ezta konplikatua ere. Kasua mediku bateri presentatzen zaio abortua egiteko prest dagoen ginekologoaren rekomendazioarekin. Gero hamar minutu baino gehiago itxoinarazi gabe, lehendabiziko permisua ematen dute sikiatrari presentatzeko. Humen baimenarekin eta bukatzeko prezak bi minututan erabakitzen du kasua.

Guissele ate ondoko aulkian dago eseria, berrogei urte inguruko emakume baten onduan. Zigarro bat erretzeko prueba egiten du bainan pijtu ta berzala bota behar du. Ez du soportatzen. Azken egunetan, abortibuek hartu ezkeroztik, gauzen usaiak nekezago soportatzen ditu. Askotan lotsatu egiten da zakur baten gisan ~~g~~ aurrean dituen gauza guziek usaintzen dagoela konturatzian; instintoak sonak bultsatzen du, usai berriko gauzek usaintzera, gero nazka emanyo ba diote ere.

~~B~~ Normalena izan ezik ere, emakume batzuek beren kasuak kontatzen dizkie albokoeri naturalidade handienarekin...

Ezkondu gabekoek bereala deskubridu ditezke behaiek dute nerbioroen egoteko itxura eta elgar elgarri begiratzen diote dire bakoitzak bestearen prolema adibinatu asmatu igarri nahirik...

"Bureau des problèmes (laborales)" elikan abots fuerte batzuek irtitzen dire. Aumentu baten eskabidea...

Lehendabiziko kasua bere senarrarekin medikuaren despatxutik ateratzian sala guziak bueltatzen ditu ~~bez~~ buruak behaiengana. Hauek irripar ~~[illegible]~~ (triunfal) batekin, kasua ~~[illegible]~~ onartua izan dela adierazten dute. Beren zoriona sala guzira komunikatzen da.
kutatzen

Sekretaria gazte batek urrengoari deitzen dio. Guisselek beste lau ditu bere aurretik. Ez daki zer egin... Zigarro bat gehiago pizten du bereala botatzeko...

"Jauna, baietz, arren baino arren baietz"... Errezatzen hasten da bainan konturatzen dan an belatzak ezpainetara eramaten ditu, esan behar ez dena esaten ari dela konturatzen den norbaitek bezala...



Udaberri faltso batek, behin gehiago, euriazpian yoxoki lozeuden gauzak esnatu ditu... Alegrantzizoro batekin persona ta gauzek eguzkiaren ordena obeditu dute, bainan anbienteari egitazko edertasun bat ematea lortu gabe...

Riemmes ~~...~~ en lafu ondoko parkean lorezin egindako erlojuak 9'ak markatzen ditu.

Guisselek ordu terdi du hospitalean ingresatzeko. Ordu terdi konsijnatik maletak hartu eta hospitalea billatzeko.

Banku batean eseritzen da. Uretan brisa eskasa aprobetxatuz lau edo bosten bat barkuk bela egiten dute. Surrean, usoak nekez karrapatzen dituzte bere mugimendu motelekin eta txolarren abilidadearekin konpetentzian, haurrek botatako ogi apurrek.

Ez du bildurrik, ez du tristezia gozo bat besterik sentitzen. Momentu batzuetan sakrifikatzera daramaten biktima bat dela iruditzen zaio eta orduan sendimendu horiaizetzea gatik Maurice'tz pentsatzen du. Maitasuna egiteko gogua sentitu nahi luke, sendimendu bat deskubritu harekin pasatako gauaz ~~akordatzean~~ pentsatzean... bainan ez du arkitzen bere indiferentziatik ateratako duen sendimendurik... "Inkonsiente bat" Inkonsziente izateak ematendio bildurra, indiferentziz obratzeak...

Haurdun egotea, gaixorik egotea bezala klasifikatzearekin, abortu hitza bere burutik kendu du. Mauricen aurpegian gauza hura, begietako hura ikusteak bakarrik emango lioke haurdun konzientzia...

Denbora poliki doa pasatzen, hodei zuriak zeru urdinean edo beleruak urgeldietan bezala.

Eguzkiak atzetik karziak lastantzen du egiten dizkio kokotean etaaski du irripar gozo batekin bekiak erdi lokarturik gelditzeko...

Hospitalera joateko plastikozko lorez betetako kanpo santu batetik pasa behar da. Zuriz pintatuta egoteak ez dio seriotasunik kentzen etxeari eta leiho batzuetan mazeteroen bidez hamar bizitzako blokeari aide atsegingarri bat emateko intentoa saiga, intentoan geratzen da bakarrik.

Guisselek fitxa betetzen du. Izena, edadea, Akzidenteren bat izango bazenu nora deitu beharko litzake?

Maurizen zuzenbidea ~~[illegible]~~ emanaz gorotzarre homenaje bat egiten diola iruditzen zaio. Bestalde ez daki norena jarri... Bertha'rena?

"Bertha jungo andereñoa? Hemen Riemues'ko hospitaletik. Guissele Sergier andereñoa abortatzeko interbenzioan konplikazio bat izan duelarik... Hil egin da? Zer esango ote luke Berthak?

- Traumite bat da. Konprenitzen duzu?

Bere kuadroan dagoen atsoak bereala kontatzen dizkio egin izan dizkioten operazio guziak nahikain bat detalleskin orniturik... Guisselek ez dio kasu handirik egiten. Lo egin nahi luke, lo eta esnatzean oso urruti egon. Edozein lekutan bainan urruti.

Ia ez da konturatzen pulsoa eta tensioa hartzen diotenean eta ezta analisisa egiteko odola ateratzen diotenean ere. Gauzeri ez dio azpalditik bere sentidu reala hartzen...

egiazkoa

Urrengo goizean leihotik sartzen den argi zuri batek esnatzen du. Lehendabiziko aldiz du egiazki, egin behar duanaren konzientzia eta bildurra besterik ez du sentitzen. Hospitaleko engranajean dago sartua... Beste gaixoekin, gaixo bat gehiago da; orain berak ez du deus egiten besteak egiten diote... Londres edo Paris'eko etxe zikin bateko petrikillo Aurandero edo matrona baten ohe gainean dagoen emakumearentzat errezago izanen da pekatuaren konzientzia izatea. Hospitalean, Rieunes'ko hospitalean, Guisselek ez du bildurra besterik sentitzen, ~~intestinotik~~ estetatik edo bihotzetik operatzeko zai dagoenak bezala. Pekatua ~~plazerra~~ atlegirra da ~~eta Guisselek oinazea sentitzen du~~ Guisselerentzat eta berak oinazea sentitzen du...

Alboko atsoa pastak eta txokolatea jaten ari da, arratoi baten moduan, bi eskuetan hartuz eta aurreko bi hortzekin ~~txikituz~~, dituen bi bakarrak ziurki, txikituz...

Minutuak motel pasatzen dire. Enfermera bizarra kentzeko nakinilla batekin ikustean ez daki egitan esnatu dan. Usai harek ~~usariatu~~ jorabiatu bezala egiten du eta gainera azken egunetako tensioak nerbioetako hautsi bezala egin dizkio...

Atzetik irikitako kamisoia kentzen diote. Enfermera batek garbitu eta bereala kanilla batean operatzeko salan sartzen dute.

Aparato haiek ezagunak egiten zaizkio... Bere zangoak zintzilikatuko zituzten kolgadoreak; kristal kuadratuko foko haundia bere burutik metro

erdira zintzilika, eskuzorroak guanteak pinzak, gureizak, oxigeno botillak, gomazko mantal bat zintzilika baita ere, bere ezkerrean erloju pean zertarako balioko zuten etzekien aparatu rari bitxi batzuek orratz askorekin... Usaia kuartuan baino mila aldiz fuertegoa... Hamar minutu, itxoiten, hankak goian irikiak eta zintzilika besoak bezala ugel batzuekin lotuak. Erlojuaren tik-tak legorra besterik ez da entzuten... Senlitu... Izerdi botz bat sor arazten duen bildurra ezik deus.

Berrogeni urte inguruko monja batek eskua bekokian jartzen dio.

- "Lehenago operatu izan zaitue?"

Enfermera gehiago sartzen dire, guziek maskarillakin...

Iges egiteko gogua sentitzen du behin gehiago... Iges egin... Igesi...

Monjak irriparrez:

"Lasai..."

Gero, inyekziva...

- "Dena prest?" Rossier'ek bata berde bat jaztea diite daramaki eta gomazko bota txuriak. Maindira hartzen du...

- Eskerrikasko... Goratxo oraindik... Forceps!

Lehenagoko gelan esnatzen da, nigarrez eta oihuka:

- Hil egin nahi dut... Hil!

Odolez blai, blai eginik dago eta ikaragarrizko egarri bat sentitzen duela. Ez du aruasa fuerte hartzen mugitzeko bildurrez... Zelako oinazea...

... Eskua bizkar gainetik pasatzen du odolez betla kentzeko... Gero ez da gehiago mugitzen.
Alboko atsoak oso aurpegi tristearekin begiratzen dio kunkituta balegoke bezala...
Guisselek bizi dela daki bakar bakarrik. Eta oinaze haundia sentitzen duela gorputz osoan.
Enfermerak begiratu eta joan egiten dire. Egarri handia du... Nunbaitetik haurren nigarrak ~~entz~~ entzuten dire... Operazio berdinaren fruitua.
– "Lasai, andereño, dena pasako da ikusiko duzu."
Atsoak oso maitekor hitzegiten dio irripar triste batekin, bainan berak ezin ikusi du...
– "Hori ez da deus, laister kaztuko duzu dena. Guztezera... Ikusiko duzu nola dena berriro hasten den.
Haurrak nigarrez... Ez du gehiago entzuten...
Tantoka, tantoka,.. Litro erdi... Beroa, goxotasun arraro bat; suero botillari begira lokartuta geratzen da...

Formatua egonen zen, bi eskutxuak batera zituela burua makurtuta, errezatzen bezala... Nere semea.
Guissele ibai ertzetik doa. Dena berria iruditzen zaio eta ederragoa. Antxetak ibai ertzean zikinkeriak billatzen dituzte oiuka. Zerua, ~~[illegible]~~ bere goian ~~gar~~ guztiz garbia urrutian dago bakarrik lasso saz zikindutako hodei batzuez estalia. Parkean haur batzuek jolasten dire, beren umak bankuetan hitzegiten duten bitartean.
Nun utzi ote zuten bere haurra? Bere espirituaren indar guziarekin pentsakizun haiek baizetzen saiatzen da. Inoiz ere sentitu eziko haur bat izateko

derioa du barren barrendik, bi aldiz mai tatzeko. Eguzkia gorri bihurtzen ari diren hodei tartean izkutatzen doa, poliki... Antxetak polaseri bukaera emanaz laporuntz, eguzkiruntz doaz ia beti planeatzen eta beti oiuka... Gero ez da deus entzuten. Natura oroak, exiltasun ~~[illegible]~~ batekin ~~[illegible]~~ dedutzen du eguzkia urrengo egunlan algaraz ~~[illegible]~~ duen bezala...

Guisselek aurrera doa, bizitza bat hasteko prest lengoari jarraituko badio ere, itxaropen batek berotzen duelarik... Ur gorrietan sartzen den eguzkiari begira aztutako konfiantza batekin. Biharko bizitzari itxoinaz. Aurrera, bizitzera. Bizitza egunero hasten delako...

Norma
hamabiak

Hamaiak

berem amagarndik
anengandik igarian pretiletik haniak
botatzen dituzte. Gisèlek esku bat jartzen du
nutiko baten bum gainean hurek begiratu eta
berte gerriekin alde egiten du konika.

- Ze ordu da? Neskato bat berre amean ~~[illegible]~~ jartzen da
- Oso berandu.
- Norma etoni onera.
- Hamabiak
- Bai ~~[illegible]~~
- Eta ordunan zergatik ez dituzte ezkilak jo.
- Norma etortzeko!
- Hamabiak ezik ez dakizu deus

Zientzia teknika... Dena doa aurrera abiada ero batlan. Aurrera beti! Eta progresua... Badakizu? Progresua bi (filotako) ~~arma~~ gudurako eta mako izaki. On eta ~~gez~~ kalte egin dezake... Eta gu aurrerapenakin bizitzera kondenaturik gaude. Teknika berriekin kalte egiteko medio gehiago ditugu, gaizto izateko posibilidade gehiago. Horregatik defenditzen dut hain zuzen puntu hunetan gazteria. Gazteria ~~e~~ gaiztoa dela... Bo, bo, bo tontokeriak! Gaiztakeri gehiago egiteko posibilidadeak dituela. Besterik ez.

Ni enaiz morfinomanoa. Ikusten didazu meritorik hortan? Ez. Ez bai dut meritorik illean profesore bezala griegoari eta latinari ~~[illegible]~~ esker 6000 franko irabazten ditutalarik eta gainera ~~[illegible]~~ basamortua dirudin herri huntan bizi naizelarik. Hospitalean ere ez da morfinarik izanen ziurki - ez dut batere meritorik. Milloi asko banituzke edo Kon-Kong'nen bizi, ordnan merito gehiago izanen nuke dudarik gabe. Ikusten duzu? Ikusten duzu nora noan?

Gaur egun gazteak gehiago mugitzen dire eta libertade gehiago dituzte; gure aitonek gaurko aurrerapenak ezagutu izan balituzkete bezala... Gure amonatxuek antikonzeptibuek ezagutu izan balituzkete beste moral bat izanen zutekean. ~~[illegible]~~

Ados zaude nirekin? Ezin dire bi jenerazio belaun neurri berdinakin neurtu ezta gutxinjorik ere... Tragoxka bat? Nire hitzegin behar hunekin eztarria zeharo legortzen zait. Ba... Ezin dire bi jenerazio berdin juzgatu ez, ez. Gaurko gazteak gu ginen bezain onak dire hobeagoak ez izatekotan. Nik gazte asko ezagutzen ditut eta badakit ez direla (txarrak).. Guk preparatu dizkiegun legeekin, guk emandako edukazioakin... Guk egindako sistiman bizi direla horratx!

Behin, hementxe bertan Durkehin'eko estazioan, Denbora ba duzu adiskide, historia bat kontatu-

88

ko dizut... Esan gero zu, gizonen legea, Natura hala destinoaren joku txar batek jolas den gaztea den kulpablea.. Gaur Ez! edo bai! esan behar da garbia izateko ez gure denboran bezala buruko jestu nabarrak (ambiguos) egin da pasa...

~~.... Historia. Ba [illegible] maleta batekin, bakarrik, trenari itxoiten zegoen neskatilla bat ikusi nuen: Guissele Sergier. Hogeitabi urte, kirrua begi urdinak luzea, mehea... Dena. Bonbai bat.~~

Saint Amand - ekin 6 gu kabinara. Nola, neria ere pusea baino lehen? Aiju anderuin anulatu jazu mesedez. Saint Amand

Fribourg - 1968'go - Aprillan 25.

anulatua. ~~[illegible]~~ Gaur Ez! edo Bai! esan behar da garbia izateko ez gure den boran bezala buruko jestu nabarrak bui ta ez esan nahirik egin eta pasa. Egin egin detékeane jeva da polenak simplifikatu polenak

4. ERANSKINA

HITZ AURREA.

Orain illabete batzuek direla, nobela bat Eskribitzen azi nintzen; betiko lehendabizi_ ko nobela autobiografikoa. Aspertu egin nin_ tzen. Neramakien martxan , hainbeste gau ikuitu nahirik, triloji bat aterako zitzaidan bildurrez utzi egin nuen.

~~Orain~~, Esamin bat bukatu ondoren, amabost eguneko bakazioak, oraingo hau egiteko beta hemen dite; egia san bukatzeko ilusio handirik gabe eta seriotasunik gabe ekin diot lanari.

Irakurriko duzutena ez da nobela bat ezta ensaio liburu bat ere. Ez dakit zer den (hobekiago esan ez dakit zer atera zaidaten). Tratatzen dutan prolema ez da berria ezta tratatzeko era ere. Ez da zai_ la izanen presa eta inesperientzia nabai_ tzen.

Tolerantzi apur bat besterik ez dizuet eskatzen eta barkamena nire lehendabi_ ziko liburua, jolasean egin dutalako.

Transkripzio diplomatikoa: fº2r



Transkripzio diplomatikoa: fº2v



Transkripzio diplomatikoa: fº3r

Ziur naiz bein baino gehiagotan neskatoren bat ikusi izan duzula maleta bat eskuan, edo_ zein estazioetan, trenen bateri itxoiten. Asko ikusten dire. Batzuetan pentsatu izan dut "Protec_ tion de la jeune fille"k inpakto egiteko, propa_ ganda bezala ez ote dituen jartzen. Nik unkitu egiten naute; haur bat jotzen ikustea eta hori, neska gazte bat maleta batekin bakarrik trena_ ri itxoiten, gehien tristatu nauten bi gauzak direla uste dut. Zeren eta neska horren desti_ noa tren horrek ekarri eta eramango duela pentsatzen bai dut, nahi ez izanik ere.

Egiten ditut bai bestelako reflexioak "Ama ikustera joanen duk", edo egun batzuk Riemmes' era alaiki pasatzera". Bainan ez, azkenian de_ rrigorrezko ~~dut~~ zait abandonatutako neskato bat dela pentsatzea eta tren horrek bere gal le_ kura eramanen duela.

Zertan fundatzen naizen hori prentsatzeko? Ezertan ere ez. Nire esperientzieri kasu egi_ naz, kontrako arrazoia izanen litzake lojikue_ na. Zeren eta ni, gazte urteak joan bazaizkit ere, maleta batekin estazioetan bakarrik dauden neskekin amistadea egiten espezialis_ ta bat naiz. Ogei gutxienez izanen dire zirkus_ tantzi horietan ezagutu ditudanak eta ez dut izan baserik nigan sentimendu hori, intui_ zio beltz hori gordetzeko.

Gehienak, ~~denak egia esateko~~, kasu bakarren_ bat ezik, neska sanoak ziren, guraso pare batekin eta estudiatzera edo libertitzera zijoazenak, zijoazen lekura. Gainera neska batek suizidatzeko asmoz, Riemmes'eko trena hartuko lukela prentsatzea - suizidioa destinoa ren joku txarrena bezala autatuz - ez da logikoa; zeren eta hori dagoen lekuan

Transkripzio diplomatikoa: fº3v

egingo luke gehiagorik gabe, bestalde kapritxu hori izanik ere ez luke maletaren beharrik iza_ nen.

Bainan zer nahi duzu? Ni horla naiz eta dagonezkero ezin aldatuko naiz gainera. Ez dut logikaren aztarrenik ere ene buruan eta biaje bat egin behar dutan aurretioko bi egunak, munduko estazioetan, bakarrik arkitzen diren neska horietaz pentsatzen pasa oi ditut. Lo egitea ere zaila egiten zait eta azken momen_ tuko dutanari eskeintzeko..



Kolejioetan edukazio bat ematen zaigu. Materia bat beste askoren artean. Matematika eta edukazioa, deribadak eta atsoei eskuan nola musu eman. Gero urteak aurrera, aplika_ tzeko garaiean, edukazioan besteetan bezala etzaiz_ kigula estudio razional batzuek eman bistan ager_ tzen zaigu. Praktikan errenak gerala nabar_ men. Esate baterako: Atso zahar bateri trolebusean lekua utzi behar zaiola jakinik ere. Nola egin beste guzien (atenzioa deitu (aurrean nabarmendu) gabe? Nola buruko

Transkripzio diplomatikoa: fº4r



Transkripzio diplomatikoa: fº20r

Aste osoan garaierako oso normalak ez den eguzki batek argitu ditu Durkehin'eko harriak. Udaberri faltsuba_ tekegoak zabaldu eta hiri osoa transformatu du. Par_ kean arbolak ere espejismoa sinetsi dute eta eguzkiaren dirdirapean berdeagoak dirudite; persona ta gauza alaiagoak...

Durkehin'eko abenida nagusian jendea gora ta behera doa apur bat despistatua oraindik, aurpegi berriak es_ trainatuko balituzkete bezala, deskonzertatuak eguz_ kiaren argiarekin; ~~kontent eta~~ alaiki beren sweter berriak bezala.

Eguraldi oneko arratsaldeetan, ohiko ibiltariak ~~paseante abitualak~~ intruso jende pilla tarte batean arkitzen dire, aize epelak sumatzeak bultzatutako gizon ta emakume. Lehendabiziko egunetan letargo batetik ateriak be zala, deskonzertatuak, Durkehin berri baten desku brimentua egiten dute, eta arraroa egiten zaie, lagarto_ ari urteroko harri zapala arraro egiten zaion antzo. Udaberria da eta ez da. Kalendarioan oraindik heldu ez delarik ikus ditezke neguko erropak, bai_ nan gehienak aski dute eguzkia zeruan ikustea apirila iritxia dela sinesteko...

VALE

con sensaciones.

VALE

Snack barretako argiak piztu eta eguzkia itzaltzen den ordua da. Aizegoak bidean arkitutako musika guziak nahasten ditu eta arrastatuz beste berri bat konposatzen du guztiz alaia... Dur_ kehin'eko bistanleak zerura begiratzen ba dute. Izarrez betea ikusiko dute. Arratsa zaro da erosoa.

Transkripzio diplomatikoa: fº20v

Bar batian Guissele eta Maurice mahi batian eseriak daude. Ez dute hitzik egiten. Mauricek hitzik ere ate ezen duen guzietan bezala Gauloise bat bestearen atzetik erretzen du. Situazioa etzaio berria. Filoso fiko estudiantearekin pasatzen zaiona, kimikaskoare kin, ekonomikaskoarekin eta beste askorekin gerta zaio: Aspertu egin da... Ez du erremediorik. Berak diona "Ez diat arkitu bi_aldiz letzera bultzatzen dikan nobela eta ezta bigarrengo aldiz mai tasuna egiteko desiratu diaten emakumerik. Reinzidentziak lotzen ditek eta nik ez lotu_ rarik behar... Nor esaten zidak bihar trolebu_ sean ez diatela ordurarte ikusitako emakume_ rik ederrena ikusiko? Bestalde neskak ez dituk bizitza guzirako hiri begira (izorratuak) gelditzen". Maurice, maitasuna deporte bezala egiten duten horietako da donjuan bat, plazerra baino zerbait baliotsuago billatzen dutenetakoa (ez konfunditu Casanovarekin) eta morbosoa. Mauriceri etzaio gustatzen nska batekin maita_ suna behin baino gehiagotan egitea, neskari gehie netan oso atsegin etzaion momentua akordaraztea, pun_ ta ateratzea. Punta ateratze hunen asarretik dator_ kio gehienetan igesbidea.

Zer punta?

_ Zerbait gehiago hartu nahi duzu?

Guisselek jestuarekin ezetz dio.

_ Buelta bat emango bagenuke?

Kanpoan barnean baino berago egiten du eta ai zea zigarro kearen baino anbientea s baino pisu tsuago sentitzen da. Jendea ugaritu egin da kalee tan eta lehendabiziko edo azkeneko egunean elgar-

rekin ateratzen diren parejekin gertatu di den bezala, bien

Transkripzio diplomatikoa: fº21r



Transkripzio diplomatikoa: fº24r

Enfermerak “madmoiselle” deitzen diola entzutean
(Itxaron gelan)
miller jaunaren sala de esperan dauden emakume
guzieketa derrigorrezko diren “guardia de corps”
ek Guisselen’gan jartzen dituzte begiak...
- “Hemendik mesedez!
Miller doktoreak neskaren fitxa du eskuetan irri
par zabal batekin errezibitzen du.
-“Haurdun nagoela uste dut”.
-“Bi falta”
Guisselek ez du deus pentsatzen, makinalki hitze_
giten du. Miller’ek legunki, irripar zabala estali ga_
be.
-“Estudiantea”
Tetxuko fokuak hinotizatu bezala egiten du. Fo_
kuek, eta despatxua betetzen duten nikelezko apa_
ratuek.
gortina
Kolgadore bat, plastikozko kurtina bat. Sastreriko
probadore bat bezala... Guisselek erropa guziek eraz_
ten ditu. ez du lotsarik sentitzen...
Zerri bat bezala, hildakoan tripa irikitzen diote_
nean. Zangoek goraka eta zabalik.
gehiena
“Ahalik eta guzien” zabalen
Orain ridikulua sentitzen da, nerbioak eztarri_
an konzentratuak. ordurarte ez du nabaitu medi_
kuak hitzegitean eskua bizkar gainean jartzen
diola.
Esku txiki bat beatz illetsuekin...
- “Zelako sensazioak dituzu?”
xehetasun
Guisselek detalle guziekin hitzegiten dio. Gustoa
hartzen dio medikuari irikitzea; azken aldian
mendu berri baten bizi dela sentitzen duela esatea.
Usaimena, usna
“Olfatoa... Lehen usaintzen ez nituen gauzak
jasan, eraman oihala
orain ezin soportatu ditut. Tabakoa, tela, butaken
tapizatua ez dut sofritzen... Nire onduan dau_
denen oinetakoen betuna. Janari guziek ematen
goragalea
didate bomito larria...

Transkripzio diplomatikoa: fº24v

Bularra gogorra, zainak lodituak.
Millerrek erruberazko silla batian neskak hi_
tzegiten duen bitartean euskultatu egiten du.
Eskuak dardar zital batek mugitzen dizkio.
_"Lasai andereño"
Zangoak gehiago zabaltzen dizka. Maurice. Nun
egongo ote zen? Leku hartatik iges egiteko gogua
sentitzen du. Iges egin. Ondartza batera...
Txikitatik momentu txarretan ondartza batera
iges egiteko gogua sentitu oi du. Eguzkipean larru
marigorak
~~hutsik~~ mareak eraman harte...
_"Lasai" ~~andereño~~
Tubua ahotik aterako zaiola iruditzen zaio...
"Ikus dezagun, lagundu, ~~hori da, lasai...~~ ez egin
tensiorik, lasai... hori da.
Oinazeak izendi(tu) arazi egiten du... Gero kalan_
bre bezelako bat...
Fokuari begiratzen dio kristalak kuadratuak di
tu...
"Bai andereño, hemen dago zure haurra."
zorabiatzeko
Zure haurra, zure haurra. Mareatzeko bidur
da. Zure haurra.
_"Analisisak egin beharko ditugu bainan
ziur da: haurdun zaude...
kresalaren
Ondartza... Ezpainetan salitrearen gustoa senti
tzen du... Olatuak... Eguzkiaren beroa eta gero ur
preskoa gorputzaren barrendik sartuko balitz beza_
la...
_"Ez du merezi analisik egiterik. Ez dut haurra
eduki nahi.
Hitzegin beharrean ohu egin duela deritzaio. Bera
ere harritu egiten da esandakoakin. ~~Bere barrengo~~
~~zerbaitek esan du: berak ez~~ esan beharrean bes_
ten bateri entzun izan balio bezala.
kiñua
Millerrekez du jestua aldatu. Mahi ~~iskiman~~
ertzian eserita betiko irriparrarekin ~~begiratzen~~

Transkripzio diplomatikoa: fº25r

~~dio~~ hitzegiten dio.

"Zein da aita?"

"Ez du nahiko"

Une batian begira geratzen dire. Isilik. Leihotik bustitako ostroen usaia sartzen da...

"Nik ezin dezaket deus egin"

Maurice, Miller jauna, haurra... Zergatik? Zergatik berari? ~~Beharrik~~. Nun ote zegoen Maurice?... Zer zen historia hura? Bera etzen inoiz ere horlako istiluetan sartua ibili.

"Hemorrajirik ez ba duzu nik ezin dezakezut deus egin."

Abotsari batekin Millerrek justu justu entzuteko eran:

"Eta hemorrajia edukitzeko?"

Bainan hunek ez dio erantzuten.

Atzera.

luzatu. Guisseleren presentzia gehiago nabarmendu

Kalean bustitako ostroen usaia indar guziarekin usaitzen du... Ondo egiten dio euria aurpegian sentitzeak. Ez du etxerako presarik...

Abenida nagusia hutsik dago... Metro batzuek korrika egiten ditu aurretik datorren euria indartsuago sentitzearren. Automobillak txipristatu egiten dute...

"Krimen bat osatzeko zirujano bat solizitatzen da"

Aizeak fuerteago dakarki euria.

"Ni ere, prest al nago abortatzeko?" Lehendabiziko aldia da hortaz pentsatzen duela. "Abortatu, berak, Guisselek. Eho, Eho zer?" "Zer ote zen? Neska kontuz ala mutikoa? Etzen ezer oraindik. Enbrioi bat. ez, enbriooi bat baino gehiago. Bi illabete. Noiz hazten da persona bizitzen? Ez. Noiz dago persona?

Transkripzio diplomatikoa: fº25v

Maurice. Ikusiko baluke maitasuna egiteko eskatuko lioke." Berriro abenida azkeneraino korrika egiten du. Gero eskubi aldeko kale txiki batetik, parke_ runtz jotzen du.

Ibai ertzetik dijoala galdera berdinak egiten dizkio bere buruari. Erantzuten ez dakien galderak. Azkenerako bere prolema nagusia abortatzeko medioak arkitzea da, abortua krimena den eo ezari begira_ tu gabe.

Noregana jo? Durkehin'en ez baina Riemmes'en abortua legala dela badaki. Zein kondizioetan bainan? Eta abortibuek?

"Norbaitek jakitekotan Jean Louisek. Uniber_ sidade osoan aizetzen ez badu bezintzat."

Parke erdian telefonu kabina bat dago. Gehiago pentsatu gabe, bidean ajendan numeroa billatzen duela zuzenik abiatzen da...

Ateri dago (atertu egin du)

Ez du euririk gehiago egiten, erropak zaro bustiak dauzka eta usaiak goragarria egiten dio.→

"Hemen dago zure haurra" →

Ez du numeroakin azertatzen... →

"Hemorraji bat izna ezik..."

-Jean Louis? Zurekin mintzatu behar naiz. Bai. Lehen bailehen."

X X XXXXX

ATZERA.

J P G

"Nork eman dizu hori?" Gaurkoan Miller serio mintza tzen zaio.

"Lagun batek"

"Esan nizun nik ezin dizutala hortan lagundu. Ezin dezaket deus egin, ezta rezeta eman ere... Hemen debekatua dago eta gainera nire prinzipioen kontra dago dioa.

"Ondo da, hartu eginen ditut. Badakit non lortu

LUZATU

Transkripzio diplomatikoa: fº26r

ditezken.”

“Egin zazu nahi duzuna.”

“Ez dute beintzat kalterik egiten?”

Millerrek ez dio erantzuten. Hartua du har de_
zaken erabaki bakarra, neskak pena ematen dio,
bainan abortatzea laguntza krimen bat litzake.
Neskari atzea emanaz leihotik begira jartzen da.
Nekatua dagoanean bezala etxe aurrean aparkatuak
dauden kotxeak kontatzen... “Batzuek haurra eduki
nahirik. Besteak... Eta behoiek ginekologoek... Gine_
kologoek inpotenteak. Bi aldetatik prolemak. Hau_
rrik ezin edukitakuek zorabidean eta beste ama
horiek... haurrak kasik.”

“Esan arren, ez dit kalterik eginen?”

“Atso zahar baten horratzak gal ditzazke ~~bien~~
amaren eta haurraren, bien bizitza. Zenbat kasu
etzituen berak ezagutu? Berak bazekien Guisselen
sabelean zegoana persona bat zela eta gizon batet ez
duela inoiz ere persona bat hiltzeko eskubiderik.
Ezin zezakean deus egin.

“Har itzazu nahi baduzu, bainan nik ez dizut re_
zetarik emanen. Zerorrek ikusi... ~~Zerbait~~... Zerbait
izatean etorri.

beru_
Urrengo aste osoa ohean pasa zuen. zangoak beu_
na bezin pisutsuak sentitzen zituen ea aguantatu
ezinezko oinaze larri bat sabelean eta ingletan. Burua
handitua izan balu bezala, ezin egon zitekean minutu ba_
tean ere geldik ohean lain zen zorrotza zulatzen zuen
oinazea...

“Abortsone” pastillak matriza handitu egiten dute eta
lehendabiziko illabeteetan dagoen fetua, kasu batzue_
tan –oso gutxitan bestalde– deskolatu egin dezakete...

Transkripzio diplomatikoa: fº26v

Urrengo goizean leihotik sartzen den argi zuri batek esnatzen du. Lehendabiziko aldiz egiazki du egin behar duenaren konzientzia eta bildurra bes_ terik ez du sentitzen. ~~Hospitaleko engranajean dago~~ sartua... Beste gaixoekin, gaixo bat gehiago da; ~~orain~~ berak ez du deus egiten besteak egiten diote... Londres edo Paris'eko etxe zikin bateko ~~kurandero~~ petrikillo edo matro_ na baten ohe gainean dagoen emakumearentzat errezago izanen da pekatuaren konzientzia izatea. Hospitalean, Riemmes'ko hospitalean Guisselek ez du bildurra besterik sentitzen, ~~intestinotik~~ esteetatik edo bihotzetik operatzeko zai dagoenak bezala. Pekatua plazerra da atsegina ~~eta Guisselek oinazea sentitzen du~~ Guisselerentzat eta berak oinazea sentitzen du...

Alboko atsoa pastak eta txokolatea jaten ari da, arratoi baten moduan, bi eskuekin hartuz eta aurreneko bi ortzekin ~~txikituz~~, dituen bi bakarrak ziurki, txikituz...

Minutuak motel pasatzen dire. Enfermera bizarra kentzeko makinilla batekin ikustean ez daki egitan es_ natu dan. Usai horek mariatu zorabiatu bezala egiten du eta gainera azken egunetako tensioak nerbioak hautsi be zala egin dizkio...

Atzetik irikitako kamisoia kentzen diote. Enferme_ ra batek garbitu eta bereala kamilla batean opera_ tzeko salan sartzen dute.

Aparato haiek ezagunak egiten zaizkio... Bere zan_ goak zintzilikatuko zituzten kolgadoreak; kristal

 kuadratuzko ~~t~~foko haundia bere burutik metro

Transkripzio diplomatikoa: fº39r

eskuzorroak
erdira zintzilika, guanteak, pinzak, gureizak, oxi_
mantal
geno botillak, gomazko mandil bat zintzilika baita
ere, bere ezkerran erloju pean zertarako balioko
bitxi
zuten etzekien aparatu raru batzuek orratz as_
korekin... Usaia kuartuan baino mila aldiz fuer_
biziagoa, sarkorragoa
teagoa... Hamar minutu, itxoiten, hankak goian
ugel
irikiak eta zintzilika besoak bezala ~~korrca~~ batzue_
kin lotuak. Erlojuaren tik-tak legorra besterik ez
da ~~sen~~ entzuten... Sentitu... izerdi otz bat sor arazten
due bildurra ezik deus.

Berrogei urte inguruko monja batek skua
bekokian jartzen dio.

_ "Lehenago operatu izan zaitue?"

Enfermera gehiago sartzen dire, guziek maska_
rillakin...

Iges egiteko gogua sentitzen du behin gehiago...
Iges egin... Igesi...

Monjak ~~batek~~ irriparrez:

"Lasai..." ~~Gero, injekzioa.~~

Gero, injekzioa...

jazten dute
_ "Dena prest?" Rossier'ek bata berde bat ~~jazten~~
daramaki eta gomazko bota txuriak. Maindira har_
tzen du...

_ Eskerrikasko... Goratxo oraindik... Forceps!

Lehenagoko gelan esnatzen da, nigarrez eta oiuka:

- Hil egin nahi dut... Hil!

Odolez blai, blai eginik dago eta ~~egon~~ ikaragarrizko
egarri bat sentitzen duela. Ez du arnasa fuerte
hartzen mugitzeko bildurrez... Zelako oinazea...

Transkripzio diplomatikoa: fº39v

...Eskua bizkar gainetik psatzen du odolez beta kentzeko... Gero ez da gehiago mugitzen... Alboko atsoak oso aurpegi tristearekin begiratzen dio unkituta balegoke bezala...

Guisselek bizi dela daki bakar bakarrik. Eta oinaze handia du... Nunbaitetik haurren nigarrak entzuten dire... Operazio berdinaren fruitua.

_ "Lasai, andereño, dena pasako da ikusiko duzu." Atsoak oso maitekor hitzegiten dio irripar triste batekin, bainan berak ezin ikusi du...

_ "Hori ez da deus, laister aztuko duzu dena. Gaz_ te zera... Ikusiko duzu nola dena berriro azten den: Haurrak nigarrez... Ez du gehiago entzuten...

Tantoka, tantoka,.. Litro erdi... Bera, goxotasun arraro bat; suero botillari begira lokartuta gertazen da...

Formatua egonen zen, bi eskutxuak batera zituela burua makurtuta, errezatzen bezala... Nire semea. Guissele ibai ertzetik doa. Dena berria iruditzen zaio eta ederragoa. Antxetak ibai ertzean zikinke_ riak billatzen dituzte oiuka. Zerua, bere goian guztiz garbia urrutian dago bakarrik harrosaz zikindutako hodei batzuez estalia. Parkean haur batzuek jolasten dire, beren amak bankuetan hitzgeiten duten bitartean.

Nun utzi ote zuten bere haurra? Bere espirituaren indar guziarekin pentsakizun haiek aizetzen saia_

86 tzen da. Inoiz ere sentitu eziko haur bat izateko

Transkripzio diplomatikoa: fº40r

desioa du baren barrendik, bi aldiz maitatzeko.
Eguzkia gorri biurtzen ari diren hodei tartean izku_
tatzen doa, poliki... Antxetak jolaseri bukaera ema_
na laguntz, eguzkirutz doaz ia beti planeatzen
eta beti oiuka. Gero ez da deus entzuten. despeditzen
Natura osoak, ixiltasun ~~solemne~~ batekin ~~despe~~_
ospetsu
ditzen du eguzkia urrengo egunean algaraz ~~errezi~~_
agurtuko
~~bituko~~ duen bezala...
k irribarrez neskatoa jolasten ikusten du
Guissele aurrera doa, bizitza bat aztteko prest len_
goari jarraituko badio ere, itxaropen batek berotzen
duelarik... Ur gorrietan sartzen den eguzkiari begira
aaztutako konfiantza batekin. Biharko bizitzari itxoi
naz. Aurrera, bizitzera. Bizitza egunero agten delako...



Haurrak
beren amagandik
amengandik igesian pretiletik harriak
botatzen dituzte. Gisèlek esku bat jaisten du
mutiko baten buru gainean honek begiratu eta
beste guziekin alde egiten du korrika.

- Ze ordu da? Neskatu bat bere aurrea ~~jartzen~~ da.
- Oso berandu.
- Norma etorri onea.
- Hamabiak
- Bai, ~~Norma~~.
-Eta orduan zergatik ez dituzte ezkilak jo.
- Norma etortzeko!
- handia zuk ez dakizu deus.
da baina

Transkripzio diplomatikoa: fº40v

Zientzia, teknika... Dena doa aurrea abiada
ero batean. Aurrera beti! Eta progresua... Badakizu?
Progresua bi (filotako xxxxx eta xxxx) ~~arma~~ izaki. On eta ~~gaiz~~ kalte
ein dezake... eta gu aurrerapenarekin bizitzera konde
naturik gaude. Teknika berriekin kalte egiteko me_
dio gehiago ditugu, gaizto izateko posibilidade gehiago.
Horregatik defenditzen dut ain zuzen puntu hunetan
gazteria. Gazteria ~~l~~ gaiztoa dela... Bo, bo, bo tontokeri
ak! Gaitzakeri gehiago egiteko posibilidadeak dituela.
Besterik ez.

Ni enaiz morfinomanoa. Ikusten didazu meritorik
hortan? Ez. Ez bai dut meritorik illean profesore beza
la griegoari eta latinari ~~eskar~~ esker 6000 franko ira
bazten ditudalarik eta gainera ~~gain~~ basamortua
dirudin herri huntan bizi naizelarik –Hospitalean
ere ez da morfinarik izanen aurki– ez dut batere
meritorik. Milloi asko banituzke edo Hon-kong'nen
bizi, orduan merito gehiago izanen nuke dudarik
gabe. Ikusten duzu? Ikusten duzu nora noan?

Gaur egun gazteak gehiago mugitzen dire eta
libertate gehiago dituzte; gure aitonek gaurko aurre_
rapenak ezagutu izan balituzkete bezala... gure
amonatxuek antikonzeptibuek ezaugutu izan balituz_
kete beste moral bat izanen zutekean. ~~dudarik gabe~~ belaun

Ados zaude nirekin? ezin dire bi jenerazio neurri
berdinekakin neurtu ezta gutxiagorik ere... Tragoxka
bat? Nire hitzegin behar hunekin estarria zaro
legortzen zait. Ba... Ezin dire bi jenerazio ber_
din juzgatu ez, ez. Gaurko gazteak gu gnen bezain
onak dire hobeagoak ez izatekotan. Nik gazte asko
ezagutzen ditut eta badakit ez direla (txarrak...)
Guk preparatu dizkiegun legeekin, guk emandako
edukazioarekin... Guk egndako sistiman bizi direla
Horratx!

Behin, hementxe bertan Durkehin'eko estazioan,
88 Denbora ba dugu adiskide, historia bat kontatu_

Transkripzio diplomatikoa: fº41r



ko dizut... Esan gero zu, gizonen legea, Natura hala destinoaren joku txar bate jolas den gaztea den kulpablea... Gau Ez! edo bai! esan behar da garbia izateko ez gure denboran bezala buruko jestu nabarrak anbiguos egin eta pasa...

...Historia. ba ~~trenari itxoiten zegoen neska maleta batekin, bakarrik, trenari itxoiten zegoen neskatilla bat ikusi nuen: Guissele Sergier. Ogeitabi urte, kirrua, begi urdinak, luzea, meea.. Dena. Bonboi bat.~~

Saint Amand-ekin 6.gn kabinara. Nola, neria ere zurea baino lehen? Aizu andereino anulatu zazu mesedez. Saint Amand

Fribourg - 1968'go – Aprillak 25. anulatua. ~~Geroxeago deituko diot nire izebari.~~ Gaur Ez! edo Bai! esan behar da garbia izateko ez gure denboran bezala buruko jestu nabarrak baita ez esan nahirik egin eta pasa. Ezin egin datekeana zera da prolemak sinplifikatu prolemak

Transkripzio diplomatikoa: fº41v

5. ERANSKINA

LL2

Ziutatea + idatsi aunetik

GERRA - KRIMOEGILE EPAIL

lehen epaileak: oh Harry g
Missouriko ne
benedikatzen
adoratzen za
eskerrak ere
Hiroshima eta
bomba bota ze

biganeuak. — oh maitea ,

hiruganeuak. — Boom Nagasa

LL2

GERRA - KRIMOEGILE EPAILEEN AGIRIA

lehen epaileak: oh Harry gurea
Missouriko nekazari zuzena
benedikatzen eta
adoratzen zaitugu
eskerrak ere ematen diskitzugu
Hiroshima eta Nagasakiu
bomba bota zendualako.

bigarrenak. — oh maitea, oh justoa, oh laztana

hirugarrenak. — Boom Nagasaki boom, boom Hiroshima boom

LL.

Hiltzaile nagusien erakunde sacratua. (HINES)

Han litzateke ellu, Maria gamendia sartzen den azken erakundea. Heuen ezagutu lituzke enegelak eta abar, eta hemengo sabiziuan geldituko litzateko. Hortarako, bere aitak hil eta gero, beste hilketa asko eta krudel egin behar ko lituzke.

Bartaere, honen barnuen ezagutuko luake, zergaitik esis titzen diren Nuremberg eta antzeko HINES kontrako Jokaerak, HINESekoak eramanda gainera. Bi arrazoin dauda: bata: { beste HINES bat sortu nahi zuten
batea: } HINES, berbera, Amiskran Jartzen zuten, eta sakrifikatu egin behar ko zuten.

LL3

GARYL CHESSMANEN POEMA.

Maria Gainerdiarea bisitza kontatzen denez gero, gau beharko da, nun noiz eta zeinetatik jaio zen ezezik, ze liburu irakurri zituen etab.

Poema liburuare eo hosize irakurri zituala. Eta klare hontako liburu batean, adibidez, poema hau:

GARYL HILTZAILE DESIRATUA
NOIZ JARRIKO DITUK NIGAN HIRE BEGIAK
NOIZ ERAMANGO NAUK KAMIO ZABALETAKO HERTZ BATERA
NOIZ SARTUKO GARA BIOK BASOAN ?
SENTITU NAHI DIZKIAL HIRE BEHATZAK ENE IZTERREAN
SENTITU NAHI DIHAT HIRE ESKUAK ENE BULARRETAN
ODOLAREN BULTZADA SENTITU NAHI DIHT HIRE BESOETAN
GARYL GARYL

EMAKUME GUZTIK NAHI DIAGU
HIRE ESKUETAN BIZITZA GALTZIA.
SETAKKO GALTZERDIZ EZTARRIA URRATZEA.

+

(OH) Beste fitxa batan maknetofoien kapitulua azaldu behar dut, eta "zein harriska handiko". en kontrolak. Hemen azaldu leike frantsiko manifestu bat.

LL4

Guillermo tell.en, benetako istorioa.

Lun literarioaren barnean joango da istorio hau, eta beste askoen artean "maria garmendiak irakurri zituen ipuinak" deitu leiken arloan sar liteke. Hemen, jakina, istorio berri bat egin beharra dago, "bersio lihue" bat baino zerbait gehiago, zeren hiltzaile izaitera aitegatzeko eman zituen urratsak adierazi nahi baditur.

Istorioaren zerbait xehetasun:

a) mariak, Guillermoren gertaerak irakurri eta gero, erabaki zen du ezin dela horrela gertatu izan, sagarraren arazoa, punteriare ma etab., eta beste esplikazio bat bilatzen du. Ganzak hola "benetakoa" bilatzen du, herri-liburutegiko gela gorde batean.

b) Benetazko gertaerak izan litezke, adibidez.

- Hilketa bat izan zen Tell.ena. Bere semearen burua erdibitu zuen fletxa (harztun?) handi

batekin.

• Hil bazuen, bere semearen konfiantzari traizio eginez, dirua gaitik izan zen, baiso ez pentsa tziste eta kirfuturikan eman zionik heriotza: ez, un literario hanetan ezin ager detezke sentimen tu hoik.

• Pagatzaika, enesuma hartako gobernadorea izanen da, eta honen ardura adierazten ari naizen bihen bitartean, Gipuzkoa Matanza edo beste enkal probentzietako gobernadore bate nuk izanen dira azaldurak. Beraz, izpuin txit politizatua beharko den izan.

d) Haria nundik eraman hobeki jakiteko, erabili nezaket istorio horretaz dadukaten liburua (costeasun).

LL5

MARLIZ GORETTIREN BIZITZA.

Honen antseko biographia bat erabili behar dut "anti-espilu" bat bezala. Honelako baten struktura jaso, eta gero zilipurdikatuaz, (esperanto maila, politiko maila, poetiko maila sartuaz) sortu diteke nahi dudan liburua.

6. ERANSKINA

Margarethe -

"Literatura ez da hipotesi mingarri

(Jean S

"Margarethe"
(Domitiako ipuin sari'a irabazi nuen, ele gaine Obabakoetan sarta nuen -

Eman dezagun, matematikaren edozein r ... esi baten gisa, orain urreneko udaren azken egu ... tren estazio baten erdian, ene arreba baka ... i-dala - ene oinazea zuri dezakeen esakera e ... ustekabean eta hain urrun nigandik, eta hainbeste presaz baitaere, non berri hori ezagutzerakoan aurrez nituen zubiak, eta portuko grua erraldoiak, desolazioaren paisaia exaktoa bailiren geldituko baitzaizkit betirako. Hibaia eta itsasoaren urak nahastatzen diren paraje argitsu horretan, untzi izugarri batzuk, bandera orotakoak, ikusi ahal izaten dira urtearen egun guztietan, azken zubitik haruntz, ifarralderantz: hoiek ere izan ditezela - pentsatu nuen - ene une honetako desolamenduaren lekuko eta ornidura, ez daitezela bizi ene oroimenean, Sbarbarok urrezko lumatako xoriari eskatzen zion bezala, ene arrebaren heriotzeko ordua finkatzeko baizik.

Antzinako liburuetan ere izkribatua dago edonongo gizonak, holako ezbehar baten aurrean, sentitzen duena: hil zara - dio Aquitaniako printzeak bere damaren hilobian - eta planetak orain zure nostaljiaz soilik jiratuko dute, eta zure nostaljiaren indarrez argituko, halaber, hilargiak eta izarrak. Zugatik, eta nirekin batera, aingeru batek malkoak ixuriko ditu, zilarrezkoak, eternidade osoan. Eta bederatzigarren zeruaren gainean jotzen ari diren errege musikoen kanta malenkoniatsuak bakarrik entzun ahal izango dira espazio infinitoan.

Eta egin dezagun kontu, honela hipotesia zehaztuz, gutun baten bitartez adierazi zidatela gertatutakoa, lakonismoz beteriko lerro batzuk medio, eta etxetik at nengoela gutuna irakurtzeko aukera izan nuenean, autobusaren zai, hain zuzen; egun osoa zeramatela letra ilun haik, nik portuko bulego batetan guztiz ahazturik lan egiten nuen bitartean, ene gabardinaren sakelean.

"Literatura ez da hipotesi mingarri baten bilakaera baino"

(Jean Santeuil)

Eman dezagun, matematikaren edozein maitalek onartuko lukeen hipotesi baten gisa, orain urreneko udaren azken egunetako batetan hil zitzaidala, tren estazio baten erdian, ene arreba bakarra, Margarethe; eta hil zitzaidala - ene oinazea zuri dezakeen esakera erretoriko batez esateko - hain ustekabean eta hain urrun nigandik, eta hainbeste presaz baitaere, non berri hori ezagutzerakoan aurrez nituen zubiak, eta portuko grua erraldoiak, desolazioaren paisaia exaktoa bailiren geldituko baitzaizkit betirako. Hibaia eta itsasoaren urak nabastatzen diren paraje argitsu horretan, untzi izugarri batzuk, bandera orotakoak, ikusi ahal izaten dira urtearen egun guztietan, azken zubitik haruntz, ifarralderantz: hoiek ere izan ditezela - pentsatu nuen - ene une honetako desolamenduaren lekuko eta ornidura, ez daitezela bizi ene oroimenean, Sbarbarok urrezko lumatako xoriari eskatzen zion bezala, ene arrebaren heriotzeko ordua finkatzeko baizik.

Antzinako liburuetan ere izkribatua dago edonongo gizonak, holako ezbehar baten aurrean, sentitzen duena: hil zara - dio Aquitaniako printzeak bere damaren hilobian - eta planetak orain zure nostaljiaz soilik jiratuko dute, eta zure nostaljiaren indarrez argituko, halaber, hilargiak eta izarrak. Zuratik, eta nirekin batera, aingeru batek malkoak ixuriko ditu, zilarrezkoak, eternidade osoan. Eta bederatzigarren zeruaren gainean jotzen ari diren errege musikoen kanta malenkoniatsuak bakarrik entzun ahal izango dira espazio infinitoan.

Eta egin dezagun kontu, honela hipotesia zehaztuz, gutun baten bitartez adierazi zidatela gertatutakoa, lakonismoz beteriko lerro batzuk medio, eta etxetik at nengoela gutuna irakurtzeko aukera izan nuenean, autobusaren zai, hain zuzen; egun osoa zeramatela letra ilun haik, nik portuko bulego batetan guztiz ahazturik lan egiten nuen bitartean, ene gabardinaren sakelean.

Arratsak zauri sakonak eragiten ditu gizonarengan: bihotza itzali egiten zaigu lainoetako urrea hauster bihurtzen denarekin batera, ilunabarretako usoak ez digu bakerik ekartzen. Bandera bentzutu baten gisa zarpiltzen da gure izpiritua. Nik ere, ene ahaztura zela medio, egun guztia itxadon nuen oinazez betetzeko. Ba dirudi - zion adierazle ezezagunak - mementu hartan estaziora sartzen ari zen tren baten gurpiletara erori zela inork esplikatzen ez dakien huts batetan. Zure arreba bide denari heriotzea kolpetik etorri zitzaion, inolako sofrimendurik gabe. Ez diogu kausitu, zure bizitokia eta izena salbu, beste inoren aztarranik. Ez dugu aienatzen erailketa baten posibletasuna eta zerbait zihurrago jakitean, zuk hala nahi izanez gero, oraingo bizitoki berdinera bidaliko dizugu informea.

Hautsi egin nintzen barrendik ene arreba ez nuela gehio-sekulan ikusiko erabat sinesten hasi nintzenean. Eta lerro haik segurtasunez beterik zeuden, ez zuten uzten zirrikitutik dudarako. Altxa nituen begiak: gaua furfuriarik gabe zetorren, mantso eta geldiro, eta portuaren ingurumariako mendiak beltzituz zihoazen bere gailurretik malko ilun bat lerratu izan balitzaie bezala. Haur hil berriaren ubeldura zeukan zeruak. Hibaiari so, Margarethe/apika desiatuko zukeen azken paseoa imajinatu nuen. Zein ederra egonen zen ur haietan etzanda, setazko soineko beilegi batekin jantzirik, lore gorri eta urdinez inguratua, itsasoaren zabaltasunak bere altzoan har zezan arte!

Baina zubien gaikaldetik ogi papurren bila zebiltzan kaiu eta marloien erraimua besterik ez nuen ikusten ahal. Eta orduntxe lehertu zitzaizkidan begiak eta negarrez hasi nintzen.

Autobusaren geltokia jendez betetzen joan zen, eta bi begiko argifoko baten azpian egon ginen denok, hitzik gurutzatu gabe, autobusa etorri arte. Euri xehe bat egiten hasi zuen, udaren bukaeraren hurbiltasuna nolabait adieraziz. Ni izan nintzen azkena autobusera igotzen, automata bat bezala, urkamendira daramatzatenen oreka eza eta txorabio berdinaz.

Bizi naizen hurian apenas inor ezagutzen dudan; edozein etorkinaren moduan alferrikakoa izaten zait jendetzaren artean aurpegi ezagun bati igertzea. Ni-

re kasoan balego ni ez bezalako bat - esan nuen ene artean - gutuna irakurri bezain azkar jakingo luke zein atetara jo, norengana abiatu ezbeharraren kontatzeko. Joango litzateke, adibidez, bere betiko lagunaren edo maitalearen gelara, galdetuko lioke honek bere aurpegi txarraren zergatiaz, egingo luke bientzat kafea, mintzatuko lirateke elkarri kontsolatuz hurrengo egunaren goizerarte; eta ezer esateko ezina balu pertsona horrek, bere Margaretheren heriotzeak mutugoa ekarri izan balio-edo, ardurarik ez, egin leke garraisi, hautsi lezake bere alkandora intziri batean, nahi guztia egin lezake bere adiskideak zinez konprenituko duelakoan.

Ni bezalakoak, ordea, apika lotsatiak izateagatik, batek daki zergatik, ez dute, ez dugu inor izaten lagun urko. Eta kaleetatik nekegabe paseatzen, edo jende ugari biltzen den plaza eta errestaurantetatik ibili arren, ez dugu bakardadearekin baino estrapozo egiten. Bakardadeak, gauden tokian gaudela, txistu egiten digu kobra bat bailitz. Giacomettik esan zuen bezala: ez nau ezerk hainbeste kezkatzen elkarren artean daukagun tarte infinito horrek baino. Nik ere sentimendu berbera neukan autobusaren aulkian eserita, eta ez nintzen, horregatik, ene desesperazioa disimulatzen nekatu, ez zitzaidan batere ardura izan nirekin zihoazenen begiradetako enbarazua edo burla; gutuna eskutan zimurtuz, behin eta berriro irakurtzen, egin nuen etxerainoko bidea, eta balantzaka, ordi bat bezala, jaitsi nintzen ene kalera ailegatu ginenean. Piztuta zeuden jadanik sukalde guztietako argi urdinskak. Lasaitasuna sentitu nuen ezkaratzean sartzearekin batera, orma ezagun haik, eta hainbeste bider erabilitako eskilarak, desiaturiko babesa emateko gai izan balira bezala. Egia da, oraino inork ez du burutu ahal izan, pena haunarekin dagoen sasoietan, beste pertsona guztien ezjakituria, munduaren inertzia hori; bizitzaren ohizko aurreratzea, geldiunerik gabe, eta ezertan pausatzeko betarik ez duen magma bat bailitz. Hori guztiagatik, niri gordetzea zegokidala konprenitu nuen, animalia zaurituaren moduan, eta bilera edo jai hoberenaren aldean egokiagoa zitzaidala ziegarik ilun eta hezeena. Ene bizitzako atea zabaldu orduko Margarethez mintzatzen zitzaizkidan objetuen bila hasi nintzen. Mahai baten gainean ipini nituen bere erretrato guz-

tiak, eta berdin egin nuen azken urtetan beragandik jasotako erregali guztietiekin. Hoien artean bihotz formako kaxa bat zegoen, perfumatua, eta bere barnean terziopelozko oihaltxoan bordaturik, lehen inolako zentzurik ez aurkituta ko leienda irakurri nuen : Margarethe, schwester stürmischer schvermut. Orain bai dela - xuxurlatu nuen - trumoitsua hire atsekabea, Margarethe.

Bildu nituen baitaere bere gutun guztiak, eta objetu guzti haieri begira pasa nuen gaua bere ausentzia nolabait betetzearren.

Astebete gero, ene ahaleginen ezereza nabarmena zitzaidan, eta ene deskontsolamenduak ez zuen mugarik. Eta horregatik erabaki nuen Margarethe izatea, pentsatu egin nuen nigan zegoela bere presentziarik sendoena, ene arreba neramala ene-baitan, bere odol berbera, bere begi berberak, baita bere irrifarra eta bere imintzioak ere.

Oraindik begien aurrean bamu bezala oroitzen naiz emakumezko soinekoa erosi nuen egunaz. Lore gorrizta batzuk zituen, eta berarekin jantzirik, ilea luzatu zitzaidanean, Margarethegandik ezin bereizteko moduko andre bat nintzela konprobatu nuen. Lanetik itzultzean ispilu aurrean egoten nintzen luzaro, aurpegi eta gorputzeko xehetasun oro ene arrebarenetara egokitzeko.

Hasieran ez nintzen kalera ene nortasun berriaren ezagugarriekin irteten, baina lehen proba lotsatietan izandako arrakasta ikusita (gizon asko hurbiltzen zitzaizkidan mintzatzera) gero eta gehiagotan jotzen nuen kalera, gauez bereziki, eta nire benetako nortasunarekin sekula egin gabeko gauzak egiten hasi nintzen. Hilabete bat pasa zenean telegrama bat bidali nien, Margarethe bezala izenpetuz, ene bulegoko zuzendariei, hil egin nintzela adieraziz.

Eta Margarethe bezala, ene arrebak ibili bide zituen pauso guztiak eman ditut azken hiru hilabetetan. Ezagutu dut maitasuna, eta festetan, edari garestiene kin piztuta, kantatu eta dantzatu egin dut errenditurik erori arte. Lehengo gizon sotilaren arrasto guztiak ezabatu ditut ene bizitzatik.

Baina azken bolada honetan lehen inoiz es sentitutako larritasun bat joan da nitaz jabetzen. Ez naiz hainbeste festatara joan eta, horren ordez, niretzat guztiz berria den paseo bat ematen hasi naiz. Goizero, gogoz bestera ia, estaziorantz zuzentzen ditut ene pausoak, eta han pasatzen dut denbora, trenei be-

gira, gautzen den arte. Eta gehiago dena: sarritan, begiak bagoien gurpiletan jarriak dauzkadala konturatzen naiz, hoien dizdira ilunak hipnotizatu izan banindu bezala.

Margaretheren heriotzea gogoan, atzera egin nahi izan dut, eta bota egin ditut soinekoak eta hasiera batean hainbeste ilusioz eramandako koilare eta pultserak. Ene harremanak hautsiz, festetara joan gabe, berriro gizonezko bezala jantzita, lehen nintzenera itzuli nahi izan dut. Baina alferrik, nigan ez da (bizi) Margarethe baizik. Eta bere tristezia jabetu da nitaz.

Atzo hartu nuen beste gutun bat, lehengo adierazle ezezaguneberberarena, non esaten zaidan Margarethe ene arreba bakarraren heriotzeak ez duela suizidioaren esplikazioa baizik ametitzen.

Ez neukan konfirmazio horren beharrik. Arratsaldero joaten naiz estaziora ene patua betetzera, nahitaezkoari aurre ematera.

7. ERANSKINA

Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena

Izkribuak hamaika orrialde ditu, holandarra ik alde batetik daude idatziak. Gehientsuenak, zeude eza- baturik daukate goi parteko zenbait lerro, eta le lu- rra ukituz egon delarik, irakurtezina bihurtu dut daraman arren, gutuna mila bederatzireun eta hiru paba herrian hiru urte daramala adierazten du sinadura ean eta Camilo Lizardi - hala dio behintzat egun erre in batera egin zen bailara horretako herriska eta hauzo guztien kargu. Ohiturak edo izakera sobera urduri batek bihurrituriko grafia barrokoak, eta baita arazoari ematen dion tratamenduak ere, azkeneko honek bereziki, eskola apartekoa adierazten dute, orduko apaizgoan ohi zena baino askozaz ere aberatsagoa; Jesus-en lagunen ikastetxetakoa, apika. Gutuna ikaskide izandako bati zuzendutakoa dirudi, baina ezin da jakin, izkribuaren aipatu egoeragatik, haren izen eta gorabeherarik; are gutxiagoa sekula bidalia izan ez zelarik. Sumatzen da, halere, Lizardi-ren laguna ezezik, nolabaiteko autoridadez jantzitako eliz gizona ere izan behar zuela; gutunak, hain zuzen, eta gai bezala hartutako gertaeraren esplikazioekin batera, aitormen kutsu bat dauka, kontseilu edota gupida bila letorkeen gizon erori baten zapore betiere mikatza.

Aurreneko orrialdean, irakurri ahal den apurraren arabera bedaio, erretoreak bere pesadunbrea - hitz hau garden ageri da bosgarren lerroari dagokion tokian - azaltzen dio lagunari. Geroxeago, osorik dagoen zati batean, " nahastaturik eta Jainkoak esku jarri dizkion tresnaz irabazi ezin dezakeen proba baten aurrean " sentitzen dela esaten du. Iada bigarren orrialdean, eta aintzin solasa modura oraindik, hitzez hitz eta orduko ortografia ahal neurrian errespetatuz transkribatzen dudan erreflesio hau dator:

"Edocein astronomia liburutan aurqui cezaqueagu, ene lagun maitea, vicitzaren gañean egiña izan den metaphoraric zucenetacoa. Gure univertsoa - ciotec Laplace-ren discipuluac - espacio infinitoan bacar bacarric cebillen bola erraldoi baten leorquetaroquin jaio cen. Arrezquero, ala izarrac nola planeta edo asteroideac, leen materia bera cirenac, urruntzen ari dira elcarrengandic, urruntzen, ere, astapen pondu artatic. Eta gañera, gueroz aundiagoa da pusqueta bacoitzac bere iesean daraman

Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena

Izkribuak hamaika orrialde ditu, holandarra deitzen den tamainakoak, eta soilik alde batetik daude idatziak. Gehientsuenak, zeuden sotoaren hezetasuna dela medio, ezabaturik daukate goi parteko zenbait lerro, eta lehendabizikoa, urte guzti horietan lurra ukituz egon delarik, irakurtezina bihurtu duten mantxaz beteta dago. Datarik ez daraman arren, gutuna mila bederatzireun eta hirukoa bide da; izanez ere . . Obaba herrian hiru urte daramala adierazten du sinadura aurretik errodatatzen duen agurrean eta Camilo Lizardi - hala dio behintzat egun erretore denak - mendearen hazierarekin batera egin zen bailara horretako herriska eta hauzo guztien kargu. Ohiturak edo izakera sobera urduri batek bihurrituriko grafia barrokoak, eta baita arazoari ematen dion tratamenduak ere, azkeneko honek bereziki, eskola apartekoa adierazten dute, orduko apaizgoan ohi zena baino askozaz ere aberatsagoa; Jesus-en lagunen ikastetxetakoa, apika. Gutuna ikaskide izandako bati zuzendutakoa dirudi, baina ezin da jakin, izkribuaren aipatu egoeragatik, haren izen eta gorabeherarik; are gutxiagoa sekula bidalia izan ez zelarik. Sumatzen da, halere, Lizardi-ren laguna ezezik, nolabaiteko autoridadez jantzitako eliz gizona ere izan behar zuela; gutunak, hain zuzen, eta gai bezala hartutako gertaeraren esplikazioekin batera, aitormen kutsu bat dauka, kontseilu edota gupida bila letorkeen gizon erori baten zapore betiere mikatza.

Aurreneko orrialdean, irakurri ahal den apurraren arabera bedaio, erretoreak bere pesadunbrea - hitz hau garden ageri da bosgarren lerroari dagokion tokian - azaltzen dio lagunari. Geroxeago, osorik dagoen zati batean, " nahastaturik eta Jainkoak esku jarri dizkion tresnaz irabazi ezin dezakeen proba baten aurrean " sentitzen dela esaten du. Iada bigarren orrialdean, eta aintzin solasa modura oraindik, hitzez hitz eta orduko ortografia ahal neurrian errespetatuz transkribatzen dudan erreflesio hau dator:

"Edocein astronomia liburutan aurqui cezaqueagu, ene lagun maitea, vicitzaren gañean egiña izan den metaphoraric zucenetacoa. Gure univertsoa - ciotec Laplace-ren discipuluac - espacio infinitoan bacar bacarric cebillen bola erraldoi baten leorquetaroquin jaio cen. Arrezquero, ala izarrac nola planeta edo asteroideac, leen materia bera cirenac, urruntzen ari dira elcarrengandic, urruntzen, ere, astapen pondu artatic. Eta gañera, gueroz aundiagoa da pusqueta bacoitzac bere lesean daraman

nbiadura. Monrad-ec itzal-arresto bat bezala icendatzen duen adiña bi bider ere pasata daucagunoc, melanconia tanta batez beguiratzen ciegu cientziac oi duen laconismoz escribitutaco lerro oriei. Ez bait dugu, atzecaldera erreparatzean, garai batean gurequin bat eguinda cegoen munduric icusten. Falta zaizquiguc, exempli gratia, beiñ, dandai jarri giñeneraco, aldamenean sentitu izan guenitun arnasac. Niri beintzat falta zaizquidac: orain amabost urte il citzaiaquean ama; duela bi nirequin vici cen arreba. Ba dittuc ogueitamar urte anaia guztiac ultramarrera joan cela. Eta i erorri, ene lagun maitea, urrun ago; ireganaco premia seoula baño latzagoa den sasoi onetan, urrun ago".

Oso taukun iraun ez duten aipamen biblikoak datoz gero, Sion-etik herbestera beharrean gertatu zen herriarekikoak gehienak, eta hiragarren orrialdean sartzen denarekin batera gutunaren gaiari heltzen dio; ez, ordea, une haietan nozitzen zituen mailurrak lehenago aipatu gabe:

"...vicitzaren atzaparrac eraso eguiten digutela ic badaquic; eta ez ote bere indarra eta seta costaldeco lurrari, arcaitz gorriari, zati chiquiac, harri chincharrac, ostutzen dizquion ichasoarenac?. Baña desbideratzen ari nauc, eta asia egongo aiz dagoenaco quezcatzen; cer suertatzen zaio Lizardi zaarrari olaiñ lanturos mintzatzeco, galdetuco dioc ire buruari. Ecen ba zequiat, ondo acordatzen zaidac-eta, cein griña vicico guizasemea aicen, eta cein guchi maite duan luzamendutan ibiltzea. Baña acordatu adi, ire partez, nola gustatzen citzaidan erretorica, eta barca eguiac. Ba nijoac, beraz, gutun onen jatorrian dauden guertaeren berri ematera. Izan ezac pacientzia santua, eta entzun eguioc arretaz, luce jarduten ba naiz ere, Jaincoaren cristau humilloni. Eta eduqui ezac, betiere, Eclesiastés-eco oiu ura gogoan: Vae soli!. Bai, chit zorte zacarra duc bacarric dagoenarena, eta are tamalgarriagoa, abuztuco eguzquiac millaca eta millaca ernedituen elcho oiec bezala, ecin alchaz, indargue, dabillenarena. Eta besteric gabe equiten cioat aguindutacoari.

Orain sei illabete, ilbeltzan, mutico bat, amaica urte cituena bera, mendian izcutatu uen; betiraco, orain daquigunez. Javier - ecen gure martiri aunitzaren icena bait deraman - noiznai echetic aldeguiten duenetacoa guenian, baña ez denaquela pentsa bere icsac gu denoc, zaputzaren poderioz-edo, eguin oi ditugun moduoac cirenic; gogoan izango duc, nosqui, bioc alcar artuta artasoro batean gaua pasa guenuenecoa, eta dena maisu berriaren icaraz guenbiltzalaco...baña, esaten diot,

Javierren cer nolacoac ez ituen arruntac. Eche propioric gabecoa celaco, alde batetic, sasicoa, emen erabiltzen den icenez esateco. Aita ezagutu ez zuelaric, ama ume gorritan il citzaioquean, eta ostatuan - bere sortzaille ezcutucoac bidaltzen cituen duro cillarrezcoen truc, vox populi dixit - eduquitzen ciaten gaisoa. Zacurrac, ic ederqui daquic, aintziña batean izan diren otsoa burura etortzen zaienean, nagusiaren babesa utzi eta basoan barrena, guc senti ecin dezaquegun ots bati seguica-edo, abiatzen dituc. Bada, sena berdiña eracusten cian gure muticoac: cegoen famelia orretan odolac betiere aguindu oi duen maitasunic ecin aurquituz, escapa eguiten cichien, egun bateraco sarritan, aste osoraco cenbaitetan. Iñor guchic sofritzen cian orrequin; eguia esateco, eta nitaz aparte, ostatu berean apopilo egoten cen Matias gracia zuen agure batec bacarric. Etorrico da, bai, gosetzean, ara emen bere guraso ordecoei - liburu gabeciari ainbeste bider laguntzen dion bestialismoaz - sortzen citzaien ondorengo comentario bacarra. Azqueneco aldian bai, ainbat atera uen, joan cen egunetic beste amar pasata ceudelaric, Javierren billa. Esan diadan bezala, sei illabetezco aspaldian falta zaiguc, eta nonbait amildu eta galdua delacoan gaudec.

Eguizac contu, orain, gure umeteriaren biotz shamurretan, Jaincoaren bildots garbiac diren partez, gorde izaten den iñucentziaz. Obaban dauzcagunac corrica batean cebiltzac goiz eta arratsaldez, ecen, elizari amaica vuelta eman ezquero murrutic cintzilica dagoen gargola cantatzen asico zaiela uste bait dute; eta olacoric secula suertatzen ez den arren, berac, ilusioa galdu bearrean, gaizqui contatuari ala lasterregui edo motelegui ibiltzeari bota[illegible] culpac eta amaica vuelta oriek emateari equiten ciotec ostera. Orien artean beiñ ere ecin icusi, ordea, Javierric. Ecin icusi or, eta ecin icusi uda partean ieri eguitera edo chorien cabien billa joaten diren muticoen artean. Aushe duc, ene lagun maitea, ume gaisho orren beste aldea: ceucan bacardadea. Berecia uen, izaqueraz bezala gorputzaz; colore erabat zurbillecoa izanic, aurpeguia ichusitzen cion oriñ batez inguratua cichaucan beguitartea. Icusten nuen bacoitzean, bere tanquera illunac uquituta."

Hola bukatzen da laugarren orrialdea. Hurrengoa, bosgarrena, erdi usteldua dago, eta lizundura kentzen saiatu naizen arren, errainu urdinska huts batzuk bezala gelditu dira parte horretako hitz gehienak. Ulertzen ditudanen arabera, ba dirudi Camilo Lizardi erretore jauna, [illegible] oroitzapenen eraginez-edo, hasierako pentsakizun etsitara eman dela berriro. Esate baterako, txirrina-pantika deitu zomorroa aipatzen du zazpiga-

rren lerroari dagokion tokian. Begiratu dudan enziklopediak, xehetasun teknikoak eman ondoren, hau zion: Izadiak ez du, oro har, krudeltasunik ezagutzen. Animalia batek gosea asetzeko hil beharra daukanean, minik gabe, harrapatu duenari sofrimendurik jasanerazi gabe, burutzen du ekintza. Baina ba dira salbuespenak, arestian definitu dugun txirrina pantika tartean. Insekto honek poliki poliki, bizirik dauden bitartean, amorru biziz, jaten ditu bere biktimak. Honaino enziklopediak diona. Ez litzateke harritzekoa izango Lizardik, mutikoaren zortea gogoan, bizitza insekto horrekin alderatu nahi izatea. Baina, dena den, hauk ez dira neure golkotik atera ditudan erreflesioak baino. Jarrai dezagun, bosgarren orrialdearen zati irakurgarrian, erretoreak zinez zionarekin:

"...baña ez pentsa, lagun maitea, emen isuri dudana baño gueyo eguin ez nuenic. Bisitatzen nian aalmena neucan guztietan, eta etortzen citzaizquidan itz alaienac esaten nichizquioan. Alferric uen dena, ordea.

Contua duc, muticoa izcutatu eta andic illabete batera, Marchoco leen igandez oquer ez banago, basurde zuri bat azaldu cela erriaren cale bacarretic barrena. Zucenean plazan, iragan agunetaco edurraren ondaquinaz, jostatzen ari ciren ume batzurengana jo cian, eta anche gueratu omen uen, beguira, lasai oso, arriscuaren centzuric ez duen aur bat bezalashe..."

Hemen du amaiera bosgarren orrialdeak. Seigarreneko lehen hiru lerroak ere ezabatuak daude. Eta honela segitzen du gero:

"...badaquic nolacoa den emengo jendea. Ez dic animalia maitatzen, eta gauza bera uke, ene eritziraco, biotz chit legorrecoa dela esatea; eçen, izatecotan, ez al litzaque maitasuna, ontzico ur guztia gacitzen duen gatz coscorraren guisa, lecu denetaraño irichi bear?. Ni Obaba allegatu nintzenetic guchira, colore bicitaco chori bat azaldu uen, galduta nonbait, elizaco campandorrean. Seguru asco ichasotic cichatorren, eta an nichoan ni, leiotic beguira, pisti aren etorrera ceru onaren señale modura gozatuz, eta or non agertzen diren errico bizpairu guizon bere pistozco escopetac pronto cituztela...chori guisoa chirchillatua zichoan nic ecer esateco beta artu baño leen. Olacoxeac dittuc emengo cristauac, ez diate antz aundiric gure Francisco santuarequin.

Bada, basurdearequin ere berdiñ jocatu ciaten. Echeco leiotic gueyenac, cale erditic atrebituenac, tiroca asi ituen; bai zauritu ere . Izugarrizco currincak egui ñez joan omen uen ordurarte baque baquean ibillitaco animalia . Colore zuri bichi-

con cenez, eiztariei are eta zorroztuago jarri cichaizquien ortzac, eta seguituan abiatu ituen atzetic. Gau artan bertan, utsean etorri eta ostatuan erroncan ari cirelaric, an apopilo cegoen Matias agureac onoco itzoc bota omen cizquian:

- gaizqui ari zarete, bera onean etorri eta zuec tiroca artu. Etorrico dittuc ordañac.

Gogoan izango duc aurrerago ere aipatutaco Matias orrena. Esaten nianez agure au guenian Javier cenarequin mintzatzeco gai cen bacarra. Bata cein bestea isillac izanic, ushatu eguiten cizquiaten mututasunac elcarrequin ceudenean. Bada eiztari jendeari cera demostratu nai izan cichoan: mendian izcutatutaco muticoa ez cegoela illa, baicic eta basurde biurturic seguitzen zuela munduan. Errian azaldutaco animalia ura cela Javier. Guztiac icusi zutela bere colorea eta mutur gañean ceucan oriña; baita cein lasai sartu cen plazan ere. Eta ia ez al cen Javier ura, basurdea egun artan bertan bezalashe, jostatzen cebiltzan umeei beguira egoten. Eiztariac basurdearen oriñarena cela-eta, discusioan asi omen ituen, agurearequin estraña, el carren artean guero, eta ic esango diac ce jende clase den au, ume basurde biurtzearenari casoric eguin gabe, oriñ baten goraberarequin erdi borrocan asten dena...errri orietan, beroa gordez seguitzen duten ildaco izarrac bezala, sinesqueriac indar aundia dic, eta agureac..."

Seigarren orrialdea nabiko erasana dago. Hamar lerrotan banatzen diren hitzetatik "ikusi" eta "zikina" soilik uler daitezke. Basurde zuriaren inguruan gertatu ziren aurrenekoak ezin ditzakegu, beraz, jakin. Bai, aldiz, gerokoak, esen, orrialde honen beste zatia nola zazpigarrena ederki ulertzeko moduan kontserbatzen baitira.

"...azaldu uen berriro, gauez oraingoan, eta Obaba-co plazatic eun metrora dagoen baserrira isil isillic joan eta ateari colpeca eta ozcaca egon uen ia ordu batez. Echecoac garraisica, macacorro batean, asi ituen ortaraco gauza izan cirenean, eta nic naronec ere entzun nizquian - eta contu eguizac tontor batean eta naico urruti dagoela erretochea. Animaliei güizonaren barruan baño ez dauden potentziac eranste cilegui balitz, basurde zuriac voroñdate criminalac aguinduta cetorrela esango nia que. Sartzeric ez ceucala icasi zuenean, ushar eguiten ibilli uen baratzan, eta galera orrequin conformatu bide ez celaric, bi abere il cizquian basorantz iyesi joan aurretic. Suspertu eguin ituen orduan eiztarien griñac, eta ez orienac bacarric; baita ordurarte iñolaco escopetaric artu gabe ceuden maquiña batena ere. Contra jardun cian, oi zuenez, Matias agureac. Ala esan omen cian:

- gaizqui ari zarete. Utzi basurde ori paquean! Zabiltzaten modura gaistotzea besteric ez duzue lortuco! Cer eguin diguc Javierrec!

– demonio babua, ago isillic – erantzun omen cichioten – ez al duc bart eguin duena icusi?

Contu eguizac emen pobrecia latza daucagula; zapata berriac erosteco sasoia etortzen zaienean bi egunetic beiñ jateari equiten ciotec, aiñ ibiltzen dittuc estu. Onetic ateratzeco moducoac izan ituen, emengo neurritan beintzat, basurdeac eguindaco calteac. Jendeac agurearen aurrean artu zuen joera ez zaic arrigarria guertatu bear. Baña Matias-ec ere ba cizquian bere arrazoiac:

– eta zuec ez al zarete cein echeri eraso dion conturatzen? Ez al zarete jende orrec Javierri ematen cizquion jipoyez acordatzen?

Esaten zuenac ba zian centzuric; baserri ortacoac, guerra sasoietan ere – eta ene aurretic emen serbitu zuen apaizac esan cichian au – bere gogortasunagatic nabarmentzen omen ituen. Ostatura etorri eta pisca bat piztutacoan aulenarequin sosegatzen cirela erri onetaco edonorc cequic; besteric ez ba zuen, muticoari zaplaztecoac emanez. Baña ba al cegoen, egon al citequean arremanic bi gaucen artean, ara emen neure buruari eguiten nion galdera. Ba al neucan arrazoiric agureac ciona ez onartzeco? Obaban ascotan entzun dudan ipuiñ zaar batean alaba batec ola galdetzen cioc bere aita gaiztoari: zuc beiñere pentsatu al duzu ill ziñezquenic. Eta ori gertatzea oso zalla dela erantzuten dic galdetuac, ezen " nic anai bat ceucanat alaco menditan, leoi bezala dabillena. Leoi orren barruan erbi bat cegoen, eta erbi orren barruan uso bat. Uso orrec arrautz bat ceucan bere barruan, eta arrautz ori emen, copetean, norbaitec leertzen ez bacidan, ni ez naun ilco ". Entzuten ari den umeac ba cequic, ordea, somatzen dic, erlacio ori billatu eta aita gaiztoa, debrua ere ba dena, ilco duen morroia izan ba dela. Ez ote nabil ichu, ez ote naiz ipuico morroia baño macalagoa? Ez ote da arazo onen erlacioa eriotzetic usoac ceucan arrautzara cegoena baño errazagoa?.

Baña ez nian erreflesio ori eguiteco betaric izan. Eicea asi eta irugarren egunean basurdeac partidaren mutur batean, apur bat atzeratuta, gebillen gazte bat il nai izan cian..."

Hementxe hasten da zortzigarrena. Orrialde au atzekoz aurrera kokatua egon delarik, ordo dago goiko partean, lehengoaren jarraian, eta txarto behekoan, non zortzi bat lerro hondatuak dauden.

"...Oraindican ere ondoezaz ceoc. Beste guztiac cera aldarricatzen ciaten: basurdezuria seguica joan zitzaiela, eta zauritua bacarric eta apartian noiz geldituco cenaren zai egon cela. Matias agureac leen esandacoac berriztu cizquian:

– emendic aurrera obea duzue burutic zacu bat botata ibiltzea. Aurpeguia aguerian duzuela joaten ba zarete eicera, arec EZABUTU ETA bengantza artuco dic.

Egun aietaco batean udaberriaren etorreraz ourtu niñuan; eta ez diot onaquin pundu artan bertan eldu cenic esan nai, ez eta guchigoric ere. Cein urduri eta quezcaturic nenbillen jabe adiñ mintzatu natzaic orrela; eccn asteac cichamazquian enarac egaca, ene leio aurrean sarri ascotan, eta azpichoriac ere eguiñac cizquiaten orduraco elizaren cimiterioan antolatzen dituzten cabiac. San Jose lorechoac aspaldidanic oriztatzen cizquiaten belatzeac. Naturac bere legueac ceuzcac, gu ere barruan artzen gaituela; bere ardatzac jiratzen duenean gizonac ere jira eguin bearra ceucagu, eta aguintzen digun alderantz gañera. Baña udaberri orretan, Obabari dagoquionez, ori ez uen erabat bete. Guizonezcoac ez ituen egurretara abiatzen, ez cizquiaten mendico belatze urrunac segatzen. Emacumeac eche alboco solora joateco icaraz cichauden. Ire ciutate orretaco gaceta batec ondo asco icendatu cian emengoa: basurde batec izututa dauca Obaba-co errisca. Eguia, eguia galanta. Ba al daquic cenbat aldiz jaichi cen basurde zuria..."

Zortzigarrenaan ez dator irakur litekeen besterik. Bederatzigarrena eta hamargarrenaren ia dena garbi daude, eta letraren tamaina urritu egiten da apur bat okertuta dauden lerrotan.

"...Matias-ec esan cituenac gorpuztuz joan ituen, guero eta beteagoan datorren profecia bat bezala. Basurdeac eicean ibillitaco jendearen echeac atacatzen seguitu cian, etengabe, banaz bana, planguintza baten ildotic ari balitz. Gauzac ola ceudela agurea nirequin itzeguitera etorri uen. Alcar izqueta - ordu aietaco larritasunic gabe, alere - itzez itz ceucat gogoan. Alashe jartzen diat urrengo lerrotan, diosalaren ondorengoequin asiz.

- gauza bat galdetzera etorri naiz, eta cenbat eta leenago bucatu, obe. Basurde zuria il al nezaquet?

Zalhartasun arec min eman cichian. Matiasec mutikoa iltzeco baimena escatzen cichian, nosqui, ecen, animalia eta mutikoa bat ituen berarentzat. Eta nic neronec ere dudatu eguiten nian. Gaizqui eguiña, esango duc ic. Apaiza batec ez ceucac aimbeste liburuz, esanez, eta eracustaldiz esan zaiona dudatan jartzeco autoridaderic. Baña, lagun maitea, gizonac lizar bajuac gaituc. Eta ni ere jaquiñaren gañean portatzen cen basurdearen lillura illunaren pean nichoan. Eta icaratuta ere bai.

- baña nola eguingo du i bezalaco zaar batec eizteriec asmatu ez dutena?

- Javierren oiturac esagutu ezquero lana erraza da

Au esateracoan abotsa doi doi igo citzaioquean eztarritic. Urrengo itzac jantzi zacarragoaz etorri ituan:

- eta gañera ori nire contu guartean da. Nic esan dit: il al nezaquean. Eta erantzun bat emateco beartuac dago berorri!

- il bearric ba al dago, Matias? Bolada au pasaco duc, basurdeac...

- niri ez dit ajolic eiztari jendearí guertatuac! - moztu cichian copeta arro alchaz ! Nic esan nien! Basurdeac eguiten dituen calteac ez naute cipitzic ere quezcatzen!

- cerc, orduan?

Bañ galdera bucatu zuneraco Matias-ec basurdo baten unco pusqueta aterea cichaucan saqueletic. Odolestaturico atzapar ura mayan icusteareguin batera atzera eguin nian, eta garraisi. Somatzen bainuen ceinena izan citequeen aragui sarrasquitu ura.

- Cepo batean cegoen...umeac bere escu propioa moztu du escapa eguin al izateco!

Anca erreparatu cichion berriro, eta irrifar aul bat gañeratu cichaioquean aurpeguira:

- Basurdearen leguac dira oic...azcar icasi dittu chiquiac...azcarra izan ura, cea!

- Icaragarria!

- Umea asco sofritzen ari da! Miñ ematen diyo jendearen amorrua icusteac! Eta nic ere asco sofritzen dut bera ola icusiz...lenbailen bucatzea izango da oberena!

Asieraco iluntegunera biurtu ituen bere españoc:

- il al nezaque basurdea? Ez al da berorri cupitzen?

- Bai, ni ere cupitzen naiuc! Eguin bear baduc, eguin esac lasai. Ez duc pecatu! Ondo esana, pentsatuco duc ic. Bada, ez!...guero guertatutacoac contuan..."

Hor bukatzen da hamargarrena. Azkenekoari, hasierako bi lerroak ezezik, despedida esanaren aurreko beste hainbat ere falta zaizkio. Gainean eduki duen adrilu baten zanpadura izan bide da gutunaren amaiera parteko hutsune horren arrazoia. Honexek dira aixa konprenitzeko no duen iraun duten lerroak:

"...Obaba-ec ingurutan alderantziz jarritako piramide baten forma daucan sacana ceoc. Onen bezaldeco coba cuqueratzen cian - baña au guztia gerora ezagutu diot - Javierrec bere jostaquetac eguiteco; ango arrubio eta lupuac, seguru asco, bere barru tristearen compañia egoquitzaz eduquico ~~ebarriac~~ cizquian. Matias-ec ori cichaucan buruan. Orain ba cequiat arriscuac ez ciola ajolic; ecen, beguiaren vistan ceoc sulo ura irtenbideric gabecoa dela, ifengo eiztariric ez lioquela basurde bati an ichcingo. Nic ori jaquin izan banu!...niri bai inporta cidala non pentsatzen zuen iltzea jaquitea!...ecen, "suc ez daucazu, cristau bezala, zure vicitza arriscu mortalean jartzeco escubideric" esanaroquin apartatuco bait nuquean "il al nezaque basurdea" galdera ardiragarri delacoa. Baña Jaincoac ez eman arguiric eta nic ez galdetu bear ciña. Baña joan gaitecen aleor izquete aren calderacoan guertatu zirenac esplicatzera. Ene leguna naitea; bacoc eguiac esan lehurrez erabaquitzen ba liat istorio onen arquena. Esan bearrac barac oñecer beteten nechioc.

8. ERANSKINA

(2)

CHICK COREA : Tiempo muerte
Tempus fugit

BASURDE ZUR

lehen apuntea "camil lizardi" izango zen, perimerako.

apuntea irrati. saio batarako egina dago — ikus omi ostea → nahiz gero "liburuko" gorde nuen.

- Une batzuk basurde batekin. jost... han diarekin ari gara jostatzen .... nor...
- Jesus eta Santus : basurdea ...
- Hemitik pasatzen da → batek... ...ten du ....
- Tabernan komentarioak (harro — ... hartzen
- ... har...
- ... en bat.
- Norbait izango ... hemkoren bat...
- Hunengo egunean — basemi bateau — erasoa .... basurde kirrinka...
- Mendira | batzuk alai ... bestea ikus "arkaikoa" ....
- Mendira joan deneko baten etzeko andrea izutunik ... atakatu egiten du.... ORDUAN : ~~badaki gu~~ bazekik hi bere atzetik hembelela...
- HOR DI HOALA, HOR DI HOALA ... tiro pun bat hiltzen dute basurde bat ... hil diagu .... baina ezta xuria ... basotik atera ... xuria bat zamitu .... aiii aiii ...
- EHIZTARI bakarra badaki nondik dabilen .... basurdeak ere bai .... (ze ... bere ustez badaki nor den ... badaki nondik dabi...
- ETORRI HADI....
- Neskutuak biak ....
- Sartzen da zuloan .... hoa bakarrik etorriko da ....
- ETORTZEN da biak hilik .

(2)

BASURDE ZURIA ...

CHICK COREA : Tiempo muerto
BADEN POWEL : Tempus fugit

- Une batzuk basurde batekin jostatzen... une batek "oso zakur ham diarekin ari gara jostatzen .... non da zure neba? ...)
- Jesus eta Santus : basurdea dela!
- Hemitik pasatzen da → batek tiroa bota eta zauritu egiten du ....
- Tabernan komentarioak (harro — baina batek ez du ontzat hartzen
  - Seinale txarra ....
  - Onean etoni eta gaiztoan har...
  - Norbait izango zen, pertsonaren bat, herrikoren bat...
- Hunengo eguneau — basemi bateau — erasoa .... basurde kirrinka...
- Mendira | batzuk alai ... besteak ilun "arkaikoa" ....
- Mendira joan deneko baten etzeko andrea izutuik ... atakatu egiten du.... ORDUAN : ~~badaki gu~~ bazekik hi bere atzetik herbelela...
- HOR DI HOALA, HOR DI HOALA ... tiro pun bat hiltzen dute basurde bat ... hil diagu .... baina ezta xuria... basotik atera ... xuria bat zauritu .... aiii aiii ...
- EHIZTARI bakarra badaki nondik dabilen .... basurdeak ere bai .... (ze ... bere ustez badaki nor den ... badaki nondik dabil
- ETORRI HADI ....
- Neskutuak biak ....
- Sartzen da zuloan ..... hoa bakarrik etoniko da ....
- ETORTZEN da biak hilik .

Narragilea - Mariatxoren etxera ailegatu bezain azkar lanaren hotsa zekarren lagun harekin hitzegiten hasi zen. Mutil hark bere burua jarri zien eredu bezala, bera ere pasea zela lan gabeziaren trantzetatik esan zien

9. ERANSKINA

MARIA TXORAKERI SEÑORITAREN

ISTORIO HARRIGARRIETAKO BAT

.....

Haur txotxongiloa

Lema: Maria Txorakeri Señorita

Haur txotxongiloa (giñola)

LOGALEA ZEUKAN TRAPEZISTAREN KASOA

Panpina zein aktorentzat paraturiko jokaldia

MARIA TXORAKERI SEÑORITAK

aurkeztu, zuzendu eta idatzia...

Oharra: Aurreko orrialdean ipinitakoa, txotxongilo serie baten izenburu orokorra da. Orrialde honetakoa, berriz, serie horretatik atera eta bakarka aurkezten den lanarena.

Zirkuaren jabea: trapezistaren ekinaldiak aurkeztuko ditu. Oso dotoreki jantzia, "frac" eta txisteraz, eta halako kutsu italiarrez mintzatzen dena. Hirurogei zentimetrotako panpina

Azken oharra pertsonaiei buruz: ez dira txotxongilo eta giñol klasikoaren panpinak, inondikan ere, nahiz eta bere zenbait teknika erabili. Hala, panpima batzuk zintzilikatzekoak dira (Zirkuaren jabea, kasu), beste bi teatroari zor diote bere taxuketa (aktoreak egiten duen trapezista-k bezala), eta ba dira baita ere klasifikaketa zehatza ametitzen ez dutenak (motorista, kasu)

"Trapezista".....esku jostailua:



(1) Jostailuaren egoera naturala. Umeak ez du A eta B-n indarrik egiten

(2) Umeak A eta B ertzak apur bat zanpatzen ditu. Gizoniloa malabarismoak egiten hasten da.

(3) Umeak indar asko egiten du bere bi hatzekin. Gizoniloa ankaz gora jartzen da, liztak hartu duen tentsioari esker.

ESZENOGRAFIA:

Bi eszenario edo jokaleku desberdin, aurrez aurre jarriak, ikusleak tartean gelditzen direlarik (A eta B).



A jokalekua Hiru bat metro luzera eta sakoneran, eta lau bat alturan. Apur bat borobildua, zirku baten karpa izango baita. Bertako elemedu fixo bakarra: lehen aipaturiko jostailua.
Kolorea, marra laranja eta berdezkoa zirkuaren karpa (goitik behera marrak, noski), eta guztiz beltzean gizoniloa (teatro eta ballet entsaiotan erabiltzen den "malla" delakoaz jantzia balego lez). "Trapezioa" urre-kolorez.

B jokalekua Lau metro luzera eta sakoneran, eta sei bat alturan. Trapezistaren logela da. Elemendu fixo bakarra: ohea (kolore zuriska) Jokaleku honek eduki behar dituen xehetasunak oso bereziak ez dira, "ametsaren" eszena egingo baita, geroago ikusiko denez. Motorista azalduko zaio trapezistari honek -argiak itzali ondoren, den dena ilun dagoelo egiten duen bitartean.

Eszena hori egiteko aukera asko daude (norainoko perfekzioa bilatu nahi den, jakina) eta honoko hauk izango lirateke:

1.- Linterna majikoarena, hots, kristal ttikitan egindako "marrazkien" proiekziorena. Teknika hau erabiliko balitz, eszenarioa xuria beharko luke izan, eta bi kristal aski izango lirateke eszena egiteko (batean halako sare bat pintatuko litzateke, eta bestean motorista; lehenengoak "gaua-ilunä"adieraziko luke, eszenario osoa betez, eta honi proiektorearen argi hila emanez; eta bigarrenak motorista mugituko luke alde batetik bestera. Mugitu, noski, proiektorea mugituko litzateke)

PERTSONAIAK:

Maria Txorakeri Señorita: Popeye-ren andregaia bezalakoa, gutxi gora behera, Rosario bezain anka luzea. Telo-aurpegia, xabal xabala, antiaju borobil batzurekin. Hitchcock-en filmetako andre gafadunak izaten duten malignitate ttantta batekin. Txilipito abotsa eta esakera "zoroa", nabarmena, silabak bere gogoaren arabera luzatuz nahiz laburtuz, azentuaketa desohizkoa erabiliz eta beste. Bizi bizia, gainera, hizketa "elektrikoa". Txotxongilo honetako pertsonairik autistena delarik, bere ihardunak bakar-hizketaren itxura izango du sarritan.
Pertsonai bikoa; esan nahi da batzuetan aktore batek egingo duela (hasieran) eta bestetan panpina huts batek. Baina bere ibilkera beti panpinarena izango da, ibilkera saltakaria gainera (bere oinpean muelleak balitu bezala).

Trapezista:"Gizonilo" deitzen zitzaion esku-jostailu haren arabera egindako panpina. Lizta edo soka fin batek batzen zituen gizoniloa eta bi makilatxo. Umeak, makilen bi puntetan indar eginez, malabarismoak egin egin erazten zizkion gizoniloari. Hau, jakina, artikulatua izaten zen, ez pieza batekoa (ikus hurrengo orrialdeko marrazkiak) Txotxongilo honetan "bi" trapezista egongo dira, pertsonai bikoa da hau ere: panpina hutsa bata, fixoa, eta aipatu jostailuaren arabera egina (tamaina haundian, metro t´erdi tramankulu guztiak, eta 80 zentimetro gizoniloak)

Motorista: Zamarra, kasko haundia, galtza bonbatxoak, piloto-antiajuak eta beste. Superluxe-ko motoa. Ez du bolumenik behar nahikoa da alde batetik margoturiko kartoi gogorrarekin edo kristalarekin (ikus, honi buruz, B jokalekuaz geroago esaten dena)

2.- Argi beltzarena. Teknika hau, Pragako Teatro Beltzak erabili izan du sarri eta ondoen. Fantastikoa ena da, ezpairik gabe, eta poetikoa oso. Ultrabioleta printzen xehetasunetan oinarritzen da: ikustezinak dira (ez genuke ikusiko proiektoretik eszenarioara doan argi-errainua) eta zenbait koloren fluoreszentzia sor-erazten du. Teknika hau erabiliko balitz, trapezistaren gela guztiz beltza izango litzateke eta ohea gorria-edo:motorista, berriz, fluoreszentzia gaitasuna dutenetakoa. Argi beltzaren teknikarekin, motoristak "hegan" egingo luke, berenezko argi batez iluntasunean mugituz. Baina argi horik oso garesti dira, eta honekin esana dago dena.

3.- Oihal eta argien joku berezi batez ere egin daiteke (eta hala egitea pentsatuta dago, aurreko bi teknikak Pragara joaten garenerako utziz) "ametsaren" eszena hori (txotxongilo honen ardatz izan behar duen eszena, noski).

Jokaleku honetan, beraz, lau bat oihal (teloi) beltz, tamaina desberdinetakoak kokatuko lirateke bata bestearen atzean, elkarren artean tarte bat utziz. Publikoak ez luke bat baizik ikusiko, hots, trapezistaren gelako orma beltza. Aktoreak "laberinto"bat edukiko luke bere "pankarta" (motorista, kartoian edo kristalean pintatua) "hegan" jartzeko. Kontuan eduki bai bera eta bai "pankarta-motorista"-zen euskarria beltzez joango liratekela, oihalak bezalaxe. Goitik behera ikusita B eszenarioa honelakoa litzateke:



B jokalekuaren altura: 6 metro
M oihalaren altira: ...4 metro
N oihalaren altura: ...3 metro
O oihalaren altura: ...2 metro
P oihalaren altura: ...metro bat
..... = pankarta jasota dabilen aktorearen ibilera posible b
XXXXXXXX = aktorea igotzeko tarima, aulki edo dena delako
OHEAren altura: metro erdi

Jokaleku moeta horrekin batera, beste xehetasun hauk beharko lirateke: kolore erreflетanteaz margotua egon motorista, foko ahul batekin ere nabarmena gerta dadin. Argiak beti sekuentzia honetan:

1.- Trapezista bere etxera doa. B eszenario txit argi sendoz, salako argiak ere piztuak.

2.- Trapezista, pijama jantzi ondoren , ohera sartzen da. B eszenarioan argia kentzen da, eta salakoak pizturik segitzen du.

3.- Azaltzen da motorista, salakoa itzali, foko ahul bat pankartari eta halaber, aldi berean esan nahi dut, argi intermitente azkar eta bizi bat, argi dardartia.

4.- Joaten da motorista. Pizten dira salakoa eta B eszenarioaren beraren argi sendoa.

Teknika honetaz (aski sinplea egiten) eta hotsaz eta beste lor daiteke efekto on bat, Pragako argi beltzarena bezain perfektoa ez izan arren.

Ohar eszenografiko bat koloreaz

Zirkuko jabea: frac xuria, pintta urdin argiekin. Txistera urdina osoril
Maria Txorakeri Señorita: gabardina luze eta lasaia, zuria. Galtzerdi luzeak, txuri beltzak, ezaztunetan.
Trapezistaren pijama: arraia gorri eta xuriz

KOREOGRAFIA:

Mugimendua giñolarena izango da beti, kontrakorik esaten ezpada. Mugimedua A eszenarioa, B-a eta tarteko espazioa (paseoa) profeituz egingo da.

HOTS-SUSTANTZIA

Zirkuko musika, moto-hotsa, "off"-en mintzatzen den abotsa, eta beste.

XEHETASUN DRAMATIKOAK

MUSIKA: edozein obertura alai

OFF abots batek, sakon, ozen.....

ohu batean

Zotina dauka, sarrera honetan,

MTXek, eta zotin bakoitzeko jau-

zi ttikia egiten du. Bizi, oso

bizi

agur eginez

metraileta bat bezala..

OFF sartuz

kutsu paternalista

MTX

Abotsa hiltzen, gero eta bajuago

MTX alelatua bezala gelditzen da

OFF

Maria Txorakeri eskultura bat bezala, begirada galdua. OFFek hots bat egiten du (bozina, tutua) eta garraisi.....

MTX "esnatzen" da, izutuz bezala eta mintzatzen hasten da-.....

bizituz

HITZAK

-Jaun andreak, ikusle maiteak...zuekin, zuekin...Maria Txorakeri Señorita!

-adios-adios-adios, jaunandreak, adio eta gabon-arratsaldeaon-bixigu on- eta patata on eta-eta-eta-eta-...

- Maria txorakeri Señorita, mesedez! konfundituta zaude, ez duzu ADIOS esan behar baizik eta Kaixo, agurra egiten ari zara...!

- Egia! egia galanta, egia haundia, egia maundia, faborez eta mesedez, mesedez eta faborez...

- Maria Txorakeri, Señorita!...baina ez al dakizu non zauden?...jendea zure zai dago, egin ezazu agurra! Señorita! Señorita!...

- Maria Txorakeri!!

- ah vai, a fai, a bai
Kaixo! kaixo! kaixo!
Ni Maria Txorakeri Señorita naiz, obra honen egilea eta zuzendaria

Bi arraia (/) artekoa MTXen leloa izango da jokaldi guztian. Bizi Bizi eta doinukera bereziz, beraz

eta horregatik/ mesedez-eta-faborez-faborez-eta-mesedez/baa...uste dut premio bat merezi dudala /mesedez-eta-faborez-faborez-eta-mesedez/...

OFF - Maria Txorakeri maitea...ze sari nahi duzu, esan,esan

MTX - Ba nik, Maria Txorakerik, nahi dudan premioa/mesedez-eta-faborez-faborez-eta-mesedez/ baa, hemengo jaun andre batzuk txorakeria bat esatea nahi dut / (leloa)/ ahal duten txorakeri haundiena esatea, hori nahi dut/(leloa)/

OFF - jaun andreak, entzun duzue! mesedez! zuetako bat etor dedila eszenariora eta esan dezala txorakeri bat, ahalik eta txorakeri haundiena!

"Jaun andreak" esan arren, umeei ari zaie, noski. Beti tratamendu hori erabiliko da

JOKUA: zenbait ume igotzen da eta txorakeri bat esaten du. MTX asko dibertitzen da.....

- ai ze ondooo! ze txorakeri txoroa!
- ai ze poza, ai ze poza!
- vai, fai, fai

OFF - Maria Txorakeri Señorita, berandu egingo zaigu! nik uste dut obra presentatu beharko zenukela orain!

Umeak, oraindik goian badaude, jaitsi egingo dira.

MTX Ba orain, jaun andreak, orain hasiko gara gure obra / (leloa) ikusten. Bere tituloa da:.....(a)

(a) musika une bat (obertura)

MTX, indar gehioz

-..."Lotuta zegoen tronpetistaren kasoa"!

suspiriatuz OFF abotsa

- Señorita maitea, hori ez da zure obraren titulua!...Logalea zeukan trapezistaren kasoa, hori da benetako izena!

MTX

- aaa bai! barkatu /(leloa)/, orain ikusiko duzuen obraren titulua da...

anka punttetan

" Lotuta zegoen trapezistaren kazoa!

OFF

- Ez ez ez eta ez!

MTX

- a, ez?...ba nola da-ba /mesedez-eta-faborez.../ obra honen titulua?

Umeak, apika. OFF, Ozen, sendo

- Logalea zeukan trapezistaren kasoa!

MTX

- aaa, oraintxe gogogoratzen naiz, bai!

Aulki kulunkari batean eseriz...

- baa, ba omen zen behin, munduan beste asko bezala, zirku batean lan egiten zuen trapezista bat...

Antiajuak kendu eta garbituz

MTX ilunpean

Argifokoa A eszenarioari (oihal erdi transparentea, xuria). Oraindik trapezista izkutuan.

MUSIKA: zirkukoa. Sarrera.

Irteten du (oihaletik at) ZIRKU-ZUZENDARIAK

- arratsaldeon siñora eta siñori!! Izan ongi etorriak al nostro círco!

Musika azpitik

Oraintxe bai, siñora eta siñori! Oraintxe izango duzue gure trapezistaren saioa ikusteko aukera paregabea, saio bel-lo bel-lisimoa, munduko saio trapezoidal hoberena! Txalo forte fortissimo bat gure trapezistarentzat!

Musika igotzen, igotzen, oso gora utzi^{z}

oso gora utziz, esaten nuen, zen bait mementuz. Zirku-gizonak ("italianoa" deituko diogu hemendik aurrera) trapezista izkutatzen duen oihala kenduko bitartean

Txaloak

Trapezista azaltzen da

- eskerrik asko! Merci "Bocu"!

Italianoa

- trapezista maitea...preparati?

Trapezista

- bai

Italianoa

- avanti le primo exerchichio! Aurrera lehen esibizioarekin!
Bat bi eta hiru!

Une honetan, tramoistak (tarimaren azpian) bi makilen ertzak indar apur batez erabiliko ditu. Baina ankaz gora jarri gabe, eta gizoniloari bueltak eman erazi gabe.
Musika lagungarri bat. Pianoa.
Malabarismo batzuk.

- molto bene! oso ondo! txaloak mesedez....eta orain, ariketa zailago bat, piu diffichile, ariketa zailago bat egingo du gure trapezistak,.. ankaz gora jarriko da, ...gutxi gora behera, hola...

Italiano potoloa ankaz gora jartzen saiatzen da bere ipurtandia jaso ezinez. Azkenean jasotzen du, eta ankak gora jarri bezain azkar/ "pumba", "kataklak" edo holako hots bat -grabatua- entzuten denarekin batera / lurrera

dator...

Aurreratzen da. Musika atzetik, lehengo pianoa edo. Italianoaren oraingo esaldien artean sartuz.

Trapezista -pultsuan egingo balu bezala- igotzen hasten da buruz behera jarri arte. Hasieran oso azkar egingo du ariketa, mantxotuz azkenekotara ailegatzen doan heinean. Azkenekoan doi doi altxako da izugarri kostatuko balitzaio bezala. Bitartean, umeak zein italianoak, kontatu egiten dute. Honek bozeoko arbitroak bezalaxe.

Zirku musika txit alaia

atx! atx! atx! ene giltzurdinak! bueno,nik ez dakit egiten baina il trapezistak hamar aldiz egingo du !

- ...eta ~~dena~~ zirkuan ez dagoela tranparik - musika soilik - zirkuan ez dagoela nessuna falsifikachione-musika - den dena egia dela ikusteko zuek eta nik kontatu egingo dugu! ia hamar aldiz jartzen den ankaz gora! Preparati?

Trapezista - bai, bai

- avanti!

- bat!
-bi!
- hiru!
- laau!
-boost!
- se-eei!
- za-aazpi!
- zoo-oo-ortzi! oso ondo, va bene!
- be-dee-raa-tzi! Eman! eman! heldu goiari!
- eta ha-a-a-a-a-a-mar! OOONDO! txatxalo forte fortissimo bat!

Relax-une bat
Italianoa orain arte erabili duen esakera ardailatsua baretuz, sosegatuz.....

- eta orain, siñora eta siñori, azken saioa, harrisku haundikoa, molto pericoloso! AINGERUAREN HIRU SALTOAK! ...per favore, ixiltasuna gorde, saio honek harrisku haundia du! Ixilik, mesedez!...Danborrak!

Erredoblea. Tramoistak,makilen ertzetan indar maximoa eta minimoa txandakatuz, gizoniloari hiru buelta oso eman eraziko dizkio (sokak dira ardatz, noski).
Hiru bueltak, bata bestearen atzetik, erredobleaz etabaar

Italianoa....

- incredibile! Marabilosoa benetan! AINGERUAREN HIRU SALTOAK! forte fortisimo txalotu,mesedez!

Txaloak

Italianoa....

- Grache, grache, eskerrik asko!...ba hauxe izan da dena gaurkoz! Bihar arte, jaun andreak, agur! agur!

A eszenariora teloia. Fokoa Maria Txorakeri utzi genuen aldera. Hantxe ari da, bere antiajuem hautsa kenduz-edo (aho lurruna bota eta...) eta bere gisa hitzegiten.....

mesedez-eta-faborez-faborez-eta-mesedez, bai-ba/ ez-ba/ patatak eta bixigua eta, jakina mesedez-eta faborez...

OFF abotsa-..... - Maria Txorakeri Señorita! Maria Txorakeri! zure txanda da! segi ezazu trapezistaren istorioa kontatzen!

Maria Txorakeri altxatzen da, eta kulunka eginez, A eszenarioaren erdiraino joaten da. Eskuak madalean, neskato txintxo bat bailitz. Oinak bilduak.

- Ba noa ba noa!

- Ba, trapezista basotik omen zihoan laranja dozena batekin, eta otsoa azaldu omen zitzaion eta esaten dio otsoak/(leloa)/...aizu, Trapezista gorritsu, norentzat da merienda hori eta esaten dio Trapezista gorritxuk ba ene amonarentzat da/ (leloa)...

OFF..... - Maria Txorakeri! ez eta ez eta ez! zu kontatzen ari zarena beste istorio bat da, oso istoria ezaguna!

MTX - a bai? eta zein istorio da hori/(leloa)/...

OFF..... - Galdetu publikoari! Ni aspertuta nago zure okerrak zuzentzen!

MTX... - baa, baa, /(mesedez...leloa)/ zein istoria da ba Otsoarena.eta Trapezista gorritxuarena? Trapezista gorritxu da, ezta?

Umeak erantzuna. MTX gorra balego bezala arituko da umeak bizpairu aldiz garraisi dezaten Txano Gorritxu-aren izena.

- a bai, barkatu /(leloa)/ Txano Gorritxu da...

OFF.... - Señorita! segituko al duzu trapezista

MTX

Ba doa MTX, argifokotik at geratuz. A eszenarioa fokoa. Salako argiak emanak. Trapezistak irten egiten du, txistuka, Maria Txorakerik esan bezala...

nagia

A jokalekua itzali. Argifokoa B-an Trapezista (orain aktore bat) paseatzen doa, haurrei agur eginez eta abar. Hola B jokalekura iristen den arte. Igotzen da eta "keinu" (zentzu brechtiarrean) bat egingo du pijama jartzearen aitzakiz. Keinu honekin bi kontzeptu utzi nahi dira garbi:
1.- Jokaldi honetan erabiltzen dugun "iluntasunaren" kontzeptua garbi uztea (7. orrialdean esaten zenez, B eszenarioa fokorik gabe, eta salako argi motelena pizturik)

-ren istorioa kontatzen edo zer!

- Ba noa, ba noa...ba trapezista, zirkuan lan egin ondoren, bere etxera abiatu omen zen, oso nekatuta zegoelako, bai bai txistu eginez eta jendearekin hitzeginez paseatu omen zen bere etxeraino, eta ailegatu zenean, ba, barkatu/(leloa)/...orain ikusiko duzue zer pasa zen...

- gaurkoz bukatu dut behintzat... ai ze logalea daukaten!...ba etxera joango naiz paseo bat emanez, eta ohera sartuko naiz iritsi bezain azkar!

2.- Argi "itzaltzearen" kontzeptua. Ohearen gainetik zintzilika egongo den "pera" hoietakoa izanen da tresna, baina trapezistak ohean zutik jarri behar izango du.

Klisk egitean itzaliko da fokoa. Keinu hau Motoristaren eszenarako "txerto" gisa egiten da.

Trapezista B jokal.. - bueno, barkatu mementu bat, argia itzaltzera noa...je je pijama jarri beharra daukat...eta hola, argitan, egiteak lotsa pixka bat ematen dit... itzaltzera noa e? ...barkatu pixka bat...

ohe gainera igotzen da eta itzaltzen du. Hamar segundu eta berriro piztutzen du. Zutik ohean eta esku bat argi-tresnan duela. Bost segundu. Argiak esan bezala

- bueno, jantzi naiz ba! ze, gustatzen al zaizue nire pijama?...bueno bueno, ni orain ohera noa...ai ze logalea daukateni

Aho-zabalka

Itzaltzen du eta ohera sartzen da. Salako argia, motela izan arren, aski da umeak zer egiten ari den ikus dezaten
Maria Txorakeri, A eszenarioaren aldamenetik, bestaldetik.
Umeek burua jiratu egin beharko dute [redacted].

MTX... - baa...trapezistak hala uste zuen, [redacted]

MTX - ...egun hartakoa gau normala, ezta? gau normala izango zela...baina argia itzali zuenean, argia itzali eta segituan...AIIIi (garraisia) ze pasa zen orduan? baa/(leloa)/ ikusi zer pasa zen trapezistaren etxean

B eszenarioa seinalatuz

Trapezista zurrunkaka

Moto baten hotsa entzuten da, hasiera batean urrun, hurbilago gero, eta izugarrizko zarata sortuz azkenerako. Eta bapatean MOTORISTA sartzen da gelan, goiko partetik, "hegan eginez".

ARGIEN SEKUENTZIA 7. ORRIALDEAN ESANDAKOA.

Argi intermitenteak "mugikortasun" irreala sortuko du (mantxotasun bitxi bat), eta motoristaren "fluoreszentziak, "ikustasun" irreala, baita ere.

Motorista eskubitik ezkerrera eta goitik behera dabil, teloi beltzen laberintoan gordetako tramoistaaktoreari esker.

Trapezistaren garraisi bat entzuten da, motor-hotsaren ixilune bat profeituz. Argia piztutzeko altxa egiten da. Pizten du.

Argien sekuentzia alderantziz. Argi intermitentea, hotsa eta motorista izkutatu egiten dira. Trapezistak ez du inor ikusten.Ikusleak

eztare. Trapezista Eskua iletatik pasatzen du, igurtzika

"zer egingo diogu-ba" keinua

Itzaltzen du argia. Lehengo eszena errepikatzen da punduz pundu, hitz eta guzti, baino abiada biziagoan.

Hirugarren aldiz errepikatzen da eszena, nahiko bizi orain. Motorista hamar segundutan ibiltzen da.

Trapezista....

Publikoari galdetzen dio

Erantzuna

Trapezista

(1) Belarriondoko bat ematen dio bere buruari

Erantzuna

Trapezista

Motoristaren eszena 5 segundutan

beldurrez

- Baina zer ari da hemen pasatzen!

- Motorista bat sartzen zela gela honetan iruditu zait, baina hemen inor ez dago...amets bat izango zen Bueno ia lo egiten dudan!

- baina baina zer da hau, ametsa ala benetako gauza bat? Hiru bider amets berdina egin ote dut-ba? zuek zer uste duzue?...egiazko motorista ba, ala ametsa?

- ba, ni ez nago seguru, ez dakit... bueno, orain prueba bat egingo dugu denok...Ni orain esna nago (1), ez? esna, ezta?

- ba, argia itzali egingo dut orain... eta ia zer pasatzen den, Ba dihoa, e? ba dihoa!

- ba, ez dakit, ez dakit zuek zer pentsatuko duzuen, baina...zuek zer pentsatzen duzue? benetakoa da ala ametsa?

Publikoaren erantzuna

Trapezista - Nik ere horixe uste dut, baina baezpa re Maria Txorakeriri galdetu ko diegu ...Maria Txorakeri, Señorita! zuk zer pentsatzen duzu, zer dela? ametsa edo....

Bestaldetik. Eserita fokopean. Une honetan aldaketa espazialari (B eszenarioa iluntzen da, publikoa Maria Txorakeri-ri begira dago) denbora aldaketa bat dagokie. Galdera horri (oraina) iraganeko zerbait bailitz erantzungo dio MTX-ek. Honela erritmo asko irabazten dugu. Errepetiziorik ez da behar.

MTX - hori galdetu zidan trapezistak, eta nik erantzun nion,barkatu mesedez-et faborez-faborez eta mesedez- baina benetakoa izan ala ametsa izan,berdin. Hemen egia haundiena, barkatu /(leloa)/ zera da, zuk ez duzula lo egiten, eta oso nekatuta zaudela.... zaudela zaudela zaudela...

Diska arraiatuaren gisa

OFF - Señorita! señorita! ez zaitez gelditu orain! Zer pasa zen gero?

MTX - baa, baa, baa, a bai! egun batean zirkuan AINGERUAREN SALTOAk egiten ari zela, ba,/mesedez .../ ikusi ikusi zer pasa zen.

Zirkuaren hirugarren eszenan kokatzen gara zuzenean. Argia.

Italianoa - eta orain, siñora eta siñori, azken saioa, harrisku haundikoa, molto pericoloso! AINGERUAREN HIRU SALTOAK! ...per favore, ixiltasuna gorde, saio honek harrisku haundia du...ixilik mesedez, danborrak

Erredoblea.

Baina, oraingoan, hasiko da saltoak egiten eta ...erori egingo da.

Trapezista lerri eginda dago.

Italianoa - barkatu, barkatu, publiko maitea... gaur ez da oso ondo arkitzen gure trapezista...tira! ezin baditu Aingeruaren hiru saltoak egin...ia salto erdi bat egiten duen...ia...danborrak!

urduri

Trapezista saiatzen da baina alferrik.

- barkatu, baina, ...escusi escusi prego, barkatu...Trapezista! ia aingeruaren salto laurden bat egiten duzun sikira!

Trapezistak dardar antzeko bat egiten du, besterik ez. Italianoa nigarrez hasten da.

- Maaa, mmamma mmia! hau desgrazia hau ezbeharra, trapezistak ezin du ezer egin, zirkua itxi beharko dut!

Maria Txorakeri berriro. A eszenarioa oihalarekin. Ilun.

- bai, bai, bai, zirkua itxi behar... eta trapezista lanik gabe, eta bi

MTX

Apunte ttiki hau "MTXek hartzen duen mendekantza" dei liteke. Umeak, seguru asko, oso ondo konprenituko dute "mendekantza" hau, eta seguru far egiten dutela, eta txalo ere bai apika. Azken finean OFF hori Guraso erritagilearen arabera moldatua dago, sinbolo mailan (kontzientzia gisa edo). Teatralki zirkuetako "pailazo zuri edo jakintsuaren" arabera jokatzen du.

Argia B jokalekura. Hantxe dago-zeharo erkitua-trapezista. MTXek esan bezala, laguntza eskatzen die bere lagunei, hots, haur ikusleei

Esakera serioa, parte meteorologikoa ematen ari bailitz. Dramatismoa ez da aberasten ñoñoki mintzatuz.

toneladatako logalea, ia hiltzen...hiltzen...hiltzen...hiltzen...

OFF - Maria Txo...

Altxatuz MTX - Ixo! ixo! mesedez!

- ba hiltzen ari zen trapezista gaixoa oso desesperatua zegoenean laguntza eskatu zien bere lagunei, esan zi faborez-eta-mesedez-mesedez eta fabor lagundu niri, bestela lo faltan hilko naiz eta!

- Begira nola nagoen, neka neka egina! nazkatuta nago...motorista horrek ez dit lo egiten uzten mesedez eta faborez, hurrena azaltzen denean, joateko esan, uzteko niri pakean...bestela lo faltan hilko naiz.

Motoristaren eszena. Publikoak (Maria Txorakeri-rekin batera) Joateko esango dio, fuera, kanpora. Baina ez dute ezer lortuko. Argia piztutzean bakarrik izkutatuko da. BI MINUTU, GUZTIRA.

Ohean eserita,..... Trapezista - ez dago zer eginik! Inori ez dio kasorik egiten motoristatzar honek... zer egin genezake, ...

B eszenarioaren alde batera dagoen Maria Txorakeri Señorita-rengana doa fokoa. Lekuz aldatu da.

MTX - eta hola desesperatuta zegoenean bere lagunak, ezta? hitz bat esan zioten, eta hitz horrek...bueno hitz hori TRONPETA zen, eta bere lagunak baldin ba zarete /(leloa)/ baldin ba zarete esan...TRONPETA!

B eszenarioa argitzen da...

Trapezista - ze hitz esan duzue?

Erantzuna - TRONPETA!

Trapezista - horixe! baina nola ez zait lehenago etorri burura! eskerrik asko!

Tronpeta bat ateratzen du ohe azpitik

- Tronpeta hau jarriko diot tubo-eskapean!...eta hola, zarata egin beharrean musika egingo du! eta nik oso ondo lo egiten dut musikarekin...oraintxe jarriko diot.

Itzaltzen du argia. Azaltzen da motorista eta trapezistak per-

sekutatu egiten du harrapatu arte. Tubo-eskapea buztan bat bezala ateratzen zaio atzetik. Motorrak marru egiten du, hutsean azeleratzen denean bezala. Jartzen dio tronpeta eta kolpetik tronpeta musika ezti-ezti bat entzuten da, ...

Argiak piztu

Trapezista - Orain bai egingo dudala lo! hori loa bota behar dut DANA! Azkenean, zuei esker, soluzioa bilatu dut! bueno, eskerrik asko! zirkuan ikusi arte! agur!

ARGIAK ITZALI

Motorista-musikalaria.

Zurrunkak.

Fokoa Maria Txorakeriari- - eta holaxe, ezta? bukatu zen ŧogalea zeukan trapezistaren kasoa, bere lagunei esker...eta hola, ba bukatu dela ezta?...eta faborez-eta-mesedez mesedez-etafaborez, baa HAU EGIA EZ BA ZAN SAR NAZATELA KALABAZAN!

Musika alaia. Argiak salan. Oihal AK jaisten dira eta aktore guztiak, gizoniloaren ondoan (A eszenarioan) agur esatera azaltzen dira.

An-ttom. Fu-tzeing:

Barcelonan, hazilak 5

Teatro lan ttiki hau bidaltzen diat. Dedikatzen zioat hire alaba halaber ttikiari (zerkuluz testuaren lehen letrak seinalatu dizkiat, hor zegok dedikatoria)...hogei urte konplitzen dituenean, esaiok hau: "Zuk bost urte izandakoan ikustekoa zen baina, tira, orduan ezinezkoa izan zen. Irakur ezazu-ba orain"...ustez landua zeok oso, eta interesgarria duk bere nimiñotasunean.

besarkada bero bat

Jozeba